



EUSKERAZKO IDATZ-LANAK



EUSKERAZ IDATZITAKO

LANAK

2.009 – 2.011'raño

ATUTXA eta AGIRRE'tar PAUL




BARROETA eta AMORRORTU`tar KLAUDIO eta ATUTXA ta AGIRRE`tar PAUL; EUSKERAZALEAK
ALKARTEAREN ETXEAN (COLON DE LARREATEGI 14 - 2ª) 2.009`an EPAILLA`ren 26`an
KARMELE`k ARGAZKIA ATARATA:



2.009`an Epaila`ren 26`an EUSKERAZALEAK-ALKARTEAREN ETXEAN URTEROKO BATZAR-
NAGUSIA EGIN GENDUNEAN. ARGAZKIA, FERNANDEZ ta ESKIDE`ter KARMELEK ATARA
EUSKUN.



BARROETA ta AMORRORTU`tar KLAUDIO eta ATUTXA ta AGIRRE`tar PAUL 2.009`an
EPAILLA`ren 26`an EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN ETXEAN (COLON DE LARREATEGI
14 - 2^a) URTEROKO BATZAR NAGUSIA EGIN GENDUNEAN:



2.009`an Epaila`ren 26`an EUSKERAZALEAK-ALKARTEAREN ETXEAN (COLON DE LARREATEGI
14 - 2^a) URTEROKO BATZAR NAGUSIA EGIN GENDUNEAN:

-AURKI – BIDEA-

IDAZ-LANAREN ZERRENDA

ORRI-ALDEA

I.....-AURKEZPENA.....	1
II.....-BARROETA 'tar KLAUDIO 'ren ABURUA, ATUTXA 'tar PAUL 'en BURUZ.....	2
III.....-KLAUDIO ta PAUL 'en ARGAZKIA.....	3
IV.....-"AGUR" SAN SEBASTIAN eta ZUBILLAGA 'tar JOSE MARI (LATXAGA).....	4
V.....-JAUNGOIKUA eta EUSKALERRIA.....	20
VI.....-BIDALGOA "BIDALGO-IKURRAK EUSKERAZ".....	30
VII.....-BEREZKO-ERRI ta GIZARTEAREN ESKUBIDEAK.....	40
VIII.....-BAKEA, ERLIJOA eta NORTASUNA GURE EUSKALERRIAN.....	45
XIX.....-"IZADIA ZAINDU", EUSKAL TOKI-IZENAK eta EUSKAL EDESTIA.....	54
X.....-EUSKERA DALA-TA.....	107
XI.....-"AGUR !!" SOLOZABAL ta SOLOZABAL 'tar PAULIN...	112
XII.....-ADIÑEKO 'akaz ITALIA 'ren BEALDETIK "TXANGOLARI".....	115
XIII.....-BIZKAIKO JAUNTZA EUSKALERRIAN.....	140
XIV.....-EUSKERA eta EUSKALDUNAK.....	222
XV.....-"AGUR !!" ERBITI ta ARBILLA 'tar BAKARNE (XOLE)..	226
XVI.....-ZORNOTZA 'n EUSKERA 'ren EGARRIZ.....	233
XVII.....-KARMELDARREKIN, PALESTINA ta ISRAELETIK "ERROMES".....	237
XVIII...-ZER ALDIZKARIAN X ATALETAN AGERTUTAKO "IZADIA-ZAINDU".....	271
XIX.....-1'go KARLISTADAKO-GUDA EUSKALERRIAN 1.833-1.839.....	332

AURKEZPENA:

Liburututako EUSKERAZKO idaz-lan onekaz, asten dot nire laugarren idaz-aldia "BARROETA ta AMORRORTU`tar KLAUDIO" Klaretar Lekaideagaz.

Bera da Olazar eta Uribe`tar Martin`en ostean EUSKERAZAINTZA eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN LENDAKARIA eta bere zuzendaritzarekin agertuko dodaz nire idaz-lan guztiak al-dogunerarte.

BARROETA`tar KLAUDIO, eneban esagutu arek eta EUSKERAZALE ALKARTEAN Lendakari-ordea izendatu arte, baiña benetan diñot, nire arritasuna gero ta andiagoa dala Apaiz-Lekaide gizon auekaz aurkeztean: "Aita Onaindia eta Bazeta`tar Santi, Olazar eta Uribe`tar Martin, San Sebastian eta Zubillaga`tar Jose Mari (LATXAGA), Latiegi ta Eraso`tar Bizente, Arrinda eta Albizu`tar Anes, Gaztañaga`tar Jesus, Barroeta eta Amorrortu`tar Klaudio eta abar. Sakonago ulertzen asi nazelako, euren, JAINKOA eta EUSKALERRIA`ri prestatutako bizitzak, asken arnasararte emon eta emoten dagozelako, daukien: "ADORE, MAITASUN, APALTASUN eta KEMEN guztiagaz".

EUSKALERRIAK, benetan daukazela zor andiak "APAIZ-LEKAIDE-GIZON" gogoragarri onekaz.

ATUTXA`tar PAUL

BARROETA eta Amorrortu`tar Klaudio`ren aburua, Atutxa eta Agirre`tar Paul`en buruz.


PAULO 2.009

ARTU EIDAZU, PAULO, AGURRIK BEROENA, ETA URRENGO USKERITXUETAN
KONTATZEN ETA KANTATZEN DEUTZUDUNA.

1-Zugan, Paulo, ikusten dot gauza bat bikaña, mundu onetan sarri nabari eztana: buruz argitsu izanik, biotzez oso ona, egia non dagoen billatzen jarduna, ixilka ixurtzen dozu zure ontasuna.	2-Egia bakarra da, egibide ugari, orregaitik dituzu liburuk erosi. Erosi ta beingoan dozuz irakurri, irakurri ostean barruan egosi, ta gero, egiaren ederra idatzi.	3-Liburu-zaletsua ta apala izanez maixuak euki dozuz, entzun deutzudanez. Maixu bakanak, egiz, jakin ta egitez, euskerazko arloan, antzekorik nekez. ¡Jarraitu egiezu, ekin ta ekifnez! Sorburu non dogun, ta zelan goi-xedea, zuzendu daikegun: <u>orain goiko-aberria</u> <u>eraikiz, gau ta egun.</u>
4-Iñoz esan dogu-ta euskaldun fededun, olagoxea, Paulo, zaitut nik ezagun. Fede onek dirausku,		

BARROETA ta AMORRORTU`tar KLAUDIO

*Barroeta ta Amorrortu`tar
Klaudio
Atutxa*



2.009`an EPAILLA`ren 26`an URTEROKO BATZAR-NAGUSIA`ren EGUNEAN.

“AGUR !!”

“SAN SEBASTIAN eta ZUBILLAGA ‘tar JOSE MARI” (LATXAGA)

1.987n. urtea ezkerro EUSKERAZAINTZA´ren sortzaillea ta kidekoa izan bazan be, nik 1.992´an ezagutu neban Latxaga, Aita Santi Onaindia´gaz batera, Donostia´n egon zan EUSKERAZAINTZA´ren batzar eta itzaldi batera joanda.

Aita Santi, 1.996´an Otsailla´ren 11´n il zanetik aurrera eta Deba´ko batzarretan aurkitzen giñanean, beti alegintzen zan nik ararte egiten nebazan gaztelerazko idaz-lanak alboratu negiazan eta Euskeraz asi.

Latxaga eta Olazar´tar Martin nire ardurean bat eginda egon ziran ezkerro, ez eben balio ezerren aitzakirik, nik Euskeraz idazten enekiala ezer-be esaten neutsianean.

Batak: “Konturatu-adi, Euskeraz idazten dozun itz-bakotzarekin, Euskalerraren etorkizunerako, aurrerakuntza aundia dala !”. Eta Martiñeri be bardin esan da, onek: “Ori konponduko dogu, zuk idatzi bai ! eta nik zuzenduta “ZER” aldizkarian argitaratuko doguz”.

Ortik aurrera, aukera ederrak euki nebazan LATXAGA sakontasunean ezagutzeko eta adiskidetasunean mamitzeko (intimar en la amistad).

Berak, ulergaitz´eko (complicado) gaixotasuna euki arren, ez zan sekula kikildu edo bildurri agertu, ausartasun andiz beti aurrera egin eban guztiz nekatu arte.

Nafarroa´ren Euskerazko arazoa izan zan bere buruko-min aundienetariko bat eta nigaz beintzat Lizarra´n euki eben etxean irten-tokitik asi-ta, eten barik ibili giñan: Zangotza eta Irunberriko ikastoletatik, Ueska, Jaka, Lodosa, Andosilla, Los-Arkos, Yebra de Basa (Aragoi), Martzilla, Zaragaztelu (Carcastillo), Agilar, Aralar´ko San Migel, Montjardin, Gares, Lizarra, Iruña eta abar, benetako azterlanean arakatzen.


Toki guztietan euki ebazan ezagunak eta ainbat galdera egiten eutsoen, gero bere liburuetan eta Diario de Navarra´n idaz-lanak argitaratzeko.

Nafarroa, 1.521´an guztiz menderatuta geratu zan arrezkerotik, beti egonda menperatzaille edo-ta Euskal-usaiña daukan gauza guztien aurkakoak diran´en kontrolpean.

Berak niri, jarrera ori egiztuteko eta Nafarroan ata-guzti Euskereak indarra eta asko irakurten zala erakutsi naian, gertaldi (anécdota) bigaz ziurpetu eustan:



Karmeldarren Eleizako gela baten EUSKERAZAINNTZA`ren Batzarra egin eta gero. Ezkerraldeetik asita: Egurrola`tar Iñaki, Fernandez`tar Karmele, Arzelus`tar Amale San Sebastian`tar Isabel, LATXAGA, Olazar`tar Martin, San Sebastian`tar Maritxu Barroeta`tar Lourdez, eta Uriarte`tar Ana.



Larrea`ko Karmeldarren Eleizan (Zornotza) Olazar`tar Martin`ek emon eban Meza Latxaga ezarrita dagoela.

Bata: Lizarra'ra joateko, sarri, Lizarraga'ko mendiketatik joaten giñalako eta ura edaten iturri bakar ta ederra dagon lekuan geratuta, beti aurkintzen gintzazan dagozan zakarrontzi biekaz gaiñezka dirala eta zabor beterik iturri ingurua. Argazkiak atara eta idaz-lan baten Diario de Navarra'n argituta, zakarrontzi areik eta iturri ingurua, sekula ez dira loi agertu gaurko egunerarte.

Bestea: Monjardin'era joanda, an dagoan bas-eleiza eta daukan edestia niri erakutsi naian, zain egoan eta Euskeraz ezertxo-be ezekien andra arduradunari baimena eskatuta, Jose Mari'k niri, daukan edestiaren irakaskizun ederra emonda gero, berak Lizarran euken etxera joan giñan bazkaltzera, eta nik bazkaria gertuten ibili nintzan bitartean, bera idazten asi zan, bere eritziz zer egin bear zan, goiko mendiaren gailurrrean geratzen diran edestian garrantzi andia daukien gazteluko ormazarren ondakiñakin, bas-elizan egin bear ziran konponketak aurrerantzean be edertasun guztiagaz iraun dagian eta noren ardurapean egon bear zanagaz, Diario de Navarra'n argitaratzeko.

Andik illa bi inguru joan gintzazan berriro eta giltza andra zaiñari eskatzen joan gintzazanean, berak auxe esan eutson. Oiga señor cura: "Nosotros somos quien ! para cuidar de esto".

Nondik jakin eban andra arek...., Jose Mari zala, Euskeraz idatzi eban idaz-lan ura ?.

Bazkaltzen eta egunaren gertakizunak adierazten gabizela, Jose Mari'k esan eustan: "Ikusten dok !. Ori da guk egin bear doguna. Napar-abertzaleak etxeko gauzakin arduratu daitezcan eta Nortasunezko askatasunaren bideak argituz, mendeko kontrolpetik urten dagian". (Ainbat-dagoz, oneik baiño askoz gogorragoak diranak)

Bere bigarren guraririk biziena Errioxa Euskalduntzea izan zan, Kalagorri, Ojakastro, Logroño'n Laminiturriko taldearekin, Barea'tik eta abar, nigaz ainbeste ibilita. Beti esaten eban Errioxa Euskal usaiñ-osoia daukala.

Ostera baten, Logroño'ko ikastetxe-Nagusira joan giñan, Lamin-iturriko taldearen Perujo'tar Jose Mari eta Martinez de Kubero'tar Martin'egaz alkar-izketa bat eukiteko.

Gazte auek, euren Euskal-ardura andian ainbeste galdetu, edestian arakatu eta euren lur-inguruak aurrez-aurre zutik begira ta azterkatu ondoren, guri, galdeziur bi-oneik aurkeztu euskuezan.

Lenengoa: "Eurak ez zirala Errioxa'tarrak, Naparrak baizik". Eta bigarrena: "Euren lurraldeko toki-izen edo deitura guztia Euskerazkoa zalako, nai-ta nai-ez arbasoen senidetasun eta sendimen etorkizunetik eurak Euskaldunak zirala eta Logroño'ko Ikastetxe-Nagusian bederatzi-kide osotzen eben Lamin-Iturri taldearen asmoa, Euskeraz ikastea zala gero zabaltzeko, politika'ko arloetan sartu-gabe".

Jose Mari'k (Latxaga) niri: "Ikusten dok...., EUSKALERRIA'ren semeak zelako lana daukagun gure aurrean Euskal-Nortasuna berrezkuratzeko ?".

Irakastaldi ederrak euki nebazan Jose Mari bidez eta benetan eskertu neutsezcan bizi izan bitartean. Baiña a-ta guzti, Euskalerrria bezela, zor andikoa naz berarekin eta bere bidez EUSKALERRIA'gaz zetan ezanik-gabe.



Ezkerraldeetik asita: San Sebastian`tar Jose Mari "LATXAGA", eta Olazar`tar Martin LATXAGA`ren omenaldirako ekarri ebazanak irakurten.

JAKINGARRIAK:

San Sebastian eta Zubillaga'tar Jose Mari (LATXAGA), 1.933'an Orrilla'ren (Maiatza) 21'ean Donostia'ko Aldakonea'n dagoan "LATXAGA" baserrian jaio zan. (Ortik datorko izen ordea).

Lenengo ikasketak Donostia'n Josulagunaren San Ignazio ikastetxean egin ebazan eta 1.949n. urtean batxillerra amaitu ebanean, 17 urtekin Gasteiz'ko Apaiz-gaitegira (seminario) joan zan eta an egon zan 1.955n. urtera arte. Andik, Paris'en Issy Les Molinaux'en dagoan Saint Sulpice apaiz-gaitegira joan zan ikasketak jarraitzeko.

1.958'an Paris'eko Notre Dame'n egin zan abade.

Mon Martre'ko eleizan, San Inazio ta San Frazizko'k, JESUS'eri eskeiñitzak (votos) egin ebazan otoiz-tokian (capilla) emon eban bere lenengo Meza.

Zortzi egun beranduago, Donostia'ko San Inazio parrokian emon eban Meza Tamayo'tar Alfredo Josulaguna sermoilari zala eta onek Euskerarik ezekian lez, gabeko ordu-biak ararte egon ziran, esan bearrak Euskeraz egokitzeke.

Paris'eko Saint Seberin parrokian (liturgia arloan arreta andikoa dana) laguntza-lana egiten ebala, Goi-Maillako ikasketak egin ebazan eta Teolojia'ko Dotoretza egiteko aleman-izkuntza jakin bear ebalako, Alemania'ko Freiburg'eko koloni batera joan zan aolku-emaille (monitor) eta aleman ikasturte bat egiten egoala bereala gaisotu zan 40° sukar eta 140 kopuruzko jakildurarekin (sedimentación), iñork ez ebana jakin zerenik izango zana.

Alemania'ko Freiburg'en dagoan Zahan-Kiefer-Klinik'era eroan eben.

An, goiko masailaren kutsadura gaitza igarri eutsen eta sei ebaketa egin ondoren, Euskalerrira, Donostia'ko etxera biurtu zan, ebaketaren zauri orreik orbaintzeko (cicatrizar) eta Freiburg'eko gaisotegira osterabe joan bear izan eban, zazpigarreneko ebakuntzan, masaillean plastikoz'ko protesi-bat ipini dagion.

Donostia'n Anoetan dagon ume-ezinduaren (niños lisiados) San Juan de Dios gaixo-etxera joan zan, lau urtetan auzuneko erretorea izan-da.

Ondorengo bost urtetan, OREXA'ko abade arduradun lez egonda, baserrietako nekazariai, ereiteko lurrak antolatu eutsezan, landara-motak lur-egokienetan erain dagiezan, fruitu ugari ta ederragoak artzeko.

Bearrezkoa zan argi-indarra be eroan eutsen eta bere abadetzazko artzain-jarduera egiten eban bitartean, emen idatzi ebazan liburu asko. Adibidez: "Euskal Arrobia, Aralar'ko San Migel, Jaka Oñez, Kukula'ko Donemilian (San Millan de la Cogolla), Oresa'ko Etxaguntza" (El Mayorazgo de Oreja) eta abar.

Beren ostetik, ez zan abaderik joan OREXA'ra.

1.972'an, Paris'era joan zan, Institutuko Katoliko'n Teolojia (1.976) ta Goi-Maillako Eskolan Giza-Iztia'ren (Antrpologia) (1.979) Irakasle-Mail edo dotoretzak amaitzeko, eta JAUNGOIKO ta GIZA arloetan mixutasuna euki eban lez, beste biekaz osotzeko Izkel-Izkuntzaren (Lingüística) gabetasunean aurkintzen zan, eta lortu eben Mauricio Mohlo'rekin berba egitea Izkel-Izkuntza bideratzeko, 1.983'an Sorbona'ko Ikatetxe-Nagusian egin ebana.



Ezkerraldetik asita: San Sebastian`tar Maritxu, Fernandez`tar Karmele, Uriarte`tar Ana aurrean Arzelus`tar Amale dekola, San Sebastian`tar Isabel, aurrean bere anai LATXAGA eukela, Barroeta eta Gorritxo`tar Lurdes, Egurrola`tar Iñaki, eta Olazar`tar Martin. aurrean belauniko Atutxa eta Agirre`tar Paul.

Emen esan bear da, jakintsuen aukeran egon zan iru illabeteko Ingeles-ikastaro bat egin eta ikastea lortu ebala.

Mauricio Mohlo ele-jakitun aipatuaren laguntzagaz Laterri-Batuetara joan zan, eta parroki batzuetan egonda gero, Nueva Yor'en, Manhattan'eko Notre-Dame eleizara joan zan laguntzaille lez, guztiz amalau urte eginda.

Laterri-Batuetan, España-giroko arduradun izan zan eta aukera izan eban Giza-Izti (antropologia) eta Teologo-lez lanak egiteko.

Mexiko'ko Juarez Uria'n, mixiolari-lana egin eban eta bere Donosti'ra biurtu bear izan eban osasunaren arazoak zirala-ta

A-ta guzti Euskera'ren alde idazten eta lanean jarraitu eban eten gabe.

Izkuntz ezberdiñetan idatzi ebazan liburuak –ez dira itzulpenak, berak idatzitako idazki jatorrak baiño-, (batez be Euskeraz, frantzeraz, gazteleraz eta englanderaz idatzi dau). Baiña Yor Barri'n egoala “kopto”en izkuntza be ikasi bear izan eban, izkuntza orretan bakarrik idatzita egoan Maria Magdalena deunaren bizitzea itzuli nai izan ebalako.



Berak idatzitako liburuak, bera egon dan lekuetako Ikastetxe Nagusi batzutan dagoz banatuta (Frantzia'n, Laterri Batuetan, Mexiko'n, Salamanka'n eta abar).

Norberaren eritxia agertzeko, sasoi ona ez zan aldi baten eta berak apaiz-ikastaroan euki ebazan arazoakaz kezkatuta egoalako, idazpuru au daroan liburuak idatzi eban: “Seminarioetan eziketa-lana egiteko bideak (1.964)”.

Egin ebazan goi-maillako gauza guzti oneik ikusita gero, iñork ezilei esan, adimendu andi baten jabea ez zala izan.

EUSKERAZ ARGITARATU DAUZAN LANEN ARTEAN ONEIK DIRA GARRANTZITSUENAK:

- Aralarko San Migel (1.973)
- Naparroa Euskal Arrobia (1.973). Maurizio Mohlo'k liburu au irakurri ondoren, tresna biurtuko zan, Jose Mari'k, Sorbona'n izkel-jakintzazko (lingüística) ikasgaien asteko.
- Errioxako San Millan (1.974)
- Oresa Abenda (Etnografia) aldetik (1.975)
- Jaka'ra Oñez Naparroan Zear (1.976)
- Arkaitzetako Bisigotiko Baselisak Araba'n (1.976). Euskeraz, Gazteleraz eta Frantzezez argitaratuta dagoena.
- Euskalerriko Sinodua (Eleiz-Batzarra) (1.984)
- Euskal Sena (1.999) liburuan, gure erriaren izaerea aztertzen alegintzen da, eta orretarako, bide bi artzen dauz. Lenengoa: aldizkarietan, liburuetan eta abar agertu diranen bidea. Eta bigarrena: Donostia'n, erritarren agotik batu ebezanak.




1.998`ko Loraila`n

"LATXAGA" eta ATUTXA P
LA "MADELEIN" mendi-
Eleizan.

Mendi au, Zuberoan
Atharratze-Sorholüzeko
errigunean kokatuta da
go eta Iruri`tik igon.
Sakontasunean: beti

edurtute dagozan men-
diak: "Ani, Iru errege
en Maia eta Ori" mendi
ak ikusten dira.

"Egun onetan, polizi-
frantzezak euki gendu-
zan atzetik"



2.001`ean Abendua`ren 14`an Aretxabaleta`ko Udal-etxe zarrean
San Sebastian eta Zubillaga`tar Jose Mari (LATXAGA) emon eban itzaldian
Peña`tar Jesus`en "AITZA" omenez



Lafrasa`ko Eleiz aurrean: San Sebastian`tar Maritxu, Arzelus`tar Amale, Fernandez`tar Karmele, Latxaga, Egurrola`tar Iñaki, Uriarte`tar Ana, Olazar`tar Martin, Barroeta`tar Lourdes.

- 1.960n. urte-inguruan asi eta gaur arte Euskeraz argitaratu dauzanak, 400 idaz-lan dira (Diaro de Navarra'n, -emen laguntzaille izan zan 1.971n. urtean asita euskerazko orrian, 2.002n. urtera arte), eta beste aldizkari Euskaldun batzutan, esaterako Zeruko Argia, El Diario Vasco, Goiz Argi, Zer, Euskerazaintza'ren aldizkarian eta abar.

Ikusten dan lez, bizitza JAUNGOIKOA eta EUSKALERRIA'ri benetan eskaiñi dautson eta txapela kendu bear dan gizon baten aurrean gagoz, benetako maitasunean euki dabezelako biak. Batari, ziñ-eskeiñita eta besteari bere biotz osoa emonda JAINKOA'ren LEGE-bidez.

Bere abadetzazko ardura, azkeneko ordurarte zaindu eban. Bagilla'ren (Ekainilla) 28'an, Zornotzan dagoan Larrea'ko Karmeldar lekaidetxean, Euskerazaintza'ren batzarra egin ondoren eta eleizan bere berrogeitamar urte apaiz-lez JAINKOA'ri eskertzeko Martin'ek emon eban Meza Santuan, nai-ta ezinezko egoera larrian egon, an euki gendu meza-laguntzaille lez meza-jantzita.

An egon ziran be, nekearen errukirik-gabe, bere bizitzan ainbeste lagundu dautsoen arreba biak Maritxu ta Isabel.

Eta Euskereai buruz, Euskerazaintza'ren urrengo aldizkariaren izango dan idaz-lanak antolatzen dala 2.008'an Abendua'ren bost'ean aratsaldeko ordu-biak zirala il jakun.

Ondore, Zorroaga'ko tanatoriora eroan eban eta an egon zan, ainbeste lagun eta ezagun ikusi dagian, Lizarra'n berak erosita euki eban arrillobian 2.008'ko Abendua'ren 8'an goizeko amaiketari illobiratu arte.

Bere obiratzeko apaiz-otoitzak, Elezgarai ta Elizondo'tar Imanol Donostia'ko Gotzaiña'ren ordezkioak egin ebazan eta bertso onegaz agurtu eban:

APAIZ JAKINTSUA TA ELEIZ MAITALEA,
EUSKAL KULTURA TA EUSKERA ZALEA,
EBANJELIO BIZITZAN MAISU-IKASLEA,
MUNDUAN ZEAR EREIN FEDEAREN ALEA,
AITA-ETXEAN IZAR BIZITZA OBEA.

2.008'an Abendua'ren 8'an


Eleizkizun eder bi egin eutsoezan JAINKOA'ri beren arimagaitik eskatuz, bata: 2.008'an Abendua'ren 12'an Donosti'ko Artzain-Onaren Eleiz-Nagusian Uriarte'tar Juan Mari Gotzaiak meza emon ebana. Eta bestea: 2.008'an Abendua'ren 15'ean Jose Mari'k maitasun aundian euki eban Estibalitz'eko Andra Mari lekaidetxean.

Zer geiago esan leike, Euskal apaiz-gizon ospegarri onen gaitik ?. Asko, eta geroago agertuko diranak zalantzarik gabe. Baiña batez-be:

EUSKALERRIAK, ZOR ANDIAK DAUKAZELA BERE APAIZ-SEME ABERTZALEAKAZ, ETA BATEZ-BE SAN SEBASTIAN ta ZUBILLAGA´tar JOSE MARI “LATXAGA”rekin.

- “EGUN ANDIRARTE” -

ATUTXA´tar PAUL
Zornotzan 2.009´an Urtarrilla´ren 13´an



Zornotza`n, Karmeldarren Eleiza aurrean 2.008`an Latxaga`ri egin geuntsen omenaldian 50 urte zituztelako apaiz-lez.

Ezkerretik asita: Olazar eta Uribe`tar Martin, San Sebastian`tar Jose Mari "LATXAGA", eta Euzkola`tar Iñaki



Zornotza`ko "JUANTXU" jatetxean: Uriarte`tar Ana, Latxaga, eta Olazar`tar Martin.



Ezkerretetik asita: Barroeta`tar Lourdes, Fernandez`tar Karmele, Uriarte eta Euba`tar Ana, San Sebastian eta Zubillaga`tar Maritxu, San Sebastian eta Zubillaga`tar Isabel eta Arzelus`tar Amale.

- "JANGOIKUA eta EUSKALERRIA" -

AURKEZPENA:

Gai-Izadi onetan, Homo Sapiens, Euskal-Kromañon (edo betikoa dan gaurko giza) laster konturatu zan, Mundu au eskeintzen eutsozan fruituetatik elikatu bear zala eta konturatu-be, orretarako antolakuntza on-bat bear ebela, bakez bizitzeko.

Milla urte askotako il-biziren jakintzazko aztura-bidean, euken arrazoitasunezko egokitasunean, gauza eder bigaz konturatu ziran: a) Mundu au, BATEN baten-gogamena izar bear zala, guk bertan beste urten biderik ez daukagulako. Eta b) Danon eskubideak bardiñak izan da eta bizitzan bakez iraganatzeko, Mundu onetan guk, eragilletasunaren (gestor) arduradunak bakarrik izan gaitezkelako.

Or, sartu ziran ordezkartzazko lotsean eta konturatu, bide bakarra dala gure erabiltasunezko bizi-ekintzan.

Gaur, ete-dogu beste aukerarik ?.

Mundu onetan, gaia banatzeko jakintzazko maillan artu doguzan neurri andiak, jakintsuakaz batera, esaten dauskue ezetz.

Ludi onek daukazan JAINKOA´ren LEGE´ak, nai-ta gai-gauza bakotxak amai-gabetasunezko aukerak euki, mugi-ezinezkoak dirala, eta gure arbasoen asieran lez, guk gauzetan egin bear doguzan ordezko ardurak, eurak eskatzen daben zentzuzko eran bakarrik egokitu leikezala.

Beraren Fisika´ko LEGE-bidetik kanpo, ez daukagulako bizitzaren aukerarik.

Zer gertatzen jaku gaur ?.

Gure arbasoek, Paleolitiko-Neolitiko aldi-bideko ekintzan, Demokrazian lortu eben jakintzazko goi-maillaren jendekuntzari (civilizaciòn) esaten jako gaur "Atlantida" aldia zala, ekintzazko ardurak, egipideko yaurbidean (gestiòn) bear danez egin ebalako.

Paleolitiko-Neolitiko aldi orreik, ez eben euki beste izkutuzko gauzarik, ordezkartzazko lotsean oreka aundiak lortu egin ebezala besterik baiño.

Leifñuen auzotasunean egokituta, bizitzari zentzu andi bat emon eutsielako.

Euskeraren izkuntzazko abots-sorburutik asi ziran euren arrazoitasunean ulermentzeko, Mundu onen zabaltasunezko toki-izenak eta izkuntza geienak euren barreneko sorburuetan eukin-da erakusten dabelako.

Eta orduko euren zabaltasunezko lur-bitarteak andiak izan da, izen-abots sorburu batekoak izan arren, izkuntz bardin antzekoetan egokituta geratu ziran.

Gure arbasoak JAINKOA´ren LEGE´an, NORTASUN andikoak izatera eldu ziralako, zentzuzko bakean egokituta geratu ziran ainbat milla urte.

EDESTIAREN SARRERA:

Lurrak lantzeko eta Jakintzazko tresneri-arloetan, Eki-aldekoak Mendebalekoak baiño iru-milla urte aurreragotuta, berton-be ariñago asi ziran maltzurrezko guzur eta sasi-jainkotasunaren norkerizko bidetik.

Norkerietan ibilten ziran gizon-emakumeak, euren ameskerian eta berarizko legezkoak (privilegiados) ziralara sinistuta, sasijainkotasunezko bizitzak asmatzen asi ziran.

Ortik aurrera, bereztasunaren LEGE´ak asi ziran maltzurtasunezko ekintzan okertzen, eta leiñuak ararte bizi ziran berezko LEGE´an ondo egokituta, zirriborrotzen, bai izkuntzetan bai oituraren ekanduzko jaurkintzetan.

Persa´k, urrin eroan ebezan amets gaizto orreik eta Europa´ko Mendebal guztia saiatu ziran menperatzen. Grezia´ren Demokraziak bidera urten da, medikas´eko guda bidez, sasi-naikunde orreik ezereztu arte.

Baiña, norkeriaren sasizko-gaitzaldi orreik, izurritu egin ziran, Etrusko´en aberastu-nai egipidetik Mendebaleko Europa´n sartuko ziralako Persa´k euki eben amets bardiñak, erromatarren asmakuntza sortu ebenean.

Erromatarrak jaio ziranetik 1.078 urte beranduago, Europa´ko leiñuen endak ta izkuntz guztiak erdi zirriborrotuta (desdibujados en su naturaleza) euki ebezanean, maldabera andian sartu ziran.

Eta maldabera orreitan ez eben euki erruki-gabekeririk (crueldad, inmisericordia) eta gitxiago lotsa-gabekeririk (desverguenza, insolencia), ararte JESUS´ek JAINKOA´ren LEGE´an aukera barri baten bizi gaitezkan irakatsi euskuezanak eta indar andia artzen joan zana, eureganatu arte.

Kontuan euki bear da, erromatarrak esets-aldi itsuan eta benetako odol-zalezko jazarraldian (persecución sangrienta) euki ebela Kristautasuna.

JESUS´en Eleizan-be sasi-norkerizko izurri (epidemia) ori sartuta egoan antza, Nizea´ko Eleiz-Batzar Nagusia batuta, Munduan Kaizar eta Eleiz buru baten jauntxukerian batzangotuta bizi gindezen, ziñeskintzazko (dogmatismo) erabagi gogorak onartu ziralako. JAINKOA´k bizitz oneri emon eutsozan Nortasunezko aukereak ordezeko arduran izan ta bizi gindezen, guztiz arbuiatuta (despreciar).

Erromatarrak ortik aurrera, JESUS´en irakaspen eder orreik euren sasi-eratarara alderdi-kidetu egin ebezan KATOLIKOTASUN izenagaz, eta aurrerantzean, KRISTAU´tasun guztia siniskai-arau nastuz ta milla zatitan banatzeko ate-bideak ezin-besterarte zabaldu ziralako, or gabiltz, BEREZTASUNAREN LEGEZKO BIDEAK aurkitu ezinik.

Europa´ko Mendebalean, erromatar-kaizar eta Godo guda-zaleak aienatu ziran, baiña kaizartzarekin osotzen eben erlijiozko beste alde-katolikoa, Ekialdeko kaizar laguntzaz geratu zan indartsu, eta Europa´ren berezko erriak milla-urte askotan euki eben NORTASUNEZKO jaurkintzaren antolakuntz Demokratikoak, ezereztuteko bideak artu ebezan, katolikotasun alderdi ori, erromatar kaizar legeakaz baldinpetuta eta danon aolkulari bakar lez geratuta,

aukera guztiak bere eskuetan geratuaz, apurka apurka mendeko asmakizun orreik garaipentzeko, gaur argi ikusten dogunez.

Mundu onetara ez gara jaio JAINKOA´ren ordezeko ardurak artzeko, BERA´k eskeiñi egiten dauskuzan gai-mirari onen aukerak, danon eskubide bardiñean ardura andiz, aldun antolakuntzazko ordezkari onenean egiteko baizik, BERE´n BEREZKO LEGEA´k erakusten dauskun lez.

EUROPA´ko EDESTIA´ren EMAITZA :

Vn. Gizaldian, Frantzia´aren Galia´ko andiki batzuk, erromatar legeak eta Kristautasuna ontzat artuta euki ebezalako, erromatarrak bisigodo eta borgoñez´ei baimena emon eutsen Galia´ko Ego-aldean eta Rodano´ko ibarretan elkar-zale baten antzera agindu egien.

451´n Bisigodo´ak eta galo-erromatarrak Aezio gudal-nagusiak bideratuta, Atila´ri, Katalaunikos´eko guda-tokian geratuazo ondoren Frantzia´ko Iparraldean Franko´tar salio-leiñuak kokatu ziran eta 481-511n. urte bitartean euren erregea Kristautau biurtuta, merobinjio´ren leiñua sortu eben. (Euren gaurko edestian ortik asita).

Gurea edo Nafartar erreiñua, zortzi-bederatzigarren gizalde asieran erregetzazko antolakuntza orreitan sorturikoa da, eta leenengo egunetik asi-ta Europa guztia-lez, erromatar kaizar-sakratu-legearen txeberazko sare-arte orreitan atzipetuta (entrampado) geratu zan, bereztasunaren ekanduzko arnasa artzen, eta zentzunezko argitan agertzeko, irten-bide barik.

Euskalerriko batzarrak eta antolatu ziran errege-jauntzak, Jesukristo´ren sinismenekoak oso-osokoak izan ziran eta siñiskor beren ikurriña aupatu egiten ebenakaz.

Baiña auk, beste norkerizko elburuegaz jokutzen eben eta ekintza orren bidez, Nafarroa´ko erregetzan sekula ez zan agiri-bat Euskeraz idatzi, eta latifñez ez bazan izaten, erriak ez eban ulertzen gaztelar zirriborrozko latin-kumean egiten eben.

Europa´ren errege-jauntza guztian, Nortasunezko-erriaren antolatzailezko (arbitros, mediadores) egipidezkoak izatearen bidetik, erromatar-kaizar-sakratuzko legearen bidez, errege-nausitzar (dictador) izatera aldatzea gura eben eta euren nortasun-gabeko batzangotasunaren elburuak lortzeko itxaropenean, etenbako maltzurrezko-guzur ekintzan asi ziran.

Demokrazizko elburu orreik, katoliko ta kaizar legeen biurkatuzko aolkuarekin (consejos retorcidos) erasota, eta errege-jauntza Godo´en goitik-berako antolakuntzan ezartzea lortu ebenean, norkerizko agin-zalekerien anditasunak asi ziran bideratzen euren arteko ezkontza bidetik euki eben aukereagaz, eta euren buru gaiñetan erromako kaizar-sakratuaren domiña andi ori (medallon del sacro-imperio) dindilizka ipinita, guda-indar andiena euki ebanak arrapatu egian, Europa guztia izugarrizko odol-jario (espantosa sangria) negargarri baten agertu zan.

Baiña batera, errege-jaun orreik euren itzarmeneko antolarazian asmo txarrak euki arren, indartsu agertzeko, erriak euki ebezan oiturazko legeakaz zuzendu (gobernar) bear ebezan, eta nekez lortzen eben elburu orreik, erritarrak, elizkizun eta erromatar-godo goitik berako antolakuntzaren zergakaz, guztiz negargarrizko txirotasunean euki ebezalako.

Nortasunezko erritarrak nai apaiz edo erri-gizon izan, zerga, makillaka eta sinismen bildurragaz alde batetik eta bestetik arbi-gorri edo azenarioa eskeiñita, ez eben lortzen euren Nortasunezko Baitan (conciencia) buruak makurtzea, erregeak-be aldi berean norkeriak daukan lillurakin (atractivo) eta euren BAITA'k eskatzen eutsezan zuzentasunarekin borrokan, oso nastuta egon ziralako.

1.450'etik aurrera baiña, tresneri bidez, lortu ziran aurrerapen andiak euren eskuetan eukin da, menperatasunezko aukerak erreztu jakiezan.

Baiña, XVIIIIn. gizaldien askenerantza, batzangotasunaren asmakuntzazko erromatar fazizta eritzikoak, jakintz-aukeratan lortzen ziran aurrerakuntzakaz eta Europa'ko indar guztia euren eskuetan egonda, batera, errigizartearentzat be arrazoizko argi-izpi geiago sartzen zan morroitasunetik askatzeko.

Eta nai-ta une areitan, errigizarteak ekanduzko arloetan ainbeste lokatzazko nastetasunaz erdi zorabiotasunean egonda, ezin ebela lortu agin-zalekerizko elburu orreik ikusita, beste erabagi gogor bat artu eben, Frantzia'n iraultza-arazi'ta (1.789). Europa guztia guda-indarrez laterritu ebena, fazizta andiena dan erromatar kaizar-sakratuaren legepera, zuzen osterabe, bideratzeko.

Europa, eta Frantzia'ko erregea, batez be, euki eben erri ezberdiñeko antolarazitik (arbitraje), iraultza orregaz, erregea, jaurkintzaren guztizko eskubideekin jantzita, Frantzia'ko errege izatera aldatu eben, franko'en izkuntz bakarrean laterrituta bizi ondoren, ia errigizarteak euren NORTASUNETIK ataraten ebazan.

Ez dira lortzen aih errez, maltzur-mendetasunezko elburu orreik, giza ta errigizarteak euren BAITA'n, JAINKOA'k irarrita daukana (ordezko ardurak zentzu andiz egipidetzeko), euren okerreko-borondatez ez ba-dabe uzten edo arbuiatzen.

Gaiñera, giza, eten barik berriztu egiten da JANGOIKUA'k emoneko BAITA'gaz agindu bardiñean.

Danon arduraren ekintzan, NOR izatea edo NORKERIETAN ibili-nai, zalatzazko tarte ori da, burrukan ipinten gaituena eta geiago, Mundu onen jakintsu andienak norkerizko bideak erabagitzen dabezanean.

Arrazoi ori izan da egille, Mundu eta batez-be Europa'ren edesti au ekarri dabena negargarrizko odol-jarioz (cruentamente, sangrientamente) baten.

Ikuspegizko (panoramica) au, ain nabari izan da, aurrera egin ?.

Eta nai-ta Europa'n, norkeriaren bidez, baiña fazizta erromatar kaizar-sakratuaren legezko elburu bardiña daukan, beste negargarrizko gertaerak euki. Adibidez: Napoleòn, Mundu'ko lenengo-guda nagusia, Franco, Hitler,

Mussolini, Korea eta abar. Gaur, erromatar fazizmoa sortu zan ezarpen edo jarkera bardiñean aurkitzen gara.

Zelan urten, fazizta dan sarezko txebera orretatik ?.

Ez da izango erreza, euren aurka jaio ziran sozialistak-be, kutsugarritzko (contagioso) izurri orrekin mendetuta ta Nortasunaren aurkakoak agertuz, menperatzaillak biurtu diralako.

A-ta guzti, menperatzailletasunezko ekintzarekin konturatzen asi dira, berezko errigizarteak arduratik kanpo eukin da, ezin dala zentzuz aurrera egin.

Norkeriaren eritzian bizitzeko, bear doguzan mozkin guztiak euren kontrolpean eukin-da gertatzen diralako, gaur Munduan gertatzen dana, eta ia amiltegitik jausteko larri-aldira ekarri dauskuna. JAINKOA'k BEREZTUTAKO LEGE'ak ez dabelako geiagoko baimenik emoten.

O.N.U'gaz agertu jaku beste itxaropen barri bat, nai-ta bere sorralditik daukaguzan laterrizko agintariekin osotuta egon arren, gertatzen diran bidegabeko gauza guzti oneik ikusita.

O.N.U. konturatu dalako: 1.941'eko Dagonillan Roosebelt ta Txurtxil'ek, batera eginda, eta gero Errusia ta Ingalterra'ko agintariekin, Atlantiko-eskutitzan erri ta gizon-emakumeen eskubideai buruz agertu eben, Mundu guztiarentzat guda-nagusiren ostetik aurrera, zeintzuk izan bear ziran ardatz-demokratikoakaz, aurrera egin bear dogula.

1.943'ko Azaroan, Teheran'eko batzar-izketaldian Roosebelt'ek berriz baieztu eban.

Mundu'ko Aberrien elkartu baten, errigizarteak demokrazian bizi gaitezana: "Barriro artu bear dira giza ta BEREZKO errien eskubideak".

Leen: "Gure bizitza fazizmoaren lokatz onetatik urten dagian".

Eta bigarren, Mundu'ko gizarte guztia osterabe, Paleolitiko-Neolitiko aldia lez: "JAIOTEN GARAN ORDEZKO-ARDURAN BERRIZ EZARRITA, JAINKOA'k BEREZTUTA IPINITAKO LEGEA'k, GURE BAITA'k DAUKAN NORTASUNEZKO ZENTZUAN BETE DAIGUZAN".

Gaur O.N.U., orretarako asi dan atonduten (preparar), Mundua'ri itzuli osoa emongo dautson bide-aldi berrikari bat, Munduko erri ta gizarte guztien eskubideak lotsean artu eta lortu arte lanean asi gaitezana 2.009'an Urrilla'ren 2'an Australia'tik urtengo dau.

JAUNGOIKOA EUSKALERRIAN:

Homo-Sapiens jaio zanetik, guk daukagun BAITA'gaz (Alma, conciencia) jaio zan eta arrazoibiderako daukagun argibide bardiñ edo almen'akaz (posibilidad).

Ez ziran ergel edo leloak, daukagun BAITA arduratzen dalako zorokerietan ez gaitezana bizi.

Zeru-lurrak betikoak izan da, laster konturatu egin bear ziran (goian esan dodan lez), danak bardin jaiota, ordezkarietzako arduratan danak eskubide bardiñekoak zirala, eta bakoitza NOR izan zala bizi-ekintza orreitan.

Eurak, gai onek bizitzeko eskeiñi eutsezan mozkin guztiaren arrigarritasunean, laster konturatu ziran JAINKOA´ren gauza izan bear zala eta zerura begira eskertu eben, egin bear ebezan gauza guztietan.

Sinismen andikoak izan bear eben, bestela euren ulermenerako leenengo Euskal abots´etik asita ez eben lortuko gaur daukagun sorburuko izkuntz ederra, bere eginkizunean itz-bakotza, Izadi onek beren BEREZTASUNEAN daukazan JAINKOA´ren LEGEA´n IRARRITA (impreso) DAUKAGUZELAKO.

Eta gitxiago, eldu ziran DEMOKRAZIZKO ULERMENERA, Paleolitik-Neolitiko bitartean egokitu ebena eta gaur, gu garena gertakizun orren aitortzaile (testigos) bakarrak.

Egi-zaleak be ba-gara, milla urte askotako azturazko-bide ekintzan, gure erri onek bereztutako oiturak, egizko edo zentzun andikoak izan diralako beti.

Bestela, nundik nora gaurko Euskalerraren IZAERA ?.

Begitu nun dagoen orren MIRARIA.

EUSKALERRIA´ren EDESTIA:

Oraifñarte esan doguna, ez jakon gertatu EUSKALERRIA´ri.

JAINKOA´ri begira, bere sinismen Demokratiko sendoan Neolitikotik ona, iñork ez dauelako menderatu.

Menperatzailletasunezko fazizta indar orreik euren eten-bako eraso bidetik lortu ebena, Euskaldunak Britania´tik Kadiz´era eta Atlant-Itsasotik Alemania´ren zabalkundeko lurraldean bizitzeagaitik, gaur Adur-Ebro ibaiaren bitartera murriztutea baiño.

Orregaitik da beste edesti bat Euskalerrarena.

Gure arbasoak, JAINKOA´ri begira, bizitz oneri emon eutsoen adierazpen Demokratiko ederrak, ez dabezelako ezereztutea lortu.

Sinismen ori da, Euskaldunok eutsi bear doguna eta EUSKAL-NORTASUNEZKO gorputzan daukaguzan IZKUNTZAZKO eta DEMOKRAZIZKO ZAURIAK SENDATU, berriz OITURAZKO-ZENTZUAN osasun ederrenean agertzeko.

Orretarako, GEIEGIAN DAGOZ, leerkai ta izkillu guztiak. BAITA´ren arrazoitasunezko eztaibadak, zentzunezko beste biderik ez dagoelako, arrazoi-bidez konpontzen diralako beti.

Euskaldunen gorputza il egin leikie, baiña Euskal Nortasunezko sinismena IÑOZ EZ, len esan dodan lez, gu Euskaldunok OITURA eder ortatik okertzen ez ba-gara.

Eta orretarako, adibide onegaz argituko dot.

NAFARROA'ko ERREGETZA, jaio zanetik egoan, ezereztu edo iltzera-zigortuta.

Indar andiko Fazizta mandarri (apisonadora) ori: Mendebaleko-Iparraldetik Franko'en kaizartza; Ipar-Ekialde'tik kaizar-sakratuaren aolkularitza; Eki-Egoaldetik aragoi'tarrak: eta Mendebal-Egoaldeko gaztelarrakaz batera, noz iruntziko etsai inguratuta geratu zalako, beste igespiderik baik.

Iparraldeko Franko'en erregetza, erromatar kaizar sakratu nagusikeriaren eritzikoak ziralako.

Ipar-Ekialdetik, kaizar-sakratuaren aolkularitza, Nafar-erregeak noz eskomunikatzeko (excomulgar) zain, edozein printze artu dagian Nafar-agintaritza. (Erromatar kaizar sakratuaren'gandik, alan egon zalako legeztuta).

Eta III Santso andiak, bere agindupeko lurraldeak, lau semeen artean bananduta, Aragoi eta Gaztela'ko erregeak, kaizartza oren eritzikoak biurtu ziralako.

Etsaiak ez eben euki beste bearrik, eten-bako eraso aldi baten ekin baiño.

Nafar-erregeari, ez eutsen balio gurutzadetan ibiltea, Kristautasun, Aragoi ta gaztelatarrai mauritarren aurka laguntzea, eta III Juana'rekin erromatar kaizar-sakratuaren aolkularitzatik aldentzeko ukalari (relig. protestante) biurtzea. Ezerk be ez.

Nizea'tik aolkularien jakintsuak erabagi-okor ori artuta euki ebalako, epe luze baten Europako gizarteak batzangotuta, eta ondoren Mundu guztia fazizta buru baten agindupean morroi-lez eukiteko.

Nafar'tarrai leenengo aginkada 1.512'an Uztailla'ren 21'ean Fernando katolikuak emon eutsen.

Bigarren, irugarren eta laugarren aginkadak: 1.521'ean Bagilla'ren 30'an Noain'en; 1.522'an Uztailla'ren 19'an Maya'n; Eta 1.524'an Otsailla'ren 29'an Ondarribi'n, I Karlos'ek emon eutsezan, Nafarroa'ren askatasunezko ikurriñak beratu arte.

Nafarroa ortik aurrera gaur egunerarte, faziztaren guda-legezko eskubideakaz, euren kontrolpean daukie, nai-ta galdu ez arren NORTASUNA'ren sinismena.

BIZKAI'tarrai, ez jakun gertatu ainbeste, Bizkai'ko jaunak itzarmen bidez artu edo izendatu genduzenean, Euskal Nortasunaren jabetzazko legeak, erri edo Gernika'ko Batzar-Nagusiaren eskuetan zuurtasun andiz zaindu ziralako.

A-ta guzti, gure jauntza gaztelar erregeen eskuetan jauzi zanean, eragozpen galantak euki genduzan, jaunak euki eben eskubide bidetik.

Jauna'ren eskubideko guda-baldintzan: "Gure lurrak babesteko guda-mutillak soldata barik eukiteko, eta gure lurratik kanpo berari laguntzeko beartuta geratu gifelako, soldata ariñago ordainduta". Danon aolkulari zanaren maltzurkerizko guzurrekin bidez (dana balio eben antza, Izadi onen batasuna lortzeko), Euskaldunak, beti ibili gintzazalako anaien artean borrokan.

Bizkaitarrak, askatasun geigorekin bizi gintzazan, arek eta Frantzia'ko iraultzaren ostetik, euren ezin geiagoan maltzurtasunezko-zentzunari eutsi,

1.876'an guda-bidez gure BEREZKO eskubideak kendu arte. 1.936'an Franko'k bukatu ebana Hitler ta Mussolini'ren laguntzagaz.

Nafarroa eta Bizkai'ko gertakizun bi orreitan azaldu doguzanen artean, alde andia dago, eta berak egizatzen dausku, gure gaurko Euskal-Nortasunezko-Sinismenaren eskubide alde, daukaguzan aurkako zalantzak, nai-ta nai-ez, alkarizketaren bidez konpondu bear doguzela.

Nafarroan adibidez: "gaztelarrak ipini eben ormaren neurritik kanpo burua ataraten ebenai, Billalonga'tar koronelak moztu egiten eutselako". Eta Bizkaitarrak itzarmenduta egon giñelako, nai-ta anai-artean beti borrokan ibili, Nortasunaren-Sinismeneko zauri txikerragoakaz urten gendun, aukera dagonean, gure Nortasunaren babesean urteteko".

ONDORIOA:

Alde-batetik: Mundu'ko jakintsu ta agintariak, orain asi diralako Erri ta Gizarteen Nortasunezko Eskubidearen alde.

Orregaitik, orain eldu da gure Nortasunaren babeserako ordua.

Eta orregaitik, ORAIN, BERTAN lerkai eta izkilluak alboratzea. Ekintza orreikaz, GUZTIZ "EUSKALERRIA'ren ETSAI" biurtzen garalako.

Bestetik: Internet'etik ibilten nazenean Alfontso Mtz. Lizarduikoa'ri anai-lez diñotsat: "EUSKALERRIA :CULTURA e IDENTIDAD"-ean idazten dauanarekin guztiz adoz nauela, baiña ez, oraiñarte egin danari emoten dautson jardunbideagaz (tratamiento).

Goian ikusi dogun lez, EUSKALERRIA'ren Askatasunak Nizea'tik gogortzen asi-ta, beti egon bear izan dau zain beren Nortasunezko Askatasunak babesteko, eta gauza orreik ez dira 30 urtetik ona bakarrik egiten. Gitxiago sinistu, edestiaren Ekanduzko denbora guztiak bardiñak izan da, aldi-bereko Ekandua'ren oreka'gaz neurtzen diralako. Eta neurri orreitatik kanpo ba-direz, danok dakigu okerrean gabizela.

"CARACTERISTICAS DE UN PROYECTO CULTURAL BASCO"-an, Maltzur-guzurtiaren karta'k gaur-lez, beti egon dira markatuta, guzurra dalako daukien ikurra.

"INFRAESTRUCTURA PARA ASEGURAR SU GENERACIÓN Y REGENERACIÓN": Gaur eta beti zer gabiltz egiten ?

Gaiñera: Bereztasunaren Abertzaleak betiko legeagaz adoz egonda, beti joan gara zuzentasunezko bidetik eurak baiño aurretikoak izan da, ez dogulako oinkadarik galtzen eurak bezela, zankartekoak ipiniaz galtzen dabezelako urrezko denborak.

"LA CULTURA VASCA ACTUAL UN SATELITE DE LA CULTURA ESPAÑOLA Y FRANCESA": Ez Frantzez ez Español jakintzazko oiturak (jendekuntza) daukie Euskalerrriak oituratutako erri-jakintzagaz zer ikusirik.

Gaztelera, latiñ eta Euskerearen bitartetik sorturikoa dalako eta frankoen izkuntza latin kumetuta dagoelako.

EUSKAL-IZKUNTZA, antziñatik dauka Paris'en iragarkia, izkuntz-
guztien gaiñetik, sorburuzkoa dala esaten.

“QUE ES LA CULTURA VASCA ?”: Euskal jendekuntza...., “Izadiari,
gure arbasoagandik asi-ta gaurko aldirarte, azturazko jakintzan emon jakon
berezko bereztasunari adierazpen ederrena”. Ekanduzko lotsean eginda dagoela
esan gura dau orrek, JAINKOA'ren LEGE'bidetik ez dauelako sekula kendu
edo okertu beren elburuzko begirik.

Gure Nortasunean edertzeko, EUSKEREAN daukagu irarrita,
JAIKOA'gandik begia kendu barik, bere egikeran ibili eben tresneri guztia:
Lotsa (respeto) ta begirune andikoa (honestidad, recato), ulermen andia
(inteligencia), zuurtasuna (prudencia, discrección), egi-zaletasuna (amante de la
verdad), bere BAITA orekan eukiteko zentzu andia (de gran sentido comun para
responder a las exigencias del alma), arduratsu (diligente), ordezeko-legean oso
zeatza (minucioso, puntual), langille-zail edo aspergabekoa (incansable,
infatigable en su quehacer), nor-beragandik asi-ta sendia ta aberriaren zaindari
andi ta zuzena, eten-bako langille trebea eta abar.

Euskerearen gaztelu eder-au egiteko, itz bakoitzaren elkartzea, aipatu
doguzan ezaupidezko (premisia) oiñarri orreitan landua dagon ezkerro eta gure
NORTASUNA beragandik artzen dogulako, ezaupidezko oiñarri orreikaz
osotuta edo jantzita dago.

Eta bizitzazko izaera onetan, iñor ez dalako jantzi orreikaz nortasunduta
jaiotzen, amaren Euskeratik leen eta gero erri-jakintzatik, lortzen doguz
izatasunaren zentzu-eder orreik.

Mundu zabalean agertuz, Euskaldunak beti itxi dabe zentzudunen izaera
ona, eta beti izan dira gizon-jakintsuarentzat atsegingarriak.

Euskerea orregaitik ez da artu-emoteko TRESNERI-UTS bat.

Nortasunez jantzi egiten gara, izkuntz bakotzak daukan JAKIN-
ZENTZUZKO-NEURRIAN jantzita, bakotzaren bereiztasunak agiri-agirian
azaltzen doguzanean.

Españolatarrari zelako zentzua emoten dautse gaztelereak ?.

Erromatar-menperatzailetasun indarragaz, latiña Euskerea mendetu naian,
agertu zan gazteleraizko zirriborroagaz espāñolak jazten dabe, eta.... EZ DIRA
MENDEKO ASMAKIZUN ORREIKAZ AGERTZEN ?. Izkuntzak badaukie
zer-ikusia bai, erri-bakotzaren izatasunagaz.

Ezin da esan zuk esaten dozuzan Euskaldunak oituratuta daukaguzan
demokrazizko LEGE-ZARRAK, kristauak eta monoteistak dirala edo eta orren
antza emon gurean, usai orregaz agertzen dirala, ainbeste milla urte Neolitiko
aldian agertu orduko eginda egon ziralako.

Eta Euskalerrriak aldi-orreitako Ekandu arloan, egoan erromatar kaizar-jaun
odoljariozko agindukeriaren aurka, JESUS'en MESUA BEREZTASUNAREN
ZENTSUAN EDERRA ZALAKO eta EUSKALERRIA'k on artu ebalako gaur
arte, Gure “LEGE-ZARRAK” Kristau ta Monoteista dirala esan ?. Ez dauka
zentzurik.

Eta gitxiago ARANA eta GOIRI'tar SABINO'renak dirala, Sabino'ri Orduña'tik Bartzelona'ra Erbesteratutako lekaide bat irakatsi ondoren, Euskaldunai jakin-arazian ipini euskulako.

“EL SECUESTRO DE NUESTRA HISTORIA”: Euskalerria'ri, iñork ez dautso kendu daukan Askatasunetik ezer. Ikaragarrizko alegiñetan dabiltz baiña, ezer lorturik gabe.

Lortu dabena, gure lurratan murriztutea, baiña sinismenean ezer lortu gabe.

ZER LORTU DABE EKINTZA ORREIKAZ ? Barregarrizkoak izatez gain...., Euskal, Katalan, Aragoi, Errioxar eta gaztelar gizarteak, Nortasun-gabeko Espaiñol batzeko naian, maltzur eta atzerazko-bide jorran guztiz odol-jariozko negar atsekabe baten, edesti onen azken zatia ekarri dogula besterik ez.

“POR EL DESTINO EN LO UNIVERSAL”. Guzurkeri uts-orreik dira euren andinai baldintzak ?.

NUNGO JAINKOAK EMONDA AGINDU ORI ?

Orregaitik, goian ikusi dogun lez, O.N.U.'ren bideak nondik nora doiazan jakin ezker, “BERAGAZ BADA KIGU ZELAKOAK IZAN BEAR DIRAN EGIN BEAR DOGUZAN EKINTZAK” koplak guztiak alboratuta.

EUSKALERRIAREN DEMOKRAZIZKO ELBURU'ari-BEGIRA IZAN BEAR DIRA EUSKALDUNEN ALEGIN GUZTIAK, DAUKAZAN OITURATUTEKO SINISMENAK JAINKOA'ri GARBITASUN GUZTIAGAZ ESKEINTZEKO:

ETA EUSKEREAREN OSASUNEZKO-BIDEA LANDU, GURE NORTASUNEZKO SINISMENAREN ASKATASUNA LORTU GURA BADOGU.

ATUTXA'tar PAUL

Zornotzan 2.009'an Urtarrilla'ren 26'an

- "BIDALGOA" -

- "BIDALGO-IKURRAK EUSKERAZ"

AURKEZPENA:

Badaroaguz apurka apurka gure Euskal-Etxea'ren jabetasunerako bideak beteten, eta ori oso pozgarria da niretzat, neure bizitza orren neurrian betetan dalako.

Bardin izan bear leuke Euskal anai-arreba guztientzat, danon Etxe-Nagusiaren NORTASUNA zentzuz elburutzen ikusi ezkeru.

Gure EUSKALERRIA'ren edertasuna, ez dalako ulertzen Euskal-zentzuan izan ezik.

Nor-beren etxe-txikian egiten dogun antzera jantzi bear ko gendun Etxe-Nagusia.

Sarreran edo eta gela andietan: "Guraso, Aitite-amama, osaba-izeko, etxeko seme-alaben argazki edo margoziak eta auek jakintzan lortzen dabezan garrantzi andiko agiriak, bai erriaren lur edo itsas-bazter eder ta gure erri-gizon jakintsuarenak, ondo apaindurik eskegita edo etxekoen baten-bategaitik lan ederrean egineko zarkin poli-baten gaiñean eta abar.

Dana dala, etxearen berotasunera sartzerakoan, guri zeozer esaten dauskuna eta batez be alaitu ta lasaitu egiten dauskuenakaz. Gauza orreikaz, EUSKALERRIKO erri-jakintzaren sinismena sendotu egiten dalako eta Etxe-Nagusiaren izaera biztu, NORTASUNEZKO argi dirdaitsuakaz.

SARRERA:

Gure gizarteetan gaur, menperatzailletasunezko xautzailletasun negargarri onen bidez, izatera jokatu baiño neurri andi baten beintzat, itxurara emoten dautzagu ardura andiagoa eta ez gara arduratzen geiegi bear doguzan gauzakaz.

Adibidez, sarritan arrokeriz esaten dogu: "Nire etxean berrogei margozi eta milla liburu inguru dagoz". Baiña, norenak edo zeren buruz diran itandu ezkeru, ez da agertzen erantzun garbirik. Bai arrokerien aberastasun ustel-ugari baiño besterik ez.

Latxaga jaun jakintsuak neugaz eukineko alkar-izketaren bidetik dator guzti au.

Beren esana: "Gure erria jakintzan edertzeko eta erbestetasunean ezagun andiagok izan gaitez, eskutitz ta fardel'ak banatzeko BIDALGOA (servicio e correos) eskuratu bear dogu, tresneri andia dalako erri-baten zabalkunderako (propaganda)".

Begitu bestela erria ezagutzeko arloan, zelako mailla andia artuko leuken gure gizon andiak, euren izen-irudiak esku-artean edo ta ekutitz bidez erabilteagaitik: Azkue, Arana'tar Sabino, Orixe, Lizardi, Onaindia'tar Santi, Barandiaran'tar Joxe Miel, Lekuona'tar Manuel, Kanpion'tar Arturo eta abar.

Ez dozu ikusten ?

Olan izango balitz, ze polita izango litzake gure erriarentzat.

Gaur ezagutzen doguz: Cervantes, Lope de Vega, Quevedo, Azorin eta abar. Oso ezberdiña dalako, gauzak Euskalerritik edo Madrilletik ikusita.

Dana dala, selluetan bear doguz gure gizon-emakume andien irudiak Euskalerrriaren jakintzazko-ezauntza zabaltzeko. Eta bigarren gauza lez, gure gazteak erriaren zeregiñetan arduratu daitezcan.

Ez zan geratu pozik euki gendun alkar-izketarekin, eta FEROE ugarteak dauken Nortasunezko Askatasuna Bidalgo'ren bidetik erakusteko, berak an bertan erosita eukazan iru liburu eder emon eustazan idaz-lan au egiteko.

FEROE'n lurraldea: Ogeitabi ugarteen artean osotzen dabe, eta 1.397'ko Kalmar'en batasunagaitik Dinamarkari egokitzen jako. Baiña 1.948n. urte ezkeroztik, jabetasun andiak daukiez euren jaurkintzarako.

Ezkozia'ko Iparaldean dagoz kokatuta 1.400 km. Laukiak daukazan ugarte bilduma orreik eta 44.000 biztanle. Nekazaritza eta artzaintzatik bizi diranak.

Jabetasun bidez, euren ardurapean dauazan gauzaren artean bat BIDALGOA da, eta aurrean daukodazan kartoizko orri luzeak, karpetaen antzera batzen diren agirian auxe diño: 1.996'eko seillu gomutagarriak (recordables, (con)memorables). Eta zabaldu ezker alde baten, ugarte baten ingurubegi eder bat ikusiz, barru aldian, 1.996'an agertuko diran seillu barriak.

Bigarren liburutxoan eta eskumako orrialdean, seilluak euren gizon andien irudiakaz edo ta beste oroigarritzko irudiekin.

Ezker aldeko orrian, oroigarritasunaren edestia, izaera eta zergaitik gogoratzen diran.

Irugarren liburuan, bigarren liburuan agertzen diran bardiñ antzeko baten, baiña emen margolariak aipatuta.

Konturatu beraz, zelako edertasuna erri-jakintzaren arloan, eta zelako indarra daukan gure-erritar ta erbesteko-erritarrak ezagutu dagien daukaguzan erri-gizon/emakume ospetsuak, lurralde eta itsas-bazter politak, baserri-eder, txori, abere, zuaitz-mota, toki-politenen irudiak eta abar.

Berezko erri-batentzat esku-bide arteko seillu orreik ain garrantzizkoak izanda, eskaera sendo bat egin bear dautsegu daukaguzan mendeko agintariai, ez dagoelako eskubiderik, berezko erritarrak daukiezan eskubideak debekatu ta atzerritarrenak erabili dagiazan.

Bearrezko eskaera benetan, Euskal-gorputza sendotu ta biztu daiten. Jakinda gaiñera, Europa'ren berezko (edo geienak beintzat) erri ta izkuntz guztietan dagozela irarrita seilluak

Dinamarka'ko erria osotzen daben FEROE ugartekoak, Euskalerrria baiño eskubide gitxiago daukie, gu erri-bat garalako. Eurak baiña, lurraldeko jabetasuna

diruaren aldetik egiten dabe, alan dalako euren banakuntzaren ardura legearen bidetik.

Nire ustez, erriaren indarra bear geunke postaren jabetasuna lortzeko: Eskaera´ren agiriak, Udal-etxe, batzoki, alkarte eta auzunetan izenpetuta Estrasburgo´ko auzitegietan aurkezteko.

Ordua da, EUSKALERRIA´ren NORTASUNA eragozpenetik atarateko, beren seme-alabak berezko ardura geiagotan sartuta, orren ordezko oinkada bakoitzean sartzen diran argiaren izpi-bidetik, Mundu eta Europa´ko erri-gizarteak batez-be, gure erria nabaritasun geiagorekin ikusi dagian.

EUSKALERRIARENTZAT OR, ERREZTASUNEZKO BIDE BAT, EUSKAL-ERRITARRAK BENETAKO ARDURAN SARTZEN ASI GAITEZAN.

- **“BRITANIARREN ENTZIKLOPEDIAK DIÑOSKUNA”** -

Luze ta zabal aztertzen dauz, Mundu onen arlo guztietako jakintza´k batzen dabezan Britania´tar liburu onek, guk aztertzen dogun ikurraren gaia izan ezik.

Leen, bidalgo ikurra zer dan diño: Errian edo kanpoan, gutuna edo fardela bialtzeko almena emoten dauan txarteltxua.

Txartel ori, aurretiaz ordaintzen dau bialtzaileak, eta urteen joanean ordaintze ori laterriaren eskuetara jausi zanean, laterriak (estado Ingles) sortu eben bidalgosarea.

Gutunak naiz fardelak gaur, mundu guztira bialdu leiz, astuntasuna ta neurria kontuan dirala.

Orretarako, gutunak bidalgoan artzen dabezenean, moltzotu ta norako diran ikusten dabe, gero su-gurdi, belbil-bus, itsas-ontziz, nai egazkiñez eltzen diran lekuetan, barrero moltzo txikiagoak egiten dabez etxerik etxe banatzeko.

Gaur, asko aurreratu da lan oneik egiteko, lanabes-barrietan (instrumentos de trabajo) zenbatzaille edo kondalari azkarrak dagozelako.

Alboan agertzen dira baiña, zein geiago ta azkarrago egin leiaketarako prest, eta azkar ibili bear da lan bide orreitan lekua artzeko. Emen esaterako SEUR.

Gero, bidalgoen edestia azaltzen dau luze:

“Aginterriak antziñatik ikusi eben, aginterria eustea gura ba-eben, erkidego´en arteko berriak emoteko, bide onak bear zituztela”.

Ejipto´n, Kristo baiño 2.000 urte lenago ba-ebiltzazan bidalgo-gizonak.

Erodoto´k eta Jenofonte´k diñozkuen lez: K.a. 700 urte Persia´ko aginterrian eta Ziro´ren denboran batez be, ondo eratuta egoala bidalgoen zeregiña.

Grazia´n, Uri bakoitzak beren bidalgoa eratzen eban, eta lortu be egokitasun ederra (obetu ez dana emeretzigarren gizaldiarte). Berreun eta irurogeita amar km. egiteko, egun eta gau-bat ziran neikoak.

Erromatarrak, ondo jarraitu (continuar, mantenerse) eben bide ori.

Gero, bisigodoak be onak izan ziran bidalgoa eratzen, baiña Karlo-Magno´ren ostean erri txikiak sortu ziran eta bidalgoak asko galdu eban. Gatxagoa egin zan.

Bizantzio´tarrak berbiztu eben jokabide au, eta gero Mauritarrak ondo baiño-obeto eratu eben.

Maya´k eta Inka´k Ameriketan be, ba-euken bidalgoaren zerbitzua ondo eratuta Kristo baiño milla urte ariñago.

Erdi-Aroan, gutun asko ibiltzen ziran ara eta ona, batez be lekaide eta Ikastetxe-Nagusien artean. Oneik, bidalgo taldeak eukiten ebazan, eta batez-be Paris´koetan.

Italia´ko sal-erosleak be, onak izan ziran bidalgo arloetan eta eurak asmatu eben bidalgoaren ordainketak egiteko bidea.

Aiztu ez dana egin bear baiña, Erdi-Aroan ia iñork ez ekiala jakin idazten, bidalgoaren premiñarik eukiteko.

1.450n. urtean irarkola (imprensa) asmatu zan, eta tresneri-barri orreik bidalgo arloak indartuta, orduko errege-jaun´tzazko agintari-ordeak, irabazbide bat ikusi ondoren “MONOPOLIOA”-k sortu ziran, Paris´eko Ikastetxe-Nagusiak be, arlo orreitan euki ebazan almenak galduta.

Napoleon´ek, aurrerakuntza andia emon eutson bidalgoari, eta 1.817n. urtean “KOLINA ROWLAND”-en aldaketa egin zanean, agertu ziran laterri arteko bidalgo ikurrak, alkarren arteko diru ordainketetan arazo barriak sortuta.

Amabost laterri batu ziran lenengo, eta azkenean dana dago Munduko Laterri Batuen (O.N.U.) eskuetan.

BIDALGO IKURRAK ZERGAITIK EUSKERAZ ?:

Gaurko idaz-lan onen leen elburua: “Bidalgo ikurrak Euskeraz eukitea da”.

Bigarrena: “Zergaitik izan bear dau gauza ber-berori olan”.

Ondorio-lez: “Izatasunaren zentzuzko ulermenean ez daukalako beste biderik, beren elburua ezagutzea baiño” agertzen jakuna.

Bestela, iñoiz ikusi dozue eta geiago ulertu, bide-salketari (viajante comercial) baten bat, beste bide-saltzaille baten mozkiñagaitik zabalkundea egiten ?. Erotuta dagoela esango geunke zalantzarik barik.

Ori da, gaur egunean Euskaldunak egiten doguna.

Beartuta ?.

Edo ardura andi barik gabiltzalako garrantzizko tresna orreik gureganatzeko ?.

Dana dala, Euskalerriko arduran egon bear zan garrantzi andiko atal-bat atzerritarren eskuetan dagoela. Orregaitik ainbeste Quevedo, Pelayo, Azorin, Espaina´ko errege, beren sendikoak eta abar.

Euskaldunak badaukagu aitzakia, 1.876´aren ezkeroztik Europa´ren berezko erri guztien antzera, Espaina´ren guda-indar eta maltzuckerizko-guzur ugari bidez menperatuta geratu giñelako. Nai-ta erri berezi askok bidalgoaren antolamendua euren eskuetan euki.

A-ta guzti, ni ez naz konturatu gure ardurazko arlo onekin Latxaga (San Sebastian'tar Jose Mari) jaunak nire begiak zabaldu arte.

Gure gaurko guda osteko aldian arduratu gara ?.

Aznar'eri itandu eutson batek seilluen gora-beran eta "SEKULAN BEZ" erantzun eban onek. Fraga'k, gure ikurriñagaitik bardin esan eban, eta argi dago gure ardurazko lanaren bidez lortu bear dirala bear dugun tresneri guztiak erri-lez bizitzeko.

Internet'etik begitzen ikusi dodaz, 1.936'ko Eusko Jaurlaritzaren izenean Eliodoro de la Torre'k egineko alegiñak, eta Euskal gizon, San Anton Eleiza, Gernika'ko Arbola'ren irudiak eta abar euki ta barruan Espainaren Errepublikako izena euki ez arren (gitxi ez zana), gaiñean seillu orregaz joan bear ziran eta lanean ibili zirala askatasun osoa artu orduko Franko'k menperatu ginduzan.

SEILLUAK: (Greko'z: "Laguna eta Zerga" esan gura dauana, eta Herodoto'k 484-425 Kristo baiño ariñago bizi zanak, Persa'ren bidalgoko antolamendua goratzen dauana). Oso urrutikoak izan arren, 1.840'an Loraila'ren 10'ean Britania Aundia'k ipini ebazan arreran, Rowland Hill asmatzailleari esker.

Britania Aundiko Entziklopedia artu ondoren argi ikusten dogu, seilluen antolakuntza agintari-menperatzaillaren eskuetan egoala, daukaguzan laterriari begira egin ebelako.

Eta iñorentzat ez leuke arritzekoa izan bear, gaur egunean oraindiño, daukaguzan laterri auek diralako erromatar kaizar sakratuaren ereduan, etsaimende'ko lege bardiñetan ezarrita dagozenak.

Dana dala, gero ta nabaritasun geiagorekin ulertzen asi gara: "IÑORENAK EZ DIRALA IZAN BEAR ORDEZKO ARDURAK".

Espainan, 1.850'ean irasi (instituir, implantar) ziran, eta or dago arrazoia Euskal seilluak Euskeraz agertu ez daitezkan, amaika urte ariñago (1.839) arrezkeroztik Espainat'ar Menperatzaill'en ankapean lotuta geratu giñelako.

Orregaitik azaldu bear doguz, zeintzuk eta nolako arauak diran, seilluari eskubide osoa emoten dautsoenak, beren izaera berezia, Mundu onen gizarteetan azalkeratuta, zentzuzko arreran ibili daitezkan.

Orretarako, erazko azterketa batekin ikertuko doguz, daukazan zertzelada bereziak banan-banan argituaz.

- A) Zer dan eta zertarako dan seillua.
- B) Zergaitik eta nork azalkeratu leiken seillua. Bai-ta, nork izan bear dauan Bidalgoaren antolamenduko arduraduna be.
- D) Erriaren Nortasuna.
- E) Ondorioa.

*** A) ZER DAN eta ZERTARAKO DAN SEILLUA:**

ZER DAN SEILLUA:

Gizon/emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza edo erri baten berezitasunezko agiria izan ezker, mota guztiko seilluak sartzen dira: Ikus-txartelak eta ordezkartzako-txartelak be, seilluaren esangura bardiña daukielako.

ZERTARAKO:

Norenak diran eskutitzak, ordain agiriak, atsegin-sariak, mezuak eta abar, egiztatzeko, eta nereko-bereko edozein motako mezuak, arreran gure artean ibili daitezcan.

Nortasunarteko mezu-gauzak bearrezkoak diralako, ekintza orren agiria da.

Emen, mota askotako seilluak agertu jakuz, Euskalerrria menperatuta egoteagaitik, gaur arte danak, arrotzaren izkuntzan idatzita egon diranak. Ainbesterarte dalako Espaina´tar menperatzailleak egiten dauskun zapalketa, gure nortasuna ez da agertzen iñundik iñora be.

Baiña gaur egunean, askatasun aundia eukin da be, eskutitz asko, ia danak esango neuke, erderaz idazten doguzela. "Eta or ikusten da, zelako ardura daukagun gure Euskal-Nortasunaren osasunaren alde".

Laterriai estukuntza geiagotan sartu bearrekoan, aitzaki asko ipinten doguz: esate baterako "Eskutitzak artzen dabezanak, ez dabelako ulertzen". Eta ori ez da egia, gure izen-abizenak, bai elbideak be, Euskeraz daukaguzelako eta danak ulertzen dabelako.

Anai-Arrebok "Or ez dago aitzakirik".

Dana dala, gu arduratzen gaituna: Grezia´tarrak ezaugarritako seilluaren esangura da: "Lagun eta Zerga". Ori dalako erri batek bere agindupean daukan tresneri oneitariko bat: "gure izkuntza, gizon-emakume ospetsuak, Euskalerrriko toki-politak, bertoko txori-abere eta abar´en irudiak, mezu seilluaren bidetik gure auzo ta Munduko erri guztiak ezaupidean ipinteko".

Bai, gure errian sortu lei langabeziari aurre egiteko be, gure jaurkintzaren antolamendu-on berezi bategaz.

*** B) ZERGAITIK eta NORK AZALKERATU LEIKEN SEILLUA:**

ZERGAITIK:

Gizon-emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza eta batez-be erriak, beti gura dabelako beren idaz-mezuak ondo apaindutako gauzakin eskaintzea, eta ze obe, beren erriak daukazan edertasun guztiak ezagutu daitezcan seillu txukun batekin baiño ?.

NORK AZALKERATU LEIKEN SEILLUA:

Eskutitza, nai jaurkintzako, gizon-emakumeena, elkargo, erakunde eta abar izan....: "NEREKIKO-BEREKIKOA DA", orduan NORTASUNEZKOAK DIRANAK zalantzarik gabe.

NORTASUNAK, orregaitik jokatu bear dau ardura guztiagaz. Eta ez erdi-purdika, Nortasunaren eza nabaritzen daualako.

Gaurko giza-garaiak, lagun arteko gauza-bereziak eskeintzerakoan guzurre eskatzen dabe?: "Lagunak, beti jakingo dau zeintzuk diran norberen arteko berezitasunak, eta gure Euskalerrian gaurko seilluak guzurre esaten dabela be bai. Agertzen daben Izkuntza ta irudiak ez diralako gureak.

Baiña Espaina ta Frantzia'ko atzerrian ez dabelako ulertzen gutxik baiño, eta gu erdi lotan edo oker gagozelako, eurak errez eroaten dabe aurrera alan ostondutako zapaltza ori.

Eta Espaina'ko atzerritarren artean, Euskal usaia daukan gauza guztiari nabaritasunezko amurrua erakutsiz gain, euren mendeko-nausitasunean ardurarik ez dautzielako emoten, ia ezer igarri barik dabiz gure eskutitz eta fardelak leku batetik-bestera.

Gure Nortasunaren alde zeozer egiterakoan, gitxien salatu bear ko geunkez zapaltza orreik, eta euren epaikundeak ez dauskulako jaramonik egiten, Euskaldun guztiak ze obe, eskutitz-fardel'en elbideak eta igorle edo bialtzaillearenak EUSKERAZ IBILTZEA, Espainol-Frantzez fazizta'ren guzurrak, ziurtasunezko bidetik apurka-apurka agirian geratu dagiazan.

Gaurko Europa'ren aurrerakuntza, ziurtasunezko egian asi bear garelako egiten, ezin leike tiroka ibili, ekintza orreikaz euren izatezko guzurre ostondut egiten dabelako arazo barik.

Eta Euskalerriak jaurkintzan egiten dabezan alegin guztiak, eurenak baiño askoz aurrekuntzazkoak izan arren, or geratzen dira, bigarren ostondutako leku baten, gure arteko Euskaldun eta atzerritar menperatzaillearen guzurragaz lelotuta atrapaute dagozanak, autezkundeetan aitzakituta geratzen diralako nai P.S.O.E edo P.P. faziztari botua emoten.

Orregaitik, Espaina ta Frantzez'tar menperatzaillearen guzurre danak jakin arren, euren guzur-maltzurkeriak ondo baiño obeto ostonduten dabez, eta danon begiramena euren arazotik aldatuz, gure arazo biurtu egiten dabe. Guk orretarako, aukera ederrenak emoten dautseguzelako.

Bide onetatik, mezede gitxi egiten dautzeguz gure gizon-emakume ospatsu eta daukaguzan txori-abere, lur, baserri eta itsas-basterrari, eta gitxiago, gure "EUSKALERRI MAITE ONERI"

NORENAK IZAN BEAR DIRA BIDALGOAREN ANTOLAMENDUZKO ARDURAK?:

Berezitasunezko Nortasunaren (nerekiko-berekiko) gauzak diralako Argi dago, nortasunaren ardurak izan bear direla.

Erri batek, gauza askoren artean, Berezko Nortasunean bear dituelako selluaren ardura eta zergak Bidalgora Demokrasiaren askatasunezko eran antolatzeko, Erriaren jabetasunezko ekandua, oitura edo etika'k, aots-karrazian eskatzen daualako.

Beraz..., begitu nortzuk izan bear garan, bearrezko gauzak gureganatzeko.

Sabino'k esaten eban: "Euskalerrria babes barik egoala orduko denboratan" eta egi ber-bera da gaurko egunetan, menperatzaileak desagertu arte.

"LAN ORI: GURE NORTASUNAREN ARDURAK IRABAZIAZ LORTZEN DIRA".

• D) ERRIAREN NORTASUNA:

Giza seme-alabeen arteko ordezkartzaren bidetik lortzen dira berezitasunezko zertzeladak, euren arteko egin-bearrak ikasiz eta oituratuaz, Nortasun berezi bat emoten dautsielako. "Euskadi oso zaarra da edestian zear, ori berori ez jakiteko".

Ba-dira gizon andiaren esanak, menperatzaileen zapaltza orreik salatzen dabezanak.

Aristoteles'ena adibidez: "Erri berezi bateri, beartutako agindu bat galerazo egin ezkeru, daukan Nortasunarentzat benetako erronka edo aokaldi (ofensa) astuna egingo jakola", eta JAINKOA'k ipinitako berezko LEGEA'ri, aokaldi ori ezin izan andiagorik.

Orregaitik, len argi geratu dan lez, Nortasunaren gauzak dira eskutitzaren eta seilluen egin bearrak, Nortasunaren Berezitasunak bear dabelako eskutitzaren berotasuna, erriarteko gizarteetan arremanak eta sinismena sendotzeko.

NORTASUNA da orduan, indar berezia emoten dautsona berezitasunari, JAINKOA'ren LEGEA'k agintzen dauskun lez, neurri andiko ordezkariak izateko.

Orren esan naia, NORTASUNEZKOA IZATEKO bear dauan tresneri guztia berak euki bear dabela esan gura dau, beren gorputzak eroaten dabezan: "Gibela, biriak, urdail edo sakela, nai bularrak eta koskabilloak, bizitzako gauzak beteteko. Nerekiko-berekiko gauzak diralako JAINKOAK baktzari emonekuak.

NORTASUNA, saldu-ezin edo eman-ezinezkoa da, norberen gorputzan biotza edo biriak diran lez, eginekotan eriotzera bialtzea dalako.

Gure ARIMA, Mundu onetarako gizatua izan dalako, BERA'k bakarrik bete leikez JAINKOA'k baktzari emondako agindu bereziak.

Orregaitik, Euskalerrriko Nortasunaren "ARIMA" "EUSKERE" izan-da, Euskerazko tresnerian osotuta izan bear dira beren gorputzak eskatzen dautson guztia, bizitzaren ekintzarako gogai (concepto, idea, pensamiento) guztiak mekanikan sortzen diran lez, zentzunezko uztartzeak (acoplamientos) egiteko, osagarriak (complementarios) izan bear diralako.

"BIZITZA ONEK NORTASUN BARIK, EZ DAUKALAKO ZENTZUZKO ZUZENTASUNIK".

• E) ONDORIOA:

Bidalgoari buruz idaz-lan onen sarreran leen ikusi doguna: Nortasunaren gauza-bereziak dirala eskutitzarenak. Eta zelan ez diran gauza bardiñak Madril´dik edo EUSKALERRITIK ikusita.

Aitzakirik badaukagula aipatu dogu. Bai-ta zer lortzen dogun aitzakian geratu ezkerro.

Britania Andiko Entziklopedian, zelan bidalgo´en tresneri guztiak, Laterri-Menperatzailleen eskuetan egon dirala, eta gaur egun ere dagozela. Nai-ta apurka-apurka Nortasunezko Berezitasunak berrezkuratzen asi.

Bai-ta, 1.839 urte arrezkoroztik menperatuta geratu giñelako, Seilluak Euskeraz zergaitik ez dagozan irarrita.

Guzti-au ikusita, erazko azteketa bat egin bear izan dogu, noren ardurak diran ziur jakiteko. Eta A) baztar-arloan: Zer dan seillua argitu dogu, eta bai zertarako dan ere. Beragaitik, nolako ardura daukagun ikusiaz, oraiñarte beintzat.

B) Baztarrean: Zergaitik eta nork azalkeratu leiken seillua. NORTASUNARENAK dirala oso-osoan ikusiz, berezitasunaren gauzak diralako.

Eta D) baztarrean: Erriaren NORTASUNA zelan lortzen dan, bai-ta asken baten, bidalgoen gauzak zelan diran tresneri egokienak gure NORTASUNEZKO-ARIMA artean artu-emoneko ezautzan. Giza gorputzaren antzera: “Garuntegi, gibel, biriak, zakel nai bularrak eta koskabilloen artean daukazan adi-eraziak, bakotzak jakin dagian zer egin bear dauan EUSKAL gorputz-orren osasunerako”.

Guzti au ikusita, ez dogu artuko lotsa apurbat geiago, gure EUSKAL-GORPUTZAREN EGARRIAK ASETZEKO ?.

Nik uste dot, Erriaren giza-barrena izartzeko badaukaguzela batzoki, elkarte eta erri-toki ugari, ardura oneik ezagutzera emonaz lanean asteko. Gure gauzak diralako eta bearrezkoak Euskal-Gorputzaren osasunerako.

Begitu bestela, Arana´tar Sabino´k nolako arduraz eta zelan ulertzen eban egoera au, Arantzadi´tar Ingartzi´ri 1.901´an Urtarrilla´ren 5´eko eskutitzan idazten dautsozenakaz:

- “Gogoratzen asten nazenean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi-au amaitu orduko”.

“Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da !”.

“Aukera bakarria diruan dago, eta au ez da aurkitzen”. Baserritarrak geiegi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari.

Zuzenbide bakarria langintzako eta trebetasunezko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak (mutualidades), nekazaritzarako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz...., bizitzan eskutarteko guztiak legez erritaratuaz (nacionalizar), Euskereak zeozertarako balio dagian. Nai-ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea.

JAINKO Aundia, Aalduna eta Bakarria da zuzendu leikena !. Bearrezkoa da, Euskerea naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauela balio nekazaritzako egintzaren izketarako baiño.

Bizkaian, bear doguzan liburuak be, ez daukaguz azibidea burutzeko, ez guztia, erlijiozko-oituraren azibidea baizik, bear-bearrezkoa dana emakume gaztea sendi baten ama izateko be.

Ai, nere laguna !!. Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nork-berak argi ikusten dau; gauza-bat oartzten dau: “Biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu barik”.

Gure aurrekoak zer egin dabe ?. Zer egin dau Eleizak ?, elizkideen amak ?.

Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: “Euskera ber-beran dago orren ezaugarria. Egiatzko mirari andia da, gure zoritzarreko erri au, asierako bidetik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxian euki dabela.

Gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik eraso-aldia, beren duintasuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera esan leike nai-ta nai-ez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA´ren eskuari begitzen badautsagu, BERA da eutsi dautsona”.

Nor-berak itauna egiten dau: “JAINKOA izango ete da ba, au desagertzea gura ez dauena ?”.

SABINO, benetan konturatu zan, EUSKAL-NORTASUNEZKO ARIMA´ren osasunarentzat, Euskal-oiturazko tresneri-gauzak zirala osatzen ebana, gure gorputzarako diran biotz, gibel, zakela, bularrak eta koskabilloaren antzera.

Bizitza, JAINKOA´ren gandik antolatuta, bizitzarako LEGE-BARDIÑEZKO tresneri bearrean antolatuta egokitu ebalako.

“GURI EGOKITZEN JAKU, BIDALGOAREN TRESNERI GUZTIA
BERREZKURATZEA”

“NOZ DA ERRIAREN TXANDA ?”

ATUTXA´tar PAUL
ZORNOTZAN 2.000´an URRIA´ren 23´an

Klaudio´rekin egokituta: 2.009´an Zezeilla´ren 28´an

BEREZKO-ERRI eta GIZARTEAREN ESKUBIDEAK

SARRERA:

JAINKOA'k, gure ARIMA'k, ikertzaitasunezko gai mundu onetara, BERA'k ipinitako lege-artera bialtzen gaitu, bear dogun tresneriekin.

Tresneri aundiena, gure ARIMA'k daukan arrazoitasunezko almena da, danok eskubide ta zor bardiñean gaituta. Eta ARIMA'ren BAITA (conciencia) da, NORTASUNA'ren giza-maillan izateko alegin guztiagaz beartzen dauskuna.

ESKUBIDEA orregaitik, NORTASUNARENA da. ARDUREA be BAI !. Errez da orduan ulertzea, Gai-Mundu onetan ez dagoela ESKUBIDERIK, ZOR-BARDIÑA'gaz ORDAINDU gabe.

Gure arteko ezberdintasuna, ordezko ardurak zaintzen doguzan neurritik agertzen jaku, eta negargarria da gaurko Munduan ikusten dogun urritasun (condición de pobreza) edo txirotasuna ordezko-ordain arduretan.

Antziñatik, Munduko bizitz-au antolatzeke (Neolitikotik esango neuke nik) dabiz gizon batzuk, euren eritzizko jakintz anditasunean bear doguzan legediaren adierazpenak ezartzeko naian.

Eta LENALDIAN, NORKERIZKO ARROKERI BIDETIK ARTU ZIRAN OKERREZKO ERABAGIAK, edesti guzti onetan, EZ GARA IZAN "GAI", maltzur-guzurrezko okerkeri orreik, JAINKOA'k LEGEZ GURE ARIMA'ren BAITA'n ZENTZU-EDERRENEAN BEREZTUTAKO ARRAZOITASUNETIK BAKANTZEKO.

BEREZTASUNAREN EKANDUZKO-OREKAN guztiz korapillotuta agertzen gara gaur, eta goian esan doten lez, DEABRUA'k bere alde jokatuta, ezingo leuke itxuran be margoztu, Mundua'ren gizadiak gaur ordezko-ordaiñaren arloan agertzen dauana.

Ain gatz izango ete da ba, gure agertuzko-legeak, JAINKOA'k BEREZTUTAKO LEGEDITIK BAKANDU edo ATARATA IZAN BEAR DIRALA ?.

Nor da NOR Mundu onetan bere lege bakar-bat agindu egiteko ?.

Gu gara LUDI onen egilleak ?. Ez ! Kundeatzaille edo eragilletasunaren (gestor, gestor, gestor) arduradunak bakarrik garalako. Eta Norkeri orren bidez, gure negargarritzko odolkeriaren edestia ikusita, ez al gara sekula zentzatuko ?.

Begitu daigun aurrerantza.

O.N.U.:

Mundu'ko bigarren atsekabezko-gudatik urten gendunean, eta zelako astokeriak egin ziran ikusita, Mundu'ko nagusien artean,

oartzen asi ziran, erri ta gizartearen eskubide guztiak zaindu bear zirala.

Edozein arazo konpontzeko, beti borrokan ibili bear ezker, Mundu'ko gizarte guztiaren itxaropena oso negargarria izango litzakelako.

1.944'an, Txina, Estatu-Batuak, Frantzia, Ingalterra eta Sobiet-Batasuna, Dunbarton'eko buruz-buruko alkar-izketan batzartuta, bidea emon eutsoen, Kalifornia'n berrogeita-amaika Nazio'en arteko San Franziz'ko Urian, 1.945'eanean Jorrailla'ren 25'etik, Bagilla'ren 26'raiño egin zan batzarrari.

Batzar orren elburu nagusien artean: "Erri guztien arteko bakearen ziurtasunezko babesia izan zan".

Bigarren: "Nazioen artean, adiskidetasunaren berogarritasuna sortzea".

Irugarren: "Errien arteko lankidetasunean, Mundu'ko ekonomiaren arloetan sortzen ziran arazoai, gizartearen, jakintzan edo giza-aldezkoetan (humanitarismo) konpontzea".

Eta laugarren: "Aurrerantzean, gizon-emakumearen oiñarrizko eskubideak berotu, benetan lortu daiten, danok demokrazi on-baten ezarri edo ta oiñarritu izatea.

1.945'eanean Urrilla'ren 24'an, eskutitz ori agintari guztiagaitik sinatu zanean, O.N.U'ren erakundea eraikita geratu zan.

Gero, 1.948'an, Nazio Batuetako Erakunde'en giza-buruz Eskubidearen Batzordeak antolatu, eta Abendua'ren 10'eanean Paris'en batzartuta, Mundu onetako guztientzat, Giza-Eskubidearen-Adierazpena ogeita-amar lege'gaitan argitaratuta aldarrikatu eben, Espainia'ren ordezkariak artean zirala.

ESKUBIDEA 'k eta LEGEA 'k:

O.N.U.'ren Giza-Eskubideen aldarriketa ori, Ludi onek daukazan berezko legeetan oiñarrituta dago. Eta oso pozgarria da ori.

Adibidez. Bere zerrendako 28'n lege-gaiak diño: "Gizon/emakume guztiak, giza-eskubidearen askatasunezko ardurak bete daitezcan, eskaria'ren eskubidea daukiela. Alan, gizarte eta erri-artean antolamendu on-baten oiñarritu gaitezcan, aldarrikapen oneitan esaten dan lez".

Zer gertatzen da baiña, gaur egun eskubide guzti orreik ankaraz-gora agertzeko ?.

Ikustea baiño besterik ez dago.

Erroma ta Godo'tar menperatzaille-asmakizunezko legeak, XVIII'n gizaldian Frantzia'ko iraultza-bidez lege orreik berezetasunaren zentzunera eroateko egin ziran alegin guztiak. Erroma-Godo'tar

Norkerian bizi gura ebenak eten-bako indar eta odolkeriaren guda-buruz, aurrerakuntza orreri aurka eginda eta eriotzeagaz debekatuta, oraindiño bertan daukaguz. Berezko legeen aurkako-menperatzaillak zuzentasunera ekarri ezinik, nai-ta eurak "Erri ta Gizartearen-Eskubideak sinatu arren.

Bai ! Zesar'ek, erri ta gizarteak banatzeko, guzur-bidetik ibili eban norkerizko "VENI, VIDI, VICI" maltzur-esan orregaz, Mundu osoaren gizarteak erromatar mendean batzangotzeko, eta ostekoak bardin egin arren.

Ezintasunean, Europa'ko lurralde osoa, erregeen-antolarazizko lurraldeetan sailkatzea erabagi eben, Europa XVIII'n gizalditik BATZANGOTASUNEZKO NORKERI-BARRI baten agertuta, gaur bertan daukaguzan Erdira-Zale Laterritarrai argi ikusten jakiena.

Gaurko egunetan ori ikusteko, ez da iñora joan bear.

Euskaldunak, eskubide guztiakaz "ERRI" bat garala aldarrikatzen dogunean, Espaina'ko menperatzaillle erdira-zaleak: "NAZIOA'ren NAZIOA" dala erantzuten dauskue.

Zer esan gura dabe norkerizko neurri-gabekeri (lujuria) orregaz ?

Eurak, JAINKOA'ren parekoak dirala ?. Aita Santi gogoratu, onek: "Geiegizko Neurri-Gabekeria" dala, burua altzau barik esango leuke.

Euskaldunak, bizitzaren azturazko iker-lan bidetik, Mundu'ko leiñu guztien antzera, atzeman (resolver) emon geuntson NAZIOA'ren itz-zentzuari.

Mundu bizitsu onen jaio-ekintzan, lora, zuaitz, abere, arrain eta egaztiaren bizitzazko lege bardiñean, gu-be berezko lege orreitan, berezizko jaiotzaren mailla bat garela ikasi gendun.

Ez dago zer esaterik, daukaguzan ARIMA'ren arrazoi-bidetik, Ludi oneri Euskaldunak, zoragarritzko adierazpen berezi-demokratiko bat emon geuntzelako.

Gaur, zer esango leukie Estatu-Batuetako lendakari izan zan Harri S. Truman'ek eta bere denborako gizarteak, nai-ta berak 1.945'ean Dagonilla'ren 6'an Japon'eko Irosima ta Nagasaki'n atomozko leerga-illuak bota, gaur, giza-eskunbideekin sortzen jakunakaz ?

Bera eta bere denborako gizarteak, ez ziran izan, giza-eskubideak azaldu edo agertuazo eben andienetarikoak ?. Zer gertatu da Ameriketetan ?

Dana dala, gaur Munduan ikusten doguna, eta Espaina'n batez be, sasi-jainkotasunezko menperatzaillle zaleak, gero-ta geiagoko urduritasunean sartuta dagozela, aldarrikatu egiten dabezan sasi-arrazoi orreik, ezin dabezelako egiaren arrazoizko maillan eutsi.

Euren naas-esanetan, trikimailluzko arrazoi asko ibiliko dabez, baiña guzurak, guzurrezko sasi-arrazoiekaz izan ezik, ezin dira iñungo itxura baten ulertu.

Demokrazizko zuzenbide baten sartuta gagozela esaten dabe laterritar maltzur oneik.

Baiña, eskubideko lege orreik neurtzeko, zein legeari buruz (referencia) edo baldintza orreik nundik artuta?: “BERESTASUNA-REN-LEGEA’k, BEARTZEN GAITUN ZENTZUNEZKO BALDINTZA-BIDETIK”. Ala, DAUKIEN NORKERIZKO (personalismo, favoritismo) BURU-ZALETASUNAREN (egolatra, despòtiko) GOGO edo OLDOZPENETIK?”.

Orregaitik gagoz belaunetaraiño sartuta, sasi-arrazoia erdi-egi lokatz artean.

Laterrien egokitasunak, arrazoizko itzarmen edo elkargo bidetik lortu bear dira (Nortasunaren arloetan ez dagoelako beste biderik). Eta azkera orreitan, goragoko elburu nagusiak lortu.

Sekula indarkeriz edo larderialdetik (imposición), unetxo orreitan, jaioten garan erri ta gizartezko eskubidearen ordezkotardurak, ezereztuta geratzen diralako.

Ekintza orregaitik, orra or ! gaurko gizartea arduragabekeria egokituta.

Oraingo Laterriak, zentzungabekoak izanez gain, menperatzailleak dira, eta gaurko giza-semeak jakin-maillan daukagun neurrian, ulertu ezinezkoak.

Gaurko O.N.U.’k, fazizta-guzur ta maltzurrezko lokatz-onetatik urten ezin gabiltzala ikusi ondoren, Mundua’ri itzuli osoa emongo dautson berrikari bide-aldi bat atonduten dago, erri ta gizarte guztien eskubideak lotsean artu, eta lortu-arte lanean asi gaitzen.

2.009’ko Urrilla’ren 2’an Australia’tik urtengo dauana, eta poztekoa da ibil-bide ori lortzen bada. Askatasunaren itxaropenak iruditu egingo diralako Mundu’ko gizartearen argi zabalean.

Dana-dala, egia da, aldakuntza andi baten itxaropena dagoela.

Bestela, Ipar-Amerika’k BUSH’egaz egin eben menperatzailletasunezko asken saio-bidetik, gaur Obama’rekin artu bear izan daben erabagiagaz, kontuan artzea besterik baiño ez da.

Eta itxaropen orreik ziurtzen dabezan ezaupideak, daukaguzan Laterri menperatzailleen larritasunetik argi agertzen jakuzenak dira.

España’ko eskuin’tar matxin-zale, eta euren aurka jaiot ziran ezker sozialistak (euren artean etsai amorratuak izan da), biak fazista menperatzailleak dirala erakusten dabe: “BEREZKO ERRIA’k EUSKALERRIA LEZ, MENDEKO LARDERIAN EUKITEKO” lotsa’rik gabe, alkartzen diralako.

Batak eta besteak, Franko´ren antzera, eta beren irakaskintzatik ondo ikasita, askatasunera emoten diran pausoak agertu orduko, dan guztia ondo lotuta eukiteko naian.

EUSKALERRIAN:

EUSKALERRIA´n egunokaz susmo bat oartuten nabil, eta ez da ona !.

Gure ERRI-MAITE onen edestian presaka ibili garanean, sekula ez dogulako lortu ezer, atzeratzea baiño.

Gure errian gauza orreik, beti sortu dira ALDERDIKERIZKO NORKERIEN BIDETIK eta ez da ona. Gitxiago, askatasunezko susmoak agertzen diranean.

Zori txarrez, mende-zaleak edestian egin dabezan indar-alegiñaren bidetik, BEREZKOTASUNAREN ABERKIDEAK, oso ALDERDI EZBERDIÑETAN bananduta agertzen gara.

Ez zan bear izan orretara. Eurak maltzur-bidetik daukien almenakaz, guri txakur-borrokalari izan bagiñan antzera, bata bestearen aurka zaunkalari ipinten dozkuelako.

OARTU EZ ?.

EUSKALERRIA DA EUSKAL-SEME-ALABAREN ELBURUA, ETA NAI-TA BEARTUTA, ALDERDIETAN BANANDUTA AGERTU-ARREN, BERARI BEGIRA JOKATU BEAR DOGU DAUKAGUN ALMEN GUZTIAGAZ IÑORI ZAUNKA EGIN GABE, ETA ZAUNKA EGITEN BA-DOGU, ITXURARAZKOAK BAKARRIK IZAN DAITEZALA. "GURE EUSKALERRI-MAITE AU, ASKATU GURA BA-DOGU".

ALAN JOKATZEN BA-DOGU, BERTAN DAUKAGU AUKERA PAREBAKOA.

Atutxa´tar Paul
Zornotza´n 2.009´an Epailla´ren 18´an

-BAKEA, ERLIJIOA eta NORTASUNA- - GURE EUSKALERRIAN -

SARRERA:

Antziñako "ZER" aldizkari baten ale bat irakurten egon nintzala, Kristau ekanduzko arloan Goiria karmeldarrak (G.B.), Euskal gizartearentzat idatzitako lan bat agertu jatan "BAKEA", eta jakin-gurean, arduratu nintzan ia zer esaten eban gure Zornotza'ko karmeldar- lekaide aipagarri onek (i).

BAKEA:

-Agindu au itxi eutsen Jesus'ek bere apostoluai: « **BAKE EREILLE IZAN ZAITEZE** ».

-Agindu ederra benetan. Guztiok gura dogu bakea, baiña askok ez dauke bakerik.

-Bakeak eragozpen bi daukaz XII'garren Pio Aita Santua'ren iritxiz: "Guzurra ta Aierkundera (ii).

-Zintzo jokatu bear da. Bakeak zintzotasuna eskatzen dau. Bakea gura ba dogu, zintzoak izan bear gara; zintzoak gure buruagaz eta zintzoak besteekaz. Eta zintzoak batez be JAUNGOIKOA'gaz.

-Jaungoikoa atzipetu (iii) daikegula uste dogu.... Alperrik...., geure burua atzipetuten dogu, ez Jaungoikoa.

Gizonak zoriuntsu bizi gura ba'dau, bear-bearrezkoa da bakea... Parkatu egizu ta bakea izango dozu barruan eta bakea gizonakaz.

GURE EUSKALERRIAN KRISTAU ERLIJIOA, eta PARKAMENA:

Franko'ren guda ostetik, gure EUSKALERRI maite onetan (v), beti entzun dodaz nik zuzentasun aundiko berba eder orreik, nire baitan (iv) ondo oiñarrituta dagozenak.

Baiña emen sekula ez genduen entzuten NORTASUNA'ren berbea izaten zan, edo NORTASUNAK, ZOR-ESKUBIDE arloetan daukan bardiñezko-ardura erdizka baizik. Beti, txarkeria edo muturrekoa (vi) egin edo emoten euskunai, parkamena ta aurpegiaren beste aldea ipinteko aolkuagaz.

(i) "TXANTON" esaten eutsen. (ii) Aierkundera = inclinación, sospecha, odio, adversión. (iii) Atzipetu = estafar, timar, engañar. (iv) BAITA = conciencia. (v) 1.940'an jaioa naz ni. (vi) muturrekoa = ofensa.

Eta orduko Euskal gazteak izan giñen baitan (I), zearkatutako bide (II), edo zentzutasunaren arloan zulentasun-bako noraezean aurkezten gintzazan alde ortatik

Gure lekaide-abadeak bildurra eukiko eben ? Nortasunaren irakaskintzazko azturan sartuta ASKATASUNA´ren berbea agertzen zala, eta gauza guzti orreik espetxe edo ta eriotzagaz debekatuta egon ziralako.

Ondo ulertzen dot, gure Apaiz-Lekaide berezko-legea´ren aberkideak ziranak, zuertasun aundiagaz jokatu bear izan ebela, eta gazteak bide orretatik, aurretiko ezaupide orren ezean geratzen gintzazan gure buruetan osozko arrazoibide baten egokituta geratzeko.

Gure etxean (III) eguneroko arratsaldeetan agurtza esaten gendun (IV), baiña eneban ulertzen nik zazpi urte euki nebazanetik aurrera, zergaitik amak agurtza gazteleraz asi zan esaten.

A-ta guzti, etxeko otoizketak, ez eben euki zer ikusirik, kanpoan itzurazkoak egiten ziranarekin, etxean JAINKOA´gaz berba egiten gendualako.

Errian, egi-zale eta egizko-ulermenaren billa ibili ba-ziñen, laster esangotsuen: gorri, komunista edo matxin-zaletasunezko ez-izenak, eta santu-plantak egiten ebazan jende, fazistak, udalekoak eta guardi-zibillekaitik atz-erakusleagaz beti aipatuta, bai soldau-serbitzura joan bear´giñanean be, guardia-zibillekaitik gomendiozko-gutun (V) ederragaz salatuta.

Gau-gurtzakoa (VI) be izan nintzan, eta an ez zan egon NORTASUNA´ren aldeko ezeren zentzurik, ez ebelako kontuan artzen, gabeko iru-txandan, bakotza ordu-bateko denboran, tutik-be jakin ez gendun latinez irakurten JAINKOA´ri otoitzko itzura baten ibilten giñelako. Zer esaten geuntzen guk JAINKOA´ri ?

Lenago, urte askotan meza-laguntzaille izan, eta J.O.C.´ekoa (VII) be izanda, eneban ulertzen itzura aldeko otoitz ori, eta taldetik kanporatzen noiela esan neutsenean, burukideen artean txindurri-abi´bat zapaldu ba´neban antza artu eban.

Antzekoa sortu zan, nik enebalako ulertzen Pilar´eko Amabirjiñak zergaitik euki bear eben Espaina´ko ikurrin bi alboetan eta gerrian gudal-nagusiaren gerrikoa, gaba baten kendu eta erre egin nebazanean, Udal-agintari, guardia-zibillak eta Frankista aldeko´en artean, urduritasun aundia sortu zalako.

(I)Baitan = conciencia. (II) Zearkatutako bide = ala deriva, contradicción, encrucijada. (III) Orduko etxeetan, berbetan oiu aundiz ibili ezker, dan guztia beste solairuetatik entzuten zan. (IV) Rezar el rosario. (V) Gomendiozko-gutun = carta de recomendación. (VI) Lenengoetan ez giñan konturatuten, arek eta gure gau-gurtzako oial´etan Espaina´ko ikurriña ipintea galazo euskuen arte, orduan oartu giñelako "adoración nocturna católico-española" zala, artean euki genduzan jakitunen esanetatik. (VII) Gu, Espaina´ko gazteekin berezkatzeko, Kristau Langille Gazteak giñela esaten gendun.

Apur-apurka, Latiñaren izkutuzko sinisgai bide ortatik argira atara euskuna, Meza-Santuak, gure jaiotzezko-EUSKEREAN emoten asi ziranean izan zan (i), gure barneetan, ararte izkutu edo illuntasunezko sinesmenean egiten genduzan otoitz-itxurak, aukera ederrena emon euskulako, gure otoitzak ulermenaren irudimenezko-argitan kokatzeko gai izan gindezan.

Alako zalantzan eta erantzun-bako itaun-bidetik iraun eban nire gazte-bizi denborak, Aita Santi Onaindiagaz aurkitu eta alkartu arte. Ak, itaun bakotzeko, bere ikas-gai'en liburua emoten eustalako.

Nire askatasunezko jakin-miñak bide sakon orretatik, Erromara eroan eustan, esaereak esaten dauan lez: **“*mundu'ko jakin-bide guztiak erromara bideratzen daben antzera*”**.

Eta edestia al-neban alegin guztiagaz arakatuta konturatu: “Nizea'n 325'eko urtean Eleiz-Batzar-Nagusia I Konstantino eta I San Silbestre Aita Santuagaitik batuta, **KRISTAUTASUNA**, bertan katoliko-alderdikidetuta, politikan sartu ebela.

Norkerizko asmakuntza ori ez zan izan ustegabekerizko (ii) ondorio bat bakarrik.

Katolikotasunezko ziñeskintzaren lojika orren barruan sartu eta indarrean kokatuta, Mundu guztiko gizarteak, **ERROMATAR-KAIZAR LEGEAN ARAUDIPENDUTA** eta **AITA-SANTU SAKRATU BAKAR BATEN AGINTZAPEAN BATZANGOTUTA** egon gindezan billa asi ziralako.

Euren sasi-jainkotasunean, ez eben uste, orduan JAIO'azo ta **IRASPENDU** (iii) ebela Munduan dagoan **FAZIZMOA**'ren **ERPE NAGUSIENA**.

Ortik aurrera, Mundu onen berezko erri ta gizarte guztientzat, alderdikidetasunezko **IRASPEN** ori, ez dalako izan, **EGI** ta **DEMOKRAZIAREN IZENEAN** ostetik egin, eta egiten diran alderdikerizko banaketaren iturburua (iv) baiño besterik ez.

Nai ekanduzko erlijioan, politikan, eta merkataritzaren arloetan, ekandu-bako bizi-ekintza baten ibiltzen ziranai, edo anditasunezko ametsean ibili ziranentzat, maltzurtasunezko ate guztiak zabaldu ziralako bestien gaiñetik nagusitu al-izan ebenentzat.

Norkerizko iraspen orren ondorioz, Batzangotasunaren (v) elburu orri-begira, edestian negargarrizko naaslari biurtu diralako, danok, eritzi orren kontrolpean euki gurean.

Eta goitik-berako batzangotasunaren mozkin-kontrolpeko agindugure orreik izan dira sorburu, gaur mundu onek zor-eskubidezko arloetan emoten dauan negargarrizko ezberdin irudia, batzuen aberastasunak, geien zori-gaiztoko txirotasunean ezarri dabezelako.

(I) Gaur ostera be izkutuzko latiñera eroan gure dabena antza. (II) Ustegabekerizko = casualidad. (III) Iraspendu = fundar, constitucionalizar. (IV) Iturburua = causa. (V) Batzangotasuna = globalizaciòn.

Bestela begitu ze ezberdintasun sortzen dan munduak daukazan bost lurralde-aundietan (*Afrika'n batez-be*)

Argi ikusten da, "Nacional-Catolicismo-Facista onek", ez dauela jakin gura ezer Izadi onek JAINKOA'ren gandik ipinita daukazan LEGEA'kaz eta gitxiago, berez JAUNGOIKOA'ren LEGEA'n sortu ziran izkuntz eta erriekin.

Eta arrigarriena da: "JAINKOA'ren izenean, ez daukiela ezeren ardurazko-lotsa eta gitxiago damu, JAINKOA'ren LEGEA'ri begira sortu ziran NORTASUNEZKO izkuntz ta erri-iltzailleak izateagaz.

Jakin leike ze-JAINKOA'ri buruz dabizela itzegiten ? Ala ixilean, norkei bidetik aurkitzen dabiltzan sasi-jauntasun orren atzean ote dabiz ? Aita Santua Adibidez.

Gure EUSKALERRIAN, IZATEZKO EKANDUAN daukagun ASKATASUNEZKO-DEMOKRAZIA'ri begira, katolikotasun ori oso zitala agertzen jaku, gauza askoren artean. Adibidez: "Gaurko edozein izparrangi irakurrita, Franko'ren denboran antzera, gure Gotzaintzarako EUSKAL-USAIRIK dauken apaizik ez dabelako aukeratu gura.

Giza-bide edo giza-lege ori da berezko erri ta gizarteakaz ekanduzko lotsaren arduran zaindu edo jamotea ?

Dan guzti ori ikusten dogunean, konturatuten gara, gure gaztetasunean zergaitik sortzen ziran goian esaneko gauza guzti orreik eta batez-be, gure apaiz-lekaide aberkideak, egiten dabiltzan lan miresgarriagaz.

Baiña, alderantziz, orren asmakuntzazko sorburuari begituta: ERROMATAR ABERKIDE-KATOLIKO orren erabagia artu zanean, FAZIZMO-IRASPENDUA'ren ainbesteko UTSEGITEA edo ANKA-SARTZEA euki eben, orduko eta gaurko GREZIA'k batu eta osotutako berezko-jakiturei-demokratikoakaz batera, zorro baten ongaizkatuta sartu ebelako.

Mundu onetan ortik aurrera, ERROMATAR SASI-ASMAKIZUN ori eta BEREZTASUNAREN-LEGEA'ri begira IKASI DOGUZENAK iñondik-iñora ezin diralako osotasun baten elkar-lotu, or gabiltz ia bi-milla urtean odol-jarioz, eten-bako burruka baten.

Eta eskerrak, Munduko agintariak eten-bako burruka orretan, orain, bildurra artu dabela borrokarako dagozan atomozko-leer gailluai ! Bestela Mundu-Zorro onek eztanda egingo leukelako.

Orregaitik, Munduko bigarren guda ostetik eta gaur Mundu'aren gizarterako, merkataritzazko askatasunean (I) eratuta dagozan erromatar-lege-baldintzak, mundu gizarteak lanik-ezean (II) itxita, edo

(I) Merkataritzazko Askatasunean = libre mercado. (II) Lanik-ezean = crisis.

porrot ⁽ⁱ⁾ egin dabelako, eta aurrera joan ezker, zoritxarreko aldikadetan porrot egiten joango garela ikusita, gure arrazoizko estaibadak itzarmen bidez, eta erri ta giza eskubideari begira konpondu bear direla, asi dira esaten.

Gaurko Laterriak, itzarmeneko orren-bidetik jokatuta, badakie, erri ta gizartearen eskubideetan oiñarritu bear garela. Eta orregaitik Espain eskubi'tar faziztak eta euren aurka jaio ziran sozialistak, biak menperatzailleak biurtuta alkartu dira ⁽ⁱⁱ⁾, euren ametsezko katolikotasun espain aberri-ori, bere berezko EGIAN kokatu bear dalako.

Orregaitik asi dira presaka, EUSKALERRIA'ri, ia daukan NORTASUNA kentzea lortzen ba'dabe, eurakaz bat egiteko espainaren kaizargotzan (España-Imperial).

Adibidez, atzo (2.009'an Loraila'ren 5'ean), EUSKO-BILTZARREAN egin daben antzera "LEGEA'k euren aldera eratuta, ezeren lotsa'barik Menperatzaille orreik (PP eta PSOE'k), EUSKAL-AGINTARITZAGAZ JABETU dira", leen:

-EUSKADI'ren diru-sakelean eskua sartzeko (0'9 PIB'en bakarrik zorkatuta aurkitu dabelako).

EUSKADI, zorrik-gabe egonda, aukera daukielako euren FAZIZTA-NAIKERIEN alde jokatuta, 3.000.000.000'ko "ZORRE-TAN SARTZEKO".

-EUSKAL-TELEBISTA'n eginda daukaguzan antolakuntzak, erria argibide onenean aukeratuta egon daiten: "ESPAINAR-ALDATZEKO".

-ETA, EUSKADI'k, EUSKAREA BEREN NORTASUNERA BERREZKURATZEKO DAUKAN ANTOLAKUNTZA GUZTIAK, "ZIRRIBORROTZEKO".

BESTERIK ? EZ EBEN AURKEZTU BESTE ANTOLAKUNTZAZ- KO EGITARAURIK.

ARGI ESANDA, ALDARRIKATU BAIÑO EZ EGIN EBEN, EUREN ALEGIN GUZTIAK: "EUSKALDUNAK DAUKAGUN NORTASUNETIK KANPORATU EGIN BEAR DABELA, ESPAINAR ta MUNDUKO ERRITAR ⁽ⁱⁱⁱ⁾ BIURTZEKO".

Orain, Euskal-Porrot aldi-au ikusita, garrantzizko iru-itaun agertzen jaku aurrean, eta gure etxeko ezkeraldetik dabizen ANAI-MAITE'ari egin bear dautzaguna ain zuzen: 1) ETSAIA'ri ZERGAIK AUKERATU JAKO, EUREN MENPERATZAILLE-MALTZURTASUNEZKO JOKO-TXEBERAN JAUSITA, EUSKAL-ETXEKO LARRITASUNARI JARAMON EGIN-GABE, BIDE OTATIK SARTU DAITEZAN, ETA AINBESTE KOSTA JAKUN GUZTIA ZIRRIBORROTU DAITEN ?.

(I) Porrot = quiebra. (II) Menperatzailleak biurtuta alkartu dira = razón de estado. (III) Espainar ta Munduko-erritar = para convertirlos en ciudadanos de España y del Mundo.

2) MALTZURTASUNEZKO-MENPERATZAILLE-JOKOAN DA- BIZENAK... USTE DOZUE EGIZ JOKATZEN DABIZELA ?

EUREN MALTZUTARSUNEZKO-EGI LEZ BAI ! BAIÑA.... JAINKOAK BIZITZ-ONERI edo BEREZKOTASUN ONERI EMONDAKO DANON ESKU-BARDINTASUNAREN BILLA ?

3) BIZITZ ONETAN, SORT-ARAZI EGITEN DAN GUZTIAN eta GIZA-LEGE-BIDEZ BEREZKOTASUNEAN JAI DIRAN (EUSKAL-ERRIA-LEZ) NORTASUNEZKO IZATASUNETAN, EUREN BIZI-BIDEKO EKINTZAN USTEKABE edo BEARTUTA AURKA EGITEAGAITIK AGERTZEN DIRAN ZAURIAK, OSASUNERA BIURTZEKO.... LASTERREZKO BIDETIK IBILTEA BALIO DAUALA ?

Bereztutako Mundu onetan, zentzunezko egi-gauzak ezartzeko, osotu- ten dabezan arrazoiak, ziurtasunezko lanean bakotza bere lekuetan ondo kokatuta ezarri bear dira, Zentzunezko-Nortasun ederrenean agertu gura ba-dogu GURE ARBASOAK EGIN EBEN ANTZERA.

EZ DAU BALIO, EZ ! LASTERKA eta NORKERIZKO-ALDERDI-KERIETAN IBILTEA, BAKOTZA, GURA EZ DOGUN ZORITZARREZKO ALDERDI AUETATIK EUSKALERRIAREN ELBURUARI BEGITU, eta BATERA, IKUSPEGI ORREGAZ, ARDURA AUNDIKO LAN EGITEA.

. (Gaiñera jakin bear dogu, atzeko akatzak konpondu azik, aurrerako bideak ezin doguzela konpondu, eurak diralako azturazko arrazoi bidean aurrerakuntzazko bideak argitzen dauzkuezanak).

NORTASUNA:

JAINKOA´k, gure ARIMA´k ikertzailetasunezko gai-mundu onetara bialtzen gaitunean, BERA´k bereztutako gai-lege artera bialtzen gaitu, bear dogun tresneriekin.

Ez dausku bialtzen edozein gai-gauza bat izateko, bearrezko gauzaren ikertzailetasunean NOR izateko baizik.

Gure ARIMA´k, daukan tresneri aundiena, ARRAZOITASUNA da, eta bereiztasun orrek bakarrik aituazo egiten dausku, gai-mundu au JAINKOA´ren gauza dala.

Eta gure bizi-aldian bere jokabidearen oiñarria, egitarauaren (I) arrazoiak erakutsi eta bideratu egiten dauskun lez, gizarte-arteko eta gauzakaz uko ezin-gabe ardura aundiz egin bear doguzanak, zentzunezko antolatzaileak (II) izatera bideratzen gaitu.

(I) Egitarauaren = metodo, regla, orden de acción. (II) Antolatzaileak = gestores.

Jaioten garan guztiak ARIMA´ren ARRAZOITASUNEZKO-BAITA bardiñean jaioten gara, eta orregaitik danok daukaguz ZOR-ESKUBIDE bardiñak gai-mundu onetan.

Gizartearen zabaltasunezko bizi-antolaketako-ekintzan, ARIMEA da bere BAITA´n, ANTOLATZAILLETASUNEZKO NORTASUNAREN SENA EMOTEN DAUSKUNA, eta iñork ez dauka eskubiderik bestea menperatzeko, ez mende orreik lortzeko asmakizunezko legerik egi-lez atara ta ezartzeko, Izadi onek daukazan LEGE´tik kanpo.

NORTASUNAREN arloa, bakoiztasunetik izanda zabaltzen da erri-mailla artu arte.

Mailla ori ez da lortzen edozein eratarara, leen, senditasunetik auzotu ta babes-billaren zabaltasunean, leiñotzea dalako berezko elburua.

Ekintzazko elburu orren mamintasuna, jakintzaren aztura-bidean jarraituta, oituratu egiten diran jakiñakaz artzen dauan zentzunezko gorputza da.

Eta berezko-gorputz arlo-orreik osotzeko daukazan zati edo atal asko dira daukazenak, adibidez.

- A) **Zeru-Lurrari begira:** Bear gendun tresneria janaria lortzeko eta zeru-lurraren ekaitzetik babesteko.
- B) **Osasunari begira:** Zeru-lurraren janari-gelak eskintzen daukuzan mozkiñetik, zeintzuk ziran ongilleak eta pozoitsuak ezberdiñeko aukeratan, gorputzaren osasunerako. Eta gizaren ugaritasunari begira, gizartearen joka-bidea.
- D) **Jainkoa´ri begira:** Bildurra, beti BERE-LEGE´ari begira egiten ebazan gauzak, adoxtasunean egoten ba-ziran ala ez. Sinismen orreik ekandu-lez oituratuta (relijion).
- E) **Izkuntzari begira:** Euren ulermenerako, beste mintzotasunezko abots-tresneri bat lortu bear izan eben, eta abotsa´ri irudizko aditz-erak asi bear izan eben emoten, mintzoaren oguzpenera (I) eldu arte.

Euskal-Izkuntz ederra sortu eben gure arbasoak, bizitz oneri arlo guzti orrein jakintzaren-azturazko bidean emon eutsoen argitasunezko adierazte (II) ederrerrenean Euskeratu egin ebalako, eta bertatik artu gendun EUSKAL-NORTASUNA.

Emen mako-tarte bat egin bear dot, IZKUNTZA´k gure arreman arteko tresneri uts-bat bakarrik dirala lotsa-barik esaten dabenai aurrera urteteko.

Eta lenengo gomendio bat: Euskaldun guztiak, jakintsuaren gandik asi-ta, irakurri bear gendula *Zubiaga ta Legarreta´tar Felix´ek* idatzita daukazan “Origen y desarrollo del lenguaje” (según el vascuence), “Euskara hermeneutika” eta “Origen del vascuence” liburuak.

(I) Oguzpenera = pronunciación articulada. (II) Adierazte = explicación, interpretación.

Felix jakintsuak, gauza askoren artean esaten dauana: “Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala”.

“Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren (I) ozenezko (II) iturria argitzea dalako berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

Eta Euskerea, al dalako izkin bakarreraño eldu, orain ezin da esan alderatzailleak (III) esaten daben antzera, “Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala”.

Mintzoeraren oguzpeneko (IV) jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik: “Mintzoeraren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz, beren jaiokera argitzen dauan IZKUNTZ-BAKARRA”.

Mundu'ko jakintsuak beste aldetik esaten dabena da: “EUSKERIA dala HOMO-SAPIENS edo KROMAÑOÍ'en asierako izkuntz bakarra”.

Beste alde batetik begituta, Gure Aita-Sabino'k esaten ebana: “Euskaldunak Euskeraz berba egiten ebenean, euren izatasunezko NORTASUN ederrenean agertzen zirala”. Baiña asko galtzen ebala gaztelera mintzotzen ebenean”.

Orren ondore, Euskalerrriaren etsai aundienak (Mayor Oreja adibidez) be ori esaten dabe: “Euskaldunak guzurrik ez dabela esaten”.

Orregaitik ez da EUSKERIA edozelako tresnei uts-bat. Euskalgiza mundu oneri emon eutson adierazle bidetik, Maitasun eta Zuzentasunezko Zentzun Ederrenean eginda dagoelako.

Tresneri uts'ekoak, edo ZENTZUNEZKO-NORTASUNA galdu daben izkuntzak, izkuntz-naspildutasunetik sortu ziran izkuntzak dira, au da: asieran, Asia'n menperatzailletasunezko bidetik sortu ziran izkuntzak (indoeuropeoak), eta geroago erromatar indarrezko-alegiñetik sortu ziran latin-kumeak, gaztelera, fratzes eta abar.

EUSKALERRIARI BEGIRA:

Konturatu bear gara, gure arbasoak Mundu oneri emon eutsen adierazpen ondore, Nortasunezko maillan lortu eben sinismena zelakoa izan bear izan, eta zelango indarra euki bear eben, menperatzeko egin daben alegiñakaz gaur arte gu bizi gaitezaz.

Euskaldunai ez dautso iñork burua makurtuazo, eta gitxiago BEREN zentzunezko NORTASUNETIK atara, nai-ta EUSKEREAK, HOMO-SAPIENS sortu zanetik, mundu guztian lortu eben zabalkuntzean, gaur daukaguzan zazpi-lurralde auetan murriztuta geratu.

(I) Eredu-nagusiren = arquetipos. (II) Ozenezko = sonoro. (III) Aldaretzailleak = comparatistas.

Ez bakarrik murriztuta, gure EUSKAL-NORTASUNEZKO GORPUTZA sakon-zaurituta be badagoelako.

Gaurko EUSKALDUNAK orregaitik, ez gara ibili bear menperatzaileak edesti guztian ibili daben guzurra, izkillu, amarrukeri, eriotzezko indarkeria, eta katoliko-fazistaren sare-arteakaz jolasten, gure ARRAZOITASUNAREN ardura benetan, zentzun aundiko jolasketa izan bear dalako.

Ez dogu itzi bear, Mundu zabalean zentzun aundi-bidezko ekintzan lortu zan ASKATASUNEZKO-DEMOKRAZIA galdu daiten, EUSKALDUNAK ! JENDEKUNTZA ^(I) orren AITORLARI ^(II) garalako.

Eta nai-ta alderdikidetasunezko txeberan edo sare-artean guregabe arrapatuta egon arren, BAKEZKO-ELBURU bategaz jokatu, gure EUSKAL-NORTASUNAREN zauriak gaiztotu orduko, osatu daiguzan.

EUSKERA da, EUSKALDUNAK NORTASUNEZKO BAITAN daukaguzan zauriak osatu leiken tresneri nagusiena, gure arbasoak bere sorraldian, JAINKOA'ri begira bizitzari emon eutsoen ADIERAZPEN EDERRA ^(III) azalpeneko-abotsakaz ^(IV) osotuta, EUSKEREAN IRARRI EBAZALAKO EUSKAL-IZATASUNAREN JAKINTZAZKO-OITURA ta EKANDUTAKO EUSKAL-BIZI GUZTIA.

(I) Jendekuntza orren = civilizaciòn Paleolitico-Neolitica. (II) Aitorlari = testigos. (III) Adierazpena = explicaciòn. (IV) Azalpeneko-abotsakaz = voces interpretativas.

Atutxa'tar Paul
Zornotza'n 2.009'an Orrilla'ren 6'an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zarien guztioi eta on-egin daigula danoi, beren mamitik ulertzen dogunak.

Munduan eta Europa onetan batez-be, asko dira maltzurrezko jokoan dabizenak, euren norkerizko asmakuntzak garaipendu daitezana eta Bereztasunezko LEGEA`ren aurka diran lez, or !! sartzen gaitue gu, EUSKALERRIA ezereztutea gure dabelako.

Erreza ez da izango, Euskaldunak bizi egin gura dogulako eta geiago, gure arbasoak JAINKOA`ri begira gai-bizi oneri emon eutsen adierazpen ederragaz zor aundiak !! daukaguzelako.

JAINKOAK, NOR izateko bialtzen gaitu gaitasun onetara eta gure arbasoai esker, gure NORTASUNEZKO sinismenak bereztasunean sustraituta dagozan-lez, gaitz izango da JAINKOA`ri eta ARBASOAI uko egitea.

Olazar eta Uribe`tar Martin`ek agindu eustan lan onen mamia azaldu dagidala eta al-dodazan alegiñak egingo dodaz, solas-itzaldi onetatik arrazoiz beteta pozik urten daigun.

SARRERA:

JAUNGOIKOAK, gure ARIMAK gai`ezko bizitz oneitara bialdu ebazanean, BERAK ipinitako GAI-LEGE`en artean ezarri ebazan eta guretzat ezagutu-gabeko bizitza izan zalako, urduritasunezko bildur aundiagaz asi giñan bizi au erabilten.

Aize, lur, ur, egazti, suge, narrazti, arrain, abere eta lorategi eder oneitan sartuta, laster konturatu gintzazan “ARDURA” izan zala bizi onek eskatzen euskun aurreneko-ardatza eta beartuta geratu gintzazan jakintzaren antolaketakaz arduratzeko.

Gaitasun onen LEGEAK beartuta bizitzan irauteko, laster konturatu giñan, leen “NEURRIZ”, egiten genduzan gauza guztietan “ARDURADUN-NAGUSIENA” zala eta gizatasunarentzat or asten dira iker-lanak, daukaguzan jakintasunezko egarriak asetzeko, gaur arte eta gaurtik aurrera noz-arte izango dan jakin-gabe: “ZERGAITIK ITAUN” !! gure jakintza entseguz edo oarrez (1), azturazko bidean (2), garaipendu daiten.

Orregaitik, bizi onen asiera eta gaurko denboratan, nai-ta jakintzagaz bakandutasunezko aztura-bidean erreztasun aundiak lortu, aukera arloetan neurri bardiñean gagoz, bakandu bear doguzan ditekeenak edo izan-gaitasunetik beste

(1) Entseguz edo oarrez = metodo empirico. (2) Azturazko bidean = crecimiento sapiente.

ainbeste aurretik agertzen diralako, JAINKOAK ipinitako LEGEEN oldozmenean antza, BERAK bereztutako LEGEA-ren elburua betetea gura daualako, orekan bizi gaitezan.

Bigarren: Bizi onen bearrezko eta eten-bako egitarau-ekiñaldietan, gure gizatutako ARIMAK baita (3) garbi baten eta poz-aundiz agertu daitezcan, danon ordezkartzan ESKUBIDE BARDIÑAK daukaguzalako, ondorio-lez beste garrantzi aundiko irudi-bategaz estutu egiten gaitu, bizitzan bear dan ardatz-nagusia ren "LOTSA" gaz. Au, Izadi onen ardatz-nagusia biurtzen jaku.

Oiñarrizko ardatz oneitatik ASKATASUNEZKO irudia bakarrik geratzen jaku aurkezteko.

Irudi au ez da baiña: "JAINKOAK emon euskun aukera, gure ekiñaldiko gauzak ON edo TXARREZKO bidetik egin daiguzan" baiña.

Orregaitik, NOR-BEREN eta DANOREN giza-barren ASKATASUN OSOKO egikeratik agertzen dana: Gauzak "ON-BIDETIK edo BEREZKO-LEGEAN EGITEN DOGUZANEAN" nor-beren SENDIMENDUZKO-BAITASUNA garbi ta pozez beterik agertzen da.

Eta gauzak "MALTZURKERIZKO TXAR-BIDETIK EGITERAKOAN, NOR-BEREN BAITA DAMU-AUNDI BATEN, EZEREN ASKATASUNIK-GABE MENDERATUTA AGERTZEN DA".

JAUNGOIKOAK BERE BEREZTASUNEZKO LEGE aurrean, giza-barrenaren minkortasunezko sentimentu orregaz bialtzen gaitu gaiezko lorategi-eder oneitara eta zoriontsu edo oso-txar senditzen gara danok, zuzentasunezko gauzak zeintzuk diran jakiten dogunean, txarto egin ezkeru.

Gizon-Emakume batzuk, diruaren lillur-deiak gaiñezka egiten dautselako baiña, gaiezko Izadi oni danok NOR izanda emon bear dautsaguzan adierazpenetik eta Nortasunaren baitan gaitz-eginekoak emoten dauan damuari jaramon egin gabe, euren sasi-norkerizko ziñezkintzakaz, giza eta erri-gizarteak BEREZTASUNAREN LEGEZKO jakintzan naastatu egiten dabez eta Mundu onek emon bear eban olatugabeko itsas edo pakezko iruditik, ikaratutako elefante-bat leiargintza baten (4) sartuta egin leiken ondamen irudia emoten dogu.

Deiadarti-bat (alarmista) nazela irudituko jatzue batzuri. Nire giza-barren edo baita-ren egarriak baiña, zuzentasunaren zentzua eten-bako eskaera baten eukinda eta gure Euskalerra maite onen arrazoiakaitik minduta, ardura orreitan buru-belarri sartuta nago.

Edestilaria ez naz, ele-jakituna be ez, jakintza-ren arlo orreik, euren teknika-bidez edo arauz bete bear diralako.

Baiña, lenagoko edesti-ziurtasunaren zentzuzko zeaztasun asko batutakoa bai, orregaitik, erri-gizartearen edesti ta edestian izkuntzak emoneko toki-izenak (5) alkarren arteko ulermen baten azalduko dautsuedaz.

(3) Baita = conciencia. (4) Leiargintza = cristaleria. (5) Toki-izenak = toponimia.

ITZALDI ONEN ZATIAK:

I. ZATIA:

1. Izkuntza eta edesti-arloan idazlari batzuren laguntza izan dot.

1.1. Zubiaga eta Legarreta Felix "Origen del Vasceuce".

Beragaz egonda, Gaztelera emon eustazan "Vasceuropeismo versus Indoeuropeismo". Eta Euskeraz idatzita daukan: "Euskara ermeneutika" liburuetatik artuta.

Liburu oneik Internet'etik atarateko daukan elbidea:

<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

1.2. Nuñez eta Astrain'tar Luis'ek egin eban "EL EUSKERA ARCAICO" liburutik. Internet'eko elbidea: www.txalaparta.com

1.3. Euzkadi Online: "LA PRIMITIVA LENGUA DE LOS ANTIGUOS EUROPEOS". Internet'eko elbidea: email@EuzkadiOnline.com

1.4. "TOPONOMIA VASCA EN EUROPA".

1.5. "Gran Diccionario Enciclopedia Ilustrado". Selecciones Del Reader's Digest.

2. Europako jakintsuen esanetan, Kromañoen denborako giza-jakituria eta gaurko giza-geneak zelan dagozan.

3. Orren frogagarri batzuk.

3.1. Kromañoi'en Izkuntza.

4. Homo-Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, Zelako jendekuntzagaz osotu eban..., ezagutzen ziran Afrika, Asia eta Europa'ko lurraldeak ?.

5. "Mundu'ko-Gizatasuna'ren ETORKI edo GURASO-ONDOKO" izatea.

6. Arri-Aroan, Euskera'ren mintzotasuna nondik-nora egiten zan eta erro-bar-diñetik sortuak non ?.

7. Mundu zabalean, Euskal Toki-izenak eta Itzak.

7.1. Afrika, Asia eta Europa'n, Euskal toki-izenak.

7.2. Maixu jakintsuak zer esaten dabe.

7.3. Krutwig'tar Federiko'k esaten dauana.

7.4. Italia'n Euskerazko toki-izen eta itzak.

7.5. Lonbardia'n.

7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterra'n Euskerazko toki-izenak.

7.7. Kaukaso'an.

7.8. Bereber inguruan.

7.9. Bouda'tar Karl Aleman Euskalria eta Errusia'ren izkuntzan berariskoak zer esaten eban.

- 7.10. Iriondo'tar Mikel antropologo edo giza-iztilariak.
 - 7.11. Gandia'k idazle edo asmalari Arjentina'rrak.
 - 7.12. Europa, Asia eta Afrka'ren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta.
8. Europa, Asia ta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko ?.

2 ZATIA:

- 1. Asia, Afrika eta Europa'ko jendekuntzak.
- 2. Gure edesti-aurretik, Asia, Ejipto, Grezia'ren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri-aldaren edesti laburra.
 - 2.1. Asia'ren edesti laburra.
 - 2.2. Ejipto'ren edesti laburra.
 - 2.3. Grezia'ren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta.....Indoeuropeo'tarrak ?.
 - 2.5. Zergaitik euren erri-aldak ?.
- 3. Zer edo nortzuk izan ziran Etrusko'ak ?.
- 4. Zer edo nortzuk izan ziran Mauritarrek ?.
- 5. Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza-leiñuen egokitasuna.
 - 5.2. Izkuntza ta toki-izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
 - 5.4. Indoeuropeo'tarren alderraitasunak eta Etruskoa'ren agerkera'ren edesti laburra.
 - 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen-on.

3 ZATIA:

- 1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
- 2. Erromatarren sarrera.
- 3. Etruskoak eta erromatar ta latifia'ren jaiotza.
- 4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

4 ZATIA:

- 1. Gure Erdi-Mendeko Euskalerrian, errege ta jauntzaren sorkuntzak.
- 2. Euskalerria'ren Oraingo-Aldia edo eta Berrizte-Aldi'tik (6) Frantzia'n

(6) Berrizte-aldetik = desde la reforma

- 1.879'an egin zan iraulketararte.
3. Euskalerrian iraulketatik gaur arte.
 4. Euskalerria'ri Euskerea'k zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?
 5. **EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.**

1. IZKUNTZA eta EDESTI-ARLOAN IDAZLARI BATZUREN LAGUNTZA:

1.1. Zubiaga ta Legarreta'tar Felix'ek, bere argitaratutako liburuan "Origen y desarrollo del lenguaje" (7) 49n. orrialdian esaten dau: Munduko gizarteetan "Mintzoeraren jaiocera eta beren azalkuntzaren azkera edestian, Munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala bere neurri guztietan.

Orregaitik, Euskerazko mintzoera-bat bezala, Izadi'ak daukazan irudizko eredu-nagusietan ikertu ta ipuin bezala adi-arazia dala, edesti ta edesti-aurre onena, GIZATASUNAGAITIK iñoz azaldu, esan edo kontatu dana".

Maixutasunezko lan ederra benetan Felix Zubiaga eta Legarretak egin dauana. Euskaldun guztiak eta batez-be jakitunak irakurri bear leukiena, gure Euskal-Askatasunezko-Demokrazia sinismenean sendotu daiten eta European erakutsi, bera dala orain-be asieraren "IZAR"ezko ARGIBIDE ONENA, IZADI ONEN GIZA, ZENTZUTASUNEZKO "ORUBEAN" ESERI edo KOKATU GAITEZAN.

(ORUBEAN emplazamiento, de ORU= SOLAR+BE=(bajo). Arri-aro berriko berbea, Griego'en ots-izti edo fonetikan ORUBE=EUROPA, SOLAR-EUROPEO esangura dauana).

Felix Zubiagak, bere "Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo" 56 orrialdeko III.n. zatitik datorrena, liburuaren 79n. orrian: "IZEN-JAKINTZA (la Onomàstika), JAKINTZAREN OROIMENA"(8): An, Utu, Ra, Ilu, Ka, Ba eta As'en eredu-nagusiren (9) izkin-bateko berbak aztertu ta argitutako amaieran ondorio-lez esaten dau: "Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala".

"Izkin-bateraño eltzea, eredu-nagusiren ozenezko (10) iturria argitzea dalako berbearen mintzo edo abots sorkuntzan".

Eta Euskerea, al dalako izkin-bakarreraiño eldu, orain ezin da esan alderatzailleak (11) esaten daben antzera, "Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala".

Mintzoeraren oguzpeneko (12) jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz beren jaiokera argitzen dauan IZKUNTZ-BAKARRA.

EUSKEREAK, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartezko itzaren antolakuntzan eta entzutezko abotsetan irarrita daukazelako.

(7) Según el vascuence. (8) Jakintzaren Oroimena = memoria sapiencial. (9) Eredu-Nagusiren = arquetipos. (10) Ozenezko = sonoro. (11) Alderatzailleak = comparatistas. (12) Mintzoeraren oguzpeneko = pronunciación artikulada.

Zeruko (13) eredu-nagusiaren antzezko (14) zuzentasunetan “Izadi-iztia” (15) dalako, gizadiaren jakintzan “gogo-iztia” (16) ta “gizadi-iztia”(17) da, bai dirdaitasunezko-gogarketa (18) gizartearen eredu-nagusiaren antzezko zuzentasunetan eta “teolojia” da, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

Euskereak, Sumerio´en izen-jakintzazko irudimenaren eredu-nagusiko arlo aundietan eta gramatikan-be esku artzen dau, Ugarit ta Ejikto´ren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna ipuiezko asmamena (19) da, baiña eredu-nagusian berba barrien jaikunezko kokamenaren (20) trebetasuna-be bai, aiek ez dabelako galtzen abots´ik, antolamenduzko zentzurik ez aintzintasunik, bieri oso-osoan aurreratuzota burutakizun barrien artu-emonetan.

Izkuntz edo mintzoera-gintza baten, lojikak, mitolojia beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta Arri-Aro Barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, “esan/izaneko (21) elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oiturazko arau-zaletasunean, dana, Izadi onen berezko-antolakuntzagaz egokituta egon daiten, oroimenaren atzerakadarik ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele-jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir-jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

1.2. Nuñez ta Astrain´tar Luis´en: “El Euskera Arcaico” (EXTENSIÓN Y PARENTESCOS) liburutik be bai, zeaztasun batzuk artzen dodazalako.

1.3. Euzkadi Online: “LA PRIMITIVA LENGUA DE LOS ANTIGUOS EUROPEOS”. Internet´eko elbidea: email@EuzkadiOnline.com

1.4. “TOPONOMIA VASCA EN EUROPA”.

1.5. “Gran Diccionario Enciclopedico Ilustrado”. Selecciones Del Reader´s Digest.

2. Europa´ko jakintsuen esanetan, Kromañon denborako giza-jakituria eta gaurko giza-jeneak zelan dagozan:

“Elisabeth Hamel, berrien idazlea; Theo Wennemann, jermaniar ele-jakintzaren maixua, eta Peter Foster, Kanbridges´eko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea” diranak eta irurak bat eginda, auxe da baieztatuten dabena (leen Wilhelm Humboldt ele-jakitun edo izkuntzalariak eta orain beste jenetista-barri batzuk-be bardifiñ esaten dabena): “Europa´ren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan euneko zenbakitik, irurogeita amabost Homo-Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunak dirala eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea zala”.

(13) Zeruko = divino. (14) Antzezko = analogias. (15) Izadi.iztia = cosmologia. (16) Gogo-iztia = alma psicológica. (17) Gizadi-iztia = antropologia. (18) Dirdaitasunezko gogarketa = meditaciòn refleja. (19) Ipuiezko asmamena = imaginaciòn mítica. (20) Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual. (21) Esan/izaneko = decir/scr.

3. Orren frogagarri batzuk:

Homo-Sapiens Afrika'n sortu eta ugaritu zanean, "WURM" deritxon azkeneko izotzaldia urtutzen asi zanean, orain K.a. 14.000-9.000 urte Magdalenense eta Aziliense, gorengo Paleolitiko edo arri-aro'ko denboran Europa'tik zabaldu eta erritu egin zala..

1.868'an Frantzia'ko Ego-Sartaldean Dordoña'ko lurraldeetan Perigor'eko errian dagoan Kromagnon aitzuloan, Goi Arri Aldiko asieraren giza-azurrak aurkitu ebezan: Gizon-zaar batenak, adifneko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz (22) eta saretxo edo xirristak itsas-maskorrakin aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta. Eta giza-azurrak geiago: Frantzia'ko beste lurralde batzuetan, Txekoslovakia'n, erdi-ugarte onetan, Alemania'n, Suezia'n, Italia'n eta Polonia'n be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru-azurrak, gaur daukagun giza-itxuraren bardiñ-antzekoak ziran eta eroaten ebazan apainkeriak, bilbe (23) aundikoak zirala esan eben.

Oneik dira Kromañoen giza esan dautsoenai eta Europa'ren arbasoak.

3.1. Kromañoi'en IZKUNTZA:

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu, Homo-Sapiens edo Kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturan oiturtzeko euki eben izkuntza, ulermenean ezartzeko "LEN-EREDUKO EUSKERA" zala Atlant-Itsasotik INDIA'raiño. Iñorentzat ez leuke izan bear sinis-gogorkeri-bat, Homo-Sapiens edo Euskal-Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik, egoan ba?

Alan dala, esan leike antza !!. Jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda, EUSKERA asikoen sorkuntza askoz aurreragokoa izanda galdu egiten ekielako.

Afrika, Europa ta Asia'n, orregaitik ainbeste EUSKERAK argitu leiken toki izen aurkitzen dira: "Aran, Ur, Ibar etabar asko, mendi-toki, lur, ura, aize, osko eta eurak biziaren ulermenean sartzeko, izendu bear ebezan gauzetan agertzen da .

Emen, EUSKERA'ren ziurtasuna zeaztuteko esan bear dogu, goian, Felix Zubiaga ta Legarretak maixutasunezko adierazkizunean esaten dauana: "Izkin bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza, jatorriz sortutako izkuntza dala".

"Izkin bateraiño eltzea, eredu-nagusien (24) ozen'ezko iturria dalako, berbearen mintzo edo abots-sorkuntzan".

Eta EUSKERA dalako izkin bakarreraiño eldu leikena, orain ezin da esan alderatzaillak (25) esaten daben antzera: "EUSKERA jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala". "Bere izatean, bera dalako berezko-aitortzaillak, oguzpeneko (26) mintzoera jaiokeran".

(22) Beso ta samako estunakaz = pulseras y collares. (23) Bilbe = evoluciòn. (24) Eredu nagusien = arquetipos. (25) Alderatzailleak = comparatistas. (26) Oguzpeneko mintzoera = pronunciaciòn articulada.

Gaur EUSKERA orregaitik, mintzoera'ren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz, beren jaiokera argitzen dauan "IZKUNTZ-BAKARRA" da.

4. Homo-Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, zelako jendekuntzagaz osotu ebezan, orduan ezagutzen ziran Afrika, Asia ta Europa'ko lurraldeak ?:

Afrika'tik mugi-aldiak asi ziranean, jakintza'ren arloetan: Euskerazko leen-izkuntz eta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik gabe eta milla urte-asko ondoren jakintzazko azturan, leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran bakoitza beren Batzar-Nagusiko babespean.

(Mundu-bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduran eta berezko denboraren larrialdiko egoeratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren egokitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin-gordifnik aurka egin ezkeru, gu baiño askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur-leiñuetan Afrika, Europa ta Asia'ko lurralde guzti orreik egokitzen.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leiñuak, gaur oraindiño EUSKALERRIAK daukan, euren NORTASUNEZKO-IZKUNTZAK eta OITURA-DEMOKRATIKOAK, gure LEGE-ZAARRETAN DAUKAGUZAN'en ANTZERA.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura-arloan gaztelu-bat bakarrik ezin eben egin eta orko bidetik asi ziran berexkatzen antzeko izkuntz-desberdiñetan.

Alan da guzti, nai-ta Mundu zabal orreitan gizarentzat, mendi, aran, euri, izotz, egu-giro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta loreki antzeko-ezberdintasunak, bizi-ekintzaren bidez bereiztasun-bereziak emon, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izan-da, aukera barri orrek, ez dau nai esan guztiz banakatu egin ziralako, auzotasunaren leiñutasunezko urbiltasunak arremian edo alkar-ikusteak zaindu egiten ebazalako.

Gure arbasoak, milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten dabena..., eta eurentzat: "Aurreko JENDEKUNTZ-GALDUA dana ?.

Baleiteke, baiña..., Mundu onen daukan giza'ren jarraikuntza ikertzeko ez dago ezelako mirari ez antzekorik, hainbeste antzeko izkuntz eta toki izenaren arrasto eukinda.

Gaiñera, Felix Zubiagak esaten dauan antzera "EUSKERA" bere jaiokera argitzen dauan IZKUNTZ-BAKARRA izan-da, "JAINKOA'ren GAUZA IZAN-DA", bizitza bera, ez ba-dogu kontuan artzen.

Esan onekaz, oraindiño edestiaren-azalkeran gaurko izkuntzalarien artean ainbeste ganorabako-irabazkoi (27) egonda, guzurtapeneko illuntasunak iraundera dagiazan ibili, ez dot esaten lengo jakintsuak errudunak ziranik.

Menperatzaille aundiak Munduan egin eben naas-illunezko zirriborrotik eta gaiñera ekanduz edo berezko-oitura onean ibili ziran izkuntzalariei, egia dana argitzeko, frogapen edo siñispidearen eragozpeneko eskaeran debekatuta, euren azterkuntzak uts'etik ez bakarrik asi bear izan ebezalako, guzurrezko ta illuntasunezko zirriborro uts'etik asi bear ebelako baiño, gero bigarren zatian adiraziko dodan lez,

(27) Irabazkoi = interesados.

NORKERIAREN maltzurtasunezko guzurak irabazki-politiko biurtuta, eragozpen aundiakaz aurkeztu egin ziralako.

A-ta guzti, euren jakituri aundian egindako ikerkuntzazko-lan guztiak ez ziran makalak, goian esan dodan lez, asierako Homo-Sapiens, Kromañoi edo asierazko Euskal egokitasunera, gura nai-ez bideratuta geratzen diralako.

5. Mundu'ko-Gizatasuna'ren "ETORKI edo GURASO-ONDOKO" izatea:

Emen aipatzeko bearrezkoa dana: Zergaitik, gure arbasoak euren irudimenetan ez daitezkan aztu, Santimamiñe, Ekain ta Altzarri'ko ar-zulo edo leize-zuloetan marraztuta agertu diran irudiak "Mundu'ko-Gizatasunaren ETORKIZUNEZKOA" izendatu eta gure artean izkuntz-zaar eta ederrena dana, irudi-ulermentzeko mintzo-berbaren leenengo itz-ots'ak Euskeratik argitu leikezenak eta orregaitik garrantzi aundienekoa izan da "EUSKERA-IZKUNTZA", ZERGAITIK-EZ ?.

Erri-legean edo Demokrazian sartuta gagozela esaten dabe batzuk, baiña sekula ez gara aukera orreitan ezarriko, antziñatik datorren eta gaurko NORKERIAN, geiegian kokatuta dagon artean.

Laster izan bear dana, JAINKOA'ren LEGEA'k, txarto egiten doguzan gauza guztiagaitik mugatuta egonda, premiazko-larritasun oneri irten-bide bat emon bearrean gagozelako.

EUSKALDUNAK, EZ DOGUZ GALDU BEAR AURKEZTEN JAKUZAN AUKERA ONEIK, GURE NORTASUNEZKO eta ORDEZKO-ARDURAK BERRESKURATU GURA BA-DOGUZ.

ORRETARAKO BAIÑA, EUSKALERRIAREN ASKATASUNEZKO ELBURUARI DANOK BATERA BEGITU BEAR DAUTSAGU, NAI-TA POLITIKAREN EZBERDINTASUN TALDE-KIDEETAN LAN-EGIN.

BETI, LELOKERI-BARIK ETA BURU-BELARRI !! GURE ARBASOAK EMON EUSKUEN "LEGE-ZAARRAREN" ERRI-LEGEZKO (28) ZENTZUAREN ARDURAN LAN-EGINDA.

6. Arri-aroan..., Euskeraren mintzotasuna nondik nora egiten zan eta erro-bardiñetik sorturitako ezberdintasunak non ?:

Olazar'tar Martin'ek, beti esaten eustan, idazten doten guztian, erabateko (29) zorroztasunean lan egiteko.

Baiña zer esan, adibidez: Zesar'ek, leenengo aipamenean esaten ba-eban, Euskerea Garona-ibaitik bera berba egiten zala eta bigarreanean Loira-ibaitik ?. Gaiñera gaur jakinda, Eskoziaren ugartean goialdeko Kaledonian Pikto'ak bizi zirala eta eurak egindako arri-landuetan aurkitu diran idatzitako izki'ak Euskerazkoak dirala ?. Arri baten adibidez Pikto'z idatzitakoa: "doannataenakotekaetua" beren irakur agiria: "doana da Eneko t'akaitua" eta Gazteleraz irakurrita: "el que se va es Eneco y la preocupaciòn".

Eta Pikto'ak Ixn. gizaldian Eskozez-Keltiarrakaz bat egin ba-ziran, nortzuk bizi

(28) Erri-legezko = democracia. (29) Erabateko zorroztasunean = rigor.

ziran an Keltiarrak joan arte ?.

Orregaitik, gero, Mundu zabalean gaur agertzen diran sustrai bateko leen-Euskerazko toki-izenetan eta itz'etan argituko dodan lez, orduan ezagutzen zan Homo-Sapiens gizarteetan: "Atlant-Itsasotik India`raiño ? eta Britania`tik Afrika`ko zein lekutaraiño ?.

Eta Euskerea`ren jendekuntz (30) osoa, nik aurkitu dodazan zeaztasunezko zentzutik, Atlant-Itsasotik, Belgika, Alemania Italia`raiño mugatuta eta goitik bera, Eskozia edo Britania`tik Kadiz`eraíño.

Ez da arritzekoa nik emen esaten dodana, itaun gogorak agertzen diralako, adibidez: "Zer ziran Tarteso ta Iberoak Euskaldunak baiño eta zer !! Keltiarrak ?. Eta Sumer ta Etrusko`tarrak ?.

Indo-Europeotarrak nortzuk izan ziran ?. Non izan ziran ?: Europa, Asia`ren Ego-Mendebala eta India`ren Ekialdeko-Iparraldean egon ziran izkuntzari esaten dautsoe.

Eta izkuntz onek, ainbesteko arremán aundiak eukitea-gaitik, ele-jakitunai buruko-min aundiak emonda, euren azpiko-bardintasunak izkuntz-bakar batetik sorturikoak zirala emoten eutseelako.

Zelako izkuntzatik baiña ?: Homo-Sapiens`ek euki eben izkuntzatik zalantzarik gabe, orain beste gauza-bat esanda-be.

Niri, indoeuropeoaren-itz adi-mugaren gora-beran, ele-jakintzaren esku-antze edo trebetasunean ezer jakin gabe, zentzuzko-lojikan egiten nagoen billaketazko lan onetan, nastatutako edo zuzenezko ez diran gauza asko agertzen dira, adibidez: Zergaitik Gaztelera eta Katalan izkuntzak indoeuropeoarrak ?.

Ez ziran sortu biak..., erromatarrak ekarri eben Latin eta Euskera`ren bitartez ?. Edo, latiña`gaitik ?.

Zorro orreitan danak naastuta sartzea baragarria da, gaiñera jakinda, latiña, Etruskoak Griego`en izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebela eta Etrusko-izkuntza Euskerearen anai edo antzekoa dala.

Nortzuri esan eutsoen Indoeuropeoak zirala ?.

Nik daukan iztegiak esaten dau: "Semita, Uralo-altaika eta Malayo-polinesian beste batzuen laguntzan ondo egokituta egon ziran izkuntzak baiño oso ezberdiñak zirala (?) eta alkartasun orreín mordo zakak: "Albaniar, Anatoliko, Armenio, Baltiko, Kelta, Eslabo (Errusitar ta Txekoak sartuta) Germanikoak (Ingles, Aleman eta Eskandinabia`ko izkuntzak sartuta), Griego, Indoirano (Sanskrito, Hindi, Persak eta abar), Italiko (Latin eta español, frantzez, italiano, katalan, gallego, español-judua, Zerdeña`ko ugarteán sardo, Adriatiko itsas-baztarretan dalmata eta abar latin-kume bezala)".

Eta Indoeuropeoa baiño beste ariñagoko oinkada-bat emonda, Ario`ak nortzuk izan ziran ?: Indoeuropeoak baiño ariñago "Asia`ren erdian bizi ziran leiñuai esaten eutseen".

Oneik, lur-langille ta abel-zain edo artzaiak izan ziran. Eta ez eben euki, orduan Babilonia`n, Ejipto ta Siria`n euki ebezan oroi-karri lakorik eta irakurri ta idazten jakin-gabe, euren leiñuen antolakuntza etxe-gabeko edo erdi-alderraiezkoa (31) izan zan.

(30) Jendekuntz = civilización. (31) Erdi-alderraiezko = semi-nómada.

Ario itzak, indoeuropeoaren erri ta izkuntzak edestian mugatzeko, ez dauka ezerlako zentzurik.

1.823 eta 1.900 urte artean Max Müller aleman ele-jakitunak izkuntzaren bilbe (32) edo aldakuntzak argitaratzeko alegiñean, "ario" itzari ospe ta zabaltasuna emon eutson, beste batzuk, Europa'k euki ebazan nortasunezko arazo guztiak adierazteko ibili ebena.

Egoera orreik, "NAZI" faziztak aukeratu ebazan, Ario itza, ordeko "indogermano" edo "judua ez dana" itzan ulertu daiten, eurak endaren gora beran euki ebazan eziñ-ikusiak (33) arrazoitasunean ezartzeko. Eta begitu ortik aurrera zer egin eben Mundu'ko bigarren gudan.

Eta arrazoi-au argitzeko, Keltiar, Eslabo eta Germaniar izatasuna azalduta, adibidetu egingo dot.

Nik, danak sartuko neukez keltiar arlo bakar baten, oitura antzeko baten ibili ziralako eta euren izkuntzak alan emoten daualako. Adibidez: Oso indartsu ta mobikorrak izan ziran izatasun orreik baiña, alderraiezko ekiñaldi orreik ez eutselako izten euki ebezan sinispideak sendotzen, orregaitik, nai-ta indartsuak izan eta euren azturan asko ikusikoak, ez eben gizabideko (34) jendekuntzan (35) jakintzazko indar geiegirik euki.

Indoeuropeoak jendekuntzazko jakiturian be-maillakoak izan.... edo eta neurri aundi baten Homo-Sapiens asieraren oiturari jarraituta askatasunean oiñarrituta egon ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen bestek morroitasunera menperatzen. Eta orduko denboretan, zalantza orreitan kokatuta egon ezker, erromatarren antzera, mendeetan azkartasunezkoak diranak bultzatuta, ia aienatu ziran Europa'ren berezko erritarteetan, Aleman eta Eslaboak izan ezik.

Azalpen orrek, iru irakaspen argitzen dauskuz: a) Milla urte askotako mobikortasun orreik Sinismenetan ez eutsela itzi sendotzen. b) Euren arteko izkuntzak zirriborrotu egin ebezala eta d) Demokrazizko askatasunean erdi-purdiko aukera baten geratuta, ez ebela indarririk euki, menperatzailetasunetik urten eta euren sinismenetan sendotzeko.

Emen Aleman'akaz salbuespen-bat egin bear dogu, gero erdi-aroan I Karlos'en denboran eta Alemania'tik ekarri ebezan aolkulariak, Nafarroa espaiñolak mendetuta egonda. Oneik, Zisneros'ek euki eben menperatzaile batzangotasunezko eritziaren aurka, Nafar'tar erregeak euren ezar-lekuetan urte-mordozka baten, ezartzeko aolkua emoten eutselako.

Grezia ta Euskalerriaz ez zan gertatu bardiñ, euren lurraldeetan kokatuta iñor menderatzen ibili barik, sinismenean indartuta geratu ziralako. Baiña azalbide ori, Europa'ren zeazkuntzan ezartzen dalako, beren edestiko lekuan adieraziko dogu.

Orain indoeuropeo onein artean dagozan asierako Homo-Sapiens'en itz ta toki-izenak aurkezten joango gara.

7. Mundu zabalean, Euskal Toki-izenak eta Itzak:

Toki-izenaren (36) zentzua azaltzeko, gogoko garrantzi aundian euki bear dogu,

(32) Bilbe = evolucion. (33) Ezin-ikusiak = antagonismos. (34) Gizabideko = cultura. (35) Jendekuntzan = civilizaciòn. (36) Toki-izenaren = topònimos.

asieratik gaur arte izen-jeografiko batek iraun dagian, izen ori errotso, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Neolitikotik asi-ta gaur arte ikutu-bako berbak daukaz, Asia ta Afrika'ko leen gizarteak euren errekarari eta abar emon eutsezan izenak: Ibai/rio, Ibi/vado, Ibar/rio/valle eta abar. Eufrates-ibaia bera deitzen zan "Buranu" = "Urnammu", zeru guztia "URA" izan zala gogoratzen ziralako: "URA = UR+ANU = Agua del cielo".

7.1. Afrika, Asia ta Europa'n, erreka, mendi, toki ta erri-izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko Euskal-itz asko dira, jakintsuak orain dabizena argitzen eta azkar esan leike, lendik eginda dagozan lanak sakonak diralako.

Europa'n erreka askoren izenak itz bardiñakin emoten dabez euren esangurak ezagutzera edo euren oiñarriaren sorburuzko itz-bardiñakaz bai beintzat.

Susterrezko itz-bat "IS" adizkia (37) da: "Noruega'tik asi-ta Italia'raiño, Espaiña'tik Errusia'raiño eta Bretaña Aunditik Balkanes"erañoko 200 errekatan baiño geiagotan aurkitu diranak.

Adibidez: Noruega'n "Iseljorden" edo "Isa" Italian. Errusia'n "Isainka" edo "Iesla" Lituania'n. Txekia'ko Errepublikan "Jizera" edo "Ijssel" Beko-Errietan (38). Euskeran "Iz" berbea "S"lez esanda URA edo UR-LASTERRA esangura dau.

Izen-itzak, era bardiñetan agertzen dira "ur (aur)", "var (ver)", "sal (salm)" edo "al (alm)". "UR" itzak ur-geza (39) edo ur-gazi (40) esangura dau eta "URA" ur-tira edo ur-lasterra (41).

"AL" eta "SAL" itzentzako be esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko-Izkuntza aldi-baten, oso-zabala izan zala erakusten dabela.

Izen onein esaerak beste ainbesteen artean, adibidez: Noruega'n "URULA", Bretaña-Aundian "IRWELL", Beljika'n "OURTHE", Alemania'n "AUERBACH" "URBACH" "AURACH", Austria'n "IRRSEE", Frantzia'n lenago "UROFIA" izan zana eta gaur "AROFFE" eta "HURIEL", Espaiña'n "URURA" ta "UROLA", Polonia'n "URWIS", Errusia'n "URA" eta abar.

Alemania'n "VAR" adizkia daukien izenak: "Warne, Werre, Warmeno, Warme Aue" dira.

"SAL" adizkia dauken izenak: "Saale, Sale, Selz (Salusia), Selke (Salika)".

Eta "AL" adizkiarekin: "Aller, Alm, bi Alme, bata Alman eta bestea Almara, Ahla, Elte (Alantia) eta Elz.

Erdi-ugarte onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: "Alba, Alenza, Almar, Almanza, Almonte, Almantas eta abar.

Lenagoko izkuntzaren izenak-be, oiñarrizko itz orreitatik etorri leikez, orduko gizarteen leiñuak, errekek edo lurraldeak euki eben alderdi-eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebezalako.

Erdi-Ugarte onen Iparraldean, Erromatarrak "IBERUS" esan eutsoen Ebro ibai'ari.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko-Itsasoan bota-arte, danak

(37) Adizkia = elemento berbal. (38) Beko-Errietan = Paises Bajos. (39) Ur-geza = agua dulce. (40) Ur gazi = agua salada. (41) Ur-lasterra = corriente de agua.

Euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran. Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun aundirik egin, Euskeraz "IBAI" errekea dala esateko eta "IBARRA" errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan "IBAR" zelaiari.

Guadalajara'ko erria, Segobia, Soria, Zaragoza (41), Teruel, Kuenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, euki eben antziñako izena "ARRIAKA" izan zan.

Erromatarrak etorrita, Toledo'tik aldatzen zan Zaragoza Merida'raiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban eta Mauritarrak etorrita "Guad-il-hijarah"ren (euren izkuntzan "arriaren erreka" esangura dau) izena ipini eutsoen, gaur eurengandik datorren Guadalajara izenagaz ezagutzen doguna.

Ernest Försteman Aleman'ak (1.822-1.906) Germaniar eta Amerikar izkuntzalariak XIXn. gizaldi-erdian toki-izenen azterketan ibili zala: "Errekaren auntziñako izenak "Leunkatu-bako (42) Bitxiak" zirala esaten eban.

7.2 .- Vennemann'tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratico), Foster'tar Peter, Kanbridges'ko ikastetxe-nagusian genetikaren irakaslea eta Hamel'tar Elisabeth berrien idazleak esaten dabena:

Ebersberg erria, Babiera'ren goi-aldian Ebrach-ibaiaren ondoan kokatuta dago, aurreratsua basalde zabal, abartsu edo eta oiantsua daukana eta Erdi-Aroan Eberesperch edo Eparesperc izena esaten eutsoen.

Uri orren izena esan leike, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber= basurde, bas-auntz edo orein eta Berg= mendi) eta euren armarrian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza ez da olan baiña, Ebrach izena eredu-lez artuta, Ebersberg izena "Ibai" esan gure daualako eta apur-bat estututa "Ibai-Ibai", ipini eutsoen azkeneko "ach" ori euren Ego-aldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten "IBAI" esan gure daualako.

Frantzian izenak gaiñera ainbat "eber"ekin asten dira, nai-ta beste izkuntz-senditik etorrita doiñu ezberdiñak euki.

A-ta guzti, ainbat: "Ebreon, Ibarrolle, Evrune, Ivry, Ivors, Averdon, Avricourt, Avrolle, Yvre eta ain-bat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Ez dago Frantze'zik izen orreik, (nai-ta Aleman izkuntzan "eber basurdea izan") basurdea'ren izenagaz elkartuko dauzanik, basurdea euren izkuntzan "sanglier" esaten dalako.

Orregaitik "eber" izen orrek berak bakarrik erakusten dau: Erri biak, bata-besteagandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren errotik artuta, erreka edo IBAIA'ren adi-muga (43) daukala.

Lenago adizkai oneik ez ziralako ondo adierazpenduta egon, Renfrew'tar Kolin Ingleş arkeologuak, beren adierazpenarekin bidera urten da, esaten eban: "Indojermanoak edo erri guztien artean ezagutzen diran indoeuropeoaren izenarekin, berandu etorri zirala eta Europa'ra etorri ziranak nekazarien bardiñ antzekoak zirala, eurokaz Europa'ren Neolitikoa egokituta.

Emen aipatu bear dot, Zatarain'tar Anbrosio'k egin eban "DUDEN" Euskara Aleman itzultzeko iztegia. Berak amaitu ezin ebalako, arrigarrizko lan eder ori ame-

(41) Zaragoza = Bere antziñako izena ZALDUBA zan. (42) Leunkatu-bako = sin pulir. (43) Adi-muga = definición.

tsezko bidean geratu da.

Berak aurkeztu eustan itzezko zerrenda aundi bat: Aleman ta Euskeraz idatz eta esan bardiñak euki ebezanak eta damu naz aren bir-idazki bat orain ez eukitea.

7.3. Krutwig`tar Federiko`k esaten dauana:

Krutwig`tar Federiko`k esaten dau, Europa`ra indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa ta Asia`ren zati batean, jendekuntz-aundi baten, oiñarri bateko izkuntz-ezberdiñakaz mintzatzen zirala eta naastu egingo zirala agertu ziran erri-lapur edo sartzailleakaz (44).

Krutwig`ek, alkar-ganatu (45) egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertu ziran Troya (euren ariñagoko izena Ilion izan zan eta Euskeraz ili=iri, Uria esan gura dau) Sumeria edo Babilonia`k euki ebenakaz.

7.4. Italia`n Euskerazko toki-izen eta itzak:

Italia`n, Euskerazko toki-izenak: Liguria (Genoba inguruan, III.n. Gizaldian erromatarrak menperatu eben erria), Etruria (Arno ta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria), Oscia (Erroma`ren Ego-Ekialdeko Kanpanian) egon zan kokatuta Osko-erria, (leen-Euskerazko orde-izenak erdi-ugarte onein tokietan dagozenak eta Astur-Galizia`n batez-be), guztiak Sizilia ta Alpes`etan dagozenak.

“Alpe” itza, Euskerazko “Arpe” (arpe, aizpe=cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatik datorrena da.

Alpes`eko toki-izenak **AOSTA`n**: “Artavoz: arta=roca (arkaitz), naba=planicie, otz=fin” / “Ayas: aia=vertiente, as=de atrás” / “Arbelei: arbel=pizarra (arbel), ei=punta (egi)”. / “Arieta: Arrieta (arri-tokia)” / “Arroil: garganta montañosa (Euskeraz bardiñ)” / “Arrobi, Arpe, Aran, Arpeta: nido de aguila (arrano abi), bajo la piedra, Valle y Valle bajo las piedras (Euskeraz Valle=Aran da)” / “Gane: cimà (Euskeraz bardiñ esaten da)” / “Lesache, Lessona, Lezetta: sima (Euskeraz: Lezea, Lezona eta Lezeta dira)” / “Loy: loi (Euskeraz: barro, tierra hùmeda)” / Orio: Gipuzkoa`ko errekea bezala” / “Oyace: Oiane (selva)” / Oren: Orein (ciervo)” / Eta abar.

7.5. Lonbardia`n: Izen asko dira “ATE”n amaitzen diranak eta Euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin: “puerta” “paso” esan gura dabe. / “Albizzate, Alzate, Lazate, Velate, Lurate, Lainate, Azzate” eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.

Elexpuru`rentzat: Iru lurralde dagoz Euskal-izen oneik argi erakusten dabezanak. Aundiena: **Piamonte`ren Iparraldea** (italieraz PIAMONTE = ARPE = al pie de la montaña, Euskera`ren antzera Auñamendi`lez (al pie de la montaña) eta Oñamendi Pirineos`en Euskerazko izena. **Lombardia eta Aosta** (Milan eta Milan`eko Iparraldean) eta **Suizan, Ticino edo Tesino`ko erri-aldean.**

Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: “Azasca, Andrate, Aranno,

(44) Sartzailleak = invasores. (45) Alkar-ganatu = relacionar.

Artore, Arbedo, Arese, Arizzano, Arona, Arola, Arrobio, Arzo, Ascona, Balzola, Barasso, Bettola, Biasca, Gabiola, Gauna, Gazza, Gordola, Landarenca, Lesa, Oria, Ossola, Zubiena etabar.

Liguria lurraldean, batez-be Savona inguruan eta bere Iparraldean (Genoba'tik urbil): "Aiona, Albissola, Ardola, Berri, Carcare, Olano, Orba, Ormea, Sabona, Varese" etabar.

Ladinia'n (Tirol eta Trento'tik ur): "Agordo, Andraz, Arabba, Ardo, Arta, Gardena, Gares, Lasa (tirol), Maia, Mendola (Trentino), Padola" eta abar.

Milan'etik, erreka-bi aldatzen dira: "Lambro" (Euskeraz "niebla" esan gura dauana) eta "olona" ("avena"ren lurraldea?)

Frantzia'gaz muga egiten dauan "UBAYE" errekea / Ladinia'n: "EGA" ibaia / Dolomitas'eko mendietan: "Bai de dones"eko aintzira edo ur-geldia. "Aiarnola, Arlas, Arblatsch (Tz doñuagaz), Atalalta, Cima de Gana-Bianca (Euskeraz bardin), Ormea eta abar Alpes'eko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz "-asca"ren amaieragaz, Euskeraz bardin esan gura dauanak: "Val di Anzasca, Val di Verzasca" eta abar.

Lurralde orrean Izkuntz ta mintzadar'en artean-be sortzen dira bateratasunak: "Asciola = acha (Euskeraz AIZKORA) / Astore = cernicalo (Euskeraz "aztore") / Baita = borda (casa del pastor)".

Txistuka esaten diran "TZ" eta "Z" geiago dira Euskerarenak orko izkuntz-latiñoarenak baiño.

Emen, derrigorrezkoa da aitatzeara: Alpeetan, Aleman, Italiano ta Frantzes izkelki edo mintzadar'etan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.

Adibidez: "ROMANCE, (Suiza'n % 0'7 50.000 giza- seme/alaba). / LADINO (aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitas'en erdian 10.000 giza- seme/alabak berba egiten dabena. FRIULI (Austria, Eslovenia eta Italia'ren muga 500.000 giza- seme/alaba). / OCCITANO (Piamonte'ko lurraldean 200.000 giza- seme/alaba). / ESLOVENO (Piamonte'ren mugan, Trieste eta Gorizia'n 80.000 giza- seme/alaba)".

Alpes eta Kaukaso'ren gertakizunetan ikusten da, mendi aundien babesean izkuntz geiago bizitzen dirala eta euren nortasunak obeto zaindu.

Alpes eta Euskal-mitolojian-be, antzeko gauza asko daukiez artean.

Italia'n beste toki-izen batzuk: Liguria'n: "VENASCA". / Genova'n: "BENASCO" / Pavia'n: "BEASCHI". / La Chapelle: "BENÊCHE". / Vaucluse: "VENASQUE". / Napoles eta Campania'n: "AUSONA ta LIBERI". / Salerno'n: "ORRIA". / Potenza'n: "ANZI", "ABRIOLA", "BANZI" eta abar.

Sizilia'ri buruz, garrantzizko gauza da, 25'etik 101'era bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana: "Sizilia'ko alor edo soro'ak (46) leenengo landu ebezanak Oña-mendi edo Pirineos'etik bera joan zirenak zirala eta euren lurraldearen erreka aipatzea bearrezkoa izanda ezagutzen ulertu dagien "Sicanos" dirala esan eben.

"Sikano" berbea, baleikete Oñamendian (47) dagon "ZINKA" ibaiaren izena izatea, antza baiña, ez dagoz ziurtasun guztiagaz.

(46) Alor edo soro'ak = campo de cultivo. (47) Oñamendian = Pirineos.

7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterra'n Euskerazko toki-izenak: (Kromañoien ezurrezko-ondar asko dagozan tokiak direnak)

Zalantza aundiko berbak dira: "-barri" edo "Berri" adizki etan amaitzen diranak.

"LANDA" berbea adibidez (nai-ta Keltiar berbea-be ba dala gogoratu) edo Irlandan "GARA" ibaia.

Eskozia eta Irlanda'ren mea-gune'ko lurretan: "CARRICK" berbea (Karr" = piedra) edo "SCOTH" ("-sk" doñuan, eusko, ausko edo basko-lez) eta "GLASGOW" ("gasko" doñuan).

7.7. KAUKASO'an: Zalantzazko berbak eta sinis-gabekeria artu bear diranak dira Georjia'n adibidez: "GORBEYA" (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra-lez). / Eta Armenian: "ARARAT" mendia (Araba, Gipuzkoa eta goi-aldeko Nafarroa'ren bitartean dagoan Aralar-mendi eta edo mendi-besanga lez). / Edo "GORA" (lurralde orrean izkuntzan "Montaña" esangura dauana eta Euskeraz "Arriba").

7.8. BEREBER inguruan: Zalantzazkoak dira: Magdaleniense garai alditik datozan berbak "-barri" abots'ean amaitzen diranak, adibidez: "Sugabarri", "Zuchabarri" (Ptolomeo) edo Succbar" (Plinio'k). Eta beste batzuk, Euskal toki-izenak osotzeko ekarten dauan adizkiakaz, adibidez: "-Gar)a (altura): "Garb, Garian, Gardaya eta abar".

7.9. Karl Bouda Aleman (1.901'ean Anburgo'n jaioa eta 1.979'an Erlangen il) Euskalaria eta Errusia'ren izkuntzan berarizkoak (especialista) esaten eban:

Euskerea eta Siberia'ko izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu (descubrir) egin ebazala: "Argi" eta "Yrgi" (luz) berbaren artean bezala, Bele (cuervo), Lepo (cuello), Gurdizka (carreta), Elur-lera edo Elur-narra'ren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen (especialistas) artean esaten dabe: Euskerea ta Urales'eko izkuntzarekin: Fines, Ungaro eta Siberia'ko Obi ibaiaren ibarrean bizi diran errien fino edo sendi-ugriara (Uraletako izkuntz ugarien artean adar nagusia dana), Suomiera (Finlandia'ko erriaren izkuntza), Laponiera, Ungariera eta abar Ostia'ren izkuntzakaz, kidetasuna dagoela.

Mitxel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxenike'k ikertu eben ditekeen orreik eta zenbaketari-iztegi bidearen emonak beti izan ziran %'tik 5 baiño gitxiago.

A-ta guzti euren esana: "Euskerea, Uralo-Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoela" da.

7.10. Mikel Iriondo antropologo edo giza-iztilariak:

"Amerikan Journal Physikal Anthropology" aldizkarian esaten dau (2.003'an Urrilla'ren 13'an "Diaro Vasco" k batu ebana): "Euskaldunak Europeoakin, naiko berezitu egiten dirala".

Bere eritzian, orube (asentamiento) edo lur-jabetasun orrean lenaldi edo antziñatasuna adierazten daualako. Eta azaldu leiken gauzea dala: "Europeoak,

Euskaldunak baiño geiago naastu ziralako, orain 5.000 edo 7.000 urte Ekialde-Erdetik erri-aldan etorri ziran lur-lantzaille edo nekazari ta abelzaiñakin.

Euskalerrira, teknika edo trebetasun orreik, geiago eldu ziran “Jakintzazko trebetasunaren artu-emonetik, endak-nastu bidetik baiño”. Eta orren esan naia: “Euskaldunak jendekuntzazko jakitean eta izkuntzan, Europa’ren azkeneko bakarlekukoak garela, “Indoeuropeizatuta” ez gagozanak da.

Mikel’ek eritzi au nabarmentzeko (matizar): “Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo besteganakoa (48), Ludi onen gizakumeari zeozer bereizgarritzen badautsoelako, artean nastutako trebetasun edo gaitasuna dalako”. Eta “EUSKALERRITIK, EUROPATIK BEZALA, DANAK ALDATU DIRALA” esaten dau.

7.11. Gandia’k idazle edo asmalari Arjentinarrak:

Geiago esaten dau: “Euskalerrria, Europa’ko erri zaarrena dala”. Bere izkuntza: “Kaukaso’tik Atlant-itsasoraño eta Afrika’tik Europa’ren Iparralderaiño Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala”. Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri batzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

7.12. Bigarren zatian, Europa’ren gizarte-auzi’ko (cuestiòn social) edestian sartu orduko, aurkeztu daigun: Europa, Asia eta Afrika’ren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta:

Pleistozeno aldia: 2.000.0000-1.800.0000 urtetan asi eta orain 11.000 urte amaitu zala.

Paleolitiko aroa: Iru alditan banatzen da: Be-Paleolitikoa K.a. 1.000.000 urte inguruan asi-ta, 150.000 urte ingururarte.

Erdi-Paleolitiko aroa: K.a. 150.000 urte ingurutik 40.000 urte ingururarte.

Eta Goi-Paleolitiko aldia: K.a. 40.000 urtetik 9.000 urte ingururarte.

Oso luzea izan zan aro-aldi au eta bitartean ainbat giza-sume bereziko-mota sortu eta galdu ziran, orain 30.000 urte Homo-Sapiens agertu arte.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoa’ren aldi-artekoa da eta Europa’ren edesti aurreko-aroa, orain 10.000 urte ingururarte.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Homo-Sapiens giza, eizan egitez gaiñera, zitu, bii, ale edo Fruituak batzen asi zan.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki edo Brontzeko aldiaren artekoa da.

Homo-Sapiens aldi oneitan, arrapari-uts izatetik ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan eta orren ondorioz bizi-leku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen eta leen iriak sortu ebezan.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak-be asi ziran artzen eta batez-be arria lantzeko era-bide aipagarrienak.

(48) Besteganakoa = relativo.

Neolitiko aldia Ekialde-Urbillean, orain 9.000 urte asi zan eta Europa'n 6.000 urte inguru.

Homo-Sapiens: Afrika'n sortu zan eta leen euki eben izkuntz ta euren jakintza oituratzeko ekanduzko oiñarri-bidetik asi ziran Asia ta Europa'tik zabaltzen, Würm deritson izotz-aldian.

Kromañon giza eta euki eben leen-izkuntza: Frantzia'ren Dordoña'ko erri-inguruan (Tursac) Eyzies-de Tayac'en Madeleineko arpe edo aitzuloan (49) aurkitu ziran orain 30.000 urteko Kromañon-giza'ren azurrari esaten jako.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten eta bera agertu zanean aurreko Neandertal'ak euren artean ezereztu egin ziran eta sortu zan giza-mota au izan zan Asia ta Europa'tik zabaldu zana gaur arte, bere leen-Euskerazko izkuntz-azturan.

8. Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko:

Ikusi dogu, zelan aize ta lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billa aurrerakuntza aundiak emon eutsoezala, zitu, bii, ale edo Fruituak ugari artzen asi ziralako.

Orregaz batera, euren denborak-be nasaitzen asi jakiezan, giza-legean aurreratzeke eta bear ebezan arri-landuak trebetasunean egokitzeko.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, bakoitzaren batzarrarekin eta izkuntzan Atlant-Itsasotik Urruneko-Asia'raiño eta Europa'ren Iparraldetik Afrika'raiño orduan lurak lar zabalak izan ziralako, leen-Euskerazko errotik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten.

Au-da aurkitu dodazan zeaztasunetatik, ulertzen dodan orduko Europa, Asia ta Afrika'ren auzotasunaren NORTASUNEZKO egokitasuna.

Eta gure edesti aurretik NORKERIETAN asi-ta, menperatzailleak Asia'tik xirriborrotzen asi zirana, gaur Bizkaia'ren ur-kolko inguruan ondo-murritzuta geratzen dan gure EUSKALERRI maite au izan ezik.

Españolak ta Frantzezak ezin-bestean ezereztuteke alegiñean dabizena, Paleolitiko-gizarteak oraiñarte JAINKOA'ren BEREZTASUN LEGEA'n lortutako ASKATASUNEZKO-DEMOKRAZIAK ezereztu gurean, Mundu onen gizarteetan BEREZITASUNEZKO SIKO-LEGE'rik GABE, EUREN GAI-NORKERIZKO ELBURUAK, ERREZTASUN GEIAGOREKIN GARAIPENDU DAGIAZAN.

Bai.... ?. Bigarren eta Euskalerriko irugarren zatietan ikusiko dogu, ori ez dala izan ditekeena.

(49) Ortik dator Auriñaciense edo Magdaleniense Goiko-Paleolitiko aldian, Musteriense eta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdaleniense izena Madelein mendi'ko aitzuloaren izena ipini eutsoelako.

2 ZATIA:

1. Asia, Afrika eta Europa'ko jendekuntzak.
2. Gure edesti-aurretik, Asia, Ejipto, Grezia'ren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri-aldaren edesti laburra.
 - 2.1. Asia'ren edesti laburra.
 - 2.2. Ejipto'ren edesti laburra.
 - 2.3. Grezia'ren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta...Indoeuropeotarrak ?.
 - 2.5. Zergaitik euren erri-aldak ?.
3. Zer edo nortzuk izan ziran Etrusko'ak ?.
4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarrak ?.
5. Lenengo eta Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza-leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki-izenak.
 - 5.2. Izkuntza ta toki-izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
 - 5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etrusko'en agerkeraren edesti laburra.
 - 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen-on.

1. Asia, Afrika, eta Europa'ko gizartearen leen-jendekuntzak:

Leiñuen auzotasunaren ardurazko antolamenduan eta leen-euskerazko izkuntzan egokituta egoteaz gain, egu-giroaren gozotasunagaitik, goian esan dogun-lez, Europa baiño iru-milla urteren aurrerakuntza artu eben eta bai-ta NORTASUNEZKO bidetik alde eginda K.a. 4000-3000 urte inguruan NORKERIETAN-be asi zirala.

2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Ario eta edo Indoeuropearen edesti laburra:

Mundu onen leen jendekuntzak (50) egu-giro onak lagunduta, Ekialde-Urbil eta Ekialde-Erdi inguruan sortzen dira. Indo-ibai eta Nilo-ibaiaren bitartean eta apur-bat estutu ezker Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean Sumeria'ko erria orain K.a. 4.000-2.500 urte bitartean.

Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, arkeoloji-lanaren bitartez aurkitutako ondarrak, irudian (51) ziri-antzeko (52) idazkera asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre-lan edo eta zillar-lanean, obekuntzazko edertasun aundia erakusten dabe eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin (53) ureztatu egiten ebezan, gero Babilonioak aukeratu ebena eta Sargon erregeak menperatuta ezereztuten

(50) Jendekuntzak = civilizaciones. (51) Irudian = ideogràfica. (52) Ziri antzeko = cuneiforme, en forma de cufia. (53) Egindako tresneriekin = artificialmente.

joan ziran erri-lez, Babilonia ortik aurrera sendotzen joanda azturazko jakintzan.

2.1. Asia´ren edesti laburra:

Emen azten dira edestian Norkeriaren bide maltzurak. Sumer´tarrak euren auzotasunezko lurraldeetan bakez kokatuta, egitezko (54) jakintzan jendekuntz aundia artuta, baten baten aunditasunezko irudimenari egoak ipini eutsozenean. Ala...eurak izan ziran leenengotik maltzurrezko eritzi orreik bideratu ebezanak ?.

Dana dala, Sem´darren erri zaarretik, K.a. 4.000 urte inguru Mesopotamia´ren Ego´aldean sortutakoa, K.a. 2.600-2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan "Akkad"eko (55) kaizertzaren sortzaillea izan gurean eta bere-ala asi zan Sumerio´tarren aurka oneik menperatzeko alegiñean.

K.a. 2.025-2.010 urte artean I Sargon´ek, Asiria´tik asi eta lurralde aundi baten sargonidaren kaizertza sendotu eban.

Gero, K.a. 722-705 urte bitartean II Sargon´ek, sargonidaren errege-leiñua ezarri edo irasita, Samaria, Isrrael, Ejipto, Armenia, Kaldea eta Babilonia´ko errialdeak menperatzeko alegiñetan ibilita, K.a. 710´ean Babilonia´ko errege egin zan, beren jauretxe edo gaztelua, Ninibe´ren (56) Iparraldeko mendietan eraikita.

II Sargon´en ostean, K.a. 705-681´eko urte bitartean bere seme Senakerib izan zan errege edo kaizerra eta 689´an Babilonia ezereztu edo ondatu ondoren Ejipto´ren mugatara elduta, jauretxeak edo gaztelu batzuk eraiki ondoren, Akkab´eko urian Nesrok jainkoa´ren izenean egon zan eraikitako eleiza edo jauretxean, beren semeak il eben.

Urrengo errege, I Kanbises K.a. 600-559 urte bitartean errege izan zan.

Gero bere seme Ziro aundia K.a. 559-529 urte bitartean, onek gaur Irak dan Media erria (57) 553-550 (549) urteetan menperatu eban, 547-546 urte bitartean Kreso´ri irabazi eutson eta Lidia mendetu ondoren 540-539´an Babilonia eta Juduak askatu ta Palestina´ra joaten itzi ondoren, Kaspio-Itsasoren zelaietan Mesajeta´ren leiñuen aurka dagoela il eben.

K.a. 529-522 urte artean bere seme II Kanbises´ek igon eban erregetzara eta 525´ean Ejipto mendetu ta euren XXVII´ko errege leiñua ezarri ondoren bere kaizertza Nubia´raiño zabaldua Nilo-ibaiaren ibarragaz bat egin eban.

Baiña Ammon eta Etiopia´n porrot egin ondoren Ejipto´ra urten orduko bere anaia Smerdis il eban, bera gudan ibilita erregetza kendu eutsolakoan bildurragaitik eta bitartean Gautama-apaiza beren anaiak Smerdis izenean erregetza lapurtu eutson, bera K.a. 522´ean Persia´ra itzultzen egoala lapurketak zuzentzeko, il zan.

558-486 urte bitartean bizi zana, I Dario aundiak 522´an erregetzara igon ebanetik India´raiño elduta, kaizertzaren zabalkundezko asmoak aundiak ziran eta Europa menperatzeko be alegintzen asi ziran.

Europa´n sartzeko, Grezia´ren demokrazia ezereztu egin bear lenengo eta or !! agertu ziran aurka, jendekuntzaren oiturazko sinismenean, oso ezberdiñak ziran indarrak.

(54) Egitezko = metodo empirico. (55) Akkad´eko = Acadio. (56) Ninibe´ren = Khorsabad. (57) Media Erria = Medos.

Persa'k: "morroitasunean batzangotzeko Menperatzaille gogokoak oso-osoa zirenak". Eta Griego'ak: "Azturazko giza-bidean ekanduzko mailla aundira elduta...., Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenduta egon ziranak".

Dario persiatarrak 499-494'ko urte bitartean, Joniko erri batzuk bakeztuta, Maraton'en K.a. 490'ean, Grezia'ri emon eutson leenengo eraso-aldia. Grezia'ren gudalozteak baiña, Milziades'en aginduan 9.000 Espartar-gudariak babeserako prest egonda, Dario'k eroan ebazan 20.000 gudariai irabazi eutsen.

Eta bere seme I Jerjes (58) Ejipto'ko iraultza bakeztuta, 480'an Grezia'ri Termopilas'etan emon eutson bigarren eraso-aldian garaille agertu arren, 480'an bertan Salamina'ko itsasoan Temistokles'ek emoneko pasara ederra artuta, I Jerjes'ek gudalozteak Mardonio'ren agintzan itxita Ekialde-Txikerreko Susa'ra, euren kaizar-jauregira alde egin eban.

Mardonio'k, K.a. 479'an Platea'ko (59) borrokan-be galtzaille urten eban, Pausanias'ek bideratutako Espartarren Alkartasunezko gudaloztearen aurka eta Mikala'n egun berean, itsas-ontzidi edo guda-ontzidien itsas-borrokan Persa'k ondamenduta geratu ziran.

Eta emen bitxi-bat: Mardonio Jerjes'en lengusua zan eta borroka ori irabazi baren Grezia'k eukiko eban urrengo satrapa edo jauralaria il-da, Griego'ak bere oialpe edo oial-txabolara joanda eta an egon ziran diru ta urrezko-altxorak ikusita, euren arritasunezko itauna: "Gizon onek baiña...., zertarako gura dau ainbesteko premiatasunagaz gure erriak menperatzea...., ainbesteko aberastasuna eukin da ? arrituta esan eban.

I Jerjes il eben eta bere seme II Jerjes asi zan Grezia'ren aurkako erasoan, baiña au-be alperrik, euren artean trebetasunezko nor-geiagoan asi ziralako eta au-be 424'an il eben, beren agintaritza artu ondoren aste gitxi baiño ez.

Grezia'ren Demokraziari ezker, or !! geratu ziran, faziztak leenengo aldiz Europa menperatzeko euki eben asmakuntzak eta Eki-aldetik egoan morroitasunezko itxuran agertu gaitez an aletin guztiak.

2.2. Ejipto'ren edesti laburra:

Nilo-ibai inguruan, Kamitak Suez'eko lur-besotik (istmo) sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaino alboratu ondoren eta K.a. 4.500-4.000 urte inguru, jaurkintza-legez erregetzazko giza-bide sendo baten antolamenduta, K.a. 3.300-3.200 urteetan Menes'ek erregetzara igon ebanean, Ejipto'ren goiko ta bealdeko lurak alkartu ondoren, Faraaien jendekuntzari bideak zabaldu eutsoez an eta oneik ogeita-amar errege-leiñutan iraun eben.

Ejipto, Asia'ren antzera, jendekuntzazko jakintzan azkera aundikoa izan zan.

Ikusi dogu, zelan Asia'tik agertuta Kamitak sartu ziralako bertakoak basamortura bialduta eta Menes erregetzara igon orduko K.a. 4.241 urtean lortuta euki eben 365 eguneko Eguzkia'ren egutegia eta irudizko-idazkera.

IVn. eta Vn. Faraon leiñuekin trebetasunean goralduegin ziran ezin-obetasunean eta ainbat txuntxurrezko (60) etxegintz aundiak egin ebezan.

Faraaien VIn. leiñutik onantza, erregeen jabetasunak berakada aundia emon on-

(58) 519-465. (59) Grezia'ren antzifiaiko uri-bat izan zana eta Tebas'eko Ego-Mendebalean kokatuta egoana. (60) Txuntxurrezko = piramides.

ondoren, feudotza asi zan goratzen eta kaizertza´ren batasuna ezereztu eben.

Erakleopolis´eko printzeak agintaritzaren jabetasuna eskuratuta IX eta Xn. leiñuari emon eutsen iraunkortasuna, baiña Tebas´eko printze edo buruzagiak alkartuta Erakleopolis´ekoak bota ebezan eta K.a. 2.160-1.570 urte bitartean Erdiko-kaizertzari emon eutsen indarra XIIn. leiñuetatik XVII´garreneraiño.

XIIIn. leiñuak orokorrezko agintaritza ostera berrezkuratu eben eta Nubia´ren bealdeko lurak erritu ebezan.

XIIIIn. leiñu-agintaritzan, Asia´tik agertuta Ikso´en sarraldia (invasiòn) euki eben eta oneik Nilo´ren ibai-artean (61) ezarrita eta Uri-nagusia Abaris´en kokatuta, euren faraoi erregetzagaz aurrera egin eben, baiña XV eta XVI´garrengo leiñuak Ikso´enak izan ziran.

K.a. 1.600 urte ariñago XVIIIn. leiñu aldian, Faraioia´k Ikso´ren aurka asi ziran eta Almes´ek Faraoi´en XVIII´garrengo leiñua´ren sortzailleak 1.570-1.075 urte bitartean kaizertza barriari irauteko indarra emon eutson eta Ikso´ak bota ebezan.

Ortik aurrera eta 1.570-1.304 urte bitartean Ejipto´ko jendekuntzari esaten dautsoen urrezko-aldian bizi zirala.

Ejipzio´ak, beste sarraldi baten billur, Siria ta Palestina Eufrates ibairaiño Iparraldetik mendetu eben eta Ego-aldetik Nubia´ko jabekuntzak Napata´raiño zabalduta, Ejipzio´tarrak Lur-Arteko itsasoaren (62) errien-arteko antolatzaile edo artekari (63) nagusienak izatera eldu ziran.

K.a. 1.375-1.358 urte bitartean, IVIn. Amenhotep´ek euki ebazan indar guztiak, erlijioz, monoteista-gurketa baten alegiñean ibili zanean, Itita´k Siria kendu eutsen eta basamortuaren etxe-gabeko edo alderraiak (64) Palestina´n asi jakiezan sartzan.

XIX´garrengo leiñuen Faraioia´k IIIn. Ramses´etik K.a. 1.290-1.223 urte bitartean asita, Siria ta Palestina berrezkuratu ebazan eta Libio ta Egeo´tarren sarraldiak geratzeko Ititakaz alkartu zan. Nai-ta Libio eta Egeo´tarrak, 1.190-1.158 IIIIn. Ramses urte denboran Siria ta Palestina ostera berrezkuratu. Faraoi´ai kanpoko lurralde orreik galduta, diru arloetan naasiak ekarri eutsezan eta euki eben aginpidea makaltzen joan jakien.

K.a. 1.075-940´ko XXIn. leiñuen urte bitartean, Faraoi´ak Ejipto´ren bealdeko Tanis´etik jaurkintzen eben bitartean, Amon´en apaizak Tebas´etik asi-ta Ejipto´ren goialdian agintzen eben eta etsaigo edo zatiketa au, Iparraldean K.a. 940-730 XXIIIn. leiñu eta K.a. 725-710 urte bitartean XXIVIn. leiñuagaz iraun, Ego-aldean K.a. 761-715 urte bitartean XXIII´n leiñuagaz iraun eban.

Areik eta Etiopi´tarrak Ejipto´ren jabetza artu eben arte XXV´n leiñu´akaz K.a. 657´rarte jaurkitu.

K.a. 670n. urtean, Asirio´ak asi ziran Ejipto menperatzen eta K.a. 654 urterarte egon ziran.

Faraoi´ak denbora gitxi baten barruan K.a. 664-525 urte artean jaurkintza berrezkuratu naian egonda, Persia´ko IIIn. Kanbises agertu jakien eta Ejipzio´tarrak menderatu ta Satrapi-jaurleri baten azpian ipini ebazan.

K.a. 332´an Alejandro-Aundiak Persa´k bota ebazan eta Alejandria´ko Uri-Nagusia eraiki ondoren, bera, K.a. 323 urtean il zanean, Alejandro´ren gudal-nagusi

(61)Nilo´ren ibai-artean = delta del Nilo. (62) Lur-arteko itsasoaren = mar Mediterraneo. (63) Artekari = arbitro. (64) Alderraiak = nomadas.

izan zan Tolomeo'ren aginpean geratu ziran. Onek Faraoi izendatuta Tolomeo'tarren leiñuak asiera emon eutson.

Tolomeo'tar leiñuak, Elenika,ko jendekuntzaren eragipenean (65) indartu ta Siria ta Palestina'gaz jabetuta, euren agintaritzea, Kleopatra beren burua K.a. 30'an erailen eban arte iraun eban eta ortik aurrera Erromatarren kaizartzapean geratu ziran.

Ejipto ortik aurrera, Bizanzio'tik jaurkitu eban erromatarrek, areik eta K.o. 641'ean Mauritar'pean geratu arte.

Ortik aurrera, Ejipto'ren Islamizaziñoa asi zan eta arabiar-izkuntza geratu zan izkuntz-bakar lez.

K.o. 969-1.171 urte bitartean, mauritar Fatimita'ren leiñuak Uri-nagusi lez Kairo izendatuta eta K.o. 972'an Azhar-mauritar eleiza islami'tarren ikastetxe-nagusian bihurtuta, esan leike Mundu'ko leen goi-ikastetxe edo Ikastetxe-Nagusia dala.

1.170-1.250 urte bitartean, Ayubita'ren mairu-errege leiñuak Siria berrezkuratu ondoren, mameluko gudariak baztertu ebezan, oneik gero, euren goraltasunean etorriko ziran mairu-erregaren (66) jagole izango ziranak lortuta.

1.517'an Ejipto Otomano'en (67) menpean jauzi ziran eta oneik, euren jaurkintzarako Baja-jaurleri bat izendatu eban.

1.798'an Napoleon'ek Ejipto'ren menperatasuna asi eban, Ingeles'ak India'gaz euki eban sal-erosketaren gora-berak moztuteko. Baiña au-be, Ingeles'ak Otomanoa'kaz bat eginda 1.801'ean bota eban.

1.805'ean, Mohamed Ali izendatu eban Ejipto'ren Baja-jaurleri lez eta mamelukoak ezereztu ondoren, leiñu-ondore bat irasi eban eta onek 1.952'ko urterarte Faruk-erregeagaz iraun eban.

1.820-22 urte bitartean, Sudan'en egoan Funji-erreinua menperatu eban.

1.866'an Ismail Baja-jaurleriak "Jedibe" Baja baiño izen aundiagoa artu eban eta bere jaurkintzapean 1.869'an Suez'eko itsas-xidor edo ugaska zabaldu zan.

Sudan'eko menpetasunari amaiera emon eutsoen, baiña ortik aurrera Ejipto'ren barneko jaurkintzan, Frantzia eta Ingeles'aren eragipena asi zan garaipentzen.

1.882'an Ingeles'ak Ejipto'n, guda-legez eskua sartu eban iraultza-bat bakeztuteko eta ortik aurrera eurak izan ziran jaun eta jabe Ejipto'ren jaurkintzan.

1.898'an, Ejipto ta Ingalaterra'ren gudalozteak alkartuta, Sudan'ek 1.885'ean lortutako askatasunak osteratu eban eta bien arteko medekua ezarri eutsen.

Mundu'ko leenengo guda-nagusian Turkia'k batzango-zale kaizertzakaz bat egin ebenean, Ingalaterra'k amaitutzat emon ebazan Turkia'k Ejipto'gaz euki ebazan artu-emon guztiak eta berak andik aurrera irasi eban Ejipto'n bere zaindaritzea eta onek 1.922'ko urterarte iraun eban, nai-ta oraindiño Suez'eko Ugaska'ren (68) kontrola eta Sudan'en bien-arteke mendekua eroan.

I Fuad (1.868-1.936) Ejipto'ko Sultan (1.917-1.922) egin eban eta errege-lez (1.922-1.936) izendatuta, 1.936'an oneri, bere seme I Faruk aldikatu eutson.

1.936-1.952'ko urte bitartean I Faruk (1.920-1.965) errege egin ondoren, Ingeles'en aurkako politika eroan eban eta ez eutson Europa'ko ardatzaren indarrari guda-aurkarik agertu 1.945'eko urterarte.

1.958'an eritik kanpora bialduta, 1.959'an lekaide sartu zan.

(65) Eragipena = influencia. (66) Mairu-erregaren = Sultan. (67) Otomano = Turco. (68) Suez'eko ugaska'ren = Canal de Suez.

Ejipto, Palestina zatituaren aurkakoa agertu zan eta Isrrael'egaz borrokatu zan 1.948-1.949 urte bitartean.

1.952'ko Uztailla'n, Mohamed Naguib gudal-nagusiak bideratuta eta Gamal Abdel Nasser koronel ordezkariak antolatuta, I Faruk erregea kendu eben jaurkintzatik eta bere seme In. Fuad (1.952-1.953) izendatu, gero 1.953'an au-be erregetzatik kenduta, Naguid'ek errepublika irasi eben euren agindupean.

Ortik aurrera badakiguz zeinbat eztabaida euki dabezan Isrrael'ekin 1.979'ko Epailla'n bakezkoak egin arte.

Ejipto gaur, ONU, OUA eta Mauritarren Alkargoko kidea da.

2.3. Grezia'ren edesti laburra:

Asierako baten Lurrarteko-itsasoaren erri-leiñu guztiak lez, leiñuaren auzotasunean laterritutako antolamenduan bizi ziran luzeroko denbora aundi baten, areik eta norkerizko menperatzaille-asmakuntz lanak euren sariak irabazten asi ziran arte.

Mundu onen goi-maillako jakintza, Tupiki edo brontzezko Aro-Aldia'ri esaten dautsoe, K.a. 3.500-1.400 urte bitarteko bizi-denborak bete ziranai.

Grezia'n, K.a. 2.800 urte brontzezko denbora orreitan asi-ta, Elenika'ko erdi-ugartean Laterritutako-Uria'k ezarri ziranen artean, erri-jakintza asko sortu ta gaienduta (69) desagertu ziran.

Garrantzidunak Kreta ugartean (kretense) eta geroago K.a. 1.700 urte inguru Mizenas'eko jendekuntza'tik sortu ziranak.

Lortu eben goi-maillako jakintza, ez zan izan eurenagandik sorturikoa, Asia ta Ejipto'ko jakituriaren alkartasunezko eragipenetik, eurak artu ta edertu egin ebana baiño.

Lur nagusi onetan Europa erditik joan ziran Akeo ta Eleno'tarrak, Kreta'k euki eban jendekuntzazko jakintzaren eragipeneko (70) mende egon ziran aintziñako denboretatik eta Iparraldeko erri-neolitikorena.

Kreta'k euki eben jakintzaren-jendekuntzazko bereketa'ren (71) ondorioz, K.a. 1.700 urte inguru: Tirinto, Korinto eta Tebas'eko Uri nagusiak eraiki ziran.

K.a. 1.400 urtean, Akeo'tarrak, Kreta'ko ugartean egon zan Knosos gaztelu edo jauretzea ezereztu egin ondoren, Mizenas'eko jakintza sartu zan bere ederrenetariko jendekuntz-garaian. Gizaldi-bi geroago, Peloponeso, Grezia'ren erdian, Asia-txikerraren itsas-bazterretan eta Txipre'ko ugartean zabaldu zana.

K.a. XIIIn. gizaldian, Iparraldeko Dorio'tarren eraso-aldi edo sarraldia euki eben eta oneik jakintzan Akeo'tarrak baiño atzeratuagoak izan ziralako, Grezia'ren jendekuntza berakada galanta emon-da, jakintsuak "Grezia'ren erdi-mendea" zala esan eben.

Dorio'ak Peloponeso'an kokatu ziran batez-ere, Esparta'ko Uriak orregaitik eldu zan guztiz, Akeo ta Dorio'en jendekuntzazko elkartzearen adierazpena.

Jonio'tarrak batera eta astiro, egunaren neurria artu-gabe, Atika'n asi ziran itsas-aldetik bakezko goxotasunean sartzen, Uri nagusietan eta batez-be Atenas'en.

Eleno, Akeo, Dorio, Eolio eta Jonio'tarrak, sekula ez eben lortu Grezia'ren erri-

(69) Erri-jakintza asko sortu ta gaienduta = sobresalir resplandecer. (70) Eragipeneko = influencia, impulso. (71) Bereketa'ren = asimilación.

guztiarentzak agintza bakar-bat, politika'ko jaurkintzan guztiz, askatasunaren Laterritasunezko-Uri'etan oitura zar lez antolatuta egon ziralako, euren artean beste lotura'rik eukin gabe, enda, izkuntza, erlijioa eta euren jakintzak emoten eutsoena baiño.

Ardurak ondo zaintzeko, geiago bear eben ?.

K.a. 800-600 urte bitartean, laterritutako Uri oneik Ejeo-itsasoaren ugarteetan, Asia-Txikerra'ren itsas-bazterretan, Joniko itsasoa'ren ugarteetan eta Lurrarteko-itsasoren izparterretan: Italia'n, Napoles eta Tarento'n; Marsella, Frantzia'n; Ampurias, Rosas, Erdi-ugarte onetan, Jerona'n Rosas'eko itsas-golkoan; eta Afrika'n, Libia'ren Iparraldean Lurrarteko-itsaso'tik 15 kilometrura dagoena, Zirene'n koloniak edo sal-erosteko Uri'ak sortu ebezan.

K.a. 600-300 urte bitartean, Grezia'tarren jendekuntza (72), beren urrezko garaipenera eldu zan: "Etxagintza edo Eraikintza (73), Irudigintza edo zizelkaritzan (74), Olerki (75), Eraman-ona edo Jakin-zaletasunean (76), Antzerkia'n (77), Matematiketan eta Natur-jakintzan".

Atenas bere jaurkintzarako Demokrazizko-legean antolatu zan. Esparta bestela, bikaintasunezko guda'ren antolamenduan eta beste Uri'batzuk: "Korinto, Kalzis, Korzira (78), Mileto, Sardes, Fozea, Lesbos eta abar, goi-maillako goraldi edo aurrerapidea lortu eben.

Asia'ren arloan ikusi dogun lez, K.a. Vn. gizaldian Persa'k, Griego'ak menperatu gura ebezan, gero Europa'ren mendeko-bideak zabalik eukiteko, baiña Griego'en Uri'ak alkartuta eta Atenas ta Esparta'ren aginpean bideratuta: "Maraton, Salamina eta Platea'n (79) astiñaldi ederrak artuta, alde egin bear izan eben.

Persa eta Griego'en aurkako gudak K.a. 448'an amaitu ziran, Kalias'eko bakearekin. (80).

Esparta'rrak, euren indarrezko arrotasunean, Atenas'en nagusitasunezko jakintasunagaitik bekaitz eta jeloskor edo ixterbegituta, ez ziran egon pozik eta Uri guztietatik Atenas'en etsai guztiak asi ziran batzen, K.a. 431-404 urte bitartean, anai-artean Peloponeso'ko gudan asi-ta.

Esparta'k irabasle urten ebalako, beste alkartasun batzuk be egin ziran eta or asi ziran etenbako borrokak Grezia'ko Uri'en artean. Uri'ak guztiz indargabetu arte eta Grezia'ren Iparraldeko Mazedonia'tik IIn. Filipo (81) erregea agertuta ez eben euki indarrik bere mendetik iges egiteko erdi-ugarte ta ugarte guztietatik.

Bere seme Alejandro aundia'k (82), Persa'k K.a. 334'an Graniko'n eta K.a. 333'an Issus'eko gudatan menperatu ebazan eta K.a. 326' bere agintaritza Grezia'tik India'raiño zabaldu eban.

Alejandro Aundia 323'an il zanean, Grezia, Alejandro'ren guda-nagusiaren eskuetan geratu zan eta ostera lengo Uri'en jaurkintzazko antolamendua artu barik, aurkako alkartasunetan geratu zan bananduta.

Zori edo egoera orreik, Grezia'ko atea erromatar indartsuari, zabaldu baiño besterik ez eutson egin eta erromatarak K.a. 148'an Mazedonia menperatuta, Grezia osoa erromatarren lurralde lez geratu zan.

(72) Jendekuntza = civilizaciòn. (73) Eraikintza = arquitectura. (74) Zizelkaritzan = escultura. (75) Olerki = poesia. (76) Eraman-ona edo jakin zaletasunean = filosofia. (77) Antzerkian = teatro. (78) Korzira = gaur Korfu dana. (79) Medikas'eko gudak. (80) Perikles'en denborak ziran oneik. (81) K.a. 382-336, Pausanias'ek il eban. (82) K.a. 356-323'ra bizi, eta 336'an erregetzara igon.

2.4. Nortzuk izan ziran Ario ta Indoeuropeo´tarrak ?:

Zazpi´garren orrialdian eta leenengo zatiaren sei´garren atalean adierazten dot nor eta zeintzuri esaten eutseen Ario edo eta Indoeuropeoak.

Nik, jakitunen artean ibilita sarritan entzun neban, Mundu´ko gizakia sei tximuta ezberdiñakaz osotzen dala eta gaur Theo Wennemann jermaniar ele-jakintzaren maixua eta Peter Foster, Kanbridges´ko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea eta beste jakitun askori esker dakigu, danok: "Makakus Rhesus"etik gatozela, euren azterketak alan emoten daualako eta euren artean ulermentzeko lortu eben leen-Euskerazko mintzoera bidetik.

Indoeuropeotarren Izkuntzazko arloan, ele-jakitunai buruko-miñ aundiak emon eutsezan, menperatzaille-maltzurak sekula ez dabelako gura-izan egirik argitu daiten edo euren azter-lanak Bereztasunezko Legera ez daitezcan urreratu, maltzurrezko-guzurrak argi-zabalean geratzen diralako. A-ta guzti, jakitunen izkuntzazko azter-lan bidetik, izkuntz-orreik daukien azpiko edo oiñarrizko bardintasunagaitik, izkuntz-bakar batetik sorturikoak dirala deritxe.

Goiko edesti laburretan ikusi dogu, menperatzailleak euren sasi-eritxiak aurrera eroateko, zelako erak edo arauak (83) erabilten dabezan bestien NORTASUNAREN ordezkako ardurak ezereztuteko.

Izkuntzalari batzuk (84) orregaitik, guzurraren mugara elduta eta adierazpen-gabe geratzen diranean alde-batetik eta bestetik, menperatzailleak goi-aldetik dindilizka Damokles´en ezpata eukielako prest, izkuntzaren zalantzazko gauza guzti orreik "Indoeuropear" zorroan sartutako erabakiagaz garbituta geratzen zirala gogoratzen ziran eta egitik urriñ dagoz ekintza orreik.

Adibides: "Zergaitik Gaztelera eta Katalan latin-kumeak indoeuropeoaren zorroan sartu ?. Ez ziran sortu biak latin eta Euskera´ren bitartez ?. Edo..., latiña´ren-gaitik ?.

Zorro orreitan danak naastuta sartzea baragarria da, gaiñera jakinda, Latiña, Etruskoak Griego´en izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebela eta Etrusko-izkuntza eta Sumerioa sustrai-batekoak dirala.

Orren gora-beran Felix Zubiaga´k ondo argitzen dau. Adibidez: "Berbea "esan/izan"eko elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zala beren oiturazko arau-zaletasunean, dana, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokituta egon daiten eta oroimenaren atzekadarik ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele-jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir-jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

2.5. Zergaitik euren leiñuen edo erri-aldak ?:

Jendekuntzazko jakiturian be-maillakoak izan... edo eta siko-neurri aundi baten Homo-Sapiens asieraren oiturari jarraituz askatasunezkoak izan ziralako eta euren oldozmeneko asmakizunetan ez ziralako eltzen besteak morroitasunera menperatzen, Asia, India eta Afrika´ko menperatzailletasunaren jarraibideak gogortzen asi ziralako

(83) Mundu oneitan beste biderik ez dagolako. (84) Geienak aldi-luze baten.

ikusiz eta eurak etxe-gabeko edo alderraiezkoak (85) izanda, errez iruditu leike zergaitik euren leiñuen erri-aldak.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etrusko´ak ?:

Etruria, Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egoan (86) eta iñork ez daki nondik agertu ziran.

Herodoto´k, Tirreno´koakin antz emoten dautso eta Asia-Txikerratik Italian agertu ziralda diño.

Beste batzuen esanetan Europa´ren erditik agertu ziralda eta oraingo edestilarien gora-beran, Arno ta Tiber bitartean bizi ziranarekin apur-apurka sortu zala. VIII. n. gizaldian amabi laterritasunezko Uri´etan jaurkintzazko antolamenduan kokatuta eta danak arremanduta erlijiozko alkartasun edo batasun, baten.

Euren jaurkintzazko agintaritzak, Andi-Mandiak (87) bideratzen eben, sortzez, odolez edo ondorengo (88) irazpenean egokituta euki ebana.

Eta mariñel-gintzan zentzun aundikoak izan ziralako, lurarteko-itsasoaren erri-nagusi guztiakaz euki ebezan arreman sendoak. Eta ez euken lotsarik euren gizabidea aberastuteko, Italian, Ekialdeko Sirio-Ejipto´tarren eta Griego´en jakintzazko aurrerakuntzatik bear ebena artzen.

Itsas-aldeko lurak ondo landuta eukinez-gaiñ, langintzan trebetasun aundiak artu ebezan eta merkataritzazko sal-erosketan maixutasun aundia.

VIII. n. gizaldi-erditik onantza, euren zabalkuntza erabagi eben eta Erroma, gizaldbateko agintaritzan zuzendu eben.

Adriatiko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzika´ko ugartea menderatuta euki arren, Uri nagusien bereiztasunak ez eutsen izten batasun batera eltzen. Eta euren maldabera, VI. n. gizaldean Erromatarren aurka asi ziranetik onantza asi zan.

509´an, Griego´ak, Samnita´k eta galoa´k alkartuta, Etrusko´aren erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K. a. IV. n. gizalditik onuntz, erromatarren´gandik babestu egin bear eben, euren Uri-nagusi guztiakaz geratu ziralako eta K.a. 295´an Erromatar´kaitik guztiz menderatuta, erromatar uritargo edo erritargoa (89) artu bear izan eben, K.a. 90 urtean, erritarteen gizarteko guda ostetik.

Etrusko´aren jendekuntza, inguruan Unbro´ak, Liguri´tarrak eta Sabino´ak egon ziran erri guztietatik bereizpendu (90) zan eta maitasun geiago emoten eutsoen apainkeri (91) ta opor-aldeari (92), guda´ren zaletasunari baiño.

Etrusko´ak, erromatarren irakasleak izan ziran, Griego´en jendekuntzazko jakituriaren irakaskintzan.

4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarak ?:

Antziñekoak dira eta Arabian sortutako Kamita-Semitiko´ren leiñu ondorengoak diralada esaten dabe.

(85) Alderraiezkoak = nòmadas. (86) Tirreno itsas-bazterrean, gaur Toskana dana. (87) Andi-mandiak = aristocracia. (88) ondorengo = hereditariamente. (89) Erritargoa = ciudadanía. (90) Bereizpendu = distinguir. (91) Apainkeria = lujo. (92) Opor-aldeari = ocio.

Etxe-gabe edo alderrai'ezko artzain izanda, Mesopotamia (93), Lurrarteko-itsasoaren Ekialdea eta Nilo ibaiaren ibarretan zabaldu ziran.

Arabiar'en osotasuna: Antziñako Babilonioak eta Asirio'ak, Kananeo'tarrak (94); Arameo ta judu edo ebrau'tarrak eta Etiope geienak egiten dabe. Eta senitasun antzera taldekatu egiten dira, euren izkuntzak erro batekoak diralako.

K.a. 1.000 urte, Arabia'n bizi ziran gizarteak, erreñuetan antolatuta egon ziran, eta orreitatik bi nagusienak: Ma'in eta Saba'koak izan ziran, K.a. 950 urtean azken erri onen erregiña Salomon ikustera joan zana.

K.a. VI.n. gizaldian Arabia'ko Iparraldea Dario'k, satrapi (95) baten biurtu eban. Eta K.a. 106n. urtean Arrizko-Arabia (96) sort-arazi eben erromatarrek.

K.o. IV.n. gizaldian, itzuli ziran Abisinio'ak (Kristauak) eta bertan egon ziran Himiaritarren (97) artean eztaibada gogorrek sortu ziran eta Ekialdeko erromatarren kaizertza sartu bear izan eben erdian bakeak lortzeko.

Mahoma, La Meka'n Koreitxitas'tar leiñu baten 580'an jaio zan eta 632'an Medina'n il.

Beren aita, Siria'kin Kameluakaz sal-erosten ibili zana il eta gero jaio zan Mahoma eta lenengo bere aitona eta gero bere osaba batek azi edo az-erazi eben.

24 urte euki ebazala, oso aberatza zan Kadidja alargunarekin ezkondu zan eta euki ebezan zortzi seme-alabetatik, Fatima bakarrik aipatzen da.

Urte asko borrokan ibilita ondoren, igarle (98) biurtuta, bere esanaren aldeko lagun asko euki arren, etsaiak be agertu jakozan eta K.o 622'an Uztailla'ren 16'an (99) Medina'ra iges egin eban eta bertan aurkitu ebazan bazkide gogotsuakin: Beren erkidegoa antolatu, mezkita eraiki, erlijiozko gurketaren era-arauak ezarri eta judu'ak erakarteko porrot eginda ondoren, ziñ-ustel'en (100) aurka guda-santua asi eben.

K.o. 630'ean La Meka'ra joanda, erlijio ta politikan nagusi izendatu eben. Beren irakaskintzak "Koran" liburuan batuta.

Beren ondorengoak, batasunezko teokrazi-jaurkintza orregaz gudarako sukartuta, Iparraldetik: Siria, Ejipto ta Persia'gaz jabetu ziran eta Afrika'ko Iparraldetik zabaldua, VII.n. gizaldiaren amaieran Mauritania'ra (101) joan eta islandartu eban.

711'n urtean erdi-ugarte onetara Tarik-ben-Zeyad'en gudalozteak aldatu ta Rodrigo'ri Guadalete'n irabazi ondoren Auñamendi'etara joan ziran eta Frantzia'n Poitiers'erañño sartuta, an Martel'tar Karlos'ek geratu ebazan.

756'an I Abderraman'ek Guadalkibir guda ostean, Kordoba'n Omeya'tar leiñua bir-ezarri eban.

762'ko urtean La Meka'ren ordezkari Kufa, Damasko eta Bagdad'eko Uri nagusiak izendatu ebezan eta musulman laterriak ugaritu ondoren, 1.258'an Bagdad'en Mongoliarrak sartu ziranean, moruen berakada oskatu edo marratu eban eta maldabera ori amaitu zan, 1.517'an Turko'ak Ejipto menderatu eta Islam osotasunaren menpekotasuna lortu ebenean.

(93) Gaur, Irak'eko errepublika dana, eta Asia-Txikerrean, Tigris eta Eufrates ibai-bitartean dagoena. (94) Amorrita'k, moabita'k, amonita'k, eta feniziarrek. (95) Satrapi = Persia'tarren jaurlari edo agintaria. (96) Arrizko-Arabia = Arabia-Pètea. (97) Himiaritarren = judutarrak. (98) Igarle = Profeta. (99) Au da hejira edo musulman erlijioaren asiera. (100) Zif-ustel = infiel. (101) Iparraldetik Mendebaleko Sahara eta Arjelia, Ekialde'tik Mali, Ego-aldetik Mali ta Senegal, Ipar-Mendebaleetik Sahara eta Mendebaleetik Atlant-itsasoa mugatzen dabena eta len erdi-ugarte onegaz muga egiten ebana.

929'ko urtean IIIIn. Abderraman'ek Kordoba kalif-erriaren Kalifa izendatu zan, aurrerakuntza aundiak politikan, diru-kontuan eta jakintzan artuta.

1.031'n kalif-erria ezereztu zan eta 1.086'an Almorabide'ak menperatuta geratu ziran. Moru onein denboran, Sebilla, Toledo, Kordoba eta Granada, jakintzazko erdigune garrantzizkoak izatera aldatu ebazan.

Moru'en jendekuntza, Grezia'k, Asia-txikerratik eta Ejipto'ko jendekuntzaren jakintza batu ta edertu ondoren Mundu'ko jakintzaren ardatz-nagusia izatea lortu ebenetik, ordezeko biurtuta geratu zan.

Eta ez eben txarto egin, ele-eder (102), filosofia, medikutza, eder-lanak eta jakintzak ondo landu eta erdi-aroan, ibili ziran errietatik zabalkuntza aundia emon ebelako.

Etxe-gintzan (103) bereizitasun ederra artu eben, Kordoba'ko eleizan (104) eta gazteluak (105), Sebilla'ko dorrean (106), Zalduba'ko (107) jauretxean (108), Granada'ko jauretxean (109) eta abar.

Edertasunezko mailla aundira-be eldu ziran, sar-lanen (110) eradonkian (111) eta txilinki edo metaletan ta pikailadura edo esmailetan (112), zizel-iruditan (113), idazkeran luma-ederrean (114) eta abar, lorazko marrazki (115) apainduran oso korapillotasunezko edertasunean edo eta jeometrikoak. Baiña, gauza bizien irudi barik, euren erlijioak debekatuta eukielako.

Soiñu, eresi edo musikaren arlorako be, gaillu askoren sortzailleak izan ziran, adibidez: Arrabit (116), Rebab edo Rebik gaurko biboliñari bideak zabaldu eutsona, Zurna Zaramiola edo oboeren antzekoa dana eta abar.

Izar-jakintzan (astronomia) eta matematiketan aurrerakuntza aundiak egin ebezan eta Hindu'ari artuta Europa'ra ekarri eben amarkako zenbakintza (numeraciòn-decimal).

Sendakintza eta kimika'ren sortzailleak izan ziran.

Garrantzi aundiko ikastetxe'ak sortu ebezan Bagdad, Kordoba, Basora, Bokara ta Kufa'n eta liburutegi aundiak Alejandria, Bagdad eta El Kairo'n.

Jakin-zale aundiak euki ebazan Abizena ta Aberroes lakoak eta ainbeste olerkari ta itzlau-gille (117) bikain.

Mauritarren kaisal-erria, erromatarrena baiño askoz zabalagoa izan zan eta gaiendu, Mahoma 632'an il zanetik 660'ra, aukerazko kalifa'k euki ebazanean eta gero, 661-750 urte bitartean Omeya'tar ondorengo leiñuak, Uri-nagusia Damasko'ra eroanda, 750-1.055 urte bitartean Abasidas'en ondorengo leiñuak euren kalifatoa Bagdad'etik jaurkitu egiten eben.

XIn. gizaldian asi zan euren berakada. Baiña, Mundu'ari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

(102) Ele-eder = letras. (103) Etxe-gintzan = arquitectura. (104) Kordobako eleizan = mezquita. (105) Gaztelua = alcazar. (106) Dorrea = Jiraldia. (107) Zalduba = Zaragoza. (108) Aljafèria = palacio arabe. (109) Alhambra = palacio arabe. (110) Sar-lanean = taracea, trabajos de incrustaciòn. (111) Eradonkian = cosa incrustada. (112) Esmailetan = ataujia, taracea de metales y esmaltes. (113) Zizel-iruditan = talla. (114) Luma ederrean = caligrafia. (115) Marrazki = diseño. (116) Arrabit = laud. (117) Itzlau-gille = prosista.

5. Leenengo ta Bigarren zati onein ondorioa:

Bigarren zati onetan ikusi dogu, zelan Neolitiko eta tupiki edo brontzezko aldi bitartean giza-leiñuak gai-oneitan zentzuz egokituarte, ikas-bide luzeak euki ebazala eta milla urteko ikaskuntzaren ekiñaldian ikasi gendula, gauza txarrak eta onak egiteko zeintzuk izan bear diran ekiñaldiak, ibili bear doguzan erazko eritziak, alde batera edo bestera urten dagiazan.

Mundu onetaiko ekiñaldietan, bereala agertzen jakulako nabaritasun guztiagaz, gure borondatearen erabakiak bakarrik dirala gai, ekanduzko gauzak egokirotasunean ezartzeko, bereala jakiten dogulako, zeintzuk diran gauza-on eta txarrak, JAUGOIKOA´k gure ARIMA´ri emoneko arrazoitasunaren “BAITA´k” (118) zain daukaguzelako, atsekabetuta edo pozkor agertu gaitezana.

Oiñarri oneik izan bear dira kontu aundian euki bear doguzenak, Mundu oneitan mirari´rik ez dagoelako, bizitza bera bakarrik izan ezik, konturatzen ba-gara.

Alan dala, BERE´n LEGEA´k bakarrik dira Ludi au BEREZTU edo IZATASUNDU (119) egiten dabezanak eta LEGE orreik dira bakarrik danok egokitu bear gaituenak.

Mundu oneitan orregaitik, ez dago gizatasunetik iñor !! eskubidetuta, BEREZKO LEGE´tik kanpo (120), asmakisunezko legerik atarateko. Gauza orreik egiten diranean, BETI !! NORKERIEN ALDEKOAK IZATEN DIRALAKO (121).

Mundu FISIKO oneitan ez dau beste bide edo miraririk, zentzuz edo edozein apeta edo kasketaldi bidez, leku batetik zeozer kendu egiten-dogunean, leku ura gabetasunean geratzen dalako.

Bereztutako gizarte arloetan bardin sortzen da: “NORTASUNA edo erri-gizarte bateri nortasuna emon dautson EUSKERAZ´ko IZKUNTZAK, BATEN-BATEK NORKERIEN ASMAKUNTZAZKO BURU-ZALEKERIAN ezereztu nai-badau, ez dago beste biderik: GIZARTE-ORI “IL” edo erri-orreik, menperatzailetasunezko morroitasunean eukin-da, nortasunean aldatu, NORKERIZKO-ASMAKUNTZ ORREN SERBITZUAN GALAZOTZEKO.

Ainbat erri-alda, zigor, guda (122) eta eten-bako espetxe erabili dira (123) edestian zear erri-gizarteak morroitasunean eukiteko.

Mundu onetan Babilonia´tik asi-ta, edesti guztian argi ikusten doguna: “Demokraziaren atea zabaltzen asten diranean, beti agertzen dala guda gogor-bat, menperatzaileak, Mundu onen ekanduzko-bide ta mozkin guztiak euren kontrolpean gura dabelako, bizitz-onen sasi-agintaritza orreik iraun dagiazan”.

Noiz arte ?

Gure “BAITA”k ez dausku jazarraldirik (124) egiten ?

Olan bada..., Mundu onen giza, zentzuntasunezko zuzen bidegaberik, ezin-bestean galduta dago !!

Gero ikusiko dogun-lez, asmakuntz-ori da gaur arte etorten dana eta orregaitik gagoz gaurko XXI. gizaldi onetan buru-belarri sartuta, NORTASUNEZKO GIZAR-

(118) Arrazoitasunaren Baita´k = ULERMENA. (119) Izatasundu = naturalizar. (120) Berezko legetik kanpo = porque lejos de las leyes naturales. (121) Norkerien aldekoak izaten diralako = entramos en el mundo de los egoismos. (122) Guda = Erdi-ugarte oneitan askenekoa, Franko´rena. (123) Erabili dira = gaur-be erabilten diranak. (124) Jazarraldirik = protesta, oposición.

5.1. Giza-leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki-izenak:

Giza-leiñuen aurrera-bidean ikusi dogu, euren urrengo egunean bizitzeko, eizan eta zitu, bii, ale edo fruituaren arraparia bakarrik izatetik, izotzak urtzen asi ziranetik ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zala eta leen iri edo leiñuen leenengo orubeak (125) mugatzen asi, nekazaritza eta abel zaintzara bideratu egin ziranean, jakintzaren azturazko bide orreitatik euren etxe-gabetasuna edo alderraiezko bizitza gaindu egin ebelako.

5.2. Izkuntza ta toki-izenak:

Homo-Sapiens edo Kromañoi-giza Afrika'tik urten eta zabaldu zanean, euren ulermenerako leen-izkuntza, adierazten eben abots edo leen itz-ots bakarretik asi bear eben eta azturazko jakintzan berbari gorputza emonagaz oituratzen, ulermeneko ezagutzaren oroipenean bakarrenetariko gaillu-bat izan zalako.

Ez zan egon naastetasunik gauza orreitan, milla urte askoren jakintzazko azturan, Europa, Afrika ta Asia'ko lurraldeak, izkuntz edo oiñarri bateko esabideakaz mugatuta izendatu ebelako.

Milla-urte asko leiñuen auzotasunean egonda antzeko-izkuntz bakar-baten ulermenpean, goian esan dodan lez, toki-izen orreik lurraren jabetasuna artu eben eta nai-ta gero Asia'ren ondorioan agertu ziran maltzuratasunezko menperatzaille-bideak gaur arte, ez dira izan gai Mundu'ko lurralde guzti orreitan, leenengo Euskal toki-izenak aldatu edo ezereztuteko.

Gaur gure izkuntz-edestilari ta ele-jakitunentzak urrezko'ak diranak, Mundu onen giza-bidea argituz, ia konturatuten ba-gara, JAUNGOIKOAK Gai-MUNDU onetara zertarako bialtzen dauskun.

5.3. Jendekuntzazko garaiak:

Mundu'ko giza, edestian zear nasaiago edo erreztasun geiagoreki, bizitzen joateko, jendekuntzaren-jakintzan garaipendu asi ziranetik gaur arte, ez dogu izan bear besterik, Gai'ak era ezberdiñetan emoten dauskuzan aukerak egokitu baiño eta ezagutzen joan giñan tresneriak, izakizun, al diranak edo izan ditekenak zentzuzko azturaren azter-lanean (126) egokituta (127), gaur daukagun erreztasunezko egokitasunera eldu gara.

Orregaitik leen, Mundu au BEREN OIÑARRIZKO LEGEAN erperatuta dagoela ikusi ondoren eta onen LEGE bidetik beste gauzarik egitea eziñezkoa biurtzen jakulako: "ASIERATIK GAUR ARTE, DENBORA GUZTIAK BARDIÑAK DIRALA" esan bearrean geratzen gara.

(125) Orubeak = emplazamientos. (126) Azter-lanean = investigación empírica. (127) Azturaren azter-lanean egokituta = enraizar en el recuerdo.

Gai'ak, BERE arrazoiaren bidez eskatzen dauskuna, daukazan legeakaz EKANDU edo zentzuzko OREKAN zaintzea dalako.

Eta giza'ren arloan bigarren: BETIKO LEGEAK eskatzen dauan lez "Danon-Eskubideak, ekanduaren ordezeko ardura bardifnean zaintzea da !!" zentzuzko oreka eder baten egokituta iraun dagigun.

Baiña, izan ez ditekeena da, ainbaten esan dodan lez: "Gure gizazko-eskubideak ordezkarietzako zentzuan zaintzeak daukan antza" "Elefante bat leiargintza (128) baten sartuta, egin leiken triskantzaren antza emoten dogulako".

5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeo'tarren alderraitasunak eta Etrusko agerkeraren edesti laburrak:

Asia'n ikusi dogu, Sargon asi zala kaizertza'ren sortzailletasunean eta aurrera begira lortu be, antziñeko edo aurretiko erabagi-txar ori (129) garaipenduta, ez zala geratu, areik eta 1.800 urte beranduago Griego'ak medikas'eko gudakaz geratu arte.

Aurretiko erabaki-txar ori aundikien-bidez gurtza-maillara igonda, Afrika'n be bardin sortu zan eta Mundu-Fisiko oneitan nor-bera besteak menperatu gure dabezenean, sasi-norkerizko izkuntz ta oitura-txar orreitan ezartzeko alegiñean, ikusi dogu zer getatzen dan.

Orregaitik, egoera orreitan argi guztiagaz nabaritzen dana: "Sasi jainkotasunean bizi gura dabenentzat, sasi-asmakizun orreik jainkutztat-lez goraldtu eta gurtu bear dabezala".

Sasi-ekintza orreitan nai-ta nai-ez, elkarkizunak (130) derriorezkoak biurtzen diralako: "Gauza txarrean iraun gura dabenentzat" "Gauza txarrakin elikatzen joan bear dabelako".

Ekintza orreik, izkuntz ta oiturazko siñismenetan naste aundiak sortzen dabez eta batez-be, nastezko (131) izkutz-barriak sortu.

Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu ziran Demokrazizko oiturak, erri edo leiñu artean ardurazko lotsak bikain zaindu ziralako, sasi-asmu barri orreikaz Ekanduzko beko maillan geratuta, Erdi-Aro'aren goialdetik asita, belaunez belaun edesti guztian etorri gara, bakezko elburua eskuaren neurrian eukinda, eldu ezinik, bitartean, norkerizko batzangotasunaren asmo-txar ori ekarten dogulako.

Ez da gauza aundirik bear, bakarrik berezko LEGEA'ri baietza emotea baiño ez dalako.

Baiña, Mundu'ko jakitunak aurrekoi oinkada ori emoten ez dira ausartzen, antza lotsa emoten dautsielako, oraiñarteko irakaskintza BEREZKO LEGEAREN albotik etorri dala esaten eta naste orreikaz jarraitzen dogu.

Baiña...., noiz arte ?.

Gaiñera jakinda BEREZKO LEGEA Damokles'en ezpataren antzera, buru gaiñetan daukagula keiñatzaille (132), gaur sortzen dan lez.

Gaurko Sozialistak esaten dabe "Mestizaje para una ciudadanía del Mundo". Zertarako jaio ziran-be aaztu jakie, PP'ren-beste menperatzailleak biurto diralako.

(128) Leiargintza = cristaleria. (129) Erabagi-txar ori = precedente. (130) Elkarkizunak = compatibilidades. (131) Nastezko = romances similares cuando se trata de dos lenguas enfrentadas, como en el caso del Euskera-Latin. (132) Keiñatzaille = amenazador.

Enda´ren nortasunak nastutea NORTASUNAREN OITURAZKO SINISMENAK NASTUTEA DA eta ortik agertu leiken gauza bakarra “ONBEAR (133) edo TXIROTASUN GALANTAN EGOKITZEA DA”.

PP ta Sozialista menperatzailleentzat bai ondo, erreka loietan arraiñiak errez arrapatzen diralako eta orreïn billa dabiz zalantzarik gabe, kloniko batzango baten bizi gaitezán, euren sasi-agintaritzaren mesedean.

Asia´tik Ario ta Indoeuropeo alderrai`ak ez eben egingo alde ba ? nai-ta nai-ez !!.

Baiña., Etruskoa`k egon ziran Arno ta Tiber ibai-bitartean (134) eta eurak ipiniko ebezan ibiltzen erromatarren asmakizunezko eritziak Asia´n ta Afrika´n egin zan-lez, Europa osoan JAINKOA`k Mundu oneri emoneko Bereztasunezko LEGEA´ren egia zirriborrotzeko. Baiña irugarren zatikoa dalako, bertan ikusiko dogu.

5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarrizko izen-on :

Ezin dodaz aipatu barik itxi : Izkuntz, izen-toki, azur, margo, arri, giza-izti eta abarrezko billaketaren azterkuntzan ibili diranai, nai-ta egia´ren billa ibilita, menperatzaillearen berekoitasunarengandik oztopo aundiak euki, edestian zear ikaragarrizko lanak egin dabezelako.

Izadi onen Homo-Sapiens´en asierara toki-izen ta edesti lan onen bidez joanda eta Asia ta Afrika´n lenengoz, txandako menperatzailleak, pintzel, zudaki, edo ixipu aundi bat eskuetan artu eta bakotzaren asmakisunezko siñezkintzaren eritziakaz (135) txandako orreik dana zelan margoztu eben ikusita, eten-bako azterkuntz-lan ederrean eginda eta arrigarrizko egoarri eroanda (136), illuntasunak argitzen asi dira..

Ainbeste margo-esku emon eta gero, giza-izti (137), izkuntzalari, edestilari, azur-izti (138) eta abar. Ebaketariak (139) egiten daben antzera, margoaren esku-aldi bakotza kontu aundiagaz zati-txikerretan erauzita (140) azpikoa ez daiten ondatu, urte askoren ondorioz zelan agertuazo egiten dautsen egia´ri, gaur erd-ikusten baiño geiago asi dana eta emendik aurrera jakintzazko arlo guztietan dagozan almenakaz, gero ta errezago izango dana, eurei esker.

Goazan-ba, irugarren zatian ikustera, non eta noren norkezikko asmakuntzarekin asten diran bigarren aldiz, txandako menperatzaille orreik Europa´ko lurak eta erri-gizartearen NORTASUNAK, ixipuak (brochas) eskuetan artuta, zelan margotzen daben, Mundu onen erri-gizarteak klonezko batzango baten jaurkitu gurean.

3 ZATIA :

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak, latifia´ren jaiotza eta Erromatarrak.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.
5. Godo´ak.

(133) Onbear = indigencia, necesidad. (134) Arno ta Tiber ibai-bitartean = Asia-Txikerratik etorritakoak ?. (135) Siñezkintzaren eritziakaz = euren egiak bakarrik agertu daitezán. (136) Egoarri eroanda = paciencia. (137) Giza-izti = antropologo. (138) Azur-izti = paleontologo. (139) Ebaketariak = cirujano. (141) Erauzita = hacer saltar. (142) Ixipuak = brochas.

6. Erdi-Mende au, Mauritarrak artean dirala.
7. Erdi-Mende onetan, Eleiza-Katolikoa´ren nausitasuna.
- 1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamenak:**

Leenengo zatian ikusi dogu, menperatasun asmoak, nai-ta Asia´n eta Afrika´n, leen-izkuntzak ta toki-izenak naspildu eta leiñuak edo erri-gizarteakaz antzeko-bardin bat egin.

Asmakizun orreitan garaipenduta erri-gizarteak morroitzeko eta izen-tokiak aienatzeko (143), ez dabela indar geiegirik euki, JAUNGOIKOA`k BEREN BEREZTASUNEZKO LEGE bidez bizitzari emon eutson "BAITA" (144), nastatu bai, baiña ezereztu ezin dabelako.

Leen: Mundu oneitan jaioten dan guztia, oiñarrizko "BAITA" orreitan jaioten garalako. Eta aurrekotasun (145) ori eukin da, errez oartu edo konturatu geinkelako, "NORTASUNEZKO-BAITA" orren aurka dirala norkeriaren asmakizunezko alegin guzti orreik, Izadi onek daukazan berezko eskubide guztiak zapaltzen dabezelako, daukiezan sasi-asmakizunak indartzeko naian.

EUSKALERRIA da Homo-Sapiens sortu zanetik Paleolitiko-Neolitikoaren bitartean, ezin-beste lortu ziran jendekuntzazko Jakin-Demokratiko ederraren ikusbegi edo "AURRE !!". Gai al izango ete-dira, ezereztuteko ?. EZ DOT USTEN, JAINKOA LAGUN, EUSKALDUNAK GURA EZ BA-DOGU.

Emen bearrezkoa da aipatzea ARANA´tar SABINO´k, ARANTZADI´tar ENGARTZI´ri (146) 1.901´ean Urtarrilla`ren 5´eko eskutitzan esaten eutsona: "JAUNGOIKOA IZANGO ETEDA BA, GURA EZ DABENA....., GURE EUSKALERRI-MAITE AU SUNTSITU EZ DAITEN ?.

Bigarren: Mundu-fisiko oneitan, gizartearen belaun-aldiko etorkizunean, ekintzak jakintzazko azturan sendo oituratzen ba-dira eta sinismenean ikasitakoak berbeagaz mugatu, izendutako-toki eta erri-gizartearen ekanduzko gauzak, nekez aienatu egiten dira, Mundu´an Euskal toki-izenari eta Euskalerrria´ri sortzen jakon lez.

Zentzuzko aztarna ugari orduan geratzen diranak, ez gaitezkan aztu milla urte askotan ikasitakoarekin eta non ebatzeko eldu-leku ugari, naaspiltzen garanean edo egiten gaitunean, argi zabalera agertu gaitezkan.

2. Erromatarren sarrera:

Bigarren zatian ikusi dogu, zelan jendekuntzazko-jakintza Sumerian sendotu zanetik, edozein kaizertzaren maldaberan, gora egiten eben kaizertza barriak, egoan jakintzazko jendekuntz ori bereganatu egiten ebala eta berakadarik ez daiten egon Grezia ta Mauritarrak egin eben antzera, edertu egin ebela, aurreko Demokrasiaren bide-zar oituran aleginduta, azturazko jakin-egarriak ordezkatzan joan ziralako.

Ez zan gertatu bardiñ Erromatarraz gero ikusiko dogun lez, oneik asierazko errepublika on-baten jaurkintzatic (147), oso-osoan, amaitu ezin dan sasi-norkeriaren leize-zuloan jausi ziralako.

(143) Izen-tokiak aienatzeko = anular, revocar. (144) Baita = conciencia. (145) Aurrekotasun = precedencia. (146) Aranzadi Engartzi´ri = "Kizkitza". (147) Nai-ta neurri aundi baten jaurkintzazko asmakuntz onekin eginda-be, menpekotasunezkoa izan zalako.

Eta euren maldaberan beste batzuen erlijiozko eritziekin alkartuta indartzeko, gaur lokatzazko sasi-norkeri orreitan gagoz zikinduta urten ezinik.

3. Etruskoak, Latiña'ren jaiotza eta Erromatarrak:

Etruskoak bideratuta, Erromatar asmakuntzaren sorraldia, K.a. 753'tik 510'era egin eben, Sabino ta Iszeres'akaz alkartuta.

Etrusko'en jakintza aundian, leen asmakizuna Latiña sortzeko, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibil-gaillua izan daiten egin ebela. Griego'aren laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, elerti-arauzko izkuntz-aundi bat biurtuta geratu zalako, gure gaurko egunerarte.

K.a. 715'an Ponpilio'tar Numa'gaz asi zan eta lenengo zazpi errege euki ebazan, azkenekoa 510'ean Tarkino'tar Luzio, arroputz deritxonarekin.

Lenengoetan oso jarduntsu (148) ibilita, mendeko asmakizun orrei zentzunezko itxura emon naian, Griego'en izkitegia artu eben eta euren arteko izkuntz bat eraberritzen ibili ziran Latiñezko iztegia lortu arte. Mundu guztirako egin ebena.

K.a. 509'an Errepublika sortu eben eta erregeen agintaritzak urtero aukeratzan eben, lege-gizon bien eskuetan ezarri ziranean. Pretorak ziran auek, gero kontzul deituko ziranak.

Errepublika'ko leenengo denboretan, sendi aberatsen aundikiak edo gurasoak ziran Uri'aren jaurkintzan agindu eleikenak, senatore batzarretan batuta, Jabe-bide ori bizi guztirako izan da.

K.a. 240 urte ingurutan asi ziran erromatarren arazoak, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, erri-gurasoen (149) sendiakaz alkartu ziranean, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko.

Ekintza orren ereduz jaurkintza guztia euren eskuetan egonda, andi-mandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin besterarte, euren arbasoak goi-maillan lortu ebezan osotasunezko oiturak eta ekanduak neurri aundi baten galdua.

Orren ondorioa, berezko baserritarren zuntsitzea edo ezeztatzea beartu eben eta lur-zabalaren etxagunak agertu ziran menpetasunezko joputasunean (150).

K.a. 106'an Erroma Kaio'tar Mario eta K.a. 27'ko urtean Oktabio'tar Augusto'rekin, gudaloztearen indarrezko antolamenduan izen aundia artuta, kaizergotzan edo agin-zalekerizko (151) jaurkintzan ezarri zan.

K.o. 306'an I Konstatino'k kaizertzara igon ebanean eta euren asmakisunezko elburuak indarra galtzen asi zirala ikusi ondoren, orduko denboran EKANDU arloan berrikuntza ekarten eban eta eten-bako ekifaldian gorantza joan ziran Kristau indarrak alkartu gura ebazan, Erromatar kaizertza indartuta iraun ei dagian.

Eta orduko denboran eriotzeraiño aizatuta (152) egon ziran kristau eritzi ta gizarteak, Galeno'k 311'n Sardika'ko legearen bidez, Kristau jai-arauak askatzeko eskatuta, Konstantino'k 313'an Milan'eko agindua emonda, Balerio'k baieztuta askatu ebazan.

324'an, I Konstantino geratu zan erromatarren Mendebal eta Ekialdeko kaizergoetan agintari bakar-lez.

(148) Jarduntsu = atareados. (149) Erri-gurasoen = patricios. (150) Joputasunean = esclavismo. (151) Agin-zalekerizko = imperialismo. (152) Aizatuta = acosar, acorralar.

I Konstantino'ren eriotza 337'an gertatu zan eta ostean erritarren gudak sortu ziran.

II Konstantino (153) guda orreik irabazi-ta, 351'an kaizar-aulkira igon eban eta Mendebal ta Ekialdeko kaizertzak bateratu ebazan.

363'an Flabio ta Klaudio'tar Juliano, ziñ-ukatzaille (154) deritxona ezarri zan kaizar-aulkian eta 364'an Persa'k menperatu eben.

Eta Mendebaleko Erromatarren kaizargotzan azken ezarri zana 384? 395-423'rarte Flabio'tar Onorio izan zan. Nai-ta Erroma'tar Ekialdeko kaizargotza, (155) 1.453'ko urterarte iraun, areik eta Turko'akaitik menperatuta geratu arte.

Emendik aurrera, 410'ean I Alariko'gaz asi-ta, Godo'ak sartzen dira kaizargotzaren jokoan, Erroma saskildu ondoren.

4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak:

Eta emen ezartzen dira okerrezko erabagi aundiak, edestian zear etenbako goraldian ziñeskintza-arauz gogortzen joan zirenak eta oraindiño ezin doguzenak lepotik kendu, berezko erri-giza ta izkuntzaren eskubideai ainbeste kalte egiten dautsezan norkeriaren guzurrezko-arrazoikeri orreik, katolikotasuna alderdikidetu zanetik ona.

4.1. Konstantino'k 325'n urtean eta bere agindupean:

I San Silbestre (156) Aita Santuak Kordoba'ko Osio gotzaiña bere orde z joan zeiten deituta eta beragaz Bito ta Bizente apaizak joan da, Nizea'ko I Eleiz-Batzar Nagusia batu eben (157).

Bertan Arriano'ren irakaspidetza baztartuz eta Zesarea'ko (Cesarea) Eusebio'k siñesteko idatzi eban Kredoan on-artuta, katolikotasunezko eritzi barri au aukeratu zan.

Ekitaldi au, ez dogu galdu bear gure ikusmenetik, gero Godo'en VI'n gizaldian Toledo'ko Eleiz-Batzar nagusian eta XVI'garrenean errege-katolikoarekin zer gertatu zana jakiteko.

Konstantino'k urrengo urtean: "Izadi oneitan JAINKOA'gan eta Mundu onen giza-bitartean ordezkari-legeak zuzentasunezko bidean ezartzeko, solaskide (158) bakarrak, Kaizertza eta Eleiza'ren Aita-Santu'engan egoala jabetasuna" erabagitu eban eta ortik aurrera euren batzangotasunezko agindupean Munduko gizarte guztia eritzi orreitan sartu naian !! asi ziran ziñekintzazko ekintzakaz eta arrokeri aundiz, (batzangotu baiño, dana banandu ez dabena besterik egin) JAINKOA'k GAI'ari ipinitako BEREZKO LEGE guztiak naastuten.

Erabagi au artu zanean, erromatarrak asieratik eta Zesar Augusto'rekin batez be, Mundu onetan erregetza bakarra egon daiten asmakuntza indartu zan, Eleiza'ri eskubide aundiak emonda.

(153) 331-363. (154) Ziñ-ukatzaille = apostata, renegado. (155) Bizanzio'ko kaizertza deritxonak. (156) 314-335. (157) Osio Gotzaiña, 257'an ? Kordoba'n jaio eta 357'an Panonia'ko Sirmio'n il zana. Kordoba'ko Gotzaiña eta Konstantino'ren aolkulari zana Arrianismoa bastartu dagian eta Nizea'ra Aita Santu I San Silbestre orde z joan zana Bito ta Bizente apaizaren laguntzan. (158) Solaskide = interlocutores.

4. 2. Erroma´tarrak Europa`ra ekarri ebena:

Erromatarrak, gudarari edo borrokalari aundiak izan ba-ziran be, sekula ez ziran izan erri-bat eskolatzeko gai.

Eginda egoten zana edo eta ibili ziran erri guztietatik egon zan baliozko mozkin guztia eurentzat artzen eben, erritarrak galazota.

Legedi arloetan ausartak izan ba-ziran be, euren menperatzaille-asmakizunezko eritzian eginda egon ziran danak. Eta ori izan zan Erromatar-Bakea ?.

Grezia, erromatarren bultzadagaitik menperatuta geratu zan gudalozte eta politika arloan.

Euskalerriaren lurraldeko-batzar nagusien antzera, Grezia´tarrak sekula ez eben artu nazioa´ren izena, eurak gogoan euki ebalako, Ludi onen berezitasunezko LEGE-indarrak zelan jokutzen daben giza´ren Berezko Nortasunetan eta mailla aundiko ulermena lortu eben jakintza orreitan.

Euki eben antolamenduzko-jaurkintza itzarmenekoa edo elkargokoa izan zalako, sekula Laterrizko Uri´tik gora ez ziran joan, danoren Nortasunezko ardurak zaintzeko.

Denbora aietan, berezko antolakuntzatik kanpo, ez Euskalerriaren batzarrak, ez Griegoa´ren elkartasunak ez ebelako geiagorik bear.

Erromatarrak katolikotasunagaz indartuta, euren menperatzailletasunezko asmakizunakaz, danok JAINKOA´ri begira, banaka eta erritartuta euki genduzan Nortasunaren ordezkartzazko ardurak antolatuta, odolkeriz ezereztuteko alegiñean, zirriborrotu baiño ez egin eben.

Orregaitik Greziatarrak gai-lez menperatuta geratu ba ziran-be, erromatarrak euki eben be-maillako edo zentzungabean aundikerizko ulermena, beti egon bear izan eben Grezia´k bizi oneri emon eutson adierazpeneko ulermenaren mende, zentzun aundiko jakintzan kokatuta egon ziralako.

Erromatarren arrokerizko asmakuntz orreikaz, beti sortzen dira eztabaidak gauza bien artean aukeratu bear dogunean: "Gai onetan sasijainkotasunean aundiak izan, ala JAINKOA´k Ludi oneri erperatutako LEGEA´n ondo adierazpendutako lotsagizunean bizi.

Leenengoa artu eben, eta asmakuntz orregaz, gudalozteak indar aundiko antolamenduan eraikita, Munduko lurak eta gizarte guztiak menperatzen asi ziran. Danok, euren errege ta eurak asmatutako jainkoen agindupean egon gaitezana.

Andik oraiñarte, bidean aurkitu eben indar guztia, nai berezko edo egindakua izan, indarrez eta amarrukerizko "VENI, VIDI, VICI" jokoagaz, katolikotasunezko alderdikeria sendotuta, euki eben asmoa betirako izango zala uste eben.

Baiña antza, Ludi onentzako EGILLEA´ren asmakuntzazko agindua ez dalako ori, lurraldeetan dan guztia batzangotu baiño, zati geiagotan bananduta iñork ez dauen aituten nora-bideko naaste-borraste baten agertu gara, nai-erri lez, bai izkuntz-lez.

Zergaitik ?: Izkuntzak eta erriak euren Nortasunezko Berekotasunean diralako tresneri ederrenak JAINKOA´ri ulertzeko eta beren agindua EKANDUZ ta OREKAN zaintzeko zentzunezko eta danon arduraren antolamenduzko ekintza on-baten.

Zertarako, dan guztiaren erantzukizunezko ardurak asmatutako iraspen (159) edo

(159) Iraspen = instituciòn.

eta esku bateko agindupean batu. Danon ordezeko arduraren-lanak eurak beteteko ?.

Ezinezkoa da ori. Danok !! ordezeko ardura orreik gizartearen zentzunezko antolamendu on-baten ordezkatzeko jaiotzen garalako.

Asmakerizko ekintza orreik asken baten izan ziran, erromatarren eta katolikotasunaren amets ta indar guztiak suntsitu ebazanak, gizon-emakumeai olako eritzi-bidetik, gaitzberako-baitan (160) kokatzen gaitulako.

Gaur, Europa'n eta EUSKALERRIAN batez-be, oraindiño daukaguz gure artean fazista indar orreik, zentzunezko arrazoia ez dabena izten bere lekuan kokatu daiten, baiña uste dot denbora gitxirako izango dala: "JAINKOA'ren BEREZTASUNEZKO LEGE aurrean, euren maltzurereko guzurak nabaritasun guztiagaz suntsitzen (161) diralako".

Ala, Mundu'an beste irugarren odolkerizko sarraski aundi bat egin, antolakuntzak leen maltzurereko asmakizunetara eroateko ?. Ori zan, Mundu'ko bigarren guda nagusian sortu zana.

Aukera ori be ezinezkoa biurtu jaku, iñorentzako ez zalako egongo urten-biderik.

A ta guzti, gaur Mundu'ko gizartea artegatzeko daukien aukera bakarra, diruan dago, ostondu edo eta beren bideak moztuta, erri-gizarteai irauzi edo errotik atara (162) egiten dautselako, guztiz noraezean urduri kokatuta.

Luzaro ?. Aukera orreik-be, epe laburra daukie, Mundu onen gizartearen BAITA, lenago beren bakezko-lekuan kokatzera joango zalako.

Ori da arrazoi aundiena, gaur iñork ez dagian izkillurik erabili eta askoz gutziago gure EUSKALERRIAN.

5. Godo'ak:

Godo'ak ez eben denborarik, erromatarren ereduazko alegiñean euki ebezan kaizertzazko asmakizunak sendo ezartzeko, eta Europa osoan denbora guztia, borrokan baiño ez emon eben.

Ardura aundiz egin ebena, Ekialdeko erromatar Arkadio'ren seme II Teodosio kaizertzak (163) argitaratu eban "Teodosio'ren lege-bilduma" eta I Justiniano'k (164) beren "Corpus juri civilis" (165) batu eben antzera, II Alariko'gandik asi-ta, 506'n urtean Romana-Bisigotorun (166) legearen laburpena argitaratu egin ebelako Mendebaleko bisigodo guztientzat.

Leobijildo (167) konturatu zan, erromatarren antzera, katoliko Kristau alderdian egoala aukera bakarra euren sasi-mende asmakizunakaz aurrera irauteko eta beren seme Rekaredo limurtu eban Arrianismoa baztatu egien eta katolikotasuna besarkatuta indartuz, euki ebazan elburuak garaitu egiazan.

I Rekaredo'k (168), 587'an Arrianismoa baztartuta eta 589'an katolikotasuna besarkatu ondoren, Toledo'ko III'garren Eleiz Batzar Nagusia batu eban bere agindupean eta ortze emon eutson indarra oster be, erromatarrak, Mundu onentzako errege ta katolikotasunezko ekandu bakarra euki eben asmakuntzari.

Europa'ren Mendebaleko erdi-ugarte onetan ortik aurrera sortu edo eta egingo

(160) Gaitzberako-baitan = presos de un ostracismo vicioso. (161) Suntsitzen = desaparecer, disiparse. (162) Errotik atara = desencajar, desquiciar. (163) 401-450. (164) 483-565. (165) Corpus juri civilis = código Justiniano. (166) Romana-visigotorun = breviario de Arriano. (167) 568-586. (168) 516-601.

ziran jaurkintzazko antolamenduak, iru baldintza oneikaz beartuta geratu daitezana: "Grezia' ren jakituria, Erroma' tarren Legea eta Eleiza' ren Katolikotasuna".

Berez ezin leikezanak iñondik-iñora be eskondu, Grezia' ren jakiturizko Demokrazia ezin leikelako bateratu beste biekaz, oldozmeneko eritzian guztiz aurkakoak izan-da, Askatasunaren Demokrazia ezin dalako Menperatzailetasunaren asmakuntzazko ekintzakaz zorro edo zaku bardin baten sartu.

Euki ebezan erromatar asmakizunakaz, beti borrokan ibili ziran eta Euskaldunakaz batez-be.

Aukerutzen zan euren errege-barri bakoza jaur-alkian ezarri orduko, beti beartuta egon ziran esaten: "ET DOMUIT VASCONES". Guzurra utsa izan zana.

Esan oneri Aita Santiago Onaindia' k eta Olazar' tar Maritin' ek erantsunez, batera esango eben: "LUJURIA EXUBERANTE".

711' an Mauritarrak etorrita suntsitu egin ziran, baiña asmakizun orreik Pelayo' k Asturias' era eroanda (169), andik eta katolikotasun bidetik asiko zan osterabe erdiugarte onetan beren berrezkuntza eta 800 urte geroago (170) ekiñaldi gogorrean asi mendetasun orreik lortzeko.

6. Erdi-Mende au, Mauritarrak artean dirala:

Erdi-Mendea danari esaten jako, erromatarren Mendebaleko kaizertza 476' an Godo' ak ezereztu ebenetik, Turko' ak 1.453' an, Konstantinopla menperatu eben arteko aldiari.

Edo eta erromatarrak suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola (171), irarri' tzeke papera (172), bolbora edo lerrautsa (173), itsas-orratza (174), itsasontzi' entzako ontzi-oial mugikorra' ren asmaketak lortuta, Amerika agerketa' ren ondorioz lurralde nagusi bietan asi ziran itsas-billaketararte.

Bai, pizkunde (175) edo eta Eleiza' k Lutero' tar Martin' ekin asi-ta euki ebazan berrizkuntzazko (176) arazo-aldiak deritson arte.

Goi' ko ta beko Mende-Aldietan banatzen da Erdi-Mende au, leenengo gizaldiak goikoarenak esaten jakozenak eta be-aldekoak askenekoari.

Goian ikusi dogun lez, esan leike Metal-aldi edo Aro' tik aurrerantzean Sargon' en (?) gandik asi-ta, jendekuntzazko jakiturian (177) garaipentzen zanak, eskubidea ta indarra eukala besteak menperatzeko eta alan sortu zan Siria, Ejipto, Grezia' tik zear, Mauritarren garai' eraño.

Onen asiera K.a. 1.000 urte gitxi gora-beran sortu zan.

Onek-be, bardiñ gura eben egin, baiña artean Erroma' tarrak K.a. 753 urte ariñago jaio ziran eta K.o. 325' ean Konstantino I San Sibestre Aita-Santua' rekin batera Nizea' ko batzarrean beste zeaztasunezko eritzi-bat emon eutsen mugi-aldi oneri Mundu guztia kaizar eta Aita-Santu baten agindupean batzangotzeko.

Ortik aurrera gaur arte, ikaragarritzko lasterketa bat izan dana, JAUNGOIKOA' k Ludi oneri Bereztutako (178) LEGEA' ren aurka.

(169) Alan diñue. (170) 1.453. (171) Irarkola = imprenta. (172) Irarritzeko papera = papel para imprimir. (173) Lerrautsa = polvora. (174) Itsas-orratza = brujula. (175) Pizkunde = renacimiento. (176) Berrizkuntzazko = reforma. (177) Jakiturian = civilizaciòn. (178) Bereztutako = naturalizado.

Mauritarrak 711'n Europa'ra sartu ziranetik, euren asmakizuna garaitzeko guda-antolamenduzko indar aundiekin asi ziran, baiña ikusi dogun lez, Poitiers'era elduta Martel'tar Karlos'ek geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon eta euren 781'eko urtetan gure artean egonda, XI.n. gizaldian berakadan asi-ta, 1.492 Granada'ko menperatasunezko itun'erarte iraun eben.

Baiña, Mundua'ri emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

Euren izkuntza ezarri naian, toki-izenak be alegindu ziran aldatzen, adibidez: Guadalajara ibai'aren leen edo Euskerazko izena ARRIAKA edo ARRIAGA izan zana, eurak GUAD-ILHIJARAH (179) esangura bardiña daukan izena ipini eutsoen eta gaur bertatik datorren Guadalajara'gaz geratu ziran.

7. Erdi-Mende onetan, Eleiza-Katolikoa'ren nausitasuna:

Erromatarren menderatzeak amaitu ziranean, Europa'n, Aita-Santua'k Nizea'tik euki eben gogoaren eta aldizko uts-ezintasun (180) siniskai-bidetik, Eleiza-katolikua agertu zan erri-gizarteak alkar-ganatzeko eta jakintzan jendekuntzatzeko danon gaiñetik agintaritzazko indar nagusienetarikoan, eta bereala bete ziran Europa'ko lurralde guztiak bas-eliza, eliza edo jauretxe ta Gotzai-eliza'rekin (181).

Gero, erlijioa-irakatsiz, Europa'ko lurralde zabala latíñ-jendekuntzan ezarri ebana eta orduan egoan erlijiozko Kristau sugar edo irakiñaldi erri ta errigizarteetan susmatu edo igarritzeko, ez dago bezterik, katolikotasun-jardueran (182), egin ziran gurutz-gudaldiak eta Eleiz-epaiketetan (183) banatzen ebazan zigorrak ikusi baiño.

Frantzia'ko lurraldean Klodobeo'k (184) Merobinjio leiñua sortu ebenetik eta Kristautasuna besarkatu ondoren, euren etxe-zain (185) eta gero errege izango zan Martel'tar Karlos'ek, 732'an Mauritarrak Tours eta Poitiers'en geratu ebazan, ekintza orregaz Europa'ko Katolikotasuna galbidetik gorde egin ebana.

Bere seme Pipino (186), edestirako "laburra" izendatuta geratuko zana eta Karlo Magno'ren aita, 751'an Karolinjioa'ren leiñua sortu ondoren 800n. urtean, III Leon Aita-Santuak Karlo-Magno'ri (187) Gabon egunerako Erroma'ko San Pedro eleizara deituta, Mendebaleko Erroma'tar Kaizar Sakratuaren Augusto-Kaizar jauna koroatu eban. Ortik asiera emonda osterabe, zoritzarreko erromatar menpekotasunaren asmakuntza orreri.

Alemania'n I Oton aundia (188), 962'an XII Juan Aita-Santua'k, Europa'ren erdiko-aldea, Italia'ko iru-zatitik bi eta Frantzia'ren Ekialde'ko Erromatar-Kaizar-Sakratua izendatu ondoren, 963'an euren arteko gora-beragaitik ez ziralako konpontzen, Oton'ek kendu eben beren jauralki'tik eta VIII Leon ezarri eban.

Txekoslovakia'ren errege I Boleslao'k (189) onartu egin bear izan eban Erroma'tar Kaizar Sakratua'ren naguzitasunezko menpetasuna eta abar.

Gero I Maximiliano (190) I Karlos'en aitite eta II Maximiliano (191), I Karlos'en (192) anaia Alemania'ko I Fernando'ren (193) semea be, Erroma'tar Kaizar Sakratuak

(179) Guad-Ilhijarah = arriaren erreka esangura dauana. (180) Uts-ezintasun = infalibilidad. (181) Gotzai-eleiza = catedral. (182) Jarduera = proceder, comportamiento. (183) Eleiz-epaiketetan = autos de fe. (184) 481-511. (185) Etxe-zain = mayordomo. (186) 715-768. (187) 742-814. (188) 912-973. (189) 935-976. (190) 1.459-1519. (191) 1.527-1.576. (192) 1.500-1.558. (193) 1.503-1.564.

koroatuak izan ziran.

Kontuan artu bear dira, 1.516'an I Karlos Espaina'ko errege izendatu ebenean eta 1.519'an Alemania'ko kaizar V Karlos'en izenarekin egin, Frantzia'ko I Franzizko'ren aurka euki ebazan Europa'ren lau-guda nagusiak, Aita-Santuak euren buru gaiñetan dindilizka euki eben Erroma'tar kaizar Sakratuzko domiña aundi ori nork eroan dagian Europa'ren Mendebal onetan:

1^a = 1.521-1.526. (194); 2^a = 1.526-1.529 eta urte onen bitartean I karlos'ek Erroma'ri eraso egin ta saskildu ondoren, VII Klemente Aita Santua I Frantzizko'rekin kidetuta egon zalako, I Karlos beren atzetik arrapaka ibilita, onek Sant'Angelo'ko gazteluan ostondu bear izan eban (195). 3^a = 1.535-1.538 eta 4^a = 1.542-1.544 Niza'ko bake-une edo gudu-arte eta Krespi'ren bakean amaitu ziranak, eta abar.

Eta kontu aundiagoan, Errusia'ren askeneko muga'tik Itsas-Atlant'eraifio eta Noruega'tik Afrika'raifio (196), Kristiñau'kide izan da, nai-ta batzuk beranduago egin arren, 325'ean katolikotasunaren indarrezko alderdikeria sortu zanetik, 622'an lenengo banaketa Islam sortutakoan euki ebala eta Europa'ren errigizarte asko beartuta, Kristau egin zirala.

Gaiñera, ez zala JAUNGOIKOA'ren agindua, BEREN LEGEA'ren bereztasunean sortu ziran: Gizaren, leiñu edo erri eta errigizartearen Izkuntzazko Nortasunak suntsitzea, gure arbasoak bereztasun oneri, BERA ta BEREN LEGEA'ren aurrean, euken bereztasunean, ondo zainduta adierazpendu egin ebelako bizitz-au.

Sargon'etik asi-ta, Erroma'tar Kaizar Sakratu asmakizunaren atzean ibili ziranak, ondo baiño obeto jakin eben ez zirala JAUNGOIKOA'ren gauzak, sasi-agintaritzarenak baizik. JESUKRISTO'k, beste gauza batzuk esan euskuzalako.

Eta ikusi dogun lez, euren artean, ondo baiño obeto jakin ebala, erabilten ebana norkeriaren gauzak zirala, sasi-garaipenaren atzean ibilita Aita-Santua'ren uts-ezintasuna-be, ez ebalako contuan artzen.

Begitu bestela erlijiozko sinismenean euki eben ulermena, Frantzia'ko erregetza gure Nafar'tar IIIen. Enrike'ren eskuetara aukeratu zanean.

Kontuan euki, Nafarroa'ko erregetza, 1.527'an II Enrike Frantzia'ko Angulema'ko Margarita'gaz (197) eskondu ziran ezkeroztik, katolikotasunezko erlijioaren aurka, ukalarien (198) erlijiozkoak zirela. Eta legeztuta 1.560'an Nafarroa'ko III Juana erregiñagaz.

1.593'an, paregabeko aukera ori, baldintza onegaz agertu jakon: "Kalbino'ren ukalaritzatik (199) alde edo ukatu daiela eta katolikotasuna besarkatu".

Bere erantzuna: "PARIS'ek, MEZA BAT ONDO MEREZI DAUALA" esan ondoren, 1.594'an Otsailla'ren 27'an Frantzia'ko errege koroatu eben, IVn. Enrike izenagaz. (200).

Orduko Munduan eta Europa'n batez-be, erri-gizarteak, ez orren gogorkeriaren griña'pean (201) bakarrik bizi bear izan eben, batzangotasunaren asmakizun ori kontrolatzeko, aitor- seme andizki edo galdukerizko feudo-legepean (202), premiñan

(194) 1.525'an Pabia'ko borrokan, Ufrbieta'tar Juan bizkaitar-gudariak I Franzizko arrapatu eban, eta I Karlos'ek atxilotu. (195) 1.530'ean VII Klemente Aita Santuak I'go eta Vn. Karlos, Erroma'tar Kaizar Sakratua izendatu eben. (196) Bera kontuan artuta. (197) Angulema'ko Margarita, Frantzia'ko I Franzizko'ren arreba zana. (198) Ukalarien = protestantes. (199) Ukalaritzatik = protestantismo. (200) Nai-ta berak entzun ori, emon ez. (201) Griña'pean = preocupación, desasosiego. (202) Galdukerizko feudo-legepean = corrupto, feudalismo valvasor.

(203) eta uzurri edo elderri (204) ugari artean bizi izan bear ebalako.

Negargarria da ikustea, zelan katolikotasunak kaizar-domiña aundi ori, errege guztien buru-gaiñean dindilizka ipinita indartsuenak artu dagian batzangotasunaren norkerizko asmakuntz-ori aurrera eroateko, Europa'n Kristiñau erlijioa eskuetan panpa-bitxi (205) edo panpa (206) bat lez ibilita, egin ziran odolkerizko sarraski'ak.

Pozgarritasunezko egia da baiña, jakintzazko-jendekuntzagaitik leen lekaidetxetan babestu egin zana eta gero Bolonia, Padua, Paris eta abar'eko Ikastetxe-Nagusietan eskolastikazko eraman-onaren (207) zentzua sendotzen joan zalako.

Eta geien, Akino'tar Tomas Santua'k (208) Aristoteles'en eraman-onaren irizpide bereketagaz (209) maixutasun aundiz bat-egin ebana. Nai-ta berak, bere azkeneko denboratan zalantza asko euki, bere idazkietan zeruko izkutasunari ez ebalako jakin, bear eban lez, egokitasunik emon.

Orduko "eraman-oneko" (210) zirriborro orren barruari, argitasun aundiak emon eutsoezelako.

4. ZATIA:

1. Gure Erdi-Mendeko Euskalerrian, errege jaun sorkuntzaren sarrera.
 1. 1. Euskalerrian errege jaun'en sorkuntza.
 1. 2. Gure Nafar-erregetza.
 1. 3. Bizkaiko jauntza.
2. 1.540-50'en Erdi-Mendeko urtetik Oraingo-Aldira, edo ta Berrizte-Alditik (211) Frantzia'n 1.789'an egin zan iraulketatik gaur arte.
3. EUSKEREA'k Euskalerrinari..., zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?
4. **EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.**

1. Gure Erdi-Mendeko Euskalerrian, jaun eta erregetzaren, sarrera:

Sarrera:

Oraiñarteko edestilari geienak, etorkizunezko erri-gizarteak eurak gura (212) daben argitan ezarri daitezkan, Europa eta Euskalerriko arbasoen-ulermenak zelako zentzuagaz jokatu eben esateko: "Beti izan dira, edestian etorri dan erromatar batzangotasunezko-asmakizun mende orregaz zikinduta, berezko erri-gizarteak ezerezko kontuan euki gabe eta norkerietan dabizenai lagunduz, daukiezan sasi-garaipenaren egarriak iraun dagiezan".

Espainolak adibidez, beti agertzen dabe, euren errege ta izkuntza (213) betikoak izan edo eta danok espainolak izan bagiñan balitz bezala. Egia baiña, ortik urrun dago.

(203) Premiña'n = indigencia, pobreza. (204) Izurri edo elderri = epidemias, o, pestes. (205) Panpa-bitxi = marioneta, títtere. (206) Panpa = muñeco. (207) Eskolastikazko eraman-ona = filosofía escolástica, escolasticismo. (208) Akino'tar Tomas Santua = 1.225'ean Italia'ko Rokkaseka'n, Kanpania'ko Akino'ren aldamenen dagoena jaió, etal.274'an, Fossanova'ko zizter-lekaidetxean il. (209) Asimilación = "bereketa". Critica = "irizpide" de la filosofía del aristotelismo. (210) Eraman-oneko = filosofía. (211) Berrizte alditik = desde la filosofía. (212) Edo beartuta. (213) Izkuntz-ori Espainol ez dana, Gaztelarazko latin-kumea baiño. Eta, ZER da ESPAÑA ?

Orregaitik, Euskalerrria'ren edestia eta Euskal-izkuntza berezko nortasunaren zentzu aundia geienetan ! utzikeriz (214) betean, "Mendekotasunean (215) bizi izan garela beti" esaten dabe. Emen, Onaindia'tar Aita Santi ta Olazar'tar Martin'en "Lujuria Exuberante" agertuko zan zalantzarik gabe.

Zelan ulertu leike ori..., gu bizi-bizi gagozanean eta eurak "nortzuk diran jakin gabe?".

1.1. Euskalerrrian, Errege jaun'en sorkuntza:

Euskalerrriko lurraldeak, euren batzarreko nagusitasunean antolatuz jaurkintzen ziran eta batzar-nagusi orreïn agintaritzak mugarik ez euki ebalá adierazteko, Bizkaia'n zelako baldintzakaz aukeratzen ziran Jauna'k jaurkintzaren antolarazirako argituko dodaz.

Europa guztian, baiña Euskalerrrian batez-be, errege-jauntzak aukeratzen ziranean, erriak iru gauzatarako artzen ebazan: A) guda-buru izateko; B) zuzenbidearen buru nagusia izateko eta D) Bizkaiko ondore aundiko lurraldeak zaintzeko.

Jauntza, ain zabaleko almen eta ondasun orrekaz jantzi ba-eben, bere buruzagitasuna lasaitasunezko jaurkintzan iraun dagian izaten zan.

Eta kontu aundian artuta, berea ez zala ezer !!, daukon guztia Bizkaitarrak emonekua zalako, beren antolarazian (216) babesteko.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko: "Erabagitasunean apur-bat"; Beste apur-bar "Egilletasunean" eta beste ataltxo bat "Legegilletasunean" bakarrik emoten eutsoen.

Alderantziz baiña, batzordea beartuta geratzen zan, jaun edo erregeak bere antolarazian bakeak lortzeko edo baten bat indarka sartzen zanean kanporatzeko, borrokatu bear ebenean, euki eben gudaloztea guda-mutillakaz bear eben neurrian indartu eta ordezkosoldata diru-ordaintza barik, jaun edo erregetzaren antolarazi barruan bakeak lortzeko izaten zanean eta ariñautik ordainduta, etxetik kanpo zanean.

Jaun edo erregearen baldintza au, nai Europa'n eta bai Euskalerrriaren askatasunerako, txeberazko sare-aundi bat biurtu jakun, Euskaldunak ortik aurrera anai-arteko borrokan ibili garalako beti.

Jaun erregeak, bategaz edo besteagaz borrokatzen ibiltzen zanean, bai beren maltzurkerizko andikeriaren billa ibilita, adibidez: II Juan (217) eta beren seme Fernando katolikuak Nafarroagaz geratzeko ibili ziranean, anai arteko gudak izan diralako beti.

Zergaitik?: Europa eta Euskalerrriaren askatasunarentzat batez-be, eleiza-katolikoaren alderdikeriak, itxura-gabetuan (218) ekarte eban beste txeberazko sare aundi batekin, Munduko batzangotasunaren asmakuntzan, latinez eta kaizar ta Aita-Santu baten agindupeko jaurkintzak lortu daitezenez (219) bat egin ebalako: "GREZIA'tarren JAKINTZA", "Erroma'tar Kaizar-Sakratua'ren Katolikotasuna" eta "Erroma'tar Menperatzaille LEGEA'kaz" batera.

(214) Utzikeriz = lleno de omisiones. (215) Mendekotasunean = subordinación. (216) Antolarazian = arbitraje. (217) II Juan = Aragoi'ko erregea. (218) Itxura-gabetuan = camuflado. (219) Kaizar ta Aita Santu baten agindupeko = nacional-catolicismo fascista. Rouko Barela'k atzo..., nortzuri esan eutsoen faziztak zirela?.

Aita Santuak “Erroma’tar kaizar-sakratuzko katolikotasunaren kaizar domiña andi ori, errege-katoliko guztien buru gaiñean dangilizka ipinten ebalako indartsuenak artu dagian, errigizartearen gaiñetik, asmakuntz gaizto orreik lortzeko.

Grezia’arren Jendekuntzazko-Jakintz Demokratikoa..., naastu leike erromatar menperatzaille kaizar-sakratuzko katolikotasunaren legeakaz ?. EZ !! guztiz aurkakoak (220) diralako.

Alderantziz, naste-ori egiñagaz, eurak emon euskuen aukera ederrena, euki eben menperatzailletasunezko asmakeri ori, Berezko egiagaz alkar-aurkezteko (221).

Eta nai-ta egi-billaren azterkuntzak oso odoljariozko lazkartasunean (222) etorri izan ba-da be, Grezia’ren jendekuntzazko jakituri-demokratiko artean sartuteagaz, mesede aundiak egin eutsozelako Mundua’ri, Berezko egiaren zentzuak argitu zitezten.

Baiña, Europa’n eta Euskalerrian batez-be, errege jaunak sortu ziranetik gaur-arteke edesti guztian, Europa’ko jakintza eta indarra, guzurrezko baldintza bi-orreitan ezarrita eta agintaritzazko nagusitasuna artean, maltzur-guzurkerizko joko orreitan Bereztasunaren egi-guztia naspiltzeko alegiñean ibilita: “Berezko erri ta izkuntzak, irten-bide barik geratu ziran”.

Edestiko joko guztia, beti izan dalako berezko erri ta Izkuntzaren aurka, onein NORTASUNA’k desagertu aienatu edo suntsitu daitezcan, Mundu oneitan euren sasi-jainkotasunean ezarri gaitezcan. (223).

Gudaren buruzko alegiñean, nor ez da gogoratzen Zesar’en “VENI, VIDI, VICI”gaz, Godo’en “ET DOMUIT VASCONES” eta Katolikotasunak Nizea’tik aurrera Euskerea bastartzeko esaten dauskuenakaz “HABLE USTEN EN CRISTIANO”, euren beldurkerizko guzurra ostondu naian edo aiñ nabaritasunezkoa izan-da, indarkerian erakusteko.

Eta bai abar asko-be, menperatzaille-eritzi orren “LORAK” baiño ez diranak, Berezko Erri ta Izkuntzaren aurka.

Zergaitik ez dabe esaten “HABLE USTED EN KATOLIKO ?”. Bildur dira euren maltzur-menperatzaille jokia argitan agertzea ? Argi dago, lotsabako oilo-bustiak dirala “JESUS”en irakaskintza olan zikintzen dabenak, sasijainkotasunaren asmoz.

Gaiñera, batu edo batzangotu baiño, nai NORTASUNEZKO erri ta izkuntzazko arloetan, milla zati geiagotan birrindu dauana.

Munduko eta Europa’ren edesti guztia, odolkerizko sarrazkintza baten ekarri dabe sasi-asmakizun ori dala eta ez dala. Nortzuk dira ikarabideen (224) izutzaille edo izu-arazleak ? (225).

Ez ete da ordua zentzunezko aldakuntzan asteko..., gaiñera ikusita BEREZKO LEGEA’ren indarrak buruaren goi-aldian daukaguzela keiñalari, noz iruntsiko momorro aundi baten antzera ?.

1.2. Gure Napar-erregetza:

778-824’an Orreaga’n, Euskaldunak Karlo Magno’ren aurka euki gendun borro-

(220) Aurkakoak = antagonicos. (221) Alkar-aurkezteko = cotejar. (222) Odoljariozko lazkartasunean = dureza, aspereza, bastedad. (223) Begitu zelan dabiz gaur be. (224) Ikarabide = terrorismo. (225) Terroristas.

kak gerta-egun bi-orrein ostean, Banu Kasi sendiaren laguntzagaz, Aritza'tar Iñigo'rekin asi gendun Nafarroako-erregetza.

Eta 888'an, IIIIn. Alfonso'gaz Padura'n (226) euki gendun borroka odoltsuaren ostetik, Jaun Zuria'gaz Bizkai'ko jauntza.

Eta antolakuntzazko jaurkintz orreitan asi giñatetik, BEREZKO EUSKAL NORTASUNA'k aienatzeko sartzen gara gaur arte, edesti guztiko borroka orreitan.

Nortasunezko izatasunean, errege-jaun biak oso abertzale aundiak izan ziran, Bereztasunaren babeserako baiña, uko ezinezko txeberaren sare-artean nai-ta nai-ez inguratuta.

Nafarroa'ko erregetzan lenengoetatik asi-ta esan bear da: Batzangotasun orren asmakuntz-bidetik eta Europa'n Eleiz'tarrak euki eben aolkularitzazko jabetasunagaz, Latiña elburu-lez gaienduta, Nafar'tar-Jaurkintzan Euskeraz, sekula ez zala idatzi agiri bat eta latinez ez ba-ziran egiten, naiago latin-kume (227) baragarrian. Napar-erritarrak ezeren kontuan artu gabe.

Joko orreitan eurentzat gaur-lez: "ZER ziran Euskal-Nafar-erritarrak?".

IIIIn. Santso Garzez "Aundia"k (228) 1.035'an kaizar-erregetza bere semeen artean banandu ebenetik, Gaztela eta Aragoi'tarrak edesti guztian ibili ziran zirikatzen, nork geratuko ete-zan Nafar'tar erregetzagaz.

Eta len, Frantzia ta katolikotasuna bakarrik euki ba-eben etsai, Gaztela ta Aragoi'tarrak asmakizunezko talde orreitan kidetuta, lau bider aundiagotu egin ziran, Nafartarrak aurre egin bear eutsoen zirikatuaeren eraso-aldiai, aztu gabe, gurutzada'ren gudak, ara-be joan bear zalako.

VIIn. Santso "Jakintsua"ren (229) jaurkintzan, IIIIn. Zelestino Aita-Santua'k beren berun-bulda edo idazkietan, beste benetako erregeari "REX" izenagaz bialtzen ba-eutsoen, VIIn. Santso'ri, 1.194'an Jorrailla'ren 13'ko berun-idazkian eta gero urrengo VIIIn. Santso'ri (230) bardiñ, dukea'ren izenagaz idazten eutsela.

VIIIn. Santso "Azkarra edo Indartsua" gurutze-gudatan ibili zan denboran, jaurkintzan geratu ziranak okerkeri galantak egin ebazalako eta VIIIIn. Alfonso gaztelarrak Araba erasotzen ibilita, Euskalerriko lurralde naguziak Nafar-erregetzatik: Araba ta Gipuzkoa 1.200'ean eta Bizkaia 1.224'an banandu zirala.

I Teobaldo'k (231), seigarren gurutz-gudaldian (231) eta zazpigarrenaren (232) bitartean, 1.238'an Lur Santua'aren gurutzeko-gudaldia bideratu ebela eta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortuta gero, 1.240'an itzuli zan.

I Teobaldo'k 1.246'an, Ximenez ta Gazolaz'tar Pedro gotzaiña'rekin, Fuero'ak dirala eta ez dirala, zalantzan ipini eban Nafar-erregetza, baiña IVIn. Inozensio Aita-Santua'k lege berezi-bat argituz: "Bere baimenik gabe, iñork ezin leikela Teobaldo eleizatik kanporatu" agertu eban.

Kontu aundian euki euki bear da, orduko denboratan errege baten-bat edozer gauza gaitik elizatik eskomunikatuta kanporatu egiten ba-ebela, erregetzazko koro-ori aske geratzen zala edozein printze-katoliko artu dagian, Aita Santuaren baimen guztiak eukinda, guda-indarez sartzeko.

(226) Padura = borroka'ren ostetik Arrigorriaga deituko zana. (227) Latin-kume = romance. (228) IIIIn. Santxo Garzez "Aundia" = 965'ean jaio, 999-1.035 errege. (229) VIIn. Santso "Jakintsua" = 1.128'ean jaio, 1.150-1.194 errege. (230) VIIIn. Santso "Indartsua" = 1.154'ean jaio, 1.194-1.234 errege. (231) I'go Teobaldo = 1.200'ean jaio, 1.234-1.253 errege. Gurutz-gudaldian = VI garrenean 1.228-1.229, eta VII'garrenean = 1.248-1.253.

IIn. Karlos "TXAR" deritson erregetzan (232), 1.348'ko Irailla'n, izurri (233) baltza agertu zan, Nafar'tarren gizarte-artean %'tik 70'ean murriztu ebana eta lurgintzaren lanerako besoaren ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsoen.

IIn. Karlos'ek, neurri gogorak artu bear izan eben ekintza orreik bakezteko eta Frantzi'ko erreinuaren edestilariak, nai-ta erriak oso maite euki arren, Nafar-erreinua zirikatzekeo "TXAR" izen ori ipini eutsoen.

Nafarroa'ko erregetza ta erritarren nortasunak banatzeko, bere barnean legezko eta sasi-semeen artean, bekaiz (234) aundiaren bitartez beti borrokan ibiltzen ziralako, kanpotik euki ebazan zirikitasunak, erritarraren artean estutasun geiagotan larritu daitezkan: Agramontes ta Beaumontes'en alderdikeriak sortu ziran. Nai Europa'n edo eta Euskalerrria'n bezala, baiña Nafar'tarrentzat batez-be, oso gaiztoak izan zirenak.

Emen konturatu bear gara, Europa'ko erregetza guztia, euren artean senituta egoala eta naigabezko borrokak edo asarre guztiak (235), bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren eskubideetatik agertzen ziralako, erritarrak morroi bezela ara ta ona Foruen aipamenakaz ibilita, kontuan euki gabe.

1.423'an Urtarrilla'ren 20'an, IIn. Karlos "Biotz-Aundikoa" k Nafar-erregetza babesteko Biana'ko printzerria sortu eban, bere illoba IVn. Karlos izan-da lenengo printze edo errege-gaia.

1.441'an baiña, I Blanka Nafarroa'ko erregiña, Aragoi'ko IIn. Juan'egaz askonduta egon zana il zanean eta euren seme IVn. Karlos errege izendatu ondoren, IIn. Juan bere aitak eta Fernando katolikuaren aita izan zanak, erregetzatik bota eben.

IVn. Karlos'ek, gaztelatarren laguntza eskatu eban eta laguntza emon ondoren, kondestable'ak, Albaro de Luna'ri itandu eutson: "Baiña guk... zer lortzen dogu laguntza oneikaz Nafarroan?" Eta Albaro de Luna'k erantzun: "Jauna !! 40 urteko anai-guda izten dautzaguna".

IIn. Juan'ek (236) : I Juan izenagaz 1.441-1.479 Nafarroa'ko errege-lapurra lez eta Aragoi eta Katalunia'ko IIn. Juan errege lez 1.458-1.479 Urtarrilla'ren 19'raiño il zan arte.

Beren seme-alaba biak, IVn. Karlos (237) eta IIn. Blanka (238) pozoituta il ebazan.

Guda oneik, ez ziran amaitu 1.522'an Maya'n eta 1.524'an Ondarribian, Nafarroa'ren askatasunezko ikurriñak beratu arte.

Nafarroa'ko I Juan ta Aragoi'ko IIn. Juan'en izenagaz ezagutuko zan Fernando katolikuaren aita izan zanak, 1.441'ean asi zan, Nafarroa, Aragoi menpean ezartzeko eragozpeneko gudarekin.

Vn. Fernando "katoliko"aren (239) izenagaz ezagun izan zanak, 1.512'an Uztailla'ren 21'ean aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz (240) agertuta mendetu ebana.

Eta Espaina'ko I'goa eta Vn. Alemania'ko Karlos'ek (241), 1.522'an Maya'n eta

(232) Nafarroa'ko II Karlos "Txarra" = 1.332'an jaio, 1.349-1.387'rarte errege. (233) Izurri = peste. (234) Bekaiz = envidia. (235) Geienak beintzat. (236) Aragoi eta Nafarroa'ko II Juan erregea = 1.397-1.479. (237) Nafarroa'ko IV Karlos = 1.421'an Peñafiel'en jaio, eta 1.461'eko Irailla'ren 23'an Bartzelona'n, gaitzepel edo bularretako miñagaz il zala esaten eben, baiña ez zan egia. (238) Nafarroa'ko II Blanka = 1.424'an Olite'n jaio, eta 1.464'ko Otsailla'ren 12'an Euskalerrriko Iparralde'an Biarno'ren Leskar'eko bizkonderrian il. (239) V Fernando katolikoa = Aragoi'ko Sos errian 1.452'ean jaio zan, eta 1.516'ko Urtarrilla'ren 23'an, Kazerez'eko Madrigalejo'n il. (240) Mozorroaren estalpenagaz = ocultación, disfraz. (241) I Karlos = 1.500-1.558.

1.524'an Ondarribian, Nafarroa, Espaina'ren mendepean egon daiten amaitu ebana. IIn. Julio, Xn. Leon eta VIIn. Adriano eta VIIIn. Klemente Aita-Santu'ren laguntzagaz eta bedeinkapenarekin.

Or amaitu ziren Nafartarren askatasunak ? EZ !! Nafartarren askatasuna oraiñarte, indarkeriaren aurka ezin dalako besterik egin, estutasunezko larrialdi bat baiño besterik ez dalako igarotzen dabillena.

1.3. Bizkai'ko jauntza:

Gure jauntza, 888'an Padura'ko (242) borroka-lazgarri ostetik Jaun Zuria'gaz asita aurrerantzean gure aukeratuko jaunak oso abertzaleak izan ziran, areik eta gauzak naspiltzen asi arte, adibidez: 1.137'an IVIn. Lope'k Gaztela'ko VIIIn. Alfonso'gaz batera, Nafarroa'ko VI'n Garsea edo Gartzia'ren aurka borrokan ibili zalako, bera kendu eta Nafarroa'ko erregegaz itzarmendu gintzazan.

1.454'an Gaztela'ko IVIn. Enrike'k Bizkaiko jauntza artu ebanak eta 1.470'ean Epaila'ren 4'an Mungia'ko guda ostetik bota egin genduena, Isabel (243) ipinita.

Eta ainbategaz bardin edo al-gendun eran, nai guda-keñuakin batzuetan IIn. Felipe Espaina'ko erregeari bezela.

Bizkai'ko jauntza, Europa ta Nafarroa'ko arazo bardiñakaz asieratik iraun bear izan eban, danen antzera guk-be leen, erromatar-katolikotasunezko sakratuaren txeberazko asmakuntz sare-orreitan sartuta asi bear gendulako eta Bizkaiko gizarte ta Batzarrak euren jabetasunean, indarrezko babes-ausarta aundiak eginda-be, gure jauntza, urte-bi eukazala Espaina'ko errege izango zan IIn. Juan'en (244) eskuetan jausi zanetik, txeberazko sare orreik zabaldu ta sendotu egin ziralako.

Ortik aurrera, Espaina'ko erregeen eskuetan egon dalako gure jauntza. 1.876'an Uztaila'ren 21'ean guztiz ertsi (245) edo giltzatu arte.

Europa, Euskalerrria eta Bizkaia'ren gaurko Menperatzaille oneik...., betiko ASKATASUNA galdu egin dogula esan-gura dau ?

EZ !! Bizitz oneitan Askatasuna galtzen dauenak, NORTASUNA galdu edo il-dagoela esan gura dau. Eta EUSKAL-BIZKAITARRAK bizi-bizirik gagoz oraindiño.

Demokrazizko bideak artzea, JAINKOA'ren bideak artzea esangura dau, Bereztasunezko LEGEA'ren-bidera aokatuta gagozelako. Orregaitik buru-otzakin eta demokrazizko zentzu aundiz jokatuta, lortuko dogun gauza da !!. Maltzurkerizko guzurak Mundu'ko bizitz-au, amiltegitik (246) ez ba-dabe botaten.

(Onen inguruko edesti osoa: "Askatasuna ta Menpea, Askatasuna Bizkaian" LII'ko Euskerazaintza aldizkarian; "Euskaldunak eta Europa'ren Batasuna" LIV'an; Euskalerrria ta Inguruko Erriak LVI'an; "III Juana de Albrit eta Nafarroa'ko erregetza" LIX'an eta "Euskalerrria'ren Askatasuna'ren Edestia" LXI'ean, lortuko dozue).

(242) Padura = Arrigorriaga. (243) Isabel = katolikoa. (244) Espaina'ko II Juan = 1.425-1.474. (245) Ertsi = clausurar, cerrar. (246) Amiltegitik = precipicio, despeñadero.

2. 1.540-50' en Erdi-Mendeko urtetik Oraingo-Aldira edo ta Berrizte-Alditik (247) Frantzia'n 1.789'an egin zan iraulketatik gaur arte:

Agertu ziran aurrerakuntzakaz (248), lengo erregetzak indarrean sendotzen joan ziran, nai-ta Europa'n eta batez-be Euskalerriko Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia'n gure askatasuna euki, tresneri barri-orreik indarrezko aukeran emoten eutsoezan neurri orreitan, batzangotasunezko asmakuntzan gogortzen asi ziran.

Erregetza orreik baiña, XVIIIn. Mende'tik onantza makaltzen joan ziran lez, eta Berezko erriak indarra artzen, batzangotasunaren asmakuntzazkoak, erromatar kaizar-sakratuaren katolikotasun tresneri orrekin ez ziralako gai izan Mundu'ko dan guztia batzangotzeko, saio barri baten amets asi ziran.

1.789'an Frantzia'n egin zan iraultza, izan zan saio barri-ori, bereztasunezko errigizartearen nortasunak eta izkuntzak, lurralde zati aundiko jende-biltzetan (249) lotzeko izan-ditekeezan gai, erri ta izkuntz ezberdiñ orreik aienatzeko alegiñean.

Frantzia'ko-erregeak, lenengo franko-leiñu'etatik beti, goitik-berako jaurkintza-ren zaleak izan ziran lez, iraulketaren ondorio-bidetik, Frantzia'ko gizarte ta lurraldeak batzangotu gura ebazan, eta ararte euki ebazan itzarmenaren antolabidezko (250) ardurak baztartuta, berezko erriak daukezan nortasunezko izkuntz eta lurrak, Frantzez laterritu ebazan.

Eta Europa osoa eredu ori artuta, ararte egon ziran itzarmen-bidetik antolaraziko erregeakaz lotuta, lurralde aundietan guda-indarrekin, guztiz Laterrituta garatu zan.

Baiña, Erromatar-katoliko-kaizar-sakratuan batzangotzeko asmatuta dauan zorro orren bealdea, josi-barik eukielako, areik eta Mundu guzti onen nortasunezko-giza barruan sartu arte, Napoleon'ek, menperatzailletasunezko ateak zabalik aurkitu ebazan eta borroka ori JAINKOA'ren LEGE'en aurka dalako, betiko-lez, azken-gaiztotuta utsegille urten bear izan eban, ainbeste milloi-giza'ren eriotzagaz.

Asmakizun orrek, buru gogorra dauka eta Hitler'ek-be askeneko saioa egin eben, 60'milloi giza-seme il-da.

Noz-arteraiño, burukaldi-gogor (251) orreik ?.

Gaur ez dira ausartzen beste bat egiten, Mundu'ko bizitza berrogei bider aienatzeko atomozko-lerkai'ak dagozelako.

Eta erri-gizartearen nortasun eta nortasunezko izkuntzak gaur zer ?.

An Sumeria'n, Sargon menperatzaillearen asieran-lez, JAUNGOIKUA'k Ludi-au BERE'n LEGEA'kaz Bereztu egin ebalako eta orreik ez dabelako esaten beste gauzarik: "BEREZTASUNA'rekin LOTSA aundia euki bear dogula baiño". Gure arduraren kontu aundienean artu bear doguz, OR!! Ulertzen diralako Izadi onen gai-giza'ren eskubideak.

Asmakizun orreik, nai edesti guztian Berezko LEGEA'ren aurka eten-bako odoljariozko sarraski baten ekarrita. Bereztasunak, Arnasaldi baten sartu ezkeru, eta BERE'n LEGEA'ren ezinbesteko ardurak bete egin bear dabezela, lotsagizun aundiz, berezko izatasunen egokitasunera doa.

Orregaitik, zergaitik barriro artu ez !! Bigarren Mundu'ko gudan zer gertatu zan

(247) Berrizte-Aldetik = desde la reforma. (248) Aurrerakuntzak = Irarkola, itsas-oratza, lerrautza -polvera-, eta abar. (249) Biltzetan = agrupaciones. (250) Antolabide = arbitraje. (251) Burukaldi-gogor = cabezonadas.

ikusita, ostean damu aundiz eta garraxika aldarrikatu zan..., "GIZA eta Berezko erri ta erritar ESKUBIDEA´ren bideak artu bear zirala ?".

Iñoz !! ez du igarriko..., JAUNGOIKUA´k ipinitako LEGEA´ren aurka ezin dogula egin ezer ?.

3. EUSKERIA´k EUSKALERRIA´ri, zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?:

Sortzezko izkuntz-bat Euskerea dan lez, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz-bat bezela.

Edo eta edestian ikusi dogun-lez, menperatzailleak euren sasi-garaipenak lortzeko, erri ezberdiñeko gizarteak menperatasunezko bear-kuntzaren naastekatutik urten leiken izkuntz baragarri baten antzera.

Erromatarren norkerizko-bidetik urten eben latin-kumeen antzera. Euren ERRI-NORTASUNA´k, naastutasunen bidetik, euki eben ospea-kendu (252) eta naspillatu (253) egin ebalazako.

JAINKOA´k Berezko bizitz oneitara bialdu ginduzanean, gai-oneri arrigarritasun aundiz adierazpen-bat emoten asi bear izan gendun, gosea´k, gure sabel-zorri onein larritasunezko doñuak ez ziralako egokienak; jaiotzak, eriotzak, gaxo-aldi, zauri eta bizitzari erantsuna emoteko beste aukerarik ez zalako egon, baietza emon geuntson maitasunean egokituta.

Maitasuna..., nori baiña ?. Leen JAUNGOIKOA´ri, laster konturatu giñelako bizitz au ez zala edozeiñek egindakoa.

Bigarren, sendia´ri, lagun bearrean babeserako guregandik ugaritzen giñelako. Eta irugarren, gai-bizitzari, berak emoten euskuelako aukerea izateko.

Maitasunezko egarri (254) orren bidez, laster konturatu giñan, gauza guztien ekintzazko alegiñean, txar eta onezko aldiak eukazela eta egiten genduzan gauza guztietan lotsasko-neurriakaz arduratu bear giñela oker edo utsaldian jausi ez gindezan.

Bai-ta, antolakuntzazko beste uler-leku barri bat zabaldu bear gendula, ikasitakoak gure ezagueran erabidez (255) oituratzeko eta ortik asi bear izan eben abots edo itz-ots´ai itxurazko eran amore-emoten (256).

Homo-Sapiens, Afrika´tik mugi-aldian asi eta Europa, Asia ta India´tik zabaldu ziranean, leen-Euskerazko itz eta ekanduaren oiturazko oiñarriekin, zentzuzko oreka baten egokitu eben. Leifñuen bizitzazko antolakuntza, auzotasunezko lurraldeetan laterrituta.

Atlant-itsaso´tik India´raiño dauan bitartearen eragozpenagaitik, ez eutsen itzi izkuntz-bateko azturan egokitu eta or, leiñu bakotzak nai oiñarri batekoak izan, sort-arazi (257) eben izkuntzan egokitu ziran.

EUSKERIA´k EUSKALERRIA´ri, ZELAKO IRUDIA´gaz ITXURATZEN DAUTZO ?:

Euskaldunak, JAINKOA´ri begira milla-urte askoren ikerpeneko atun-bidean

(252) Ospea-kendu = desconceptar. (253) Naspillatu = desconcertar. (254) Maitasunezko egarri = amar, querer, aspirar en definitiva. (255) Esagueran erabidez = metódica u ordenadamente. (256) Amore-emoten = amoldar. (257) sort-arazi = crear.

(258) edo eta aztura-bidetik (259), ondo erindu eta biribildutako lanean, itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu daitezkan, gure ARBASOAK, EUSKERAZ'ko gaztelu ederrena eraiki eben. Eta bizitz-oneri, beragaz emon eutsoen adierazpen ederrena.

Ez ziran txantxetan ibili, laztasun (260) eta zorrotzasun (261) aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko-esaerak, sorburuzko itz'ekin osotutako almenean (262) eginda dagoelako, esangura dan irudizko toki ber-beran kokatzen gaitu, ia izkuntz-gitxi baiño ez daukienak.

Gazteleraz PLAYA itzak adibidez: Zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?. Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz (263) edo eta areatutako maskor-ondarrarekin ?.

Zelan ?: "Euskalerra' ren lur onetan agertzen diran aize, ur, itsaso ta mendiak daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta gai-bizi irudiak, zentzu aundienean izendu ebazalako" **alde batetik.**

Bestetik, sendi-gizartean: "Lots aundi begirunezko (264) itz'ekin oituratu ziralako senditasunaren bizitzazko eta sendi-gizarte arteko arremanak leiñu edo erri-maillan".

Erri-arteko maillan: Lotsa aundian artuta euki bear ziran arremanakaz, "Sekula ez giñelako joan bestea menperatzera edo ta daukana kentzera, paregabeko DEMOKRAZIA baten bizi ziran, gure arteraiño etorri jakuzan LEGE-ZARRAK esaten dauan lez".

Eta baktzaren eginkizunetan ?: "JAINKOA'ri begira, EGIA gure bizitzako ARDATZ-NAGUSI izan daitela, Euskalerra'k beste amar-milla urte geiago iraun dagian".

Gure ARBASO'ak, zentzunezko demokrazi-baten egian bizi ziralako, eta gaur-arte ezer galdu gabe ekarri euskulako daukaguzan ASKATASUNEZKO DEMOKRAZIA' ren egarriak. Ekintza orreik izan ziran eta orreik izan bear dira gaur eta beti !! "EUSKALERRIA bizi-bizi agertu daiten MIRARIA".

EUSKERA 'k:

Daukan NORTASUNEZKO irudiagaz itxuratzen gaitu Euskaldunai.

Maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri-eder au, ez dalako gatz-gabeko mezu-gailu uts-bat, gure artu-emonetan ibilteko tresneria bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak:

a).- JAINKOA'ri begira "BEREN LEGEA'rekin euki gendun oarmeneko samurtasuna"(265).

b).- "Senitarte eta erri-maillan MAITASUNEZKO ulermena".

d).- "Gure BAITA' ren bake edo oreka'gaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeatztasunaren lotsazko arduran egin genduzela".

(258) Atun-bidean = procedimiento empiriko. (259) Aztura-bidetik = crecimiento del conocimiento. (260) Laztasun = severidad. (261) Zorrotzasun = austeridad. (262) Osotutako almenean = potencia, potestad. (263) Leguntasunagaz = lisura, tersura. (264) Begirunezko lotsaundi = respeto consideración. (265) Oarmeneko samurtasuna = atención, sentido de la observación.

Euskal-bizitzarako edo eta erriaren babeserako EUSKERA'k daukan indarragaz, berez agertzen jakulako "MAITETASUNEZKO GAITASUNA" (266), bere barneak daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako argitasuna emoten dauskuelako.

Gure arbasoak, gauzak eta arremanak egin ta zentzun aundiz eroanda, DEMOKRAZIA'ren ulermen aundi batera elduta bizi ziralako, sendimendu ber-berori sartu eutsoen Euskera'ri, orregaitik ez da edozelako tresneri uts-bat.

Bera da AMA !!, Euskal-izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Etorkizunean, bere MAITASUNEZKO ZENTZUTIK artzen doguz NORTASUNEZKO izatasunak, Mundu guztiko gizarteari erakutsiz EUSKALDUNEN NORTASUNEZKO EGI-BIDEA..

Menperatzaillak euren nagusitasuna erakusteko, gaurko bizitza, xautzailletasunezko argi-bideakaz ganoragabetu gura ba-dabe. Gu ez gara jausi bear txebera orreitan, bestela gudakin ez ebena lortu iñozokeriakaz lortuko dabelako.

Geiago bear ete dogu ?. Ba..., kontuan euki !! gure ARBASOAK egin eben lez, guk elikatu bear doguzela zentzu aundiz NORTASUNEZKO – DEMOKRAZIA ON BATEK bear dauazan eginkizunekaz, GURE ORDEZKARITZAZKO-ARDURA DALAKO, EUSKAL - IZATASUNEAN IRAUN GURA BA-DOGU.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Oreja'tar Martzeliño'k: ETA'ren esanak edo eta mezuak sinismenean edo kontuan aundian artzeko, "orreik ez diralako gai, GUZUR-bat esateko eta".

Eta Mundu'ko gizarte-ezagunak, irudi orregaz ikusten gaitue Euskaldunai ?.

Lur eta gizarteko aunditasunean, Erri txiker baten neurrian geratu gara, menperatzailletasunezko alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten-bakoak izan diralako, baiña....., gure NORTASUNEZKO-DEMOKRAZIAK zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, Mundu'ko edozein lekutik ikusi leikena da.

4. EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA:

Edesti guztiko autueta edo kondaira onetan ikusi dogu, Mundu'ko gizartea gure on-ikuskizunerako aldakuntza aundi baten bearrean dagoela, bestela gagozan lokatz-artetik urtetea, gatz egingo jaku.

Alde-batetik: "Ikusten dogulako, norkeriaren asmakizunezkoak euren xautzailletasunezko aberastasunean bizitzeko, Mundu onek JAINKOA'ren LEGEA'kaz bere izatasun fisikoan, guk, gauzak txarto egiten noraiño eldu geinken mugatuta dagoena, daukazan dei-adar guztiak biztu egin dabezala, amiltegi baten ertzera ekarri gaituelako.

Bestetik: "Alderdikeri orreik sortu ziranetik eta nortasunean ta jakintzan, zentzunezkoak ez diran naastukerizko gauzatan sartzen gaituelako, bizitz onetan, egirik ikus-eziñik igarotzen dira gure nortasunak eta beren ondorioz, zentzun gabekeriaren ulermen bateko irautasunean aurrera egiten dogu.

Zer egin ?. Gure gogoaren baitan zikinduta daukaguzan zentzunezko irten-bideak garbitu eta danok geiago arduratu, giza, erri ta erri-gizartearen NORTASUNEZKO

(266) Maitasunezko gaitasuna = buenas dotes, talento.

eskubideen ekintzan aleginduta.

Ekintza orreik bakarrik ekarri leikezelako askatasunezko orekak, Mundu onetan egiten diran norkeriaren bearkuntzatik.

Norkerietan dabizenak, oraingoan lar urrun joan dira batzangotasunezko alegiñean, danoen ardurak euren eskuetan artuta.

Orañarte, beti aurreratu dira, berez, Mundu'ko gizarteak alkartasunerako emon bear dabezan aurrerako oinkadak emon orduko, eurak, bizitzeko daukaguzan mozkin guztiaren kontrola bear dabelako.

Orregaitik oraingoan, urrun joan dira, gai onen oreka guztiak zalantzan ipini dabezalako.

Nora joango ete da erri-gizarte bat....., bere antolakuntzan ez bada gai, seme-alabak edo seme-alabarentzat etxe-bizi bat ezin bada-be lortu ?. Gaiñera, ez da edozein gauza, giza' ren iraunkortasuna ipini dabelako zalantzan.

Ori bai, dan guztia batzangotu gura dabe esku bakarretan, goiko agintaritzatik asi ta errigizartearen nortasunetik igarota, diru ta mozkin guztia, danoen ardurak ezereztuta ondoren.

Bai !! neska-mutil gazte guztiak lanean ipinita, iñora ez daitezcan elduko premiñan (267).

Al izango ete dira..., giza, euren oparotasunaren zerbitzura ipinteko alegiñean, klonetan astea ?.

Astakerizko ergelkeri oneik..... noiz arte ?.

EUSKALERRIKO SEMEA'k:

Esan leike, edestitik zear aurkeztu doten egoera ondagarritik (268), ez dagoela urten biderik, eta ez da egia.

Danok garalako arduradunak ondameneko estutasun onetik urteteko antzezleriak, aukera guztiak gure eskuetan egon-da.

Askotan esan leike, ibil-arazian ipinten diran asmakizun txarrak (269), euren alegiñean indar geiegi daukazalako, ezin dirala geratu edo eta txarrak dirala adierazpendu, areik eta beren zentzun okerrak ormaren aurka burua apurtu arte.

Orain gagoz gure giza-barne edo baitan aukera orretan, edesti guztitik etorri dan giza ta erri-gizartearen berezko eskubide guztiak zapalduta, bizi onek daukazan Bereztasunezko Legea'kaz mugatuta topo egin dabelako.

Eldu garan mugazko egoera ontara, Mundu onetako goiko-agintaritzazko ulermenekoari be, euren giza-baitak txarto goazela esaten dautsielako.

JAINKOA' ren LEGEA'k egiten dauskun oarpidera (270) eldu gara, eta beragaz, gogarketaren aldira (271).

Ze gogapenekin baiña ? : "Edesti guztian meatxuzko indarrarekin etorri dan erromatar asmakizun ori, eskubide guztiak zapaldu eta daukagun Nortasunaren ardurazko giza-legetik kanpo itzita, Mundu'ko gizarte guztia garrasika ekarri ondoren, abarrakitu (271) edo azken-gaizto baten amaitu dalako.

(267) Premiñan = sueños y necesidades que estan ahi, pero en ningun caso alcanzable para ellos. (268) Ondagarritik = catastrofico/a. (269) Asmakizun txarrak = eta onek, bi-milla urte baiño geiago daukaz, nai-ta gogortzen asi zanetik 1.683 urte euki. (270) Oarpidera = advertencia. (271) Gogarketaren aldira = al momento de reflexión. (272) Abarrakatu = estrellar, hacer trizas.

Beren aurka, beste ainbesteko indarrarekin jantzi ziran komunismu'aren burutapenak, euren-beste kaizar zaleak biurtu ziranak, eta ust egin eban.

Eta gaur, leen sasi-asmakizunezko datorzan diruaren batzangotasunezko burutapenai, ura, leku guztietatik sartzen jakola, beste ainbesteko uts egin daualako.

EUSKALDUNAK ZER EGIN ?:

Gure giza-barrenak edo "BAITA`k" (273) itzartu eta oartu, Euskalerria`k edesti guztian dakarren eten-bako borroka onetatik, gure izatasunezko nortasunean apurtu edo murriztu jakuzan gauza guztiak, berrezkuratu egin bear doguzela.

Eta ezinbesteko gogo-alegiñean, GURE ERRI-MIÑAN, AINBESTE ZOR-DAUTSAGUN MAITASUNEZKO EUSKERA "NORTASUNDU"! len berak, gugaz egin eben antzera. EUSKALDUNAK OR ! daukagulako NORTASUNA`ren IZATASUNEZKO ALTXOR AUNDIENA..

Baiña...., lerkai eta izkilluaren ILKETA BARIK !!. Zorionez, denbora orreik joan diralako eta orreik gauzakaz irauten ba-dogu, gure buruetara lerkai orreik botatea bezala dalako.

Mundua`ren gizarte aurrean, DAUKAGUN PAKEZKO eta ASKATASUNA-REN DEMOKRAZIZKO IZAERA, IZUTZAILENA`gaitik (274) ALDATU edo ITZULI EGITEN DABELAKO.

GURE ETSIAK ORI GURE DABE-BA !! EURAK GUDAREN INDARRA-GAZ AL EZ DIRANA EGITEKO IZAN, GUK, GURE IÑOZOKERIAKAZ (275) EGIN DAIGULA.

JAINKOA`k IPINI EUSKUN LEGEARI BEGIRA, NAI-TA NAI-EZ JOKATU BEAR DOGU. GURE EUSKAL-ASKATASUNEZKO ELBURUA LORTZEKO, MUNDU ONETAN, BERA TA BEREN LEGEAK DIRALAKO ARDATZ NAGUSIENAK.

EUSKALERRIA MUNDU eta EUROPA`ren "IZAR" AUNDIENA DA, EZ DAU MEREZI BEREN SEME BATZUK ARROTASUNEZKO BEROTASUNEAN, BERAGAITIK EGITEN DABENA.

(273) Baita`k = conciencias. (274) Izutzaille = terrorista. (275) Ifiozokeriakaz = ingenuidad, necedad, simpleza.

"IZADIAK DAUKAN LEGEA", ZAINDU BEAR DOGU

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.008`an Urrilla`ren 22`an

- EUSKERA DALA- TA -

2.009'an Uztailla'ren 20'na.

Egun orretan Barroeta eta Amorrortu'tar Klaudio, EUSKERAZALEA ta EUSKERAZAINTZA taldearen zuzendari danak, deitu eustan etxera esanaz:- Paul ! irakurri dozu DEIA'k "Tribuna Irekia"n Urrutia'tar Koldo'k idazten dauana ?. Irakurten ba dozu, jakin gure nuke zer deritzazun, eta obe, irakurri ori buruz zeozer idatziko ba zendu.

SARRERA.

JAUNGOIKUA'k, ARIMADUN bizitzara bialdu ginduzan. Eta arrazoidunak izanez, laster konturatu giñan, JAUNGOIKOAK BERA'k ipinitako GAI-LEGE artean egokiturik gengozala. Bai eta neurria bear gendula eginkizun guztietan.

Baten batek esan lei, idazlan oni buruz eritzia emoteko, ez dala asi bearrik asierako zentzunetik.

Uste dot baiña, badaukala zentzuna, gai-gizatasunezko bizitz onetan gure ARIMA ARRAZOIDUNA BAITU (1) zalako. Eta ortik aurrera eginbear doguzan ekintzak, egiz ala guzurrez egiten doguzan jakiteko, ARIMA berak emoten dauskula nekearen edo pozaren neurria.

Gaurko NORKERIAK daukan indarrezko eragin bidez, gure BAITA guztiz naztu ta lokaztuta daukagu, eta gure izatasunezko ekintza-bidean gaiztotu (2) gintekez Urrutia'tar Koldo'ren gezurbidezko idazlan olangoak egingo ez ba geunkez..

Iñork iraindu barik, Urrutia'k egiten dauan antzera.

Euskaldunak emon bear doguz oinkada ederrenak, EUSKERA Mundua'ren aurrean argi ta garbi agertu dadin. Azter-lan on baten bidez daukazan arazoak bakanduta, atzerritarrak bideratu daiezan.

Eta Mundu'ko jakintsuak ardura aundiko laguntza emongo dauskue, ikusten ba dabe zentzunezko alegiñak egiten doguzala, gure Euskerazko-Nortasuna larrialdetik atarateko.

Mundu onen asieratik, giza-semearen leiñu-ondore eta belaunik-belaun denbora guztiak bardiñak dira, gure ekintza eragille-lez, ekandua-aren zuzentasunezko zentzua lortzea dalako, "JAINKOA BERA'k, LEGEZ BEREZTU eban GAI-au buruz".

Mundu onetan, gizaren ondorengo bizitza, ez da orain 2.000 urtetik ona erabili doguna bakarrik, milla urte askotako bizitza daukalako, eta beti, JAINKOA'ren LEGEA'ri begira, egiten dogun "ZERGAITIK" itaunari, zentzunezko adierazpen on-bat emoteko.

(1) BAITU = concienciar. (2) GAIZTOTU = hacerse malvado.

Eta gaur naaskerian sartuta, argi-bidearen billa egarriz, Paleolitiko-Neolitiko'aren aldian, IZKUNTZ ta DEMOKRAZIZKO zentzuan lortu ziran ZENTZUNEZKO JAKINTZAK bir-eskuratu edo argitu naian gabiltz, eta jakitun ikertzaille artean, Wennemann'tar Theo, germaniar ele-jakintza-ren maixua da bat.

MUNDUAN GAUR AZTERKUNTZA'ren ZAIL-TASUNA.

Gaur daukagun jakituriagaz, azterkuntzazko lanak, ez leukiez ain zaillak izan bear.

Euskal-giza, azturazko jakintza-bidetik oituratu dabezan ezauntzak, andiak eta ondo landuak izanda, sorburuzko aztarnaren billa jakintza aundia daukagulako alderantziz aztertze.

JAUNGOIKOA'k bizitz au zergaitik dan, ostondu edo mugatu egiten dausku, gaia BERE'n LEGEA'kaz sustraituta, eta gu azter-bidez, gaiak bere almenean daukazan izakizun edo ditekeenak lortzeko egiten doguzan erdizko zatiketak, amaitubakoak biurtzen jakuzalako.

Ori baiña, JAINKOA'ren gogamena jakin gure naian ibiltzen garanean sortzen jaku, BERE borondatearen izkutuko erabagiak diralako gurentzat.

Baiña gure arteko ekintzan gaur dakigunagaz, gai-Mundu onetan ez dago ezer izkutatzeko leku edo erarik, izten doguzan aztar-bidez danak jakin leikezelako.

Orduan, azter-lanaren zail-tasunak, nondik agertzen dira ?.

Gaur argi ikusten dogu, sasi-jainkotasunean bizi gura daben bidetik agertzen jakuzala.

Sasi-jauntxo oneik, euren gogo-asmoak lortzeko, menperatzailletasunezko indarra erabili bear dabe, Mundu'ko janari-gela onek daukan mozkin guztia euren kontrolpean eukitea gura ba-dabe.

Eta gaurko Mundu onetan, darabilguzan jaurkintzazko arauak aldatu ezik, mendeko ekintza ortatik ez da iñork ta ezer iges egin leikenik, eta edesti guztiko buru-zalekerian or dabiz: "Izkuntzaren Nortasunezko-leiñu, auzo edo ta erri Norkeriaren zerbitsura aldatu naian".

Ez da lelokeri bat esan dotena, argi ikusten dalako JAINKOA'ren NORTASUNEZKO BORONDATEA, GIZA'ren NORKERIZKO BORONDATEA ALDATU GURE DABELAKO.

Edesti guztian, guda-bidez egiten ziran, eta gaur-be alan egiten dira mende oneik, garaipenduta agertzen diran sasi-jainko ezberdiñakin, gaur daukaguzan mendeko-laterri auen antzera, morroitasunean egokitu gaitez.

Norkeriaren garaipeneko ekintza orreik, ainbeste bider aldatu ziran, orduan lortu zan jendekuntza (3) be alderrai (4) biurtutea: Sumer, Ejipto, Kreta, India, Grezia, Erroma edo ta Mauritar jantzita ibili zala.

Eta zenbateraiño ez zan izango an ibili eben naaskutza, erdi-alderrai eta erri lez bizi ziran indoeuropeoak esaten jakienai, Europa, Arabia, Afrika ta Asia guztitik zabaldu zitezen.

Baiña, zein da gaur azterkuntza oztopatu egiten dauana ?.

Nizea´n, Mundu´ko gizarte guztia Kaizar eta Aita-Santu baten mendean egon zedilla asmatu zana, erregetzaren jaurpidetik lortu ezinda, XVIIIIn. Gizaldian Frantzia´ko iraultzaren bidetik, Europa ta Munduan dagozan berezko-erriak kontuan artu gabe, eta erregeak itzarmen bidetik antolatzeke euki ebazan erri ta lurraldeak, indarrez laterritu ebazala Nizea´ko asmo bardiñagaz.

Orregaitik, gaur arteko billaketaren azterkuntzan ibili diranak, nai-ta menperatzaillaren ezezko zigorra euki arren, ikaragarritzko lanak egin eta gero, merezimendu aundiena daukie, menperatzaill bakotzak euren eskuetan sasi-ekanduzko ixipu andia artuta eta ainbeste margo-esku emon ondoren, al izan diralako, margoaren esku-aldi bakotza kontu aundiagaz zati txikerretan erauzita (5) azpikoa ez dadin ondatu, urte askoren ondorioz, egia, arlo andiengan argitzeke.

Gaur, mendeko bizitz bardiñean gagoz, baiña egia dana ezin dabelako eragotzi (6), jaurkintz eta jakiturizko agintzan daukien eragipenagaz balioten dira, Lakarra´ren antzera, utsegiteke bidetik joan gaitezana.

Ez ote gara izango, daukaguzan jakiturizko zeaztasunekin, emon bear diran zentzuzko oinkadak emoteko ?.

Ipini daiguzan adibide batzuk.

EUSKERA.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu, Omo-Sapiens edo Kromañoi denboran, euren arteko ulermengan egokitzeke, sorkuntzazko asieratik euki eben izkuntza "LEN-EREDUKO EUSKERA" zala, Atlant-Itsasotik INDIA´raiño.

Iñorentzat ez leuke izan bear sinis-gogorkeri bat, Omo-Sapiens edo Euskal-Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik, egoan ba ?.

Euskerazko toki-izenak eta oiñarrizko itzak Mundu-zabalean, zeozer esaten dauskuna da, kontuan eukiten ba-dogu, asieratik gaur arte izen-geografiko batek iraun dagian, izen ori errotsu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan ainbeste milla urte irauteke, eta ori ez da lortzen, toki orreitan, izen orreik milla urte askotako jabetasuna ez bada-be eukiten.

(3) Jendekuntza = civilizaciòn. (4) Alderrai = nòmada. (5) Erauzi = hacer saltar. (6) Eragotzi = derribar, demoler.

Krutwig'ek, beste gauza askoren artean, alkar-ganatu egiten dauz Dordofia ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertuko ziran Troya (euren ariñagoko izena Ilion izan zan, eta Euskeraz ili = iri, Uria esan gura dau), Sumeria edo Babilonia'k euki ebanagaz.

Zubiaga eta Legarreta'tar Felix'ek bere liburuetan esaten dau: "Izkin-bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala".

"Izkin bateraiño eltzea, eredu-nagusiren ozenezko iturria argitzea dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan".

Eta Euskerea, gai dalako izkin-bakarreraiño eldu, orain ezin dala esan alderatzailleak esaten daben antzera: "Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala.

Mintzoeraren oguzpeneko jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz, beren JAIOKERA ARGITZEN DAUAN "IZKUNTZ-BAKARRA".

EUSKEREAA, EUSKALERRIA'ren ekanduzko eraikintza da, bere azalpenean erriaren sifismena erakusten daualako.

Orregaitik, Euskal ITZA, ARIMA'ren otsa biurtzen danean, JAINKOA'ren Euskal seme-alabak ekandu-sakonean berba egiten dabe, Sabino'k esaten eban-lez, bere mamian oiturazko ikas-bide ederrena daukalako JAINKOA'ri begira.

Gure EUSKALERRIA'ren BAITA, EGI zale izateak ez dauka mirari'rik, ainbesteko milla urte azturako bidean, EUSKEREAA'k berak bere-barnean dakarrelako EGIA'ren zentzunezko mezua.

Euskaldunak, edo ta Euskerea, sekula iñoren aurrean makurtu ez dan "BEREZKO-NORTASUNA DA".

Ez dogu alegin geitsuagorekin atarako, latiñ eta latin-kume menperatzaillearen eragipenetik ?.

Euskaltzaindiak, alango gizon-emakumeak bear leukez EUSKEREAA dagoan larri-aldeetik atarateko.

LATIÑA.

Etruskoak bideratuta, Erromatar asmakuntzaren sorraldia, K.a. 753'ko urtean egin eben, Sabino ta Iszeres'akaz alkartuta.

Etrusko'en jakintza aundian, leen asmakizuna latiña sortzeko, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibil-gaillua izan zedin egin ebela. Griego'aren laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, elerti-arauzko izkuntz-aundi bat biurtuta geratu zalako, gure gaurko egunerarte.

Baiña menperatzaille sortu eben egindako latiñ ori, eta atzera begitu egiten ba-dogu, ez du ikusiko besterik: Nastetasun bidez latin-kume asko

sortu ebela, berezko erriak lau-bost zatitan banatu ebazala, eta amaitu ezinezko odol-ziatutako (7) bide zabalak alde guztietatik.

Etrusko oiek, zelako izkuntza artu eben Griego'en iztegia'gaz erintzeko, Sabino'rena, Iszeres'ena, eurena ?.

Dana dala, baleike euskeraren eragipenetik sorturikoa zala, Italia'ko lurraldearen toki-izenak alan esaten dauskuelako, eta Etruskoa'ren lurraldea Euskerazko izena daukien Arno ta Tiber ibai biekin mugatuta egonda, argi geiago emoten deuzkuelako.

Latiña, gizartearen elburu izateko, mendetasunezko bizitza erintzeko bakarrik balio izan dau, gaur Ekanduzko-arloan ikusten dogun lez, bere eragipenetik egin dan guztia, utsituta itzi dabeleko.

ONDORIOA:

JAINKOA'ren mendean gagozelako, guk eginoko lege ta izkuntzak, Bereztasunaren NORTASUNEZKO-LEGE'tik atara ezker, norkerizkoak biurtzen dira, ez daukielako zer ikusirik, JAINKOA'k gure ARIMAKO BAITAN dingilizka ipini euskun "ZERGAIK" itaunagaz, bizitz onetan aurrera bakez egitea gura ba-dogu.

BERE Bereztasunezko LEGEA'ri emon bear dautsagulako adierazpen guztia.

Eta gaur badakigu zer gertatzen jakun BERE LEGE'en arduratik kanpo gabiltzanezkero giza-eskubideetan eta Ekanduzko arlo guztietan.

EUSKERA, NORTASUNEZKO IZKUNTZA DA, eta bereztasunezko LEGE'an egin dan IZKUNTZ-BAKARRENETARIKO BAT.

Gure "LEGE-ZARRA"k, Paleolitiko-Neolitiko bitartean lortu ziran DEMOKRAZIAREN EKANDUZKO ekintza bidetik, bereztasunezko egia zainduta sekula ez garalako iñor menperatzera joan eta gitxiago gure lurak eta etxeko atea iñori mugatu edo ta iztera joan.

EUSKERA DA, GAI-MUNDU ONERI LOTSIA AUNDIKO EKINTZAN ADIERAZPEN EDERRENA EMON DAUANA. ETA GURE EUSKAL GIZARTEAN, ARGI NABARITZEN DAN GAUZA DA.

Gure Euskal-arteko jakintsuen esanetan eta euren idaz-lan bidetik, sarritan entzun ta irakurri dot esan au: "EGIAK ASKATUKO ZAITUE".

NUNDIK, ARTU BEAR DOGUZ IRAKASPENAREN ARGIAK, "BEREZTASUNEZKO LEGE-BIDETIK IZAN EZIK ?".

Egin daiguzan gauzak, gure NORTASUNAREN-BAITAK egarriz eskatzen dauan bidetik, gure EUSKERA Mundu'ko Jakintsuentzat LARRIALDI-GORRIAN DAGOELAKO.

(7) Odol -ziatu = cuajarse, coagularse la sangre.

Atutxa'tarPaul.
2.009'an Uztaila'ren 25'ean



“AGUR !!SOLOZABAL ta SOLOZABAL’tar ON-“PAULIN”

Aita Santi Onaindia, Olazar’tar Martin eta Arrinda’tar Anes’ekin batera ezagutu neban “PAULIN”, EUSKERAZAINTZA’ren batzarretan orain dirala 30 urte inguru.

Aita Santi il zanean eta Olazar’tar Martin’egaz Euskeraz idazten asi, gure idaz-lanak ZER eta EUSKERAZAINTZA’ko aldizkarietan agertu zitezten, astero ia egun bitan agurtzen neban, eurak bizi ziran Mungia’ko parroki-etxean.

Baita-ta EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALEA’ren batzarretan, sekula ez ebalako utsik egin Olazar’tar Martin’egaz batera.

Gugaz alkartzen zanean beti umore onakin eta olerkari ondokoi-lez, gure alkar-izketak, beti izan ziran irri-mirrikazkoak (1) eta ainbat barre egiten genuen, bata-besteari esanekoak, sakonezko txantxetan edo ta zirto-gogoz (2) egiten genduzanean.

Batzarretan berba gitxikoa zan, baiña oarkari (3) aundia, eta beren zeaztunak beti joaten ziran artez arazoaren biotzera.

Bere apaiz botugintzan JAUNGOIKUA’gaz guztiz maite-minduta, ibili dan leku guztietan eta Mungia’ko errian batez be, erritarren artean beti euki eban Jesus’en mezua ta Ama-Birjiña’ren maitasuna. Eta bere erriko egurats-aldietan nekez ikusiko gendun, eskuetan zillarrezko errosario edo agurtza barik gabe.

Euskalerriaren seme izanez gain, beragaz sakon maite-minduta egon zalako, ele-eder idaz-lan bidez berari eskaiñi eutson bere barnean euki eban gogo ederrena.

Gitzi ez dana izan, Eguna, Karmel, Olerti eta Deia’n “EGIEDER eta PAULIN” izen-ordeakaz idatziz gain, ama-bost liburu-be idatzi ebazan, Euskalerra’ko oiñarriaren izaera ta jakintza, edertasunez Euskalerrian zabalduz.

Beren askeneko olerki-liburua “EDER-MIN” da, eta lenengo eresi’ak au esaten dabe:

“EDER-MIN”

Odolaren indarra
berez doa aurrera
gizarte bizian,
berekautan dario
suzko indar bizia
azurren artian.

Gizonaren bizia
gora goraka doa
goizalde argian,
eguzki almentsua
zeru aunditik dator
aurrerapidian.

(1) Irri-mirrikazko alkar-izketak = conversaciones irònikaz. (2) Zirto-gogoz = dicho con ironia fina. (3) Oarkari = observador.

Bizitza osasuna,
bipil, doa odolez
ezti gozoetan,
gizona sendo doa
laguntza biziagaz
mamin bizietan.

Argia ta odola
biak bat egin dira
osasun biziaz,
izarrez indartzen da
odol gorri gorria
bizitza maitiaz.

Biziaren ardatza
biotz sendoan dago
taupada ederrez,
biotza ta burua
lagun kutunak dira
biak maitasunez.

Bizitz osasuntsua
odol gorritik dator
itzak lagundurik,
odolaren ederra
esker-miñetan dago
biotzez ondurik.

Solozabal ta Solozabal'tar Paulin 1.912'an Loraila'ren 4'an Etxebarria'n jaio zan, eta Mungia'n il, 2.009'ko Irailla'ren 1'ean.

2.009'an Irailla'ren 3'an, Mungia'n Andra Mari eta San Pedro apostolua'ren Parrokia'n egin ziran bere Arima'ren aldeko elizkizunak, Blazkez'tar Rikardo Bizkai'ko gotzaiña zala mez-emaille, beste ogeita amar apaiz-lekaide lagun eukazala.

Gotzaiña, Gazteleraz asi zanean, ni eleizatik urten bear izan neban, enebalako on artzen Paulino eta Euskaldun guztiai alan illarkatzea (4), Etxenagusia ta Uribe'tar Karmelo'ri egin jakon antzera.

Eta gitxiago, mez-emaille danak ez ba-ebezan ezagutzen ildako Paulin ta Euskaldunak.

Ogeita amar apaiz-lekaide egon ziran an, Paulin ondo ezagutzen ebanak, eta lotsa elburu dala, ez zan izango naiko meza orren buru izanagaz, eta mez-emaille-sermolari ondo ezagutzen ebanak emon egiala ?.

Gizartean "LOTSA" da leenengo baldintza, eta erritarrak zelan joango dira mezara eta ekanduzko oiturak zaindu, bertan erritarrai guzurtu egiten ba-dautse.

Gu Bion alkar ezagutza:

Ni goian esan dodan lez, Aita Santi'gaz Tolosa'n egin zan batzarrera EUSKERAZAINTZA EUSKERA'ren ERRI AKADEMIA sortzeko zala joanda, ezagutu neban Solozabal'tar Paulin, Olazar eta Uribe'tar Martin, Arrinda'tar Anes, Augustin Zibikarai, Zubiri'tar Iñaki, Jon Erramun, Latxaga, Latiegi'tar Bizente, Aita Lino, Oñatibia'tar Manu, eta ainbat gizon-emakume argitsuagaz batera. Ortik aurrera beti batera ibilita, Euskerazaintza eta Euskerazale'aren aldeko ekintza-bidez.

(4) Illarkatzea = faltar al respeto.

Eta ITZA´ren gandik, zer ulertzen eban berak jakin daigun, bere
“EDER-MIN” olerki liburutik artuko dot beren gogamena:

“ITZA”

Gizonaren argia
urrezko itzez dator
giza batzarrean,
itz ederraren tajuz
giza batzar guztia
argituz lurrian.

Gora goraka doa
euskaldun itz jatorra
edertasunean,
giza jakituria
ardura bitxiz dabil
izkuntz bikaiñean.

Jakituri bikaiña
itz jariotan dator
bizitza ondurik,
argia ta ederra
jakituriak dakart
biak alkaturik.

Eusko izkuntz jatorra
zoramenetan dago
euskaldun zelaian,
jakituri ta itza
biak alkartzen dira
adimen argian.

Euskaldun itz bikaiña
zoramenetan dago
auzkoen miñean,
euzko jakituriak
urratuten dau itza
alkartasunean.

Bikainki ta bikainki
itzak edertzen dabe
euzkoen izketa,
izkuntz zoragarria
agertzen da lur ontan
itzak eraginda.

AGUR PAULIN, EGUN AUNDIRA ARTE !!

Atutxa´tar Paul

ZORNOTZA´n 2.009´an Iraila´ren 7´an



ADIÑEKO'akaz ITALIA'ren BEALDETIK

"TXANGOLARI"

I

Leen, Bizkai'ko FORU-ALDUNDIA ezkertu gura neuke, atzerriko erriak adiñekoai ezagutzeko emoten dauskun laguntza eta aukeragaitik, laguntza ori barik, ez zalako izango al-nai gendukena.

Bidai onetarako eskaera eginda euki arren, 267 gizon-emakume euki genduzan eurretik, eta gure arteko adiñetan ezin dalako jakin zer gertatu leiken, deituak izan giñan eta ez-gendun alango aukerarik galdu-nai.

2.009'an Dagonilla'ren 23'an.

Maite, gure bigarren alaba'k eroan ginduzan Loiu'ko egazkin-zelaira 12'ak lauren gitxiago'rako.

12'ak eta laurenak ziralak, pardelak marratu, eta ordu batetan, egazkiñera igoteko sarreran, 6'n atean kokatu gintzazan.

Egun leloak badagozela-ta, Bilbao-Bruselaz'eko txartelak emon barik, Bruselas-Erroma'ko txartelak emon ginduzan, eta atean egoan neskatillak ezeri begitu barik ebagi euskuzan.

Ezar-lekuak begituten gengozela konturatu giñan, eta gure taldeko gidariari esanda, Bruselas'en konponduko gendula esan euskun.

Bilbao-Bruselas bidai ori egiten gagozela, euren buruak agertu naian betiko jakin batzuk asi ziran, ogi-tartekorik ez euskula emon, eta jazarraldiko gaitzespen (1) bat egin bear gendula asi ziran esaten, baiña ezan joan ortik aurrera.

Arrazoia euki eben, adierazpeneko orrietan emon euskuezan baldintza artean, ogitartekoak sartzen ziralako egazkiñaren bidaian, eta gure gidariak egazkiñeko zerbitzariak eskatuta ez ba-eutsen emon, ogitarteko orreik erosi egin bear ebezan, itun-agiriak esaten ebanak bete zitezen.

4'retan eldu giñan Bruselas'era, eta txartelaren gora-berak konponduta, aide-portuko ezarkiak (2) ikusten asi gintzazan, eta laster konturatu-be, nekez obetu leikezala an egon ziran zerbitsuak.

Ke-belarra erre egiten debenezat txarto, ni artean sartuta, guztiz debekatuta dagoelako.

Ariñauko astean joan ziranakaz alkartu gintzazan, bertan Zornotza' ko Astobiza'tar Juan eta bere emazte Uriarte'tar Ana'gaz aurkituta, auen gandik bidaia'ren gauza onak eta ez ainbeztekoakaz argituta, egazkiñera igoteko sarreran itxaropentsu kokatu gintzazan.

(1) Jazaraldiko gaitzespena = protesta de reprobación. (2) Aide-portuko ezarkiak = instalaciones del aereo-puerto

6' retan urten gendun Erroma' rantza, eta 8' 1/2' etan eldu Fiumizino'ko egazkin-zelaira.

9' rak lauren gitxiagotan artu genduzan pardelak, eta ekarri gendun gidaria bertan agurtuta, ortik aurrera txangolaritzazko (3) bidai guztian gure zuzentzaille izango zan Mari Jose aurkeztu euskun.

9' rak eta 10' etan eldu giñan Batikano'ko mendizka gaiñean dagon lau izar daukazan Papillo ostal-etxera.

Mari Jose'k lo-gela'ko giltzak emonda, otz-garri'ko garbitasun laburbat egin gendun, eta jan-gelara beratu gintzazan.

Lau-ezarleku mai-baten ezarri giñan, eta bertan Deustu'n Sarriko aldean bizi diran Marta eta Margari'gaz alkartu gintzazan.

Biak alargunak, eta bai-ta adiñetan sartuta, baiña oso alaiak diran lagun-emakumeak azaldu gendun.

Afaltzeko, makarroiak eta oilazkoaren zerrak (3), karrakatxa edo ziazerba (4), ta lur-sagar erregosiak (5) emon euskuezan, eta ez ziran egongo txarto, egun guztietako bazkaltzerakoan eta afaltzeko makarroiak ez ba-euskuezan atara.

Papillo ostal-etxea, barria izanez gain, oso garbia eta zabaltasunezko lasaitasun aundia emoten dauan ostal-etxea da, eta egokitasunerako ezin obe. Baiña gabaz Erroma'ra ostera bat egiteko naiko urrun, nai-ta zerbitsuak euki.

2.009'an Dagonilla'ren 24'an:

Urrutizkiña'tik (6) 7' rak eta laurenetan deitu euskuen ogetik jagiteko, 8' retan gosaria artzeko.

Danetatik euki gendun, baktzak gure ebanā jan egian, eta jan ordu au izan zan bakarra, gaitzespenik (7) euki ez ebena.

8' terdietan bus-belbilera igon gendun, eta Mari Jose gidariak bertan, ortik aurrera Erroma agert-arazi egingo euskun Marko gidaria aurkeztu eban, eta bide batez, baktzari belarritutuak (8) emon, euren adierazpenak obeto entzun egiguzan.

Saint-Anjelo'ko gaztelu ingurutik joanda, 9' rak eta laurenetan San-Pedro'ren Eleiz-Nagusiaren zabalgunera (9) eldu giñan, gero Batikano'ko erakus-tokira (10) joateko, 10'k lauren gutxiagotan euki gendulako sarreraren ordua.

Batikano:

Gaur, Batikano laterritutako erri au, munduan dagozan guztietatik txikerrena da, nai jendetzan, nai beren 44 eun-area edo ektareakin.

Beren muga'k, daukazan ormak, eta San Pedro'ren enparantzan alde-

(3) Zerrak = tajadas. (4) Karrakatxa edo ziazerba = espinacas. (5) Lur-sagar erregosiak = patatas fritas. (6) Urrutizkiña = telefono. (7) Gaitzespenik = protesta. (8) Belarritutuak = aurikulares. (9) Zabalgunera = plaza. (10) Erakus-tokia = museo.

bietako zutoin-sail egoak (11) elkartu egiten diran trabertino´gaz margoztuta dagoan zirrindurarekin (12) inguratzen dabe.

Eta mugatutako laterri orrez-gaiñ, beren eskubideak, Erroma eta Erroma´tik kanpo dagozan beste eleiz batzuetara zabaltzen ei-da, beste mugapeko eskubideak daukazelako.

Laterritasunezko eskubide oneik, 1.929´an Otsailla´ren 11´n Mussolini´k agintzen eban Italia´ko laterritasuna, eta XI´n. Pio Aita-Santuak Letran´eko itun´etik datozenak dira.

Erabagi au, Mundua´ren Ekanduzko arloan Aita Santua ta Erroma´ko katoliko eleiza, erri guztien eta euren agintari gaiñetik egon daiten egin zan.

Daukan ikurriña, goitik bera´ko margo-bitan margoztuta dago, masta´ri lotuta dagoena margo orian, eta beste alde zuzen margoztuta Aita-Santua´ren mitra giltz-bigaz antzeztuta.

Beren dirua-be ataraten dau: "Euro Batikano". Eta eskutitzaren sigilu edo sillu´arenak (13) be-bai.

1.861´ean "L'Osservatore Romano" egunkaria sortu eban. Eta 1.931´tik aurrera irrat-etxe bat, Mundu guztira ele-geienetan (14) zabaltzen dauazan oiualdi edo aldarriak (15).

Batikano´ko biztanleak 800 dira, onetatik 450 Batikano´ko erritartasun daukienak, eta besteak aldiko bizi-leku edo bertan beti bizi-diran erritargo barik lan egiten dabenak.

1.506´ko urtetik onantza, II Julio Aita-Santuak Suiza´tar saripeko guda-mutillarekin tratua egin da, gizon-armadunak daukiez, gaur Laterri ta Aita-Santua´ren babeserako zaintza egiten dabenak. Eta daukiezan gudari-jantziak, Migel Anjel´ek marraztu ebanagaz jazten dira.

Batika´ko erakus-tokira sartzeko egon giñanean, Marko gure gidariak, erakus-tokia 530 urte euki ebazala, eta une aretan Batikano´ko bazkun (16) guztian 40.000 ikusle egongo zirala esan eban.

Batikano´ko goil-erdi edo esfera-erdi goi-aldetik azpira 130 m. daukazela esan euskun.

Belbedere´ko jauregiaren baila-gibel´etik (17) sartu giñan, Mundu guztiak ezkerdun daukan Apolo´ren irudigintza ikusteko eta benetan diñot, ezin dabela egin giza-semerik edertasun aundiagoz.

Aurrera egin gendun Sixtina otoiz-tokira guztiz arrituta, 1.499´an Migel Anjel´ek 24 urte euki ebazala, Ama Birjiña Jesu Kristo altzoan daukala egin eban lots-maitasunezko (18) irudigintza ikustera, eta Marko´ren esanagaitik, orain 400 urtetik ona leku ber-beran dagoena da.

Eta begira goazela: Erkules, leoi baten azalaren gaiñean tailu-irudia; Orain 2.000 urte Ejipto´tik ostuta dagoan porfiloa (*), batai-arri antza dau-

(11) Zuroin-sail egoak = las columnatas de los costados. (12) Zirrindurarekin = franja pintada con traventino. (13) Sigili edo sillu = sellos de correos. (14) Ele-geienetan = casi todos los idiomas. (15) Oiu-aldi edo Aldarriak = programas. (16) Batikano´ko bazkun´ean = todo el complejo Batikano. (17) Baila-gibel´etik = patio. (18) Migel Anjel´en lots-maitasunezko irudigintza = escultura de la piedad, realizada por Migel Anjel. (*) Porfilo = ez dakit zer esan gura dauana, baiña ur-aska edo batai-arriaren antza dauka.

kanak eta ardatz'ez bost-sei metroko biribil zabaleran arbizi'ko (19) zati baten zizelkatuta eginda dagoena; Griego gurutzezko gelan, Konstantino'-ren illobia; Argi-ontzi'ren gela; Artemisa jainkosa eta abar ikusi genduzan.

Gero, 500 urte inguru daukezan zamau-gelatik (20) aldatuta, antziñeko mapa'k ikustera joan giñan, eta oneik ikusita, lorio-bide (21) gela'ren sapai'an (22) azkarri (23) antza emoten dauan irudimenean, ezin obe margoztuta dagozan gelatara.

Gero, aur-errugabearen ilketa ikustera joan giñan, eta itsas-eskutitzaren gela ta Batikano'ko lorategi ederra ikusi ondoren, Sixtina otoiz-tokira bideratu giñan.

Aita Santuak aukeratu egiten diran Sixtina'ko otoiz tokira joan giñan, Migel Anjel'ek gelaren goi-aldi ta alboetan egin ebazan margoak ikustera.

Arrituta ibili giñan ango gela guztietatik, eta geiago Kaprese'n jaio ta Erroma'n il zan Buonarroti'tar Migel Anjel'ek bere biziko 1.475-1.564 urte bitartean, etxegille (24), zizelkaritzan irudigille, margolari, eta olerkari Italiar onek egin eban paregabeko lanakaz.

Antzedun edo ta eder-zale oso onak ziranak, asko dira Batikano'tik igaro ziranak: Bernini, Bellini, Pollaiolo, Giotto, Lippo d'Andrea, Perujino, Rafael, Barocci, Gido Reni, Karabaggio, Tiziano, Belazkez, Gerzino, Laokoonte, eta abar. Baiña Migel Anjel da, danen aurretik doana.

Aita Santuak illobiratuta dagozan lekura be joan gintzazan, eta argazkiak atara nebazan: XIII Gregorio, 1.500'an egutegia aldatu ebana, eta XXIII Juan'ena bai beintzat.

XII Pio'rengana eldu giñanean, Marko'k: Zuek Euskaldunok asko gogoratzen dozue Aita Santu au, ez alda alan ? esan euskun, eta nire erantzuna: Fazizta izateagaitik ez bada, ez dakit zeri buruz. Eta 1.936'ko gudan Euskal-katoliko jaurkintzagaz sortu ziran gertakizunak esan neutsezan.

Aurrera eginda: Orain 700 urte Bellini'k egin eban San Pedro'ren arri-irudia; Migel Anjel'ek eginda, 137 metroko goitasunean elizbesoa eta San Pedro illobiruta dagoan ikusgarritzko Aita Santua'ren aldare ederra; Bernini'ri ospe aundia emon eutson aldareak eta berak 1.678'an bere bizitzan askenez egin eban VII Alejandro Aita Santua'ren arri-irudia.

Gero, mosaiku eder-gelatik eta Sixtina otoiz-tokiko gelatik aldatuta, San Pedro'ren enparantzan, eta goi-aldeko obelisku edo arri-xut (25) 137m. daukana ikusita, ordu batetan Adiskidego-Kalean (26) berebil-bus'era igon gendun bazkaltzera joateko.

“Bia Julio Zesar” etorbidetik joanda “Napulé” jatetxera joan giñan bazkaltzera, eta jaten oso txarto eta gitxi emon euskuelako, eztaibada gogorak sortu ziran.

Gela ezberdiñetan egoan jatetxea bananduta eta gure-gela maian sei

(19) Arbizi = marmol. (20) Zama-gelatik = galeria de los tapices. (21) Lorio-bide = pasillo. (22) Sapai = techo de las salas. (23) Azkarri antza emoten dauan irudimenean = pinturas dando la sensación de un relieve perfecto. (24) Etxegille = arquitecto. (25) Arri-xut = obelisko. (26) Adiskidego-Kalean = calle de la conciliación.

izan giñan bazkaltzen egon giñenak: Majares'tar Pedro, bere emazte Bartolome'tar Milagros, Barroeta'tar Lurdes nire emaztea, Mari Karmen Angulo, Mertxe Gallo eta ni.

Pedro izan zan piz egitera joanda, beste gelatan ze barri gertatzen zan ekarri euskuna, baiña ez giñan oldoztu ainbesterako izango zanik.

Berebil-bus'era igon giñanean agertu ziran eztaibada orreik, Mari Jose oso asarratuta bere arrenkuran (27) Foru-Aldundia'ri deituko eutsela-ta.

Ez zan joan aundiagoetara, batzuk aurka urten da atsekabe-ori geratu zalako, baiña bidai guztirako geratu zan kexka (28) antzeko bat, areik eta askeneko egunean idazteko emon euskuezan galdeketako-orriak artu arte.

Bazkal-ostean Erroma ikustera joanda, Letran'eko Eleiz-Nausia ikusi gendun, I Konstantino'k (313-318 ?) 324'an asi ebena eraikiten eta amar-gizaldietan Aita-Santua'ren gotzai-barrutia izan zana.

Bertan egin ziran bere izena eroaten daben bost Eleiz-Batzar Nagusiak, eta Erroma'n dagozan Aitalen bost-elizetatik (29) bat bera izan da, berari esaten dautse Mundu'ko eleizaren buru ta ama dala. Gaur Lateranenses'en erakus-tokia dana.

Eleiza'ren erdiko eleiz-barne erdian dagoan ustai-zorrotz'eko aldare-etxola'n (30), dagozan soin-gaiñeko erliki-tegietan (31) San Pedro ta San Pablo'ren buruak dagoz, eta be-aldean, Aita-Santuak bakarrik emon leiken Meza-Santuaren aldarea.

Santa Elena'ren (32) Eleiza. Bere jai-eguna Dagonilla'ren 18'an ospatzen da.

Onek Jerusalem'en, Benus'en jauretzea botatea agindu eban, ostean aitzurketak egiteko, berak gogoan izan ebalako bertan Jesus'en gurutzea lurperatuta egoala-ta.

Abentino'ko mendixka bizkarrean, Maximo'ren zaldi-gurdiaren laster-tokia, zine-antze'rako ainbeste pelikula egin dan tokia, Ben-Ur eta abar.

Tarkinio Prisko'k (33) 400.000 biztanle'arentzako egin ebana, bere luzeran 600m. eta zabaleran 200 daukazenak, eta goikaldeko ezar-lekuak zurezkoak egin bear izan ebenak, arrizkoak jausita 1.112 gizon-emakume il ziralako Antonio Pio'ren denboran, eta 13.000 Diokleziano'ren aldian.

Aipatu bear dodana, Tiber-ibaia'ren gaiñetik eta bere ingurutik sarritan aldatu gintzalako Sant Angelo'ko gaztelu ederra dago, K.o. 130'ean Adriano'k kaizer'entzat il-obi lez egin ebena.

Biribilla izanda 64m. daukaz ardatz eta 21m. goi-aldean, bere oiñarria arbizizko laukian eginda. Eta bere goi-aldean tupiki edo ta borontzezko urre-gorritz margoan Adriano Kaizerra lau-zaldiko gurdi aundian igondako irudi ederra.

X gizalditik aurrera Batikano'ko jauregi-etxeak babesteko, guda-gaz-

(27) Arrenkuran = queja. (28) Kexka antzeko bat = inquietud. (29) Aitalen bost elizetatik = una de las cinco iglesias patriarcales. (30) Eleiza'ren erdiko Eleiz-barne erdian dagoan Ustai-zorrotz aldare-Etxolan = el tabernáculo ojival que está en el centro de la nave central. (31) Soin-gaiñeko erliki-tegietan = bustos relicarios. (32) Santa Elena, I Konstatino'ren ama eta 247 ?-327 urte bitartean bizi zana. (33) Tarkinio Prisko = K.a. 616-578.

telu biurtu eben, eta or ostondu zan 1.523-34'an Giulio de Medizi VII Klemente Aita Santua, V Karlos Gaztela'ko erregearen aurka politika egiten egoala, onek Erroma saskildu ebenean eta bere atzetik atxilotzeko ibili zanean. Borroka orreitan, Aita Santua'ren babeserako egon ziran Suiza'tar guda-mutil geienak il ziran.

Gero, Salbi'tar Nikolo'k (34) Bernini'ren marrazki bategaz egin eben Fontana de Trebi.

Bere izena, gurutzatu egiten ziran iru kaletik dator, eta beren esan-gura itsas-zabala'ren jainkoa'ri dagokiona iruditzen dau, gurdia itsaso'ko zaldigaitik tirekatuta, itsas-jaun ori dirdaitsu (35) doiela.

Erroma'ko iturri onetara joaten diran biztanleak iturria ikusita joaten diranean, lepoa edo bizkarra emonda txanpon bat botaten dabe ura'ren babesa lortzeko, eta beren ospe aundia, berton iru pelikula egin ziran bidetik datorzkio: "Iturrian iru txanpon"(36); "Erroman opor-egunak" (37) eta "Bizi Gozagarria" (38).

Eta ortik, Trajano'ren enparantzan, beren ikusgarria dan arri-meta (39); Garaipenaren etorbidea (40); lauren-urteko joko epean ainbeste milloi giza-seme il ziran Koliseo'a; Argentina'ko enparantza; San Felipe Neri (41), eta Tiber-ibai gain Saint-Angelo'ko zubitik arratsaldeko 41/2'etan Papillo ostal-etxera eldu giñan.

71/2'etan afaldu gendun eta berebil-bus'era igonda, gabeko txangolartzan asi gintzazan, eta kirinal-menditik, gabaz Trebi'ko iturria ikusita, ikusgarria dan Nabona'ko enparantzara jon gintzazan.

Joko laister-toki antza dauka Domizini'ko K.o I gizaldean egineko Enparantza onek, eta X Inozenzio Aita Santua 1.644'an aukeratuta, bere jauregiatxea egiten egon zanean (42) edertu gura izan eben enparantza ori, eta Bernini'k Mundua'ren lau lurraldeko ibai-nagusi'ren iturria asmatu ta eskema egin ondore, ikusgarri giz-arri-irudiakaz edertu eban, gaur Erroma'ko enparantza ederrena dana.

Enparantza orretan, lau iturri dagoz bata-besteia baiño zein ederragoak, eta antze eder lanezko enparantza esan leike dala, egunero margolari-trebe eta asko daukazalako bere zabaltasunean lan ederrak egiten.

An ibili nintzan arrituta Lourdes'egaz begirakoi, eta erdi-gunetik gurdi-bidea aldatuta beste aldean izozki ederrak saltzen ebazala ikusita, ortik aurrera gozokituta ikusi genduzan ango edertasunak.

Berebil-bus'era igonda, 11'k eta laurenetan Papillo ostal-etxera eldu giñan, eta urrengoko egunerarte danak agurtuaz, zoriontsu joan gintzazan gure gelara.

Lourdes'egaz egin neban azkeneko adierazpena: "Erroma'ren edertasuna aundia da, eta beren berregintzarako dirua bearko dabe, baiña lapurretan aundiak be ba-dira, ez?"

(34) Salbi'tar Nikolo = 1.697-1.751. (35) Dirdaitsu doiela = con todo su esplendor. (36) Iturrian iru txanpon = Tres monedas en la fuente. (37) Erroma'n opor-egunak = Vacaciones en Roma. (38) Bizi gozagarria = la dolce vita. (39) Arri-meta = columna. (40) Garaipena'ren etorbidea = avenida de los triunfos. (41) Neri'tar Felipe Santua = 1.515-1.595 urtetan bizi zan, eta bere jaia Loraila'ren 26'an ospatzen da. (42) X Inozenzio Aita Santua'ren jauretxea = Gaur Brasil'en ordaritzazko-etxea dana (embajada).

Idaz-lan au, iru edo lau zatitan beteko dot, "ZER" aldizkarian illero agertuko diranak.

2.009'an Dagonilla'ren 25'ean.

Goizeko 6'1/2etan jagi giñan Lourdes ata ni, 8'retan, Japoniar eta Txino'tarren taldeak amaituta, gure gosaria jateko.

8'1/2etan urten gendun, Antonio gidari zala berebil-bus barrian, eta Erroma'ko Urian Marko gidaria artuta, Kaizergotzazko-Erroma (43) Zezar'en etorbidetik joanda, ikertzen asi gintzazan.

Katietutako San Pedro'ren (44) eleiza'ra joan giñan lenengo, eta daukan izena, San Pedro Jerusalem eta Erroman atxilotuta egon zanean, lotuta egoan katetik datorzkio.

I Leon Aita Santu'ak, katearen muturrak alkartu ebazanean, mirariz, bat egin ziran.

Kate orreik "Autortza"ko aldare barnean ikusten dira, eta eleiza'ko sapaian (45) katearen miraria margoztuta.

Katietutako San Pedro eleiza au, II Julio Aita Santua, Kardinal izan zaneko eleiza izan zan, eta oso ospetsua da, Migel Anjele'k 1.513-1.516 urte bitartean II Julio Aita Santua'ren jaun-illarri (46) egin ebenagaitik.

Jaun-illarri orretan dago Moises'en arrigarrizko irudia, eta barre batzuk-be egin genduzan, beren buruko goi-aldean adar-bi ikusten jakozelako.

Marko gidariak esan euskun, ez dirala adarrak argitasunezko argizpiak baiño. Dana dala, nor daki Migel Anjel'ek zergaitik ipini eutsezan.

Gero, Flabio'ren antzoki edo anfiteatrura joan giñan. Sekulako antzoki edo jolas-toki ederra dana, eta euria egiten ebanean oial aundi bategaz estalduten ebena.

Flabio'k antzoki edo jolas-toki ori zabaldu ebanean, erria'ri, eun-eguneko jai-aldiak emon etutsezan, eta odolezko-joku orreitan 2.000 gizon il ziran.

Erroma'tarren enparantza edo zelaia. (47)

Erroma'tarren mendebala.

250 urteko aitzurketak izan bear izan ziran, enparantza onek mugatu egiten dauan guztia, argitara atarateko.

San Lorentzo ta jauretsetan dagoz, bertatik atara ziran arbiziko (48) losak

(43) Kaizergotzazko-Erroma = Roma-Imperial. (44) Katietuta'ko San Pedro Eleiza = "San Pietro in Vincoli". (45) Sapaia = boveda. (46) Jaun-illarri = mausoleo. (47) Erroma'tarren enparantza edo zelaia = Foro Romano. (48) Arbiziko = marmol.

Erroma guztian sortzen ziran garrantzizko gauza guztiak, enparantza edo zelai onetan eukiten eban oiartzuna, senatoreak, enparantza onek daukan auzi-jauregian batzartzen ziralako.

Zelai onen sakratuzko etor-bidetik aldatzen ziran: Erlijiozko eliz-birak; Garaipeneko guda lagun-taldeak; Ospe aundiko gizon'en eriotzazko lagun-taldeak, ilten zanari gorespeneko berbak esanda. Ospatsuenetariko bat, Marko Antonio'k Zesar'en gaitik esan ebana, ta abar.

Eta koliseu au egin ostean, euren sasi-jainko omenez, bertan egiten ziran: Eskeintza aundiak, Jan-edaketa bitxiak (49), Terreapen edo ilketara galduak izaten ziranen odolezko-eriotzak (50), Ezpatalarien borrokak (51), eta batez-be, K.a. 65' garren urtean Zesar Edil'ek antolatu ebana, eriotzeraiño joko orreitan 320 ezpatalarien-bikoteak neurtu ziralako.

Eta ez zan ospe gitxiagokoa K.a. 45' garren urtean Zesar'tar Julio'k bere lau garaipenak ospatzeko antolatu eben jan-edaketa, ainbat egunetan 22.000 mai-lagun egon ziralako jan-edaten asetu (52) arte.

Marko gidariak esaten ebenagaitik, ni beintzat arrituta ibili nintzan, bere denboran-lez ikusten nebalako erakusten euskun guztia.

Bertan ikusi gendun sekulako Koliseoa, bere lur-azpian arrigarritzko gela-banaketarekin, eta abereak gaiñera goratzeko daukazan era bereziakaz batera.

Bere enparantzan: Neron'en irudi-tzar, Roma ta Benus'en eliza edo jauretxea, Konstantino'ren garai-makoa (53), Zesar'en enparantza ta jauretxea, Augusto'ren enparantzako "Ara Pacis", Erroma'ko beste kale baten erakusten dabena eta ikusi genduna, Trajano'ren enparantzan Ulpia'ren basilika edo eleiz-nagusia, Trajano'ren merkataritzazko gelak eta beren xixelgintzatutako zutarri edo arri-meta; Romulo'ren eliza edo jauretxea, Romulo'k eraiki eban jauregia; Erroma'ko auzi-jauregia (54), Saturno'ren jauretxea (55), Tito'ren garai-makoa, Jerusalem'eko eleiza'ren atal-ondarrak ekarrita, mako oren aurre-aldean "Menorá" (56) judu argilari ederra xixelkatuta daukana, Beretersa edo Eleiz-andere'en etxe edo jauretxea (57); Domus Aurea'ko Zortzi-zokodun gela, K.a.27-25 urte bitartean, Marko Bipsanio Agripa'k (58) egiteko agindu eban ikusgarritzko illarrieta edo illetxea, eta K.o. 80'ko urtean suak deuseztuta, K.o. 118-125 urte bitartean Adriano'k osterera eraiki ebana.

1.926'an uste barik agertu zan Largo Argentina'ren inguru sakratua, eta abar.

Kapitolio'a, Kapitolino'ren mendizka gaiñean eginda dagoena-be ikusi gendun, eta bere zer-ikusia: Bertan emoten jakielako ongi-etorria gerralditik garaipenduta etorten ziran gudal-nagusiai, Jupiter jainkoari eskeintza egin eta gero.

(49) Jan-edaketa bitxi = pantagruelicos banquetes. (50) Terreapen edo ilketaa-galduaren odolezko-eriotzak = ejecuciones de los condenados a la pena capital. (51) Ezpatalarien borrokak = luchas de gladiadores. (52) Asetu arte = hasta saciarse. (53) Garai-makoa = arco-triunfal. (54) Auzi-jauregia = curia Romana. (55) Saturno'ren jauretxea = templo de Saturno, o, la "saturnalia" donde todos se declaraban iguales. (56) Judu argilari orreri "Menorá" esaten jako. (57) Beretersa edo eleiz-andere'en jauretxea = templo de las vestales, o, sacerdotisas virgenes consagradas a la diosa Vesta. (58) Marko Bipsanio Agripa = K.a. 63-12 urte bitartean bizi zana.

Onek-be badauka bere gertaldi bitxia, Galo'tarrak, Erroma indarrez artu gura ebanean, Kapitolio'an egon ziran antzar-sakratuak euren karras-kadakaz erromatar gudariak iratzarri ebezalako.

Gero, 500 urte daukan Edurra'ren Amabirjiña'ko eleizara joan giñan, eta ikusi ostean, Borghese eguras-etxea (59) ikustera joan giñan.

Borghese sendi au, Siena'tik agertzen da, eta ospatsua da eder-lanaren laguntzaillea izateagaitik.

Borghese'tar (60) Kamilo izan zan bat, gero Aita Santua egingo ebena V Paulo izenarekin, bere agintaritzan San Pedro'ren Eleiz-Nausia amaitu ebena. Eta Szipione (61) bere loba, Kardinala egingo ebena.

1.608-1.617 urte bitartean Szipione Kardinala izan zan lekoretxe edo eguras-etxe ori eraikitzea agindu ebana, eta benetan ederra da.

Munduan gaur egun oraindiño, erakus-toki ezagutzen diranen artean audiena dana, norbaiten bilkuntzaren eder-laneko margo ta iruditan.

Bertan, Borghese'ren kapera edo otoiz-tokia be ikusi gendun.

Arratsaldeko ordu-biak lauren gitxiagoak ziranean "La BAIA" ristorante-pizzeria'ra joan gintzazan bazkaltzera, eta irurak eta laurenak ziranean, osterabe berebil bus'era igon gendun.

Marko eta Mari Jose'gaz, Letran'eko San Juan eleiza'ra joan giñan, eta goian esan doten lez, gogor atu bear dogu 1.929'an Otsaila'ren 11'n Batikano emen laterritu zala XI'n. Pio Aita Santua eta Mussolini'ren itun bitartez.

Europa'k, jaurkintzarako daukazan zoritxarreko Laterritasun auek dira gaur, 325'ean Nizea'ko Eleiz-Batzar-Nagusian artu ziran mendetasunaren alderdikerizko erabagi-txarrak aurrera eroaten dabenak, eta urduritsu bizi gara edesti guztian ortik aurrera, zorro edo zaku baten ezin diralako sartu, ain aurkako diran mendeko eta demokrazizko eritziak.

Iruditzen dozue, zaku orreitan txakurra ta katua barruan sartu ezkeror zer gertatu leiken?. Euskalerrian gaur, ori da sortzen jakuna.

Letran'eko eleiza au da Erroma'ko Gotzai-Eleiza edo Eleiz-Nagusia eta Aita Santua bere gotzaia.

Konstantino'k K.o. 313-318 urte bitartean agindu eban eraikitea, eta Xn. Inozentio Aita Santua'k aginduta, Borromini'tar Frantzezko'k antzeztu ebazan eleiza'k daukazan bost-barne (62) aundiak 1.646-1.657 urte bitartean.

1.732-1.735 urte bitartean, Galilei'tar Alessandro'k egin eutson eleiza'ren aurre-aldea, Kristo'ren irudi ederra goi-aldian daukala, eta 1.660'an erdiko atean ezarri eutsozan, Erroma'ko enparantzan egoan auzi-jauregia'ren tupiki edo borontzezko ate-orri ederrak.

1.367'koa da Eleiza'ren erdiko eleiz-bane erdian daukan ustai-zorrotz' ezko aldare-etxola, eta bertan dagozan soin-gaiñeko erliki-tegietan dagoz,

(59) Borghese eguras-etxe = villa-Borghese. (60) Borghese'tar kamilo, V Paulo = 1.552-1.621'eko urte bitartean bizi zana, eta Aita Santu-lez 1.605-1.621. (61) Borghese'tar Szipione, 1.633'an il zan. (62) Bost-barneak = las cinco naves que tiene la iglesia.

lenengo idaz-lanean esan neban lez, San Pedro ta San Pablo´ren buruak, eta beko-aldean, Aita Santua´k bakarrik emon leiken Meza Santua´ren aldarea.

Paregabeko edertasuna dauka Letran´eko eleiz onek.

Bia Apia´n egon giñanean, Marko´k, K.a. 312´an Apio Klaudio´k agindu ebala Erroma´tik Kapua´raiño galtzara edo arribide au egitea, eta 300 urte geroago Brindisi´raiño egin zala, luzeran 130 km artuta.

Gero, Trajano´k aginduta, ain-bat adar egin eutsozala, guztiz 580 km´ko kopurura eldu ziranak, arriz-landuta egin ziran bideak.

Gero, katakunbetara edo illak lurpean illobiratzeko egin ziran barne-bideak, bitarteko kapera edo otoiz-tokiak, eta Kristau´ak aldi-baten ostonduteko lekua izan zana, ikustera joan giñan.

Leku askotan egin ziran lurpean illobiratzeko barne-bide onek, adibidez: Paris, Napoles, Asia-Txikerra´ren ainbat Uritan, eta Afrika´ren Iparaldean.

Erroma´koak dira baiña, aundienak eta geien ezagutzen diranak.

Lurpeko zazpi metrotik asi-ta amazortzi´raiño eginda dagoz 300 km.´ko barne-bide oiek, 3´50m. goi-alde eta 1´35m. zabaleran daukazela, eta nai-ta oraindiño ikerketan ibili, euren zabalkundea 250 eun-area edo ektarea´tan mugatu egiten dira, 400 urte-kopuruan, milloi´erdi baiño gorputz geiago illobiratuta.

Gu, San Kalixto´ren lurpeko lanak ikusi genduzan, eta bertoko gidariak esanda jakin gendun, bide guzti orreik illadan ipini ezkerro, 20 km´ko luzera artuko ebela, eta oraindiño ikerketako lanetan sakontzen dabizela, gero ta il-bide geiago aurkitzen dabezalako.

Arratsaldeko 5´ak eta 20´ak zirala, berebil-bus´era igon gendun San Pablo´ren arresi-ateko (63) eleiza ikustera.

Erroma´n dagozan basilika edo eleiz-nausi´en artean, San Pedro´rena izan ezik, bera da andiena, eta San Pablo illobiratuta egon zan gaiñean eraiki eben, gero I Konstantino´k, eta Onorio´k K.o. IVn. gizaldi amaieran andiagotu egin ebena eleiza ori.

Ia-osorik geratu zan ortik aurrera, areik eta 1.823´an suak geienean erre arte, eta katolikuak emon eben diruagaz ta Mundu osoko gobernariak emon eben gain-gaiñeko-arbizi´akaz (64), 1.854´an ostera sagaratu eben.

Kalostreak (65) daukazan zutabe edo arri-meta´tik batzuk binakatuta txirikordako (66) biur-eran eginda dagoz, eta beste batzuk, erandoketako sar-lanean mosaikuakin apainduta (67) dagoz.

Bertan dagoz kateak-be, San Pablo´ri ito-arazi eutsozanakaz.

Ez dago Mundua´n edertasun aundiagorik. Baiña jakin gura neuke, ze gogamenekin zaintzen eta zaintzekoa dan 2.800 urteko aztarnaren edesti guzti ori.

(63) Arresi-ateko = extramuros. Arresi = muralla de piedra. (64) Gain-gaiñeko-arbizi´akaz = marmoles muy finos. (65) Kalostreak = klaustro. (66) txirikordako biur-eran = trenzadas en espiral. (67) Erandoketako sar-lanean mosaikoak daukiez = tienen mosaikos en labor de incrustación. Erandoki = obra de incrustación o taracea. Sar-lanean mosaikoak daukiez = estan adornados con mosaicos, en labor de ataracea o de incrustación.

Erromatarrak euren norkerizko aunditasunean, erritarrak gosez beteta kontuan artu gabe, eta eten-bako odoljarioro borroketara beartuta ibili ebazanak, arduradun edo kudeatzaille txar-lez (68), bereztasunezko LEGEA´ren aurka egin ziran astokeriak arto erakusteko, edo Mundu onen giza, egin bear ez dabezan gauzak erakusteko.

Erroma´k, zati bitan banandutako edestia erakusten dausku:

1) Erromatarrak, Mundu´ko kaizertza lortu naian, basati-lez egi ebena.

Eta 2) Kristautasunagaz katoliko alderdikidetuta ekanduzko dogmaren arauz, jakituria erinduta, aurrerantzean astakeri bardiñak eginda, eta gure gaurko denboran ezereen lotsa barik, oraindiño aurrera eroaten doguna.

Ekiñ-aldi bien arrokeria ikusten da nun-nai, lenengoena, "Arbizian egin ebezan jauregi ta oroitzarrietan". Eta bigarrena, "Aita Santu bakoitzak egiñ eban eleiz ta iturrietan, bakotzaren goi-buru edertasun guztiaz eroaten dabena".

Baiña gaurko-lez eritzi orreitan aurrera egiten ba-dogu, Berezkotasunaren LEGEA´k ondorioz, ia berton daukaguzan mugak amiltegi-lez erakusten dauskuz, eta ez gara izango zoriontsuak, eritzi ortatik ez ba-gara aldentzen.

Europa´n daukaguzan jaurkintzazko Laterri auek dira eritzi orren eredu, eta burura argitasun apur-bat eltzen ba-jaku, len bait-len urten bear geunke okerreko bide orretataik.

Mundu´ko gizakiak bere ugaritasunean, Mundu´ko zabaltasuna txikertu egin daualako, nai-ta nai-ez batzangotasuneara jo bear dau, baiña ez amiltegiara eroaten dauskun Erroma´tar Kaizertzaren eritxizko mendekota-sunean, Bereztasunezko LEGEA´k agintzen dauskun NORTASUNEZKO eratan baizik.

NORTASUNA ardurazkoa izanda, danok arduradun izan gaitzan.

NORKERIZKO jokuan ARDURA guztiak ezereztu egiten diralako.

Europa´n jaurkintzarako, beartuta daukaguzan LATERRI oneik izan dira adibide argienak: "NORTASUNEZKO ezberdintasun guztiaren ardurak euren eskuetan batuta, ez diralako gai ! okerreko bidetik ezik, edozein arrazoizko gauza, zuzeneko zentzutik bideratzeko.

Euskaldunak, argi ibili bear gara gauza oneitan, zuzen zuzen, EUSKAL-BIOTZEAN zauritu egiten dauskulako.

2.009´an Dagonilla´ren 26´an.

Asis´era joateko bide luzea zala-ta, goizeko 6´1/4renetan jagi giñan 7´retan gosaria artzeko.

7´1/2etan Mari Jose´k, berebil-bus´ean igonda egon giñanean esan euskun, Erroma´n debekatuta egoala lantegiak ipintea, berebilla´k botaten

(68) Arduradun edo kudeatzaille txar-lez = malos gestores.

dabean ko2'ekin (69) naikoa zalako. Eta orain Erroma'ren goi-aldeko Unbria, Italia'ren Apenino'ko mendi-kateartean ori-urdirin eskualde ederrenera joango giñela.

Benetan ikuspegi ederra euki genduna, Apenino mendi-kateak beti biztan euki genduzala, eta bidean goazela: Artea, azkasi, aretza, piñu, izai edo zapin (70), makal, eltzun edo zurtxuri (71), urki, ereiñotz, gorosti gitxi ikusi neban, eta leizarra'ren arteko ugaritasunean joan gintzazalako.

Baratzean: Gaztaiñondo, aranondo, keriza, intxaur, urretx, sagar-ondo, pikondo, olib-ondo, jirasol, gari, garagar, zekale (72), maats, ke-belar (73), laran-ondo edo urre-sagar (74), eta tomate ugari ikusi nebazan.

Etxeetan eneban nortasun aundirik ikusi, etxea babesteko txapel edo teillatu ona bear daualako.

10'etan eldu giñan Apeninos'eko mendi-katean dauan Subasio mendia'ren goi-aldera, erdia baiño goratsuago dagoan Asis errira, eta talai-mendi ortatik, Espoleto deitzen dan zelaitasun aundi bitartetik mendimazela'ko bizkarrean kokatuta dagon Perusa'ko erria ikuspegi zoragarrian ikusten dana.

Asis, arri landuagaz eginda dagoan erri-poli ta baketsu lez agertzen da, 1.997'ko Irailla'ren 26'an euki eben lur-ikara izan ezik. Ipar-mendebalean San Frantzisko'ren eleiza ta lekaretxe sakratuak kokatuta daukaz, eta erdiko Eki-aldetik kanpandorreak ta lekaretxe'aren dorrea bistan dagoz.

Arrigarrizko anditzar guzti ori, arri-erinduko landuan eginda dago, eta XIII ta XIVn. Gizaldietan antze-ederraren trebetasunezko maixuak ornitu eben.

Gotiko itxuran eginda dago goiko basilika edo eleiz-nagusia, eta erromatar-itxuran beko basilika.

Frantzisko'tar lekaide batek erakutsi euskun lekaretxe guztia, San Frantzisko'ren oial ta oiñetako-latz, eta berak egin eban lekaidego arauaren agiritik asi-ta.

San Franzisko illobiratuta dago aldare eder ingurutik, eleizak iztuku-berrian (75) margoztuta daukazan margo-irudiak ikusi genduzan, eta 1.997'ko lur-ikarak egin ebazan kalteak, gaur oraindiño konpontzen dabizenak erakutsi euskun.

Eleiza'tik urten da, Mari Jose'k ordu erdiko atsedena emon euskun, eta argazkiak atara, garagardo bat edan eta irola'ra ostera egin eta gero, Saboia jatetxera joan gintzazan bazkaltzera.

Jaten, ondo baiño obeto emon euskuen, ba makarroien eragipenetik urten da, ugolo, erris edo arroza olagarroagaz egosita atara euskuen, eta oso gozo ta alai jan gendun, aurrean euki gendun guztia.

Ordu-bi'terdietan berebil-bus'era igon gendun, Erroma'ra urbiltzen goazela Orbieta'ra joateko.

(69) ko2 = co2. (70) Izai edo zapin = abeto. (71) Makal, Eltzun edo zurtxuri = chopo. (72) Zekale = centeno. (73) Ke-belar = tabaco. (74) Laran-ondo edo urre-sagar = naranjo. (75) Iztuku-berrian = pinturas realizadas al fresco.

Orbieto'ko Uria, Arno ta Tiber ibaiaren erdi bitartean eta Lurrarteko-Itsaso (76) ta Apeninos kate-mendi bitartean, Unbria lur-zabalaren mendiska baten bizkar-gaiñean kokatuta dago, Terni'ko probintzi edo lurraldean.

Eta Mari Jose'k, bidea berebil-bus'ean ibiltzen goazela, Orbieto'ren asierako edestitik asi-ta, bere gertakizun garrantzitsuenak, ondo baiño obeto argitu euskuzan, adibidez:

Orbieto, Etruria'k eukazan 12 Uri-artekoa zala, eta jakin ez arren noz agertu ziran, K.a. XIIn. gizaldian gaur Toskana esaten jakon lurraldean, irautez kokatuta egon zirala, eta euren mugak, Po ibarra eta Kanpania'raiño zabaldu zituezala esan eban.

K.a. IX-IIIIn gizaldi bitartean lortu ebela euren jakintasun aundiena.

K.a. 753'ean eurak sortu ebala erroma'tar Latin, kaizerta ta guda-eritzia. Gero, eurak be iruntziko ebezanak.

K.a. VII-VIn. gizaldi artean, euren jendekuntzazko gorenean, inguratzen eutsoezan erriak: Umbro, Ligurino, Latino, eta Sabino'ak baiño, askoz geiago zirala.

Euren izaerazko gogotasunean guda-zale baiño, geiago gura ebela apainkerian eta oporretan ibili.

Eta nai-ta Griego'en jendekuntza euren oiñarria izan, jakituriaren trebetasunezko edertasunean sakontzen baiño, geiago gura ebazalako apaingarrizko edertasunak obari-zaletasunean (77) ibili, sekula ez zirala oartu, Griego'ak demokrazizko askatasunaren bidetik, sortzaille izateko euken almenagaz.

Arria, arbizia, terrakota (78), eta batez be tupiki edo borontzea lantzeko bereziak izan ziran, gaur eurak terrakotan egineko il-obi ederrenak: Britania, Loubre eta Giulio Aita Santuaren erakus-tokietan direnak, eta bai-ta tupiki edo borontzezko irudietan egineko ainbat gauza erakus-tokietan zabaldua dagozenak.

Azalezko edesti laburra.

Orbieto'ri buruz: Etrusko'ak biztandu edo bizitzen joan zirala, eta K.a. IX-IIIIn gizaldi bitartean erlijiozko "Fanum Voltumae" ? garrantzizko biltoki sortu ebela.

K.a. 265'an, Sentino'ko lurraldean erromatarren aurkako borroka galdu ebenean, euren mendera aldatu zirala.

K.o. VIIn. Gizaldeen, Orbieto'n, lenengo Godo'ak, gero Bizantzio'tarrak, eta askenez Longobardoa'k indarrez sartu zirala.

1.137'an Orbieto'ko biztanleak, askatasunezko erri-uria izatea erabagitu ebela.

(76) Lurrarteko itsaso = mar Mediterraneo. (77) Obari-zaletasunean = ganacia, lucro, utilidad, usufructo, etc. (78) Terrakota = lur egosia.

1.157'an, IV Adriano Aita Santua'k, eleiz laterrien aurka, Orbieto'ren askatasuna ontzat artu ebal.

XII-XIII In gizaldietan, Orbieto'ko Uria lenengo: "Monaldestxi eta Filippestxi" sendien artean ikaragarritzko anai arteko borroketan sartzen dala, eta geroago "Beffti ta Malkorini" sendi bitartean.

1.354'an Orbieto, Gil de Alborno Kardinala'k menperatzen dauala, eta ostera sartzen dabezala eleiza'ren laterritasunezko agindupera.

1.450'ean agintari ezberdin igaro-ta, askenez eleiza'k euki eben laterrien arteko agintaritzan menderatzen dabe, eta euren artean garrantzientariko bat izatea lortzen dabela.

1.798'an Napoleon'ek bere kaizertzara sartzen dabela, eta Erroma'ko Errepublikaren erri-alde (79) bat bezala geratu zala.

1.816'an Napoleon'en agintaritzaz ezerezean geratu zanean, ostera alkartu ebela eleizaren laterritasunetara.

Orbieto'n ikusketari.

3'arak eta 20'enetan eldu giñan Konzara'ko zingira edo ur-geldiaren zelaietara, eta Orbieto'ko ardo gozoa egiten dabela jakin gendun.

Orbieto'ren Skalo'ko gel-tokiren enparantzatik, berez ibiltzen diran eskillara'k igon genduzan, goi-aldean dauan "Brazzi" goroikizko gailluan (80), Orbieto'ko Ama-Birjiñaren eleiza ikustera joateko.

Soragarria da Eleiz-Nausi ori. Erromanikoan asten dana bere eraikitza eta gotikoan amaitu.

Maitani etxegille edo eraigilleak egin eutsezan azkarri'ak (81), eta 1.997'ko lur-ikararen mugimendu bidez alperrik-galduta geratu ziran, gaur berrizten dabizena.

Eleiz-Nagusi onetan sortu zan, izan-alda edo izate-alda'ren (82) miraria.

1.263'an, Praga de Pedro'tar apaiz sinis-gogor batek, ez ebalako sinis-sinisten meza'ko ardo ta ogia Jesus'en gorputza ta odolean biurtzen zirala.

Pedro apaiz sinis gogor onek, Erroma'ra joan zan eleiz-txango San Pedro'ren il-obian, bere sinismena indartzeko, eta Erroma'tik itzultzen Bolsena'n geatuta eta Santa Kristina'ren elizpeko il-obian mezea emoten egoala, ogia'ren barrutik odola urtetan asi zan, areik eta aldareak euken oiala ia geienean busti arte.

Orbieto'n alabear edo beste gauza bategaitik, IV Urbano Aita Santua aurkintzen zan, eta oartuta gertakizun orren ospatsutasunarekin (83), odolez-beteta egoan liño'ko oial (84) sakratu ori berengana urbiltzeko agindu eban, eta ortik aurrera Kristautasunezko Mundu osoarentzat

(79) Italia'ko Errepublikaren Erri-alde = canton. (80) goroikizko gailluan = funicular. (81) Azkarri = relieve. (82) Izan-alda edo izate-alda'ren miraria = el milagro de la transubstanciación. (83) Ospatsutasunarekin = majestuosidad. (84) Liño'ko oial = paño de lino sagrado.

“Kristo´ren Gorputz´eko” besta edo jai-eguna ospatzea agindu eban.

Erritarrak eta erriko apaizak erabagita, oroigarritzko liño-sacratu ori toki berezi baten egon bear zala-ta, eleiza egiteko, San Konstazio ta San Brizio edo Priska´ko Santa Maria eleiza´ren bitarteko lekua aukeratu eban, eta 1.290´eko Azaroa´ren 13´an IVn. Nikolas Aita Santuak, eleiza barriaren lenengo arria, aurre-aldeko laugarren zutabe edo infernua xixelkatuta dagon oiñ-arri´pean ipini eban.

Eleiza eraikiteko iru gizaldi bear izan eban, eta euki eban leenengo eraikillea Arnolfo di Kanbio izan bear izan eban, berari ezarri edo leporatzen dautsielako aurre-aldeko goi-aldean txuntxur bateko zirriborroaren egitamua, Eleiz-Nagusia´ren ikus-tokian dagoena.

Antza baiña, euki eban lenengo eraikitzailea Perugia´ko Bebiginate lekaidea izan bear izan eban, Eleiz-Nagusi onek daukazan iru eliz-barneak, berak egin ebalako. Eta bere ostean, Giobani di Uguzzione.

Eleiza jausteko larrian egoala-ta, Siena´ko zizelkari ta etxegille Maitani´tar Lorentzo´rengana joan ziran, eta 1.309-1.310´eko urtetan eleiz-gurutze edo eleiz-besoak berak asmatuta, ostiko edo orma-bularrakaz indartu ebazan, eta orrez-gaiñ Orbieto´ko jendartearen gogoak berotu, eleizara´ko asmatu ebazan koloreakaz eta gaur daukan iru-tontor edo iru-erpiñeko aurre-aldeagaz osatuta.

Eta ez bakarrik aurre-aldea, eleiz-barrua be ikusgarritzko itxuran edertu ebalako.

Maitani´tar Lorentzo, Orbieto´n 1.330´eko Ekaiña´n il zan, eta eleiza´ren eleiz-leioa edo armailazko eleiz-balkoia (*) bere il-ostean amaitu eban.

Orbieto´ko Eleiz-Nagusi au, benetan ikusgarria dala, eta ainbat argazki atara neutzezan.

6´retan etxerantza urten gendun, eta 8´1/2etan afaltzen beratu gintzazan, eta afari ostean, solasez-alai ibiligiñan Papillo ostal-etxe ingurutik.

Egun onetan konturatu nintzan, Italia´rrak euren ekonomi edo egiten ebazan gauzakaz, etxerakoi edo gordezaleak agertzen zirala, eta buruan ainbat oldozketa egin eta gero oartu nintzan, euren oiñarritzko jarduera edo bizi-legea, aginpeko edo mendeko “BAITA” euki ebalako zala (85), eta Papillo-inguruan egiten egon gintzazan osteran, orretaz berba egin gendun denbora osoan, arteko gordinkeri bitxiak euren kontura esanda ogera joan arte.

Dana dala, txangolaritzazko ikusle-egarriak ondo asetu genduzan egun ederra ospatuta.

2.009´an Dagonilla´ren 27´an.

7´1/2etan jagi giñan 8´retan gosaria artzeko, eta 8´1/2etan berebil-bus´era igon, eguneko ostera egiteko.

(*) Eleiz leioa edo armailazko eleiz-balkoia = tribuna. (85) Aginpeko edo mendeko “BAITA” eukielako zala = conciencia subordinada, o, de servidumbre.

Marko´k, berebil-bus´etik beratu barik, goian aipatutako gain-gaiñeko xixelgintzan eginda dagoan “Bakea´ren Oroikarria” erakutsi euskun, eta iñork ez ebala gure, aĩn arri aundian edertasunez xixelkatutako senatorea´ren kubu (86) aundi ori, esan eban.

San Roke eleiza eta San Jeronimo´ri eskeiñita dagoan Aita Santua´ren eleiz-ederraren aurretik igaro giñan.

Italia´n, Espaina´ko ordezkoren jauretxea.

Augusto´ren enparantzan, Marko Bipsiano Agripa Augusto´ren loba´k K.o. 27´an, Augusto´rentzat egin eban erromatar jainko guztiari eskeiñitako arrigarrizko jaun-obi ederra, eta 608´an Bizantzio´ko kaizer Fokas deritsonak IV Bonifasio´ri duan emon eutson.

Bia del Corso eta Bia di Boka-Leon Beritateko kaletik berebil-bus´ean igaroten goazela, Marko´k, Kosmedin´eko Santa Maria´ren eleiza´n egoan leoia´ren ao´tik eskua sartu ezker, egia a la guzurra esaten bazenuen igertzen zala.

Eta kale orretatik goazela Turlon jauretxea ikusi gendun, Marko´k, Espaina´ko I Juan Karlos erregea gaztetan bizi zan etxea zala esan euskuna.

Erroma´ren aipatuenetariko Espaina´ko enparantzan uste dot (87), berebil-bus´etik beratu gintzazala, berton eta goialdean, 1.502´garren urtean Frantzia´ko errege XII Luis´ek egin eban “Trinità dei Monti” eleiz ederra, eta 1.726´an Frantzia´ko errege XV Luis´ek, ondo apainduta beraiño egin eutsoezan arrizko eskillara eder ikusteko. Eta 1.789´an erdian daukan arri-xut edo obeliskua ipini eutsien.

Espaina´ko enparantzaren izena, Europa´n, Batikano´k aolkularitzazko aginpidean eukun idarragaitik beartuta, artu-emoneko aolkuetan diploma-ziko arlo-ekintzak ugaritzen asi ziran, eta Espaina´k 1.653´an, bere ordezkaria bertan egon egian, Erroma´n leenengo egin zan ordezkartzazko (88) etxe-bizitzatik jatorko.

Eta bertan dauan gabarra´ren antzeko “La Barcaccia” iturrian ura edan, eta txantxa-bitartez ainbat argazki atara neutsezan aren inguruai.

Aurrera eginda, ain garezti dan Medizi´ren Jarley etxe-ostatua erakutsi euskun Marko´k, eta esan be, zenbat balio dauan beren metro-laukonde bakotzak.

Espaina´ren ordezkari-etxea; Bernini´k egin eta il egin zan etxea, eta abar.

Marko´k, emen galdera bat egin euskun: Guk, gazteleraz gurtu´ko keiñada´ri itza´gaz azaltzeko, zelako berbeagaz xedatu edo mugatzen gendun. Eta umaje, ospeztu, auzpeztu, kilimusi, begiramen eta abar esanda, berak ez zan geratzen batera etorten, eta erabagi barik itzi gendun.

Baiña etxean idaz-lan au egiten nauenean, gizabide edo adeitasuna (89) gogora etorri jatan, eta burua makurtuaren keiñadari gur-egin edo agur

(86) Aĩn arri-aundian edertasunez xixelkatutako KUBU = “Ara Pacis” con forma de cubo tallado en piedra. (87) Ez daukat ziurtasun aundirik emen beratu ba-gintzazan. (88) Ordezkartzaren etxe-bizitzatik = embajada, o casa del embajador. (89) Gizabide edo adeitasuna = fineza, urbanidad.

egiteari (90), "UKURTU edo CORTESIA" uste dot izan zala berak aurkitzen eban itza.

Trebi'ko iturrira edo "Fontana de Trevi" kokatuta dauan lekura joan gintzazan eta arrituta geratu giñan oroigarri ori ikusterakoan.

Nikola Salbi'k egindako iturri au, Itsas-Aundi edo Zabala iruditzen dau, alboetan osasuna eta ulertasunezko irudiakaz adi-erazita. Eta daukan izena, gurutzatu egiten ziran iru kaletik jatorko.

Erroma'ko iturri onetara joaten diran biztanleak, iturria ikusita joaten diranean, lepoa edo bizkarra emonda txanpon bat botaten dabe ura'ren babesa lortzeko, eta beren ospe aundia, berton iru pelikula egin ziran bidetik etorten jako: "Iturrian iru txanpon", "Erroman opor-egunak", eta "Bizi gozagarria".

Kolonna'ren Enparantzatik aldatu gintzazanean, 1.800 urte eta 40m. gaiñ-aldeko neurrian daukan Marko Aurelio'ren arri-tente edo zutarri ederra ikusi gendun.

117-134 urte bitartean Publio Elio "Adriano"k egineko jauretzean geratzen diran ondamenak ikusi genduzan. Eta emen Marko'ri itandu neutson: "Mundu'ko bigarren guda-aundian, ia zergaitik lerkai'ekin ez zan ikutu an dauan oroigarri guzti ori". Berak erantzunda: "Oroigarri eta Batikanoa babesteko, itzarmen edo itun bat egon zalako guda'ren agintari guztiakin" erantzun eustan.

Loiola'ko San Inazio'ren enparantza'ra joan giñan, eta an ikusi gendun Jesus'en Laguna'k daukien eleiz ederra eta berton San Inazio illobiratuta dagon arrillobia.

Ortik, Marko Bipsanio Agripa'k (91) K.a. 27-25 urte bitartean euren jainko guztiari eskeñita egin eben "Illetxea" (92) iukustera joan giñan.

Arrigarritzko oroitzarri-jauretze orren aurre-aldean idatzita dauka: "M·AGRIPPA·L·F·COS·TERTIVM·FECIT". Nik, ez dakitena bere esangura zer dan, baiña Barroeta'tar Klaudio'ren laguntzagaz argituko dodana.

Marko'k, Mundu'ko etxegille guztiak burua makurtu egiten dabela barrura sartu orduko esan euskun, eurentzat: "Bikaintasun (93), Edertasun (94), eta Egokitasunaren Bikaintasuna" (95) dalako.

Baiña gaur erakusten dabena ez da Agripa'k egin ebana, 80'garren urtean erre egin zalako, eta gaur ikusten doguna, K.o. 118-125 urte bitartean Adriano'k egin ebana dalako.

Beren gaurko betiko itxuran agertzea, IV Bonifazio Aita Santua'ri zor jako, 608'an Fokas (96) Bizanzio'ko Erromatar kaizer'ak berari emon eutselako, eta eguneroko mezea emoten dabe andik ona, utsarte barik.

Rafael, etxegille ta margolari aundia be, 1.520'an il-zanean emen illobiratu eben.

(90) Gur egin edo agur egiteari burua makurtuaz batera = saludo de "CORTESIA". (91) Marko Bipsanio Agripa = K.a. 63-12'ko urte bitartean bizi zana. (92) Illetxea = panteon. (93) Bikaintasun = perfección. (94) Edertasun = belleza. (95) Egokitasunaren Bikaintasuna = perfección de la armonia. (96) Fokas kaizerra = ?-610 urte bitartean bizi zana, eta Erroma'tar kaizer-lez 602-610 urte bitartean.

Txilin edo Kanpaia'ren enparantzara joan giñan, ikusteko ezer ez ebana euki, eta Ikastetxe-Nagusi'ko kaletik Nabonna'ko enparantzara joan giñan.

Goian aipatuta daukat enparantza onen edertasuna, K.o. I gizaldian Domiziniario'k zelai onetan egindako jolas-tokia, eta 1.644'an Xn. Inozenzio'k Egiten egoan jauretzea, gaur Brasil'go ordezkartzaren etxea dana, Bernini'ri zelan agindu eutson iturriakaz edertzeko, eta onek, berak asmatuta, orduan ezagutzen ziran Mundu'ko Lau-lurralde nagusienak euren erreka-nagusiakaz iturri orreitan iruditu ebazan.

Lourdes eta ni oso nekatuta egon gintzazan, eta egurazteko emon euskuen denbora, nun-baiten zeozer artzen ezarri egin bear giñela gogoratu jakun.

Domiziniario kafetegian ezarri giñan, eta Koka-kola ta garagardo bategaitik, 6 eta 9 euro ordaindu genduzan. Bereala gogoratu nintzen Astobiza'tar Juan eta bere emazte Uriarte'tar Ana'k Bruselas'eko adepportuan esan euskuna: "Garagardo edo beste zeozer artzerakoan, obe dala ardandegia'n zutunik zerbitzen daben lekuan artu!". Benetan egia.

Arratsaldeko ordu-biak zirala VIA-SARDGNA'ko kalean "La BAIA" Pizzeria-jantegi etxera joan giñan bazkaltzen.

Ostean, 4'1/2etarako Erroma'ko Egoaldeko Ekialdean dagoan Kastelgandolfo errira eldu giñan, eta sumendiaren agoa daukazan ur-garbiak ikustera joan gintzazan.

Marko'k, sumendi-ago orrek (97) daukazan ur-garbi ederrak, azpian daukazan bideetatik eta euriaren urakaz bete ta daukan neurrian irauten ebala esan euskun. Eta beren urak Erroma'ra eroaten dabela Bia Apio'ko ur-bidetik. "Inguru ederra benetan".

Eta gero, sumendiaren goi-aldeko mendira, VIIIIn. Urbano Aita Santua'k (98) egin eben gaztelu edo jauretzea ikustera joan giñan.

XIIIn. Pio Aita Santu ezkerotik (99), Aita Santu guztien opor-tokia izan da, eta an ikusten zan jendetza mugi-aldetik, apaindurizko-berebilla ate aurrean dagoala, Aita Santua berton egoala gogoratu gintzazan, baiña bera babesteko egon ziran Zuiza'tar guda-mutillak bakarrik ikusi genduzan.

Alderdi poli ta baketsua inguru ori, eta ikustea merezi dauana.

6'1/2etan igon gendun berebil-bus'era Papillo ostal-etxera joateko.

Afal ostean, Papillo ostal ingurutik solaz-ederrean ibili gintzazan lotara joan orduko.

Erroma'ko Uria oso garestia da, dirua atarateko daukiezan amarrukeriak (100) jakin ezik, euren edaritegi barru eta aurrean ipinten dabezan ezarlekuetan jan-edaten ezarri ezkerero, edaten doguna lau bider ordaindu bear dalako.

Eta au izan zan Erroma'n egin gendun azkeneko eguna.

(97) Albano izena dauka intzira edo ur-geldi 'ko sumendi ago orrek, "Iago" (98) VIII Urbano, Maffeo Barberini deitzen zana, eta 1.568-1.644 urte bitartean bizi ta Aita Santu-lez 1.623-1.644 urte bitartean. (99) Bera izan zan Kastel-Galdolfo'ko gaztelura joan zana oporretan. (100) Amarrukeriak = artimaña, artificio, ardiz, treta.

2.009'an Dagonilla'ren 28'an.

6'1/4renetan jagi giñan 7'retan gosaria artzeko eta 7'1/2etan berebil-bus'era igonda PONPEYA'ra joateko.

Bidean goazela, masti asko ikusi nebazan palar edo zurrun'ezko (101) antolamenduan eta urretx, arto, ale-ekarle edo igali-zugatz, eta olib-ondo amaigabeko arloetan.

Lur asko, larre, lurgorri edo larraka'n (102) daukiez, eta baratz'etan eneban atsegiñezko lanik ikusi.

Mendi inguruetan: Aretz, ametza, artea, eta azkasi ugari ikusi nebazan. 10'etan, bideko gera-leku baten geratu giñan, eta piz egin, kafesnea edan ta ke-belarra erreta, 10'1/4renetan ostera igon gendun berebil-bus'era Apenino'ren mendi-kate bien artetik aurrera egiteko.

Kanpania'ko lurraldeetatik aldatu giñanean: Kiwi eta intxaur asko ikusi neban, eta oartu be aberatsak zirala ke-belar, limoi ta urrezko-sagar edo laran-ondo'arekin.

Mari Jose'k, Besubio su-mendia aurrez euki gendula: 1.944'an bota ebezala askenko arri-gesal, arri-urtuak, edo berak esan eban-lez, Besubio'ren salda-beroa, eta estanda orreik 40 urteko-epean inguru aukeratzan diran-lez, orain dala denborea bereak egin dagiezala.

11'1/4renetan eldu giñan Ponpeya'ra eta Mari Jose'k, Ponpeya'n gure gidari izango zana, Adelaida, neska poli ta atsegiña aurkeztu euskun.

Adelaida'k, txartelak emoten ebazan sarreran asi zan bere lanetan eta: Itsasos'gain 40m. inguru kokatuta dagoan Erri onek, zabaltasunean 62 eun-area edo ektarea daukazela esan eban.

K.a. VIIIn. Gizaldean Etruskoak Kanpaniatik zabaltzen ibili ziranean jendetu ebala gain-gaiñezko ikus-toki eder au, Sarno-ibaiaren urak itsasoratu egiten diran urbil, eta itsas-gizonak aberats-toki baten biurtu ebala.

Ponpeya'ko erria, itsas-inguruan eder-bitxi bat izateagaitik, gogo askotarako tentalaria izan zan, eta edestian orregaitik euki ebezala aldakuntza aundiak.

Kumas griego'en eragipenean (103) egon ziranetik, K.a. 425'eant Samnitas'en menpekotasunera aldatu ziran, gero Adelaida'k erakutsi euskun lez, euren arrasto edo atz asko itzita.

Erromatarrek jo eben eraso aldian, Samnita'k menperatuta geratu ziran, eta Grezia (104) ta Erromatarren arteko guda-punikas'etan erromatarren alde leial edo zintzo jokatu ebelako, beti izan ziran euren izkuntz ta euken oiturazko askatasunaren jabe, areik eta K.a. 89'an, Erroma'ko gizartearen borrokatan (105), kaizertzaren aurka agertu ziralako (106), Sila'k bederatzi urte euki eta menderatu ondoren, inguratuta "Kolo-

(101) Masti asko Palar edo zurrun'ezko antolamenduan = viñedos de parra. (102) Lurgorri, Larraka, larre'an = barbecho, tierras en reposo. (103) Eragipenetik = influencia. (104) Guerras Púnicas = Las tres guerras que Cartago tuvo con los Romanos: 264-241, 218-201, 202- acabando con la destrucción de Cartago en el año 146 a.C. por Escipión Emiliano. (106) Luchas por el poder entre Sila y Mario, muerto este el 88 a.C

nia Kornelia Beneria Ponpeyana” izen barria ipini eutsoen arte.

Ortik aurrera eta urte gitxi barru, Erromatar aberats'en egotezko (107) jator-leku lez geratu zan.

Augusto'k bere denboran, erria'ren itxura edertu eban garrantzizko aldakuntza batzurekin, eta ez ezagutzen direnak Kaligula ta Klaudio'ren denborakoak dira.

K.o. 20'n urtean Estrabon geografoak, Besubio sumendia betiko itzalita egoala esan eban

Ponpeya'ren izena edestian aipatzeko, gertakizun garrantzitsuena baiña, Tazito'k bere “Annales”etan esaten dabena da antza: K.o.59'an Ponpeya'ko anfiteatru'an ezpatakari-borrokak ikusten egon ziranak, bata edo bestearen alde egotegaitik, Ponpei'koak alboko erri Nozera'koakaz egin eben odolezko-borroka latza izan bear izan eben, Erroma'ko senatoreak 10 urteko epean debekatu egin ebazalako jolas-toki edo anfiteatru orren jokoak.

Ponpeya'k, K.o. 62'n urtean, gertakizun orrein iru urte beranduago eukiko ebazan, gero 79'an Dagonilla'ren 24'an Besubio su-mendiak egingo ebenagaz, lenengo oart-araziko lur-ikara gogorrak, garbitu ta gero gaur ikusten diranak.

Eta Ponpeya'tarrak, oraindiño lur-ikararen kalteak konpontzen egon zirala, Besubio su-mendiak estanda egin ostean 7m. gain-aldeko euts-pean obiratuta geratu ziran .

Su-mendi orren autsak izan ziran erria ta erritarrak ito edo il ebazanak eta gertakizun orreri ezker dakigu, bertan sortu ziranakaz.

1.748'an Borboi'tar Karlos, gero Espaina'ko errege III.n.Karlos izenagaz izango zanaren agindupean asi ziran, gaur ia guztiz agertuta dagoan Ponpeya'ren garbiketak, eta arrigarrituta geratzen da bat, egin diran lanakaz.

Ingurua ikusten gabiltzala, kanpotarren billaketarako iragarkietan euki ebazan idazpuru edo marrazki berezi askorekin oartu gintzazan, baiña bategaz barre egin gendun, naikoa esan arte.

Adelaida gidariak erakutsi ta gero, Taldeko andra batek gizon-zakilla arrian xixelkatuta ikusi ondoren esan eban: Gu baiño argiagoak izan bear izan ebenak, gorputzak daukaguzan gauzak berezkoak izan da, or gabiltzako lotsatienak egiten pekatua izan balitz bezala ostondu ezinik. Begitu ! begitu ! auek zelan konpontzen ziran, zakil ori iragarkituta artez artez, iñori itandu barik urdaska edo ema-galduaren etxera joateko.

Eta arrizko zelaian, bur-txirrikak itzitako aztarnak, munduan dauazan su-gurdi edo tren guztiak txirrinka'ren artean daukezan neurria dala, esan euskun.

(107) Egotezko = residencial.

Erri ederra izan bear izan eben, Adelaida'k bere erakutsiko azalpenetan, gure buruetan iruditzen ebanagaitik, eta benetan ederra izan zan nik erosita: "Bir-Eraikitako Ponpeya"ko liburuak erakusten dauskuenagaitik.

Ainbat argazki atara nebazan, baiña ikusteko daukadan agerkai ederrena, liburuak berak ekarten dauan DVD'a da.

Erretako erritik urten gendunean, ordu'erdiko epea emon euskuen zeozer edan eta norberaren bearrak egin da 1'1/2etan berebil-bus'era igoteko.

Ordu-bietan eldu giñan Sorrento'ra, eta TASSO jatetxera joan giñan bazkaltzera.

Sorrento'ko TASSO jatetxe au, Italia'k euki eben olerkari aundienetarik baten, 1.544-1.595 urte bitartean bizi izan TASSO'tar TORQUATO'ren jaiot-etxea da.

Leku on ta garbian on-bazkaldu gendun urdai-azpiko, gazta, tomate eder eta Solaro ardoagaz asi-ta, eta 3'1/2etan akeita artu ondoren, ingurua ikusiaz batera erosketetan ibili giñan.

Gero diamant-itsas-bazterretik (108), Kapri ugartera joateko dagon portu edo kai-aldera 45 km. dagozela esan euskun Adelaida'k eta 2.945 oker-gune daukazan bidetik joanda, Apeninos'eko Laktari-mendi'ak daukan POSITANO ikus-lekuan geratu gintzazan, Salerno'ren ur-golko ta inguruak daukazan edertasunak ikusteko.

"Torre Anunciada" deritson gaztelu (109) aundiren aurrean geratu gintzazan ordu'erdiko epean, ingurua ikusi ta zeozer artuta berebil-bus'era igoteko.

Nik, gaztelua ikusten emon neban denbora guztia, eta ikusi be, argazkiak atara neutsezan an egoan borontzezko irudi-bitxi'ari be.

6'1/2etan urten gendun Napoles'era joateko, eta orain Besubio sumendi ederra atze-aldeetik ikusten gendun.

7'1/2etan eldu giñan "U.N.A." & Resorts Amerikar kateak daukan "Napoli ostal-etxera".

Adar-txarra emon eustan Napoles'eko sarreran ikusi nebanagaz, zikin-keria nun-nai egon zalako.

Berebil-bus'etik beratu ta fardelak artuta ostal-etxean sartu gintzazan, lo-gela'ren giltzak artzeko.

Eta Mari Jose'k bitartean adiarazi euskun, lo-gelan euki genduzan diru kutxak erabilteko, eta kalera joaten gintzazanean, dirua ostonduta eroateko, "Napoles'en, zapatak kendu barik, galtzerdiak ostuten ebezalako".

Guri, 214n. gela egokitu jakun, eta ostal-etxea adiñetan sartuta egon arren, naiko apainduta ta garbi egon ziran ostalaren arrera ta lo-gelak.

Gure garbi-gelan ozkirritu apur-bat egin, eta 6n. solairuan dagon jangelara joan gintzazan afaltzera.

(108) Diamant-itsas-bazterretik = costa de dimante. (109) Gaztelu oneri = Arrautsaren gaztelua-be deitzen dausie "castillo del huevo".

Sei lagunentzako maiak izan ziran jan-tokian apaindua egon ziranak, eta gu ezarri gintzazan maian: Manjarres'tar Pedro, gizon alaia benetan, bere emazte Bartolome'tar Milagros, Gallo'tar Mertxe, Angulo'tar Mari Karmen, Barroeta'tar Lourdes nire emaztea eta ni.

Babarruna'ren itxura euki ebazan makarroiak, izkira edo ur-zorri'akaz (110) egosita emon euskuezan jateko.

Pedro'k, azpil edo platerea'n atara euskuezan makarroiak begira egoala, ur-zorri txiki baten buztena bakarrik aurkitu eban, eta niri erakutsita, nik ia zenbat aurkitzen nebazan itandu eustan. Nik be bat bakarrik aurkitu neban, eta konturatu giñan bakotzak bat bakarrik eukala.

Gaiñerako, egalabur edo zimarro'i apur-bat atara euskuen, eta mai-azken lez, gozo-opil bat (111).

Makarroiak ez ziran txarto egon, itsas ao-gozo apur-bat eukelako, eta zimarroia, itsas-arraiña atsegin daukanentzat, bera be gozoa dalako. Arazoa baiña, lau-ortzakada'ren (112) ekintza bategaz amaitzen zala. Eta ur-zorria'ren kontura ainbat txantxa egin eta berari argazkia atara ondoren, lotara joan gintzazan.

2.009'an Dagonilla'ren 29'an.

7'retan jagi giñan 7'1/2etan gosaria artzera joateko, eta 8'rak eta 1/4'renetan berebil-bus'era igonda Napoles ikustera joateko.

NAPOLIS: Kanpania'ko lurraldea da, beren 1.171 km laukonde'rekin eta 2.871.663 biztanleagaz. Eta Napoles bere Uri-Nagusia'k 1.223.927 biztanleakaz.

Tirreno'ko itsasoa da aurrean euki genduna, eta Tirreno itsas-adar edo itsas-golkoan dauka bere kaia, Besubio sumendiaren urbillean kokatuta.

K.a. VII.n.gizaldian, Griego'ak koloni-lez irasi ebena, eta bere lurretik ibili ziranak: Parthenope, Paleapolis, eta Neapolis'eko izenak ipini eutsezan.

K.a IV gizaldian, Erromatarrak menperatu eben, eta Ostrogodoak K.o. Vn gizaldi'aren askeneko urtetan.

535'ko urtean, Bizanzio'ko Kaizertza'ren mendean geratu zan, eta apurka apurka eurengandik urruntzen joanda, 763'n urtean askatasunezko dukat-erri lez geratu zan.

1.139'ko urtean Normandoa'k mendetu eben, eta 1.265'ko urtean IVn. Klemente Aita Santua'k, Frantzia'ko errege IX Luis'en anaia Anjou'tar Karlos, Napoles'eko errege izendatu eben. Eta Benebento'ko gudan Napoles'eko dukea il da, lur guztiaren jabe egin zan.

1.282'an Epaila'ren 31'n, Anjou'tar Karlos'ek gortea Napoles'era eroan ebalako, Sizilia'tarrak (113) matxinatu ziran, eta ainbeste milla fran-

(110) Izkira, marizkira edo uz-zorria'kaz egosita = cocido con gambas. (111) gozo-opil = tarta (112) Lau-ortzeko = tenedor. (113) Visperas Sicilianas.

tzez gizon-emakume ta ume il-da, Aragoi'ko errege III Pedro izendatu eben 1.442'rarte Napoles eta Sizilia bananduta bizi ziran, areik eta Aragoi'ko V Alfonso'k Napoles'eko erreinua gaz egin arte.

1.494'an Frantzia'ko VIII.n. Karlos'ek, Anjou'tar Renato'k berari aldatu eutsezalako eukezan eskubideak, Italia'n sartuta menperatu eben, eta beren aurka: Aragoi'ko II Fernando erregea, Alemania'ko Kaizerra, VI Alejandro Aita Santua, Benezia ta Milan'egaz batera eraso eutsoen, eta 1.504'ko urtean Blois'eko egiune on-artuazo-ta, Aragoi'ko erregearen agintaritzan geratu zan.

1.707'an Espaina'ren ondorengo gudagaitik, Austria'rrak, bi-Sizilia'ren erregetza artu eben, eta 1.713'an Utretxt'eko itun bidetik Napoles'eko erregetza Austria'ko VI Karlos eta Sizilia'koa II Amadeo de Saboya'ri emon eutsezan.

1.718'an Espaina'ko erregeak, Sizilia'ko erregetza menderatu eben, baiña urte bi barru Austria'tarrai ostera emon bear eutsen, bi-Sizilia'oiek Austria'tarren mendean geratuta.

1.734'an, Espaina'ko erregearen seme Karlos'ek menderatu eben ostera, baiña Espaina'ko errege III Karlos'en izenarekin egin ebenean, 1.759'an bere seme Fernando'ri emon eutson Bi-Sizilia'ren agintaritzza, baldintza gogor bategaz: Erregetza ori, Espaina'ko erregetzan ez zala lengoratuko iñoz.

1.799'an Frantzezak sartu ziran, eta bere lurraldea bost illabetetan iraun eben Republika Partenoepa lez izendatuta.

1.806'ko Epailla'n Napoleon'ek bere Jose anaia izendatu eban errege, eta 1.808'ko Uztailla'n, Murat bere gual-nagusi bategaitik aldatu eban I Joakin'en izenagaz.

Espaina'ko errege VII Fernando egin zan Sizilia'ko erregetzagaz eta 1.815'an Biena'ko biltzarra'k Napoles'eko agintaritzza emon eutsoen.

1.860'an Napoli'tarrak Garibaldi'ren agindupean matxinatu ziran, eta or amaitu ziran Borboi'aren agintaritzak.

Eta, 1.861'ean Italia'n egin zan erri-autarki bidetik, aurrerantzean Italia'ko erri-lez geratu zan.

Napoles'en ondore laburra.

Goian esaten asi nazen lez, Napoles: Loia, erriko-zerbitsuak ganora barik, beartuta ainbat izkuntzan berba egiten dan erria, lapurketetan oituak; Eta Nortasun-bako BAITA (114) daukiela, argi ta garbi agertzen dabe.

Baiña, baten-batek esango daust, zelango NORTASUNA leuke erri batek, Napoles'eko edesti au ikusita ?.

Europa'k, or dauka eredu ederrena ikusteko, eta jakiteko: "Nortasunaren ardura barik, ezin leikela iñora joan", edo gogorrigo esan da: "Aurrera begitu". Indarrez ezarrita daukaguzan laterri oneik, Napoles'-

(114) Nortasun-gabeko BAITA = conciencia sin personalidad o confusa.

ko edestian sortu zan antzera, menperatzaileak diralako.

Mundu'ko gizartearen jakintza eta agintarien ZENTSUTASUNAK, danoren BAITA oarkatu egiten dauskun zentsuagaz: "NORKERITIK ALDERATU bear dira, eta NORTASUNAREN ARDURAN EGOKITU", Giza-Mundu onek bestela, jai dauka denbora gitxi barruan.

9'1/2etan KAPRI'ko ugartera joateko urten gendun, eta eldu giñanean errien ostera labur-bat eginda, Kapri'ko kaian Itsas-ontzi bat artu gendun, ugartearen itsas bazterrak arakatzeko.

Adelaida gidaria'k, Kapri'ren izena, basurdearen antza eukiteagaitik, Kapros'etik datorrela esan euskun.

Bere ugarteko inguru-alde, 17km. inguru daukazela, 6 km. luzeran eta 4 zabaleran eta 11.200 biztanle. Iru auzunetan bananduta dagoela: Kapri, Maria Grande, eta Anakapri. Eta bere Solaro mendi aundienak 589m. daukazela goi-alderaiño.

Luzea egingo dalako, ez dot beren edesti eta daukazan edertasunak aipatuko, baiña bai esan: Bere ingurutik ibili giñanean, Izadia'k daukazan indarrak zelango irudi-bitzia'gaz (115) ederturik dago ikusi daigun.

Bikoteari, musua emonazo euskuen morkaitz'en (116) orratz-begitik, naiko barre eginda aldatu giñan.

Eta Pedro'k mendi gaiñean itsaso'ari begira eginda egon ziran etxeak ikusi ebazan orduan: Or bizi ? Ni, zoratuta be. Gabaz, piz egitera urtetandok apur-bat jota eta, or oa ankaz-gora !.

Ordu batetan batu gintzazan bazkaltzera joateko, eta ederto emon euskuen jaten: Ugolo, irris edo arroza-olagarroagaz egosita eta olagarroa erregosita, gaiñean, esne-arroza'gaz gura ebenentzat, eta sagar-ale, laranja edo urre-sagarra bestientzat.

Akeita ta txola-goza artuta, arrikazkor'ezko itsas-ertzera joan giñan, anakak uretan sartu eta txantxako solasean denbora emoteko.

Geienak damu giñan, uger-egiteko jantzirik ez genuelako eroan, uraren berotasuna 27° an egonaz.

6'1/2etan urten gendun itsas-untzian Kapri'tik Napoles'era joateko, eta 8'arak lauren gitxiagotan ostal-etxera eldu.

8'1/2etan afaltzera joan gintzazan, eta afal-ostean seigarren jan-gela orrek euken ikus-toki ederretik, Napoles ikusi ta solas-ederrenean denbora paso gendun lo-gelara joan arte.

2.009'an Dagonilla'ren 30'ean.

8'1/2etan gosaltzeko jagi giñan, eta opor-eguna lez etxerantza etorri aurretik, Napoles'ek daukan arraiñ, aragi, baba, sagar-ale, laranja eta janzteko jantzi ta zapata azoka aunditik egurasten ibilita, kanpo-aldetik lau

(115) Irudi bitzia'kaz = curioso, raro, churrigueresko, recargado de adornos. (116) Morkaitz orratz-begitik = peñon alto y tajado.

izar daukazan OTEL-SAN MAURO'n 12'1/2etan bazkaldu gendun "Falan Epina Benebentano" ardo-zuri oso gozoagaz.

Napoles'tik, 4'rak eta 25'minuetan urten gendun Bruselas'erantza 7'retan elduaz bertara.

9'retan urten gendun Bilbo'rantza, eta ona eldu giñanean, an egon ziran alabak itxaroten.

Lagunekaz agurtu gintzazanean, atara nebazan argazkiak bialduko neutsoela esan neutsien, eta alan geratu giñan.

BIDAI ATSEGIÑA BENETAN..

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.009'an Urrilla'ren 1'ean

- BIZKAIKO JAUNTZA - - EUSKALERRIAN -

AURKEZPENA:

ORAINGOAN, ZERGAITIK "BIZKAIKO JAUNTZA" EUSKALERRIAN ?.

- a) XVIII'garren gizalditik ona, Frantzia eta Espainako menperatzailletasunaren alde jokaten dabizen edestilari irabazkoiak, eten-bako joko-maltzur baten dabizelako, Berezko Errien edestiak zirriborrotzen.

ZERTARAKO, edo ZEREN BILLA ?:

Mendeko elburuak lortu naian, ia, berezko erriak jaiotzatik, zentzun andiko OITURAN, lortu ebezan gaur gure Euskal-Baita'n (1), ondo oiñarrituta daukaguzan ASKATASUNEZKO LEGE-ZAR DEMOKRATIKOEN antzera, ezereztutea lortzen ba-dabe.

- b) Berezko "BAITA",

Egiaren etsaiak, Norkerizko-Asmakizunaren zentzuan batzangotuta bizi gaitezana "biurtzeko". Mundu-Fisiko onetan beste biderik ezin leikelako aurkitu: "NORTASUNAREN-EGIA"ri, guzurrezko politikan, eten-bako bonbaketa baten erara, jakintzazko arlo guztietatik erasotzen dabelako.

- d) Euskalerrriaren edestia, ondo azterkatutako seme-alaba zintzoak baiña: Gure Arbasoak JAIKOA'ri begira, MAITASUNEZKO-NORTASUN aundian lortu ebezan, DEMOKRAZIZKO argi-zabaletan bizi gura dogu. Berezko Ludi oneri, giza'ren edesti guztian emon jakon adierazpen ederrenetariko bat, Euskal-Zentsutasunezko ekintzan emon jakona dalako.

(1) Euskal BAITA = conciencia vasca.

- e) **Orretarako.** Euskalerrriaren seme-alabetan, eten-bako guzurmenperatzaile eraso orreine bidez, Nortasunezko gogobiotzetan (2) egiten dauskuzan zauriak osasuntzeko, gure egizko edesti ta Nortasunezko izatasuna belaunez belaur, berrezkuratzeko alegiñean beartuta aurkitzen gara. Eta alan egin bear dogu, Euskalerrrian eta Europa'ko gizarte guzti artean ondo ezagututa, len-bait-len, arrazoia emon deuskun. Europa ta Mundu onetan NORTASUN GUZTIEKIN batera, bakez eta zentzun-aundiaren itzarmeneko ekiñean, JAINKOA'ren BEREZKO-LEGEA'k ardura aundiz beteta, zorioneko itxaropenean bizi gaitzan.

Ez da izango erreza: a) Munduaren Berezko erriak eta Euskalerrria batez be, Europa'n, Paleolitikotik daukan demokrazizko edesti luzean iñori beren ardurazko izatasun ta bizitzazko-lurretik lots-aundiz, ezer kendu edo artu gabe.

Orren ostean, norkeriaren-asmakuntzazko antolakuntzan sortuta, Mundu'ko gizarte guztia, Askatasunezko-Merkataritzaren laguntzagaz, Erromatar lege-mende dogma-arauzko kontrolpe baten batzangotuta bizi gindezan: **aburu (3) orrekaz ez dogulako bat egiten.**

b) **Ez eta:** XVIII'n gizalditik ona, Munduko gizarte guztiaren batzangotasuna lortu ezin da, ari orren bidetik sortu ziran gaur daukaguzan **batzangotasunezko lur-aundiko Laterri-Menperatzaileakaz (4) be.**

d) **JAUNGOIKOA'k:** Mundu onen Ekanduzko bizitzaren egipiderako bialtzen gaitu bakotzari zor-eskubidezko ordezkartizan. JESUS'ek ondo baiño obeto adierazpendu euskuna, eta menperatzaile auk izatasun-fisiko onetan beste gauza egin ezinik: **Mundu onetan bear-bearrezkoak diran Berezko-Nortasunaren iltzailleak diralako (5).**

SARRERA:

Bizkai'ko gizarteak daukan milla-urteko edesti luzean, beti izan gara gure NORTASUNAK bear dauan ASKATASUNAREN jabe, nai-ta etsaiak esan, sekula ez garela laterrituta egon.

Euskalerrria, beren Sinismeneko-Demokraziaren Askatasunik-gabe, eta Nortasunaren zentzua galduta, gaur egun ez zalako ezer izango.

Alderantziz, bereztasunean sortutako EUSKAL NORTASUN orren antolakuntzazko zabalkuntza, gizon-emakumeetatik asi-ta: Etxean, Auzoko zuaitz-pean, eta Kristautasunaren sorkuntzatik Eleiz-aurrean batzartuta, Demokrazizko mailla aundian, zentzu ederrenetarikoak lortu ebazan.

(2) Nortasunezko gogobiotzetan = en la personalidad psico-afectiva vasca. (3) Aburu = opinión. (4) Laterri-menperatzaileak = estados impositores. (5) Berezko-NORTASUNAREN ILTZAILLEAL = genocidas.

Batzar auek "Aritz, Artea eta Leizarra'ren" (6) zuaitz-pean egiten ziran batez be.

Eta Bizkaiko Jauntzaren sorkuntzan bost merindade izan ba-ziran: Arratia, Bedia, Busturia, Uribe eta Zornotza'gaz, 1.355'eko Loraila'ren 6'an Tello Bizkai'ko Jauna'k giputzen eraso-aldiak geratzeko "Villaviciosa de Markina"ren erria sort-arazita, Durango'ko Ibar-Yaurerriaren elkartzea-gaz, zazpi Ibar edo merindadetan osotuta geratu gintzazan.

Batzar nagusiak egin bear ziranean: Ganekogorta, Gorbea, Kolutza, Oiz eta Sollube'ko, dei-adarrezko bost-mendietatik, su, adar edo tronpakaz deituta, leku ezberdiñetan batzartzen ziran, adibidez: Gernika'ko zuaitz-pean, Aretxabalagana'n (7) eta abar, baiña azkenez beti Gernika'n egiten ziran.

Durango eta Enkarterriko erri-aldeak, Bizkaia'tik bananduta ibili ziran arik eta Durango XVII'n gizaldi asieran, eta Enkarterria XVIII'n gizaldearen azkenetan elkartasunezko politikan Bizkaia'gaz bat egin arte.

Baiña aldi au, olantze zergaitik izan zan argitzeko, aurreko edestitik adirazita asi bear dogu, Bizkaian, gaur arte sortu dan edestia beren aritik azalkatu daigun.

Godo'en denborako edestia:

Erromatar-Godo maltzurrezko asmakuntzari aurre egiteko, Iparralde ta Egoaldeko Euskaldunak sendi bat-lez, guztiz alkartuta ibili giñan, eta Nafarroa'ko erregetza 852'an sortu zanetik, danok beragaz batasun (8) antzeko alkartasunean ibili giñan.

Bizkaia'n, Nafarroa'ko erregeagaz itzarmeneko alkargoan egonda, Eztegiz'tar Santxo Durango'ko jauna izan zan erregearen ordezkoa. Eta emen asiera emon bear dautsagu Bizkaia'ren edestiari.

- ITZALDI ONEN ZATIAK -

1. ZATIA:

1. Edesti arloan euki dodan idazlarien laguntza.

2. Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza.

(6) Aritz = roble. Artea = encino. Laizarra = fresno. (7) Aretxabalagana = Morga. (8) Batasun = confederación

3. Bizkaiko Batzar-Nagusia´ren baldintzak, jaunakin elkar aditzeko.

4. Bizkaiko Batzar-Nagusiak, izendatutako jaunak, kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?.

5. Bizkaitarrentzat, zein izanda beti Jauntzak ekarri leikien arriskua ?.

6. Jauntzak ekarri leikien arriskua nondik agertzen jaku ?.

2. ZATIA.

1. Bizkaia´n, izan ziran Eleiz-Aurreko Batzarrak, Uri ta Iribilduak (*), XVIII´garren gizaldi-erdian.

2. Gernika´ko Lege-Biltzarra.

3. Bizkaiko Batzar-Nagusiaren izkuntza.

4. Noz, zelan ta zergaitik sartu zan latin-kume edo gaztelera gure Batzar-Nagusietan ?.

5. Pase Foral´a zergaitik sortu zan ?.

6. Gaztelar erregeak, zelako ibilbidea egiten eben gure Bizkaia´ren Forua´i ziñ egiteko ?.

3. ZATIA:

1. Bizkaiaren lenengo Jauna.

2. Bizkaiko Jaunaren aldi-urrena.

3. ¿?.

(*) Iribilduak = Villas.

1. ZATIA:

1.1. Edesti arloan euki dodan idazlarien laguntza:

Apalategi ta Lasa'tar Jose'k, beren Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba'ko ikasleai, eskutitz-zabal baten antzera eskeiñita idatzi eban **“EL PUEBLO VASCO” “DEMOCRACIA TESTIGO DE EUROPA”** Euskal- seme/alaba guztiak ikasteko irakurri bear leukien Irakasteko liburu ederrenetik.

Niri, Aita-Santi Onaindia'k euki gendun alkartasunean agindu eustan erosteko, eta liburu-ori izan zan nire ulermeneko argiak geien biztu ebazanak.

1.2. 1.785'ko urtean, Berriz'en Iturriza eta Zabala'tar Juan Ramon'ek idatzi euskun **“HISTORIA GENERAL DE VIZCAIA”** Bizkaia'ren aurretiko edestia egizko zeaztasun argibidean biribillena dan jakin eta ikasteko liburu ederrenetik.

1.3. Lege-maixu ta epaille ospetsua dan Zelaia ta Ibarra'tar Adrian'ek idatzi euskuzan liburu eder bietatik: **“ASÌ NACIÒ BIZKAIA”** De Arrigorriaga Al Fundador de Bilbao, eta **“SEÑORES DE BIZKAIA”** de Don Diego Lopez de Haro a Isabel la Catòlica.

1.4. Eta, Labayru ta Goikoetxea'tar Estanislao apaiza (1.845-1.904) ta edestilariak idatzi eban: “HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZKAIA” liburu ederrenetik, Bizkaitar guztiak etxean euki bear genduna.

2. 1. BIZKAIKO JAUNTZAREN SORKUNTZA:

Asturias ta Leon'eko errege III'n Alfonso (9), borrokalari sutsu eta aundi edo magno'ren izen-goitikoagaz esagutua, 838'tik 882'ko urte bitartean, beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik Duero ibaiaren bekoalderarte berrezkuratuta, eta bere jabetasunaren zabalkuntza andiagotua, ekialdeko erriak mendean artzeco prestatzen asi zan.

III'n Alfonso Araba'tik asi zan, eta Arabarrak euren jaun Elion'egaz asarratuta egon ziralako, III'n Alfonso'k Elion kondea arrapatuz, Araba, borroka barik eskuratu eban.

Gero Bizkaia menperatzera etorri zan. Gaur baiño askoz aundiagoa izan zana: Sartaldetik asita Kastro-Urdiales eta Mena'ko ibarra bizkaitarrak ziran; Sortaldetik: Deba errekek ureztatu egiten dauzan lurrak; eta Eguerdi

(9) III'n Alfonso 838-912'n urte bitartean bizi zana.

edo Ego-aldetik Aramaiona eta Ayala'ko ibarrak.

Bizkaitarrak aurre egin eutsoelako, Alfonso'k beren bigarren seme Ordoño'ri deitu eutson, eta guda-indar askogaz Orduña-Amurrio ta Luxaondo'ko (10) bidetik, Bizkaia'ra sartu zan.

Bizkaia'k, Durango'ko Jaun Eztegiz'tar Santxo'ren agindupean ipini ebazan guda indarrak, eta onek, Ordoño'ren gudalosteari Padura'raiño sartzen itxita, bertan birrindu ebazan Alfonso'ren guda-indartsu orreik.

Bizkaitarrak, bizirik geratzen ziranai atzetik erasota, auek Ayala'ko Gorobel menditik goiko mendietara igon ebenean, jakin ebelako Euskaldunak Bizkaia'ren Luxaondo'ko errian dagon "Malato" zuaitz mugatik ez zirala joango euren atzetik, "A SALVO SOMOS" esan eben, eta orregaitik esaten jako lurralde orreri "Tierra Salvada".

Padura'ko erriari ortik aurrera ARRIGORRIAGA esaten jako, borroka orretan inguruko lur ta arri guztiak odolez margoztuta geratu ziralako.

Ordoño, borroka orreitan il zan, eta beren gorpua Arrigorriaga'ko eleizaren sarreran illobiratuta dago.

Eztegiz'tar Santxo be bertan il zan, eta beren gorpua Durango'ko Tabira'n San Pedro'ko eleizan illobiratuta dago.

Borroka au, 888'an San Andres jaia ospatzen dan egunean Azaro'ko 30'ean egin zan, eta ortik aurrera orregaitik, Bizkai'ko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzea.

3.1. BIZKAI'ko BATZAR-NAGUSIA'ren BALDINTZAK, JAUNAKIN ELKAR ADITZEKO:

Bizkaitar Batzar-Nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jauna'k artekari lanak egin egiezan: "A) Gudal-buru izateko; B) Zuzenbidearen buru-nagusia izateko; Eta D) Bizkaia'ko errigizartea ta ondorezko lur zabalak zaindu egiazan".

Eta Jauna'ren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun dagian, ain aalmen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, Bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia (11), itzalgarritasunean (12) ezarri dagian emoten eutselako.

Orregaitik, "Erabakitasunean, Egilletasunean eta Lege-egilletasune'tik apur-bat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra Errian egoala erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar-Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan: Beren gauzatarako izaten zanean eta "Gudarako gizon'en laguntza bear ebenean", gure Batzarra beartuta geratu zalako bere guda-taldea gure-mutillakaz osotutea, nai-ta esan dogun-lez, beren gauzata-

(10) Luxaondo = Luyando. (11) antolarazia = arbitraje. (12) Itzalgarritasuna = respetabilidad.

rako izaten zanean, aurretik ordaintzeko beartuaz”.

Ortik aurrera baldintza orren erruz, Euskaldunak gure artean beti, borrokan ibili gara.

4. 1. Bizkai'ko Batzar-Nagusiak, izendatutako Jauna'k kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?:

Batzarrak, almen guztia euken, Jaunak ziñez ez ba-ebezan artzen Batzarraren agindutako baldintzak, eta edo ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba-ebezan eukiten.

Bizkai'ko Batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna. Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauntza ipinteko eta kentzeko.

Artu ziran frogazko neurri orreik baiña, Jaun baktzaren aginte-aldia adierazten dogunean agertuko dira.

5. 1. Bizkaitarrentzat, zein izan da beti Jauntzak ekarri leukien arriskua ?:

Orduko Europa'ren Mendebaleko kaizartza ezereztuta egon arren, Eki-aldea oraindiño, Europa osoa erromatarren mendean egon zanetik 325'eko urtean, Nizea'n Konstantino'k eta Aita-Santu I San Silbestre'k Eleiz-Batzar-Nagusia batuta, “Katolikotasuna” asmatu ta on-artuta erabagitu ebenagaz, Mundu osoa batzangotuta Erroma'ko Kaizar ta Aita Santu Lege-Sakratupean egoan, arek eta 1.453'garren urtean Turkoa'k ezereztuarte.

Eta Europa'ko Sartalde edo Mendebal osoa, 711'garren urtean Mauritarrak agertu ziranean, Erroma ta Godo'en eragipenetik (13) aske geratuta, Berezko-Erriak euren antolakuntzazko egarriak Jaun-Erregetzakaz atonduten asi ziran.

Kristautasun zabalkuntzak baiña, ez eban indarrrik galdu, eta berbiztu egin ziran Mundu au “Katoliko” batzangotzeko asmakizunak, 800'n urteko Gabonetan, III Leon Aita Santua'k Karlomagno'ri Erroma'ra deituta, Kaizartza'ren ikurrakaz koroatu ebenean. Ortik aurrera, Mundu onen gizarte guztiak, zentzuzko-askatasunean daukazan bizitzeko ametsak, gaur arte lokaztu egin dauana.

Eta Europa'ko erdi-ugarte onetan, Pelayo izan zan (?) Godo'en gandik etortzen zan “Katolikotasunezko” eritzi-ori berbiztu ebana, 718'an Mauritarrak Kobadonga'ko guda irabazita, Asturias'eko erregetza sortu ebenean.

(13) Eragipenetik = influencia

Europa ortik aurrera: “Aurkaldiko (14) gezurtapenaren sare-arteko txebera orretan (15) arrapatuta geratu zan”, eta gure gaurko bizitzak, azpikerizko (16) joko zikiñ orretatik, urten ezinik.

Zergaitik ?. Katolikotasunezko eritziak (17), giza, erri ta izkuntzak, Berezkotasunaren jakintzazko azturan lortu ebezan NORTASUNEZKO BAITAK, euren elburuak lortu gura ba-dabez, ezin dabelako on-artu.

Eta dogmazko asmakizun orreik artu ebezanean, guda-idarrean oiñarrituta egon ziran lez, Mundu onetan norkerizko sasi-jakintsu eritzi orreik izan ziran sorburu (18), ta gaur arte errudunak dira, bizitzak negargarrikerian (19) eskaiñi dauskun odol-jariozko edestiarenak.

Berezko LEGE´tik bereztuta ez ba-dagoz, ezin diralako zorro edo zaku baten sartu, JAINKOA´k berezkotasun oneri ipinitako LEGEA´k eta gizona´k asmatzen dabezanakin batera. Ala, jainkoak izan naian gabiltz ?.

6. 1. Jauntza´k ekarri leiken arrizkua nondik agertzen jaku ?:

Europa´ren berezko errigizarteetan, Euskalerrian eta Bizkaian batez-be, erri-batzar nagusiak agintzen eben, baiña ez Frantzia´ko Karlo Magno´ren kaizartzan, eta Pelayo´k Asturias´en sortu eban erregetzan. Aita-Santua´k Euren ardurapean ezarri ebazalako, Mendeko Katolikotasun orren batzangotasunezko elburuak.

Eta azpikeriz, mozorrotuta beti ibili dan katolikotasunezko eritzi ori, erritarren gaiñetik ta auek kontuan artu barik, goitik-berako kaizar-agintaritzan aolkulari nagusi-lez ezarrita, danok batzangotuta geratu gindezan, menperatzailletasunezko bidearen ate guztiak zabaldu ebazan.

Eritzi orrek batera ekarri ebena: “Erri-gizarteko seme-alabaren artean, garrantzidunezko mailla ezberdiñetan banatzea”. Eta enoa aipatzen ezer: “Erritarrak, errege-jaunaren garrantzitasunagaz parekatu ezkeru”.

Eta Katolikotasun orrek, Kristautasuna alderdikidetu ebenean, ez zan ezberdintasuna bakarrik ekarri ebana, alderdikeri bideak be, almen bardiña-kaz aukeratu ebazalako.

Europa´n orregaitik, artekarizko erri-gidari arduradun lez sortzen zan jaun-erregetza guztia, Katolikotasun asmatutako ikastun´en (20) aolkularitzapean kokatuta geratu bear izan eben.

Eta euren andinaiezko-burukoikeri bidetik sortzen ziran arazoak konpontzeko, aundikerizko giza-maillan artu ebezan erabagi bidetik, erri-ezberdintasunaren ezkontza bidez asi ziran bakezten. Aukera-arloetan, gorentasunezko mailla ori bakez zaintzeko, onenatariko bat zala uste ebalako.

. (14) Aurkaldiko = contradicción. (15) Txeberaren sare-arteko = trampa. (16) Azpikeria = engaño. (17) Katholiko = “Latiña´ren bidez datorren itza da” orregaitik, itz Grekoak: “KATA” NORANTZA esan gura dauana eta “HOLOS” DANA edo DAN-GUZTIA esan gura dauan itzak alkatu ebazanean, eta Katolikotasunaren itza agertu, Kristauak lur-aundietan bananduta, ALDERDIKIDETU ebazan. (18) Sorburu = causa. (19) Negargarrikerian = desgracia. (20) Ikastun´en = personas cultas.

Beste aukera-artean, maltzurkerizko-guzurrak, guda-indarra ta nagusitasunak, erria bildurtzeko euki eben eragipenagaz (21), keiñuka ibiltea zan, eta maltzurkerizko izakizun guzti orreik erabili ebazan, ezeren lotsa-barik.

Baiña Euskalerrarentzat txarrena, Jaun-errege orrein berakadan, eta politika maillan Europa batzangotu ezinik ibilita, erlijio ta gizartearen eskubideak naastekatu bakarrik egiten ebalako, aukera maltzur guzti orrein artean, goian, Batzar-Jaun-erregeen arteko itzarmenean aipatu dogun baldintza da: "Erri-Batzarrak, Jaun-erregeakaz lotuta geratu zirala, euren ardurazko pakearen antolakuntzan bear ebezan guda-mutillak eskeintzeko". Nai-ta, Jauna ariñautik ordaindu bearrean geratu, bere kontukoak izaten ziranean.

Gure Jauntza, Espaina'ko erregeen eskuetan jausi zanetik ona, Euskaldunak, itzarmeneko antolakuntza orren bidez, gure artean, beti ibili gara borrokan.

Europa guztia egokitu zan ezinezko Naskuntz orretan, eta katolikotasun orreri bideratu eutson, 1.789'an Frantzia'n, azpikeriz iraultza agertu egian, Europa guztia batzangotu ezinik ibilita, gaur daukaguzan lur aundiko Laterri-menperatzaille oneik euki dagiguzan.

Europa'ri ekintza orren bidez, Erregeak, itzarmeneko antolabidearen eragipenetik euki ebezan erri ta izkuntz ezberdiñeko lurrak, berezko errien Nortasunezko-Izkuntz ta giza-eskubideen gaiñetik erregearen jabetasunera aldatuta, guda-mende legean goitik berako merkataritzazko jaurkitz ta latin-kumezko izkuntz baten egokitu eutsolako.

Or ! bidea, gure jauntza Franko edo Gaztela'ko erregearen jabetzan jausi daiten. Eta batzangotasunaren maltzurrezko guzur-joko orrek, arrazoi-an sortzen dabezan naastezko eragipenetik, gure Euskal-Nortasunezko izatasunak: "Erri, Oitura ta Izkuntz-lez aienatu daitezcan".

Baiña, mirariak-be badagoz JAINKOA'ren Mundu onetan, eta au, bat da antza.

Adibidez, alde-batetik: Balekite, lerrauts'a edo bolbora agertu orduko, eta gero-be, Bizkaitarrak indar aundia euki gendula, gero ikusiko dan lez.

Bestetik: Gure Batzarrak Euskal-jauntzaren denbora osoan itzarmen-dutako-baldintzak leial betetakoak, egi-zale ta zentzuzko itz'andikoak, Mariñel trebe ta itsas-ontziren egilletasunean jakintz-aundikoak izategai-tik.

Espaina'ko erregeak nai-ta katolikotasunaren eritzikoak izan, neurri andi baten beintzat, gure Foru-legeak lots-aundiz artzea erabagi ebela, Austria'tar errege guztiak artu eben antzera.

Ez, Segobia'n egon ziran Espain-gaztelar gortekoak, Zisneroz'etik ona, beti ibili diralako Bizkaitarrak ze lekutatik mendetu, gero ikusiko dogun lez.

(21) Eragipena = influencia.

Orregaitik, Bizkai'ko edestia irakurterakoan, kontu andian artu bear dira gauza bi-oiek: "Zeintzuk ziran eta zelan banatzen genduzan gure oiturazko legediak, Espaina'ko erregeen eskuetan jausi orduko. Eta zelango eragipenezko bideetan sartu gintzazan, gure Jauntza onen eskuetan jausi ta gero" epaitu egiten doguzenean.

2. ZATIA.

2.1. Bizkaia'n, izan ziran Eleiz-Aurreko Batzarrak, Uri ta Iribilduak (*), XVIII'garren gizaldi-erdian.

ELEIZ-AURREKO BATZARRAK - BUSTURIA'ko IBAR-YAURERRI edo MERINDADEAN-

1. Mundaka.
2. Sukarrieta.
3. Murueta.
4. Busturia'ko Axpe.
5. Forua.
6. Luno.
7. Ugarte de Múgica.
8. Libano de Arrieta. Esaten dabelako, an egon ziran sort-etxe bien izenetik datorrelako elkartuzko izen ori ?.
9. Mendata.
10. Arrazua.
11. Ajangiz. (Au, Udala da).
12. Ereño.
13. Ibarregelua.
14. Gautuguin de Arteaga. (Gaur Gautegez de Arteaga).
15. Kortezubi.
16. Natxitua. (XV'n gizaldian Ibarangelutik banandu zan).
17. Ispazter.
18. Bedarona.
19. Aulesti. (Edo Murèlaga gazteleraz)
20. Nabarniz.
21. Gizaburuaga.
22. Amoroto.
23. Mendexa.
24. Berriatua. (Gaur, Ondarroa'ko Billa'gaz alkartuta dagoena).
25. Cenarruza-Bolibar. (Bolibar'ko Ziortza).
26. Munitibar. (Arbácegui gazteleraz ?).

(*) Iribilduak = Villas.

- URIBE'ko IBAR-YAURERRIA edo MERINDADEA -

1. Gorozika.
2. Barakaldo.
3. Abando. (Gaur Bilbao'ko Udala'ren ardurapean dagoena).
4. Deusto. (1.925'ean, Bilbao'ko Billa'rekin eraspendu (anexiòn) zana izatasun-txikerra eukitegaitik).
5. Begoña. (1.925'ean Bilbao'ko Iribildua'rekin bateratuta).
6. Etxebarri.
7. Galdakano.
8. Arrigorriaga. (Bere kabuz edo borondatez Basauri'ko Batzarretik banandu zana eta Gernika'ko Lege-Biltzarrean mintzabide ta autapide'gaber a zigortua izan zana).
9. Arrankudiaga.
10. Lezama.
11. Zamudio.
12. Lujua. (Euskeratuta, Luxua, bere izena, baso, oian edo basarte esan gure dauan bidetik datorrena).
13. Sondika.
14. Erandio. (1.925'ean Bilbao'ko Iribildua'ri eraspenduta geratu zana, beren lurak Bilbo'ren 6 km'ko eremutik (espacio) barruan sartzen zalako).
15. Lejona.
16. Getxo. (Eleiz-Aurreko Batzar au, garrantzi eta kondaira andikoa dana, Las Arenas, Neguri eta Algorta'ren auzoak bere ardurapean egonda).
17. Berango.
18. Sopelana.
19. Urduliz.
20. Barrika.
21. Gorliz.
22. Lemoiz.
23. Gatika.
24. Laukiniz.
25. Maruri-Xatabe.
26. Bakio'ko Basigo.
27. Morga'ko Meakaur.
28. Mungia. (Foruen gora-beran, beti eutsi dautso Eleiz- aurreko batzar eta Iribildua'ren izatezko itxura'i, Gernika'ko Lege-Biltzarrera 4 ordezkari (diputados) bialduta).
29. Gamiz.
30. Fika.
31. Fruniz.

32. Meñaka.
33. Derio.

-BEDIA´ko IBAR-YAURERRIA edo MERINDADEA -

1. Bedia´ko San Juan. (Gernika´ra, Galdakano´gaz joaten zana Kolaziño´ko izenagaz).
2. Lemona.

- ARRATI´ko IBAR-YAURERRIA edo MERINDADEA -

1. Igorre.
2. Aranzazu.
3. Castillo eta Elejabeitia. (1.526´an Forua aldatu zanean, Eleiz-
aurreko batzar-bi lez agertzen dira).
4. Zeanuri.
5. Dima.
6. Olabarrieta.
7. Ubidea.

- DURANGO´ko IBAR-YAURERRIA edo MERINDADEA -

1. Abadiano.
2. Berriz.
3. Etxebarri´ko San Agustin.
4. Mallabia.
5. Mañaria.
6. Iurreta.
7. Garai.
8. Zaldua. (Gaur, Zaldibar deitzen dana).
9. Arrazola.
10. Apata Monasterio.
11. Izurza.

- MARKIÑA´ko IBAR-YAURERRIA edo MERINDADEA -

1. Xemein.
2. Etxebarri´ko San Andrez.

- ZORNOTZA 'ko IBAR-YAURERRIA edo MERINDADEA -

1. Amorebieta.
2. Etxano.
3. Ibarriuri.

Iturriza ta Zabala'tar Juan Ramon'ek, bere "Historia General de Vizcaya"ko liburuan, erri edo auzo-txiki lez aipatzen duzanak onek dira: San Juan de la Peña edo Gaztelugatz, Alboniga, Kanala, Akorda, Ea, Albiz, Gerena, Barinaga, Bernagoitia, Bedia, Zaratamo, Basauri, Alonsotegi, Zollo, Arakaldo, Larauri, Laukariz, Ipiña, Lamindano, Marzana, Mujika, Olaeta.

Onen arteko auzo batzuk, Alonsotegi ta Basauri lez, euren kabuz Arrigorriaga'ren Eleiz-Aurreko Batzarretik aldenduta, Eleiz-Aurreko Batzarraren mailla artu eben, Gernika'ko Batzarrak zigortuta baiña, autesmen barik geratu ziran.

Erri edo auzo-txiker onen Foruzko-etxeak, alboko erri edo Eleiz-aurreko Batzarren ordezkariak aurkezten ebazan Gernika'ko Batzarrean. Adibidez: Bedia'koa, Lemoa'ko ordezkariaren bidetik.

- IRIBILDUA 'k -

1. Durango. (Antziña'ko agerkizunetan Durango'ko Tabira'ren Izenagaz esetuten da).
2. Balmaseda.
3. Orduña.
4. Bermeo. (Iturriza'k esaten dau, Beren antziñako izena Erribero zala).
5. Plazenzia, Plenzia'ko jendaila (vulgo).
6. Otxandiano.
7. Lanestosa.
8. Bilbao.
9. Potugalete.
10. Lekeitio.
11. Ondarroa.
12. Areatza. (Bere erderazko izena Villaro).
13. Markina.
14. Elorrio.
15. Gerrikaiz.
16. Gernika.
17. Miraballes. (Gaur, Ugao lez ezagutzen doguna, an egon zan sort-etxe batetik artuta dagoena).
18. Mungia.

19. Larrabetzu.
20. Errigoitia.
21. Ermua.

- URIA (ciudad) -

Orduña.

-OROZKO´ren IBAR-YAURERRIA edo MERINDADEA -

Orozko, 4 Eleiz-aurreko batzarrarekin osotzen da.

1. Orozko´ko San Juan.
2. Murueta.
3. Albizu Elexaga.
4. Olarte, Urgoti eta Zalao´ko eleizkideak, Eleiz-Aurreko Batzar bat osotzen dabe.

Lasa eta Apalategi´tar Jose´k esaten dau: Ibar-Yaurrerri au ainbeste gauza gaitik garrantzi aundikoa dala.

Berak sortutako Fuero´gandik jaurkintzen zalako, nai-ta Bizkai´ko jauntzatic bananduta egon arren.

Larrazabal´eko zelaietan egiten ebezan ibar-yaurerriaren orokorrezko batzarrak, eta XVIII´n gizaldian 1.785´ean elkartu zan Gernika´ko batzarrera azkeneko ezar-lekuan eta bozka baten autapideekin.

- ENKARTERRIA ´k -

1. Gueñes´ko Ibarra.
2. Zalla´ko Ibarra.
3. Gordejuela´ko Ibarra.
4. Sopusuerta´ko Ibarra.
5. Arzentalet´ko Ibarra.
6. Turtzios´eko Ibarra.
7. Karrantza´ko Ibarra.
- 8.-9. Somorrostro´ko Ibarra. Gernika´ko Lege-biltzarrean 3 eta 4´ko erri-batzar´eko bazkun bitan banatzen zan, bakoitza beren ordezkaria euki eben autarkiagaz bialduta. Santurtzi, Sestao ta San Salvador alde batetik, eta Muzkiz´eko San Julian, Zierbana, Abanto de Suso eta Abanto de Iuso bestetik.

2.2 Gernika'ko Lege-Biltzarra.

SARRERA:

Lasa ta Apalategi'tar Jose'k, jakin daigun "EL PUEBLO VASCO" liburu oneri zergaitik emon dautson daukon izen-burua, liburua'ren sarrerako itz-aurrean, esakunde (22) ederategaz azten dau: Ez dala bardin "DEMOKRATA ZARELA ESATEA, IZATEA BAIÑO".

Gero: Euskalerrria, gaurko Demokrazizko berba oneik zer gura esan eben jakin barik DEMOKRATA izan zala, eta Abraham Linkoln'ek XIX'n gizaldian Amerika'ren bereizketa'ko (23) gudan Demokrazia'ren itza mugatu ebanean: "Erriaren-Jaurkintza, Erriagaitik eta Erriarentzat", Euskal- dunak askoz ariñago Demokratak giñela.

Orretzaz gaiñera, gure legearen oiñarrrian sartzeko, iru adierazpeneko atal ederrak aurkezten daskuz, 1^a "POLITIKA'ren BARDINTASUNA": Iñor aldendu barik, lege aurrean danak izan zirela BARDIÑA'k. Txiroak eta Aberatsak, neurri-bardiñean Jaun-Jabedunak izan ziralako.

2^a "POLITIKA'ren ASKATASUNA": Legea'ren aurrean danak gozatu ebela Askatasunezko-Politika bardinategaz, bereizketak ta bakartiaren eskubide zaleai burrukatuz.

3^a "ESABIDE edo ESABIDEAREN ASKATASUNA": "Danak, Erriak on-bear eben gauza guztiagaitik: Nai auzoko errepublika'ren batzarretan, Udal-erri, edo Orokorrezko Batzarretan, askatasun osoagaz berba egin eikiela". Gure erriak "ASKATASUN AU" ardura aundiz zaindu eban.

Gure erriak, eta Bizkaia'k batez-be, ondo jakin eban XV'n gizaldiko erri-nasletik aldatzen, 1.452'ko Foru zarrean idatzita dagozenak esaten daben lez. Eta XVI'n gizaldiko aurrerakuntzagaz bake ta aberastasunaren argira zabaldu ziran bideen lekuko, 1.526'ko Forua-berriztu zanaren legeakaz agertuten da.

Beste aldetik, ez dago iñungo arrazoirik ez sinesteko, XIX'n gizaldiko lantegi-gintzaren aldaketara ez zala egokituko, 1.876'ko Uztailla'ren 21'ean esku zikin batek samatik oratuta, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa'ko Erri-Foruak ez ba-ebesan ebagi.

Gernika'ren Batzarretarako Deia:

Genika'ko Lege.Biltzarrerera joateko deia, dei-adarrezko bost mendieta-

(22) Esakune = proverbio, sententia. (23) Bereizketaren gudan = guerra de secesión.

tik egiten zan: Gorbea, Bizkaitar mendigoizaleen biotzeko-mendia; Oiz, ibai eta ibai-adar askoren iturria; Sollube, betiko arrantzale eta itsasgizonen mendi-gidari dana; Bilbao'n Ganekogorta; eta Kolixa, Balmaseda eta Nerbioi-Ibarra'ren oar-toki edo talai-mendia.

Gernika'ko Lege-Biltzarra:

Leen esan bear doguna, Erdi-Aroan ainbat tokitik egiten ba-ziran orokorrezko batzarrak, garrantzi andia euki ebenen artean, Larrabetzu'ren eskumendeko Aretxabalagana'ren goian egiten ziran.

Gernika, oizko batzar-toki lez, Tello Bizkai'ko Jaunak 1.366'an Jorrailla'ren 28'an Orduña'tik Iribildua'ren izena emon orduko esagutzen zan.

Luno'ren eskumendeko lurraldea zan, Antziñako Santa Maria'ren Bas-eliza kokatuta egoan ariziti lekua, eta Gernika esaten eutsien.

Gero, Gernika danon erreztasunerako erdi-gune zan lez eta Tello jaunak iribildua izendatu ondoren XV'n gizalditik aurrera beraganatu ebazan Orokorrezko-Batzar-Nagusiak.

Eleiz-Aurreko Batzar edo ta Errepublikaren aitor-semeak, ordezeko arloan, zelango eratan egon ziran itxuratuta (24) Gernika'ko Lege-Biltzarrean ?.

Itaunak, argi azaltzen deusku, Busturia, Uribe, Arratia, Bedia eta Zornotza'ko Ibar-Yaurerri edo Merindadeagaitik berba egiten dogula, eurak izan ziran Gernika'ko Lege-Biltzarraren sortzailleak eta 1.452 ta 1.526'an, gure Aitor-Semeen lurrean Bizkai'ko-Foruaren Legeak-bildu ta berriztuta idatzi ebezanak.

Errepublika bakoitzak, erkidetasunezko erri-batzar zabalean ordezeko-bi aukeratzen ebazan, eta erriko-idazkariaren aurrean egokiro (25) alminduta, nai-ta nai-ez Gernika'ko Lege-Biltzarrera bialdu bear ebezan.

Aukeratzen ziran ordezkari oneik, erri-batzarraren izenean berba egiten eben, emoten eutsen mugatutako almenagaz.

Ordezkariak, errepublika'ko Batzarra'ren agindua, ia geienetan zabalik eroaten eben, eta euretik batek bakarrik eukiten eban itza ta autamenaren (26) eskubidea. Biak ondoan, beste ordezkariaren eskubideko eginbearra, aolkularitzarena izan zalako, eta autespeneko orduan ez ba ziran adoz aurkitzen, euren autarkia ezereztuta geratzen zan.

Ordezkariak, ez ziran deitzen eurak euki eben izenagaitik, eroaten eben errepublikaren-ordezkoagaz baiño.

Adibidez: Biltzarreko lendakariak deitzen ebanean berba egiteko, "Bermeo'ko Jaunak dauka berbea, esaten eban; Bolibar'eko Jaunak" eta

(24) Itxuratuta = representados. (25) Egokiro alminduta = debidamente autorizados. (26) Autamenaren = derecho a voto.

abar. Eta autarkia emoterakoan bardin: Bermeo'k dauka autapidea, Laukiniz dauka autapidea eta abar. Era orreitan, Gernika'ko Lege-Biltzarra, ordezkarien batzarra izan barik, Bizkai'ko erri-baltzu (27) edo errien-elkartasunezko batzarra izaten zan.

Gernika'ko Lege-biltzarrak, 12-15 egunekoak izaten ziran, eta Errepublikak ordaindu bear ebazan, ara bialdutako ordezkarien lo, janari ta joan-etorri bidea.

Ordezkarien ardurak, Orokorrezko-Batzarrak amaitzen ziran egunean bukatzen ziran, eta Bizkaitarrentzak ez zan egon omen andiagorik, nai-ta euren bizitzan, legegille aginte ori, baten bakarrik bete egiten ba-eben be.

IRIBILDUA'k:

Uri-Iribildua'k, noztik eta zelan egon ziran ordezkaturta Gernika'ko Lege-Biltzarrean ?.

Gogoratu bear dogu, Iribildua'k:

A) Auzo, leiñu, erri ta Gernika'ko Batzarrak baiño, milla-urte askoren ostekoak dirala, eta euren Euskal-lurretan eraiki ba-ziran, Bizkaitar guztien baimenakin eraiki zirala.

B) Uria'ren gizartea babesteko izan da-be, arresidunezko orma barruen esi'tzea, Euskal-lurraren zabaltasunezko bizitzan, sakabanatuta egotearen aurkakoa zala.

D) Baleiteke neurri-andi baten, kanpotik ekarritako kolonitarrekin erriratu.

E) Eta euren jaurkintza, Euskal-eskubidearen gaiñetik, Logroño'ko Foru arrotz-legean ezarri ziran.

Iribildu'etan, Eleiz-aurreko batzar-zabalak egiten ziranen aurka, alkatearen aginduan Udal-etxeko Batzarrak, itxita egiten ziran.

Iribilduak, Gernika'ko Lege-Biltzarrera, ez ziran XVII'garren gizaldi erdirarte sartu. Nai-ta XV'n gizalditik aurrera Eleiz-aurreko batzarrakaz, eskubidearen gora-beran, zalantza ta asarre andiak euki.

Bien arteko bakeak eginda, 1.630'eko urte inguruan asi ziran Iribildua'k euren ordezkari biak Gernika'ra bialtzen. Eta nai-ta Uri aundia edo txikerra izan arren, beste Eleiz-aurreko ordezkariak lez, ordezkari bat bakarrik euki eben legeztuta berba egiteko, autarkia emoteko, ta beste ordezkari bat, aolkularizko lanak betetako.

Baten batek esango dau, zuzen-kontrakoa dala, Bizkai'ko Bilbao Uri-Batza nagusienak, Ereño-Batza txikerrenaren beste, autarki bat eukitea.

Lasa'k baiña, itaun oneri beste itaun bategaz erantzuten dautso: "Ez zan izan naikoa, berezkoaren beste autarki ta mintzaren eskubide emotea, Euskalerriko lurak, Espaina'ko jaurkintzaren kabuz kolonizetan etorri ziran aurrekoai ?.

(27) Erri-baltzu = confederación, liga de pueblos.

Euskal-Batzarrak a-ta guzti, ez eben: “Lege´en aurrean danak bardiñak izatea”ren ekintzagaz, Lege-Zarraren urrezko-zentsuari, bear eben ordezkoa emon baiño besterik egin.

Eta arrotzari erakutsi: “Errepublika´ren autarkia, lur ta bertako jaiotza-ren eskubidetik agertzen zala, eta Iribildua´rena Errepublikak emoneko bidetik”.

A-ta guzti, non ikusi da: “Nor-Bere etxean kanpotarrai, etxeko-Jauna beste aginduten lagatzea?”.

Espainola´k, guri erakutsi ete dozkue, DEMOKRAZIA zer DAN ?

2.3. Bizkaiko Batzar-Nagusiaren Izkuntza:

Euskalerriko eta Bizkai´ko Lege-Biltzar guztietako izkuntza, Euskerea zan izkuntz bakarra, arek eta gure jauntza Espaina´ren eragipenean nastu arte, eta batez be, Espaina´ko errege izango zan I Juan´en (28) eskuetan jausi arte.

2.4. Noz, zelan eta zergaitik sartu zan latin-kume edo gaztele- ra gure Batzar-Nagusietan ?:

A-ta guzti, Gernika´ko Batzar-Nagusietara joan orduko, Eleiz-aurreko askatasunean egiten ziran Errepublika´ko batzar guztiak, danak egiten ziran Euskeraz. Bai eta Billa´ren mugatuko Udal-batzar geienetan be.

Lege-Biltzarrean, Latin-kumè (29) edo gaztelera, agintezko-izkuntz bezela artu zala, antziñatik datorren gauza da. Erregeak bere ardurak zaintzeko, bialtzen ebazan zuzendari (30) bidetik ain zuzen.

Errepublika´ren ordezkari geienak ala-ere, Euskeraz bakarrik jakin eben, eta a-ta guzti, gaztelerea indarrez, 1.614´ko Abendua´ren 10´ean legeztu egin zan.

Ortik aurrera, Orokorrezko Batzarretara joan bear ziran ordezkariak, latin-kumez idatzi ta berba egiten ebenak bakarrik bialtzea agindu eben, zigor, diru-zigor eta espetxearen keñaduragaz.

Alan sortu zan 1.624´ko Epailla´ren 19´an Orokorrezko Batzar-Nagusietan, Libano-Arrieta, Ispaster, Sondika, Leioa, Berango, Lemoiz, Laukiniz, Bakio, Areatza eta Ubidea´ko ordezkariak kanpora bialdu ebezanean, gaztelera ez ebelako jakin.

Eta alan dakar Labairu´tar Estanislao apaiza´k bere idatzitako liburu “Historia General de Bizkaia” bost´garren atalean. 1.625´eko urtean egin ziran Orokorrezko Batzar batzuetan, zelan ez ziran onartu: “Barakaldo,

(28) I Juan (1.358-1.390) II Enrike eta Billena´ko Juana Manuela, Diaz de Haro´tar Maria Teresa´ren bost´garren biloba eta Dn. Lopo´ren arreba izan zanaren semea. Lope onen eskubidetik etorten jakon Bizkaia´ko Jauntza eta 1.371´n Bizkaitarak bere izenean zifñ eginda, 1.379´an I Juan´ek Espaina´ko erregetza artu ebenean Bizkaia´ren Foruak be zindu ebazan. (29) Latin-kume = romance.

(30) Zuzendari = corregidor.

Ereño, Mujika, Berango eta Berriatua'k" bialdu ebezan aginduak, ordezkariak ez ebelako jakin irakurten, idazten eta gitxiago gazteleraz berba egiten, zigortuak eta espetxeratuak izan da.

Argi ikusten da, batzango-menperatzaille zale errege orreik antziñatik asi zirala erri-irasle edo kolonogille lanetan, nai-ta **GAUR ARTE "EZER" LORTU EZ.**

Gaur, gure ordezkari abertzaleak Euskeraz bakarrik alegintzen dira, eta nai-ta itzultzeko gailluak euki, adeitasunak (31) emoten dauan lotzagaz gazteleraz be berba egiten dabe.

Espainol-menperatzaille eritzikoak batzuetan beartuta, Euskeraz ez dakielako, sarrera labur batzuk baiño ez dabe egiten.

Ekintza ori, Bizkaitarren jabetzazko elburura begituta, pauso andiak emoten gabizela esan nai dau.

Nai-ta gaur, Espainola'k guzurraren bidez, legeak euren aldera maltzur-biurtuta, eta gure autesmeneko (32) aukerak indarrez murriztuta, Gernika'ko Lege-biltzarraren eta Euskadi'ko jaurkintzaren lendakariak Euskeraz ezer jakin gura ez.

2.5. Pase Foral'a zergaitik sortu zan ?:

Gure ordezeko batzar-kideak antziñatik konturatu ziran, euki genduzan Jaun-errege Gaztelar orreik azpikeriz, Iribildua'k iraspenduten asi ziranean, Euskalerrria kolonizetan ibili zirala, eta geiago, gure jauntza 1.379'an Gaztela'ko I Juan (33) erregearen eskuetan jausi zanetik.

Orregaitik, gure ordezkariak arduratu ziran « **ARAZO BARRIERI, NEURRI BARRIAKAZ** » aurre egiten.

1.406'an Gaztela'ko III Enrike "GAXOA" (34) il zanean, gure jauntza, urte-bi bete-barik euki eban IV Juan'en (35) eskuetan jausi zan, eta Katalina ta Fernando beren aita-amaren ordezekoak egiten egon zirala, gure Lege-Biltzarkideak beartu ebazan gure Foru'ai ziñ egien.

Eta Juan berak be, zin egin bear eutson adiñekoa biurtu zanean.

Baiña denboraldi oneitan Gaztela'ko erregeak "**Pase Foral**"a kendu gurean ibilita, Bizkaitarrak asarratu ziran, eta Jauna'k, arrazoia eukiela ikusi ondoren, 1.452'an Uztailla'ren 21'e an Gernika'ko zuaitz'pean egingo zan batzarrean, Bizkaitarrak euki ebezan oiturazko eta aukerazko-legeak idatzi egiezala esan eban: "**Que cualquier carta que el Señor de Vizkaia diere contra Fuero de Vizcaya, fuere obedecida y no cumplida**".

Eta alan idatzi zan Errigoitiko Santa Maria Eleiz-barrutian, Forua'ren leenengo liburuan.

1.526'an gure legegilleak, kontu aundiagoa euki eben Forua'k berriztu ziranean: "**PASE FORALA**"ren gora-beran, gure Bizkai'ko Jaunaren uler-

(31) Adeitasun = cortesía, deferencia. (32) Autesmen = facultad de votar. (33) Juan I de Castilla (1.358-1.390). (34) Gaxoa = Enrike III (1.378-1.406) el doliente. (35) Juan II de Castilla (1.405-1.454).

menak ez egian zalantzarik euki.

Eta alan diño barriztutako Forua'k bere XI'garren legezko I izenburuan. **Otro si dijeron: "Que habian por Fuero, y ley, y franqueza y libertad que cualquiera carta o Provisiòn Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere o mandare dar, o proveer, que sea, oser pueda contra las Leyes o Fueros de Vizcaya, directe o indirecte, que sea obedecida y no cumplida"**.

Bizkaitarrek, euren lege-gintzaren iraspenak (36) era orreitan oiñarritzen ebezalako, mende-gabetasunaren (37) jazarraldiak aurrera eroateko eskubide osoagaz agertu ziran.

2.6. Gaztelar erregeak, zelako ibilbidea egiten eben gure Bizkaia'ren Forua'ri itza edo ziñ egiteko ?:

1.369'an Espaina'ko errege-kume (38) I Juan'ek gure jauntza artu ebenean, Bizkai'ko Jauntza ez eben bat egin Gaztela'ko koroiaz, gure Batzar-Nagusiak I Juan'en pertsunagaz bakarrik itzarmentzen (39) ziralako.

Orrela, Itzarmen orreik, ez eben zer ikusirik Gaztela'ko erreinua'ren izatasunarekin.

Bizkai'ko lurraldea, ez zan sekula geratu lotuta Gaztela'ko legearen mende, Bizkai'ko Jauna'rekin baiño, eta iñoz iñoren mende, Jabetasuna Bizkai'ko Batzar-Nagusiarena izan zalako.

Orregaitik, Gaztelar erregeak euren errege-aulkian ezartzen ziranean, jauntzaren lenengo urtean zindu egin bear ebezan gure Forua'k, Forulegeak agintzen ebazan leku ta eratan 14 urte beteta edo bete ostean. Bestela, bere orde, gurasorde edo legezko aita/ama-ordezkoak.

Jauna Bilbora elduta, gure Foruak agintzen eban lez, Iribilduaren esi'ko (40) atean emon bear eben lenengo ziñ-itza. Santos Juanes gaxo-etxe ondoan egoana, eta gaur Atxuri'ko lur orretan langintzazko-trebetasunaren ikastetxea kokatuta dagoan lekuan.

Bertan, Bizkai'ko Jauntzaren ondoretzagaitik (41) onartua izaten zan, eta Bilbo'ko errege-jauregian atsedean labur bat eginda, Txorierri'ko ibarran egoan erromatar arbidetik (42), Gernika'ra bideratzen ziran. Gero Bermeo'tik, salerosle-merkataritzak joan-etorkeko izango zan bidetik.

1.526'an Foru-liburu barrien agindu bidez, Larrabetzu'ko Goikolexea auzoan dagon XI'n gizalditik San Emeterio ta Zeledon ziñ egiteko Eleizan egiten zan bigarren ekitaldia. Larrabetzu gero, I Juan'ek, Iribildu eban.

Morga'n egiten zan irugarren ekitaldia, Aretxabalagana bizkar-zelaian jauna'ren eskuari musuak emonda, Bizkaitarrak jaun barria'ri umajea (43) egiteko.

(36) Iraspenean = en su constitución. (37) Mende-gabetasunezko = desobediencia. (38) Errege-kume = infanzon, hijo de rey. (39) Itzarmendu = pacto, acuerdo. (40) Esi, arresi = muralla. (41) Ondoretzagaitik = corregimiento del señorío. (42) Erromatarren arbidetik = calzada romana. (43) Umaje egiteko = rendir pleitesía.

Laugarren ekitaldian, Gernika'n dagoan Antziñako Santa Maria Eleiza'ra joaten ziran, eta bertan Bizkai ko Lege-Biltzarkideen aurrean ziñ-aundiena emoten eutsien Bizkai'ko Forua'i.

Eta ortik, Bizkai'ko Jauntzan Zuzentasunezko-Lege-Buru izan zan Bermeo'ra joaten ziran, Santa Eufemi'ko Eleizan oiturazko ziñ egiteari amaiera emoteko.

Au da, gure lenengo idazpuruaren, I eta IIn. legeetan, 1.452'ko Furu-Zarrak agintzen eban ibilbidea, eta aldakuntz txiker batzuekaz 1.526'an barriztutako Foruak, gure Forua'ri ziñ egiteko esaten dauana.

1.476'an V'n Fernando katolikua'k egin eban azkenez bidai ori.

Gizaldi bat geroago Mendieta'tar Frantzizko'k margoztu eban, Gernika'ko Lege-Biltzar gelan dingilizka eskegita dagoena: V Fernando erregea aberats errege-aulki baten ezarrita, eta alboetan Oñaz ta Ganboa'tarrak euren armarren paperezko bilgoagaz (44). Goialdean, Bizkai'ko andrak euren txuntxur-antzeko burtsareakaz (45) eta atzean auzo bat bere eleiza, errekea ta mendiak ikusten dira.

Erregeak emendik aurrera, ziñatuta, paperezko agiri bat bialduko eutsoen Bizkai'ko Batzar-Nagusia'ri, Gernika'ko Zuaitz'pean Batzartuta irakurten zana, eta Bizkai'ko batzarragaitik beste barik onespenduta geratzen zan.

V Karlos'ek olan egin eben, eta Lasa'k diño: "Ez zala jaio gure bide-latzetatik mando-gaiñean ibilteko". Baiña baleike, beren burua, beste amets batzuen kabia izatea.

3. ZATIA.

3.1. BIZKAIA'ren LEENENGO JAUNA:

Durango'ko Jauna eta Nafarroa'ko erregearen ordezkoa izan zana Eztegi'zar Santxo il da, Bizkaitarrak euren Batzar-Nagusiaren lege-jaurkintzan babesteko eta antolabideak epaitzeko bearkuntzan agertuta, guda-buru ta epaillea aukeratzeko prestatzen asi ziran.

Busturia'ko gazte bat borroka orreitan egin-ebenagaitik aukeratu eben.

Abizenez "Lope" euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskozia'ko erregearen bir- seme edo billoba zana.

Eztegi'zar Santxo'ren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaia'ren leenengo Jauna: "JAUN ZURIA"ren izenagaz (888) ezagutu, eta 909'an il zana.

Or sortu zan Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa ta Araba'gaz batera Nafarroa'ko erreñuaz elkargotuta, 1.224'garren urterarte iraun ebana. Eta ez españatarrak esaten daben lez "BIZKAITARREN ASKATASUNA", Euskal-Askatasuna, bere izkuntza beste antziñakoa dalako.

(44) paperezko-bilgoagaz = rollos de papel. (45) Txuntxur-antzeko burtsareakaz = cofias-coniformes.

Espainola 'k ez dabe esaten Bizkaitarrak ez giñela iñoz laterritu ?.
Or, nun dagoen berezkotasunaren "Estadu edo LATERRIA".

3.2. BIZKAIA 'ko JAUNA 'ren ALDI-URRENA:

SARRERA: Iturriza eta Zabala 'tar Juan Ramon 'en "Historia General de Vizkaia" liburutik artzen dot Bizkai 'ko Jauntzaren lenengo sei jauntzuen aldi-urrena, gero Zelaia eta Ibarra 'tar Adrian 'en liburuegaz aurrera egiteko.

Baiña egia jakiteko, Euskaldun edo ta Bizkaitar guztiak irakurri bear geunke: "Labayru ta Goikoetxea 'tar Estanislao" Apaiza ta edestilariak idatzita daukan "Bizkai 'ko Jauntza 'ren Edestia". Beren gezurtabideko (46) iturritik, egi garbiena artzen dogulako.

Espainol edestilari maltzur-esanetan, Manso Loez 'en izena eta beste batzuen nastuz, askorentzat ez da berak eukena, edestilari orreik izen askorekin nastuten dabelako, nai ezkontzan, adiñetan eta bizi ziran urteetan: Manso, Munio, Muso. Nuño, Fortun, Iñigo, Lope Fortunez edo ta Ortiz ta Alonso.

Eta bere emaztearen izena: Dalda, Alda, Nuña Bella, Maria, Blanka edo Belaskita, Teresa Urbina 'koa eta Albira Bermui Lainez.

Semearekin be beste ainbeste.

Arrigarriena: Dalda ama, Jaun Zuriaren aitagaz ezkondata agertzen badebe, Jaun Zuria eta beren semeagaz be ezkondata agertzen dabe, aitona aita eta semearen emazte lez agertuz.

Espainia 'ko edestilariak, Euskaldun edo ta Bizkaitar edestia euren mende-aldera bideratzeko, okertzaille edo ta eskerniatzaille ezereen lotsabarik biurtzen dira "España-Imperial" en edestia izan dagian, euren erabilketak (47) elburu orregaz oiñarritzeko.

2 'n Jauna:

Jaun-Zuria 'ren seme, Dn. Manso Lopez (909) edo Dn. Nuño Lopez izenenez ezagutzen zana izan zan Bizkaitarren bigarren Jauna..

Nafarroa 'ko Santxo Abarka erregea eta bere emazte Teuda 'ren alaba Doña Blanka Belazkez 'ekin ezkondu zan, eta Dn. Iñigo euki eben seme Ezkerra izan zan Bizkaitarren irugarren jauna.

Manso edo Nuño Lopez au, Gaztelako Gonzalo Nuñez kondea, Fernan Gonzalez kondea 'ren aita izan zanarekin, adiñeko ta laguna izan zan.

920 'n urte-inguruan il zan, eta bere gorpua, Morga 'n Meakaur 'eko San Martin eleizan illobiratuta dago, 1.404 'an Lope Garzia de Zalazar 'ek idatzitako "Bizkai 'ko-Kronikaz" etan esaten dauan lez.

(46) Gezurtabideko = refutaciones. (47) Erabilketak = manipulaciones.

Eta Alonsotegi'ko Fr. Migel'ek esaten eban: Beren denboran, Eleiz orretan egon zirala il-baten obi-arriak. Eta baleike, 1.781'ko urtean aldare-aurrea zabaltzeko egin ziren lanetan, agertu zan ilobiko-arria (48) izatea.

3'n. Jauna:

Iñigo Ezkertiarra (49) esaten eutsoenari izan zan Bizkaitarren irugarren jauna.

Beren ezkontza gaitik ez da aurkitzen gauza garbirik, nai-ta batzuk, Nafarroa'ko errege Dn. Gartzia'ren alabagaz ezkontuta egon zala esan.

Lope Garzia'k esaten dau, Iñigo onek Mauritarrai, lur zabalak irabazi eutsezala, eta Leon'go erregeai aldatu eutsozala Enkarterriko lurraldearen truke, Bizkai'ko Jauntzagaz alkartuta, Bizkaitarrak euki eben eskubide bardiñean.

Bizkaitarrak alegindu eben konde'aren izen-aundiki ori artu dagiela, eta 924'ko urtean il zanean, bere seme Lope Iñigez'ek artu eban Bizkai'ko Jauntza.

4'n. Jauna:

Lope Iñigo Diaz eta Ortiz izan zan Bizkaitarren 4'n jauna (924), eta gaztelar Fernan Gonzalez eta Leon'eko errege II Ramiro'gaz batera, Azinaz'en borrokatu ziran Almanzor Mauritarren aurka, 938'ko urtean Dagonilla'ren 6'an.

Baiña emen-be naste aundia dago, Simankas'eko borroka orreri batzuk, Azinaz'eko borroka zala esaten dabelako. Beste batzuk, III Abderraman'en aurkako borroka ori Almanzor'en aurka gure dabelako biurtu. Eta Almanzor edo Abuamir Mohamed (940-1.002) onek, ez zan izan iñor 976'ko urterarte II Istxen'en (965-1.013) irugarrengo kalifatoan. III Abderraman (891-961) ariñauko 929 urtetik aurrera izan zalako Kordobako Kalifa.

Beste aldetik, Fernan Gonzalez ez zan egon borroka orreitan eta orregaitik, Leon'go errege II Ramiro'k, Munio Nuñez'egaz batera espetxeratu ebazan Klabijo'ko (50) Gazteluan.

Edestilariak borroka orren urteagaz be ez dira argitzen: Karrillo'k 930'ean izan zala, Garibay eta Sandobal'ek 931'n, Mariana'k 956-958 urte bitartean, Llorente'k 939'an, Burgos'ek 941'ean, eta Aponte'k 927'an.

Dana dala, Iturriza'k esaten dau, Kristauak, 931'ko borroka ori mirariz irabazi ebala, Santiago apostolua zaldi gaiñean eurei laguntzen egoalako.

Fernan Gonzalez kondeak iru zaldun-taldetan banandu ebala gudaloz-

(48) Ilobiko arria = lápida tumular. (49) Ezkertia izateagaitik esaten eutsena. (50) Clavijo = lugar al S. de Logroño que conserva los restos del legendario castillo, donde en el 960 estuvo preso Fernan Gonzalez. La batalla de clavijo es un imaginario combate entre los ejércitos de Ramiro I, o II y Abderraman III, venciendo los cristianos con la ayuda del apostol Santiago.

te ori, eskuin aldean Gusto Gonzalez de Salas bere semeekin, 200 zaldun eta mendiko 6.000 oiñezko-gudari.

Ezker aldean Lope Iñiguez ipini ebala, beste 200 zaldun'ekin Bizkaia, Bureba, Trebiño, eta Asturias'etik ekarri ebazan 6.000 oiñezko-gudarigaz.

Fernan Gonzalez atze-aldean kokatuta irugarren zaldun-taldeagaz eta 3.000 oiñezko gudarigaz. Guztiz, 450 zaldunakin eta 15.000 oiñezko-gudarigaz osotzen zala gudalozte ori.

Iru gau-ta egunean borrokan ibili zirala esaten dau, eta bertan Lope Iñiguez il zanean, bere lagun-gudariak gorpuari begira egonda, esan ebela: "Or, Bizkai'tar Lope kondea, sagarretan aberats eta txiro, ogi ta ardotan".

Lope Iñiguez'ek, Iñigo ta Garzia Santxez, urte gitxiko seme bi itxi ebazan, eta bien artean eroan eben Bizkaitarren Jauntza.

5'n Jauna:

Santxo Lopez izan zan bost'garren Bizkai'tar jauna, eta 973 edo 993'ko urtean Mauritarren aurkako borroka batetik etxera itzultzen egoala, Araba'n Morillas'eko Subijana'n, bere menpekoen artean bakeak egiten egoala, oarkabeko (51) gezi batek il eban.

Juan Basko'k esaten dau: Nafarroa'ko errege Santxo "Abarka"ren alaba, Blanka Belazkita'gaz ezkondata egoala.

Juan Basko'ri, Pedro Salazar de Mendoza jakintsuak urten eutson bidera esanez: Belazkita, Manso Lopez'ekin egoala ezkondata, eta 20'n. txatalean (52) esaten dan lez, Iñigo ta Garzia Santxez seme-bi itxi ebazala urte gitxigaz, eta Bizkaitarrak euren jaurkintzarako, bake ta gudarako gizona bear eben lez, Manso'ren sasiko-anai Iñigo (53) ezkertia aukeratu ebala.

6'n Jauna:

I Iñigo Lopez ezkertia (1.015-1.077) izan zan Bizkai'tar jauntzan sei'garren Jauna 1.040-1.077 urte bitartean, eta lenengoa agirietan agertzen dana. Ezkertia izan bear izan eben, edo baliteke beren aitonaren oroimenez, edo ta sasiko-seme izatearren, ezkertia deituko eutsiela.

Dana dala, beren Iñigo Santxez loba'i emon eutsozan Llodio ta Okendo'ko ibarrak, eta Luiando'koa Orozko'ko Gartzia'ri.

Zaldun bi onengaitik, aberats-lez aipatzen dabe Nafarroa'ko 1.020 eta 1.043 urteko agiriak. Eta Iñigo'ren senditik datoz, ainbat kardinal, gongotzain eta buru-nagusi emon ebezan Mendoza'tar leiñu edo iturburuak.

(51) Oarkabe'ko gezi batek = flecha descuidada. (52) Txatalean = capitulo. (53) Sasiko-anai = hermano bastardo.

Iturriza'k esaten dau, Iñigo-Ezkertia balikela, Nafarroa'ko erregearekin ibiltea, Nafarroa'ko jaurlaritzan, beren izeneko agiri batzuk dagozelako.

Larreategi eta Mendoza'ko Zalazar'ek ez dabe esaten ezer beren ezkontzari buruz, eta 1.044'an il zala.

Baiña bere seme Santxo'ren eriotzari buruz : 1.070'an Toda Ortiz bere emazteagaz San Millan'eri egindako emaitzan ; 1071'n Aragoi'ko San Juan de la Peña'ri, Mundaka'ko Santa Maria lekaidetxearen emaitzan ; 1.072'an San Millan de la Kogolla'ri, Iurreta'ko San Martin lekaidetxearen emaitzan ; 1.075'ean bere emaztearen eriotza, eta 1.076'an Nafarroa'ko IV Santxo Peñalengoa il ebenean, badakigu bizirik egoala, eta Adrian'ek ta Labairu'ren esanagaitik, nai-ta ziur jakin ez noz izan zan beren eriotzea, 1.077'an il zala emoten dau.

Emen esan bear da, 1.076'an IV Santxo'ren eriotz ostean, Aragoi'ko errege Santxo Ramirez'ek euskal-aldean, eta Gaztela'ko errege VI Alfonso'k (1.040-1.109), Naiara'ko erreinua esaten eutsienari egin eben mendekuagaz, Iñigo'ren sendia banandu zala, Fortunio Iñigez Nafartarrakin aurrera eginda eta Lope Iñigez gaztelarrakin alkartuta.

Artu eben erabagi ori, ez zan izan txarra Bizkaitarrentzat, Bizkai'ko Jauntzaren askatasuna lortu ebalako.

Ez eta Araba ta Gipuzkoa'rentzat be ainbeste, VI Alfonso gaztelarrak, nai-ta aginteko maillan neurri aundia lortu, Euskaldunek ez ebelako ezer galdu askatasunean eta politika maillan, len Nafarroa'ko alde euki ebazan zaldun-jauntzak, aginpide bardiñakaz aldatu ziralako Gaztelar erregeagaz.

Bizkai'ko batzarrak, Iñigo-Ezkertia'ren urrena, Dn. Lope beronen semea izendatu eben.

Ondorio labur-bat :

Adiñ onetako edestian, nai askoz aurretik etorrita be ikusten dogu, 1.035'ean Gaztela'ko ta Aragoi'ko erregetzak sortu ziran urtetik aurrera, errege-jaun'en arremanak ugarituz-gain, neurri bardiñean naspiltzen joan zirala eta egoera ortatik urten-ezinezkoa biurtzen.

Erdi-Ugarte onen erditik gorako gizartea, zoratuta bizi bear izan eben, bertoko eta Mauritarren aurkako borrokeagaz ; Ainbeste erromatar-godo eritziz, goitik-berako jaurkintzaren agindu-maillakaz eta ainbeste Kardinal, gongotzain, gotzain, abate, ta norkeriaren jauntzuketarako egon ziranai, umajea egiterakoan.

Euren artean danak senide eginda, sortzen ebezan arazo-bidetik, noren aginpean, edo umajea (54) egon ?.

Eta emen Bizkaitarren gaiñetik Euskalerra osoa aipatuko neuke, mirari aundi-bat dalako, betiko Euskal-sinismenean agertu gindezan.

(54) Umaje = pleitesia.

Geiago, 1.076'an Nafarroa'ko IVn. Santxo Peñalengoa il ebenetik aurrera, Euskal-Laterriarentzat gogortzen asi ziralako erasoak, gure Askatasunezko-Nortasunean aienatu edo ta euren andikerizko ameskeri aurrean buruak makurtu gendizan.

Bizkaitarren kalterako, kanpotik agertzen ziran arazoai aurre egiteko, Jaun-Bizkaitarrak beti alkartu ziran Gernika'ko Batzar-Nagusia'ren agindupean, eta zintzo jokatu, korapillo orretatik urteteko.

Bizkaitarrak, alan jokatu eben euren garaian. Al izango ete gara gu, gaurko korapillo bardiñatik urteteko ?

Bizitz onen Belaun-aldiko giza-garai guztiak bardiñak dira, aldi guzti orreik, azpian danak egin-bear bardiñakin marraztuta dagozelako: "ERRIGIZARTEAREN GARAIKO BELAUN-ALDITAN, NORTASUNAREN ORDEZKARITZAZKO ARDURA-BIDETIK, OREKAZKO-EKANDU-AK LORTZEA". Egin bear dan-guztia baiña, JAINKOA'ren LEGE'zko aginduari begira, Nortasunaren-Demokrazizko-Askatasunean sinismen aundiagoak lortzeko.

7'gn Jauna :

III Lope Iñiguez jauna "ille-gorri", izan zan gure II'n Jaun agiriduna, eta emendik asita aurrerako edestia, ziurtasunezko argitara agertzen garela esan nai dau orrek.

III Lope Iñiguez, Iñigo Lopez ezkerra eta Toda Ortiz'en semea izan zan.

III Lope Iñiguez, Ziz-kanpeador'en lengusu Andre Tekla'rekin ezkondu zan, eta euki ebezan seme/alabak:

Diego Lopez de Aro, Bizkai'ko jaurkintzan ondorengoa izango zana, eta Aro'ko etxean lenengo kondea.

Santxo Lopez.

Andre Toda, Araba'ko kondea izango zan Lope Gonzalez'egaz ezkondu zana.

Andre Santxa.

Eta Andre Teresa, Garzia Santxez'egaz ezkondu zana, izan ziran.

IV Santxo Peñalengoa il ebenetik eta Nafarroa'n sortu ziran eztaibadagaitik, beren aita Iñigo Lopez'en antzera, Gaztela'ko VI Alfonso'ren eragipenera (55) ondoratu zan, eta Bizkaitarren Jauntzaz-gain, bere aginterria: Naiara (56) galduta, IV Santxo Peñalengoa il eben arreba Urraka'k, Gaztela'ko Gartzia Ordoñez'egaz ezkondu egon zana berrezkuratu ebalako, Araba eta Gipuzkoa konde-lez (1.085-1.090) jaurkitu ebazan.

Bizkai'ko Jauntzan zoritxarrez, beste garrantzi aundiko arazo-bat sortu jakun Iñigo Lopez il zanean, Lopez Iñigo'k Bizkai'ko Jauntza artu ebenean iñork ez ebelako ezer esan, ortik aurrera, sortzez, odolez edo ondorengo na-

(55) Eragipenera = influencia. (56) Naiara = Nájera.

gusigai (57) zanak artzen ebalako.

Adrian'ek esaten dauan lez: Bizkaitarrak, lotan egon al ziran aldi orre-itan ?.

Ez dot uste.

Bizkai'ko jaunak, Gaztela'ko jaurkintzan orain arte eta emendik aurrera artu ta artuko eben indarragaitik, Bizkaitarrak bat-ala-beste (58) sare-arteko eragozpenean arrapatuta, gure jauntza Aragoi edo ta Gaztelar erregeen jabetzatik aldentzeko, alegin guztiak egin ebelako.

Zoritxarrez baiña, ondorengo bide orretatik Gaztelar errege I Juan'en eskuetan jausi giñan.

Emen esan bear dogu, Iñigo Lopez eta bere seme Lope Iñigez Jauna, zelan aldatu ziran Nafarroa'ko alkartasunetik, VI Alfonso gaztelatarren eragipenera.

VI Alfonso gaztelarrak, Iñigo Lopez eta Lope Iñigo gure Jauntza'ko aita-semeak, Nafarroa'ko jaurkintzan euki eben indarragaitik, Naiara'ko jaurkintzatik kendu gura ebezan eta Gartzia Ordoñez bere zaldun'ari emon.

Alfonso konturatuta baiña, Errioxa'n zelango Nafartar zaletasuna egoan, IV Santxo Peñalengoa il ebenean, onen arreba Urraka, Gartzia Ordoñez'egaz ezkondu eban, eta or, berrezkuratu eben Naiara'ko jaurkintza.

Ez gara aztu bear, VI Alfonso gaztelarra, IV Santxo Naparra, bere arreba Urraka eta Santxo Ramirez Aragoi'ko erregea, istar-lengusuak (59) zirala.

Lope Iñigez, naste orren bidez eta buruan ondo ausnartuta, Alfonso'ren aldera egokitzea erabakitu eban, ararte bere jaurkintzan izan zan Naiara'ren jaurkintzarako aolkuak emonez batera.

Orretarako, Diego Albarez bere aitagiñarrebaz, Santillana-Asturias'-era joan zan Alfonso'rengana menpekotasuna eskeintzera.

Eta egiz joan zala ziurtatzeko, Gaztela'n bere jaurkintzan euki eban Bilibio'ko (60) jauntza, Alfonso'ri emon eutson.

Lope Iñigez'ek artu eban erabagi au, garrantzi aundikoa da edestirako, emendik eurrera eta urrengo gizaldian 1.224'ko urtean guztiz aldatu arte, Bizkai'ko Jauna'k geienez, Gaztela'ko erreinuaren eragipenean ibili ziralako.

A-ta guzti, Labairu'k esaten dau: Lope Iñigo Jauna'k, beti ibili zala Bizkaitarren Askatasuna zelan babestu, nai-ta Zelaia ta Ibarra'tar Adrian'ek, bera ez-baikorra dala esan.

Nik uste dot, Labairu'k arrazoia daukala, gaztelarren jaurkintza kolonigille izanez gain, goitik-bera mendeko zaletasunean asi ziralako eraikiten, erromatar-kaizar-katoliko elburu orreik lortzeko.

(57) Sortzez edo ondorengo nausigai = herencia o hereditariamente. (58) Bat-ala-beste = dilema. (59) Istar-lengusuak = primos carnales. (60) Bilibio'ko Jauntza = Ebro-ibai ondoan kontxaz de Aro'n dago Bilibio'ko gaztelu-zar edo jauregi-zarra eta tenientgoa (tenencia), Briñas'etik urbil, Bañares erri-Iribilduan, Aro'ko Udala'ri dagokiona.

Lope Iñiguez 1.093'an il zan.

8'gn. Jauna :

1.093'an I Lope Iñiguez il zanean, bere seme III Diego Lopez, zuria esaten eutsoenai 1.093-1.124 urte bitartean artuko eben Bizkaitarren Jauntza, eta 1.121'an asieratik urte batzuk geroago abizen lez, Aro'ko erri-tokiaren izena.

Aro'ko izena artzea, ez dau esan gura, eurak izan zirela Aro'ko erriaren sortzailleak, Xn. gizaldian Bilibio'ko agintarien babespean Aro'ko erri-bazter ori bere gazteluagaz, bizitza eukelako.

IV Santxo Peñalengoa'k emon eutson Diego'ren aita Lope Iñigo'ri Bilibio'ko gaztelua jaurkitu egian, eta beragaz Aro ta inguruko lurraldeak, ia Miranda de Ebro'raiño.

Lopez'tarrak ortik aurera, aundiak izan ziran Errioxa'ko lurraldeetan, eta ez bakarrik ondore lez artzen ebazanagaitik.

Aro'tarrak, Nafarroa'ko III Garzia Santxez eta bere seme IV Santxo Peñalengoaren errege'tzazko aldi-bidetik artu ebazan Errioxa'ren agintari ardurak (61).

Baiña, Gaztela'ko VI Alfonso guda-bidez, Errioxa'ko lurraldea mendetu ondoren, Aro'tarrak baztertu egin ebazan, eta Alfonso il zanean, bere alaba Urraka Gaztela'ko erregeiña eginda, Aragoi'ko I Alfonso gudalariagaz ezkondu zan.

Urraka'k, bere Gaztela'ko jabetza zaintzeko, Diego Lopez onen egi-bide ta leialtasunaren zentzuzko serbitzu-truke, Errioxa aldean euki eben ospe-on bidez, ostera emon eutsozan lurralde orren ardurazko jabetzak.

Aro'tarrak artekari lez ortik aurrera, mailla aundiko ospedunak, aberats eta indartsuak biurtuko ziran. Bizkaitarren jauntzaz gain, Nafarroa'ren agintari aldiak zentzuzko jokoan egin ebenagaz eta ortik aurrera Gaztela'ko jaurkintzaren eragipenera aldatuta, egingo ebazanarekin.

Lope iñiguez "ZURI" onen bizitzazko denboran, orduko mende-zale erregeak, norleriaren maltzuzeko-guzur naste-bidez ekarten ebazan asmoak, aipatu dodazan errege guztien alde, edo ta aurka, sailean edo naasmaas borrokatu zan, eta danak lotsa aundian artu bear izan eben euren aurrean, nai alde edo aurka jokatuta, ekandu aundiko gizon zentzuduna izan zalako.

Baiña baleike izatea, eta ni ziurtasunezko uste osoan nago, Aro'tarrak zentzu andiko gizonak izanez gain, Bizkai'ko jauntzaren bidez, gudarako indar aundia euki ebala, eta edesti guztiko Espainol aldeko edestilariak Bizkaia'ren agiriak erre edo desagertuazo egiteagaitik Bizkai'tar agiririk agertu ez, egin ziran guda-guztietan Euskaldun asko egon zirala.

Euskaldunak egon ziran bai, baiña alde guztietatik, erregeak agintari-

(61) Naiara'ko erregetza esaten eutsienai batez be.

tzazko maillan eta Mauritarren aurka katolikotasuna burutzeko Erroma'tik artzen eben nagusitasunetik, euki genduzan Jaunak, gugaz demokraziaren itzarmeneko oituragaz lotuta egon ba-ziran be, beti egon ziran txeberazko sare orreitan arrapatuta, eta erregeen artean euren norkerizko borroka bidez, Euskal-erritarren lurak bat edo bestearen mendean egonda, beti ibili giñan anai-artean etenbako borroka baten.

Eta konturatu egin bear gara, Errioxa ta Aragoi'ko erritarrak denbora aietan Euskaldunak zirala.

Bestela, zelango zentzua dauka, Aragoi'ko erregeak XIIIIn. gizaldian Ojakastro'ko epailea'k, euren epaiketetan Euskeraz egin dagian baimentzea, erritarrak ez ebelako beste izkuntzarik jakin, eta Latiegi'tar Bizente'k Ueska'ko agiritegian aurkitu eban XVIIIn. gizaldiko agerkaia, erritarrak Euskeraz berba egitea debekatzen eutsoena (*).

Dana dala, Bizkai'ko Jauntzan eta Gaztela'ko jaurkintzan, Aro'ko-leiñu au izango zala garrantzitsuena 276 urteetan, 1.093'an III Diego Lopez de Aro eta gure jauntzan bigarrenak artu ebenetik, euren sendi bidetik, Espaina'ko errege 1.379-1.390 urte bitartean izango zan I Juan'en eskuetan 1.369'an jausi zan arte.

Diego Lopez "ZURI" au, Garzia Ordoñez kondea'ren arreba Maria Santxez'ekin ezkondata egoan eta lau seme euki ebazan: Lope Diaz de Aro, bere ondorengoa izango zana; Gilo Diaz; Santxo Diaz; eta Fortunio Diaz de Aro.

III Diego Lopez Zuria, bigarrena gure jauntzan eta lenengoa Aro izenarekin 1.124'an il jakun, eta Kukulla'ko San Millan'en illobiratuta dago.

9'gn. Jauna:

Jakin daigun zelako garrantzi aundia euki eben gizon onek, nai Bizkai'ko jauntzan eta Gaztela ta Naiara'ko Jaurkintzan, aurkitu dodazan zertzelada geienak aurkeztuko dautzuedaz.

1.124'an III Diego Lope Zuria Jauna il zanean, bere seme IV Lope Diaz de Aro izan zan Bizkai'tarren Jauna 1.124-1.170'eko urte bitartean.

Iturriza ta Labairu'ren liburuetatik artuta, Lope Zuria birritan ezkondata egoala esaten dau: Menzia, Arias kondearen alabagaz ezkondu zala leenengoz, eta Aldonza Rodrigez andrea, Rodrigo Fernandez Kastro'ko kondearen alabeagaz bigarrenez.

Aro'ko Diego Lopez izan zan leenengo semea, Bizkai'ko Jauntzan bere ondorengoa izango zana;

Aro'ko Lope Lopez, gizon aberatsa gaztelanian, eta erregearen agiriak baieztu egiten ebana;

(*) Zeaztasun au, "Real sociedad de los amigos del pais" 2.002-1 LVIII'ko boletiflean daukazue "EL EUSKERA en la HUESCA de los siglos XIV al XVII"ren izen buruarekin.

Aro'ko Santxo Lopez, Kalaorra'ko Eleiz-Nagusia'ren epaitegiko (62) batzarkidea izan zana;

Aro'ko Rodrigo Lopez, gaztelanian gizon andikia;

Aro'ko Martin Lopez, gaztelanian gizon andikia;

Aro'ko Pedro Lopez, gaztelanian gizon andikia;

Aro'ko Alonso Lopez, gaztelanian gizon andikia;

Aro'ko Urraka Lopez, Leon'go II Fernando erregeagaz ezkondu zana;

Aro'ko Menzia Lopez, ezkondua eta kondesa izan zana;

Aro'ko Toda Lopez, abat-andre izan zana.

Aro'ko Aldoza andrea, 1.169'an bere aita Aro'ko Lopez'ek, Errioxa'ko Kañas'en eraiki eben Santa Maria lekaime-etxean abat-eme izan zana;

Eta Aro'ko Lope Diaz, Siguenza'ko gotzaia izan zana.

1.122'an, Diego Lopez Zuria bere aita il baño urte bi lenago, VII Alfonso (63) gaztearengana joan zan umajea (64) ta beren serbitsua eskeintzera, eta 1.123'an, Aragoi'ko I Alfonso gudalariaren eskuetan egoan Burgos'eko gaztelua berrezkuratzen lagundu eutson.

1.134'an, Nafarroa eta Aragoi'ko errege I Santxez'tar Alfonso "Gudalaria" il zanean, Nafarroa'n 1.134'ko Urrian V Gartzia Ramirez "Berritzaillea" aukeratu eben errege, Araba, Gipuzkoa eta Durango aldeagaz batera, eta Aragoi'n, Ramiro "Lekaidea".

Baiña, Gaztela'ko errege VII Alfonso, urrengo urtean Kaizar-Jaun (65) izendatuko ebela arro, ta Nafarroa ta Aragoi'ko erregetzaren jabe-eskubidea berak eukala siniskoi, Errioxa osoan sartuta, danagaz jabetu zan, Aro'ko Lope Diaz Bizkai'tarren Jauna eta bere anai Santxo Diaz'en laguntzagaz.

1.135'ean Anai biak egongo ziran Leon'go erregetxean VII Alfonso "kaizar" koroatu ebenean.

"1.137'an, IV Lope, Gaztela'ko VII'n Alfonso erregearen alde egon zalako, Nafarroa'ko VI'n Gartzia'ren aurkako borrokan" Bizkaitarrak kendu eben jauntzatic eta Nafarroa'ko erregeagaz alkartu ziran.

Aro'tarrak, sarri eroan eben Gaztela'ko errege-bigarren izatea edo Alferazgo agintaritzza. Ararte ziranen artean danen gairietik nabaritu zana baiña, 1.157'ko Dagonilla'ren 21'ean VII Alfonso il-da, ta bere seme III Santxo "Itxarokorra" (66) esaten eutsoenai izendatuta, Aro'ko Lope Diaz, izan zan Gaztelako erregetzan bigarren edo alferazgoko agintaritzza eroan ebena.

1.158'ko Iraila'n edo Urrilla'n il zan Gaztela'ko errege III Santxo "Itxarokorra" eta Gaztela'ko erregetzaren agintaritzan, Kastro ta Lara'ko etxeak, bekaizkeri bidetik eztaibada gogorretan ibili ziran lez, Aro'ko Lopez'ek ez dauka aipamenik aldi onetan.

1.162'an agertzen jaku, Gaztel-Ugatx'eko San Juan eleiza lekaide-etxea biurtu gurean, egiten dauan emaitza gaitik.

(62) Arcediano = Juez del cabildo de la catedral. (63) VII Alfonso = 1.105-1.157 urte bitartean errege izan zana. (64) Umaje = pleitesia. (65) Kaizar-Jaun = emperador. (66) Itxarokorra = el deseado.

1.162'ko urte onetan, Aro'ko Lopez Diaz onek: Bizkai'ko Jauntzaren gain, Naiara, Ojakastro, Gaztela-zarra eta Trasmiera'ren jaurkintza euki eban, eta Gaztela'ko jaurkintzan bere aurka, Kastro ta Lara'ren bekaizki bidez sortzen eutsezan eztaibadak, ez eban lez onartzen, beren ardurazko jabetzak zain geratu zan.

III Santxo'ren semea, VIII Alfonso (1.155-1.214) "Ona" esaten eutsoenai, 1.157-1.214 urte bitartean izan zan Gaztela'ko errege, eta 1.168'an Toledo'n Koroatu ebenean, Leon'go errege II Fernando bere osaba, Toledo'n bertan inguratu eban.

VIII Alfonso'k gero, nai-ta 13-14 urte baiño euki ez arren, Zurita berak inguratu eban, eta Zurita menperatzeko beren zaldunai deituta, oneik, Aro'ko Lope Diaz'eri ez eutsoen ezer esan, Kastro ta Lara gaztelar etxeok euki eutsen bekaizkeriagaitik.

Lope gure Jauna baiña, jakiñ-erazita, bera joan zan batu ebazan Bizkai'tar Zaldun ta guda-mutillakin Zurita inguratuta egoan lekura, eta erregeari eskatu, aundieneko arrisku-lekuan ipini egiala.

Lope Diaz'ek, ikas-bide ederrena emon eban guda ori garaipendu ondoren.

Lope Diaz'ek, VIII Alfonso diru aldetik euki eban larritasunagaz oartuta, eskeiñi edo ordaindu bear eutsozan diru, edo ta artu bear eben zatia guda-ondakiñetik, ez ebalako gura ezer.

VIII Alfonso'k, bere basailu edo menpekoa izatea-gaitik Naiara'ko erregetza esaten eutsienai emon eutson maiztergo edo feudopean, eta ortik esaten eutsen Nafarroa'ko Lope Diaz kondea. Bai, betirako Aro'ko iribildua bera eta beren ondorengoai.

1.169'an Errioxa'n, Kañas'eko zisterzienze'en lekaimetxe ta eleiza eraiki eban.

Dirua be atara eban, eta otso-bi edergarrian irarrita euki ebalako, txanpon-diru orrei "Lobis"eko izenagaz ezagutu ziran. Gero otso-bi orreik Bizkai'ko armarran irarri zirenak aretx ondoan.

1.170'eko Loraila'n 6'an Siguenza'ko Gotzaindegian istripuz jausita il zan, eta Naiara'n Santa Maria erregearen lekaidetxe'ko zimitorioan (67) illobiratuta dago.

10'gn. Jauna:

Aro'ko Diego Lopez "Ona" esaten eutsoenai izan zan urrengo Bizkai-tarren Jauna 1.170-1.214 urte bitartean, eta Rodrigo Jaun artx-apezpikuak (68) esaten dauan lez: Aro'ko Diego jauna, indartsu, zentzunduna, gudaria, aunditasun andikoa, eta Espaina'ko aundikien artean andiena, izan zala.

Aro'ko Lope Diaz bere aitak, jaurkitzeko itzi eutsezan lurraldeak baiño geiago zabaldu ebazan, eta Bizkai'ko Jauntza'ren gain: Bureba; Erri-

(67) Zimitorioa = claustro de la iglesia. (68) Artx-apezpikua = arzobispo.

oxa; Gaztela-zaarra; Balpuesta; Belorado; Grañon; Kanpoo'ko Agilar; Monteagudo; Logroño; Soria; Kalaorra; Naiara maiztergoan (69); Gaztela'n ibar-yaurerri (70) aundiena; eta Gaztela'ko erregetzaren alferazgoa 1.180'ko urtean, euki eban.

Egon ziran erregetza guztien andiena izan da, ez eben euki ezeren bildurrik alkartuta egon ziran erregeai arpegia emoteko eta banan-banan: Leon, Gaztela, Nafarroa eta Aragoi'ko erregearen aurka egiteko.

Bizkai'ko Jaun Aro'ko Diego Lopez-on onek, aietako denboran aifñ gizon garrantziduna izan da, eta Kristau-erregeak katolikotasun garaipenak lortzeko, Mauritarrakaz eten-bako borroka baten egonda, ez eben euki urten biderik borroka aietatik aldentzeko. Eta alan ikusten dogu, Gaztela'ko VIII Alfonso erregeak eskatuta, 1.212'an Tolosa'ko Nabas'en egin zan borroka nagusi orretan.

Aro'ko Diego Lopez, Maria Diaz edo Manrrike de Lara, Nuño Lara kondearen alabagaz ezkondu zan lenengoz, eta izeneko IIIen. Aro'ko Lope Diaz, "Suar-Buru" (71) esaten eutsoen semea euki eban, Bizkai'ko Jauntzan bere ondorengoa izango zana.

Maria gazterik il jakon eta Ruiz de Azagra'tar Pedro'ren alaba Perez'tar Andre-Toda'gaz ezkondu zan bigarrenez.

Onegaz, euki ebazan seme-alabak oneik dira: Andre-Urraka, Lara'ko etxearen Albaro Nuñez'egaz ezkondu zana;

Andre-Maria, Lara'ko etxearen Gonzalo Nuñez kondeagaz ezkondu zana;

Andre-Menzia; eta Pedro Diaz.

1.177'an Aro'ko Diego Lopez'ek Toda bere emaztea'gaz, Naiara'ko Santa Maria erregearen lekaidetxea aukeratu eben euren eriotzako orduan illobiratzeko, diru asko emonda.

Itz edo taket-artean esan bear dotena:

Leen: "Europa, beti izan dala gorputz-bat, 325'eko urtean Nizean dingilizka ipini zan asmatuko elburua, danok Aita-Santu ta kaizar baten mendean bizi gintzazanetik, Europa'ko dan guztia alkar-lotu egin ebalako".

Eta guzti au ziurtzeko ez da bear besterik, Gurutzeko-guda'k euki eben aurrerakuntza edo bilbakuntza (72) ikusi baiño.

Orregaitik, Europa'ren errien arteko politikan, erlijio, edo ta ekonomi aldeko arazoak konpontzeko Estraburgos'era joatea, eurakaz zer ikusi ez daukan batek edo alderdi-gabeko batek arazoak epaitu dagiazan, ez da gaurkoa bakarrik.

Katolikotasunaren eleiz-batzarrakaz alde batetik, eta Labairu'ren bigarren liburuan 162'ko orrialdean esaten dauan lez: "1.176'an be, erregeak

(69) Maiztergoa = feudo. (70) Ibar-yaurerri = merindad. (71) "Suar-Buru" = cabeza brava. (72) Aurrerakuntza edo Bilbakuntza = evolución.

norkeriaren bidez eukiten ebazan eztaibadak, alderdi-gabeko errege (73) batek epaitu egiten ebazalako (74).

Bigarren: “Jakin daigun zelako maltzur-jokoa egiten eben, batzango-tasun alde, guztiz sartuta egon ziran espainol edestilariak: Labairu´k liburu oneitan nor guzurtatu (75) egiten dauan geien aurkeztuko dautzuet”, euren ikasketak eta bizitzako maixutasunean idatzi ebazanak aurkeztuta, eta Aro´ko Diego Lopez´eri buruz Labairu´k gezurtatu egiten dabena.

Labairu eta Goikoetxea´tar Estanislao Jaime de: Delfin de Labairu eta Monet´tar Nikolas, Filipinas´en Batangas eskualde´ko guda-jaurleri, eta Bilbao´ko, Goikoetxea ta Lezea´tar Bonifasia Antonia´ren semea izan zan.

1.845´eko Loraila´ren 7´an Batangas´en jaioa, eta 1.904´ko Urtarrilla´ren 22´an Bilbao´n, birietako miñagaz il zana.

Filipinas´etik aita-ama eta iru anaiak Bilbora´ko bidean itzultzen zirala, aita il jakien.

Lenengo ikasketak Bilbao´n, Gazteiz, Burgos eta Bartzelona´n eginda, 1.871´an Toledo´n, eleiza´ren ikastetxe nagusian, eleiz-araudietan maixu-mailla artu eben eta 1.872´an apaiz egin zan.

Orduko denboran egoan erlijio-politika eztaibadagaitik, albizaritzaren berri-idazlearen eragipeneko indarrak deituta, Eleiza, Euskadi eta Bizkaia´ri buruz, ordaindu ezinezko ainbat gauza idatzi ebazan, artean, nik aurrean daukat “HISTORIA GENERAL DE BIZKAIA” liburu eder au dala.

Llorente´tar Juan Antonio: Espainol idazle ta apaiza, 1.756´an Logroño´ko Rincon del Soto´n jaioa eta 1.823´ean Madrillen il zana.

Kalagurri´ko apaiz ta Bikario-Nagusi, eta ezereztu gura eben inkizizio´aren idazkari nagusia izan zana.

I Bonaparte´tar Jose´ren jaurkintzan laguntzaille izan zana, eta 1.792´an Fuero-juzgo´aren legea; 1.818´an Espaina´ko inkizizioaren ikertutako-edestia Frantzez izkuntzan, 1.822´an Gaztelerera itzuli ebana; eta “Portraist politiques des papes” idaztearren Frantzia´tik kanporatu egin ebena, eta abar.

Labairu´k, arrazoi aundiekin: Llorente´ri: “Maltzur-guzurti, edo Eskerniatzaile-jokuan arrapatutako erruduna dala” esaten dautso.

Eta bere guzurtapeneko lanean itandu egiten dau: “Gizon jakintsu batek, zelan euki leukio Euskalerra´ren Euskereari eta Bizkaitar izatasunari batez be, ainbeste gorroto.

(73) Europa´ko errege guztiak senitartekoak izan arren, Berezko-Legeak beartuta, erdiko izatea eskatzen daualako. (74) Frantzia edo ta Ingalterra´ko erregeak, Nafarroa eta VIII. Alfonso gaztelarren arteko arazoak konpontzeko. (75) Guzurtatu = refutar.

1.202-1.206'ko urte-aldi illunak ziran Diego Lopez'eri buruz, Garibay, Zurita eta Moret'ek, urte orreitan gertatu zan guztia 1.206'ko urtean kokatzen dabena.

Labairu'k, 1.202, 1.203, 1.204, 1.205'eko urteetan kokatzen dabezanak, dagozan zeaztasun gitxigaz

Dana dala, gertakizun oneik, Diego'ren arreba Aro'ko Urraka Lopez alargundu zanean asi ziran.

Moret eta Garibay'k auxe esaten dabe: Gaztela'ko VIIIn. Alfoso'ren semea, Leon'go errege II Fernando il zanean, onen semeak, Urraka Lopez bere emazteak euki ebazan jabetzazko ondasunaren billa asi zan indarkeriz, eta Aro'ko Diego Lope bere arreba babestera joanda, Leon'go errege IXn. Alfonso'gaz borrokatu zan.

Gaztela'ko VIIIIn. Alfonso, Leon'go IXn. Alfonso'ren lengusua izanda, oneri lagundu eutson, eta Aro'ko Diego Lopez'ek Gaztela'ko erregetzatik urrunduta, Nafarroa'ko erregetzara urbildu zan.

VIIIn. Santxo indartsuak, Diego, Lizarra'n babestu eben, eta onek Lizarra'tik Gaztelarrak zirikituta, Gaztela'ko VIIIIn. Alfonso eta Leon'go IXn. Alfonso lengusu biak Lizarra'ra etorri ziran Diego zigortzen.

Baiña guduxkaren alegin batzuk eginda, eta Gaztela ta Leon'go erregeak Lizarra'ko orma'ren sendotasuna ikusita, ostera itzuli ziran euren erreñuetara.

Eta Zurita'k: Leon'go errege IXn. Alfonso, Urraka bere ama-ordea'k euki ebazan Agilar eta Monteagudo'ko gazteluak, VIIIIn. Alfonso'gaz indarrez kentzera joanda, Aro'ko Diego Lopez'ek euri aurre eginda gero asarratuta, gaztelako erregetzatik urundu egin zala, Nafarroa'ko erregetzara urbilduz.

Eta Diego'k Nafarroa'tik Gaztela zirikituta, Lengusu biak etorrita, ezetuten zan aundienetariko borroka egin ebela, Nafartarrak galtzaile dirala.

Gero, Aragoi'ko Andre-Santxa erregiña'ren eskabidez, Alfaro'n, bera ta bere seme Aragoi'ko errege IIn. Pedro, Gaztela'ko VIIIIn. Alfonso, Leon'go IXn Alfonso eta Nafarroa'ko VIIIn Santxo "Indartsua", batzartuta, eta Diego babes barik itzita, au Balentzia'ko Mauritarren gana joan zala, eurakaz Aragoi'ko erregearen aurka egiteko.

Borroka orreitan, Aragoi'ko errege IIn Pedro zaldi barik geratuta, Diego berak bere zaldia emon eta Balentzia'ko Mauritarren bildur IIn. Pedro ez ebalako mendetu, Marruekos'eko Mauritar Miramamolin'gana bere zaldunakin aldatu zala.

Labairu'k, bere gezurtapenean esaten dau: Gauza guzti oneik, ezin dirala zuzendu, 1.202, 1.203, 1.204'an sortu ziran urteetan ez ba dira kokatzen. Gertakizun guzti orreik batera, ezin ziralako 1.206'ko urtean egin.

Diego, 1.205'an, Leon'go erregearen zerbitsuan ikusten dalako aginpide aundiekin.

1.206'an Leon'go erregeagaz oster, Diego'ren semea Extremadura'ko tenientgoa bere arduran eukinda.

1.206'an, Gaztela'ko errege VIIIIn. Alfonso, eta Leon'go errege IXn. Alfonso'k Kabreros'eko bakeak egin ebenean, Diego Lopez eta bere seme Lopez Diaz'ek, aitorle siñatzen dabelako bake ori, Diego'k, Gaztela'ko bigarren edo alferazgoa euki ebala.

Eta urte berean, Diego'ren semea Lopez Diaz, Leon'go IXn. Alfonso eta bere semea, Gaztela'ko errege izango zan IIIIn. Fernando "Santua"ren izenagaz, egin eben bakean.

Labairu'k esaten dau: Ikerketa au ondo egin ezkerro bakarrik aurkitu leikena, 1.205, 1.206, eta 1.207'ko urteetan, ez zirala egon alango borrokarik, eta bakarrik agertu egiten dana, Diego, 1.205'eko urtean ez zala adiskidetuta egon Gaztela'ko errege VIIIIn. Alfonso'rekin.

Aurrera joanda, eta Gaztela'ko VIIIIn. Alfonso'k deituta, Diego "Navas de Tolosa"ko guda nagusian ikusten dogu, katolikotasunarentzat garrantzi aundikoa izan zana, eta Diego'k katolikotasun artean euki eban indar eta garrantzi aundiekin, ezin eutson uko egin.

Leen baiña goazen ikustera, aurretik zelako alegiñak egin ziran Kristau-erregeak alkartzeko, eta Europa'n katolikotasun-aolkurarizko agintaritzan euki eben nagusitasunaren bidetik zer egin zan, 1.212'ko guda nagusi ori indartzeko.

VIIIIn. Alfonso, bere sendi guztiagaz Talabera'n egonda, 1.211'ko Urrilla'ren 14'an, Fernando semea il jakon.

Gertakizun orrek ez eutson geldituazo, eta aurrera egin eban guda orretarako ditekezan antolakuntzak prestatzen.

Toledo'ko gorteak batu ta ospatu ebazan, guda-nagusi au gurutzada-santu lez izendatuta, eta IIIIn. Inozenzio Aita-Santuak barkamen-osoaga agindu eban, gurutzezko-guda orretara joan bear izan eben guztiei.

Atzerritarak, Gaztela, Aragoi, Nafarroa, eta Bizkai'ko guda-indarrak Toledo'ra asi ziran urbiltzen, eta Ekaiña'ren 20-21'eko egunetan asi ziran Aro'ko Diego Lopez, Lope Diaz eta Pedro Diaz bere semeak, euki ebazan loba asko ta 2.500 Bizkaitarrekin (76), Atzerritar (77) kapitan nagusi lez, beti aurretik mugitzen.

Eta Aro'ko Diego Lopez izan zan bere Bizkai'tar ta atzerritarrekin Uztailla'ren 16'an lenengo aurreratu zana.

VIIIIn. Alfonso'k garaipena lortuta, Diego'ri agindu eutson gurutz-santu orren bidez lortu ziran aberastasunezko ondasunak erregeen artean banandu egiazala.

VIIIIn. Alfonso Diego'ri sari lez, Nafarroa'ko errege VIIIn. Santxo

(76) Labairu'k esaten dau, 2.500 Bizkai'tar geiegi direla, Bizkaia'k denbora orreitan erritar gitxi eukezalako. (77) Atzerritar guda-indar orreri "Ultramontanos"en izena ipini eutsen.

“Azakarra”ri ostu eutson Durango’ko Iribildua, berea izan balitz bezela emon eutson betirako, Durango-aldea Bizkaia’rekin alkartuta.

Aro’ko Diego Lopez Bizkai’ko Jauna, 1.214’ko Irailla’ren 16’an il zan, eta beren gorpua Naiara’ko Santa Maria’ren Eleizan illobiratuta dago.

11’gn. Jauna:

1.214’an Aro’ko Diego Lopez il zanean, bere seme Lope Diaz de Aro eta Manrique de Lara “Suar-buru” esaten eutsenai artu eutson aldia, 1.236’an Azaro’ko 14’an edo 1.237’ko Urtarrilla’ren lenengo egunetan il zan arte.

Diego bere aitagaz ibilita, zentzun asko’ko borrokalaria izan zan, eta orregaitik “Suar-Buru”aren izena ipini eutsoen.

1.217’an, Gaztela’ko errege I Enrike il da, III Fernan’do “Santua”k, Gaztela’ko erregetzan bigarren izatea edo alferazgoa emon eutson.

1.219’an, Gaztela’ko III Fernando “Santua”ren arreba eta Leon’go errege IX Alfonso’ren alaba, Andre Urraka Alonso’gaz ezkondu zan.

Euki ebazan seme-alabak:

Diego Lopez, bere ondorengo izango zana;

Albaro Perez, Gaztela’n andikia;

Andre Menzia, leenengo Albaro Perez de Kastro’gaz ezkonduko zana, eta bigarrenez, Portugal’eko errege II Alfonso “Ospatsua”gaz (Santxo-Kapelo), Portugale’ko zaldunak erregetzatik kendu ebazanak;

Alonso Lopez, Gaztela’n andikia;

Aro’ko Lope Lopez, edo Lope “Txikerra” Gaztela’n andikia;

Fernando Lopez, abade eginda, Bizkai’ko artzediano izango zana eta Kalgurri’ko eleiz-sariduna (78);

Manrique, Gaztela’n andikia;

Aro’ko Diaz’tar Berengela, IIIIn. Fernando “Santua”ren etxe-zain nagusia izan zan Rodrigo Gonzalez Jiron’egaz ezkondu zana;

Eta, bere emazte Andre Urraka Alonso’ren ezkontzatik kanpo, Teuda de Santa Gadea’gaz, Diego Lopez de Salzedo euki eban, Gipuzkoa’n aurrerango (adelantado ?) nagusi izango zana eta Gaztela’ko ibar-jaun (79) nagusia.

1.223’an, IIIIn. Fernando’gaz, Kesada’n lortu egin zan garaipena bideratu eben, eta 1.227’an Baeza’koa.

Bere aldian, Kaltzada’n Santo Domingo’ko eleiza, Eleiz-Nagusi egin eben, Kalagurri’koagaz batera Bizkai’ko eleiza guztien ama izango zirenak.

1.229’an, bere emazteagaz batera, Urduña’ko erria Iribildu eben Gazteiz’ko Forua emonda.

Balmaseda’ko erria nai-ta antziñatik 1.199’an Logroño’ko Foruakaz iribilduta egon, 1.234’an Lopez Diaz’ekin Bizkai’ko jabetasunean geratu

(78) Eleiz-sariduna = prebendado. (79) Ibar-Jaun nagusi = Merino mayor.

zan, eta Iri-bi oneik, erregeakaz egon ziran eztaibadagaitik, bata besteen eskuetan ibili ziran, areik eta gure jauntza Gaztela'ko errege II Juan'en eskuetan geratu zan arte. Ortik aurrera Bizkai'aren jauntzakoak izanda.

1.236'ko urte inguruan, Bermeo Iribildu eben Logroño'ko Fuero'agaz, eta orren eskutitza desagertu bazan, zeozer dakigu bere billoba Lopez'en bidetik, 1.285'an Burgos'en ziurtu ebalako.

Bardin antzeko bat sortzen da Iribildu eben Plentzia'ko itsas-bazterragaz, baiña emen-be zeozer dakigu, 1.289'an beren billobak Palenzuela'tik bialdu eben eskutitzaren bidez.

1.236'ko Azaroa'ren 14'an il zan Aro'ko Lopez Diaz au, edo 1.237'ko Urtarrilla'ren leenengo egunetan. Pedro Nobia de Salzedo'k esaten dau, 1.239'ko Azaroa'ren 15'ean il zala esaten dau.

12'gn. Jauna:

Lope izeneko III'n. Aro'ko Diego Lopez jauna izan zan Aro'ko Lopez'en ondorengoa 1.237-1.254 urte bitartean, errioxa'ko Baños de Rio-Oja'n busti-ontzi bateko ura irikiten egoala sartu ta errearen zauriakaz Urrilla'ren 4'an il zan arte. Pedro Nobia de Salzedo'k esaten dau, ureztatzen egoala, eta gorputza "Alkrebite"gaz bustita egoan izaraategaz inguratuta, morroi batek gura-izan barik sua emonda, iñork ezer ezin aginik erreta il zala.

Gaztela'ko III'n. Fernando "Santua"ren loba izan zan, bere ama Urraka Fernando'ren arreba zalako.

Diego Lopez, Gillermo de Monkada Bearne'ko kondea eta Garzenda de Sabran bere emaztearen alaba, Bearne'ko Konstanza'rekin ezkondu zan, eta euren ezkontzatik seme-alaba oneik euki ebazan:

Lopez Diaz, Diego Lopez'en ondorengoa izango zana;

Aro'ko Diego Lopez, au be, Bizkaitarren Jauna izango zana;

Aro'ko Andre Urraka Diaz, Fernando Ruiz de Kastro, mugaren aurrengo nagusia zanarekin ezkonduko zana;

Eta Aro'ko Teresa Diaz, Juan Nuñez de Lara'gaz ezkondu zana, Bizkai'ko jauntza onen ondorengo eskuetan geratuta.

Diego Lopez, 1.237'tik-1.240'ra, Gaztela'ko alferazkoa euki eban, baiña urte onetan asarratu egin zan III'n. Fernando'gaz eta eztaibada askoren bitartez Fernando'k birriten parkatuta, aurrerantzean len euki ebazan alferazgo ardurakaz, Fernando'rekin oso adiskidetuta jarraitu eban, 1.252'ko Loraila'ren 30'ean III'n. Fernando II zan arte.

1.252'an, Gaztela'ko Xn. Alfonso "Jakintsua" errege egin ebenean, Diego Lopez'ek', Fernando'rekin euki ebazan ardura guztiakaz jarraitu eban, areik eta Xn. Alfonso'gaz asarratuta, Aragoi'ko errege Jaime "Menderatzaillea"rengana bere sebitzuak eskaintzera joan arte.

13'gn. Jauna:

Aro'ko leiñuan Lope izeneko IVna, Lope Diaz eta Bearne, 1.254'aren Uda-goieneko erditik, 1.288'ko urte bitartean izango zan Bizkaita'rrerengoren Jauna.

Xn. Alfonso'k (80), Gaskuña'ko lurraldea Ingalaterra'ko I Rikardo'ren eskuetan itxi ebalako, 1.255'an Enrike erregearen anaia eta Aro'ko Lope Diaz'ek, Aragoi'ko errege I Jaime "Menperatzailea" rengana joan ziran, Gaztela'ko erregearen aurka, alkartasunean aurre egiteko artu eben erabagiagaitik. Aragoi'ko erregea I Jaime, Gaztela'ko errege X Alfonso'ren suñe izan zan, eta onek Jaime'ri 1.256'ko Epailla'n deituta, danak adiskidetuta geratu ziran.

1.256'an Otsailla'ren 5'ean, X Alfonso'k Urduña'ko Iribilduari, ostera emon etutsoezan kendutako Gazteizko foruak, eta Urduña ta Balmaseda Lope Diaz'en eskuetara ez ziran ostera itzuli, areik eta 1.274'an, X Alfonso'ren aurka egon ziran eztaibadak amaitu arte.

Eta, Aro'ko IV Lope Diaz gazte izan zan lez, ez eban artu zaldunmailla 1.269'ko urterarte, eta urte orreitan ezkontzen da Juana Alonso'rekin, Alfonso de Molina errege-semblearen alaba izan zana.

Bizkai'ko jauntzan 1.270'eko urte onetan, Santo-Domingo gaiñean dagon Abril mendian borroka gogor bat egin zan Bizkaitarren artean, Zamudioak, Legizamon etxeakoren aurka.

Legizamon'tarrak irabazi eben borroka au, danak guztiz nekatuta egon ziranean Legizamon'en loba Luzarra'tar Pedro 22 lagunekin agertuta, Zamudio'koak baiño geiago izan ziralako. Zamudio'tarren aldetik 80 gizon il-da eta Legizamon'en aldetik 10.

1.282'an X Alfonso'ren seme Santxo'k, Lope eta Gaztela'ko gortearen geienekin, aita kendu eban erregetzako-aulkitik, eta bera geratu zan errege-orde.

1.284'an Joraila'ren 4'an il zan Gaztela'ko X Alfonso eta bere bigarren seme IV Santxo (81) "Suar-Buru" (82) izango zan Gaztela'ko errege.

1.287'an Urtarrilla'ren 1'ean Gaztela'ko IV Santxo'k, Lope bitartez euki eben laguntza erregetzara igoteko, eta lagun aundiak izan da, Aro'ko Lope Diaz, konde izendatu eban, ostera berrezkuratuta Gaztela'n bere aurreko Aro'tarrak euki ebezan alferazgo eta aundikerizko ardura guztiak.

1.287'ko Loraila'ren egunetan Lope Diaz, IV Santxo erregeagaz ostera asarratzen da, eta errege-seme (83) zan Juan bere suñe'gaz, gortetik urruntzen dira.

Aro'ko Lope Diaz Bizkaitarren jauna, 1.287'ko urte berean eta Ekaiña

(80) Xn. Alfonso = 1.221-1.284 urte bitartean bizi zana, eta errege lez, 1.252-1.284 urte bitartean. (81) IV Santxo 1.257'an jaioa eta 1.295'an il, errege 1.284-1.295. (82) "Suar-Buru" = cabeza brava. (83) Errege-seme = infante.

'ren 6'an Burgos'era joanda, XIIIIn gizaldian Fenestosa edo Frenestosa, Finestosa edo Finestrosa'ko erri esaten eutsoenai, eta gaur Lanestosa erri'ko izenagaz esetzen doguna, Iribildu eban. Eta siñatu eben agirian, Aro'ko konde ta Bizkai'ko Jaun lez agertzen da.

Ortik aurrera, Lanestosa, Lope leiñuko izan zan jabetasunetik, Bizkai'tarren jauntzara aldatu zan, eta Urduña'gaz batera beti geratu dira Bizkai'tarren jabetzan.

Aro'ko Lope Diaz jauna'k, andi-zale norkerian zirikituta, ez eutson ardura aundirik emon, IVn. Santxo'k emon eutsozan ardura andiko aginpi-de truke, agirian ipini eban baldintzari: "Beren serbitzura egongo zala beti, eta emon eban berbeari uko egiten ba-eutson, Bizkai'ko jauntza, Gaztela'ko koroara aldatuko zala".

Lope ez zan konturatuko, Bizkaia eta Gernika'ko batzar-Nagusiak ez zirala bereak, bera itzarmen bidez aukeratuta, artu ebazan Jauntzazko arduraren jabe baiño ez zalako izan ?.

Dana dala, ekitaldi orregaz, beren ondorengoak larrialdian kokatuta itxi ebazan. Eta norkeri orreitan sartuta, Alfaro'n sortuko jakona, bera konturatu barik prestuten asi jakon.

Gaztela'ko IV Santxo erregea, beren gorteko andiki guztiak Lope ta Juan beren suñe'gaz asarratuta eta bere emazte Andre Maria Alonso'ren aolku-bidez oartuta, Lope'ren eragipenetik zurtasunez aldatzea erabagi eban.

IV Santxo rregea, Lope Karrion'era deituta eta beragaz solasean berba egiten dauala, beren suñe Juan'ek egiten ebazan kain'keriagaitik itandu eutson, Lopez'ek arrokeriz lotsa-gabeko erantzunak emon eutsozan, eta erregeak ez bazan ezer gertatu lez, beren gelatara joan zan.

1.288'ko Ekaiña'ren 8'an, Santxo erregeak, Alfaro'n gorteak ospatzea erabagi eben, eta Lope ta Juan bere suñe deitu ebazan.

Danak batzartuta egon ziranean, IV Santxo premiña baten aitzakiagaz, bera etorten zanerako, erabagi bat artuta euki egiela agindu eutsen.

Erregearen premiña baiña, gazteluan zenbat eta zelako gudari ta zaldun maillakoak euki ebazan zaintzeko ikustea izan zan, eta oartuta bere aldekoak geiago zirala, ostera itzuli zan batzarrera.

Erregeak, errezel edo oial'ak zabaldu ondoren itandu eutsen: Artu dozue erabagirik ?. Sartu ta esango jatzu.

Erregeak: Ba ni, beste gogapen bategaz nator, zuek biok nigaz emen geratzea, nere gaztelu guztiak ostera itzuli arte.

Lope'ren erantzuna: Atxilotuak ?. Eta Lope'k beren guda-mutillai deituta, errege'ari aizto edo laban bategaz keiñatzaille dagoela, erregearen zaldun batek ezpateagaz eskua ebagi eutson, eta lurrean dagoela guda-makil bategaz buruan jota il eben.

Bizkai'ko Jaun, IV Lope Diaz eta bere emazte Molina'ko Juana Alonso'k, seme-alaba-bi euki ebazan: Aro'ko Diego Lopez, bere

gaztetasunezko urte onetan, ondorego barik il zana, eta Aro'ko Maria Diaz, errege- seme izan zan Juan'egaz ezkonduko zana.

14'gn. Jauna:

IV Lope izenaren Aro'ko Lope Diaz'en ondorengoa, Aro'ko IV Diego izena'ren Lopez bere semea 1.288-1.292'ko urte inguru bitartean izan zan Bizkai'tarren jauna.

Gaztela'ko IV Santxo, IV Aro'ko Lope Diaz kondea maltzurkeriz il ebenean, Bizkaia ta Gaztela'ko adiskidetasuna apurtu zan, Lope'ren seme Aro'ko IV Diego Lopez'ek, Nafar ta Aragoi'tarrakaz alkartu zan IV Santxo'ren aurka egiteko eta Gaztela'ko errege aulkian Alfonso de la Zerda ipinteko.

Alfonso de Zerda, Gaztela'ko errege IV Santxo'ren anai zarragoa izan zan, eta Aro'ko IVn. Diego Lopez'ek bere Bearne'ko lengusuagaz euki eben alkarteekin, Gaztela'ko errege izendatu eben, eta 1.292'ean Aragoi'en gudarako antolatzen egoala, ondorengo barik il zan.

15'gn. Jauna:

Aro'ko IV Diego Lopez il zanean, Bizkai'ko jauntza Aro'ko I Maria Diaz'eri egokitzen jakon. Baiña bera Nafarroa'n egonda, beren senarra Juan Alfaro'n atxilotuta, eta ezeren laguntza barik, ez eben euki beste aukerarik, Bizkai'ko jauntza eten-barik eskatzea baiño.

Eta 1.292'eko urte inguruan, Aro'ko V Diego Lopez, Aro'ko IV Diego Lopez'en anaia eta Maria'ren osaba, maltzurkeriz asi zan Bizkai'ko jauntza bereganatzen, bere ustez, Maria'ren aurretik bera izan zalako Bizkai'ko Jauna. Eta Bizkai'tarrak 1.293'an on-artuta lortu be, Bizkai'ko jauna izatea beren eriotzerarte.

Onen aitzakia, emakumeai Aragoi'ko legeak debekatzen eutsielako errege edo jauntzazko jaur-jabetzakaz arduratzea izan zan.

Denbora onetan, Gaztela, Aragoi, eta Aro'tar eurak be, andi nai izan gurean, euren artean zirriborrotuta, Bizkai'ko Batzarrak kontuan artu gabe ibili ziran antza. Baiña gero ikusiko doguz, zelan zuzentzen diran okerkeri oneik.

Vn. Diego Lopez onek, itsas-bazterrari emon eutson garrantzi aundia, eta 1.237'an Bermeo Iribildu ta portu-lez antolatuta egon ba zan be, sasi-jaun (84) esaten eutsoen Vn. Diego Lopez onek, Plentzia beren aitona Iribilduta euki ebana, eta aaztuta egoalako, berak ostera 1.299'ko Urrilla'ren 5'ean Iribildu eban, Logroño'ko forua'kaz.

Eta Bilbao'ko erritarrak eskatuta, nai onarte kai edo portua eta ibaia'ren albo biak, ezker-aldean Abando'ko eleiz-aurrekoa, eta eskoma-

(84) Sasi-jaun = intruso.

aldekoa Begoña'ren eleiz-aurrekoa'gaz naiko jendutsuakin bizitza euki, 1.300'ko Ekaiña'ren 15'ean Begoña'ko eskoma aldean (85), Logroño'ko foruakaz Iribildu eban, Bizkai'ko mugaren askatasunezko politika-maillan gerorako ain garrantzizko gauza izango zan almenean, Kai-zabala izendatuta (86).

1.301'eko Urtarrilla'ren 4'an, Gaztela'ko errege IV Fernando'k ainbat lege-berezi ta emaitza emon eutsezan Bilbo'ko erritarrai aundiagotu egian.

1.310'eko Urtarrilla'ren lenengo egunetan Aljeziras'eko esi-aldian il zan Aro'ko Vn. Diego Lopez, eta beren gorputza Burgos'eko Frantzizkotaren lekaide-txean dago illobiratuta.

16'gn. Jauna:

Aro'ko V Diego Lopez il da, ariñagotik ikusi dogu Aro'ko I Maria Diaz'eri egokitzen jakola Bizkai'ko-Jauntza, eta au 1.287'an Urtarrilla'ren 10'an, Gaztela'ko errege X Alfonso'ren seme Juan'egaz eskonduta, bera daukagu 16'garren Bizkai'ko Jaun lez.

1.288'an Maria'ren aita Aro'ko IV Lope, IV Santxo Gaztela'ko erregeak il ondoren, bere senarra Juan, IV Santxo anaia zanagaitik atxilotu ondoren, eta Bizkai'ko Jaun Aro'ko IV Diego Lopez izango zana gaixorik il da, Aro'ko I Maria'ri egokitzen jakon Bizkai'ko Jauntza. Baiña beren senarra Gaztela'ko erregearen seme Juan'ek ezin eben artu Bizkai'ko Jauntza, arek eta 1.310'ean Urtarrilla'ren lenengo egunetan Aro'ko V Diego Lopez il zan arte, 1.307'an alan euki ebelako berba eginda, Gaztela'ko errege XI Alfonso'ren bitartekoa izan da.

Juan alargunduta egoan eta seme batekin, Aro'ko I Maria'gaz ezkondu zanean, eta bion artean iru seme-alaba euki ebezan:

Nagusiena, Lope gazterik il zana.

Bigarrena, Aro'ko II Andr-Maria izango zana, eta Nuñez de Lara'tar Juan'egaz ezkondata egoana.

Irugarrena, D. Juan "Begi-bakarra" esaten eutsienai, eta ama Aro'ko I Maria'k, beren arreba'ren aurretik on-artu ebana Bizkai'ko Jauna izan zedin, Portugal'eko Isabel erregearen alabeagaz ezkondu zana, eta euki eben alaba, Aro'ko II Maria izango zan Bizkai'ko Jauntzan ondorengoa.

1.319'ko Ekaiña'ren 26'an X Alfonso erregearen-seme Juan, Aro'ko I Maria'ren senarra, eta Gaztela'ko errege izango zan XI Alfonso gaztearen aita-orde, Granada'ko ibarrean moruen aurka borrokan egoala il zan, eta Burgos'eko Frantzizkotarren lekaidetxean illobiratu eben.

(85) Begoña'ko eskuiñ-aldea = Bilbo-zar'en aurrez egoana. (frente a Bilbao la vieja). (86) Kai-zabala = puerto-franco, libre de impuestos.

17'gn. Jauna:

1.319'ko Ekaiña'ren 26'an, Aro'ko I Maria'ren senarra Juan il zanean, euren seme Aro'ko Juan "Begi-bakarra" izan zan Bizkai'ko-Jauntzan urrengo jauna.

Aro'ko Juan, Portugal'eko errege Alfoso'ren Isabel alabeagaz ezkondu zan, eta laster-be alargundu, Aro'ko II Maria Diaz alaba eukinda.

Juan "Begi-bakarra"k, Gaztela'tarrakin ainbeste zeregin moruekaz eta gortean euki eben XI Alfonso errege gaztearen aita-ordezkozagaz, eta Bizkaia'n beste aldetik, Oiñaz eta Ganboa alderditarren artean ainbeste borroka egonda, esan leike Aro'ko I Maria Diaz, Bizkaitarren tituludun'ekoa izanaz, bere semea kanpotik ibili zan artean, bera arduratu zala Bizkai'ko jaurkintzagaz.

1.320'an I Maria aita-ordezkozan asi orduko, Erreterria Iribildu eban "Villa Nueva de Oiarso"ko izenarekin. Baiña Erreterri'ko leen izena izan da, gure egunerarte etorri dana.

1.320'ko urte orretan, Martiartu ta Zamudiotarrak, Legizamon'en dorrea sua emon ta erre ondoren, bertan egon ziran Legizamontarrak il ebezan ume bat izan ezik, andra batek altzoan ostonduta eroan ebalako.

Aro'ko I Maria Diaz'ek, gogaituta ainbeste ezinezko borrokarekin, ilteko agindua emon eban zalatuta edo txar egiteagaitik izendatuta (87) egon ziranai.

1.322'an Aro'ko I Maria Diaz'ek Portugalete'ko ingurua Iribildu eban Logroño'ko fuero'ekin, erritarrai aginduta Santa Maria'ri eskeiñitako eleiza eraiki egiela, Santurtzi'ko amarraren alzatitik dirua emonda.

Iribilduaren agindu orrek ez dauka egun eta illerik, agiria uretara jausi zalako, baiña 1.333'ko Ekaiña'ren 11'n egiten dauan eskutizatik, esaten dau 1.322'an agindu ori emon ebalako.

1.325'eko Azaroa'ren 3'an Paredes de Naba'tik, Aro'ko I Maria'k, Lekeitio Iribildu eban Logroño'ko fueroakaz.

1.326'an, XI Alfonso'k, Aro'ko Juan kendu ebalako euki ebazan alferazgo eta beste arduratik, au Gaztela'ko erregeagaz asarratuta Aragoi'ra urbildu zan, Jaun Pedro errege-semearen alabagaz ezkontzeko, eta Gaztela'ko errege XI Alfonso'k, bildurra euki ebalako Juan'ek artuko eban indarragaz, maltzurkeriz ainbeste bider Toro'ra joateko deitu eutson Urria'ren 31'n Santu guztien egunerako, eta bertan il eban.

Aro'ko I Maria'k, Gaztela'ko erregearen bildur, Juan begi-bakarra'ren alaba Aro'ko II Maria, Baiona'ra eroan eban, eta an geratu zan bere ama-orde Teresa de Leniz'egaz, Gaztela'ko Juan Nuñez de Lara'rekin ezkondu zan arte.

1.327'an, Aro'ko I Maria Diaz Perales'eko lekaimetxean zokoratu zan, eta bertan egoala, Garzilaso de la Bega joan jakon Bizkai'ko Jauntza eros-

(87) Txar egiten ebanak izenduta egon ziranai = acotados.

ten, eta Aro'ko I Maria gauzak beren lekuan eutsita, Gaztela'n egoan Perales'eko lekaimetxea bertan itzi eta Nafarroa'ko Lizarra'ra joan zan.

1.327'ko Irailla'ren 28'an Lizarra'tik, Aro'ko I Maria'k Ondarroa Iribildu eban.

1.342'ko Azaroa'ren 3'an il zan Aro'ko I Maria Diaz.

18'gn. Jauna:

1.334'an, Aro'ko II Maria Diaz, Aro'ko Juan "Begi-bakarra"ren alaba, Nuñez de Lara'tar Juan, irugarren maillako lengusuagaz ezkontzen da.

Aro'ko I Maria Diaz'ek orretarako, II Maria izendatuta euki eben ondorengo lez Bizkai'ko Jauntzan, eta Bizkai'ko Batzarra'k on artuta, lau seme-alaba euki ebazan bere ezkontzan:

Lope oso gazte il zana.

Juana.

Isabel.

Eta Nuño semea, Aro'ko II Maria il orduko jaio zana, beren ondorengoa izango zan.

Nuñez de Lara'tar Juan'ek, Pedro eta Diego semeak euki ebazan ezkontzatik kanpo.

Juan'ek, lenengoetan Gaztela'ko erregeagaz XI Alfonso'rekin asarratuta egon arren, Lerma'ko inguratasunezko larrialdetik urten da adiskidetu ziran eta barriro emon eutsoezan bere aitagiñarrebak gaztela'nian euki ebazan gazteluak eta erregetzaren alferazgoa.

1.338'ko Dagonilla'ren 15'ean, gaur Areatza esaten jakona, eta len Aro'ko izena euki ebana, Billaro iribildu eben Logroño'ko fuero'akaz.

1.342'an Nuñez de Lara'tar Juan, Gaztela'ko gorteetan Bizkai'ko Jauntza'ren izenagaz ezagutzen zanaz, Bizkaia'ra etorri zan arduratuta, bertoko legeak ez ebazalako ezagutzen, eta batez be aukeramenezko foruak (88), larre-sari edo abeltsari (89) eta zuzenbideari (90) dagokiena jakiteko.

Eta Bizkai'ko-Batzarrean batuta, 37 legezko itun-atalak edo gaiak idatzi ziran. Edestilari batzuk txarto ulertuta, "Bizkaitarrak idatzitako leenengo Forua" izan zala esaten dautsoenari. Ez ziralako erabagitzat artu eta gitxiago "Foru-Orokortzat bildumatu" (91).

1.342'ko urte orretan, Aro'ko II Maria Diaz'eta bere senar Nuñez de Lara'tar Juan'ek, Bizkaitarrak Batzar-Orokorrean batuta, ziñ egin ebezan gure Foru-Legea'k.

Eta 1.346'an VI Klemente Aita Santua'rengandik euren lengusutasunezko ezkontzaren baimena lortu eben.

(88) Aukerazko-Foruak = Fueros de albedrio. (89) Larre-sari = montazgo. (90) Zuzenbidea = Justicia. (91) Foru-orokortzat bildumatu = compilar como Fueros-Generales.

1.346-1.347'ko urte bitartean, Elgoibar Billa-mayor de Markina izenarekin, Logroño'ko foru'an, eta Eibar ta Zumaia Donosti'ko foru'an Iribildu ebazan.

1.348'an Irailla'ren 16'an Aro'ko II Maria Diaz Palenzia'n illobiratuta dagoena, Nuño de Lara Diaz semea euki ta laster il zan. Eta Nuñez de Lara'tar Juan 1.350'ko Azaroa'ren 28'an. Beren gorpua Burgos'eko San Pablo lekaidetxean illobiratuta dago.

19'gn. Jauna:

1.350'eko Azaroa'ren 28'an Nuñez de Lara'tar Juan il zanean, bere seme Nuño de Lara eta Diaz'ek iru urte ebazan.

Gaztela'ko errege I Pedro "Odol-zale" esaten eutsoenai 17 urte euki ebazala, Nuño'ren atzetik il naian ibilita, Ruiz de Abendaño'tar Martín'en emazte Menzia'k, Paredes de Naba'ra eroan eban ostonduteko, eta or be larrialdian egoala konturatuta, Bizkaitarrak babestuta, Menzia bere zaindariagaz batera Bermeo'ra eroan eban, Santa Gadea'raiño I Pedro atzetik euki ebala.

1.352'ko Irailla'ren 4'an 5 urtegaz Bermeo'n egoala itsasoan il zan, ta beren gorpua Bermeo'ko Atalaia'an Santa Maria eleizan illobiratuta dago.

20'gn. Jauna:

Nuño de Lara'ren ondorengo, bere arreba Nuñez de Lara'tar Juana izendatu eban Bizkai'ko Jauna.

1.353'ko Urrilla'ren 15'ean Segobia'n, Gaztela'ko errege XI Alfonso'ren sasi-seme eta I Pedro "Odol-zalea"ren sasi-anai Tello'gaz ezkondu zan.

Gaztela'ko I Pedro erregeak, bere sasi-anai Tello gorroto-gorrian euki eban lez, bere lengusu Aragoi'ko errege-seme Juan, Nuñez de Lara'tar Juana'ren aizta Isabel'egaz ezkondu gure eban, Aragoi'ko Juan'en itxaropenetan, Bizkai'ko jauntzaren jabetasuna itzartuta.

Tello'k, I Pedro'ren azpi-jokoa ikusita, bere aurka borrokan egiteko asmoan, zaldun batzuekin lagun, bere anai Enrike Trastamara'ko kondeagaz alkartu zan, eta ezer lortu ezinik, Tello barriro Bizkai'ra itzuli zan Abendaño'tar Juan eta beste zaldun'ekin.

1.355'eko Loraila'ren 6'an Tello'k, Markina (92) Iribildu eban Bilbao'ko fuero'ekin.

1.355'eko urte onetan, Gaztela'ko errege I Pedro "Biotz-gogorra" (93) mezu bat bialdu eutsoen bizkaitarrai, esaten: Tello bere anaia, beren zerbitzutik kanpo ibili zan ezkerre, aurrerantzean bere lengusu Aragoi'ko

(92) Tello'k, Villaviciosa de Markina'ren izena ipini eutson, eta baleike Markina'ren izena, marra = muga, marrakina'tik etortea.

(93) Odol-zale edo Biotz-gogorra = cruel.

Juan, Aro'ko Diaz'tar Isabel'egaz ezkondata egoana izango zala Bizkai'ko jauna.

Eta Bizkaitarrak erantzun gogorra emon ondore, ta I Pedro'k gogo txarez onartuta, bere lengusu Juan'eri maltzuckeriz esan eutson: Bizkaitarrak ez ebela gure jauntzat, eurak aukeratuko jauna eukielako.

I Pedro'k, bere guda-indarra Juan'en aginpean ipinita, eta Otxadio ta Gordejuela'tik Bizkaia'n sartuta, Bizkaitarrak Abendaño'ren agindupean alkartuta, astindu ederrak emon eutsezan Gaztela'ko gualozteari.

Bizkaitarrak ekintza orregaz, Bizkaia'ren Nortasunezko askatasuna argi erakutsita.

1.356'ko Ekaiña'ren 1'ean, I Pedro'k, aletin aundiak egin ebazan Tello Bizkai'ko jauntzatic kentzeko, berak geroago izen-buru ori artuta, baiña laster joan ziran gauza orreik euren lekutara.

Gaztela'ko errege I Pedro "Biotz-gogorrekua" izan bazan be, orduko zaldun jaunak bardiñ antzekoak izan ziran, Tello'k apostu (94) baragarri baten bidez, Abendaño (95) bere benetako adizkidea il ebalako.

1.356'ko Ekaiña'n 27'an Tello'k, Elorrio Iribildu eban Durango'ko fuero'an.

1.357'an Irailla'ren 8'an Tello'k, Bermeon, Bizkai'ko Frantzizkottaren lenengo lekaidetxeari zabal-aldia emon eutson.

1.359'an, Gaztela'ko errege I Pedro "Biotz-gogor" orrek, Tello ezinbesteko gorrotoan euki eban, Bizkai'ko jauntza berentzat gure ebalako, eta Agilar de Kanpo atxilotua euki eben Tello'ren emazte Bizkai'ko Andre Nuñez de Lara'tar Juana il eben, Bilbao'n len 1.358'an, bere aizta Isabel'en senarra Aragoi'ko errege-seme Juan il eben (96) antzera. Goian esan doten lez onek be, Aro'ko Nuñez de Lara'tar Isabel'egaz ezkondata zeozer dalakoan, Tello Bizkai'ko Jauntzatic baztartuta, berentzat nai izan ebalako. Eta Aro'ko Diaz'tar Isabel 1.359'ko urte orretan Kastrojeriz'en il eban.

1.366'ko Jorrailla'ren 23'an, Tello, bere anai I Pedro'ren ingurutik igez ibilita, eta Bizkaia'n agertu ondoren, Bizkai'tar sendien bakeak lortu ebazan.

1.366'ko Jorrailla'ren 28'an Tello'k Urduña'tik, Gernika Iribildu eban Logroño'ko fueroakaz.

1.366'ko Urrilla'ren 4'an, Gerrikaitz'eko ibarraren zaldunak eskatuta, Tello'k Miranda de Ebro'tik, Munitibar Iribildu eben Logroño'ko fueroan.

1.368'ko Uztailla'ren 7'an Tello'k Miranda'tik, Bizkai'ko bigarren lekaimetxea Lekeition eraikitzeke baimena emon eban Andre-Predikari'arentzat (97).

1.369'ko Epaila'ren 23'an Montiel'eko guda-ibarretan Trastamara'ko Enrike'k, bere anai Gaztela'ko errege I Pedro "Biotz-gogorra" il eban, eta Tello'k aitzakia-barik geratu zan bere anai Trastamara'ko II Enrike'gaz

(94) Zaldi gaiñean, sei basurde trabez ipinita, nork euren gaiñetik bestaldera eragin. (95) Abendaño bera be ez zan izan makala, bere lengusu Abendaño'tar Pedro, berak il ebalako. (96) I Pedro'k, Martinez de Acilza'tar Pedro'ren gazteluan il eban, eta gero leiotik-bera bota eban. (97) Andre-Predikari'arentzat = Dueñas-Predicadoras. Tello'k, Lekeition euki eben jauretxean.

bat ez egiteko.

1.370'an Urrilla'ren 15'ean Tello, Aro'ko Diaz'tar Juana'ren alarguna zana, Medellin'en, ondorengo barik il zan, eta Palenzia'ko Frantzizkota-
rren lekaidetxean illobiratuta dago.

Tello'k, ez eben euki ondorengorik Aro'ko Diaz'tar Juana'kin, baiña ezkontzatik kanpo:

Gaztela'ko Pedro, Kanporredondo ta Alba'ko Jauna.

Gaztela'ko Juan, Agilar eta Kastañeda'ko jauna.

Gaztela'ko Alfonso, erregiña'ren lurraldeko jauna.

Gaztela'ko Juana, Anpudia'ko jaun Aro'ko Baeza'tar Alfonso'gaz ezkondu zana.

Gaztela'ko Elbira, Gaztela'ko Almiral-Jaun Fernandez de Tobar'tar Juan'egaz ezkondu zana.

Gaztela'ko Fernando.

Gaztela'ko Maria, erregearen etxe-zain nagusi zanakin ezkondu zana.

Gaztela'ko Leonor, Alborno'z'tar Juan'ekin ezkondu zana.

Gaztela'ko Isabel, Oñate eta Leniz'ko ibarraren Jaun Belez de Gebara'tar Pedro'rekin ezkondu zana.

Eta emen agertzen da, Tello'k, zergaitik ez eutson ezereen jaramonik egin bere emazteari, I Pedro "Odol-Zalea"k Agilar de Kapo'n atxilotuta eukenean, eta gitxiago il ebanean.

Tello'k, ez eban merezi Bizkai'tarren jaun izatea, zentzunezko barbarik eukin-ez gain, koldar edo ollo-busti (98) bat bakarrik izan zalako.

Tello ta Juana'ren eriotzakaz, Aro'ren zuzenezko ondorengoa amaitu zan, eta Trastamara'ko II Enrike Gaztela'ko erregearen emaztea Juana Manuela, Aro'ko IV Lope Diaz'en arreba zana, eta Aro'ko Diaz'tar Teresa'ren bost'garren bir-alaba (99) izan da, Gaztela'ko erregeen ondorengo seme Juan izango zanaren ardurapean geratu zan Bizkai'ko-Jauntza.

Aro'tar buruz, ondorio labur-bat:

Erroma'tar ta Godo'en bidetik, baleike, errege-jaun'en arteko sendietan ezkontzea oitura zarra izatea, ekintza orregaz euren sendiak betiratzeko, iru giza-arlo menderatzen ebazalako.

a) Aundikotasunaren goiko mailla zaindu.

b) Euren antolarazirako, leiñu edo ta erri-gizartearen kontrola euki.

d) Euren arteko eztaibadak konpontzeko, senitasunaren aukerea.

Gure Euskalerrian, goiko maillan egon ziran: Iñigo, Nuño, Lopez, Diaz eta abar, izen abizen oneik, lenengoetatik agertzen jakuz. Baiña Aro'tar sendi orren izen-buru ori, nondik agertzen dan jakin degun, edesti labur bat egin bear dogu.

Bilibio'n egoan gaztelua zaindu edo jaurkintzen ebazan Aro'ko auzune

(98) Koldar, edo Oilo-busti bat = cobarde. (99) Bost'garren Bir-Alaba = nieta de quinta generaciòn.

ta inguruko lurraldeak Miranda de Ebro´raiño, eta III Lope Iñigez Bizkaitarren Jauntza eukinez gain, Gaztela´ko erregetzan aundienetariko gizonak izan ziralako, or be agintzen eben, eta Aro, euren bizi-lekua egin eban lez, 1.123 urte inguruan Aro´ko gazteluari kondetzaren mailla emon eutsen, eta III Lope Iñigez´en seme Diego Lopez “Zuria” izendatu eben Aro´ko lenengo kondea.

Bizkai´tar jaurkintzazko Jauntza´ri ortik aurrera, eta eten-bako 236 urtetan, ondorengo belaun-aldian emon eutson Aro´ko izena.´

1.359´an, Gaztela´ko errege I Pedro “Odol-zale”ak Aro´tar Andre Nuñez de Lara´tar Juana, Tello´ren emaztea zana, Agilar de Kanpo´ko gazteluan atxilotuta eukin-da, ondorengo barik il ebanean amaitu zan Aro´tar leiñuaren izena.

A-ta guzti, gure jauntza odolaren aritik artzea on-artu gendun, nai-ta aukera-bide orreitan azpikeri aundi-bat egon arren (100), Gaztela´ko errege Trastamara´ko II Enrike´ren emaztea, Juana Manuela, Aro´ko Diaz´tar Teresa´ren bost´garren bir-alaba izan zanaren eskuetan ipini zalako, ondorengo, euren seme Gaztela´ko errege izango zan I Juan´en ardurapean geratu egian. Zeri begira ?. Argi dago zeren billa ibili ziran.

Gure Jauntza ortik aurrera, beti egonda Gaztela´ko erregearen eskuetan, baiña arrigarria dana, Espaina´ko erregearen ardurapean egonda, Austria´tarrak beintzat (101), Foru-Legean babestu ebala gure Bizkai´tar Jauntza.

Beste aldetik baiña, Aro´tarrak Nafarroa´n, Aragoi´an, eta batez-be Gaztela´ko jaurkintzan, aiñ garrantzizko gizon-emakumeak izanda, Bizkai´tarrak beti ibili gintzazan borrokan eurei laguntzen, eta borroka orreik Nafarroa eta beste euskal-lurraldeetan izaten ba-ziran, borroka orreik beti edo geienetan izan ziran Euskal- anai artean.

21´gn. Jauna:

1.370´eko Urrilla´ren 15´ean Tello il zanean, Juana Manuela´k on artu eban Bizkai´ko Jauntza, baiña beren aurreko lau Aro´tar Andrek egin eban antzera, ez eutson emon Bizkai´tar jaurkintza bere senar II Enrike´ri, orduan 13 urte ebazan euren seme I Juan´eri baiño.

1.371´ren Abendu´ko 20´an, Juan Bizkaia´ra etorri zan gure Foruai ziñ emotera.

1.372´ko Urtarrilla´ren 11´n, baieztu ta obetu egin ebazan Bilbao ta Portugalete´ko foruak.

1.372´ ko Urtarrilla´ren 20´an, baieztu ebazan Durango´ren Tabira ta Ermu´ko (102) foruak, Logroño´ko legean.

(100) Azpikeri aundi bat egon arren = Bizkai´ko jauntza, Frantzia´n egoan Lara´tar Andre II Maria´rena izan zalako, Zerda´ko Fernando eta Aro´ko Lara´tar Juana´ren alaba zana, au, Bizkai´tar Jaun Aro´ko IV Nuñez eta Lara´tar Juan´en arreba izan zalako.
(101) Gero, Borboi´akaz asiko ziran arazo aundienak. (102) Ermua = Bere lenengo izena baleike “Ere-muba izatea”.

1.372'ko Urtarrilla'ren 25'ean, Lekeitio'ko foruak baieztu ebazan.

1.372'eko Otsailla'ren 12'an, baieztu ebazan Munitibar'eko foruak.

1.374'ko Abendua'ren 15'ean, Plentzia'ko foruak baieztu ebazan.

1.375'ean Epaila'ren 4'an, Bilbao'ko Iribilduagaz euki ebazan eztaibada asko ondore, Almazan'etik baieztu ebazan Ugao'ko lur-tokian Miraballes'eko Iribildu-barriaren (103) foruak, Logroño'ko legean.

1.375'ko Ekaiña'ren 18'an Soria'n, Aragoi'ko erregearen alaba Leonor Andrea'agaz ezkondu zan.

Eta euki ebezan seme-alabak:

1.379'ko Urrilla'n, Enrike, ondoregoa izango zana.

1.380'an Azaroa'ren 27'an, Fernando, Aragoi'ko errege izango zana.

1.382'an, Leonor bere emazteak nexka bat eukiten daukala il zana, eta umea be laster il zana, izan ziran.

1.375'eko Ekaiña'ren 23'an Olmedo'n egonda, ezkondu ta bost egun geroago, Bizkai'tar alderdikideak euren borrokagaitik janariz beartuta, lur zabaleko nekazariei keiñuka eta lapurketan ibiltzen ziran, eta Juan'ek, nekazarien gaitzespeneko errenkura edo eziñ-egonai adi-egonda, bere prestamero (104) Arabar Urtado de Mendoza'tar Juan'eri deitu eutson, eginkizun areik geratzeko agindua emonda, eta bere aginpean euki ebazan zuzendariak ez ba ziran arduratzen, 600 marabediekin zigortu egiezala agindu eutson.

1.376'an Dagonilla'ren 1'ean, Olmedo'n egonda, Bizkai'ko alderdikideek arazo aundiak sortzen ebezalako, Mungia, Larrabetzu eta Rigoitia'-ko lurraldeak Iribildu ebazan Logroño'ko fuero'an, eta Larrabetzu'ri Berresogana'ko Iribil-barri'ren izena ipini eutsoen.

1.379'ko Loraila'ren 30'eko goizaldean, bere aita ta bera Gaztela eta Nafarroa'ko bakeak antolatzen egon zirala, II Enrike erregea, Kaltzada'ko Santo Domingo'n il zan, eta ondorengo-lez, 1.379'ko Uztailla'ren 25'ean Bizkai'ko Jauna Juan izendatu eben Gaztela'ko errege, I Juan'en izenagaz.

Ekintza orregaz Bizkai'ko Jauntza ortik aurrera, Gaztela'ko erregearen eskuetan geratzen da.

Gaztela'ko erregeak emendik aurrera, Bizkaia'ko alderdikideek eragiten ebezan arazo-bidez, oitura-lez baieztu egiten ebazan Iribilduaren lurraldeak, legeak obetuz eta babeserako erritar gitxi eukenak, erritar geiagorekin sendotu edo indartzeko, edo ta Iribilduko lurralde geiago sortuta.

1.384'ko Loraila'ren 7'an Badajoz'en, Portugal'eko erregearen alaba Beatriz'egaz ezkondu zan.

1.388'an, Gaztela'ko errege I Juan'ek, bere seme Gaztela'ko errege izango zana III enrike izenarekin, Lankaster'eko Katalina'gaz ezkontzeko zanean, Asturias'eko Printzerria sortu eban, eta eurok izan ziran leenengo Asturias'eko printzeak edo errege/erregiñ-gai Gaztela'ko erregetza ondore

(103) Miraballes = Gaur Areatza. (104) Prestamero = el que goza de una prestamera, prestamero mayor = el que goza de beneficios eclesiásticos secularizados.

jaurkintzeko.

1.390'ko Urrilla'ren 9'an, **farfanak** (105) ekarri ebazan beren zaldunai, erakutsi egiotzezan zaldietan ibilteko euki ebezan trikimailluak, eta I Juan zaldi gaiñean igonda, zaldia aztalkatu (106) egin zanean, zaldiak laban eginda lurrera jausi ziran, eta bertan il zan.

Bizkai'tar jaun guztien artean, I Juan au izan zan danetatik geien arduratu zana, bai legean, zuzenbideak zentzun aundiagaz eröaten, eta batez be Bizkaitarren bereratasunari buruz (107).

22'gn. Jauna:

1.391'n Urtarrilla'ren 31'n egin eben III Enrike Gaztela'ko errege, eta gaztea zalako, aolkularitzazko talde bat irasi bear izan eben, arek eta III Enrike bere nagusitasunera eldu arte, euren artean Bizkai'tarrak zirala.

1.393'an eldu zan Enrike beren nagusitasunera, eta Bizkaia'ra etorri zan gure foruai ziñ-egitera.

Dagonilla'ren 4'ko larunbatean Bilbao'n lenengo, eta Aretxabalaga'n fueroai ziñ emonda, gero Larrabetzu ta Gernika'n ziñezko itz'ak emonda, Irailla'ren 4'an Bermeo'ko Santa Eufemi'ko eleizan egin ebazan. Eta ekitaldi orreitan, Bermeo ta Bizkai'ko Iribildu guztien lege-bereziai be, ziñezko itz-emon eutsezan.

1.394'an Abendua'ren 22'an, III Enrike'k, Bizkaitar andikiak euren artean sortzen ebazan borrokazko arazoakaz kezkatuta, bere Gonzalo Moro zuzengillea'ri (108) deituta, erkidegotasunezko taldea irasteko agindua emon eban, ta arauak idazteko agindu eutson. Beti, gure foruen adostasunean eginda.

Alkartasun orrek ez eban ondorio onik euki, leen: "Bizkaitar andikiak, ez eutsoelako jaramon andirik emon". Eta bigarren, Adrian'ek esaten dauan lez: "Arau orreik, ez ziralako egin Bizkaitar-Foruak ezkatzen eben adostasunagaz".

1.402'an, III Enrike'k, Portugal'ekin egin eben gudu-arte bat, eta bakeori ziñatzen: Bilbao, Bermeo, Donosti, eta Ruiz de Arteaga'tar Martin egon ziran.

III Enrike eta Katalina'k, alaba bat euki eben lenengo, eta mutilla'ren ezean, Gaztela'ko erregetzaren ondorengo izendatu eben.

1.405'an jaio jakien Juan semea, eta au izango zan Gaztela'ko errege II Juan'en izenagaz, eta Bizkai'ko Jauna.

1.406'ko Abendua'ren 26'an Toledo'n il zan Gaztela'ko errege eta Bizkai'ko Jauna III Enrike "Naigabeduna" esaten eutsoenai, eta bere ondorengo seme II Juan'ek, 22 illabete eukazala artu bear izan eben erregetza.

1.418'ko Ekaiña'ren 2'an il zan Katalina erregiña, bere seme II Juan oraindiño aita-ordearen babespean egon bear izan ebanak.

(105) Farfanak = mozárabes o cristianos que habían servido a los moros, apellidados farfanak, y hábiles en el manejo y carreras de caballos. (106) Aztalkatu = espolear. (107) Bereratasun = comodidad, prosperidad, libertad. (108) Zuzengillea = corregidor.

23'gn. Jauna:

II Juan, oraindiño umea izanda gure foruai ziñ emoteko, eta Bizkaitarrak arduratuta, Fernando, IIIIn. Enrike'ren anaia moruekin gudan egonda ez ebalako aukerarik euki foruai itza emoteko, IIIIn. Enrike'ren emazte Katalina'rengana joatea erabagi eben, umea'ren ordez, foruak ziñ egiazan, eta II Juan'ek 14 urte bete egiten ebazanean, lenengo bi-illabete barruan, edo len bait-len bete egian jai-arau ori, bestela, agintearen ordez emon bear eutsezan diruak ez ebela ordainduko, areik eta foruen-arauak eskatzen ebazan baldintzak bete arte.

Gernika'ko Batzarra batuta, eta ikusita alde-astungarriak egon zerala Bizkaitar-arauak egokitzeko, ordaintzeko erabagia artu eban, Katalina'k ziñatzen ba-ebazan foruen arauak, eta moruen'gandik askatzen zan orduan, Fernando berak-be.

Eta Katalina'k, umea ain txikerra izanda ez ebalako aukerarik alango bidai-bat egiteko, 1.407'ko Uztailla'ren 16'an Segobia'n ziñatu ebazan foruak, Gernika'ko Batzar ordezkarien eta Abendaño'tar Fortun'en aurrean.

1.407, 1.409, 1.410'eko urte oneik, oso gaiztoak izan ziran Bizkaitarrentzat, Bizkai'ko andikiak euren alderdikerizko borrokakaz, artegatuta euki ebalako Bizkai'ko lurraldea.

1.418'an Ekaiña'ren 2'an II zan Katalina Gaztela'ko erregeiña, eta II Juan'ek, Fernando aita-ordearen babespean iraun izan bear eban, areik eta 14 urte bete arte.

1.418'' an Urrilla'ren 20'an II Juan, Aragoi'ko Maria errege-alabarekin ezkondu zan.

1.419'ko Epailla'n, Gaztela'ko gorteak emon eutsoen II Juan'eri baimena, bere erregetzaren ardurak artu egiazan.

1.425'ean jaio zan II Juan'en semea, Gaztela'ko erregetzan IV Enrike izenagaz ezagutuko zana.

1.428'an Urrilla'ren 2'an, II Juan'ek Segobia'tik, Portugalete'ko Iribilduaren legeak baieztu ebazan.

1.440'ko urte onetan, Gaztela'ko errege II Juan'en semea, Gaztela'ko erregetzan IV Enrike izango zana, Nafarroa'ko erregiña I Blanka eta Aragoi'ko errege II Juan'en alaba, II Blanka'gaz, lengusuak izanda Balladoliz'en ezkondu ziran. Gero 1.453'an ezereztuta geratu zana, ondorengorik ez ebelako euki.

1.441'eko Azaroa'ren 6'an, Bermeo'tarrak euren arduradunai Ibañez de Meauri'tar Pero, Jaun edo erregearengana bialdu eben euren Foru-Legeak baieztu egiezan, eta Bizkai'ko Jaun II Juan erregeak eskari ori bakarrik ez zala berak Bizkaia'ri zor eutsozenak esan da, Bizkaia'ren orokorrezko Foru-Legea'k baieztu ebazan.

Errege onek, ez eban arremarik euki Bizkai'ko erriagaz, Gaztela'ko erregetzan euren artean, moru ta Aragoi'ko erreñuagaz beti borrokan

ibilita, eta lur ta itsaso'ko guda-indarren askoan beartuta, Bizkai'ko Batzar eta alderdikideen buruzagiakaz eskarizko laguntza bidez bakarrik berba egiten ebalako.

1.444'ko urte onetan, Bizkaitar alderdikidearen arteko borrokak, edesti guztiko gogorrenak eta odoltsuenak izan ziran.

Itsas-ontzi Bizkai'tar aldi oneitan, itsaso guztietatik ibilten ziran, Moruen aurkako borroketan, eta Ingalaterra ta Europa guztian, gure portuaren merkataritzazko bizitzari, arrigarrizko goraldia emon da.

1.450'ean, Gaztela'ko II Juan, Portugal'eko Isabel'egaz ezkondu zan, eta 1.451'n Isabel alaba, Gaztela'ko erregetzan Isabel la Katolika izango zana, eta 1.453'an Alfonso semea euki ebezan.

1.451-2 urte oneitan, Gaztela'ren erregetzazko politikari bildur, edo gure legeakaz sortzen ziran zalantzakin aspertuta, edo euren arduratan, sinisten ebalako ordua eldu zala, Bizkaia, Durango ta Enkarterriko ordezkariak erregearen orde egoan lege-gizon Pero Gonzalez de Santo Domingo'rengana joan ziran. Beragaz orokorrezko Batzar bat egin gure ebala esateko.

Pero Gonzalez de Santo Domingo, gizon ona izan zan, eta berak be ulertzen eban, Bizkaitarrak kalte asko eukiten ebazala Foru-Legeak idatzita ez egoteagatik.

1.452'an Ekaiña'ko 2'an Rigoitia'ko Idoibalzaga'n egin eben batzar ori, eta Durango, Bizkaia eta Enkarterritarrak, euren keskak aurkeztuta ondore, bakotzari ziñezpena artu egioztela esan eutsen, gero eurakaz batera, Bizkaia, Durango eta Enkarterrikoak euki eben oituzko legeak lez, ondo idatzita geratu zitezen.

Pero'k, danari maltzurkeririk-gabe idatziko ebela ziñezpena artu ondo-ren, berak, aldi orreitan garrantzizko zeregin askogaz egoala-ta, eurak idatzi egiezala zentzuz, euki ebazan oiturazko legeak, esan eutsen.

1.452'an Uztailla'ren 21'ean, len, dei-adarrezko bost-mendietatik deituta, eta Gernika'ko Arbola-pean batzartuta, idatzita aurkeztu ebazan Bizkaia'ren legezko-gorputz labur bat, 219 lege-gai eukazanak, eta bakotzak bere laburpen bat euki ebana. Nai-ta zenbakitasun au sortzezko-itzulpenarena ez izan, Zelaia'tar Adrian'ek esaten dauan lez.

Eurak eskatuta, Kastro-Urdiales'ekoak-be egon ziran batzar orreitan, eta euren ikurriña orregaitik daukie, Gernika'ko-Abola'ren irudiagaz edertuta.

1.454'an Ekaiña'ren 20'an il zan Gaztela'ko errege eta gure jauntzaren Jauna II Juan.

Berangandik esan geinke, Bizkaitar Foru-Legeakaz adeitsua (109) izan, edo ta Bizkaitarren legeak agintzen ebanakaz esanekoa (110) izan zala

Bera izan zalako alegindu zana, Bizkai'ko erri-Iribilduak eta Eleiz-aurreko batzarrak alkartuta, idatzi egien Bizkaitar Lege-Gorputz ori, Biz-

(109)Adeitsua = respetuoso. (110) Bizkaitarren Legeak agintzen ebanakaz, "Esanekoa" = humilde, sumiso.

kaitar-guztien on-iritxi edo atsegintasunagaz.

Eta emen ikustenda argi ta garbi, Bizkaitarren legeak ez dirala erregearenak eta gitxiago "Gaztelarrenarenak".

24'gn. Jauna:

1.440'ko urtean, IV Enrike, Nafarroa'ko I Blanka eta Aragoi'ko II Juan erregeña-erregearen alaba II Blanka, bere lengusiñagaz ezkondu zan lenengoz, eta seme-alabarik ez ebalako euki, Segobia'ko gotzaiari bereizkuntza (111) eskatuta, 1.453'an ezereztuta geratu zan ezkontza ori, Eleiza'ren aldetik, amaitubako ezkontza-lez emonda.

1.454'an Uztailla'ren 23'an egin eben IV Enrike Gaztela'ko errege, eta Bizkai'ko Orokorrezko-Batzarrak ille orren askenetan izendatu eben Bizkai'ko Jauna.

1.455'an Otsailla'ren 9'an, Bizkai'tar Batzarraren ardurapean egoan Bizkai'ko idazkaria Etxeaga'tar Martin aldatu eben, eta Pedro Gomez de Sebilla'ri emon eutson betiko idazkaritzaren ardurea, Bizkai'ko Batzarra kontuan euki gabe.

1.455'an Epailla'ren 4'an, Gernika'ko Batzarrak aginduta, Lope Garzia de Salazar eta bere seme Lope, IV Enrike, Abila'n egoan lekura bialdu ebazan, IV Enrike'ri esateko Foruak agintzen eban lez siñatzera etorri bear ebala.

Abila'n ez eben aurkitu, eta Sebilla'raiño joan bear izan eben. Beragaz egonda, IV Enrike'k, une orreitan guda-antolaketan ibilita ezin ebala joan, eta 1.455'an Epailla'ren 28'an Sebilla'n, Foru-Legeak baieztatzeko egin eben eskutitza artuta, gure ordezkariak umaje egin ondoren etxera itzuli ziran.

1.455'ko Lorailla'n IV Enrike "Antxua" esaten eutsonai, Portugal'eko Duarte erregearen alaba, bere legusiña izan zanagaz, Kordoba'n ezkondu zan, eta alaba bat euki eben "La Beltraneja" esaten eutsoenai, beren aita, Beltran de la Kueba zala esaten ebalako. Eta erregetzaren ondorengo izendatu eban, bere aizta Isabel'en aurka egiteko.

1.456'an epailla'ren 4'an, Gaztela'ko errege IV Enrike, Bizkai'ko jauntza ziñ egin barik artzeko ibili zalako, edo ta gudartean ibilteagaitik mandio-urdiñenak (112) egiten bai beintzat egon zalako. Gernika'ko Batzar-Nagusia'ren keiñaduragaz beartuta etorri bear izan eban.

1.457'ko Epailla'ren 2'an Gernika'n Antigua'ko Ama'ren Eleizan: Erria'ren Lur-Zelaiko Foruak zindu ebazan, eta ille orreitako 10'ean Iribildukoak Bermio'n.

1.469'an IV Enrike'k, Bizkai'ko erri-Iribilduak eta lurrak saldu ebazala surrumurrua zabaldu zan, eta Bizkaitarrak erregeari, surrumurru

(111) Gotzaiari bereizkuntza eskatu = pedir la dispensa del matrimonio. (112) Mandio- urdiñenak = remoloneando.

orrein argitasuna eskatu ondoren, erregeak: "Guzur andiak zirala esanda, bakeztu eben Bizkaitarren urduritasuna".

Bizkaitarrak, ez eben ontzat artzen surrumuru ori, eta erregeak eskutitz baten bidez Bizkaitarrak ostera guzurtzen dauz, Gaztela'ko erregearen asmo-osoia, Señorioa zatitu eta alokatzea (113) zalako.

Eta Bizkaitarrak batzartuta, erabagi au artu eben: "Jaun-txar ori kentzea, eta Isabel (114) bere ugaz-arreba (115) izendatzea.

IV Enrike'k ez eban on-artu erabagi ori, eta lenengo maltzurtasunez (116) jokatuta, larderiaz (117) gero, eta 1.470'ean Epailla'ren 4'an bere errege-aunditasunean Mungia'n galdu eben borrokagaz minduta, on artu eban: "Bizkaitarren agindua, beren gaiñetik egoala, eta euren eskuetan bakarrik Bizkai'tar Jauna'ren aldaketa".

1.474'an Abendua'ren 11'n Madril'en il zan IV Enrike.

25'gn. Jauna:

1.469'an Urrilla'ren 9'an, Gaztela'ko I Isabel (118) eta Aragoi'ko II Fernando (119) Balladolid'en ezkondu ziran.

1.473'an Irailla'ren 15'ean Bizkaitarrak, Gaztela'ko I Isabel eta Aragoi'ko II Fernando'ri, eskutitz bat bialdu eutsoen esanez: "IV Enrike'ren zintzotasunetik kanpo egon zirala, ezer ez ebalako jakin gura, eurei emoneko itza'gaz, maltzurtasunezko jokoan ibiltezan gizona'rekin".

Eta euren zintzotasunera aldatzen zirala egiztatzeko: "Lenago danak ilko zirala, eta bizirik geratzen ziranak lur onetatik alde egingo ebela, euren agindupe'tik kanpo geratu baiño len" esanda.

1.473'an Urrilla'ren 14'an, IV Enrike il orduko, I Isabel'ek Bizkaitarrai eskutitz-bat emon eutsen, Bizkai'ko Foru-Legea'ren askatasunak baietzatzen ebanak.

1.474'an Abendua'ren 11'n il zan IV Enrike, I Isabel'en ugaz-neba.

1.474'an Abendua'ren 12'an, IV Enrike'ren il-otoizketak egin ziran.

Eta 1.474'ko Abendua'ren 13'an, Fernando Aragoi'en egoala eta Isabel Segobia'ra joanda, bere aginduz (120), bertan izendatu eben Gaztela'ko erregiña.

1.475'ean Portugal eta Frantzia'ren aurka egin ebezan borroketan, an egon ziran Bizkaitarrak beti lez, Isabel ta Fernando'ri laguntzen.

1.475'ean Irailla'ren 20'an Burgos'etik Fernando'k, irain-ordeko (121) agiri bat bialdu eutsoen Bizkaitarrai, IV Enrike'k "Judas"eko (122) izenagaz zelakotu ebalako. Emen, ez dogu Franko gogoratu bear ?.

(113) Zatitu eta alokatzea = de acuerdo al sistema feudal vigente. (114) Isabel = gero katolikoa izango zana. (115) Ugaz-arreba = hermanastra (116) Maltzurtasunez = con mentiras, engañosamente. (117) Larderia = con bravatas, amenazas. (118) Gaztela'ko I Isabel 1.451-1.504. (119) Aragoi'ko II Fernando 1.452-1.516. (120) Ekintza orregaz, zarratu egiten ebalako Aragoi'ko II Fernando eta Juana "La Beltraneja"ren eztaibadak Gaztela'ko erregetzaren eskubiderako. II Fernando bera be, Gaztela'ko erregetzaren odoletik etorten zalako, eta Aragoi'en neskak, debekatuta euki ebalako erregetzara igoten. (121) Iraifi-ordeko eskutitza = carta de desagravio. (122) Judas'eko izena = traidores.

Eta emendik aurrera Fernando ta Isabel'ek, bialtzen ebazan eskutitz, agiri, norberaren agiri, lege berezietan, eta albalaeko (123) idazkia'ren buru: "Muy Noble è Muy Leal Condado" ipini egiazala agindu eben. Ori ta geiagoren merezimenduak daukiezelako Bizkaitarrak.

Fernando'k au esanda urrengo egunean, Bilbo'ko Iribildua: "Muy Noble y Muy Leal" izendatu eban.

1.475'an Uztailla'ren 7'an, errege katolikoak Tordesillas'etik agindu eben, Bizkaitarrak euren erritik-kanpoko serbitzura joan bear izan ebenean, Forua'k agintzen eban lez egin bear ebela, au da, erritik urten orduko ordainduta izan egiezala.

1.475'an Uztailla'ren 27'an errege katolikoak beste agindu bat emon eben Toedesillas'etik: Bizkaia ta Enkarterriko mariñelak, ez egiezala euren serbitzuak lurrean egitera beartu, Foru-Lege'ak debekatu egiten ebalako.

1.476'an Uztailla'ren 20'an Fernando Bilbao'ra etorri zan Forua'i ziñez itz-emoteko Isabel'en orde, eta Bilbo'ko atean ziñ eginda, Larrabetzu'ko San Emeterio ta Zeledon ziñ-egiteko Eleiza'ra joan ziran.

Eta 1.476'ko Uztailla'ren 30'ean Gernika'ra elduta, Bizkaitarrak, Antigua'ko Santa Maria'ren eleizan egon zirala, Fueroa'k ziñ egiazala eskatu eutsoen, eta Fernando'k orretarako etorri zala erantzun ondoren, erregiña'gaitik-be ziñ egiten ebala, Bizkaitarrak berari emon dautseen laguntzagaitik ezkerdun dalako, eta sekula ez eutsela ertsitu edo estutuko eta gitxiago Fueroa'k autsi, ezereztu edo oinkatuko esan eutsen.

Bizkaitarrak orren ostean, umajea oiturazkoa zan-lez, Fernando, Gernika'ko Zuaizt-pean dagon arrizko alkian ezarrita, beren eskuak muinkatu ebezan.

Eta askenez, Bermio'n ziñ egin eban.

1.476'an Irailla'ren 25'ean, Fernando'k agindu eban, Bizkaitarrak ezin dirala baitu edo atxilotu, errikoen artean eukiten ebazan ordaindubako zorrak gaitik. -Euskal-Berbea, egizko aintzakotzat euki ebalako ?. Gaur, Oreja'tar Martzeliño'k bardin esaten dau-.

1.474'ko Abendua'ren 13'an Isabel erregiña izendatu orduko euki eban lenengo alaba, Isabel izendatu ebena, eta Portugal'eko erregeagaz ezkondata 1.498'an il zana.

Bigarrena mutilla izan zan, Juan'en izena ipini eutsoena, eta 1.497'an Urrilla'ren 4'an il zana.

Irugarrena Juana izan zan "Zoroa" deitzen eutsonai, Alemania'ko Kaizar'en seme Felipe'gaz "Ederra" esaten eutsoenai, ezkondata.

Laugarrena, Maria, Isabel bere aizta il zanean, Portugal'eko errege bere koñatua zanagaz ezkondu ebena.

Eta bost'garrena Katalina, Ingalterra'ko Printze Arturo'gaz ezkondu zana, eta alargunduta, onen anai VIII Errike'gaz ezkondu zana.

1.483'an Iraila'ren 5'ean, Isabel-be Bilbo'ra etorri zan, eta Tenderia'

(123) Albalaeko = cédulas reales.

ko ateetan Fueroai ziñ emon eutsezan.

1.483'ko Irailla'ren 8'an Isabel, Portugalete'ra joanda, Otxoa Ortiz de Montellano'etxean, ostera Fueroa'ak ziñ'du ebazan.

1.483'ko Irailla'ren 16'an Larrabetzu'ko San Emeterio ta Zeledonio'-ko eleizan. Eta Irailla'ren 17'an Euskaldunentzat Saindua dan Gernika'ko Zuaitz'pean.

Durango'ra joan zan, eta bertan Tabira, Durango, Elorrio eta Ermu Iribilduaren Foru-lege'ai be ziñ emon eutsezan, eta erriaren bost-giltzak artuta, Durango'ko Santa Maria Eleizan amaitu eben ziñ egitea'ri.

Emendik aurrera eta nai-ta 1.526'ko idatzitako Foru-lege barriaren II gaia'k alan eskatu, Bizkai'ra ez zan etorri Gaztela'ko erregerik ziñ egitera, goian esandoten lez, eskutitz-bidez bete egiten ziralako oiturazko arau orreik, gero Bizkaitarrak Gernika'ko Batzarrean irakurrita baiezten zana.

1.504'an Azaroa'ren 26'an, 53 urte euki ebazala Medina del Kanpo'n il zan Isabel. Eta Bizkaia'n bere eriotzaren elizkariak eginda, Gernika'n Juana eta Felipe'ren jauntza baieztu zan.

Taket-arteko ondorio labur-bat.

Isabel'en Andre-Jauntzan ikusten dogu, nai-ta denbora borrokatsuak izan, itzarmen bidez bata bestearen beartasunean, gure Foru-lege'ak indartu egin ziralako, Bizkaitarrak eta erregeak zentzun andiko leialtasunean jokatu ebelako.

Denbora iltzaile oneitan, Euskaldunak itzarmenekoak beti-lez izan ziran, eta ikusi dogun lez, Gaztelar erregeak euren larritasunagaitik, Bizkaitarren arremanakaz lotsa aundia euki bear ebela, oartuta egon ziralako. Lurretik euren leialtasun-bidez laguntza aundia euki ebala eta ez gitxiago mariñel eta itsas-ontzi egilletasunean oso trebeak izan ziralako.

Emendik aurrera baiña, bolbora edo lerrauts-gintzaren (124) obetzeak ekarri eben izkillu ta kañoi-gintzagaz, Gaztelar erregeak gero ta indar geiagoagaz arrotuten asi-ta, eta bide batez 325'ean Nizea'tik asmatuta etorten zan azpikerizko dogma-arau'en mendekotasun orregaz, itzarmeneko ekandutik urruntzen joan ziran, edo ardura gitxiago eukiten bai beintzat, Gaztela'ko gorteakoak maltzur-zitalkeri gogorrean asita, itzarmenaren zentzunezko aztarnak naastuten asi ziralako, nai-ta Euskaldunakaz oraindiño eta gero ikusiko dogun lez Austria'tar guztiakin, emoneko ziñ-itzak lotsa aundian zaindu.

(124) Lerrauts-gintzaren = fabricaciòn de la polvora.

Bizkaitarak, Jauntza-gaitik ordaindu bear ginduzan diru- tzak, Gaztela'ko erregeakaz itzarmentzen asi gintzazanetik.

Bost ordain-legeak ziran oneik: 1'goa.) Erregearen ardurapeko erroldan egon ziran baserriak, lurak lantzen ebazanagaitik ordaindu bear ebezan zergak.

1.486'ko itun-atalaren gora-beran (125), diru zarreko maraurietan (126) 100.000 izan ziran, edo 200.000 diru zurian.

2'gna.) Erri-Iribilduaren eskariak deitzen ziran, zerga-oneik erriak eukan giza- seme alabakaitik ordaintzen ziralako, erregearen emaitzako eskutitzetan esaten dan lez.

Asieratik ordaintzen ebezan erri-Iribilduek: Bermio, Bilbao, Durango, Lekeitio, Ondarroa, Gernika, Plentzia, Balmaseda, Gerrikaitz, Markina, Elorrio eta Portugalete'k 16.000 diru zarreko maraurietan, eta diru zurian ordaintzen zanean 302.000.

3'gna.) Bizkai'ko burni-olatan egiten ziran arratz edo kintal-bakotzeko 16 mairuko diru zarretan.

Zerga onen ordainketa erreztu egiteko, enkantean saldu (127) egiten zan, eta irabazi egiten ebanak, orokorrezko erri-diru zaintzan 180.000 bellon'go marauri ordaintzen ebazan, eta bertatik ordaintzen zan zuzendaritzaren (128) lan-saria, 1.715'ean 62.000 marairu'koa zana.

4'gna.) Bizkai'ko-Jaun erregeak, euren emaitzako erri-eskutitzetan agintzen ziran lekaidetxearen-amarrenak.

5'gna.) Iribilduaren bururuzagia'ri ordaindu bear jakienakaz.

Oneik dira Bizkai'ko jauntzan, euren ordainketarako euki eben eskubide bakarra, nai Bizkai'ko Jaun'gotik izan ziranean, nai gure jauntza Gaztela'ko erregeen eskuetan ezarri zanean.

Ordaindu bear zan diru guztiaren kopurua 616.532 marauri izaten zan.

Gaztelako erregetzaren eskuetan jausi gintzazanean erregetzaren-sariak deitu ziranak, eta erregeak zergaz'ko-sari ortatik, gudarako bear ziran aizta-makil, balesta-gezilari eta beste izkilluaren ordainketak egiten ebezan, eta beste gauza asko emoten ebzan Bizkaitarren leialtasunagaitik.

26'gn. Jauna:

1.504'an Zemendia'ren 26'an I Isabel katolikea il zan, eta Gernika'ko Batzarrak, bere arimagaitik il-otoizketak egin da, illaren askenean bere alaba-suin Juana (129) ta I Felipe (130) izendatu ebazan Bizkai'ko jaun, 1.516'rarte iraun ebena.

Emen jakin bear doguna, baiña, zelako maltzur jokoak ziran areik Aita

(125) 1.486'ko itun-atalaren gora-beran = según el capitulado de 1.486. (126) Maraurietan = maravedies. (127) Enkantean Saldu = rematar, licitar. (128) Zuzendaritzaren = corregidor. (129) Juana la loca = 1.479-1.555. (130) I Felipe "Ederra" = 1.478-1.506.

Santuen gandik asi eta Europa'k euki ebezan erregeetatik amaituta, Fernan- do katolikua azpikerizko jokoaren ardatza izanez.

Guzti orrein indarrezko-jokoa Mundu osoarentzat, katolikotasunezko guzur aundienaren garaipena lortzen ibili ziralako da.

Eta indarrezko joko ura, ezpata ta zifneskintza edo dogmatika'ren bidez izan zalako, gure demborara eldu dan guzurra ezarri eben gauza guztietara-ko.

Gero ta aundiagoa egin jakuna, Bereztasunaren LEGE ta BAITAN ezer ez ebalako konpondu, eta gaur arte-be eritzi bardiñean gatozelako, gizakiaren eskubideak anka-z-gora daukaguzelako.

Gaur egiten dan guztia, Demokrazia'ren izenean egiten dala esaten da-be baiña iñork esango daust, noren demokrazia gaitik berbetan gabiltzan ?.

Mundu onen bizitza zentzunean eroateko, antolaketarako daukaguzan baldintzak, epe-laburrean emendik alde egin bear dogulako, iñundik ez dira gure baldintzak. Jakin lei orduan, NOREN baldintzak dira orreik ?.

Ortik ez ba-gara asten, sekula ez doguz daukaguzan arazoak konponduko.

Eta joko zikin ori apur-bat argitzeko, edesti labur bat egingo dogu.

Nafarroa'ren Ego-aldeko menpetasunaren edesti laburra.

1.504'an Zemendia'ren 26'an Isabel katolikea il zanean, Fernando'k ikusten eban, Gaztelako jaurkintza Juana ta Felipe'ren eskuetan itzi bearko ebala. Baiña laster aleginduko zan oneik zelan bastartu.

1.505'ean Urtarrilla'ren 23'an Fernando'k, Toro'ko gorteetan Juana'ren zorotasuna azalkeratu eban eta Isabel'en azkenaiaren agindutik, Gaztela ko erregetza berak zuzendu bear ebala, esan eban.

1.505'ean Urrilla'ren 12'an, Fernando bere suin Felipe ikus-eziñ eban alde batetik, eta bestetik, Frantzia'ko errege XIIIn. Luis'ek, Felipe artxidukearen al-izan edo bera izan zanagaitik, bekaitz euki eban. Eta biak alkartuta Blois'eko elkargoa ospatu eben, Fernando ta Foix'eko Germana'ren ezkontza ontzat artuta.

Denbora oneitan, Frantzia'ko errege XIIIn. Luis'ek, beren lengusu Beaumont'eko Lois Leringo kondea eta Nafarroako kondestableagaitik ondo berba egiten eban. Egia baiña, au beren obekuntzagaitik itz-ustelekoa izan da, bardiñ ibiltzen zala Frantzia naiz Espaina'ko erregeakaz Nafarroa'-ko erregetzaren aurka.

1.506'an Bagilla'ren 27'an, Fernando'k, Gaztela'ko erreñua ezinezkoa zala berak bideratzea ikusi ondoren, bere suin Felipe Ederragaz Billafafila'n batzartuta, alkargo au sinatu eben: Juana erregeña beren zorotasunagaitik alboratzea.

Fernando katolikuaren izar eta indarrak itxura baten berantza joan ziran, eta Nafarroa'ko erregeak, Frantzia'ko errege XIIIn. Luis'ek gero ta jokabide txarragoan artzen ebazan.

1.506'an Dagonilla'ren 27'an, Balladolibiz'en Duero'ko Tudela'n, Gaztela'ko Juana eta Felipe-Ederragaz, barneko adiskidetasun ta bekearen ituna sinatu eben. Nafarroa'ko erregeentzat ain ongarri izan zana, Gaztela, Ingalterra eta Erroma'ko Aita Santuaren adiskidetasunera urbiltzen ebazan.

Baiña nai-ta Fernando'ren maltzurrezko gaiztotasuna danak jakin arren, eta berak euki ebazan maltzurtasunezko asmoak izkutatzeke Napoles'era joanda, nork susmatuko eban, 1.506'an Iraila'ren 25'ean, pozoituta ? I Felipe-Ederra ilgo zala, eta Juana zoratuta, Gaztela'ko antzokian Fernando katolikua agertuko zala antzezleri nagusi lez ?.

Fernando'k, Nafar-erregeai sekula ez eutsen parkatuko, berari ezetza emonda, beren lepo-gañetik Gaztelar erregeakaz egindako itun ori.

1.506'an, Fernando katolikuak indarrak barriztuta, eta bere alegiñaren bidez, Nafarroa'n anai-arteko guda biztu eban.

1.507'an Urtarrilla'ren 2'an, Tolosa'ko Lege-Biltzarrak Nafarroa'ko erregeai: XIIIn. Luis'eri 5.000 libra eta 1.000 libra Bearne'ko Koarrazee jaunari ordaintzera zigortu ebazan, iltzaille onen gaztelua ezereztu ebalako.

1.507'an Dagonilla'ren 21'ean Fernando Gaztela'n sartu zan. Eta berton berari eginekoko irainak, bai Duero'ko-Tudela'ren ituna'gaz gogoratuta, Nafar-erregearen aurkako alegiñetan asi zan.

1.508'an IIn. Julio Aita Santua'k, Nafarroa'ko erregeak eskomunikatu edo eleiza'tik kanpora atara ebazan, Iruña'ko gotzaintasun eta Tudela'ko dekangoa'ren gora-beragaitik.

1.508'ko Bagilla'n, IIn. Beaumont'tar Luis Leringo kondea'k, 1.506'an Fernando'ren alegiñagaz Nafarroa'ren aurka asi eben guda, eta onek babes gabe itzi ebalako, guda beren aurka asi zan itzultzen, Lerin'etik asi eta leialtasunean euki ebazan gazteluak, Nafar'tar eskuetan asi ziralako geratzen.

1.508'an Zemendia'ren 16'an, Beaumont'tar IIn. Luis Leringo kondea il zan, eta bere seme Beaumont'tar IIIIn. Luis izan zan, Nafar'tar erregetzaren aurka, Alba'ko dukearen gudaldia bideratu ebana.

1.508'an Abendua'ren 10'ean, Alemania'ko I Maximiliano, Frantzia'ko XIIIn. Luis, IIn. Julio Aita Santua eta Fernando katolikoak, Kanbraiz'en Benezia'ren aurka alkartasuna sinatzen egon zirala, XIIIn. Luis eta I Maximiliano'k, beste kidegotasunezko itun bat sinatu eben.

Nafar erregeentzako Maximiliano'k, estu-aldien gaiñetik, bakearen zabalasunezko obari edo ongarri guztiak gura ebazala, eta nai-ta Frantzia'ko XIIIn. Luis erregearen aurkako izan, alkargo orreri idazkun berezi bat sartu jakon: "Sinaduraren ostetik eta urte bateko epean, Nafarroa'ko erregeari ezin jakiela kalterik egin, ez Frantzi'ko errege bidetik, ez Foix'tar Gazton Numers'eko dukearen aldetik.

Eta Alemania'ko kaizar'en arreba Margarita'ri esker, Nafar-erregeen Katalina eta Juan'en izenak, sartuta geratu ziran alkartasun orreitan.

1.509'an Juan erregeak Nafarroatik kanpo euki ebazan' jabetzak, Bearne'ko lege-biltzarrean batu ebazan.

1.509'an, Fernando Nafarroa'ko zeregiñetan asi zan sartzen, eta erabagita eukela esan leike, beren erara Nafarroa'gaz geratzeko.

1.509'an Uztailla'ren 28'an, Fernando'k Balladoliz'etik, Beaumot'tar IIIn.Luis Nafarroa'ko kondestableari idazten dautson eskutitzan esaten dautso: "Nafarroa guda-bidetik menperatzeko, berak esango eutsela, noz eta zelan egin".

1.509'an Abendua'ren 20'an eta 1.510'ean Blois'eko alkargoa'ren bidez, Austria'tar Maximiliano'k, Nafar erregeak Juan eta Katalina babes-ten irauten ebanak:

Fernando katolikuagaz egindako biltzarrean eta Gaztela'ko jaurkintza-
ren arduratarako argituaz, Nafar-erregeak izendatuak izatea lortu eban.
Gaztelan, erregeakaz sortu zanagaitik, Eleiza ta Europa'ko erregeak,
erregeen arazo orreik erabagitzeko biltzartzen ziran, eta danez gain:
"Europa'ko erregetzaren iraspenak indartsu iraun egiazan".

1.510'ean Urtarrilla'ren 7'an, ostera agertu jakien Nafarroa'ko errege-
ari IIIn. Luis'en aldetik zori txarra, Tolosa'ko Lege-Biltzarra'ren aginduz
Bearn'eko bizkonderriaren jauntza Luis'eri emon bear eutsoelako.

IIIn. Luis, Nafar-erregearen aurkako jokoan, Lege-Biltzarra'ren era-
bagien atzean ibili-ta, Juan'en zerbitzari batzuen ondasunakaz geratu zan
eta Foix'eko Gazton'eri bost gazteluen ardura emon eutson, baiña ez zan
aurrera joan, Fernando katolikoa eta IIn. Julio Aita Santua asarratuta agertu
ziralako.

1.510'ean Urtarrilla'ren 21'ean, Iruña'ko gorteak Nafarroa'ko erregeai
eta illabete bat beranduago bost ordezkioak bialduta, Bearn'ekoak, euren
leialtasuna emon eutsoen urte biko alkartasunaren eskeintzagaz. Eta
Nafartarren erreñua babesteko zeozer gertatzen bazan: "Abizen orokorrez-
ko Dei-Adar'era deitu egiela". Eta olan joan ziran gauzak 1.511'rarte
emengo aldetik.

1.510'ean, IIn. Julio Aita Santua IIIn. Luis'egaz guztiz asarratuta,
Nafar erregeari, eleiza'tik kanpoko zigorra kendu eutsen, Iruña'ko gotzai
zeregiñetan, Juan'en anaia, Albret'eko Amanuel kardinala ezarrita.

Oso denbora korapillotzuak ziran oneik, Aita Santua'ren agindu gora-
beran, Europa'ko errege eta eleiza'ko nagusi batzuk naaztuta ibili ziralako.

1.414-1.418 Konstanza eta 1.431-1.445 Basilea'ko Eleiz-Batzarretatik,
zabaltzen ta indarra artzen asi zan, Aita Santua'ren agintaritzaren gaiñetik
Eleiz-Batzarra zala nagusi. Erregeak ondo ikusten eben, euren naikerietan,
sarri aurkezten ziralako Aita Santua'ren zeaztasunakaz.

1.512'an IIIn. Julio Aita Santua izan zan eritzi orrean aurka urten ebana, Letran'eko Vn. Eleiz-Batzarrean asi-ta, eta 1.517'an Xn. Leon'ek guda-indar bidetik, Pisa'ko sasi-batzar eta gogamen orreik amaitu ebana.

Fernando katolikuak bere maltzur ta guzurrezko ekintzagaz (131) izan zan, Nafar-erregeak egiaren aurrean zalantzan ipinten ebazana. Ez Nafarroa bakarrik, beren ametsaren asmo-gogoak, Lurrarteko itsasoaren inguru gutia Konstantinopla'raifnoko jabetasuna gura ebalako.

Begitu non geratzen ziran, gaurko Espaina'tar aberkidearen ametsak, Fernando'ren guzurrezko irakatsiak, egi-lez ezarri gure ba-dabe.

1.511'ko Bagilla'n, Katalina eta Juan Nafarroa'ko erregeak, uste eben erdikotasun edo alderdi-gabeen kokatuta egon zirala, nai-ta euren babesle edo laguntzaille Maximiliano Alemania'ko erregea 1.508'an Trenton IIIn. Julio Aita Santua'gaitik kaizarra aukeratua izan zanak, alegin asko egin Aita Santua'ren alderdian kokatu zitezten. Eurak, beti baieztu edo ziñeztuta esaten eben, sekula ez ziran alboratu IIIn. Julio Aita Santua'ren aginpetik.

1.512'ko Epailla'n Fernando katolikoak, Frantzia'ko errege XIIIn. Luis'eri guda aurkeztu eutson, eta Nafar-erregearentzat ia ezinezkoa biurtu zan alderdi-gabetasun ori.

Alde batetik, Nafarroa'ren zaintza, gaztelatarrakin alkartasuna aolkatzen ebalako. Bestetik, Foix eta Bearn'eko laterriaren zaintzak, Frantzia'ren adiskidetasuna aolkatzen ebalako.

Eziñ eben ezelango mugialdirik egin, Fernando adi egon da, XIIIn. Luis'egaz alkargoen bat egite ba-eben, berak bereizkeri-zale ta eleiza'tik eskomunikatua'ren marra eurei ezartzeko zain egoalako.

Fernando bitartean, Erroma'ko Gotzai-Auzitegi eta Burgos'en, Nafar-ordezko mezulariai, eziñ egin ziran adierazpenak egiten egon zan.

Nafar-erregeakaz Fernando'ren maltzurrezko jokoa, onen seme Biana'ko printzea bere bir-alabeagaz eskontzeko, bere baituran eukitea zan, Frantzia'ko gudalozteari, Auñamendi ta Bearn'eko bideak ebagiteko.

Maltzurkeri utsa zan baiña, berak Frantzi'ra aldatzeko, Gipuzkoa'ko bidea aske euki eban.

Fernando'k, Frantzi'ko bidearen ziurtasuna eukiteko, Nafarroa'tik Gudalozte Santuak aske ibili zitezten, askatasun aundia eta gudu-antzezko gazteluak (132) bere agindupean eskatzen ebazan.

1.512'ko Uztailla'ren 3'an baiña, Fernando'k, Nafarroa'ko erregeak aulkitik botateko euki eban amarrukeria, berak Zalduba'ko Uria'ri idatzitako eskutitzan agertzen dau esan onekaz: "Frantzia'ko erregeak bereizkeri-bidez, zatitu egin dauela Eleiza'ren batasuna, kristau-bizitza arteg-arazita"; "Aita Santua'k laguntza eskatzen dauskula, etsai-indarrak bere ingurutik aldentzeko"; "Erroma'ko Aulkiak, Gurutzada'ren Barkamen osoa agindu dauskula"; "Mezularien bidetik oartuta geratu gara, Nafar-erregeak gure

(131) Fernando izan zan eleizaren bareizkeri edo alderdikeri orreik sort-arazi ebazanak. Eta Nafar-erregearen aurka egiteko, ez eban ezeren lotsarik euki Aita Santua'ren bulda'k eskerniatzeko. (132) Gudu-antzezko gazteluak = castillos estratégicos.

aurka, zelan alkargotu egin diran, Frantzes'ari gure lurraldeetan sartzen iz- teko, eta gure erreñu eta jauntzazko lurraldeetatik eurak gura nai-duena artzeko”.

Baiña, eraso-aldi ori zuzen-gabekoa izan zalako, eta oraindiño ez ziralako agertu eskerniatuko Bulda'k (133), Fernando basakerizko otso- itxuratik, azeri-emeen maltzurtasunezko itxurara aldatu zan, zentzunezko gizon-emakumearen giza-barrenak iruzurtu edo atzipetzeko

Orretarako, Blois'eko itun edo alkargo baten agiria beren erara aldatuta agertu eban. Bertan, Frantzia ta Nafar-erregeen artean alkargotuta egon ziralta esaten ebana, Gaztela ta Aragoi'ko menpetasuna lortzeko Nafarroa'ko erregearen alde.

1.512'an Uztailla'ren 17'an, Nafar-Mariskala Burgos'etik urdurituta erregeari esaten eutson: “Fernando'k lar eskatzen ebala, eta “Abizen- Orokorrezko dei-adar”era deitzeko gudalozteak prest egon zitezzen.

Artu-emon orreik, fernando'k Mariskal'ai egindako erantzunagaz amaitu ziran: “Berak, indarrez artuko ebala, zuek borondatez emoten ez dozuena”.

1.512'an Uztailla'ren 21'ean, Alba'ko dukearen gudaloztea, 1.000 gudari-gizon, 2.500 zaldi, 6.000 oinkari eta 20 kañoi euki ebazanak, Burunda'ko ibarretik mugak apurtu ebazan. Eta aurreko taldean Giputzak, Arabarrak eta artean Nafar'tar-zaltzailleak, IIIen. Luis Lerin'go kondeak bideratuta, Etxarri-Aranaz'en gau egin eben.

1.512'an Uztailla'ren 22'an Uarte-Arakil'en egin eben gaua. Eta Uarte-Arakil babesteko egon ziran Erronkal-gudari apurrak Ozkiarte'ko aizpitartera aldatu ziran. Sartzailleak, Aizkorbe'ko lepotik inguratuta alderatu eben arrizku ori. Gau orretan, Iruña'ren aurrean karpapean lo eginda.

Nafarroa'ko I Juan erregeak Tuterari 500 gudari eskatuta, Katalina erregiñari Biana'ko printzea eta beste seme-alabakaz batera Beran'era aldatu zitezela agindu eutson. Eta iges-egite ori, ain bizkorra izan zalako, Frantzizko semea, bero ta nekearen larritasunagaz il jakien.

1.512'an Uztailla'ren 23'an Iruña'tik, Nafar-erregeak exkomuniku'- aren pekatua egin ebela, azpiko jokoaren zurmuruak zabaltzen asi ziralako, gau orreitan I Juan'ek alderagin eban.

1.512'an Uztailla'ren 24'ko gauan, Muskaria'n (134), Gonzalo'tar Mirafuentes'en agindutara egon zan Nafar-gudaloztea Tafalla'ra aldatu zan, eta au oartuta erregeak Iruña'tik alde egin ebela, Lumbier'era aldatu zan agindua'ren itxaropenean.

1.512'an Uztailla'ren 25'ean, Gaztelar gudal-nagusi Toledo'ko Fradike Alba'ko dukeak, Arga-ibaia aldatuta eta gudaloztea zabalduta eraso egiteko prest egoala, Uria'ren ziñezko gizonak aurreratuta Iruña'ko giltzak emon eutso zan. Berak, Gaztela ta Aragoi'ko erregeen izenean: “Oiturak

(133) Eskerniatuko buldak = bulas-falsificadas. (134) Muskaria = Tudela.

eta oi-arauak lotsean gordeko ebazala ziñ eginda.

1.516'an Urtarrilla'ren 23'an Fernando katolikua il zanetik, Espaina'ko erregetza Zizneros kardinalak zuzentzen eban eta Espaina'k berari zor dautso Nafarroa'ren menpekotasuna.

Kanpion'ek emen, garrantzi aundiko gauza bat esaten dau, "Nafarroa, Fernando katolikuak menperatu ebala, aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz azaleratuta".

Eta Nafarroa'ren egizko menperatzaillea ez zala Alba'ko dukea izan, In. Julio Aita Santua baizik.

Ondorio laburra.

Gaur-lez, Nizea'tik beti euki daben katoliko-maltzur jokoa izan zan ori, eta gaur orduan lez, ezer ez dabena argitu edo erabakitzen.

Dana dala, Fernando katolikua'k azkenean guzur utsez eta Aita Santua'ren laguntzagaz, nor geiago dirala, Nafarroa'ren Auñamendiko Egoaldeagaz geratu zan. 1.513'an Nafarroa'ko gorteak In. Fernando "KATOLIKOA" errege izendatuta.

Bizkaitar, Giputzak eta Arabarrak, or ibili giñan naspilduta Nafarroa'-ko erreñuaren aurka, euki genduzan zentzunezko itzarmenak bakoitzaren Batzar-Nagusi bidetik alan eskatzen ebelako.

Baiña, edesti-labur au ikusita, iñok esango daust, guda-joko orreitan egon ziran guztiak, zelako ABERRIA'ren BAITA euki eben?. Edo ta nork eta zertarako azpiko barnetik ebatuta erabilten ebazan odol-jariozko gudari guzti orreik?.

Kontuan artu bear da, lurralde orrein geieneko erritarrak EUSKERAZ berba egiten ebala eta DEMOKRAZIZKO EUSKAL NORTASUNAREN BAITA eukin da, iñork ez ebala euki NORTASUNAREN berezko izatearen babesetik kanpo, ABERRITASUNEZKO ametsik.

Eta Frantzezak, Gaztelarrak eta Aragoi'tar erregeen andikeri-naia ikusi ezkerro geien.

Errege ta katolikotasunak euki eben goitik berako Erroma'tar antolamenduzko jaurkintzak, ez euken zer ikusirik Bizkai'ko-erritarrak euki eben jauntza'gaz, diteken arloan asmatzen ebazan maltzurrezko legeakaz, katuak umiakaz egiten dauan antzera, auek kokotetik ebatuta ezberdiñeko eritzilekuetatik ibiltzen ebazalako.

Orduan?. Kontuan artuta, nai errege jauntzak eta bai erritarrak gaur-lez, panpiña batzuk baiño ez zirala izan. Nor izanda joko orren ariak eskuan artuta, ibili dauazan soka-dantzari?.

Antziñatik datorren eritzi edo norkerizko gogoia da, Mundu'ko gizarte osoa kaizar baten agindupean egon dadin, eta Katolikotasunak ebatu eutson, Mundu'ko aolkulari nagusi lez, menperatzailletasunaren askeneko

Erroma'tar ari orreri, mendetasunezko ari guzti orreik txerpolari-lez (135) ibilita.

Baiña bereztasunaren aurkako joko orretan gauza-bat aztu jakien, Ludi au JAINKOA'k BEREZTU ebalá, eta BERE'n LEGEA'k eukinda, IÑORK ez dala NOR, NORKERIZKO LEGEA'kaz Mundu onetan jokatzeko.

Iñoz, konturatuko gara ?.

27'gn. Jauna.

1.516'an asi ta 1.556'garren urte bitartean, areik eta Juste'ra baztatu zan arte Espaina'ko Ia. eta Alemania'ko Vn. Karlos izan zan Bizkai'ko Jauna.

1.516'an Otsailla'ren 14'an, Fernando katolikua'ren il-otoizketak egin ostean, Bizkai'ko Batzarrak I Karlos artu eben jauntzat eta agindu be Bizkaia'ra etorri dagiala Fueroai ziñ egitera.

1.517'an Durango'n ainbat ume, gazte eta gizon emakume il ebazan kutsu edo izurrite (136) aldi gogor bat izan zan.

1.518'an Nafarroa'ko errege IIn. Enrike Montpelier'en, Espaina'ko I Karlos'ekin saiatu zan Nafarroa'ren Ego-aldea askatzeko, eta alperrik zala ikusita, gudarako asi zan antolatzen.

1.520'an kaizertza'ren koroia artzeko egoala, berak gura eben etorri fueroai ziñ egitera eta Otsailla'ren 17'an baieztu ebazan Fuero'etan euki genduzan baldintza guztiak.

1.521'an Bagilla'ren 10'ean IIn. Enrike'k, Nafartar, Gaskoiak eta Frantzesakaz osotutako gudaloztearekin, ia Nafar osoa berrezkuratuta euki eban.

1.521'an Bagila'ren 30'eko Domekan baiña, Lerin'go kondeak bideratuta, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxa'tarrakaz antolatu eban gudaloztea Noain'en, Ezkirotz ta Barbatain'en zelaietan 5.000 gudarien gorputzakaz odolezko oiñ-azpiko lez beteta itzi ondoren osterá menperatu ebazan IIn. Enrike'ren alegiñak.

1.522'an Uztailla'ren 19'an, Noain'etik 200 gudari Maia'ko gaztelura joanda, artean Frantzisko Jabier'en anaiak zirala, ia urte bete eutsi ondoren I Karlos'ek menperatu ebazan. Bertan dago oroitari aundi bak, guk, euren eskeintza gogoan euki daigun.

1.524'an Otsailla'ren 29'an Ondarribi, ia iru urtean inguratuta egon ondore Alba'ko dukeak menperatu eban.

Eta emen amaitu ziran Nafartarren alegiñak. Kontu aundian euki ta Euskaldunen arteko borrokak zirala, goian esan dodan lez Fernando katolikuak egin eban antzera.

1.526'an Jorrailla'n 5'ean, Gernika'ko Batzar-Nagusiak ospatu ziran- en artean, asken batzar oneitan erabagitu zan, 1.452'an idatzi ziran baldin-

(135) Txerpolari = titiritero. (136) Kutsu, izurrite = peste, epidemia.

tzatan, oituratik kanpo, bear-ez ziran eta illun egon ziran arauak, argi ta garbi berriz idatzi zitezela, ainbat Euskal Lege-Gizon aukeratuta.

1.526'an Dagonilla'ren 31'n, Arduratuta egon ziran Euskal Lege-Gizonak, kontu aundia euki eben baldintzazko-lege osotasuna argi guztiagaz agertu edin eta batez be **Foru-Pasaia'ren** baldintzatan, bere XIn. Legeko I idazpuruan au esaten daualako: **"Que habian por Fuero, y ley, y franqueza y libertad que cualquiera carta o Provisiòn Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere o mandare dar, o proveer, que sea, o ser pueda contra las Leyes o Fueros de Vizkaia, directe o indirecte, que sea obedecida y no cumplida"**.

Bizkaia'k, bere konstituziozko erabagi onegaz, mende-gabetasuna edo menik-eza (137) ezarri eban bizkaitar guztiaren zor-eskubideetan.

1.527'an Jorrailla'ren 8'an I Karlos'ek on-artu ebazan barriz idatzitako Bizkai'tarren Foru-Legea'k.

1.527'an Loraila'ren 21'ean Espaina'ko I Karlos'en semea II Felipe jaio zan, eta Bizkaia'n, egun berean idatzitako erregetzaren eskutitz bat artu zan, ondorengoa zala esaten ebana.

1.527'an Bagilla'ren 1'ean I Karlos'ek baieztu ebazan barriztutako Bizkai'ko Foru-Lege'ak, eta Bagilla'ren 7'an Bizkai'tarrai egindu eutsen irarri egiezala.

Eta 1.528'an Uztailla'ren 24'an Burgos'eko Juan de Junta'ren irarko-lantegian amaitu ziran Bizkai'tar Foru-Legea'ren irarketak.

1.530'eko urtea, izurrite'ko urtea esan jakon, gogorra izan zalako, eta batez-be Bilbo'n.

Bizkai'tarrak emendik aurrera artu-emon asko euki eben I Karlos'ekin, eta onek, adeitasun aundia erakutsi eban gure Foru-Lege'akaz.

I Karlos'ek, asko zor eutsen Bizkai'tarrai, eta or agetzen zan beren begirune, gatzelatarren gorroto ta bekaizkeriaren gaiñetik.

1.556'an Urtarrilla'ren 16'an I Karlos'ek, eskutitz-bat bialdu eutsen Bizkai'tarrai, bere mamian au esaten ebana: "Bera gaixo egon zalako, bere seme II Felipe'ri aldatzen eutsozala erregetzaren zeregin guztiak, eta beragaz euki gendun uste aundia, berarekin adimendu zitezten.

28'gn. Jauna.

1.556'an Urtarrilla'ren 16'an, Gernika'ko Batzarrak, I Karlos'en esku-titza artu ondoren izendatu eben II Felipe (138) Bizkai'ko jaun lez.

Bizkai'tarrak ondo konpondu ziran beti II Felipe'gaz, baiña Felipe Balladoliz'eko gortetik kanpo ibiltzen zanean, beti agertzen jakun zeozer-bat Foruen aurka egiten ebana.

1.558'an Jorrailla'ren 30'ean, II Felipe Portugal'en egoala, Bilbo'ko portu edo kai'tik, Flandes, Frantzia, edo ta Italia'ra urtetan eben artillezko

(137) Mende-gabetasuna edo menik-eza = desobediencia, inobediencia. (138) 1.527-1.598 urte bitartean bizi zana.

saldu-gaiak, zergak ordaindu bear ebezala, agertu zan.

Bizkai'tarrak, jazarraldi aundia egin eben, agindu orreik Foruen aurka izanez gain, Gaztela'ko mugak Bizkai'ko itsasora aldatzen ziralako, eta gauzak ostera joan ziran bere lekura.

1.581'ean Gatza'ren zerga'kaz bardiñ. IIn. Felipe Lisboa'n egoala, beren ministru edo zerbitzariak, Bizkai'ko gatza zergapetu gura eben, eta IIn. Felipe'ren ezauntzara eldu zanean, bereala agindu eban Bizkai'tik zerga orreik kentzeko.

1.590'ean IIn. Felipe'k, erakusten dau bai lotsagizun ta zentzutasuna, beren gortekoak, Bizkai'tarrak Espaina'ko "Servicio de millones"ekin zergapetu gura ebazanean: "Zerga orreik Espaina'ko errege-lez ipini ebazalako, ez Bizkaia'ko Jaun-lez".

IIn. Felipe'k, orduko Mundu'ren laterri-geografikoan bere ugaritasu- ezko borroketarako, Bizkai'tar ta Euskaldunetik laguntza aundi ta leiala artuz gain, ondo jakin ebalako edo zuurtasun aundikoa izan zalako, zelako eskubideak eukezan Espaina'ko errege-lez eta Bizkai'ko Jaun-lez.

1.598'an Irailla'ren 13'an goizeko bost'etan il zan IIn. Felipe, eta Bizkai'tar Jauntzan ondorengoa III Felipe bere semea izan zan.

29'gn. Jauna.

1.598'an Urrilla'ren 14'an, Bizkai'ko Batzar-Nagusia egin zan, eta III Felipe'k bialdu eban eskutitza irakurrita, il-otoizketak agindu ziran II Felipe'ren arimagaitik, eta ospakizun guztiak debekatuta, Bizkai'tar guztiak illetako-jantziak eroan egiezala urte bateko epean.

1.598'ko urtea izurrite'aren urtea zalako ez zan egin ezer Bizkai'tar jaunik aukeratzeko.

1.599'an Epailla'ren 30'ean Bizkai'tarrak batzartu ziran III Felipe Bizkai'tar Jaun lez izendatzeko.

1.598'an baiña, IIn. Felipe onek Espaina'ko errege-aulkera igon ebe- nean, bere zeregiñezko jaurkintzak guztiz Duke de Lerma'ren eskuetan itzi ebazalako, berak ezer jakin barik eta beren ministruak ezer aldarrikatu barik, Bizkaia'ra etorri ziran "Servicio de millones" zerga orreik eskura- tzen.

Bizkai'ko batzarra bere jazarraldian "Zerga orreik eurakaz zer ikusirik ez eukela" esanda, besteak gogorkeriz asi ziran.

Eta Bizkai'ko Batzarrak ikusi ondoren, Jauna'ri bialdutako mezuak ez zirala eltzen bere lekura, batzartzea erabagi eben.

1.601'ean Loraila'ren 10'ean Gernika'ko Zugazpean batzartuta, IIn. Felipe'ri eskutitz au idatzi eutsoen eskuz emoteko.

"Muy alto Padre"

Señor:

Visto por Nos esta antigua è honrrada Señoria de Vizcaya lo mal que V.M. està informado, por orden del consejo de Castilla, en querernos agraviar y tratar tan mal al descubierto, en recompensa de los muchos y grandes y leales servicios que esta antigua Señoria de V.M., en mandarnos que pagàsemos ciertos pechos à derechos como los demàs buenos hombres de esos reinos de Castilla pagan; hicimos junta General de Caballeros è hijos-dalgo de esta Señoria en nuestra Villa de Gernika, que los reyes antepasados de V.M. nos dieron por nuestros honrrados servicios, hallamos que queriendo usar V.M. de tanta riguridad con nosotros y quebrantar nuestros Privilegios (139) y la authoridad que nuestros honrrados padres han tenido: que debiamos de suplicar y pedir humildemente à V.M. sea servido de mandar que se borre, teste y atilde de sus Pragmàticas Reales lo que à nosotros toca, pues es justicia lo que pedimos; y, suplicamos à V.M. no hubiese lugar de hacernos, nosotros quedamos obligados à defender nuestra muy querida y amada Patria, hasta ver quemada y assolada esta Señoria y muertos mujeres è hijos y familia, è buscar quien nos ampare y trate bien.

Esta lleva D. Pedro de Gamboa, Diputado de esta Señoria, gran servidor de V.M.; no sea èl solo culpado por ello, antes V.M. le haga merced, porque fue importunado para ello.

Dado en nuestra Villa de Gernica en 12 de Mayo de 1.601.

Vuestra antigua y leal Señoria de Vizcaya, que al servicio de V.M. queda.

1.601'ean Loraila'ren 24'an III.n. Felipe'k, beste eskutitz bategaz atzera egiten dau, eta Bizkai'tarrai esaten dautse: "Nire aurreko erregeak zer egiten eben ikusita, zuekaz nik be alan beteko dot".

1.602'ko urtean, ziñeztu ebazan Bizkai'ko Foruak.

1.614'an Abendua'ren 10'ean indarkeri ta zigor aundiekin gaztela'rrak lortu eben gure Batzar-Nagusietan euren zuzendariak Euskeraz ez ebalako jakin, ordezkari batzuk gogor zigortuta, gaztelera ezartzea.

1.621'ean Epailla'ren 31'n goizeko 9'rak eta laurenetan il zan III.n. Felipe, eta egun berean egin eben errege bere semea IV.n. Felipe izenarekin.

Ondorio labur bat.

Emen ikusten dogunagaitik, ez zarete oartzen andik-ona, maltzurkeri ber-bera dala Espainol'ak ekarten dabena ?

Begitu bestela, gaur 2.009'an Urrilla'ren 14'an zer gertatzen dan espainola'kin daukagun "ABERRI EZBERDIÑEN" arteko "Itun"agaz (140).

Gaztelarrak, katolikotasunaren aolkularitzan azpikeriko joko bidetik, eta billa'k eraikitzen asi ziranetik daukaguzan berezko lege'tik kanpo, beti ibili ziran Bizkaia kolonizatu gurean, eta orregaitik gaur daukaguz lege ez-

(139) Bizkai'tarren artean orduko denboretan, itz onek ez dau esan gura Espainol'aren artean gaur esaten dauana, beren berezitasunezko erri ta legeak izan zirala baizik. (140) Itun'agaz = concierto convenio entre naciones distintas.

berdiñak berezko lurraldean eta Iribildutako Uri'etan.

Baiña Euskaldunak, beti eutsi geuntson nortasunaren bidetik, eurak baiño zentzun aundiagoan daukaguzan oitura demokratikoari, eta or gabiltz oraindiño borrokan, eurak menperatzailetasunezko kaizertzan sasi-jainko lez bizi gurean, eta gu JAINKOA'k aginduta NOR garala oartu gintzazalako, BERA'k BEREZTUTAKO LEGE-BALDINTZA'ren bidetik, DEMOKRAZIAREN ASKATASUNEZKO leian.

30'gn. Jauna.

IVn. Felipe'k (141), egun berean idatzi eutsen Bizkai'tarrai IIIIn. Felipe'ren eriotzea, bertan aginduta betiko elizkariak eta Jaun barria'ren ikurriña goratu egiazan.

Bizkai'tarrak Gernika'n batzartuta, 1.621'an Jorrailla'ren 20'an irakurri eben eskutitz ori, eta elizkizunak ta doluak egiteko aginduta, orduan erregearen zuzendari izan zana Puente'tar Agüero bialdu eben erregearengana dolumiñak emoten eta Fuero'aren baietza eskatzen, bera ez bazan Bizkai'ra etorten.

1.621'ean Dagonilla'ren 16'an IVn. Felipe'k bialdu eben eskutitzan, Fuero'ak baietzu ebazan, eta Gernika'ko Batzar-Orokorrean, Kontreras'tar Pedro, lege-etxekeo arduradunagaitik irakurrita, Fuero'aren liburuan irarritzeko agindu zan.

Baiña errege onek, beren aita IIIIn. Felipe'k egin eben antzera, bere jaurkintzaren zeregiñak Konde Duke de Olibares'en eskuetan itzi ebazan, eta ostera azten dira Foruen aurkako ekintzak, gatzari zergak ipini gurean.

Olibares'ek ez eban jakin, guk, gure Foru'ko-Legediaren jabetasuna euki gendula (?), eta bere gogamenean Espaina'ko lurraldearen berdintasuna gura eban lez, Euskaldunaren aurka jokutzen asi zan.

Euskalerriko kaleetan ikaragarritzko borrokak egin ziran eta ez gutxiago Bizkai'ko Lege-Biltzarrak erregea'ri bialdu eutson eskutitzan guda-zibilla'ren keiñuagaz:

“Que el monarca no tenia ni fuerza ni poder para conquistar Vizcaya, respeto de que, aunque fueran gruesos ejércitos de mar y tierra, la naturaleza de ella era tal, que todos habian de perecer, como les habia sucedido a todos los reyes que habian enviado armas contra ella”.

Aberri baten, beti egoten dira baiña, judas edo zaltzailleak eta oraingoa, “Erregeak Ciudad Real'eko Dukea'ren aundiki izenagaz gorraldu eben Alonso de Idiakez'tar Juan zalduna izan zan”.

Larritasunak bakeztu ondoren, errukarien atzetik asi zana, eta 1.634'an Loraila'ren 24'an borrokaren aintzindariak ziranak espetxean sartuta: Morga eta Sarabia litzentziduna, de la Puente eta Urtusaustegi'tar Juan eta Otxoa ta Ojarabide'tar martin Señoriokoak, espetxean bertan garrote-bil'-

(141) IVn. Felipe, 1.605-1665 urte bitartean bizi zan.

ean il ebazan.

Beste irurak: "Larrabaster eta Amuñarri'tar Juan eta Domingo anaiak, erriko enparantzan gargaillez ito edo urkatu ebazan".

Lasa eta Apalategi'tar Jose'k bere liburu "EL PUEBLO VASCO, DEMOCRACIA TESTIGO DE EUROPA"n esaten dauan lez: "EUREN GORPUTZAK EUSTUTA EGONGO DIRA ILLOBIAN, BAIÑA EUREN IZPIRITUZKO ARIMAK, GURE ARTEAN BIZI-BIZIRIK".

Eta Olibares'en ezagutzara ain gordiñik eldu ziranean jabetasunezko jakintza orreik, Espaina'ren laterrizko aolkularitzan bera izan zan, goimaillako arrazoiak erabilita, gure jabetasunak babestu ebezanak: "Berak egiten ebana sinis-betean egiten ebala aitortuta". Gure jabetasunezko eskubideak, gureak bakarrik izan zirelako.

1.665'e an Irailla'ren 17'an goizeko 4'1/2etan il zan IVn. Felipe Bizkai'tar jauna, bere emazte Austria'ko Mariana'ri itzita errege ta Bizkai'ko jauntzaren jaurkintza, areik eta bere seme II Karlos'ek eskubidea- ren adiñetara eldu arte.

1.665'e an Iraila'ren 26'an Bizkai'tar Batzarrari bialdu eutson Austria'ko Mariana'k betiko eskutitza, oiturazko elizkizunak eta Jaun barria'ren ikurak goratu gengizan.

1.665'e an Azaroa'ren 17'an Bizkai'tarrak batzartu ziran, aukera orreitan bialtzen eben oiturazko eskutitza irakurteko. Eta 18'an Kastrillo'ko Kondea ordezkari izenduta ondoren, Bizkai'ko Batza'rrak, alegiñetan iraun egiala agindu eutsoen, Araba'rrakaz Llodio'ko ibarra eztaibadako epaiketetan egoana Bizkai'tar jauntzan beti-lez geratu edin.

Eta IIn. Karlos izendatu eben Bizkai'ko Jaun, Orokorrezko-Batza-rra'ren erabagiko XIIIn. Liburuan agertzen dan lez.

Ondorio laburra.

Emen be, Euskalerra'k Bizkai'ko askatasunean euki ebezan jabetasunak menderatu gure ebazan. Ikusita baiña, Bizkai'tarren borondatezko laguntza barik, euren asmakizunezko kaizertzan kalte asko egingo ebala, atzeratu egin ziran.

Gaur uste dabe, mende orreik lortzeko egokitasunezko denborak eldu dirala, eta ortxe dabiz alegin guztiagaz.

Era asko aldatu dira gaurko egunetan, baiña Arana ta Goiri'tar Sabino'gandik asi-ta, ez dira konturatzen EUSKALERRIA'k, JAINKOA'ren LEGE-bidetik, bizi oneri EUSKERAZ'ko DEMOKRAZIAN emon eutson ADIERAZPEN EDERRENAGAZ "NORTATASUNAREN ASKATASUNEAN LORTUTAKO SINISMENAK EZ DIRALA AIENATZEN" Euskaldunen BAITA dalako, eta orregaitik ITZI-EZINEZKOA, EUSKALERRIA'ren IZAERAZKO-BIZIA'ri.

Erri baten aurka mende orreik lortzeko, erri orrek NORTASUNA galdu bear dau. Eta ez zarete konturatuten, gaur, ze alegiñ egiten dabezan: “Aur-ikasketetan, Ekonomi, Jaurkintzan eta Oiturazko arloetan?”.

Ordua da EUSKALERRIA-ren GIZARTEA-k jakin dagian zelako lokatzetan sartuta gagozan, eta nundik agertzen jakuzan menderatzaillaren ERASO-ALDIAK.

31'gn. Jauna.

IIn. Karlos “Lilluratua” (142) esaten eutsonai, 1.661-1.700'eko urte bitartean bizi zan, eta 1.675'e an adifneko eskubidetara eldu zanean, bere osaba Austria'tar de Juan'egaz aolkulari-lez, batera eroan eban Espaina'ko errege ta Bizkai'tar jauntzazko jaurkintza.

Bera, gai ez zalako izan, beren begipeko gizonen eskuetan itzi eban jaurkintza, Espain'tarren aundikeriak maldabera aundian jausi-ta.

Bizkaia'n ez zan gitxiago gertatu, eta eztaibada asko euki genduzan.

Eta ondorengorik ez ebalako euki, Espaina'ko jaurkintza, bere arreba'ren Maria Teresa Frantzi'ko XIVn Luis'egaz (143) ezkondata egoan bir- seme Anjou'tar Vn. Felipe'ren eskuetan itzi eban.

1.700'e an Urrilla'ren 3'an arratsaldeko 2'1/2-3'rak bitartean IIn. Karlos il zan, eta or amaitu zan Austria'tar Hasburgo'ko leiñua, eta Vn. Borbon'tar Felipe onek leen ekarri ebena, Espaina'ko erregetza indarrez artzeko, ondorengo-guda latzak izan ziran.

1.700'e an Azarua'ren 19'an Bizkai'tarrak artu eben Espaina'tik bialdutako oarrezko eskutitz ori, eta Batzarrak, Bilbo'n Azarua'ren 20'an batuta, Elizkuzunak Abendua'ren 5 eta 6'ko egunetan ospatu egiezan agindu eben. Eztaibadak egon ziralako baiña, Abendua'ren 12 ta 13n. egunetara atzeratu bear izan eben, 14'ko egunean Vn. Borbon'tar Felipe'ren ikurrak goralduta.

Eta 1.700'e an Abendua'ren 15'e an, Bizkai'tar Orokorrezko Batzarrean 12 zaldun aukeratu ziran, Vn. Felipe'ri Araba'ko Gazteiz'en urten da, umaje edo ongi-etorria egiteko.

32'gn. Jauna.

1.700'eko Abendua'ren 15'e an izendatu eben 15 urteko Vn. Felipe Bizkai'ko jaun lez. Eta Espaina'n sortu zan ondorengo guda, Aragoi-Kataluña ta Italia'koakaz borroka'rekin, Bizkai'tarrak ainbat laguntza emon bear izan eben, nai diruz, itsasontzi ta guda-mutilla'rekin.

1.709'ko urtean Luyando'ko “Malato” zugatza desagertuta egoan, eta Fuero'ko 5'n. legeak bere 1º idazpuruan esaten dauan lez, Bizkaita'rrak, euren eskubideak zainduta, ez ebala andik aurera urtetan, ariñautik soldata-

(142) Lilluratua = hechizado. (143) Frantzia'ko errege XIIn. Luis = rey “SOL”.

rik ez bazan ordaintzen, ostera marratu zan on-landuko arrizko-gurutze bat ipinita "A zala Malato Zugatza'ren lekua" esaten ebana.

1.713'an Otsailla'ren 27'an San Bernardo'tar Jose eta Fr. Jose del Santísimo Sacramento karmeldarrak artu eben Larrea'ko San Juan Bautista Eleiza'ren ardura. Eta urte orreitan Zornotza'ko karmeldarren (144) sortzaillea il zan lez, Mudarra'tar andre Teresa'k, Larra'ko Eleiza'ri bizkartuta, lekaretxea egitea agindu eben, lenengoetan lau karmeldar bizi zitezen.

1.714'an Otsailla'ren 14'an il zan Vn. Felipe'ren emaztea Saboya'tar Andre M^a Luisa.

1.714'an Otsailla'ren 20'an Vn. Felipe'k, Bizkai'ko Batzarrari idatzi eutson eskutitza berri ori emoteko.

Bizkai'tarrak 1.714'an Jorrailla'ren 21'ean batzartuta, Loraila'ren 13 ta 14'n egunetarako agindu eben ospatu zitezen elizkizunak, eta auek amaituta, Bizkai'aren erri guztiko arduradunak batzartu (145) ziran, Vallecillo de los Yantares eta Martiniega'ko Iribilduen jauna, Balladolid'en, kantzillergo'ko entzule ta aolkularitza'ren Alferez-Nagusia zanari de la Mata ta Linares'tar Fernando zuzendari (146) barria'ri jabetasuna emoteko.

Vn. Felipe, Frantzia'ko gorte'tik etorrita, goitik-berako batzangomende eritzikoa zan, eta Fueroak ez ebazalako ontzat artzen, ainbat arazo aurkeztu euskun, muga'ren gora-beran.

Geiago, Espaina'ren ondorengo guda bidetik, "Nueva Planta"ren legea erabagita, Aragoi ta Katalunya'ren Foruak ezereztu ondoren, Bizkai'tarrak jakin eban laster agertuko zala onantza, eta alan sortu zan, mugak Gaztela'ko lurraldetik, Bizkai'ko itsasoraiño aldatu gura ebazanean, portu'aren mer- kataritzazko zerga-ordaiñak, gure erriarentzat bearrezkoak ziranak eurak artzeko.

Orren ondorioz, 1.718'an Irailla'ren 10'ean, Bermeo'n eta Algorta'n sua emon eutsen mugak zaintzeko ipini ebezan itsas-ontzie'ri,

1.718'an Urria'ren 4'an Begoña'ko Udala'koak batzartu ziran, eta matxinatzen asi-ta, Bilbo'ra ezpata, makilla, eta borrokatzeko aurkitzen ebezan edozein gauzakaz jatzi ziran.

Uribe ta Busturia'ko errepubliketatik asko alkartu ziran borrokalariekaz, eta gauza asko apurtu zituzten Uri nagusi ta Bilbo'ko aundiki'en jauretxetan.

Azko il ziran, Bermio'ko Udala'ren balkoitik Ezkoitz'tar Martin ardura andiko gizona bota ebenetik aurrera. Portugalete'n muga'ren zaintzarako egoan kabarra'ri sua emon da, Otxandio'n Rokaberde'ko markes'a eta bere laguna il da, eta batez be, Señorío'ko batzarrean ardura-dun nagusi izan zan Arana'tar Enrike il ebenean.

(144) karmeldarrak, 1.150 urte inguruan, Palestina'ko (monte Carmelo) eremutar edo bakar-zale artean sortu ziran, eta 1.237'an Mauritaren bultzakada-bidez Europa'ra aldatuta, lekeide biurtu ziran. (145) Arduradunak = procuradores. (146) Zuzendari = corregidor.

Vn. Felipe'k ezereztu eben agindu ori, eta mugak ostera joan ziran euren lekuetara.

Baiña, matxinatua'ren buru ibili ziranai, gaur-lez, ez auzi-bideak zabaldu barik, 15 Bizkai'tar ta Leniz ibarrean Eskoriatza'ko bat atxilotuta.

1.719'an Urtarilla'ren 18'an ilketara zigortuta, Bilbo'ko espetxean il ebazan. Gero gorpuak, Bilbo'ko Enparantza-Barrira ekarri eta buruak moztuta, Bilbao'ko leku ezberdiñetan ipini ebazan "BURU" orreik urkabe (147) erritarrak ikusi egiazan.

Bizkai'tarrak, XVIIIIn. gizaldi guztian ibili bear izan eben erregeagaz auziketetan, gure Foru-Legea'ren oreka zaintzeko.

33'gn. Jauna.

1.724'an Urtarrilla'ren 10'ean Vn. Felipe'k, erregetza itxi eban bere seme I Luis'en ardurapean.

1.724'an Urtarrilla'ren 28'an I Luis egin eben errege eta eskutitz-bat bialdu eban Bizkai'tar batzarrera, zelan izendatu ebela Espaina'ko errege.

1.724'an Otsailla'ren 22'an Irakurri zan eskutitz ori Gernika'ko Batzarreran, eta orduan egoan diru zai (148) edo arduradun nagusiak (149) esan ebazan berbakaz: "Nobles Vizkaynos, Oid, Oid, Oid, Vizcaya, Vizkaya, Vizkaya por el Señor Don Luis I de este nombre, Señor de Vizkaya y Rey de las Españas" berba orreik bi bider esanda Bizkai'ko ikurra altzauta euki eben bitartean, Bizkai'tar arduradunen erantzuna: "Viva, Viva, Viva los mas felices y dilatados años, y Reyne pròsperamente el Señor Don Luis primero del nombre Señor de Vizkaya y Rey de las Españas, nuestro Señor. Kañoi'en estandak eginda Bizkai'ko itsas-bazter guztietan.

1.724'an Dagonilla'ren 31'n il zan I Luis, ille orren 19'an baztanga edo nabarren (150) gaixotasunagaz.

1.724'an Irailla'ren 17'an Vn. Felipe'k Bizkai'tar Batzarra'ri bialdu eutson eskutitza, eta Urrilla'ren 5'ean batzartuta, ille orren 17 ta 18'garren egunetarako agindu ziran ospatzeko elizkizunak.

Eta, 1.724'an Azaroa'ren 25'ean Vn. Felipe'ren semea VIIn. Fernando izendatu eben Espaina'ko errege, 12 urte euki ebazala, Vn. Felipe aitaren ardurapean.

34'gn. Jauna.

1.746'an Uztailla'ren 9'an sormin edo odol-kolpe (151) bategaz il zan Vn. Felipe, eta bere emazte Saboya'tar M^a Luisa Grabiela'gaz euki eben bigarren seme VI Fernando izendatu eben Espaina'ko errege.

(147) Urkabe = picota. (148) Diru-zain = sindiko. (149) Arduradun = procurador. (150) Baztanga edo nabarren gaixotasunagaz = enfermedad de la viruela. (151) Sormin-(arpegi) edo odol-kolpe = apoplejiko, apoplejia.

1.746'an Uztailla'ren 15'ean Bizkai'tarrak batzartuta egon ziranean artu eben Gaztela'ko gortetik bialdutako albiste ori, eta eleizkizunak Uztailla'ren 18'an betetzeko geratu ziran.

1.746'an Uztailla'ren 17'an izendatu eben VI Fernando Bizkai'ko Jaun lez.

1.747'an, nai-ta VI Fernando Bizkai'tar saltzailleagaitik zirikituta, Gernika'ko Batzarragaz egon ziran artu-emon onak zalantzan ipini baziran. Bizkai'tarrak betiko leialtasunean aleginduta, Foru-Pasaia zaintzea lortu eben.

1.751'n VI In. Fernando'k "Buen Retiro"tik, Bizkai'tar batzarrera bialdu eben eskutitzan baieztu ebazan Bizkaia'ko Foruak.

1.759'an Dagonilla'ren 10'an, VI In. Fernando gaixotasunezko illabete batzuen alditik il zan, eta ondorengorik ez ebalako euki, Vn. Felipe bere aita'k, Farnesio'tar Isabel'egaz bigarrenez ezkondata euki eben seme Karlos, orduan Napoles'eko erregea zana, III In. Karlos'en izenarekin egin eben Espaina'ko errege.

1.759'an Dagonilla'ren 26'an, Farnesio'tar Isabel'ek bialdu eutsoezan albiste orreik Bizkai'tar Batzarra'ri. Eta 27'an beste eskutitz-bat, III In. Karlos, Bizkai'tar Jaun lez izendatu egian.

Bizkai'ko Batzarrak, 1.759'an Urrilla'ren 2 eta 3'ko egunak aukeratu ebazan eleizkizunak ospatzeko eta 4'garrenean izendatu eben III In. Karlos Bizkai'ko Jaun lez.

35'gn. Jauna.

1.759'an Urrilla'ren 4'an III In. Karlos izendatu ebenetik, Bizkai'ko Batzarrak, Foruen aurkako arazo bidetik, ez eben euki aipameneko gauzarik, nai-ta gure arduradun aundikien artean Espaina'ren gorteko barnetik lilluratuz ibilita, neurri aundi baten EUSKAL-NORTASUNA galtzen asi.

1.788'an Abendua'ren 14'an gabeko ordu-batak lauren gitxiagoak ziranean il zan sukar gaixotasunekin III In. Karlos. Eta urte berean jaio zan bere bir-seme edo billoba Karlos M^a Isidro, Espaina'ko ondorengo guda sortu ebana, eta gure karlistadako alegiñean buru izango zana.

Eta 1.788'an Abendua'ren 23'an, bere bigarren seme IV In. Karlos izan zan, eskutitza Bizkaia'ra bialdu ebana Bizkai'tar Batzarra oartzeko.

1.789'an Urtarrilla'ren 5'erarte ez zan irakurri Bizkai'ko Batzarrean, eleizkizunak beti lez egiteko agintzen eban eskutitz ori. Eta denbora gitzi barruan, ariñauko Abendua'ren 30'an idatzitako beste eskutitz-bat artu eben, IV. Karlos betiko aldarriketaz izendatzeko aginduten ebana.

1.789'an Urtarrilla'ren 15'eko Batzarrean irakurri zan Jaun barria izendatzeko eskutitz ori, eta Otsailla'ren 16'n. egunerako geratu ziran eleizkizun orreik ospatzeko, eta 18'an IV In. Karlos Jaun izendatzeko.

36'gn. Jauna.

1.789'an Otsailla'ren 18'an IVn. Karlos Bizkai'ko Jaun lez izendatuta, Gernika'ko Batzarrak, oartu eutsoen Foru-Legeak ziñez izenpetu egin bear ebazala.

1.789'an Urrilla'ren 7'an baieztu ebazan IVn. Karlos'ek Bizkai'tar Foru-Lege guztiak.

Eta ziñez-izenpetutako agiria, Foru'ko agiri-artxiboan gordetako agindua emon da, agiri-batzuk irarri ziran, arduradunaren bulegoetatik bananduta, zalantzak sortzen ba-ziran, bear zanari bereala aurkezteko.

Bizkai'an, beste akatz gogor-bat sortu zan urte oneik aurrera doiezala, Señorío'aren Batzar eta Bilbo'ko Iribildua'ren artu emonak ez ziralako onak izan, Bilbo'ko Iribilduak bere itsas-portuarekin indar aundia artzen egoala-ta.

1.801'eko Uztailla'n Señorío'koak, Gernika'n egingo zan Orokorrezko Batzarrerako talde bat aukeratu eben, eurak, Olabeaga'rako asmatu eben askatasunezko itsas-portu barria egiteko, babestu egian. Iribildutik kanpo euren ardurapean, Señorío'a'ren nortasuna indartzeko.

Azkenean, Zamakola'tar Simon Bernardo'k artu eban asmo orren babesa eta baimena lortu-be itsas-portu orren asmakizuna aurrera eroatea, Gaztela'ko gortera bialduta baimendu egian.

1.801'ean Abendua'ren 31'n errege-Jauna'ren aldetik baimenduta etorri zan.

Bizkai'tar alderdi biak, bakotzak bere elburuak lortu naian Godoy limurtzen asi ziran. Bilbao Iribilduak, Godoy lenengo alkate izendatu gurean, eta Señorío'koak itsas-portu barri ori, Godoy andigarritzeko "PUERTO de la PAZ" izendatuta.

1.801'ean asi-ta, zer geiago gura eben Espaina'ko lenengo ministrua Godoy'tar Manuel'ek, bien artean kokatuta, bere Gaztela'ko erregetzaren elburuak lortzeko.

Orrarte eta ortik aurera, bien arteko arremanak gorrotatzaille biurtzen asi ziran, 1.802'an Zamakola, Iribilduko gizon maltzurren bidetik zalatuta ta Gaztela'ko erregetzaren ministrua izan zan Urkijo'tar Mariano arazo orreitan naastuta, espetxeratuak izan arte. Biak arazo ortatik laster urten da.

1.803'an Bilbao'ko Iribilduak, Godoy, gorakeri geiekin Bilbo'ko lenengo alkate lez izendatu eben, Urkijo'tar Mariano Luis'ek Godoy'en orde z Udala'ren jabetza artuta.

Eta Bilbo'ko Kontsulgo'koak (152) eten-bako alegiñ-bidetik, itsas-portu barriaren jabetza artu gurean ibili ziran.

1.804'an Uztailla'ren 1'ean, Zamakola'k Señorío'a'rentzako erregearen aldetik, Abando'n Olabeaga'ko portu barria'ren jabetza lortu eban.

(152) Kontsulgoa = consulado.

Eta Lege-baldintzaren artean ekarten eban agindua: “Bilbo’ko Iribildua, bere portu ta kontsulgoa’gaz aurrera egiala, Señorío’ko jabetasunaren askatasunari iñungo oztopo ipini barik, Bizkai’tar Foru-Legeak beti lez aurrera eginda, Bizkai-Batzarrak indartu zitezana.

1.804’ko Uztailla’ren 25’erarte atzeratu ziran Gernika’ko Batzarrak, poz-pozik erabagi orreik on-artzeko eta Zamakola goraltzeko.

Zamakola’k baiña, IVn. Karlos’en jauntzakin lar siniskor, uts galanta egin eben eurei esan da: Espaina’k euken asmoa gure mutillak euren gudari-taldean ezartzeko, Señorío’aren aldetik ez zala egongo geiegizko arazorik.

Batzarkideak, laster konturatu ziran Foru’en aurkako erabagia zala asmo ori, baiña Zamakola’k euki eben eragipenagaz, on-artu zan Godoy’k gura ebana.

1.804’an Dagonilla’ren 12’ko eguna aukeratu zan Señorío aldetik, ba-kez’ko-portua’ren jabetza artzeko.

Bizkai’tarren asarrea nun-nai asi zan agertzen, “Bizkaia’ren demokrazizko askatasunak, balio geiago eukelako, portuko onura orreik ekarten ebana baiño” esaten asi-ta.

1.804’an Dagonilla’ren 17’an, Begoña’ko erritarrak izan ziran lenengoak euren asarrea erakutsi egin ebanak, Bilbo’ra indarrez beratuta.

Begoña’ko matxinatuak, Señoríoa’k gordeta euken izkullu-tokira joanda, onekaz jabetu ziran, eta Abando’ko bidea artu ondoren, Zamakola oartuta, berak Dima’n euken etxe-bizitza’ra alde egin eban.

Ez zan bera bakarrik alde egin ebena, arratsaldean, Aranguren ta Sobrado’tar Franzisko’k Señorío ta Jaun’en aolkularia’k be alde egin ebelako.

Begoña’koak izan ziran bakarrik ordurarte matxinatu zirenak, baiña ego-larri ori zabalduta, Barakaldo, Deusto, Dima, Otxandio, Yurre, Artega, Sestao ta Portugalete’ra zabaldu zan.

Matxinatuak, Zamakola Abando’n ez ebalako aurkitu, Dima’ra joan ziran, eta Zamakola oartuta, Etxarri-Aranaz’era aldatu zan Nafarroa’ko errege-ordea’ren babesera.

Bere etxean, 12 kaiza paper-agiriekaz aurkitu ebazan, eta ertzapenduta (153) Bilbora eroan eben, ia arriskugarrizko-agiriak aurkitzen ebazan. Ez eben aurkitu ezer.

Matxinada lazaitzen joan da, epaiketaren ordua eldu zan, eta 384 Bizkai’tar zigortuak izan ziran, zigor gogorrenak Abando ta Begoña’koak artuta.

Larri-aldi orreik amaituta, 1.805’ean Bizkai’tar Batzarrak, Zamakola, Madril’era bialdu eben ostera, Godoy’egaz egonda, Bizkai’tar Foru-Legeak bere nortasunean egokitu zitezana. Berak baiña, ezin eben lortu, areik eta VIIIn. Fernando’k, Foru’ko Lege guztiak baieztu arte.

(153) Ertzapenduta = precintado.

1.806'an Urtarrilla'ren 27'an, Zamakola'k Madril'en, Pereira alkatea iraindu ebalako atxilotu eben. Eta bere zorotasunezko gaixotasunean sakon sartuta, nai-ta Paris'era eroanda, ez eban euki sendaketarik. Areik eta 1.809'an Epailla'ren 30'ean, 50 urte'gaz il zan arte.

1.808'an Epailla'ren 19'an Napoleon'ek IVn. Karlos beartu eban, erregetza bere seme VIIIn. Fernando'ren eskuetan iztea.

37'gn. Jauna.

1.808'an Jorrailla'ren 15'ean VIIIn. Fernando, Napoleon'egaz Baiona'n alkartzeko Gazteiz'en egoala, Bizkai'tarrak gure Lege-Forua'k ziñeztuteko Gernika'ra joateko eskatu eutsoen.

Eta 1.808'an Jorrailla'ren 15'eko berean, Bizkai'tar beste ordezeko talde-bat be, VIIIn. Fernando'ri aurreratu eutsoen, Bizkaia'n betiko zuzendaria (154) ezarrita, indarrez ipinita eukezan portu'ko Kapitaniak edo gudu-buruzagitzak kendu egiezala, Bizkai'tarrak bere Jaunagaz euki ebazan arremen onak, ostera bere onera ekarteko.

1.808'an Jorrailla'ren 17'an VIIIn. Fernando'k, euki genduzan Foru-Lege guztiak baieztuz, gauza biak on-artu ebazan, eta agindu ebazan bear ziran aldaketak egiteko, Bizkai'tarrak euren egokitasunezko askatasunean jarraitu egien.

1.808'ko Bagilla'n Napoleon'ek, IVn. Karlos eta VIIIn. Fernando atxilotuta eukezala, gorteko ekintza'ren antz-bat egin eban bere anai Napoleon eta Bonaparte'tar Jose Espaina'ko errege-aulkian ezarrita.

Napoleon ta Bonaparte'tar Jose'k, Bizkai'ko Urkijo'tar Mariano Luis, bere ordezeko ministrua, eta Mazarredo'tar Jose Domingo guda-ontzi'ren ministrua izendatu ebazan.

Urkijo'tar Mariano Luis eta Mazarredo'tar Jose Domingo'k, artu-emon onak euki ebezan Prantzesakaz, eta Mazarredo'tar Jose Domingo, Bizkai'ko Batzar-Nagusietan bera buru zala, Bonaparte 'tar Jose'k itz eman eban Bizkai'ko Jaun lez.

Euskal Garat anaiak sartzen dira emen, Napoleon'en gortean izen aundikoak izan da, euren Lapurdi'ko lurralde maiteagaitik lan asko egiten ebelako.

Garat'tar Josep'ek Napoleon'i, bein eta berriro eskaiñi eutson Euskalerra'ko laterriak bateratzea "Fenizia Barria" izango zan Frantzia'ko lurralde baten.

Napoleon'entzat baiña, gauzak ortik aurrera okertzen asi jakozan, eta a-ta guzti Napoleon'ek Euskal-Nortasuna onartu ta be, berak Europa'ko laterri guztiak-lez, Euskal-izaera Frantzez biurtu gura eban. Europa'k, IVn.

(154) Zuzendaritza = corregidor.

gizalditik asi-ta, beti ekarri daualako azpitik marratuta, batzangotasunaren-
meneko eritzi ori, batzangotasun asmo oiekaz, Mundu'ko Kaizar baten
agindupean elburutu gintzazan.

Euskalerrientzat emen, eta Bizkaia'rentzat batez be, leen Espaina'ko
guda-taldeakaz, gero Frantzesaren guda-taldeakaz eta ia bost-urtetan iru
bider orren aldizkan ainbeste nekaldi eraman ondoren, beste garrantzizko
gauza bat sortuko zan: "Batzuk prantzez-zale eta beste batzuk espain-zale
egin zirala, gizartearen EUSKAL-BAITA naspillatuta, gero Espainol-
jaurpidekin (155) eta karlistada'ren guda-bidetik, geiago naastuko zana.

1.810'ean Irailla'ren 24'an, Kadiz'eko gorteetan gudu-agintariak
erregearen ordezkoa egiten egozala sortu eben "Espainaren jaurgoa" (156),
eurak aitu edo gura eben Espainol guztientzako ezarri bear zala-ta, Euskal-
Lege, Nortasun eta Askatasunak kontuan artu barik.

1.812'an Urrilla'ren 16'an Kadiz'eko gudu-gorteak bialduta, Mendi-
zabal ta Iraeta'tar Gabriel'en aginduz, Espainol-gudalozteak Bizkaia'n
sartuta, onek Espaina'ko-jaurgo'aren alde edo urbillago egon ziranarekin
Bizkai'tar Batzarra ospatzea agindu eban.

Mendizabal'ek, Kadiz'en egon zan Espaina'ko gorte edo guda-
yaurlaria'ren (157) ordez, Bizkaia'n, Espaina'ko-jaurgoa (158) ipini gura
eban, bere Euskalerria'rentzako, Zerua'ren oneitariko atsegin-sari bat lez.

Bizkaia ekintza orregaz, Espainaren beste lurralde bat geiago izan
edin.

Eta Espaina'ko gizarte-guztia emendik aurrera, alderditu egingo zan,
Espaina'ko mende-eritzia sortu eben jaurgoagaz irasi gura ebenak, eta
lengo antzera, erregearen-ekintza bitarte edo erabakikoa izatea (159) gura
ebenak. Eta eritzi orreitan gagoz gaur egun ezarrita. Nai-ta Euskaldunak,
Askatasunaren erdiko bide bakarra euki arren.

1.812'an Urrilla'ren 17'an aukeratu ziran ordezkari orreik Kadiz'en
egoan guda-yaurlariaren aurrean aurkeztu zitezen, Espain-jaurpidearen
agiri orreik izenpetzeko.

1.812'an Azaroa'ren 1'erako antolatu zan, Bizkai'aren Udal guztiko
erritarren aurrean irakurri egiazan Espain-jaurgo agiri orreik, gero ziñ
egiteko. Bizkai'tarrak narda-askorekin (160) egin ebena.

1.812'an Abendua'ren 13'an jaurgo orreri ziñ egin ondoren, Euskale-
rri'aren iru lurralde'ko Udal guztiari agindu eutsen, 1.813'garren urte
guztirako Espainar eritziko ordezkariak aukeratu egiezala. Bizkai'tarrak eta
Euskadi'ko gizartea, oiñaze ta nekaldi (161) aundi baten sartuta.

1.812'an Abendua'ren 31'n, ostera sartzen dira prantzez gudalozteak.

Eta 1.813'an Bagilla'ren illa-erdian, ostera urtetan dabe prantzez
gudalozteak Bilbo'tik.

(155) Espainol Jaurpidea = constitución Española. (156) Espainol Jaurgoa sortu = creación de la constitución Española. (157) Guda-yaurlaria = gobierno-militar. (158) Espaina'ko erregetzaren-jaurgoa = constitución de la realeza Española. (159) Espaina'ko mende-eritzia irasi gura ebenak = constitucionalistas. Eta lengo antzera, Erregearen ekintza, bitartekoa edo erabakikoa izan egiala = realistas. (160) Narda-askorekin = mucha repugnancia. (161) Oiñaze ta nekaldi aundian sartuta = sufrimiento sin parangon.

1.813'an Bagilla'ren 21'ean, Arthur Wellesley Wellington duke'ak Gazteiz'en, Napoleon'en gudaloztea menperatzen dau, eta ortik aurrera, Napoleon'en guda-taldeak Franti'ra aldatzen dira betiko.

1.813'an Uztailla'ren 21'ean, Espaina'ren lurralde guztiko gotzaiñak (162) asi ziran keiñatzen (163), Espaina'ko ordezkarietatik inork ez egiela txarto berba egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak ez egiezan sartu.

Eta orretarako, Espaina'ko eleiz-guztietan urte guztietako Epaila'ren 19'an "Te Deum"a abestu egiela agindu eben, Espaina'ko-jaurgo zaleak ekarte eban askatasun omenez.

1.814'an Epaila'ren 13'an VIIIn. Fernando, Frantzia'ren lurraldeko Balenzay erritik urten eben Espaina'rantza.

1.814'an Loraila'ren 4'an VIIIn. Fernando'k Balenzia'tik, Espaina'ren jaurgo-zale gudu-ordezkaritzak Kadiz'etik keiñuz agindu ebazan lege guztiak, ezereztu ebazan, eta gure Foru-Legea'k ostera ezarri ziran betiko eredutasunean (164).

1.814'an Urrilla'ren 15'ean VIIIn. Fernando'k, ostera baieztatzen dauz, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa'ko Foru-Lege guztiak, Bagilla'ren 27'ko eskutitzan egin ebana..

Eta, 1.814'an Abendua'ren 14'an Nafarroa'ri, bere erregetzazko esku-bideak berrezkuratzen dautsoz, beste agindu batekin.

1.819'ko urtean IVIn. Karlos, VII'n. Fernando'ren aita, Napoleon'en atxilotasunetik aske geratuta, Espaina'ra itzuli barik, Erroma'n bizi zan eta bertan il zan.

1.820'ko urtean, ostera azten dira gure Forua'ren aurka eraso aldi gogorrak. Guzur, maltzur eta indarrezko-bidetik Euskal-gizartearen ARRA-ZOIZKO-BAITA lokaztu egingo dauana, eta urtearen-aldaketako bidean EUSKAL-NORTASUNA ezereztasunezko amiltegira bideratuko dauana.

1.823'ko urtean VIIIn. Fernando Espaina'ko gudal-buru jaurgo-zaleak beartuta, Espaina'ko-jaurgo barria'ri ziñez itz-eman bear eutson.

1.823'an Jorrailla'ren 2'an, Prantzia'ko XVIIIIn. Luis'en gudalozteak, Agulema'ko dukearen agintean Baiona'tik esan eben Espaina'ra aldatuko zirala, VIIIn. Fernando'ri lagunduta erregetzaren absolutismo edo al-oso-kerizko jaurkintza lortu egien.

1.830'ean Isabel, VIIIn. Fernando'ren alaba, errege-aulkian ezarri edin, "Salika"ko legea ezereztu egiten da. Eta Espaina'ren ondorengo-guda izan da, gure Euskalerrria nai-ta nai-ez guda orreitan sartuta, zoritxarreko ondorioak ekarriko euskuezan.

1.833'an Irailla'ren 29'ko arratsaldean VIIIn. Fernando il zan, eta bere emazte Maria Kristina'k artu eben ordezkari Espaina'ko jaurkintza, areik eta euren alaba IIn. Isabel'ek erregetzazko adiñetara eldu arte.

(162) Bilbo'ko gotzaiña, Agiriano izan zan. (163) Keiñatzen = amenazando. (164) Betiko eredutasunean = en la normalidad de siempre.

1.833'ko Urrilla'n sortu zan Espaina'ren ondoriozko-guda, karlista'ren aldetik, VII. Fernando'ren anaia Karlos M^a Isidro'k bideratuta.

Bizkaian guda-Karlistaren asieratik, lurralde'ko baltzu edo batzar bi egon ziran: "Bilbo'ko lurraldearen Aldundi ta liberalakin egon ziran erriak". eta "Durango'n egoan gudu-Aldundia ta Karlos'ekin egon ziran erriak".

Eta erdi-ugarte onen lurralde guztiak zorro baten sartzeko, urte onetan jaio zan, Espaina'ren lurraldeko probintzi'aren antolamendua.

1.834'an Bagilla'ren 28'an eta Uztailla'ren 2'ko egun bitartean Bizkai'tarrak Gernika'n, Orokorrezko-Batzarrak ospatu ebezan, eta Karlos Maria Isidro errege-nai'ak berton Euskal Foru-Legea'ak ziñeztu ebazan.

1.836'an, II. Isabel'en aldeko jaurpidearen-ministruak, Bizkai'ko Foru-Aldundia'aren zeregiña ezereztu eban, Espaina'ren-Jaurgo'ko zabal-aldira (165) ez ziralako joan.

1.837'an Espartero'k, ostera berrezkuratzen dauz Foru-Aldundiko zeregiñak.

Eta emen argi ikusten da, eurak-be oso naastuta ibili zirela, Euskalerra'gaz egiteko ziran NORTASUNAREN-ILKETA'ko pekatua ("Genocidio"), oso aundia izan zalako.

1.837'an Irailla'ren 6'an Espaina'ko gorteak, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa'ko Foru-Aldundia'k kentzen dauz. Bere orde, Espaina'ko-jaurgoaren legeak eskatzen eban lez, Espaina'ren Laterrizko-Aldundiak ezarrita.

1.839'an Abendua'ren 13'ko Orokor-Batzarrean, Maria Kristina erre-giñak (166), berak, bere alaba II Isabel'egaz euken ordeko jaurkintzatic gudal-buruak kendu orduko, eskertu gura ebazan bera'ri bakeak lortzen eta Foru-Legea'k eusten lagundu eutsoenai. Baiña gudal-buruak beartuta, lege au sinatu eban: "Urrilla'ren 25'eko Legea eta urte onetako Azaroa'ren 16'ko Erregiñ-Agintaria'ren erregetzazko-erabakia": "Se confirman los Fueros de las provincias vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia". Gero: "Sin perjuicio dela Constitucion Española" biurtu ebena.

1.839'an Urrilla'ren 29'an Espartero gudal-nagusiak Gazteiz'etik, ezereztu ebazan Foru-Lege guztiak.

1.872-1.876'ko urte bitartean, beste karlistada'ko borroka gogorrak euki genduzan, danak alperrezkoak izan da. Guk, nai ezin besteko alegiñak egin arren, euren guda-indarrak katoliko "gurutzada-santuaren" laguntza-gaz, askoz aundiagoak izan zirelako.

Asken jauntza onen ondorio laburra.

Emen argi ikusten dogu, zelan VII. Fernando'k alegin asko egin eba-

(165) Jaurgoa'en zabal-aldira = inauguracion de la constitucion Española. (166) Maria Kristina'ri kendu gura eutsoen, bere alaba'ren alde egiten eban erregetzaren ordezkotzatik, eta 1.840'an Espartero gudal-nagusia geratu zan ardura orregaz.

zala erregetzaren zentzuak aurrera egian, eta nai-ta al-osokeri edo absolutismoa'gaz gogortu, alegin orreik, alperrezkoak zirela.

1.789'an Prantzia'ko iraulketa eta iraulketa ori ostonduta zirikatu ebenak, erregetzazko eragipenean sartuta egon ziran erriak batzeko, katolikotasunezko eritziak, kaizar eta gurutz-guda santu-bidez, Europa'ko gizarte guztia, lurralde aundietan batuta euki gure eban. Eta ondore, dan guztia ondo eginda dagoelakoan, 1.929'an, laterri-artean danon aolkulari-lez Batikano laterritzeko.

Zertarako ?. JAINKOA'ren ordezekoak gai-onetan eurak egiteko ?.

Ezinezkoa da asmo ori, JAINKOA'k danori, baktotza bere eskubidearen ordezeko ardura'kin eragille bialtzen dauskulako. Eta Gai-Mundu onek BERA'k ipinitako LEGE orregaz, sasi-jainkotasunezko alegiñetan biurtzen dabelako asmo guzti orreik.

Leen eta gaur baiña, goi-maillako jakintzan dagoan burugogortasun edo tenkortasunezko asmo orrein aurka, ez dau balio izan ezerk. Ez erregerik, ez jaunik, ez Kristautasunaren ekanduzko ekintzarik, ez berezko erri ta giza-eskubiderik.

Europa'n, gure etorkizunaren denborako edesti osoan izan dira eta gaurko antzezleri guztiak gara, mendeko-asmo orreiñ panpiñak.

JAINKOA'k, Mundu onetara, baktotzaren indarrak bestearen aurka neurtzeko bialtzen gaitu ?.

Ez dot uste. Gure ARIMA'ren BAITA'k arrazoizkoak diralako, eta bizitzan zentzutsu eta bakez irauteko, daukagun mekanismuko-gorputza, BAITA'ren arrazoizko zerbitsura dagoelako.

Argi dago orduan, indarra ez dala Mundu onen LEGEA, bizitz onek, JAINKOA'k ipinita ARRAZOIZKO-LEGEA daukalako. Eta IÑOR ez da NOR, beren gogoko legeak atarateko, Izadia'k daukan legetik ez ba dira artzen.

EUSKALERRIAK, Mundu'ko erri guztien aurrean, beñ eta barriz egiten dauazan ERRI-IZATEAREN-ESKAERAK, arrazoizkoak al dira ?.

Giza-BAITA'ren zentzuzko arrazoi bidetik, ez dot uste ARRAZOI-AUNDIAGO DAGONIK, GAI-BIZITZ ONERI BERAK EMON EUTSELAKO EUSKERAZ, BAKARRA EZ BADA-BE, ADIERAZPEN EDERRENETARIKO BAT.

Eta arrazoi ori agertzeko, goazan edestiari ikust-arin bat egitera.

Mundu'aren Ekanduz'ko edesti laburra.

Gaur ia argi dago, Paleolitiko-Neolitiko bitartean lortu zirala Nortasunezko askatasunaren zentzu demokratiko ederrenak, eta gure Euskal-Gizartea aldi orren aitorle izanez, bere baitan oraindiño zinitzgille da, eta on-artzen dau, Mundu onek Berezko-leen LEGE-lez irarrita daukana:

“Giza-seme guztiak, arrazoizko ZOR-ESKUBIDE BARDIÑAK daukiezala”.

Aldi orren ostean baiña, Asiria edo ariñautik asi-ta, aundinaiezko nor-keriaren bidez, nor-geiagoko odol-jariozko oitura baten sartu ziran, azturazko jakintza bidetik lortzen ebezan jendekuntzak be, alderrai biurtuta.

Jendekuntzazko jakintza ori Ejipto´ren ardurapean ezarrita, eta auen indarrezko andikeri bidetik maldabera´ra sartu ziranean, giza-seme batzuk konturatu ziran, a, ez zala bidea, eta esan leike, bide orretatik asi zala arrazoa´ren zentzuzko mugi-aldi bat.

Eta orduko Mundua´ren jendekuntzazko-jakintza Grezia´ren ardurapean ezarrita, leen, Persa´k Europa´rako ekarten ebazan aundikerizko-mende ametsak geratu ebazan, eta arrazoizko jakintzaz arduratuta, Ludi onen bizitzari, zentzuaren arrazoitasunezko adierazpen ederrenagaz erantzuteko, filosofia edo eraman-onak daukazan arlo guztiai adierazpeneko erantzuna emon da, arrazoitasunezko ingurua zarratu eben, Mundu´ko gizatasunari itxaropenezko ate zabalak irekita.

Baiña bitartean, erromatarrakaz beste mugi-aldi fazista bat sortu zan, eta euren maldaberan, euki ebazan fazista asmoak indarkerian ezartzeko, Ejipto´tik sortu zan gizalegeko (167) mugi-aldia, eta Kristautasunean lortu ebana beren zentzu aundiena, katoliko biurtuz alderdikidetu eben, eta or egin jakon, JAUNGOIKOA´k Ludi onen izatasunari ezarritako ARRAZOIAREN-ZENTZUZKO-BAITAN lapurketarik aundiena, euren norkerizko asmoak aurrera eroateko.

Ludi onetan, norkerizko asmo orreik ezartzen zirala, JAINKOA´k asieratik, giza-semea´ri LEGEA´ren bidez ipinitako ordezeko antolamendu on-bide guztiak, okertu ebezan.

Eta gaurko Munduan, goi-maillako jakintzan esagun dirala odol-jarioz erabilten diran sasi-arrazoi orreik, eta BEREZTASUNEZKO-LEGEA´kin mugatuta dagozela jakin da, zergaitik eurakaz aurrera egin ?.

Fazizta sasi-arrazoi orreik, Gai-Mundu onek daukan mozkin, eta baktzaren-Nortasunean zor-eskubideko arduran daukaguzan oldozmeneko arrazoi guztiak, bere kontrolpean bear dauz aurrera egiteko. Eta bide orrek, norkerizko ate-okor guztiak zabaltzen dabezalako bakarrik, bizitza berezko arrazoitasunera bideratu barik, gai´ezko zerbitsura aldatzen dau.

Adibidez: Gaur ekonomia´ren onurak batzuen ooin-sakeletan sartzeko (168), beste gauza batzuen antzera ortze dabiz “Nuklearrezko indarra merkea dala” esaten.

Merkea, zergaitik da baiña: “Bear dauan lan-erdia ez dogulako bete edo ta bereztuten !”.

Ekintza orregaz, atzean datozenentzat, lur, aize ta ur-guztiak uts eta zikin izten doguz. Eta gaurko ta geroko giza-seme baktzaren ardurabako gogo-zaletasunak, amai-gabeko larri-aldira zabalduz, danok egon-eziñera

(167) Gizalegea = humanitarismo. (168) Batzuen “ooin-sakeletan” sartzeko = para meter el dinero en los “bolsillos” de algunos.

Gaur, Mundu'ko giza-seme guztiak eta JAKINTZA AUNDIENAKO-AK batez-be, geraldiki sakon-bat egin bear dogu, norkerizko asmo-bidetik urten da BEREZTASUNAK daukan LEGE'ra bideratu ta urbildu gaitezana.

JAINKOA'k ipinitako BEREZKO MUGAK bertan daukaguz, eta ez gogora ekarri parkatu egingo dauskuenik.

EUSKALERRIA'ri BEGIRA.

Euskalerrria'k, Mundu onetan ezarrita dagoen indarkerizko antolamendua argitu ondoren, iñundik-iñora ez leuke bear indarkeri'rik erabili, Bizkai'ko Jauntza'ren edesti onetan ikusi dogun-lez, norkerietan dabizenak, lotsa gitxi ta ikaragarritzko indar ta maixutasuna daukielako.

Eta edestiari begituta, Euskal-Lurralde guztietan bardin sortutakoa eta sortzen jakuna da.

Orregaitik, gure ekintzak ez dira izan bear, edozelako borrokak.

Paleolitiko-Neolitikoaren alditan lortu zan demokrazizko BAITA'ren aitorleak izan da, ostean Mundu osoan sortu zan NORKERIZKO ASMO-ERITZIA'ren aurkako borrokalariak baiño.

Norkeria'ren eritizizko ETSAI orreri, ezin jakelako edozein izkilluakaz aurre egin, Nortasuna'ren jakintzazko arrazoi aundiaren indarragaz izan ezik.

Euskaldun ekintzak, oraiñarteko edestian zear, gure NORTASUNEZKO GORPUAN sortu diran zauriak osatu bear doguz, eta NORTASUNA edertuz, Mundu'ko erri ta jakintsu guztiari erakutsi, Ludi onetan bearbearrezkoa dala EUSKAL-NORTASUNA bere lekua euki dagian.

Baiña orretarako, EUSKAL-ABERKIDE guztiak, iñungo aitzakia-barik alkar-lan egin bear dogu, eta etxean osteraz ez etsairik sartzen itzi, gaur EUSKADI'n sortzen dan lez, osatzen gabiltzan zauriak zabaldu ez dagiezan.

Ez da lan makala emen eskatzen dodana, baiña olan egin-ezik, nekez lortuko dogu "GURE EUSKAL-NORTASUNEZKO-ABERRIAREN ASKATASUNA".

"GORA EUSKADI !!" aldarrikatuta bakarrik, ez dogu lortuko gure "EUSKAL-ABERRI-MAITEAREN-OSASUN ta ASKATASUNA".

Emen, "NORTASUNEZKO ARDURAN, ZOR-ESKUBIDEZKO LAN AUNDIA DAUKAGULAKO AURRETIK".

Eta, "JAUNGOIKUA ELBURU DOGULA, BERAK BEREZTUTA
DAUKAZAN LEGEAK, GURE BEGI-IKUSPENEAN GALDU BARIK".

GURE ERRI-MAITE AU, LAN-BIKAIN ORREGAZ BAKARRIK
OSASUNDU ta ASKATUKO DOGULAKO

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.009'ko Urrilla'ren 28'an

-“EUSKEREA eta EUSKALDUNAK”-

EUSKALDUNAK:

JAINKOA'ri begira milla urte askoren ikerpeneko atun-bidean (1) edo eta aztura-bidetik (2), ondo erindu eta biribildutako lanean, itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu daitezcan, gure ARBASOAK, EUSKE-RAZKO gaztelu ederra egin eben. Eta BERAGAZ bizitz-oneri BEREZTA-SUNEZKO LEGEAN, al eben ADIERAZPEN ederrena emon eutsoen.

Ez ziran txantxetan ibili, zentzun aundiko Demokratak izanda, laztasun (3) eta zorrozatasun (4) aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko-esaerak, sorburuko itz'ekaz osotutako almenean eginda dagoelako, esangura dan irudizko toki ber-beran kokatzen gaitu. Irudizko neurri ori, ia izkuntz gitxi baiño ez daukienak, Euskerea bakarra dala ez esateagaitik.

Gaztelerazko PLAYA itzak adibidez: “Zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu?”. Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz (5), edo eta areatutako maskor-ondarragaz ?.

ONDARTZA Euskeraz: “MASKOR-ONDARRAREKIN AREATUTA dagoan tokian kokatzen gaitu eta Laida'ko itsas-bazterrean dagoela gaiñeratu egin ezkeru...., or ! non agertzen jakuzan irudizko neurri aundi baten Laida'ko erritxoan maskor-ondarrarekin areatuta dagoan itsas-bazter orren goragarrizko toki eder ori.

Zergaitik ?:

Alde batetik: Euskalerra, lenago askoz aundiagoa izan zanetik: Atlantitsaso'tik Alemania'raiño eta Britania'tik Kadiz'eraiñoako zabaltasunean, gure bizitzarako agertzen diran zeru, laiño, euri, aize, lur, ur, itsaso, ibai ta mendiek daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta berton bizitzak agertzen eban landaretasunezko ezberdintasun guztia, bai aizetan, lur eta ur artean dabillen izaki bizitzak, gure arba-soek zentzu aundienean izendu ebazalako”.

Bestetik: Gure ARBASOAK, Euskal-leiñu edo gizarteko arremantetan antolatzeke “Lots andi ta begirunezko (6) itz'ekaz oituratu ziralako”.

Eta JAINKOA'K BEREZTASUN oneri erperatutako LEGEAK, lots andiko kontuan artu ebezalako, EKANDUAREN EGIZKO ARDATZ-NAGUSIENEAN kokatuta geratu ziran.

Egiaren azturazko ekintza orreik, berez bideratu ebazan gizadiaren eskubide-

(1) Atun-bidean = experiencia, procedimiento emprico. (2) Aztura-bidetik = crecimiento del conocimiento. (3) Lztasun = severidad. (4) Zorrozatasun = austeridad. (5) Leguntasunagaz = lisura, tersura. (6) Begirunezko = respeto, consideración.

ak lots andiz zaintzera eta egokitasunezko bide eder orreitatik BENETAKO DEMOKRAZI on-baten, danon ASKATASUNAK BEGI-RUNEZ artzen diran JENDEKUNTZAZKO (7) ERRIA IZATERA gure LEGE-ZARRAK esaten dauskuen lez.

Eta Euskalerria Europa'n, oraindiño Indoeuropeozatuta-barik geratzen dan azken erria dalako.

Zer esan nai dau Indoeuropeotu gabe orrek ?:

Europa, Asia ta Afrika'k daukiezan izkuntzak ezaututen dabezala, eta Euskerea eurak baiño zarragoa izanez gaiñ, ez dakiela non asten dan beren sorkuntza.

Gure arbasoak, Homo-Sapiens'en asieratik eraiki eben Euskerazko etxegintza oraiñ arte, zentzunezko izatasunean ezeren ikutu barik dagoela esan geinke.

Nai leiñu edo alderraiezko erri guztiak gure lurraldetatik igaro arren, guk, gure Askatasunezko Demokraziaren zentzunez beti jokatura eta bestien oiñarrizko eskubideak adeitasun andiz artuta, ez giñela joan besteak menperatzera, gure izatasun ta lurraldeak babestuz, edesti guztian menperatzaillaren eten-gabeko eraso-aldi bidez, gaur zazpi lurralde txiki oneitan geratuta.

Euskerea orregaitik da gaur, Munduak daukan jarraibideko (8) altxor aundiena, bere OITURAZKO EKANDUAREN izatasunean ETXEA nastu barik daukalako.

Gaurko Mundu onen jaurkintzak, edesti guztian sortu diran nastutasunezko ondoriotik (9) agertzen diranak dira eta ikusten dogu: "EKANDUZKO OREKAREN ANTOLAKUNTZAN" zelan gabiltzan, Mundu'ko giza ta errigizartearen eskubide guztiak zapalduta.

Kontu aundian euki bear dira Bereztasunezko LEGEA'n eginda, geratzen diran aztarnak eta "MUNDU'ko-GIZATASUNAREN ETORKIZUNEZKOAK (10) DIRALA IZENDATU", bestela, geratzen jaku-zan zentzunezko ulerpide apurrak ezereztu egiten ba-dira, kai'an, itsas-gaitz aldi-baten, lotuta dagoan itsasontzi bateri sortuko jakon, orakarriak (11) apurtzen jakozanean bezala gertatuko da.

EUSKEREAK, ZELAKO IRUDIA-GAZ ITXURATZEN DAU EUSKALERRIA ?:

Daukan NORTASUNEZKO irudiagaz zalantza barik.

Euskal-erkidetzan ulermentzeko, maite-tasun guztiagaz egin gendun tresneri eder au, ez da gatz-gabeko mesu-gaillu uts-bat gure artu-emonetan ibilteko bakarrik.

(7) Jendekuntzazko = civilizaciòn. (8) Jarraibideko = modelo, ejemplo. (9) Ondoriotik = consecuencia, secuela. (10) Etorkizunezkoak = Patrimonio Mundial. (11) Orakarriak = amarras.

Bere barnean ikusten direnak: A) "JAINKOARI begira, BEREN LEGEA'rekin euki gendun oarmeneko (12) samurtasuna" (13); B) "Senitarte eta erri-maillan MAITASUNEZKO ulermena": eta D) "Gure BAITA'ren (14) bake edo oreka gaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeaztasunaren begirun arduraz egin genduzela".

Euskal-bizitzaren indar eta babeserako emoten dauskuzan oiñarrizko azpiegitura (15) orreik, EUSKEREAK zentzunezko zeaztasunean daukan indarragaz osotuta, berez ! kokatzen gaitu "MAITASUNEZKO GAITASUNEAN" (16), bere barnean daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako argitasuna emoten dauskuelako.

Aita Santi eta Olazar'tar Martin'egaz Eibar'era Euskerazaintzaren batzarretara joaten nintzanean, kanpoan gengozala eta gora begira eskuagaz erakutsita, Baserriak aipatuz, baten baiño sarriago esaten eban: "Jakintsu batzuk itandu egiten dabe, Eibar'era, nundik nora agertu ziran ainbeste injiñeru, maisu, ekonomilari etabar". "Begitu non daukazuen lantegi-gintza guzti orrein sor-kuntzaren ardatz-ikastetxea".

Gure arbasoak, gauzak egin eta arremanak zentzun audiz eroanda, DEMOKRAZIAREN ulermen aundi bateko bizitzara eldu ziralako eta sendimendu berberori sartu eutsoelako euken izkuntzari, EUSKEREAK ez da edozelako tresneri uts-bat.

Bera da AMA !!, Euskal-Izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Eta etorkizunean, bere MAITASUNEZKO ZENTZUTIK artzen doguzan NORTASUNEZKO izatasunak, Mundu guztiko gizarteari, "EUSKALDUNEN NORTASUNEZKO EGI-BIDEAK ZELANGOAK DIRAN erakutsi".

Mundu oneri eta BIZITZARI emon geuntsozan ZENTZUZKO ULERMEN-BIDEZ ADIERAZPENEKO ERANTZUERAK, EUSKAL-EKINTZAREN BEREZKOTASUNAK DIRALAKO".

Gaur egunean, Mundua'ren errigizarteari erakutsi bear dautsagu: "EUSKALERRIA, Ludi onek daukan BEREZKO ERRIBAT dala.

Eta ZAARRENA izanez gaiñ, bere JENDEKUNTZAZKO (17) JAKINTZA, DEMOKRAZIA eder baten oiñarrituta dagoelako, nai-ta Espainol ta Frantzez menperatasunak gure gorputzan urduritasun aundiak sartu, ez dogula leer-gaillurik ez izkillurik erakutsi bear eta gutziago erabili,

Leen: "Mundu onek gaur daukazan arazoakaz, Berezko legearen arrazoi-tasunera aokatuta dagoelako".

Bigarren: Leer-gaillu orreik "Gure Demokrazizko-izatasunaren aurkakoak diralako eta eurak ibilteagaz, Munduko gizarteari, beste gauza-bat, "ikarabidezkoak", garela erakusten dautsogulako".

Irugarren: "Aldi baten, bearrezkoak izan ba-ziran be, gaur jokoza kanpo geratu dira, menperatzailleak edesti guztian erabilia, alperrezkoak eta gaurko Mun-

(12) Oarmeneko = atención, sentido de la observación. (13) Samurtasuna = frescura, ternura en su composición. (14) Baita = conciencia. (15) Azpiegitura = infraestructura, subestructura. (16) Gaitasunean = buenas dotes, talento. (17) Jendekuntzazko = civilización.

duaren bizitzarentzat oso kaltegarriak dirala erakutsi dabelako.

Eta guk erabilia, eurak indar eta maltzurkeri geiago eukin da, Mundu'ko errigizartearen aurrean, euren menperatzailletasunezko maltzur joko ori arrazoitu baiño ez dogulako egiten.

Laugarren: "Ezinbesteko gogo alegiñaren indarragaz, GURE ERRI-MIÑAN, AINBESTE ZOR DAUTZAGUN MAITASUNEZKO EUSKERA NORTASUNDU !! Len berak, gugaz egin eben antzera.

EUSKALDUNAK OR !! daukagulako NORTASUNAREN IZATASUNEZKO ALTXOR AUNDIENA, ERRIAK, BEREN IZATEZKO NORTASUNEAN, DEMOKRAZIAREN ERANTZUN EDERRENAK EMON DAGIAZAN.

Gaur, badaukagu beste eragozpen aundi-bat be, betiko eta gaurko Menperatzailleak bizitzarako bear doguzan gai-mozkin guztiak euren kontrolpean eukinda, edesti guztian egin daben antzera, gaurko bizitza, xautzailletasun-argibideakaz ganoragabetu egin gura dabe, gizartea zoraldiko nastetasun baten sartuta, ia euren SASI-NORKERIZKO asmakuntzan aurrera egiteko al-diran.

Gu ez gara jausi bear lilluramen (18) sarezko-txebera orreitan, bestela gure morroi-tasuna, gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabelako.

Gaurko bizitza, ez da erreza Euskaldunentzat.

Gure ETXEA garbi eta argitsu agertu daiten, egin bear dogun guztia, Bereztasun onek daukan LEGEA`ren argitasunean egin bear doguzelako eta danok dakigu, zelako erreztasuna daukien guzurrezko jokoan da-bizenak, norkerizko zankarteko bat ipintea, ekintzan ipini bear doguzan on-zentzunez-ko azpiegiturak arazotzeko.

Euskaldunak baiña, eurak ez daukien iru gauza-eder daukaguz ELBURUA lortzeko:

A) "EUSKAL EKINTZAN JAINKOA`ri BEGIRA, IZATASUNEZKO DEMOKRATIKOAREN SINISMENA".

B) "ARRAZOIA".

Eta D) "ARDURADUNAK IZAN DA, GOGAMEN (19) BI ORREIK EMOTEN DAUSKUEN INDARRA".

Euskal seme-alabak, aztarna orreik iñundik-iñora be ez doguz galdu bear gure ikusmenetik (20), kontu aundian artuta:

"EUSKERA DALA GURE IZAERAREN ARDATZ-NAGUSIA".

(18) Lilluramen = fascinación, alucinación ficticia. (19) Gogamen = conceptos. (20) Ikusmenetik = visión, consideración.

ATUTXA`tar PAUL
Zornotza`n 2.008`an Azaroa`ren 16`an

**“AGUR !! ERBITI ta ARBILLA’tar
BAKARNE”
(XOLE)**

1.942’an jaio zan Erbiti ta Arbilla’tar Xole, Ultzama’ko Illarregi’n Urrikenia’ko Euskal-alaba abertzale-sutsu-au, eta gaisotu ondore 2.009’an Azaroa’reñ 29’an, 67 urte ebazala, JAUNGOIKO AITA’k deituta joan jakun BERE ondora.

Andosilla’ko Pagola ta Berisa’tar Jesus’ekin ezkondata, Uxue, Mikel eta Lorea seme-alaba eder euki ebazan, eta eurakaz batera, Nafarroa’ko Euskal-Kabi ederrenetariko-bat osotu eban.

Alango Euskal-Nortasuna eukiteko, bere etorkizunezko sendia-be, Euskal-Abertzaletasunezko errotik agertzen dala esan bear da, eta au ziurtatzeko, nire eskuetan daukadoen, bere aizta-neba artetik Olaia ta Joxe Mari nebarrebak idazten dautsoen kutun-agiri au azalduko dautzuet:

XOLE

Ultzamako haranean, Illarregi deritxen den herritxoan jaio ziñen. Euskalduna jaiotzez, Euskeraz hazi, Euskeraz azaldu ta hezi. Lanbidea Euskararekin parekatu ta agindu, Urtez urte ikastaroak antolatu, ikasleak-irakasle bihurtuz Euskara zabal zezaten.

Bitartean, sendia sortu: Uxue, Mikel eta Lorea seme-alabak izanik eta nola ez, Euskaldunak.

XOLE: Zauden tokitik lagun gaitzazu Euskal eremu eta ohiturak gero eta zabalagoak izan daitetzen.

Jarrai ezazu zure ingurunea, ikastaroak antolatuz, Euskalduntzen.

AH ! eta Jainkoa ere Euskaldundu ezazu.. .

Ez agur ez adio baitzik eta gero artio.

Olaia eta Joxe Mari

Nor dogu baiña, gure Euskalzale sutsu au ?:

San Sebastian eta Zubillaga'tar Jose Mari'k (**Latxaga**), 1.994'an Azaroa'ren Larunbateko 5'ean « DIARIO DE NAVARRA »n **“Sole Erbiti'ren euskal emaitza”** argitu eban idaz-lanetik artuta dagoz argizko zeaztasun auek.

Badaukaz bere gaztetako denboran sortu jakozan aipagarritzko gertaerak, eta bat, abadeak agindu eutsoenean eukezan ille-txirikorda ⁽¹⁾ eder-bi moztu egiazan, ordezeko diruak Afrika'ko beartsua'ri bialtzeko ?.

Dana dala, nire eskuetan daukat, burua ondo apaindutako txapelagaz eta beren ille-korda eder biekaz, irripar-argitsu agertzen dan neskatilla eder onen argazkia.

Iruña'n egin ebazan bigarren maillako ikasketak eta maisutza 1.961'an amaituta, diru-etxe baten egin eban lana.

Berruete'n, erriko irakasle bezala lan egin eben eta 1.967-1972 urte bitartean, Iruña'ko Ikastetxe-Nagusian legegintza'ren mailla lortu eban.

1.971'an Kili-Kili Nafarroa'n sartu zan Biana'ko Printzea'ren bidez, eta ainbat ume ta gazte artu-emon sakonak euki ebezan.

1.973'garren urtean, Nafarroa'ko Foru-Aldundia'k, eziketa arloan Euskal gaiaren zuzendaritzarako agertu eban azterketa nagusian, berak lortu eban. Eta Nafarroa'ko Aldundian, bera izan zan bakar-bakarrik Euskarazko gai-buru amaika urtetan.

1.973'ko urte amaieran, Foru-Aldundia'n talde-bat sortu zan Euske-rea bultzatzeko. Eta osotzen eban talde ori: “Garaikoetxea'tar Karlos, Garde'tar Martzeliño eta Oreja'tar Jose Iñazio” izan ziran.

Erririk-erri eskola ta ikastoletan zabaldu zan. Eta Nafarroa'ren erritik-erri gure Xole, Garde'tar Martzeliño, Retolaza'tar Jose Antonio eta Otxandorena'tar Tomas'ek, berreun irakasle-andereño ta apaiza'ren lagun-tzarekin, lau-milla neska-mutil saritu ebazan.

Nafarroa'ko Foru-Aldundiak ordaintzen ebazan, eta umetxoak doainik artzen ebazan “Lan ta Lan”eko liburuxkak.

1.973'garren urteko udaren aurreneko lana, Euskarazko irakasleentzat ikastaroa zuzendu eban, eta lendabizi egiten ebalako lan ori, 60 irakaslegai Nafartarrak agertu jakozan.

Oñatibia'tar Jon zuzendaria'gaz irakasle ezin obeak euki ebazan : Barandiaran'tar Joxe Migel, Lekuona'tar Manuel, Garde'tar Martzeliño, Larrañaga'tar Juan, Arraras'tar Patxi, Satrustegi'tar Jose Maria, Latxaga eta abar.

A zan, Euskararen Udabarria !.

1.974'garren urtean, barrero egin zan ikastaro bardiña Oñatibia'tar Jon'en zuzendaritzapean, eta 120 irakaslegaiak etorri jakiezan.

Gero ta gorago joan zan irakasleen ikastaro au eta 1.979'garren urtean,

(1) Ille-txirikorda = trenza de pelo, “La chica de las trenzas” esaten eutsien.

Larrarte´ren zuzendaritzapean 365 irakaslegai agertu jakiezan.

Erbiti ta Arbilla´tar Xole´k, ikastolen zerrenda aundiari sortzen be lagundu eutsen: 1.974´an Lesaka, 1.975´an Eauarte, Otsagi, Zangotza eta 1976´an Etxalar.

1.975´garren urtean, Aldundi´ko arau nagusia zabaldu zan, Euskerea ikastetxe irikietan sartzeko, eta or ibili zan Erbiti´tar Xole irakasleentzat ikastaro bereziak sortzen.

Eta 1.975´eko urtetik aurrera Iruña´n, Euskerea gaztelerazko eskoletan asi zan zabaltzen, eta egunero ordu-bat nai eban umetxoentzat, an be banatzen zalako “Kili-Kili”.

Xole, eskoletatik eskoletara joaten zan eta liburuxkak banatzen ebazan.

Ainbeste ikastetxeentzat irakasleak bear ebazan eta Larunbatero ibiltzen zan Euskeraz irakatsi nai eben billa. Leitza´n be eraiki eben eredu aundikoa bezala, Euskarazko ikastetxe aurrelaria.

Irakaslen ikastetxean Euskara´ren alxia (2) sortzen be alegindu zan.

Eta bere ardurapean asi ziran gaueskolaren laguntzak.

1.980´aren urteko amarkadan, Euskerea asko zabaldu zan Nafarroa´tik zear, eta “Kili-Kili”k, bost edo sei urte jarraitu eban.

Amarkada ori amaitu baiño-len, Nafarroa´ko Jaurkintzak uko egin eutsen diru-laguntzari, eta or amaitu zan Nafarroa´ko “Kili-Kili” lana.

1.973-1.984 urte bitartean, ainbat oinkada eder emon ebazan Nafarroa´n Euskerea´ren alde.

Beren Euskal-zaletasuna noiztik nora ?:

Bere gaztetasunean Foz eta Zabaleta´tar Julia andreari entzun eutson, “Euskerea ederra zala”. Entzun eta aurrerantzean, al eben guztia emon eban Euskera´gaitik.

Ortik aurrera asko irakurri ebazan Kanpion maisu aundiaren idazlanak, eta batez be “Erraondoko Txistularia”.

Euskerea, Urrikenia´ko izeko Martina´ri zor eutson, eta 1.965´ean Euskerea sendotu ta sakontzeko, Iruña´n Oñatibia´ren ikastarora joanda ikasi eban.

Erbiti ta Arbilla´tar Xole, 2.007´garren urtean adiñetan sartuta, zar-sari edo zar-bidera aldatu zan, eta arrezkeroztik ugaritu ebazan berak astia eukenean Euskeraz idatzitako lanak: Diario de Navarra, Principe de Viana, Euskerazaintza, Euskerazaleak “ZER” eta Karmel aldizkaritan.

Latxaga´ren esanetan: “Orrelakoxeak dira Nafarroa´ko Euskal-Loreak”.

(2) Alxia sortzen = acuerdo, avenencia, armonia, tolerancia.

OMENALDIA:

Emen, bere omenaldiari buruz, Olazar eta Uribe'tar Martin'ek EUSKERAZAINTZA eta EUSKERALEAK ALKARTEA'ren izenean bera lendakari zala, 2.008'an Urtarrilla'ko "ZER" aldizkarian agertu eben idazlan eta bertsoak aurkeztuko dautzuedaz:

ERBITI'TAR XOLE ANDEREARI IRUÑA'RA

Bilbao'tik, 2.007'n urteko Azaroaren 5n. egunean. Adiskide ta lankide, agur:

Entzun dot ondo irabazia dozun omenaldi bat egiten dautzuela Iruña'n.

Asko poztuten naz eta EUSKERAZAINTZA'ren izenean eta lankide guztiakaz alkartzen naz omenaldi orretara.

Lan aundiak eta asko egin dozuz euskeraren alde, bai Nafarroa'ko agintarien artean eta bai idazkiz euskerea zabaltzen eta sendotzen. Zoriona ba eta esker ona zuretzat.

Ba-daukagu itzaropena aurrerantzean be bide orretatik jarraituko dozula eta ZER euskerazaleen aldizkarian eta EUSKERAZAINTZA, euskeraren erri akademiarenean lanak ugari eta onak argitaratuko dozuzala. Aurretiaz, eskerrik asko.

Gure Akademia'ren eta Euskerazaleak Alkartearen izenean, agur bero bat eta besarkada bat

**Olazar'tar Martin
Lendakariak**

OMENALDIA

XOLE ERBITI'RI BERTSOAK

1

Gerla ondoko aurtxo zinen
Basaburuko azia
Illarregiko euskal giroan
azia ta ezia
Ikasketekin aurrera-eginez
Erdal munduan naasia
Eta gerora azaldu dozu
Zure barneko grazia.

2

Xole esanda ezaguna da
Iparretikan egora
Zure izenak amaika kontu
ekartzen ditu gogora
Limosna eske zenbat eskale
Urbildu zaizu altzora
Zure apurrak jaso ondoren
Sentitzen ginen guztora.

3

Bein sekzio ta Zerbitzu-urrena
Beti pertsona berdina
izan zitekeen antzerki, bertso,
olerki edo ipuina.
Askotan edo geienetan
Banatzeko zen pittina
Ongi dakizu erdalzaleekin
Zer den naia eta ezina.

4

Gizakiaren joan-etorrian
Sasoi desberdinak daude
Aritu zara ilusioz blai,
aritu zara suabe,
erririk erri ibili zinen
Atsedean askorik gabe
Zuk utzi duzun neurrira-eltzeko
Inbidia sanoz gaude.

5

Bi alabatxo eta semea
Ai zer nolako kabia
Etxekoandre eta ama zara
Gorengo kategoria
Pozteko eta sufritzeko ere
Eman dizute zoria
Lanean zinen idazkaria
Eta etxean txoria.

6

Zerbitu duzu zure patria,
Ez dakigu zenbat urtez,
Esker oneko itzak ditugu
Biotzez ta borondatez
Gure irria eta zurea
Elkarrekin uztar bitez
Eta langille euskaltzalea
Zoriontsu izan zaitez (bis)
Eta langille jubilatua
Zoriontsu izan zaitez (bis)

GU BION ALKAR EZAGUTZA:

Onaindia'tar Aita Santi'gaz Nafarroa'tik ostera bat egiten nengoela ezagutu neban leenengoz gure XOLE Euskal-Aberkide goragarria (3). Aita Santi, Nafarroa'ko Foru-Aldundi'ra eroanda, Euskerea'ren gora-beran argibide-bat bear ebala-ta beren billa.

Ainbat ostera egin genduzan Nafarroa'tik zear, batzuetan XOLE'gaz egonda, Onaindia'tar Aita Santi il zan arte.

Ortik aurrera San Sebastian'tar Jose Mari "LATXAGA"k artu neban bere lagun, eta amaibako osterak egin genduzan Nafarroa'ko erri guztietatik, sarritan XOLE'n etxean egonda.

Ondo ezagutu neban XOLE eta beren sendia, eta batez be sendiak eta berak Euskalerrria ta Euskera'ren arazoagaitik euken abertzaletasunezko arduran min-aundia.

Joan jakuzan Aberkide-adiskidei, Sarritan esan eta eskatzen dautsegu JAINKOA'ren ondoko euren zerutik laguntzen alegindu dagiezala, laterri-menpera-tzailleak gure Nortasunaren izatasunak ezereztuteko eta euren morroi-lez menderatzeko egiten dauskuzan erasotatik aske geratu gindezan.

Egia baiña, JAINKOA'k gai-bizi onetara, bereztutako gai-lege artera bialtzen gaituela, eta orren esan naia, "Berezko Lege orreik dan guztirako oiñarriz artuta", Bakoitzak eta Alkarte-legez arduran daukaguzan zor-eskubidearen kundeatzaille edo eragille (4) bialtzen gaituela.

Orregaitik, naiz ta gaur jakintzaren arloetan aurrerakuntza aundia artuta egon arren, bizitzako-edestian aldi guztiak bardiñak dira, "ERRIGIZARTEAREN GARAIKO BELAUN ALDITAN, NORTASUNAREN ARDURA-BIDETIK, OREKAZKO-EKANDUAK LORTZEA" dalako

Besterik, ba-aldago ?.

Gure bizitza, naiz-ta ondoriozko kate-bat izan, belaun-aldi bakotzari egokitzen jako.

Eta gaurko Euskaldunak eritxi ori da, osasundu egin bear doguna, izkilla ta lerkaiekaz lelokerietan ibili barik, laterrizko fazizta-menperatzailleak indar geiegi daukielako, gaur obeto ikusten dogun ezkerro.

XOLE, maitasun guztiagaz arduratu zan, berak EUSKERAZ'ko NORTASUN IZATASUNA'ri zor eutsonagaz, EUSKALERRIA eta EUSKEREARE'gaitik bere bizitza eten-bako lanean eskaiñi eutsolako.

Aundia izan da BERE ordaña, EUSKAL-DEMOKRAZIAREN ZENTZUZKO BAITA'n, SINISMEN AUNDIA EUKI EBALAKO.

(3) Goragarria = estmable, laudable. (4) Kundeatzaille edo eragille = gestorador, o gestoradores.

Agur XOLE, egun aundirarte !!

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.010'ean Urtarrilla'ren 12'an

- ZORNOTZA`n EUSKERA`ren EGARRIZ -

Zornotzan Euskeraz ikasteko leen asmoak, betiko abertzaleen arteko urduritasunetik sortu ziran, 1.963`an ni ezkondu nintzan urte ingurutik aurrera.

Adibidez: Zarandona ta Olariaga`tarren anai arreba`k Kerman, Margari, Andone, euren koiñatua zana Laskibar, Lopez eta Lauzirika`tar Jose Antonio, Aurtenetxe ta Mardaraz`tar Juan Manu, beren koiñatu Urrutia eta Aurrekoetxea`tar Anton, Ariño eta Lejarzaburu`tar Bego`ren senarra Bernaola ta Oleagoitia`tar Jose Maria, Euba ta Zenarruzabeitia`tar Sabin, Aldazabal eta Etxebarria`tar Kerman eta bere emazte Etxebarria ta Azarloza`tar M^a Elen, Idigoras eta Etxeandia`tar Jose Luis, Dañobeitia ta Ugarriza`tar Agustin, Gerediaga ta Bilbao`tar Markos eta orduan umeak euki ebezanak euskeratzeko. Bai eta orain gogoan ez daukazenakaz.

Euskerea`ren asierako almutx edo metxa biztu ebenak baiña, Aluminios Galizia`ren lan-tokian egon ziranak biztu eben.

Adibidez: Ereño ta Iarza`tar Pedro, Larrinaga ta Aginaga`tar Karmele`ren senarra eta Artetxe`tar Miren`en senarra Milikua ta San Martin`tar Jose Mari, berton lan egiten ebanak.

Eta lan-toki`ko zabalkunde barria`ren zimendu edo azpikoak egin bear ziralako, Romero ta Rodrigez`tar Juan (KATXIN) eta Etxabe ta Meaurio`tar Jenaro ormagin edo igeltsero`en lanak egiten joan ziranak.

Danak ezagunak izan eta aur edo ume gazteekin egonda, euki eben Euskerazko egarrian...., deia agertzea bakarrik bear zan eta Barrenetxea ta Zuloaga`tar Emilio (leiargintza euki ebana) eta bere emazte Ziarrusta ta Ereño`tar Miren`egaz euren alkar-izketaren artetik agertu jakien poxpolloa, Milikua ta San Martin`tar Jose Marik ondo erabili ebana bere emazte Artetxe`tar Miren (bere etxean, ikastolako leenengo andereño edo eskol-emaille izango zana) lanean ipinteko leenengo iru aur`ekin, gero bost eta ortik aurrera danak zalapartaka

Aien semeetatik izan ziran Zornotza`ko ikastolaren leenengo iru ikasleak: Romero eta Mezo`tar Juanjo, bere aita, Romero ta Rodrigez`tar Juan`ek (KATXIN), beren-semeak arazo guztien gaiñetik Euskeraz ikastea gura ebalako, Etxabe ta Astoreka`tar Gaizka eta Barrenetxea ta Ziarrusta`tar Gorka izan ziran leen agertu ziranak Miren Artetxe`ren etxe-bizitzan Euskeraz ikasteko. Eta jarraiki Ereño ta Iarza`tar Pedro`ren Alejo ta Asier semeak eta sutauts edo lerrauts-lez zabalduta, ZORNOTZA`ren ERRI`ko ABERKIDE`aren Seme GEIENAK.

Ereño ta Larrinaga`tar Alejo`ri itandu neutson eta onen esanetan, nai-ta aipatutako irurak izan, bere ustean ikastaro ori osotu egin ebenak: Barrenetxea ta Ziarrusta`tar Gorka / Etxabe ta Astoreka`tar Gaizka / Romero ta Mezo`tar Juanjo / Mujika eta Iparagirre`tar Igor / Odriozola ta Azula`tar Kepa / Etxeita ta Gandiaga`tar Josu / Ereño ta Larrinaga`tar Alejo ta Asier anaiak / Areitio ta

Gerediaga`tar Fermin / Eta berak ez dabezanak gogoraten, baiña geiago izan zirala ikastaro ori osotu ebenak, esan eban.

1.965-66 urtetatik aurrera Miren Artetxe leenengo eskol emaille edo andereño zala, Eroski-zarra zanaren goialdeko bere etxean emon ebazan lenengo ikas-aldiak.

Urrengo oinkadan eta Artetxe`tar Miren`en etxea txiki geratzen asi zalako, Karmeldarren ikastetxera joan ziran, gero, "UDABARRI" dantza-taldea sortu zan lekua zana. Bertan 1.967-68`ko ikastaroa egin da.

2.008`ko Otsailan Zornotza`ko "KANTARRANAS" 48/22 zenbakiko aldizkarian agertzen dira ikastaro ori osotzen dabenak eta euren eskola-emaille edo andereñoa Aurrekoetxea`tar Bego alboan dagoela, **leenengo lerroaren ezkerretik asi-ta, oneixek dira aur-ikasleen izenak:** "Otxoa`tar Ana Mari ta Ester aitzak ? / Garai ta Ugalde`tar Iker / Agirre ta Etxeita`tar Grego / Marquez`tar Antonio ? / Garai ta Ugalde`tar Jon Ander ? / Barrenetxea ta Ziarrusta`tar Gorka / Etxabe ta Astoreka`tar Gaizka / Rodriguez ta Gorroño`tar Belen / Romero ta Mezo`tar Juanjo / Odriozola eta Azula`tar Kepa / eta Uribarri ta Agirre`tar Aitor".

2`n lerroan ezkerretik asi-ta: "Sagardui ta Gomez`tar Jabier / Ortuzar eta Magunazelaia`tar Juanan / Bourgeaud eta Zarandona`tar Gaizka / Mujika eta Iparagirre`tar Igor / Zarandona eta Rekalde`tar Endika / Agirre ta Etxeita`tar Nerea / Areitio ta Gerediaga`tar Fermin / Odriozola eta Azula`tar Jon Ander / Laskibar eta Zarandona`tar Kerman / Barrenetxea ta Ziarrusta`tar Joseba / Lizaso eta Zabala`tar Jose Mari".

3`n lerroan ezkerretik asi-ta: "Etxebarria eta Mardaraz`tar Kepa / Aurtenetxe ta Lopategi`tar Josu / Urrutia ta Aurtenetxe`tar M^a Eli / Bernaola ta Ariño`tar Gotzon / Arrese ta Azkuna`tar Asier / Ereño ta Larrinaga`tar Asier / Ereño ta Larrinaga`tar Alejo / Bernaola ta Ariño`tar Igone / Dañobeitia ta Intxausti`tar Amaia / Etxabe ta Astoreka`tar Gorka / Arza eta Azkorra`tar Kepa".

4`n lerroan ezkerretik asi-ta: "De Pablo ta Llona`tar Imanol / Lopez eta Gonzalez`tar Aintzane / Eguskiza ta Estepa`tar Kepa / Barrenkua eta Sagastasoloa`tar Asier / Idigoras eta Aurtenetxe`tar Kariñe / Gerediaga eta Etxezarraga`tar Itxaso / Rekalde eta Aranzabal`tar Nerea / Laskibar eta Zarandona`tar Aitor". Aldazabal ta Etxebarria`tar Jabier, Idigoras ta Leibar`tar Igone, emengo ikastarokoak izan ziran ikasle

Eta orduko Espaina`ren jaurkintzako ikertzailleak edo ikuskariak ipinten ebezan eragozpenakaz beti atzetik salatari euki genduzan-lez, katua umiarekin ibiltzen dan antzera ikasleen zati bat Andres Etxebarria`k eta Garzia ta Mintegi`tar Adolfo`k euki eban "BERRIOTXOA" akademira "IXER" auzunean edo gero "Ixe" deituko zan Kanean egoana" eroan genduzan eta beste zatia, Parroki`ko etxearen bealdeko lekuetara.

Ni, Lopez ta Lauzirika`tar Jose Antonio`ri ikastola`ren gora-beran zeaztasun batzuk eskatzera joan nintzan orduan itandu neutson: "Zergaitik Aldazabal eta Etxebarria`tar Kerman erabili zenuen Franko`tar jaurkintz bulegoetatik beti aurrez, ekonomilari ta lege-gizon ona izan zalako ?.

Bai, zera !! Euren aurrean danok euki gendun gorritasunetik, bera !! izan zalako, zuriena !!.

Urte oneitan 1.969`an sartu genduzan gure alabak ikastolara: lau urtekin Atutxa ta Barroeta`tar Mari Lurdes, Maite iru urtegaz eta 1.972`an Leire iru urtegaz. Gero Mari Lurdes 10 urte egin da 1.979`an, Maite 1.980`an beste 11 urte egin ondoren eta Leire 1.983`an, 11`ka urte egin ondoren, Durango`n K.O.U egitera joango ziranak, aurrerantzean ikastaro-nagusiak egiteko.

A ta guzti Ikertzailleak edo ikuskariak (inspectores del gobierno de Franco) ikastola etsi edo itxi euskuen, eta aurrera egiteko, 1.970`ean zornotzako erretorea zana Pujana`tar Jose Luis`en izena bitarteko, eskubidea lortu gendun.

Goiria`ren etxe ederrera be eroan genduzan, baiña ikertzaille edo ikuskari areik ez euskuen bakean izten eta osterabe debekatu euskuen.

1.972`an ikastola "Andra Mari-Baltzu"en izenagaz sortu gendun, txikiak Eroski`ren goian Miren Artetxe`ren etxera eta aurrera egitea ez zalako al izan, BERRIOTXOA" akademira eroan genduzan.

1.975`ean "BERRIOTXOA" akademia`ren izen-buru edo titulua gure Andra-Mari-baltzu`ko eskuetara etorri zan eta ortik aurrera esan leike gure alkartea indarra artzen asi zala, kide geiagoren indar ta diru geiagoaz eta baimenduta egon ziran ikas-liburuakaz.

1.976`an ikastola barria egitea erabaki gendun. Artean Pasio`tarrak euren etxea eskeiñi-ta, guk gure batzarrean ezetza emon-gendunai.

Ikastola biurtzeko Alemana`ren etxe ederra erosteko-be ikutu egin zan, baiña beste batzuk erosi eben eta Lopez ta Lauzirika`tar Jose Antonio eta Euba ta Zenarruzabeitia`tar Sabin`ek, Aita Onaindia`tar Santigaz antolatu edo tajutu egin ondoren, Larrea`n erosi genduzan lurrak.

1.977`an "Gizarte`aren Onurakoak" (de interès social) izatea lortu gendun.

1.979`an Otsailla`ren 7`an Udaletxea`ren eskutik ikastola egiteko baimena artu gendun eta arazozko-lan azkoren ondorioz osterabe lortu gendun "Gizartea`ren Onurakoak" izatea.

1.980`an Uztailla`ren 31`n ikastolaren etxe-gintzan asi giñan

Ikastetxe barria 1.982`ko Iraillean amaitu barik egoana asi zan irakaskintzaren lanean, Aldazabal`tar Kerman lendakari eta Albaro Legarreta eta bere anai Legarreta`tar Manu zuzendaritzan zirala.

Geroago, auto edo gurdi-bidea`ren bestaldeko Karmeldarren lurrak bederatzi milloi`aren ordeaz erosi genduzan, ikasleen jolaserako eta eurakaz egin gendun egiune edo itzarmen bidetik, beartuta geratu gintzazan jolas-leku lez bakarrik izan daitezala lur areik, bestela itzarmena apurtuta geratzen zan eta lurrak berriz Karmeldarren eskuetara itzuli.

Gorostiza ta Rodrigez`tar Juan Luis`ek askotan esaten eban: “Lur-zelai orreitan urteroko Ikastola`ren egunak ospatzen genduzenean, euria egin ezker, etxean ikastola`ren kide guztiak artzen genduzan ogi-tartekoak, arrautz-opillak zatika saltzeko eta ainbat pintxo aokada-bat edo bitan jatekoak ziranak, geuk jaten genduzan, nor-bereren zarpel edo diru-zorrotik barriro ordainduta.

Eta orrate euki genduzan lendakari ta zuzendariak, gitxi gora-bera oneixek dira: * Miren Artetxe eta gero Berriozabalgoitia ta Duñabeitia`tar Kontxi, Aita Pedro Mari ta Libino`ren loba eta Roio ta Ajuria`tar Olga.

(oneik, lendakari edo zuzendari ziran ?)

- * Jose Luis Pujana erretorearen “ardurapean, ikastola`ko jarraidun bezala 1.970-1.971`ko urtetan.
- Kerman Aldazabal “Lendakari” eta « diru zaiña 1.971-1.972`ko Urtetan eta Bernaola ta Oleagoitia`tar Jose Mari idazkari lez.
- Moises Iruarrizaga “lendakari” 1.973-77`ko urtetan ?
- Kerman Aldazabal “lendakari” 1.980-81`eko urteik ikastola itzi eban arte. Eta uste dot 1.972`etik 1.982`ko urtera bera izan zala diru-zaiña eta ortik aurrera Garai`tar Pedro Mari.
- Sorkunde Etxeandia “zuzendari” 1.974`tik 1.977`ko urterarte.
- Andres Etxebarria “aita-ordeko” 1.978-79`ko urtetan.
- Albaro Legarreta “zuzendari” 1.980-82`ko urtetan.
- Manu Legarreta “zuzendari” 1.982`ko urtetik aurrera.

Ez dira urte asko oraindiño, ikastolan ordaindu bear zan diruaren orde zemon gendun sinadura kendu euskuela.

Alkartasun aundia euki gendun orduko Zorrontzar gazteak EUSKAREA-ELBURU euki gendulako. “GAUR ZERGAIK EZ ?”. “EUSKAREA KALERATU EGIN BEAR DOGU, EZEREN AITZAKIRIK GABE”.

A ZAN, EUSKARA`ren UDABERRIA !!

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.008`an Jorrailla`ren 1`ean

KARMELDARREKIN, PALESTINA TA ISRAELETIK "ERROMES"

AURKEZPENA:

Karmeldarrak, urtero egiten dabe Ekialdeko lur santuetatik arrotzaldiko erromes au.

Eta betikoen eztaibadagaitik lurralde oneik oso arriskutsuak izaten ba dira be, ondo baiño obeto antolatuta eukiten dabe txangolazko erromes bide au.

Lurrarteko itsaso (1) orren Ekialdeko asken itsas muga orretan (2) ez genduan eragozpen aundirik euki, azpiegituraren (3) ardurazko egitarauak (4) zuurtasun aundiz ondo oarmenduta (5) euki ebiezalako.

Bidai ederra egin gendun karmeldarraier esker

Lenengoetan danon ikuspen ezberdiñak beartuta, eztaibada batzuk egon ba ziran be (6), azken baten, danok besarkadaz agurtu gintzazan.

ANTOLATZAILLEAK ETA BERTOKO ANTOLAKUNTZA:

Euskalerrri aldetik, Aita Amestitar Alfredo Karmeldarra izan zan antolatzaillle bakarra, nai ta beragaz batera bidelari lez, Aita Intxaurregi ta Ortiz de Zaratetar Jose Manuel Karmeldarra etorri. Israel edo Palestinako lur aldetik, Aita Negreltar Frantzisko Karmeldarra, "Pako" ez izenagaz esagutzen dana.

Erri-gizon/emakumeen artean, irurak oso ezberdiñak ziran euren erakusle lanetan, baiña zeatzak eta zentzun aundikoak euren eginetan.

Alfredo gazteena geiago ikasi bearrean egoan, politikazko eritzi ezberdiñetako adiñekoen artean artekari lez, talde osoa zentzunezko arrazoian egokitzeko.

Palestinako Lur Santu orrein zaindaritzaren eskubideko antolakuntzan, antziñatik datozen gauzak dira, lenauko eta gaurko denborak politikaren jabetasunezko arloan oso ezberdiñak izan da.

Lenauko denborakoak, askatasunezko erri ezberdiñen artean itzarmen bidez Jaun eta erregeak aukeratzen ziran, erri bakotzaren nortasuna agertzeko.

(1) Lurrarteko itsaso = mar mediterraneo. (2) Azkeneko itsas muga orretan = Tel-aviv. (3) Azpi-egitura' ren =infraestructua. (4) Egitarauak = orden de acción. (5) Oarmendura = observados con premeditación. (6) Sarreran argituko dodazanak.

Adibidez: 1.327an Aragoiko Mijabillatar Pedroren ordaritza bidez, IIn. Jaimek, Maleken Naser maurierrege bidetik Lur Santuaren zaindaritzazko baimena lortu eben denborakoak.

Eta gaurko denborakoak, Lur Santu orreïn zaipeneko jabetzak 1.789ko Frantziaren iraultzapeneko eragipenetik mendeko guda-laterrien eskuetan geratu diranak:

“Israeleko laterria, Palestina, Jordania, Ejipto, Siria, Libano, Rodas, Txipre eta Espainako errege eskuetan dagozanak.

Aipatu dodazan lurraren jabedunak, bidezkoa da Lur Santu orreïn eskubideko zaindariak izatea, BEREZKO LEGEAREN arrazoizko zentzuan egokitzen dalako.

Or, zer egiten dau baiña, Espainako erregetzak ?.

Eta Frankok, 1.940an Bagillaren 3an zaintza orreri guraso ondokoaren jabetasunagaz aldarrikatuta ezarri ebanean, zaindarizko eskubide orregaz jabetzeko ?.

Bereztasunaren egiari begira, Espainaren ze guraso ondorengoakin ?.

Bereztasunezko legearen bidez, ondorengorik ez daukanak eta guztiz JAINKO LEGEAREN aurkakoa dan larderiakin ?.

SARRERA:

Lur Santu auetatik erromes ibilita ikusi genduzenak, lurralde orren edesti labur bategaz aurkeztuko dautsuet, adibidez: baratz arloan artzen dabezan mozkin motak, etxegitean daukien txepeltasunezko trebetasuna, erriak daukien gizartearen gendetza, uraren banaketak eta politika arloan Palestina ta Israel banatzeko daukien kilometru askotan lotsagabezko arresi aundia eraikita azaltzeko.

Nire ustez, jakin bear dogulako non kokatuta gagozan eguneroko ekitaldiak egiterakoan.

ISRAEL:

Israel, Eki urbilleko errepublika da beren 20.700 Kilometru neurki laukiekaz ta ia 4.000.000 biztanle inguruekin, Uri Nagusi lez Jerusalem daukiela.

Iparraldetik Libano, Ekialdetik Siria eta Jordania, Egoaldetik Akabako itsas-golkoa, Ego Mendebaletik Ejipto, eta Mendebaletik lurrarteko itsasoak mugatzen dabela.

Lurralde au fisikoki, luzerozko iru errenkada edo zerrendan banatuta dago:

a) Lurrarteko itsasoaren izparterreko zelaikada, lur orreitan Haifa daukiela goiberako mendizkarekin bakarrik.

B) Erdiko mendikotasunagaz, Iparraldetik Galileako mendizkak, erdian Judea Samaria eta Ego aldean Negeb, bere Jarmag mendiak 1.210m. daukazela.

d) Jordaneko ibarra.

Judearen Ego aldean, Negebeko erdi basamortuko lurraldeak dagoz, beren garzulo edo sumendi zuloekaz, lurralde guztiaren erdia osatu egiten dabenak.

Jordan ibaia da daukien errekarik garrantzitsuena, Jordaniagaz muga eginez gain, Hule ta Tiberiadezeko aintzira edo ur-geldietatik igaro ondoren, itsasoaren neurritik 398 metro berago dauan Itsas Illera itsasoratu egiten dauzala bere urak.

Itsas Ildako onen luzera 71 kilometrukoa da, eta 16 kilometru zabaleran, beren urak %etik 38^a gatza dana.

Lurralde orren egu-giroa, Lurrarteko Itsasoarena da, Jordan ibaiaren ibarrean berotsu ta legorra eta Negebeko basa mortua izan ezik.

Lurretik nekazaritzan artzen dabezan fruituak: Garia, garagarra (1), bas arto (2), artoa, maats, olio arana, lusagar (3), tomate, azukrezko udarbia (4), algodoi, kebelarra, eskuti (5), albo edo platanondo, laranja edo urre sagar, arabi saga (6), datil, zidroin edo limoiak, duaxa edo mertxika (7), madari, sagar eta ainbat gauza gaur erein egiten dabezanak.

Bere oian edo zuaizti basoa: 114.000 golde edo ektareakoa da.

Abere arloan: bei, ardi, auntz, zaldi, asto, mando, gamelu eta abar.

Lurpeko meagintza ain aberats ez izanda: arrolio (8), lurrun edo gasa, tupiki edo kobrea, kali edo gatz potasikoa, berezko fosfatoa eta gaztarria (9), ataraten dabez.

Langintzan: algodoiezko oial, artillezko landar (10), seda oial, oialaren eungintza egindako ariakaz (11), arrolioaren ondorekoak, galtzairuzko trozkoak (12), kare beltza (13), sulbur edo sofre (14), mitriol olio ta gatzu garratz (15), errekaitasunezko soda (16), ongarri txuriak (17), lurrezkintza edo plastikoa, lerdamin edo erretxinak, ikatzarri edo diamat landuak, berebillen tresnadura, entzuteko irrati edo irratargailu ta telebistak, berebillen aize gurpillak, oiñetakoak, tximist eragilleak (18) eta lurraren nekazaritik artzen dabezan mozkin langintzatukoak.

Erbesteratu egiten dabezan mozkiñak: ikatzarri edo diamanteak, garratz mozkiñak, oial mozkiñak eta abar.

Erriratzekoak: makiña edo tresneria, mota guztietako belbillak, elikagarritzko mozkiñak, len gaiak (19), eta abar.

Eta euren izkuntzak: Judu edo Ebreu eta Arabierak dira.

(1) Garagarra = cebada. (2) Bas artoa = sorgo. (3) Lur sagar = patata. (4) Azukrezko udarbia = remolacha azucarera. (5) Eskuti = cacahuete. (6) Arabi sagar = toronja. (7) Duaxa edo mertxika = albaricoque. (8) Arrolio = petroleo. (9) Gaztarria = sal gema. (10) Artillezko landar = tejidos de lana. (11) Oialaren eungintza egindako ariakaz = fabricación de telas con fibras artificiales. (12) Galtzairuzko trozkoak = lingotes de acero. (13) Kare beltza = cemento. (14) Sulbur edo sofre = azufre. (15) Mitriol olio ta gatzu garratz = ácidos sulfúrico y nítrico. (16) Errekaitasunezko soda = sosa cáustica. (17) ongarri txuriak = fertilizantes minerales. (18) Tximist eragilleak = motores eléctricos. (19) Len gaiak = materias primas.

EDESTIA:

Lur Santu auek, iru lurraundiaren bide elkartzeko gune da, eta bere edestian, bakez gitxitan bizi dan lurraldea.

Bere lurraldean dagoz gaur diran iru erlijio aundienak: Judutza, Kristaua eta Islandarra.

Juduarentzat, Bibliaren lurra da, eta euren joandako bizitzaren gertakizun zorionezkoa izanez gain, denboraren etorkizunean bertan erri izateko daukie itxaropenezko amets andiena.

Kristauarentzat, Jesusek eramankor bizi bear izan eban eta Zeruko Erregetzaren barria adirazi euskuzaneko lurrak.

Maomatarrentzat, euren Igarleak Zerura igon eban lekuko lurrak.

Mundu oneitan, iñungoko erri lurrak ez dabe euki, lur auek edestian eten barik euki daben odol jariozko antzerkia.

Eta Emen Lur Santu onen edestiaren argitasunak labur esanda:

K.a. 9.000 urte inguru izango dira emen kokatu zirala ezagutzen diran lenengo erkidegoko gizarteak eta Mundu onetan arkeologikoki aurkitu diran aztarrezko ondar zarrenak.

Abraan, K.a. 1.950 urte Mesopotamiako Ur Uritik, mendeko eritzieri iges eginda eta Kanaanera elduta, Mundu onetan beren denboragandik asita esagutzen da idatzitako edestia.

K.a. 1.250 urtean Josuek Jordan ibaia aldatuta Kanaaneko lurrak bereganatzen dauz eta euren 12 leiñu artean banandu ebazan.

K.a. 1.200 urte lurralde oneik, Kreta eta Ejeo itsas aldetik itsastarren erasoaldiak eta Filisteoaren sarrera euki eben.

K.a. 1.025ko urtean, Saul egin eben errege.

K.a. 1.004-965 urte bitartean, Dabid erregearen agintaritza.

K.a. 965-922 urte bitartean, Salomon erregearen agintaritza eta lenengo Eleiza edo jauretxearen argintza (1).

K.a. 953-930 urte bitartean, Juda leiñu biekaz aldendu zanean, Isrrael erriaren banaketa sortu zan.

K.a. 712n. urtean, Asirioak Samaria oinperatu egiten dabe, eta Isrraeleko erregetzaren amaiera izanez gain, juduaren Iparraldeko amar leiñuaren atzerriratzea gertatu zan.

K.a. 587ko urtean, Nabukodonosor Jerusalemeko Eleiza edo jauretxea ezereztuten dau eta Babiloniara erbesteraten dauz, Juda erregetzaren biztanleak.

K.a. 539ko urtean Zirok, Babilonia menperatzen dau eta Juduari osteria izten dautse Jerusalem berrezkuratzen, Zerubabelek Judu Eleiza edo jauregetxea bir eraikita.

(1) Argintza = construcción.

K.a. 334ko urtean, Alejandro Magnok Palestina menperatzen dau, eta bera il ostean, Ejiptoko Tolomeotarrak jaurkitzen dabe.

K.a. 198ko urtean, Siriako III.n. Antiokok ejiptotarrak menperatzen daus, eta erria Seleuzidaren eskuetan geratzen da.

K.a. 175eko urtean, IV.n Antioko errege egiten dabe, eta onek, Isrraeldarrak Eleizan Jainkoari egiten eutsezan gurketak debekatuta, euren sinis gogorreko eskeintzak egiteko agindu eban.

K.a. 167ko urtean Isrraeldarrak, Asmoneoko Matatias apaiza zaarra eta beren semeen deiari erantzun da, Seleuzidastarren aurka borrokatu eta irabazi egiten dabe.

K.a. 64ko urtean Isrrael, Erromatar Ponpeyok menperatzen dau.

K.a. 40ko urtean Erromatarrak, Partoagaitik ustekabeen arrapatuta, erriagaz jabetu ziran.

K.a. 39an Erodes Aundiak, Partoak botaten dauz eta berak agindu eban erromatarren izenean K.a. 4n. urterarte.

K.a. 4-1 urte bitartean Jesusen jaiotza.

K.o. 30n. urtean Jesus gurutzean josi egiten dabe.

K.o. 66n. urtean, Judutarren matxinada.

K.o. 70n. urtean, Titok judutarren matxinada geratu eban eta Jerusalemeko Uri osoa deuseztu egiten dau.

132-135 urte bitartean, Judutarren matxinada barria, Bar-Kojbakek bideratu ebana, eta Adriano erromatar kaizerrak Jerusalemeko Uria ezereztu ta oinperatu ondoren, Aelia Kapitolinaren siñezgaitzeko (1) izenagaz Uri lez eraiki eban oster.

330-634 urte bitartean, Bizanzioren mendetza: I Konstantinoren Katoliko biurtzeran, Kristautasunaren eragipen andiagotu egi zan, eta ainbat eleiza eraiki ziran Isrraeleko lurraldeetan.

614n urtean, Persaren erasoko asieratik, Kristauak millaka il ziran eta eleizak eunaka ezereztu.

622ko Uztaillaren 16an Mahoma Medinatik iges egin ebanean irasita geratu zan Islaneko erlijioa.

Mahoma, Jesusen osteko asken igarlari (2) lez daukie Mauritarrek, eta euren oiñarrizko sinismena: "ALA" baiño beste JAINKORIK ez dauela, eta Mahoma bere igarle.

Euren irakaskintza guztia "Alkoranean" batuta dago.

636n. urtean, Palestina Mauritarrek menderatzen dabe, eta "Jerusalen", Meka ta Medinaren ostean euren irugarren Uri Santu lez aldarrikatu eben.

1.009an Jakim fatimitar kalifak, ainbat Kristau Eleiza deuseztu egin eben antzera, Jesusen illobi Santuaren Eleiza ezereztuten dau, eta emen emoten jako asiera 200 urteko Gurutz Santuaren borroketaldiari, Mendebal eta Ekialdearen artean.

1.099ko urtean, Jerusalem, gurutz gudaldikoak berrezkuratzen dabe,

(1) Siñezgaitzeko = pagana. (2) Igarle edo igarlari = profeta.

eta Latin erregetzaren lez aldarrikatzen dabe.

1.187n. urtean, Saladino Ejiptoko printze Mauritarrak, Galilea itsas ondoan, Kana Tiberiadeseke bidean, Hittin adarretako mendizka baten, Katoliko gurutz gudaldiak menperatzen dauz, eta or amaitu zan Mendebaleko Latin erregetza.

1.263n. urtean, Baibars Ejiptoko mairu erregeak, gurutz gudaldikoak itsas bazterrean euki ebazan gazteluak menperatzen dauz, eta 250 urtetan geratuko dira mamelukoaren aginpean.

1.400n. urtean, Tamerlanek bideratzen ebazan Mongoliako leiñuakin Palestina menderatzen dau.

1.517n. urtean, Persak sartzen dira Palestinan, eta 400 urtean egongo da Otomano kaizartzaren oinpean.

1.917n. urtean, leen Munduko gudan, Allenby gudal nagusiak, erri elkartearen gudaroztea bideratzen ebanak izango zan Palestina mendean artuko ebana, eta urte au izan zan, Balfourreko adierazte agirian agintzen ebana, palestinako lurralde orreitan Judu Aberri bat irasi egian.

1.922n. urtean, nazio arteko alkartasuna izango zan baieztu ebanak, Palestina zelan geratzen zan Britaniarren agindupean.

1.947n. urtean, O.N.Uk, Palestina judu laterri eta Arabitar laterriak bananduta geratu zitezten, asmo edo egitamu bat erabakitzen dabe.

1.948n. urtean, Britaniarrak amaitzen dabe euren agintaritza.

1.948an Lorailaren 14an, Juduaren Batzorde Nagusiak, Isrraeleko Laterriaren jaiotza aldarrikatzen dabe.

Isrraeleko Laterri barri orreitan, auzoko mauritar gudalozteak indarka sartzen dira, ta guda amaituta, Isrrael alde batetik eta Ejipto, Siria, Transjordania ta Libano bestetik, gud-arteke ebazpenak izenpetu ebezan.

Palestina ebazpen orregaz, Isrrael ta Transjordaniarekin banaduta geratu zan.

1.967ko Uztaillaren 5ean, Ejipto ta Siria arabiarrek Isrraelen aurka, sei eguneko borroka gogorrek egiten dabe, eta Ejiptoren gudu egazkin zelaiak Isrraeldarrak ezereztuta, garaipena lortu ondoren, Siriaren Golaneko mendizka, Ejiptoren Gazako lur ingurua, Sinaiko erdi-ugartea, mendebaleko Palestina, eta Jordaniako eskuetan egoan Jerusalemaren erdiagaz geratu zan.

1.973ko Urrillaren 6an, Ejipto ta Siria Arabiarrak Suezeko ubidetik eta Golaneko mendizkatik, Isrrael ostera ustekabeen arrapatu gure dabe ezer esan barik erasota.

Isrrael baiña laster konturatuta, Yon Kippur deritxon 16 eguneko borroka latzetan sartu ziran, Isrraeldarrak garaipenduz.

Eta O.N.Uk. bere 338ko erabagi bidetik agindu eutsoen, euren artean 242ko erabagian artu ziran burupideakaz, Isrraelek ostera atzeratu egiezala mugak, len berak euki ebazan lurraldeetara.

Gaur, Isrraeldarrak geratu dira nagusi eta Arabiarrak ez daukie indarrrik, euren laterritasunezko eskubideak lortzeko.

Alan dirala gauzak, Juduak euren indarrean zaldikatuta eta O.N.Uren burupideak al daben maltzuritasunezko arrazoiakaz baztartuta, Palestinako lurraldea, orma aundi bategaz banatzen dabiz eta legez kanpoko orubean euren gizarteko etxeak ezartzen.

Argi ikusten dogu ba, lurralde orreitan, bakea oso makala dala, eta zelako arriskuan sartzen diran, ariñauko antolakuntzabarik joaten diran txangolari erromesak, alde bi ortatik ibiltzeko.

Orregaitik, esker beroenak emon bear dautseguz gure Karmeldarra.

EGUNEROKO EKITALDIAK:

2.010ean Zezeillaren 20an Larunbata eguna Donostiako taldea arratsaldeko ordubietan batu eben, Zornotzako taldea iruretan prest egonda belbil busera igoteko.

Eta lauretan, Gazteizkoak artu ondoren Belbilbuseko Kandido gidariaren trebetasunagaz, oso pozik egin gendun, Madrilleko egazki zelaiaren arteko bide alde ori.

35 gizon-emakumezkoa izan zan talde osoaren kopurua, Zornontzatic zazpi emakume ta gizon bategaz osotu egiten genduna.

Gazteizen egon giñela baiña, agertu jakun leenengo eragozpen au.

Ameztitar Alfredo Karmeldar antolatzaillak, gu oarkeratzeko asi zan bidai baldintzak aurkezten, berba onekaz edo antzekoakaz esan da:

“Como grupo Español y Españoles que somos, tenemos que tener en cuenta.....”.

Niri, arpegiko bat eman ba eustan lez artu nebazan berba orreik, eta oarmen orreik amaitu ebazanean nik deituta, esan neutson: “Ni Gazteiz es España, ni yo soy Español” eta mezedez kontuan euki egiezala berba orreik esaterakoan.

Baten batek entzun eban izketaldi ori, eta berba orreik bereala zabaldu ziran, aozko isillean belbilbusaren aurreko aldean, eta Madrilleko aireportuan geratzen ziranetan.

Nik badakit, berak berba egiterakoan, olango espainol esangura orreikaz berba egin bear ebala. Joan giñan arriskuko lurralde orreitako guda-kontroletan oarturik egon bear giñelako, okerkuntzarik ez genezan sortu.

Gauza ezberdin bi dira baiña, gudakontrol orrein aurrean zer egin eta zer esan bear gendun, eta beste bat, geienak Euskaldunak izan da gure artean arremaneko berbak esaterakoan.

Madrilleko bidean geralditi txiki eta gidarien legeak agintzen dauan lez beste iru laurdeneko geralditi bat egin ondoren gaueko bederatziretan eldu giñan Barajaseko aide portu edo egazkin zelaira.

Egazkin zelaiko gorde lekura eroan genduzan pardelak, eta markatu ta ango barriak ikusi ondoren, 11k eta 25 minutu ziranean egazkiñera igonda, Lurrarteko Itsasoaren gaiñetik beren Ekialdeko azken itsas mugan dagoan Tel Aviveko egazkiñ zelaira joan giñan.

2.010eko Zezeillaren 21ean Domeka eguna.

Goizaldeko bostetan eldu giñan Israeleko Tel Abib aide portura, eta pardel edo zorroak eskuratuta, prest egon giñan belbil busera igoteko.

Emen, beste zoritxarreko gauza bat sortu zan.

Gure billa belbil busegaz etorri bear ziran arduradunak, ordua goizeko bostetan izan barik arratsaldeko bostetan zala usten ebalako, ez ziran agertu.

Eta uler txar orren erruz, guk artegatasunaren nekaldi aundiko sei ordu luzeetan itxaron bear izan gendun aide portu orretan.

Alfredo karmeldarrak, ainbat nekezko egipideak egin ebazan, beste belbilbus bat alokatzea lortu eban arte.

Goizeko 11etan eldu giñan Haifako muturrera, Karmeldarrak Karmelo Mendian daukien lekaretxe eta lekaimeak eroaten daben Stella Maris ostatura.

Eldu giñanean gosari arin bat emon euskuen karmeldar lekaimeak, eta Alfredok gelako giltzak bananduta, zorroetan eroan genduzan jantziak lo gelan antolatu ondoren, garastailu (1) azpian ipinita ondo baiño obeto turrustatu (2) gintzazan, eroaneko bero nekeak ozbarritzeko (3).

Eguerdiko ordu batetan euki gendun bazkaria, eta talde guztia urten gendun Karmel mendiko ingurua ikustera.

Euskaldunentzat emen, irugarren eragozpena sortu zan.

Karmeloren aurrean dagoan itsas dorreko talai ederretik, ango erri, itsas portu, itsaso ta inguruak ikustera joan giñanean, turuta joile bat egoan bere ogibidea lantzen, eta Itxaropena ta nik ondo jotzen ebalako euro bi bota geuntzezanean zabaldua euken mantarrera:

-Berak bereala itandu euskun: Españoles ?.

-Gure erantzuna: No ! Vascos.

-Berak ostera itanduta: De donde ?.

-Gure erantzuna: De Euskalerrria, Vascos !.

Guk ingurua ikusita euki gendula ta, andik eun metru aldi inguru dauan Karmelora igon gendun ingurua obeto ikusten ba gendun, eta turuta jole areik baten bateri itaun eutselako eta berak zirikituta edo ta beren

(1) Garasta = llovizna, aspersion, regadio. Garastailu = rociador, regadera, aparato de la ducha. (2) Turrustatu = duchar. (3) Ozbarritzeko = refrescar.

kabuz, Espaina kañiren zezenkari arin ariñezko abestiak jo ondoren, Mendi Karmeloko Lekairetxe ta Stella Maris ostatuari begira Espainaren Laterriko ereserkia ondo baiño obeto jo eban.

Bazkaltzera joa giñanean, gure Zornotza taldeko zortzirak elkar ezarri gintzazan, eta beste maietatik irriparez, gu izen giñan euren alkarrizketaren iturburua.

Bazkaldu ondore, nik txokor txiki bat erretan urten neban Karmeloko talai mendi ikuspegi ederretik ikusten nebazanakaz apur bat argitzeko, eta bereala alkartu jatan Gazteizetik etorriko bat ⁽¹⁾ esaten:

-“Zergaitik Euskerearen alde aurrera egin, bizitzarako ez dauana ezer balio eta erri lez sekula ez bada egon laterrituta ?” antzeko aolkuakaz.

Berak amaituarte itzi ondoren, nire erantzuna:

-“Nire bizitzaren Nortasunezko Izatasuna dalako” esan neutson.

-Eta Arabako edestian Arriagako Anaitegitik asi ta Euskalerrriaren beste lurraldeko edesti buruz, bakoitzak eukezan arrazoiak azalduta, itandu neutson:

“Zuri, gitxi al dala eritxen zaitu, Euskalerrriak ainbeste milla urte ondorengoan euki eben jabetasunezko laterritasunarekin ?.

Zeozer al dakizu, erriak ta euren gizarteak daukezan Aberri eskubideakaz, eta Mundu onetan gizaren eskubideak zer diranakin ?”.

“JAINKOAK Gai Mundu ontara bialduta, ez izeneko bat, arkume, gizajo edo ta ezjakiñenak egiten etorri garela uste dozu ?”.

A ta guzti gizon zintzoa izan zan, beste lagunakaz berba egin ebenean, gauzak izan ziran egian esan bear eutsozelako. Taldekoak ostera, beste egunetan ez ziran agertuko zeaztasunezko itaunak egiten, agertu ziran eran egitera.

Bai ta baten bat azpitik “Gora Euskadi” esatera. Beste batek “Batera bai, baiña naztu gabe”. Eta beste batek, beren Gazteizko elbidea emonda, ia noz joango nintzan beren etxera esaten.

Iruretan euki gendun ordua, Wadi es Siah Karmelo eremutarren sorrerazko tokia ikustera joateko.

Ni enintzan juan, anka ta gogoak oso txarto eukinda oeratu nintzalako.

Baiña bere edestian begituta eta Lourdes nire emazteak bidaiaren gora berakoak esan eustezanarekin ango barriak argituko dautsuedaz:

Haifako itsas bazter edo ur golkoan mendi zorrotz bat dago, Samariatik asi eta Lurrarteko Itsasoari begira 24 kilometruko luzeran, lurrez ekartsu edo eman andiko mendi kateibategaz, batez beste goiko neurrian 300m. daukazan mendizkarekin lotuta dagoena.

Mendizka orrek, lur emankor auetatik dakar beren Karmeloko izena, Ebreutar izkuntzan “Jainkoaren baratz edo lorategia” esan gura daualako.

Giza semeak orain 100.000-90.000 urte bizi zirala beren arzulo edo kobatan, eta Kananeotarren toki begikoa izan zan euren Baal jainkoari

(1) beren esanagaitik: illearen ordégille, mozle ta orrazle aipatua zana, eta Euskerarik ez ebena jakin.

eskeintzak egiterakoan, eta baita Elias igarle Santuarena.

Wadi es Siah esaten jako, K.o. 1.150n. urtean gitzi gora beran, San Eliasen naikide karmeldarrak joan ziran bakartegiko mendizkari.

1.214an San Alberto Jerusalemeko erri-guraso bidetik lortu eban euren karmeldar bizitzazko araua.

Eta 1.237 urte inguruan, mauritarrak bultzatuta, Europara aldatu ziran eta IVn. Nikolas Aita Santuak eskaleko lekaide lez baieztuta asi ziran euren zabalkuntzan.

Belbil buseko bidea 30 kilometrukoa izan zan eta geratu ziran lekutik gora oiñez igoteko, ordu erdiko bidea euki eben.

Alfredok emon euskun D.V.D.tan datoz, Pako Karmeldarrak bidean geratuta, Elda iturrian emoneko adierazpenak eta bertora elduta, an dagozan karmel eremutar bizi lekuko arri landu ondarren argazkiak.

Bidai ostean, Monte Karmeloko lekaretxean Alfredok emon eban Meza Santua, Pako ta Intza laguntzailleak zirala, eta zazpiterdian afaltzera joan giñan.

Stella Maris lekaretxe ostatuko janariak, lekaide/lekaimeak jaten dabena da, garbi ta ondo apainduta aurkezten euskuna, pozik jan genduzan.

2.010eko Zezeillaren 22an Astelen eguna.

Zazpiterdian jagi giñan eta garbitu ta gosaria jan ondoren, belbil busera zortziterdian igon gendun, 30km. inguruko bidean, Elias Santuak Muhraqan egin eban eskeintzaren tokira joateko.

Bederatziterdian eldu giñan Muhraqara, eta Stella Maris Karmelitaren sorburuko eleizan, Pakok, Elias Santuaren aurkezte labor bat egin ondoren, Alfredok Idazti Deunatik artuta, Eliasek Jainkoari egin eutson eskeintza irakurri euskun, auxe esaten dauana:

“Ajab Isrraeleko erregeak egun aietan, Israel guztia eta Baaleko igarle guztiak, Karmelo mendian batu zitezen agindua emon eban.

Eta Elias jendearengana urbilduta esaten dautse: Noiz arte ibiliko zarie besapeko makuluakaz ?. Goiko Jauna egizkoa izaten bada jarraitu ezasue, eta Baal izaten bada, Baaleri jarraitu.

Jendeak ez eban erantzunik emon, eta orduan Eliasek esaten dautse: “Neu bakarrik geratu naz Goiko Jaunaren igarle, Baaleko igarleak 450 izan da”.

Zekor bi emon euskuela eskatu eban, eta zuek gura dozuen zekorra aukeratuta, zatitu ta egurraren gañean sua biztu barik apainduta ipini egizue, nik bardin eginda.

Zuek, zuen Jainkoari dei egingo dautzasue, eta nik GOIKO JAUNARI, eta sua bialduta erantzuten dauan jaunak a izango da benetako JAINKOA.

Eta jende guztia baietza emon ondoren, Eliasek Baaleko igarleai esan eutsen: Zuek geiago izan eskero aukeratu egizue zekorra eta apaindu, sua piztu barik.

Alan egin eben eta goizeko lenengo orduetatik eguerdirarte ibili ziran euren jainkoari eskatzen sua bialdu egian: “Baal jauna, sua bialduta erantzun egizuz gure eskariak” aldare ingurutik saltoka ibilita.

Eliasek eguerdirantza, eurei begira barreka asi zan berba oneik esanda: “Baal jauna da, baiña arrabots zaratatsuekin deitu deutsezue, baleike gogaketan edo lanpetuta, bidai baten, edo batek badaki lo egiten egonda esnatzea”.

Baalen igarletarrak euren etsitasunean, arrabots aundiagoak eginda, euren oiturazkoa zan lez, gorputzetan aizto ta burni-ziriakaz ebagiak egiten asi ziran gorputz guztia odolez bete arte. Eta eguerdia igarota, larri-aldiko zorian⁽¹⁾ sartu ziran, areik eta eskeintzaren ordua elduzan arte.

Iñungo erantzunik ez zalako agertzen, Eliasek jendeari esaten dautsoe: Ondoratu zaitzeze. Eta apurtuta egoan Jainkoari eskeintzeko aldarea konpontzen asi zan.

Baiña ez edozein eratarra, Jainkoak berari len Isrraelen izena artu bear eben eran baizik: “Eta Jakob en Isrraeldar amabi leiñuaren itxurapenean amabi arri artuta aldarea konpondu eban”.

Aldare inguru guztian erretena edo ur-bide andi bat eginda, zekorra zatitu ondoren, aldareko egur gañean ipini ebazan zatiak ondo apainduta, eta jendeari esan eutsen: “Lau txanbil-ontzi aundi, uragaz bete egizue eta bota zekor ta egurren gaiñetik.

Iru bider egin eben orretara, zanga guztia uregaz bete arte, eta Elias igarlea ezkeintzaren ordua elduta, aldare ondora otoi egiten urbildu zan: Jauna ! Abraham, Isaak eta Isrraelen JAINKOA, “Jende aukeratu egizue SU zarala Isrraelen JAINKOA eta ni ZURE zerbitzaria, eta eskeintz au, ZURE aginduz egiten dodala”. “Erantzun JAUNA, jende guzti oneik jakin dagin ZU zarala benetako JAINKOA”.

Eta JAINKOAK zimizta bat bota ondoren, ura, aldare, zekor zatiak ta arri guztiak kizkalduta geratu ziran.

Jendeak a ikusita, danak aldarrikatu eben BERA zala egizko JAINKOA.

“Eliasek orduan, Baaleko igarle guztiak arrapatu egiezala agindu ondoren, eta Zison ibaiaren ur-amillera⁽²⁾ eroanda, danari buruak moztu eutsezan”.

Gero, eleizaren inguruko zuaitz eta lorategira bialdu ginduzan, Idazti Deunan esaten dabezan orre in gogoetak egiteko.

Amarretan, Stella Maris karmeldarren sorkuntzazko eleiz orretan Intzak emoneko Meza Santua entzun gendun, Pako ta Alfredo laguntzailleak zirala. Ossana, Aita gurea, askeneko agurra ta eskerrak, Eus-

(1) Larri-aldiko zorian = en situacìon de trance. (2) Zison ibaiaren ur-amillera eroanda = llevados ala torretera del rio Cison.

keraz abestuta.

Pakok, Karmeldar lekaide Mejikar bat aurkeztu euskun, eta onek "Stella Maris" Karmeldar Bas Elisaren sorkuntza ta Eliasegaz sortutako gertakizunak azalduta, amaikaterdian, Karmeloko lakaidetxe ta Stella Maris ostatura joan gintzazan karmeldarren egoskari ta ollazko errea bazkaltzera.

Bazkari onetan, gure maian asieratik euki gendun lagun arteko antolamenduan, aldarte bat euki gendun.

Euskal Nortasunaren gora beran atzo sortu ziran eragozpen bidetik, zurrumurrak oraindiño bizi bizi egon ziralako, gure maian, Donostiako Senar ta Anduezar Juliaren orde zuste dot zala, gurentzat guztiz ez ezaguna zan Madrilleko del Rio Fernandeztar Maria Rosario maiaren nire pareko beste aldean ezarri zan, ta beragaz euki gendun adizkidetasunezko adeitasunagaz poz pozik urten eban.

Ordu bata eta erdian belbil busera igonda, Galileako Kanaan, Jesusek leenengo mirari egin eban tokia ikustera joan gintzazan.

Eta bertako eleizan, gure ezkontzan emon genduzan itzak berriztu ginduzan, ainbat argazki atarata.

Gero Nazareta joanda, Irargarpenaren Basilika edo Eleiz Nagusi ta aitzuloa ⁽¹⁾ ikustera joan giñan, eta ondoren, Ama Birjiñaren barruko iturri, San Josen eleiza eta ebanjeliozko biziterria.

Pako Karmeldarrak ondo baiño obeto adierazi euskuzan ango barriak, eta Mariaren irargarpeneko lekuan egon giñanean, batzuk esan arren, a ez zala Irargarpenaren tokia, bereala argitu euskun, eta ondoren Jose Santuaren Eleiza ikustera joan giñan.

Gero, Andra Maria Irargarpenaren Eleizako aitzuloa ikustera joanda konturatu nintzan, an egoan zulo baten burni sare batez estalita, eunaka dolar ta euro asko egon ziralako. Eta lagunari an egoana esanda, ainbat barre egin gendun itz gozo ta txantxako berbak esanda.

Bostak ta berrogei minutu ziran urten gendun Nazaretetik etxerantza, eta arrigarritu gintzazan, zelako belbillen joan etorria egon zan arratsaldeko ordu aietan ikusita.

Alfredok, Stella Maris ostatuan egon giñanean eta denbora eguzkitsak egiten ebalako, ori gorri margoztutako txapel egalekoakin edo txotak banandu euskuezan, eta Lourdes da nik ez gendulako artu, Garbiñe ta Itxaropenak itaundu euskuen zergaitik, eta nire gelara eroanda liburitik erakutsi neutsoen, Espainaren zaindaritzazko jabetasunaren ikurra zalako enebala artzen.

Eta urrengo egunetan banaka batzuk baiño ez eben eroan

Afaria, zortziterdian amaitu gendun, eta ezkon barri lez bederatziterdian oeratu gintzazan.

(1) Irargarpenaren Basilika ta aitzuloa = Basilica y gruta de la Anunciación.

2.010eko Zezeillaren 23an Astearte eguna.

Goizeko seiretan jagi giñan eta gosaria artu ostean seiterdietan belbil busera igon gendun, Nazareteko Ego Ekialdean dago Tabor mendirantza, goi aldean 562m. daukazenerantza joateko.

Beragana eldu orduko Nazareteko bidetik, Genesaret edo Tiberiades esaten jakon ur-geldiaren (1) bazterretik gorantza, Jesusek gizon emakumezko jendetzari doatsutasunezko (2) aolkuak aldarrikatu eutsezan mendian, zortzirak bost gitxiagotan busetik beratzeko.

Jesusek, bederatzi doatsutasun aolkuzko itzak emon euskuzan mendiko eleiz orren inguruko baratz edo lorategi ederrean, lau taket gaiñean burni-xaflako azpian egoan aldarean, Alfredok emon euskun Meza Santua, Pako ta Intza laguntzailleak zirala.

Pako, mezea amaituta nigana urbildu zan eta zer eritzi neutsoen toki ta entzun gendun mezeari itandu eustenean, nire erantzuna: "Toki ederra eta mezea ondo egon zala, baiña an esan ziran berbarekin ni ez nintzela ezertarako be adoz egon.

-Zergaitik ?.

-Kupida, erruki, dolumen eta urrikalmenduko (3) itz asko egon ziralako, Jesusek alai ta doatsuko itzakin emon euskuzan aolkuakaz, pakez bizitzeko, eta ondoren maitasunezko izatera eldu gindezan, ez ebalako euki zer ikusirik.

Gu, goizetik ibili giñelako lenengoak izan giñan toki eder orreitan, baiña laster asi zan betetan, Munduko erri guztietatik etorten diralako toki auek ikustera eta Jesusen pausoak zelangoak izan ziran jakitera.

Pakok, danok batuta, bertan egoan Tiberiadeseko ur geldiaren bastarrera eroan ginduzan, gura ebenak, lenengo bataioa gogoratzeko Jordan ibaiko uretan barriz bateatzeko.

Pako, arri gaiñean egon zan lekutik beratuta nigana urbildu zan, eta besarkatuta, lenengoetan ez ba nintzan gogoratu, gero konturatu nintzan zergaitik izan zan.

Danak bateatu giñan Jordan ibaiaren ur gezagaz (4) Alfredoren eskuz, Tiberiadeseko ur-geldi edo aintzira bazter orreitan eta amarrak ta laurenak ziranean urten gendun Kfar Naum errirantza.

Itsas ontzi batera igon gendun eta ordu erdi inguruan itzuli osoa emon geuntzen Tiberiadeseko aintzirari Maria Magdalenaren erria bertatik ikusten gendula.

Tiberiadeseko aintzirak, 12 km. daukaz zabaleran eta 21km. luzeran.

Bidean goazela, Jordan ibaiaren ondoan geratu giñan eta etxeko seme/alabarekin gogoratuta, ura artu gendun errekatik, edateko euki genduzan plastikozko bonbiletan (5).

(1) Aintzira edo Ur-geldiaren = lago. (2) Doatsutasunezko itzak = bienabenturanzas. (3) Kupida, erruki, dolumen eta urrikalmenduko = lastima, compasión, misericordia. (4) Ur geza = agua dulce. (5) Plastikozko bonbil, bokatxa edo limera = botella.

Amabiterdian, doatsutasunaren jan tokian ondo bazkaldu gendun, euren bereiztasunezko arraiñ motatan, zamo (1) arraia laban erreta atara euskuena, guk gozo jan gendulako.

Arratsaldeko irurak laurden gitxiagoetan Tabor mendirantza urten gendun, iruterdian bere mendipera elduta.

Eta Tabor mendi gaiñera joateko, zortzi lagunentzat leku euki ebezan taxizetan igon gendun.

Tabor mendi Santu au edo Jesusen irudi aldaketaren mendi (2) au, Nazareten Ego-Ekialdean, Esdraelon zelaian kokatuta dago, bere goi aldean 588m. daukazela eta goi alde orreitan biribil erdi edo oboerdi antzean daukan zelaikadea 1.200m. 400 metrukoagaitik da.

Talai mendi orretatik, erri bibliko asko ikusten dira.

Edestian be ez da makala, Kananeo leiñuak euren Baaleko jainkoari eskeintza tokia zanetik asita, Isrraeldarren gurtza tokia be izan zalako.

K.a. 218an borroka gogorak be egon ziran, Siriako IIIⁿ. Antiokok Ejiptotarra astiñaldi gogorak emonda, gero Plazido erromatar gudar nagusiak Judu matxinatuekin egin eban antzera, eta Flabio Josefok bere denboran goi mendi ori arresiduta euki ba eban, gaur geratzen diran kondarrak Saladinoren anaia Melek el Abdelek 1.212an eginekoak dira.

Piaenzako ez ezagun batek aurkitu eben, basilika edo Eleiz Nagusi baten aztarnak, Pedrok aipatzen dabezan Moises, Elias eta Jesusen iru dendak gogoratzen dauana.

Bizanzio denboran (3) Tabor mendi gaiñean ainbat eliza ta lekaretxe egon ziran, gotzai bizi-leku edo uriakin.

Gurutzatuen denboran Siziliako Tankredo printzeak, beneditarren eskuetan itzi eban Tabor mendi ta euki eban basilikaren zaintza, areik eta Saladinok Hattineko adarretan gurutzatuak mendetuarte eta kristau guztiak Akko edo Akren babestu arte.

1.212an, Malek el Abdel Saladinoren anaiak, Akretik etorten ziran gurutzatuen eraso aldiak geratzeko gaztelu bat eraiki eban, 1.253an IVⁿ. Inozenzio Aita Santuak bakeak egiteko San Juaneko eri-zain lekaidearen ardurapean itzi ebana, eta 10 urte beranduago Bibarsek ezereztu ebana.

1.631n Fakhr Eddin edo Fakardin Drusoeren kaizar edo emirrak baimena emon eutsoen Frantzizkotar lekideai Taborren menditartu egiezan.

Eta 1.924an, Antonio Barluzzik eraiki eban gaur dauan Jesusen irudi aldaketaren Eleiz Nagusi (4) eder au, bere iru kapela edo otoiz tokiakaz: Moises, Elias eta Jaunaren larru aterpeai itxura emon gura dauanak.

Aldare nagusien gaiñean erandoki edo mosaiku eder bat dauka Jesusen eraldatzea agertzen dauana.

Eleiz Nagusi au da bere itxura sirio-erromanikoagaz, Lur Santuetan dagozan Eleiz Nagusien artean, ederrenetariko bat.

(1) Zamo arraia = pez carpa. (2) Tabor mendia Jesusen irud-aldaketaren mendia = monte Tabor o monte de la transfiguración de Jesus. (3) Bizanzio denbora, Ekialdeko erromatar kaizartza aldia = 330an Konstantinopla irasi zanetik-1.453ean Turkoren mendean geratu arte, urte bitartean izan zana. (4) Jesusen irudi aldaketaren Eleiz Nagusia = basilica de la transfiguración.

Gauza eder oneik ikusita belbil busera igon gendun eta seiterdian Stella Maris karmeldar ostatura eldu giñan.

Zazpiterdian afaldu gendun, eta ostean Zornotzako zortzirak, briskako karta jokuan ta kontu kontari amaika barre egin genduzen.

2.010eko Zezeillaren 24an Eguasten eguna.

Zazpiretan jagi giñan, zazpiterdian gosaria artu eta Monte Karmeloko lekaidetxe eta Stella maris ostatuan azkeneko eguna izan zan lez, Pardel edo zorroak beratuta, Intzak emon euskun bertoko eleizaren otoiz tokian Meza Santua, Alfredo ta Pako laguntzailleak zirala goizeko zortziretan. Zornotzako taldeak amaieran, Karmengo Ama Birjiña, Euskeraz agurtuta.

Bederatziterdian Pako karmeldarrak talde guztia batuta, Karmelo mendiaren bealdeko aldapa gogorretik beratu giñan, bertan dagozan kobak ikusita, irudimendu gindezan zelan bizi ziran lenengo karmeldar bakarti edo eremu zaleak.

Emen arrituta geratu nintzan, gure Zornotzako taldearen andra bategaz, Atutxa ta Bizkarguenagatar Simonak beren larogei urtekin eta zapataren takoi me ta goitasunean lau zentimetru eukezanakaz, zelango borondategaz ibili zan ango auntzaren aitzarteko bideetatik.

Ar-zulo orreitan, Pakok ondo ezagutzen eban txiro bat bizitzen egoan eta agurtu ta leize-zulo orrein edestia azaldu ondoren gora egin gendun.

Badagoz beste leize-zulo batzuk, ez gintzezena ikustera joan eta amaikaterdiak ziranean aske itzi genduzan 12etan bazkaltzera joateko.

Bazkari onetan be eta atzoko arrazoi bardiñagaitik, gure maian beste aldarte bat euki gendun.

Gazteizko Kalbo ta Garziatar Elena eta izena ez dakidan beste andre bategaz gure maian ezarri ziranean, Gazteizko Domaika ta Perez de Albeniztar Jesus Inazio ta bere emazte Gofi ta Gaston de Iriartetar Mari Karmen maira etorrira, leku barik geratu ziralako.

Jesus Inazio eskuak zabalik eukezala, gaitzespeneko berba batzuk esan ebazan, baiña larregi edo gauza askotan sartzen zan kalbo ta Garziatar Elena eta beren lagun urak, eurakaz ez bazan jua lez, ezeren zirkin egin gabe bertan geratu ziran eta Jesus Inazio ta bere emazte Mari Karmen bakartiko beste mai batera joan izan bear eben.

Elenak eta bere lagunak gure artean ez eban aurkezten eurak asmatzen ebazanak, eta eurakaz betiko adizkidezko adeitasuna euki gendun lez, pozik geratu ziran gure artean.

Elena afaldukeran osterira etorri zan gure maira, oraingoan baiña, Jesus Inazio ta bere emazte Mari Karmenek lekua eukin da, gugaz batera lenengo egunean artu eben maian ezartzeko.

Arratsaldeko ordu batetan igon gendun belbil busera eta iruretan eldu giñan bide egalean Nikopoliseko Emausen uri ondarrak agertzeko egiten dagozan aitzurketara.

Pakok, gure buruetan irudimendu gindezan, ondo baiño obeto asi zan azaltzen, ango arkeologizko lanaren bidez agertuta daukiezan arri landuaren edestia, areik eta ango arduradun karmeldar lekaimea agertu zan arte, ortik aurrera bera izan zalako, ango barriak ondo argituta azaldu euskuzanak.

Nikopolizenoko Emaus, Judearen antziñako erria da, Jerusalemen Ipar Mendebalean Sefelá ibarrean kokatuta dagoena, eta gaur Isrraeldarrak Palestinako lurraldean mendetuta daukan Anuas erriarekin bateratu egiten dabena edestiko Emaus.

Emausen izena, ebreutar “Jamot” itzetik datorrena da, itzulkeran “Iturri edo Ur beroak” esangura dauana.

Bere izena edesti zarrenetatik, Makabeoarekin lotuta agertzen da.

Jaesusen denboran Emaus, Uri aundi bat izan zan, Flabio Sabino Bepasiano, Titok, K.o. 30n. urtean gitxi gora bera, bere aita erromatar kaizarraren gudalozteakaz Jerusalem menperatzeko ibili zanean deuseztuta erri txiki baten biurtu ebana eta Mazedonia deritson Vn. Guda talde edo lejioa karpapean bizitzeko ibili ebana.

218-222 urte bitartean Eliogabalok Nikopolisen izena ipini eutson, Griegoren izkuntzan “Garaipeneko Uria” esan gura dauana eta izen orregaz agertzen da, Mádabaren erandoki edo mosaikuan.

185-254 urte bitartean Origenes bizi zan, idazle, aldezkari edo goreslari (1) eta adierazle edo argitzaille (2) kristaua izan zanak, Uri orreitan kokatu eban, ebanjelioak Emausen sortuzanagaitik, Lukasek 24, 13-35 atalean esaten dauana:

“Jesusen berbiztuteko lenengo egunean, beren ikasle Kleofas eta beste lagun bat ikusi ebazan Emauserantza berbetan joan zirala, eta euren ondora urbilduta, nai ta bide luze orreitan eurakaz berbetan ainbeste denboran joan, ez ebela ezagutu, eta gaba urbiltzen egoalako, euren etxera joateko dei eginda eta beste ikasle guztiakaz mai inguruan ezarrita, Jesus zala bakarrik igarri eutsoela, maia bedeinkatzen egonda, ogia zatitu ebanean”.

IIIIn. Gizaldeen, erromatarrak barriz eraiki eben Emaus, eta Kristau erkidetasuna aundiagotzen joan zalako, IVn. gizaldian Eleiz Nagusi bat eraiki eben.

Mauritarrak Emaus, AMWASeko izenagaz esagutzen dabe.

Emauseko toki orreitan arkeoloji lan bidez zaintzen diran kondarrak: urberuaga edo urastegiko (3) ondarrak, erandoki edo mosaikuaren ondar, exedra bat (4), Bizanzio asi aldiaren denborako eleiz nagusiaren ondarrak, Nikopoliseko gotzaiñaren etxea eta abar.

Bizanzio aldiko Eleiz Nagusi ura, XIIIIn. gizaldean bertoko kristauak

(1) Aldezkari edo goreslari = apologista. (2) Adierazle edo argitzaille = exegeta, interprete o expositor de la *Biblia. (3) Urberuaga edo urastegiko ondar = restos de termas. (4) Exedra = construcción descubierta a modo de vestibulo (atrio o portal está a que la entrada de un edificio), de planta semicircular, con asientos fijos en la parte interior de la curva.

berriz eraiki eben eta “Makabeo Anaiaren Eleiz” izenagaz ezagutu zan.

Ondar auek, Jerusalemeko aitalengo (1) laguntzaz, karmeldar lekaimerearen ardurapean dago.

Laurak laurden gitxiagotan urten gendun Emausetik Jesusalenerantza, eta bidean ikusi genduzan erriskak, zentzun aundi barik pillotuta, tellatu barik eta telebistaren ainbat bela-zurruneekin, txatar-denda ta saltzarri edo kare baltzazko itxura baragarri bat emoten dabe, eta alderdi orreitan egiten dauan beroagaz bizi diranentzak, kizkailtzeko labak izan bear dira.

Arratsaldeko ordu orreitan, bideko berebillaren zarramarra (2) aundia zala, lauretan eldu giñan Jerusalemenera, eta belbil busetik beratuta, tratore txiki bat agertu zan gure zorro edo pardelak Frantzizkotarren “Etxe Barri” (3) ostatura eroateko.

“Etxe Barri” ostatura, kale estu batetik joanda eldu giñanean, an egon zan tratora, tratoredunak pardelak ostatu barruan sartuta eukezala.

Alfredok, danak eldu giñanean ostatuko etsari edo gizategi sarreran (4), gelako giltzak banandu euskuezan, eta pardeleko jantziak gelan apainduta, zazpiretan afaltzera beratu gintzazan.

Afal ostean belbilbusera igon gendun Jerusalemetik Belenen egon zan denda bat ikustera, eta leenengoz jerusalenetik Belenera aldatu gintzazanean Israel gudari neska/mutil bi euren azkar izkilluakaz belbilbusa sartu ziran eukezan aginduak zaintzeko.

Ikusgarrizko irudi lanak egiten dabez nakar ta olibondo gaiakaz, eta aspertu nintzanean, Lourdes bakarrik itxita beren gustukoak erosi egiezan, kalera kebelarra erretan urten neban.

Pako urreratu jatan. Eta itaun neutsozan:

-“Gaztelerako izkuntza Espainiako ote da” ?

-“Ego Amerikakoak espaiñolak ote dira” ?

-“Euskalerrria Espaina ote da” ?

-“Katalunya Espaina ote da” ?

-Zergaitik esku emon, onetako zapaltzailleari ?.

Ostean politika gaiari buruz asi giñan izketan.

Goebelstar alemandar faziztaren esanetan “Guzur bat, egi lez milla bider aldarrikatuta, izatasunezko egi biurtzen da”. Au onartuz gizartearen jokabide lez geratzen da. Sasi egiaren jokabide ori negargarri da. Ez dago eskubiderik onartzeko agintari zale orrek darabilen jokaera.

Adibidez: *Gure nortasuna desagertzea.

1. Euskalerrri lurraldeko eguraldi-mapa banandu”. Espainako beste probintzia bat lez agertu dadin.

(1) Aitalengo = patronazgo. (2) Zarramarra aundia = mucho, excesivo tráfico. (3) “Etxe Barri” = Casa Nova. (4) Etsari edo gizategi-aurre = antesala, o, recibidor del hostel.

2. Gure Euskal lurraldeko Batzar Nagusiaren millaka urtetako nabariak bastartu. Euskalerrriaren Jabetza sekula ez dala izan laterritua eta Euskal Aberririk ez dogula euki esanaz.

3. Euskerea ez dala erri-landuteko izkuntza”. Jakiña da Europa ta bearbada Mundu guztian Euskerea erri-landuteko izkuntza zarrenetarikoa, zaarrena agian, dala. Eta abar eta abar.

***Euren guzurak egiztatuz.**

1. Espaina aberria dala. Indarkeriz laterritua ta besterik ez.

2. Gaztelera espainola dala. Euskaldu-erromatarren arteko itzezko zirriborroa zana eta ez iñungo izkuntza, gero latin-kumea Gaztelera biurtutakoa, espainola deitzea ezin leike egiztat onartu.

3. Ego-Amerika, Filipinaz eta abar, daukien izkuntza gaztelerazko itza arbuiatuta, Espainola dala aldarrikatu. Gaztelerazko izkuntzak beren mugaketatik kanpo, ez dauka iñungo esangurarik. Au dala ta Ego-Amerika, Filipinas eta abarreko erritar orreik espainolak ote dira ?

4. Euskalerrria espainola dala, eta Gaztelera sarritan aipatzen danez, beti espainolaren izenagaz aldatu. Olan, gizartearen gogoetan guzur ori mamitu daitela. Eta abar.

Gaiñera, ez daukie bape lotsarik agintarizale-fazisten aldeko dirala esatea. Esate baterako Kospedalek PPko gazteen batzarrean esandakoak: “Toledo Imperial” eta “El Imperio de Toledo” jaube dirala.

*****Pakok itandu eban: ¿ Zerk egiten dautzue minik aundiena zueri ?**

-Gure Nortasuna debekatuz atxilotuta lez geratzen garala, eta Mundu guztian esagun izateko egiten doguzan alegin guztiak indarkeriz moztuten deuskuezalako.

Orregaitik, erri ta erritarrak daukaguzan eskubidek moztuz, sasi jabetasuna zaintzeko itzelezko kontrolak ipinten dauskuez.

Eta erosketa poli batzuk egin ondoren, amarterdiak ziranean frantzizkotarren bidelari edo erromes (1) ostatu etxera joan giñan lo egitera.

Sarrera.

Eguneroko ekitaldietan sartu orduko, leen, Frantzizkotarren lekaretxe ta ostatua aurkeztuko dautsuet, gero Jerusalem Uri ta Lur Santu lez aurkeztuko.

(1) Bidelari edo erromes = Eurak “Pellegrino” ipinten dabe ateko iragarkian.

Frantzikotarrak, zortzi gizaldi dira Lur Santu oneitan eleiz ta santutegiak zaintzen dabezala, eta betidanik izan dira, Mundu guztitik agertzen diran erromes edo bidelariaren laguntzaille.

Eta erromes edo bidelari auk babesteko, Lur Santu guztian eraiki ebezan etxeak, gabaz lo nun egin euki egiezan.

Etxe aueri esaten dautse “Etxe Barri” edo “Casa Nova” gazteleraz idatzita daukien lez.

Jerusaleneko “Etxe Barri” onek, ainbat bateko, biko eta iru ogeko gelak daukaz. Iru janaritoki 200 lagunentzat, Kafetegi bat, Itzaldiak emoteko gela bi, aolkaritzarako gela aundi bat, otoiztoki bat Meza Santua entzuteko, eta ondo apaindutako baila-gibela (1).

Guk, ondo baiño obeto igaro genduzan bertan egoneko egunak, ezeren eragozpen barik, eta baten batek euren elbidea billatu gure ba dau, emen frantzikotarren Interneteko elbidea eta urrutizkiña:

Euren billakuntza: www.custodia.org/casanovaj

E-mail bidetik: Casanovaj@custodia.org

Urrutizkiña: +972 2 6262074

JERUSALEN.

Aurkezpena:

Jerualenen izena, Ebreutar izkuntzan Jerushalayin edo gazteleraz Jerusalem, Salenetik edo iru ibai Zedron, Inon eta Tiropeon bitartean Ofel mendizka gainean egoan Jainko Salenen Uritik asten da K.a. 2.200 urtean Eblako idazkiak eta K.a. XIXn. gizaldiko Ejiptoko idazkietan alan aipatzen dabelako.

Ofel mendizka oneri, Kananeotarren itz Sionegaz (2) esaten dautsoe, eta Dabidek mendetu ebanean “Dabiden Uria”.

Judearen Auñamendiko erdian, goi aldian 750m. daukazan goiko zelaikada batean kokatuta dago.

Palestinako Uri bat da eta Palestina ta Israeleko Uri nagusia izanez gain, Jesusen bizitzaren zilbor edo biltokiak dira lur auk.

1.949an, O.N.Ugaitik erri artean sartu ebena eta Israel ta Jordaniaren artean bananduta dagoena.

Israelen aldetik 460.000 biztanle eukiko dituz gitxi gora beran, eta arabiarren aldetik 180.000 biztanle.

Bere bizi tokiak alde bi daukaz, bata: Uri zaarra XVI. gizaldian 1.536-1.539ko urte bitartean Otomano edo Turkotar II. Soleiman ospatsuak egindako orma zarrekin esita dagoena. Eta oraingo orma, Jerusa-

(1) baila-gibela = patio interior. (2) Sion = pais seco. Lur legorra.

lenek gaur daukan lurraldea inguratzen dauana.

Lenengoan lau auzotasun dagoz, lurrez 85eko eun-areatan bizi diranak:

a) Kristauen auzunea Ipar Mendebalean, Jesusen Illobi Santuarekin eta eleiz ta lekaretxe askogaz.

b) Armenioen auzotegia Ego Mendebalean.

d) Mauritarren auzotegia Ipar Ekialdean, Sion mendia edo Moria mendian I Omarrek 643garren urtean Salomonen jauretze gainean eraikiten asi eben "Kubbet es Lakhra" ⁽¹⁾ Eleiz edo Mezkitarekin 843garren urtean amaitu zana. Islandarren eritzian, barruan arri bat daukana Mahoma Zerura igoteko erabili ebana, eta juduaren ara beran, Abraanek bere seme Isaak Jainkoari eskeintzeko ibili eban arria dala esaten dabena.

e) Eta Juduen auzotegia Ego Ekialdean, Dabiden gaztelu barruan, euren batzar tokiekin ⁽²⁾ eta ain ospatsua dan ormea, Judu ta ara joaten diranak, ezak eta eziñak esaten jakezenai.

Bigarreanean: ortik kanpo egin dan guztia.

Uri zaarren inguruko Olio Aranaren Mendian, Gethsemaniko ⁽³⁾ Eleiza eta olio aranaren baratza dagoz.

Munduan dagon Uri zaarrena da, Palestinara Juduak joan orduko Uri nagusia izan zalako. Eta gaur, Uri Santua da Judu, Maomatar eta kristaudentzako.

Edestia:

Jerusalenek esakizun bitxi bat dauka: "Munduan, edertasunaren maillan amar neurri dagozela, bederatzi bereak direnak eta bat Mundu zabalean dagozanentzat".

Jerusalen, Judu, kristau eta Mauritarren Uri Sakratu edo Santua izanez gain, Isrraeleko erregetzaren pitxia da, eta Munduan ez da egongo beste Uririk, ainbesteko gudaren sorburu izan danik.

Jerusalen, 656 bider aipatzen da Idazti Deunan, eta 17 bider deuseztu egin ba eben, 18 bider berriz eraiki eban.

1.048an edo 1.004an ?, Dabidek, gaztelotu edo arresiz inguratuta, bere erregetzaren Uri nagusi lez izendatu eban.

K.a. 970-933 urte bitartean Salomonek, lenengo Eleiza edo Jauretzea eraiki eban eta judutarren jakite ta gogozko Uria biurtu eban.

K.a. 586 537ko urte bitartean, Salomonek Jerusalem aundiagoa egin

(1) Kubbet es Lakhra = Cupula o Domo de la Piedra. Euskeraz = Arkaitzako Oskol edo esfera erdien antza daukanak. (2) Batzar toki = sinagogas. (3) Gethsemani izena = Olio aranaren errota.

ondoren eta beragandik edertuten etorri zan Uria Jainkoari eskeiñitako Jauretxeagaz, Babiloniako errege Nabukodonozorrek deuseztu edo ezereztu egin eban, eta Babiloniara erbesteratu ebazan Juduak.

K.a. 536 516 urte bitartean Juduak, Babiloniako erbesteratzen etorrira, ostera eraikiten dabe bigarren Eleiz edo Jauretxea.

K.a. 458 431 urte bitartean, Uria eta jauretxea berriz eraikiten dabez.

K.a. 431 332 urte bitartean, Persaren mendean.

K.a. 332 168 urte bitartean, Juduak, Greziako jendekuntzagaz alkartuta elenismoaren aldia sortu eban.

K.a. 168 38 urte bitartean, Makabeo ta Asmoneoaren mendean.

K.a. 37-4 urte bitartean, erromatarren mendean, Erodesen agindua.

K.a. 6tik, K.o. 30erañño, Jesusen aldia.

K.o. 70ean, Flabio Sabino Bepasiano "Titok" bere aita Bepasiano gudaloztearen amagarrengo talde edo lejiorekin ezereztu eban Jerusalem eta beragaz juduak bigarren Eleiza edo Jauretxea eraiki ebana.

K.o. 132-135eko urte bitartean, Judutarrak matxinatzen dira Bar-Kojbaren agindupean, eta erromatarrak menderatu ondoren, Jerusalem izenaren orde z Aelia Kapitolina sifnezgaitzeko izenagaz eraiki eban ostera.

K.o. 326an, I Konstantino eta Elena beren ama kristauak biurtuta, Lur Santuetara joan ziran erromes eta ainbat Eleiz ta Santutegi eraiki ebazan Jesusen bizitza gogoratzeko. Jerusalem, asko edertu egin zan Bizanzioko denbora orreitan.

614an Persak, ostera menderatzen dabe Jerusalem.

637an, Mauritarrak sartzen dira eta Salomonek eraiki eban judutar Eleiza edo Jauretxearen lekuan "Arkaitzazko Oskola" (1) edo Omarren mezkita, urte gorrituta dagoena eraiki eban.

709 715 urte artean, al-Walid mauritar kalifak, Aksako mezkita ederra jaso egiten dau. Gurutz gudatan tenpeldar lekaidearen zainpean egon zan, I Saladino agertu arte.

1.099-1.187 urte bitartean gudal gurutzekoak babestu eban Iria, areik eta Saladinok menderatu arte.

XIIIan. Gizaldea, Alemaniako IIan. Federiko, Ejiptoko mairu errege eta tenpeldarren zaintzapean igaro eban ango agintaritza.

1.516an, Turko edo Otomanotar agindupean geratu ziran.

1.860an Judutarrak, Jerusalemeko arresiaren kanpotik asi ziran euren etxeak egiten.

1.917-1.948ko urte bitartean, Inglesaren agindupean egon ziran.

1.967ko Uztaillaren 5ean, Israeldarrak, Ejipto ta Siria arabitarren aurka, sei eguneko borroka gogor baten lortu eban garaipena, eta ortik aurrera eurak dira Jerusalemeko agintariak.

Gaur egun, Mundu guztiko juduak, Jerusalemeneri begira egiten dabez euren otoitzezko eskari guztiak.

(1) Arkaitzazko oskol edo esfera erdien antza daukanak = Domo de la roca, "cupula".

Jerusaleneko Kristauak, Jesusek azkeneko urtetan euki eban bizitzagaz lotzen dabe.

Eta Mauritarrek, El Aksagaz lotzen dabe, Maomak ortik igon ebalako Zazpigarren Zerura. Eta goian esan dogun lez, Islandarrenentzat Meka ta Medinaren ostean, Jerusalem da irugarren Uri Santua.

Jerusaleneko Uri zaarrean sartu urten egiteko, zortzi ate daukaz:

1.537an Soleimanek zabaldu eban **“Damaskoko atea”**, ate guztietatik ederrena dana, eta Damaskoren bidea artzeko, ate ortatik asten zana.

“Jaffako Atea” edo “Yaforen Atea”, Jaffako itsas portura joateko, bidearen asiera zana.

Arabiarrak ate oneri, Bab el Jalil' esten dautsoe, euren izkuntzan **“Lagunen Atea”** esan gura dauana, ortik asita Abraanen bizi leku zan Ebronera joateko bidea asten dalako, eta izen ori Abraaneri **“Jainkoaren Laguna”** esaten eutsielako agertzen da.

“Sioneko Atea” Armeniotarren auzuneak, Sioneko mendiagaz elkartu egiten ebalako egin eben, eta **“Judu Auzoaren Atea”** esaten dautsoe, Judu auzoaren urbillean daualako.

“Zaborkeriaren Atea” Jerusalemen Mendebaleko arresiaren urbillago dagoena. Estu ta txikerrena da, gizon bat mando baten gainean igaroteko beste. Eta bertatik botaten dan zaborkeri geiena Zedroneko ibarrera joaten da, ate bealdetik igarotzen dauan errekatxoak, erriko ur zikiñak eroaten dabezelako.

“Urrezko Atea” Judu Jauretxeko Mendia kokatuta dagon Ekialdeko arresian dagoena da, eta **“Erruki Atea”** be, esaten jako. Urte asko dira Turkoak itxi ebela, baiña Judu-erriaren ao-jakintzak, Mesias Jainkoaren Semea Jerusalemenera etorten danean ate ortatik sartuko dala esaten dau.

“Leoien Atea” ateko egaletan lau leoi daukazelako deritsona. **“Esteban Santuaren Atea”** be esaten dautsoe, erriko ao-jakintzaren esanetan, Esteban Santua arrikatuta bere urbillean il ebelako.

“Erodesen Atea” Ate onek, txarto ipinitako izena dauka, urbillean egon zan eleiz bat, Antipastar Erodesen etxe bizitza zala uste zalako.

Eta 1.887an **“Ate BARRIA”** ⁽¹⁾ deritsoena zabaldu zana. Soleiman ospatsuak, zabaldu bako ate bakarra, eta Uri zaarreko barrutik kristau auzoari bidea erreztuteko egin zana, kristauak, arrezitik kanpo egon ziran iraspenaren batzarretara ⁽²⁾ joan zitezen. Eta bide errezena daukanak Jesusen **“Illobi Santura”** eta Frantzizkotarren San Salvador lekaretxe ta **“Etxe Barri”** ostatura joateko.

2.010eko Zezeillaren 25ean Eguen eguna.

Zazpiretan jagi giñan zazpiterdietan gosaria artzeko eta belbilbusa artuta, goi aldean 818m. daukazan Olio Aranaren Mendira, beren bealdeko

(1) “Ate Barria = “La Purta Nueva”. (2) Kristau Iraspenak = instituciones cristianas.

aitz zuloan dagon otoiz toki txikerrean Meza Santua entzutera, eta bere mendipean bertan dagozan Gethsemaniko Eleiza ta ortu Santua ikustera.

Olio Aranaren Medi ta Gethsemaniko ortu edo baratza, Jerusalemen kanpo aldetik 2.000 metrura inguru dago, eta Olio Aranaren Mendi barrenean dagoan Zedron errekatxoaren beste aldean.

Alfredok emon eban Meza Santua Pako ta Intza languntzaille zirala, eta batzar aretan Alfredok esan euskuzanak, ebanjelio edo ebaingerutik artuta, San Mateok esaten dauana bere 26-36 atalean, San Markosek bere 14-32 atalean, San Lukasek bere 22-39 atalean eta San Juanek bere 18: 1.3 atalean, Jesusen otoitz eta Judasek zalduta Jesusen atxilotasunaren gora berak izan ziran.

Egon giñen mendi barrenetik, Jerusalemen erriak ikuspegi ederra dauka, bertan dagon Judu illerritik, Jerusalemen arresi edo ormatzarren zati aundi bat, erria arlo aundi baten eta erdi erdian bere edertasun guztian arro ta urre gorritz jantzita Omarren "Arkaitzezko Oskola" ⁽¹⁾ ikusten genuela asi jakun Pako ango inguru guztia adierazten, eta berak ondo ezagutzen eban italiar lekaike bat agertu zanean, berak amaitu eban Pakok asi ebana azaltzen.

Jesusek oituraz, otoizketak egiten eban lekua eta Bere askatasunaren azkeneko egunean, goibelaldian esan ebazan berbaren tokia: "AITA, NAI BA DEZU, NIGANDIK IGARO DAITELA EDONTZI AU, BAIÑA ZURE BORONDATEA IZAN DAITELA, EZ NIREA" gaur burdiñezko esparru barruan dagoan Olio Aranaren Baratza ⁽²⁾, ondo zainduta dago, eta bertan dagozan olio aranaren zortzi zuaitz aundi ta zaar, Pakoren esanagaitik, baleikela I Konstantinoren denborakuak izatea, au da, 326ko urtetik ona dirala.

Berton dagon eleiza be, oso ederra ta ondo zainduta dagoena eta bera ikusita ondoen amabi laurden gitxiagoak ziranean, belbilbusera igon gendun Frantzizikotarren "Etxe Barrira" bazkaltzera joateko.

Irurak lauren gitxiagotan igon gendun belbilbusera, Sion Kristau mendian, "in Gallikantu" deritson San Pedroren Eleizara joateko.

Jerusalen guztia ikusten da talai mendiko San Pedroren Eleiz onetatik.

1.931n eraiki eben Ama Birjiña Jasokundearen Agustinoak, Kaifas gorengo eleiz gizonen gaztelua egoan gaiñean.

Jesus, Gethsemaniko ortuan Judasek saldukeriaren bidez baitu ebenean, etxe ontara ekarri eben eta bertan sortu ziran, San Pedrok Jesusi ez ebala ezagutzen iru biderrez ukatuta, zelan abestu eban oillarrak beste ainbeste bider, San Pedrori Jesusek ariñautik esaneakoak beteta.

Eta Eleizan egon giñela Pakok, ango barriak azalduta, Alfredok Ebaingerutik irakurri euskuezan Idaztune orreik.

Laurak lauren gitxiagoetan amaitu gendun, eta belbilbusera igonda Ama Birjiña il eta Zerura igon eban lekura joan giñan, bere omenez eraikita

(1) Arkaitzezko Oskola = Domo de la Roca. (2) Olio Aranaren Baratza = Huerto de los Olivos.

dagon eleiza Lo Artzeko Basilika ⁽¹⁾ edo Eleiz Nagusi deritsona ikustera.

Sion mendiak daukan etxe ederrena da.

1.100n. urtean, gurutzatuak Sion Mendiko Santa Mariaren izenagaz eraiki eben eleiz aundi au, 1.219an mauritarrak deuseztu egin ebena.

1.898an Turkoak, Alemaniako kaizar II.n. Gillermoni duan emoten dautsoe inguru ori, eta Aita beneditarrai emonda, oneik eraiki eben gaur ikusten dogun eleiz ederra, eleiz bularrean ⁽²⁾ Ama Birjiña Jesus ume zala arrigarrizko erandoki edo mosaikuan margoztuta.

Gero, gizonezko ta emakumeentzako zati bitan bananduta dagoan deitoratzeko orma ⁽³⁾ ikustera joan gintzazan, ara joaten dan jendea zelan egiten dabezan euren ezak eta eziñaren eskaerak. Eta arrigarrituta geratu nintzan ara joaten dan ainbeste jendearekin.

Eta len aipatuta daukan Jerusalemeko “Ate Barritik” moruen kaletatik etxera joan giñan zazpiretan afaltzeko.

Afal ostean, poz giroko kartetaldi alaia jokatu gendun Zornotzako zortziren artean.

2.010ean Zezeillaren 26an Bariku eguna:

Seiterdian jagi giñan zazpiterdian gosaria artzeko eta zortziretan belbilbusera igoteko.

Atzoko eguna euritsua izan bazan be, gaurkoa ikaratzeko eguna izan zan, euri zaparrada aundikoa, zarata askoko odei ta argizpi gogorreko oñeztuekaz.

Belenen edesti laburra.

Belen, Beit Lejem edo ta Bethlehemek: Ebreotarren izkuntzan “Ogiaren Etxea” esan gura dau, eta Arabitarren izkuntzan: “Aragiaren Etxea”.

Belen, Jerusalemen Ego aldean 8 kilometrura, goi aldean 770m. daukazan bizkargune arkaitsu baten gaiñean kokatuta dago, eta Judearen antziñako Uria bat izanez gain, Dabiden aberria eta Jesusen jaio tokia da.

Belen, erri gurasoen lenengo deboratik datorrena da, eta Judaren ardurapean ipini eben orduan, Efraten semeakaz erritu zan, eta ortik jatorko Efratáren antziñako izen ori, “Beth-Lehem” dana.

Beleneri baiña, amaibako izena emon eutsena, Erromatarren 749ko ⁽⁴⁾ urtean Abenduaren 25eko egunean beren aitzulo baten Jesusen jaiotza izan zan, eta Jesus jaiorduko 750 urte ariñago, Mikeas igarleak idatzi ebanagaitik ⁽⁵⁾: “Zu Belen Efrataren bidetik, Judaren leiñu txikerrenetik jai-

(1) Lo Artzeko Basilika = Basilica de la dormición. (2) Eleiz-bularrean = en el abside. (3) Deitoratzeko orma = muro de las lamentaciones. (4) Erromatarren 749n. urtea = Kristautasunaren 5n. urte ariñaukoa dala esangura dauana. (5) Mikes 5:1-2.

oko da, Isrrael jaurkituko dauana”.

Iragarmen au bete egin zan, Zesar Augustok erromatar kaizartzaren aginpeko lurralde guztian jaioten ziran umeak, izendatu egiezala agindu ebenean, Jose ta Maria joanda Jesus erroldatu edo auzotzeko.

Eta or banandu ziran Itun-Zar edo Testamentu-Zar, Jesusen osteko denborazkoakin, Beleneri betiko izena emon eutsoena.

K.o. 135eko urtean, Adrianok Judutarren bigarren matxinada menderatu egin ondoren, Jerusalem eta Belen, biak zikindu edo laidoztu ebazan, Jesusen jaio tokia Adonis-Tamuzen ⁽¹⁾ jauretxe bategaz inguratuta.

Adrianoren jauretxe au 200 urte iraun eban, areik eta I Konstantino eta Elena beren ama, 313n. urtean kristautasuna besarkatuta eta erromatar kaizartza guztian Kristautasuna erlijio bakar lez ezarrita, ezereztuteko agindu eban arte.

325eko urtean, Eleizak, Elena Santutasunera goralduta daukana eta beren eguna Dagonillaren 18an ospatzen dana, beren seme I Konstatinogaz erromes Lur Santuetara joan ziran, eta Jerusalemen Jesusen kurutzea aurkitu naian, Benusen jauretxea bota eban, eta beren semeagaz iru Eleiz Nagusi eraiki ebazan: bata, Jesusen Garezurmendi ta illobi ganean, beste bat Olio Aranaren Zuaitz Mendingan, eta irugarrena, Jesus jaio zan aitzulo gaiñean.

I Konstantinok, Jaiokunde Eleiz Nagusi eder au, bere amak Ama Birjiñari euki eutson zintzoasunezko oneraspenaren ⁽²⁾ izenean eraiki eban.

529ko urtean, Nabluseko samaritanoak, bizanzio aldeko kristau jaurbidearen aurka matxinatu ziran eta Belen ta bere inguru guztiko biztaleak ustekabean oldartuta, Jaiokundeko Eleiz Nagusia zazkildu ta erre eben.

540an, Jerusalemeko erri gurasoa eleiza eder ori barriz berrezkuratzeko, San Sabbas bialdu eban erromatar kaizarraren Justinianorengana laguntza eskatzen, eta Justinianok ainbat dirugaz ta erriaren zergak berari emoteko aginduagaz, mandatari berezi bat bialdu eutsen, eleiz aundiago ta ederragoa eraiki egian. Eta Justinianok an egin ziranakaz ez zalako atsegindu, bialdu ebenari lepoa moztu eutson.

Gaur ikusten dogun Jaiokundeko Eleiz Nagusi ori, Justinianok barriztu egin ebana da.

614n. urtean, Persak Kosroesen agindutara Lur Santu orretan indarka sartu ziran eta 300 lekaidetxe ta eleiz deuseztu arren, Jaiokundeko Eleiz Nagusi au ikutu barik geratu zan.

638an, Mauritarrak sartzen dira, baiña oneik toki Santuari lotsa erakutsi eutsen eta ez zan gertatu ezer.

XIVn. gizaldean, Frantzizkotar lekaideak sartzen dira, eta Beleneko kristau biztanleak premiña edo onbearretik atarateko, nakar eta olio zuaitzaren egurra lantzeko irakasten azten dira, trebetasun aundian sartu egiezan onbearretik urteteko, baiña Mauritar eta Turkoen mende bidetik,

(1) Adonis = Maitetasun eta Edertasunaren jainkoa. (2) Zintzotasunezko oneraspen = devociòn, piedad, fervor fiel y leal relijioso.

garrantzi aundia galtzen joan zan, 1.600eneko urtetan erritxo baten geratu arte.

Joan dan gizaldean ostera berrezkuratu eban bere garrantzia, baiña oso zaurituta geratu zan bere kristau sinismenean.

1.948rarte kristauak nagusi izan ba ziran, gaur 50.000 biztanletik 15.000 bakarriak dira kristauak, eta len mauritar bost mezkita euki ba eben, gaur 60 daukie, eta Katoliko Ikastetxe Nagusian 2.000 ikasletik % 70 musulmanak dira.

Beren lurrak emankorrek dira, masti, olio araneke zuaitz eta zitu edo alearen lurgintzak erakusten daben lez.

Jaiokundearen eleiza, gudarako antolatuta dagoan lez, arresidunezko gaztelu baten antza dauka, eta lenago bertan sartzeko euki ba ebazan ate aundi bi, zaldi gaiñean sartzen ziralako ateak txikitu egin ebazan, eta orregaitik gaur ainbat denbora itxaron bear da, alboetan daukazan ate txiki bi orretatik barrura sartzeko, barrua 48 txirrst edo tximist krisaillukaz argitzen dana, an dagon edertasuna.

Urre-zuri edo zillarrezko izar bat dauka Jesus jaio zan toki gaiñean, latinez idatzita, idazpuru au daukana: "Hic de Virgine Maria Jesùs Christus natus est" (1).

Jesusen jaiotokiari danok mosu emonda, Alfredok, Meza Santua emon euskun Pako ta Intza laguntzailleak zirala.

Eta emen ostera agertu ziran espainolismo zikiñaren alde baragarrizko zertzeladak, batzuk azpitik "Hable usted Kristiano o Romano" olango berbak esanda laguntzen ebalá, gure aldetik iñork jaramon egin barik.

Ostean, ni bustirik egon nintzelako eta zerua euri keiñuka egoala oiñez Bet Sahurren dagozan ardizaiñen belar zelaietak ikustera joateko, nigaz beste bi geratu ziran belbilbusean, eta belbilbuseko gidaria euren baltzuko (2) tokian geratu zan lez, an lan egiten egon ziranak, katillu txikerretan, dute edo te gozoa ekarri euskuen, gero etorri ziranaren bekaizgoagaz (3).

Ostean, ostatura joan giñan bazkaltzera eta bazkal ostean denbora txarra egiten ebalako eta gure gorputzak ez ziralako egon ain jaikibide, Lourdes eta ni ogeratu gintzazan.

Ez giñan gu bakarrik ogeratu, 35etik 29 joan ziralako eta denbora txarragaitik, antolatuta egoan ibilbidea aldatu bear izan ebelako, Jesusen illobi Santuaren ikusgarriko Eleiza ikustera joa zian.

Gu, Alfredo, Pako ta Intzaren borondateari esker, urrengo egunean eta jendelerro aundi baten barruan ordu bi itxaroten egonda ikusi genduzan Eleiz ta Jesusen Illobi Santu ederrak.

(1) Ama Birjiñagandik, Jesus emen jaiozan. (2) Baltzu = cooperativa. (3) Bekaizgoa = envidia.

Illobi Santua eta bere Eleiz Nagusiaren edesti labur bat:

1.960ko urtean, Korbotar Aita Birjiliok, Eliz eta Illobi Santu orretan asi ebazan arkeologi lanak, eta 1.980an amaitu ondoren, emaitza auek emoten ebala esan eban.

K.o. 41-44 urtetan I Erodes Agripak, nai ta Uri zaarraren arresia atzeratuta eta Illobi Santua Uri barruan sartu ba eben be, leku Santua ikutu barik dagoela, eta Kristauak, 135eko urterarte eten barik ikusten joan zirala esan eban, areik eta Publio Elio Adriano ⁽¹⁾ erromatar kaizerrak deuseztuta, egin ebazan kapitolioko etxe ugariakaz, azpian ostonduta geratu zan arte.

Onek, Berpizte leku Santuaren gainean Jupiterren irudia ezarri eban, eta Garezurmendi aitz gainean Benus Afroditarren irudia.

Kristauak ata guzti, ez eben aztu etxe aien azpian zer egoan ostonduta eta Garezurmendiaren ⁽²⁾ azpian egoan Adanen Aitzuloa edo "Gorde leku Aitzuloa" siñesgaitzekoak Benus Afroditari gurketak egiteko erabilten ebana, ikustera joaten ziran, areik eta iñork ez egian esan eurek be Afroditarren gurketara joaten zirala, itxi eben arte.

325ean eta Nizeako Eleiz Batzar Nagusiaren ostean, Elena Santua I Konstantinoren ama eta Makario Aitalengoak ⁽³⁾, I Konstantino zirikatu ondoren, onek, Eustakio ta Zenobio erromatar kaizartzaren etxegille aundienari deituta, Kapitolioko etxe guztiak autsi edo estrokatuta ⁽⁴⁾, Garezurmendi Golgota eta utsik egoan Berpiztearen Illobia argitara urten eban.

Eta I Konstantinori esker, Jesusen Berpiztu zanaren Illobi, arkupeko ataria, eta Martiri edo Odol Aitorlearen Eleiz Nagusiak egin ziran.

335ean Iraillaren 13an zabaldu zan I Konstantinok egin eben Illobi eta Odol Aitorlearen Eleiz Nagusi au.

Judutarren lege bidez, iñork ezin zan illobiratu Uri Sakratuaren barruan, ta Erromatar legearen bidez, urkatu edo gurutzean il egiten ebenak bardin, eta goian I Erodes Agripak arresi barriagaz egin ebana esan dogun lez, Eleiz Nagusi au Uri barruan geratu zana Illobi Santuarena zala eta beren barruan beste illobi barik eginda dauala ziurtuteko, Basilika onen barruan agertu ziran juduaren bost illobi, barruan beste illobi eukezanakaz, Zesareko Eusebio gotzaiak egiztu egiten dabela esan eban.

614an, Persak deuseztu ebezan guztia, Modesto abadeak nai ta neurri txiker baten, ostera eraiki eban.

1.009an Al-Hakem drusoan kalifak baiña, deuseztu egin eban I Konstantinok eraikitzeke agindu eban guztia Garesurmendiko eliza zutik bakarrik geratuta, arek eta Konstantinoplako IXn. Konstantino Monomakok ostera eraikitzeke agindu arte.

1.048an amaitu ziran lanak, I Konstantinok eraiki eban guztitik baiña oso ezberdiña zan, gauza gitxi izan ezik.

(1) Publio Elio Adriano = 76-138 urte bitartean bizi zana eta 117-138 urte bitartean kaizar lez agindu ebana. (2) Garezurmendi = calvario. (3) Aitalengoa = Patriarca. (4) Autsi edo estrokatu = desarmar, descoponer.

1.099an gurutzatuak sartu ziran eta Jerusalem artu ta gero 1.149an, gaur ikusten dogun Illobi Sakratuaren eleiz ta inguru ederra eraiki eben, denboraren etorkizunean obetu egin direnak.

1.852an Turkoak, Illobi Santuaren Eleiz Nagusi onen zaintza sei kristau eritzi ezberdiñen artean banandu eban, orretarako irasi zan araudipe baten, gaur, iru kristau erkidetasunen artean eroaten dabena: Griego ortodoxuak, katolikuak eta Armeniako ortodoxuak, nai ta Kopto ta Sirioarrak euren otoiz tokiak euki.

Urrengo egunean batzuk, Pakogaz Santa Elena eleizaren goi aldera igon gendunean, ia ostonduta eta bear gorri itxuran armeniar edo Etiopie lekaide bi ikusi genduzan, gu ikusiaz laster alde egin ebenak.

Zazpiretan joan giñan afaltzera, eta Madalenen urte eguna zalako, akaita ta txolak artu genduzan, ostean alaitasunezko kartaldi ederra eginda gabeko amarrak ziranean ogera joan arte.

2.010ean Zezeilaren 27an Larunbat edo Zapatu eguna:

Seiretan jagi giñan seiterdian gosaria artuta belbilbusera igoteko.

Aitzulo Sakratuaren gaiñean eraikita dagoen "Aita Gurea"ren Eliza, bakartasunezko bizitzaren ardurapean eroaten daben Karmeldar lekaiameak ikustera, eta bertan Alfredok emon eban Meza Santua, Pako ta Intza laguntzailleak zirala.

"Gure Aita" eleiza onen edesti laburra:

"Aita Gurea"ren eleiza, Jesusek beren ikasleakaz berbetan edo aolkuak emoten, joaten ziran aitzulo gaiñean eraikita dago, bertan "Gure Aita"ren otoitza irakatsita, Jerusalemen ondarena asmatu edo aurretik esan ebana, eta Ludi onen denboraren amaierako Beren etorkizuna adirazi eutsen lekua.

Eleiz au, Santa Elenak bere seme I Konstatinori eskatuta, eraiki ebazan iru Eleiz Nagusi ederren artean, olio aranaren mendi gaiñean eraiki ebana da.

Olio aranaren mendiko eleiz oneri, Egeria erromesaren aurka ? (1), Eleonaren izena ipini eutsoen.

Eta arkeoloji aitzurketaren bidez agertu diran ondarrak, iru eliz barne eta erandoki edo zelaiko mosaikukoak dira.

614ko urtean Turkoak deuseztu eben eleiza, eta XIIIn. gizaldian gurutzatuak, beren ondakin gaiñean eraiki eben osteria eliz ura, "Pater Noster"rren izena ipinita.

Errusiako erromes Danielek esaten eban: "Eleiza bat dagoela, bere aldare azpian dagon aitzuloan, Jesusek beren ikasleai "Gure Aita"ren otoi-

(1) Egeria = Erromes kristau bat zan. Eta Egeria = Erromatarren mito-kondairaren ara beran, neskatx eder bat zan, Numa Ponpiloak K.a. 715-673 urte bitartean bizi zana eta Erromaren ipuiezko bigarren errege zanak, beragandik artzen ebalako goiko argitasuna.

tza irakatsi eutsen tokia dana”.

Baiña gurutzatuaren ondamenaren ostean Mauritarrek, deuseztu eben eleizea.

1.868an, Bossi de la Tour d’Auvergnetar Aurelia, IIIen Napoleonen lengusiñak erosi eban leku Santu ori eta duan emon eutson Frantziari.

1.875ean leku orretan, karmeldar lekaimearen lekaretxe bat eraiki zan, eta eurak izan dira: eleiza, zimitoria (1) eta lengo eleizaren orma zarrak “AITA GUREA” axuleitako lauki luzeetan 116 izkuntzatan idatzita edertu dabenak. EUSKERAZKO otoitza eleizaren ateko kanpoaldetik dagoela.

Jerusalenek, eleiz kanpo aldetik, unkgarrizko (2) ingurubegi dauka.

Gure Zorrontzako taldeak, poz aundia artu eban, “Aita Gurea” alako lekuan Euskeraz idatzita ikusi gendunean.

Bederatziterdian Pakok, lekaimetxearen aurreko inguru barruan izkuntzaren enparantzara eroan ginduzan, eta Ebangelioan, Aita Gureagandik esaten dabezan argitasunak azalduta, aitzulora joan gintzazan, atearen goiko aldean: “Jesusek, aitzulo onetan irakatsi eutsen bere ikasleai” ipinita daukana eta Markosek bere 13, 1-7 atalean esaten dabezanak azaltzeko.

Dominus Flebiteko eleiza be ikusi gendun, Jesusek erramu domekan negar zelan egin eban gogoratzeko.

Maria Igokundearen eleizan, Ama Birjiña non il zan eta zerura igon eben arri gaiñetik gogoratu ta ikusi gendun.

Gero Getsemaniko (3) aitzulora joan giñan, azkeneko afari ostean Judasen zaldukeria gogoratzeko eta zaldukeriaren illobia ikusteko.

Amaikaterdian eldu giñan frantzizkotarren ostatura, amabiterdian bazkaldu eta ordubi ta leurenetan urten gendun, bide guztiak asten diran leku, Damaskoren atera joateko, eta bertatik, Jesusek beren atsekabedun bidea asi eban lekura joateko.

Santa Anaren elizara joan giñan, San Joakin eta Santa Ana, Ama Birjiñaren aita/amak bizi ziran lekua edo ta Mariaren jaiotasunezko Eleiza ikustera.

Eta beren ondoan dagon Frogadunezko Santa Mariaren eleiza, bere ostean 120m. luzeran, 70m. zabaleran eta 8m. ? sakontasunean daukan Piscina Frogatikaren uretan, Jesusek elbarrituta egoan gizona osatu eban tokia gogoratzeko.

K.a. IVn. gizaldean I Erodes aundiak eraiki eban gaztelura Antonia izenarekin aldatu gintzazan, gaur beren etxe-sail artean, Frantzizkotar Eukaristiaren gurtzako eleiza, Jesusen epaiketako astiñaldi ta zigorra gogoratzen dabezan otoiz toki bi daukazanak, Sion lekaimearen lekaretzea eta Mauritarren eskolakin osotzen da.

Len, Mauritar eskolako bailagibela egoan lekutik asi genduzan Jesusen gurutz bidearen geraldian guztiak egiten.

(1) Zimitoria = claustro de la iglesia. (2) Unkgarri = impresinante. (3) Getsemani = Olio Aranaren errota esan gura dauana.

Gurutz bide onetan eten aldi bat egin gendun Sioneko lekaimearen eleizara joateko, eta bere barruan Adrianok eraiki ebazan arku edo garaimako bietatik, Iparraldekoa, eleiz barruan aldara-buru lez dagoena, eta Jesus astindu eben lekuko otoiz tokia ikustera.

Lithostrotos arlosazko enparantzan Jesus gurutzean iltzera zigortu eben tokian IVn. egotaldia egin ondoren, aurrera egin gendun.

Santa Elena Eleizaren enparantzan amaitu gendu amairugarren geraldia, amalaugarrena Illobi Sakratuaren enparantzan eginda eta amabostgarrena Jesusen Illobi Sakratuko Eleiz barruan.

Emendik, atzoko egunean esanda daukadan lez, Jesusen Illobi Santua ikusita euki ebenak, Intzagaz joan ziran Frantzizkotarren ostatura eta ikusi barik euki gendun laurok, Lobo ta Satuetar Ana Mariarekin, birritan ikusten ebanak, jendelero artera sartu gintzazan Pako, Alfredo eta gero Intzaren laguntzarekin Jesusen Illobi Santua ikusteko.

Jesusen Illobi Sakratuaren Eleiza, ikaragarritzko Eleiza da, nai anditasunean, etzagintzazko lanean eta daukan nabartasunezko apainketagaz.

Baiña illuna eta nor bera beldurrean sartzeko itxurazkoa.

Orregaitik, Illobia ikusita gero Pakogaz alkartu nintzanean: "Goibel edo illuntasunean ezarrita dagon Eleiza (1)" ez ?.

-Beren erantzuna: Argira urteteko !.

-Nirea: Jesusen berbak, askatasunezko arrazoiaren argitasunagaz gure arimaren BAITAK argitzen ebazan, ez gaiakin daukagun jakin ezagaz, JAINKOAREN misterioa izanez gain, guri BERE LEGEAREN arduran eragille bialdu euskulako, eta ori nekez argitu leike goibeltasunagaz.

Gure ARIMAREN BAITAK argitasunaren arnasaldia bear dabe, bizitz onetan zuzentasunezko zentzunean kokatu gaitezen.

-Beren erantzuna: "Izan leike".

Amaitu ta gero, afaltzera joan giñan, eta alaitasunezko kartaldi luze bat ondoren ogera joan gintzazan.

2.010ean Zezeillaren 28an Larunbat eguna:

Seiretan deitu euskuen, seiterdietan gosaria artzeko eta zazpiretan belbilbusera igonda Betaniantza joateko. Bertan Lazaroren illobia ikusteko eta Jesusek beragaz egin eban miraria gogoratzeko.

Betania edo Bethaniako errixka, Palestina zarraren lurraldean kokatuta dago Jerusalemene Egoalderuntz amar kilometrura, eta Olio Aranaren Ekialdeko mendipean.

Lazaroren (Santa Marta ta Santa Mariaren Eleiza ?) Eleizako baila-gibelean ikusi leikez IVn. gizaldiko erandoki edo mosaiku ta eraiki ziran

(1) Goibel edo illuntasunean = tenebroso, tenebrosidad.

etxe gurutzatuaren zurkaitz edo ostikoaren ziment arriak (1), eta Lazaro bere aizta biekaz Marta ta Mariagaz bizi zan "El Azarie edo Al-Azariye" (2) auzunaren izena, gaur arte zaindu dabe Lazaroren omenez.

Bizanzio deborako Eleiza bi eraiki ziran Lazaroren illobi gaiñean, bata: lur-ikara batek deuseztu egin ebena, eta bestea: 614an Turkoak sartu ziranean.

XIIIn. Gizaldian, gurutzatuak eraiki eben irugarren eleiza, baiña Saladino Aundiak menderatu ebazanean ezereztu egin eban Latino Erregetza eta beragaz eleiza.

1.863-1.869 urte bitartean, Lur Santuak zaintzen ebazan jagole taldeak erosi eban gaur kokatuta dauan eleizaren ingurua eta Aita Salletar Silbestrek 1.949-1.953 urte bitartean, gaiñean eraiki ziran etxeak botata, argira atara ebazan leenengo eleizaren aztarnak eta 1.952an A. Barluzziri aginduta, bere gaiñean eraiki eban gaur ikusten dogun eleiza.

Lazaroren aitzak, Marta ta Mariaren eleizan entzun gendun Alfredok emoneko mezea, Pako ta Intza laguntzailleak zirala, eta Lazaroren illobia ikusteko, 1.613an Frantzizkotarrak kanpo aldetik egin eben eskillaratik joan gintzazan.

Belbilbusera igonda, Palestinaren Jeriko, K.a. 8.000 urte ingurutik ona, Munduan dauan Uri zaarrenera joan giñan.

Jeriko, Jerusalemen Ipar-Ekialdean 28 kilometrura kokatuta dago beren 17.000 biztanle ingurukin, geienak Mauritarrak diranak eta lurrarteko itsasoaren neurritik 250m. berago dagoena.

1.948 ta 1.967ko gudatan, emen babestu ziran ainbeste Palestinar.

Jerusalen, lurrarteko itsasoaren neurritik goialdean 800m. eukinda, berrogei kilometru barruan, Jordaneko ibarrean sartzen zara, itsas utsazko neurri orretatik 1.200m. berago kokatuta dagoenera.

Oso aberatsa da, ur asko daukalako, eta antziñatik aitatzen da, beren lurrak ugaritasun aundiagaz emoten dabezan urre sagar edo laranja, osto zabal edo platanondo ta datil ondoko mozkiñak. Eta bertan ikusi gendun ebanjeliozko liburuetan "Sikomoro" deitzen dan, basa pikoaren zuaitz ederra.

K.a. 1.400neko urtean eta Idazti Deunaren ara beran, Josue bere Judu erriagaz Jordan ibaia aldatuta eskeintzako lurretara sartu zanean, beren gudalozteak Uriaren ormari zazpi biderrez inguru eginda turuta joten, Kanaaneko erri orren Uri ormak deuseztu ebazan eta madarikatu eban ostera jasoten ebenai.

Benjaminen leiñuaren aginpean geratu zan lur ori.

Juduaren erregetza banandu zanean, Jeriko, Isrraelekin batera ibili zan.

Eta Ajab edo Akab Isrraeleko zazpigarren errege denboran, onek feniziatarren Baal eta Astarte sasi jainkoak sartuta, Beth-eleko Hielek erai-

(1) Zurkaitz edo ostikoaren ziment-arriak = cimientos de los contrafuertes de una edificación anterior. (2) Mauritar izkuntzan "El-Azarie edo Al-Azariye" = pueblo de Lázaro, esangura dau.

ki ebazan osteraren arresizko ormak, eta bere ganean jausi zan Josuek bota eban madarikazioa.

Elias igarleak Uri orreitan, igarle eskola bat irasi eban, eta Jainkoak bertatik, Zerura igon eban.

Erriko jendeak eskatuta, Eliseo bere ikasleak uraren madarikazioa gatzagaz osatu eban, eta urte askotan bizi zan bertan.

Jesus sarri joaten zan Jeriko errira, eta batez be Jerusalemenera Pesaj jaiaren ospatzera joaten ziranean. Jeriko, Galileatik etorten ziran judutarren elkargune zalako.

Jesusek, Jerikon osatu eban Bartimeo itsua eta lortu eban, Zakeo zuzentasunezko zentzun onera biurtzea.

Eta baleike Jeriko zala, Jesusek bere ikasleak esan eutsezan berba onen lekua izatea: "Jerusalenera emetik igoten dogu eta Gizaren Semea apaizen printze eta idazlearen eskuetan jarriko dabe, eriotzera zigortu dagien".

1.967ko gudan Isrraeldarrak Jeriko, Jordanotarraiki kendu eutseen.

Emendik, Ildako Itsasora joan giñan eta nai ta denbora kaskarra euki ba gendun, egoan aize indartsuagaz Ildako Itsasoaren urak olatuta egonda azpiko eta ganeko loikeri guztia baztarrera pillotuta ekarten ebalako, uretara sartu giñan eta denbora gitxian egon ba giñan be, Totorikaguena ta Kapanagatar Maritxurekin, ikarazko unetxo bat euki gendun, beaztopatuta jausi zanean ura iruntzi ebalako.

Bertan egon zan beste "Sikomoro" basa pikoaren zuaitz ederra, eta beren fruituak urtean, iru biderrez emoten dauzala jakin neban.

"QUMRAN" bertan dago eta leenengo, arkeolijiko lanean agertu dabezan Qumraneko Basilika edo Eleiz Nagusiaren oiñarrizko ondarrak erakutsi euskuzan.

Pakok, an eraiki zan guztia, Jesusen denbora baiño askoz ariñaukoa dala esan euskun, eta Idaz Deunaren ikasketarako ta Kristautasuna sortu zanetik edesti aldi orren ezauntza jakiteko, ustegabez ango aitzuluetan aurkitu diran idatzitako agiriak oso garrantzizkoak dirala.

620 metro laukondekoa da Basilika orren ondar ingurua eta euki eban antolakuntza, oraiñarteko lekaretxe ekintzatan ikusi doguzan oiturazko zentzuetan, bardiñ antzeko bat dala.

Pakok, idatzitako Paper auen arkitzea ustegabeko gauza izan zala esan eban:

1.947an, Muhamad ed Dib beduindar artzain batek, auntz taldetik kanpo wadi Qumraneko aitzulo baten barruan sartu zan auntz bateri arri bat bota eutson, eta pitxar apurtuko zaratea entzun ondoren barrura sartuta, arrituta geratu zan bertan aurkitu ebanagaz.

Artzaiak, diruzko altxor aundi bat aurkitu ebala leen uste eban, baiña ikusten joan zanean, berak usten ebana ez zala izan, bereala joan zan erriko arduradunak esaten an aurkitu ebana, eta pitxerretan egon ziran eskuz

idatzitako paper batzuk Belenera eroan ebazan eta besteak Jerusalemeko siro ortodoxu aitalengoaren ardurapera.

Idatzitako paper oiek aurkitu ziranetik, edesti aundia euki dabe, New Yorkera be saldu ziralako, eta azken baten Israeldarren laterri barriak berrezkuratuta, jakintsuen eskuetan ipini ebazan, eurakaz bear diran ikerketak egiezan.

Pakok, adierazpen orren ostetik, ango gela batera eroan ginduzan eta bertan, zineko argibidez adierazpendu euskuezan an sortu ziranak.

Berton bazkaldu gendun nor berak janarien serbitzua eginda eta arratsaldeko ordubietan belbilbusera igon gendun, Frantzizkotarren "Etxe Barri" ostatura joateko.

Bostakarte lo egi gendun eta ostean Itxaropena, Madalen, Bego, Lourdes, Garbiñe eta ni, mauritarren azokartetik erosketak egiten ibili giñan, areik eta zazpiretan afaltzera joan arte.

Afari ostean Alfredok, zozketa bat egin eban eta ondoren, baktzaren izenakaz diploma agiriak banandu euskuzan, erromes bidai ori egin dogula gogoratzeko.

Zozketa eta Agirien banaketak amaituta, Zorrontzakoak, kartetaldi joko bitartean itz bitxi ta gordinkerizko esanakaz barre naiko eginda, amarrak lauren gitziagoetan gelara joan gintzazan, zorro edo pardeletan sartu bear genduzan jantzi ta etxe koentzat eroaten genduzan atsegiñezko sariak apaintzeko.

2.010ean Zezeillaren 29an Domeka eguna:

Goizeko zazpiretan jagi giñan, zazpiterdian gosaria artuta gelatara joateko, eta geratzen ziranak zorroetan sartu ta apainduta, pardelak, sarrerako egon gelan izteko.

Frantzizkotarrak ostatuko "Etxe Barri" orreitan daukien otoiz tokira joan giñan, Lur Santu orreitan Alfredok, Pako ta Intza laguntzailleak zirala emongo euskun azkeneko Meza Santua entzutera.

Mesa Santuaren ostean inguruetatik ibilita, goiz joan giñan azkeneko bazkaria egiteko.

Umore onagaz egin genduna, Intzak koillara eta lau ortzekoa eskuetan artuta bata bestegaz alkar jotzen bere abestiagaz maia bereinkatzen asi zanetik:

Benedichi dichi dichi la comida del Señor,
benedichi, benechi,
Benedichi dichi dichi la comida del Señor,
Benedichi, benedichi.
A comer ! a comer ! a comer !.

Gero Samirrek gidatzen eban belbilbusera igonda Tel Abibeko egazki zelaira joan giñan, arratsaldeko bostetan Madrillerantza urteteko.

Tel Abibeko egazkin zelaira eldu giñanean, Negrel'tar Frantzisko "Pako"k, gure aurrean geratu eta jakea gaiñetik kenduta agurrezko itz batzuk esanda danok banan banan besarkatu ginduzan eta Samirrekin Jerusalemara joan zan, andik Karmelo Mendian dagoan Karmeldarren lekaretxera joateko.

Bederatzi ta ogei minitu ziranean eldu gintzazan Barajaseko egazkin zelaira eta pardelak artuta, itxaroten euki gendun belbilbusera igon gendun, eta geratzen zan lekuetan bertokoak izteko, danen arteko besarkada aundi eta agur beroenakaz agurtu ginduzan, gero bakotza beren etxeetara joateko.

Karmeldarrakin Ni, esker urturik⁽¹⁾ nago
Bidai onen aukeragaitik.

(1) Esker urturik = sumamente agradecido.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.010ean Lorailaren 2an

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN

“ZER” ILLEROKO ALDIZKARIETAN ARGITARATUA

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(I)

AURKEZPENA.

Arrastion, itzaldi onetara etorri zarien guztioi eta onegin daigula danoi, beren mamitik ulertzen dogunak.

Munduan eta Europa onetan batez be, asko dira maltzurrezko jokoan dabizenak, euren norkerizko asmakuntzak garaipendu dagien eta Bereztasunezko LEGEAREN aurka diran lez, or sartzen gaitue gu, EUSKALERRIA ezereztutea gure dabelako.

Erreza ez da izango, Euskaldunak bizi egin gura dogulako eta geiago, gure arbasoak JAINKOARI begira gai bizi oneri emon eutsen adierazpen ederragaz zor aundiak daukaguzelako.

JAINKOAK, NOR izateko bialtzen gaitu gaitasun onetara eta gure arbasoai esker, gure NORTASUNEZKO sinismenak bereztasunean sustraituta dagozan lez, gaitz izango da JAINKOARI eta ARBASOAI uko egitea.

Olazar eta Uribetar Martinek agindu eustan lan onen mamia azaldu dagidala eta al dodazan alegiñak egingo dodaz, solas itzaldi onetatik arrazoiz beteta pozik urten daigun.

SARRERA.

JAUNGOIKOAK, gure ARIMAK gaiezko bizitz oneitara bialdu ebazanean, BERAK ipinitako GAI LEGEEN artean ezarri ebazan eta guretzat ez gendun ezagutzen bizitza izan zalako, urduritasunezko bildur aundiagaz asi giñan egokitzen.

Aize, lur, ur, egazti, suge, narrazti, arrain, abere eta lorategi eder oneitan sartuta, laster konturatu gintzazan ARDURA izan zala bizi onek eskatzen euskun aurreneko ardatza eta beartuta geratu gintzazan jakintzaren antolaketakaz arduratzeko.

Gaitasun onen LEGEAK beartuta bizitzan irauteko, laster konturatu giñan, egiten genduzan gauza guztietan NEURRIA, ARDURADUN NAGUSIENA zala eta

gizatasunarentzat or asten dira iker lanak, daukaguzan jakintasunezko egarriak asetzeko, gaur arte eta gaurtik aurrera noz arte izango dan jakingabe: ZERGAITIK ITAUN gure jakintza entseguz edo oarrez (1), azturazko bidean (2), garaipendu daiten.

Orregaitik, bizi onen asiera eta gaurko denboratan, naita jakintzagaz bakandutasunezko aztura bidean erreztasun aundiak lortu, aukera arloetan neurri bardiñean gagoz, bakandu bear doguzan ditekeenak edo izan gaitasunetik beste ainbeste aurretik agertzen diralako, JAINKOAK ipinitako LEGEEN oldozmenean antza, BERAK bereztutako LEGEAREN elburua betetea gura daualako, orekan bizi gindezan.

Bigarren: Bizi onen bearrezko eta etenbako egitarau ekiñaldietan, danon ordezkartzan ESKUBIDE BARDIÑAK daukaguzalako, gure gizatutako ARIMAK, BAITA (3) garbi baten eta poz aundiz agertu gindezan, ondorio lez beste garrantzi aundiko irudi bategaz estutu egiten gaitu, bizitzan bear dan ardatz nagusiaren LOTSAGAZ.

Au, Izadi onen ardatz nagusia biurtzen jaku.

Oiñarrizko ardatz oneitatik ASKATASUNEZKO irudia bakarrik geratzen jaku aurkezteko.

Irudi au ez da baiña: JAINKOAK emon euskun aukera, gure ekiñaldiko gauzak ON edo TXARREZKO bidetik egin dagiguzan baiño.

Orregaitik, NOR BEREN eta DANOREN giza barren ASKATASUN OSOKO egikeragaitik agertzen dana: Gauzak ON BIDETIK edo BEREZKO LEGEAN EGITEN DOGUZANEAN nor beren SENDIMENDUZKO BAITASUNA garbi ta pozez beterik agertzen da.

Eta gauzak MALTZURKERIZKO TXAR BIDETIK EGITERAKOAN, NORBEREN BAITA DAMU AUNDI BATEN, EZEREN ASKATASUNIK GABE MENDERATUTA AGERTZEN DA.

JAUNGOIKOAK BERE BEREZTASUNEZKO LEGE aurrean, giza barrenaren minkortasunezko sentimentu orregaz bialtzen gaitu gaiezko lorategi eder oneitara, eta zoriontsu edo oso txarto sentitzen gara danok, zuzentasunezko gauzak zeintzuk diran jakiten dogunean, txarto egin ezkeru.

Gizon Emakume batzuk, diruaren lillur deiak gaiñezka egiten dautselako baiña, gaiezko Izadi oni danok NOR izanda emon bear dautsaguzan adierazpenetik eta Nortasunaren baitan gaitz eginekoak emoten dauan damuari jaramon egin gabe, euren sasi norkerizko ziñezkintzakaz, giza eta errigizarteak BEREZTASUNAREN LEGEZKO jakintzan naastatu egiten dabez, eta Mundu onek emon bear eban olatubageko itsas edo pakezko iruditik, ikaratutako elefante batek leiargintza baten (4) sartuta egin leuken ondamen irudia emoten dogu.

Deiadarti bat (alarmista) nazela irudituko jatzue batzuri.

Nire gizabarren edo baitaren egarriak baiña, zuzentasunaren zentzua eten bako eskaera baten eukinda eta gure Euskalerra maite onen arrazoiakaitik minduta, ardura orreitan buru belarri sartuta nago.

Enaz edestilaria, elejakituna be ez, jakintzaren arlo orreik, euren teknika bidez

(1) Entzeguz edo oarrez = metodo empirico. (2) Azturazko bidean = crecimiento sapiente. (3) Baita = conciencia. (4) Leiargintza = cristaleria.

edo arauz bete bear diralako.

Baiña, lenagoko edesti ziurtasunaren zentzuzko zeaztasun asko batutakoa bai. Orregaitik, errigizartearen edesti ta edestian izkuntzak emoneko toki izenak (1) alkarren arteko ulermen baten azalduko dautsuedaz.

IDAZLAN ONEN ZATIAK.

I. ZATIA.

1. Izkuntza eta edesti arloan idazlari batzuren laguntza izan dot.

1.1. Zubiaga eta Legarreta Felix "Origen del Vascuence".

Beragaz egonda, Gaztelera zemon eustazan "Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo". Eta Euskeraz idatzita daukan: "Euskara ermeneutika" liburuetatik artuta.

Liburu oneik Internetetik atarateko daukan elbidea:

<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

1.2. Nuñez eta Astraintar Luisek egin eban "EL EUSKERA ARCAICO" liburutik. Interneteko elbidea: www.txalaparta.com

1.3. Euzkadi Online: "LA PRIMITIVA LENGUA DE LOS ANTIGUOS EUROPEOS". Interneteko elbidea: email@EuzkadiOnline.com

1.4. "TOPONOMIA VASCA EN EUROPA".

1.5. "Gran Diccionario Enciclopédico Ilustrado". Selecciones Del Readers Digest.

2. Europako jakintsuen esanetan, Kromañoen denborako giza jakituria eta gaurko giza geneak zelan dagozan.

3. Orren frogagarri batzuk.

3.1. Kromañoien Izkuntza.

4. Homo Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, Zelako jendekuntzagaz osotu eben..., ezagutzen ziran Afrika, Asia eta Europako lurraldeak ?.

5. "Munduko Gizatasunaren ETORKI edo GURASO ONDOKO" izatea.

6. Arri Aroan, Euskeraren mintzotasuna nondik nora egiten zan eta erro bardifietik sortuak non ?.

7. Mundu zabalean, Euskal Toki izenak eta Itzak.

7.1. Afrika, Asia eta European, Euskal toki izenak.

7.2. Maixu jakintsuak zer esaten dabe.

7.3. Krutwig'tar Federikok esaten dauana.

7.4. Italian Euskerazko toki izen eta itzak.

7.5. Lonbardian.

(1) Toki-izenak = toponimia.

- 7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterran Euskerazko toki izenak.
- 7.7. Kaukasoan.
- 7.8. Bereber inguruan.
- 7.9. Boudatar Karl Aleman Euskalaria eta Errusiaren izkuntzan berariskoak zer esaten eban.
- 7.10. Iriondotar Mikel antropologo edo giza iztilariak.
- 7.11. Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.
- 7.12. Europa, Asia eta Afrika´ren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta.
8. Europa, Asia ta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko ?.

2 ZATIA.

1. Asia, Afrika eta Europako jendekuntzak.
2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Greziaren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri aldaren edesti laburra.
 - 2.1. Asiaren edesti laburra.
 - 2.2. Ejiptoren edesti laburra.
 - 2.3. Greziaren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta....Indoeuropeotarrak ?.
 - 2.5. Zergaitik euren erri aldak ?.
3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak ?.
4. Zer edo nortzuk izan ziran Mauritarrak ?.
5. Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza leiñuen egokitasuna.
 - 5.2. Izkuntza ta toki izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
 - 5.4. Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etruskoaren agerkeraren edesti laburra.
 - 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarrizko izen on.

3 ZATIA.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak eta erromatar ta latiniaren jaiotza.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

4 ZATIA.

1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian, errege ta jauntzaren sorkuntzak.
2. Euskalerrriaren Oraingo Aldia edo eta Berrizte Alditik (1) Frantzian 1.879an egin zan iraulketararte.
3. Euskalerrriaren iraulketatik gaur arte.
4. Euskalerrriari Euskereak zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?.
5. **EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.**

1. IZKUNTZA eta EDESTI-ARLOAN IDAZLARI BATZUREN LAGUNTZA.

1.1. Zubiaga ta Legarretatar Felixek, bere argitaratutako liburuan “Origen y desarrollo del lenguaje” (2) 49n orrialdian esaten dau: Munduko gizarteetan Mintzoeraren jaiioera eta beren azalkuntzaren azkera edestian, Munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala bere neurri guztietan.

Orregaitik, Euskerazko mintzoera bat bezala, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu ta ipuin bezala adiarazia dala, edesti ta edestiaurre onena, GIZATASUNAGAITIK iñoz azaldu, esan, edo kontatu dana.

Maixutasunezko lan ederra benetan Felix Zubiaga eta Legarretak egin dauana. Euskaldun guztiak eta batez be jakitunak irakurri bear leukiena, gure Euskal Askatasunezko Demokrazia sinismenean sendotu daiten eta European erakutsi, bera dala orain be asieraren “IZAR”ezko ARGIBIDE ONENA, IZADI ONEN GIZA, ZENTZUTASUNEZKO “ORUBEAN” ESERI edo KOKATU GAITEZAN. (ORUBEAN emplazamiento de ORU = SOLAR+ be = bajo).

Arriaro berriko berbea, Griegoen ots izti edo fonetikan ORUBE = EUROPA, SOLAR EUROPEO esangura dauana.

Felix Zubiagak, bere “Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo” 56 orrialdeko III.n. zatitik datorrena, liburuaren 79n. orrian: “IZEN JAKINTZA (la Onomàstika), JAKINTZAREN OROIMENA” (3): An, Utu, Ra, Ilu, Ka, Ba eta As en eredu nagusiren (4) izkin bateko berbak aztertu ta argitutako amaieran ondorio lez esaten dau: “Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala”.

Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren ozenezko (5) iturria argitzea dalako berbearen mintzo edo abots sorkuntzan.

Eta Euskerea, al dalako izkin bakarreraiño eldu, orain ezin da esan alderatzaillak (6) esaten daben antzera, “Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala”.

Mintzoeraren oguzpeneko (7) jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaillak.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan “IZKUNTZ BAKARRA”.

(1) Berrizte-aldetik = desde la reforma. (2) Según el vascuence. (3) Jakintzaren Oroimena = memoria sapiencial. (4) Eredu-Nagusiren = arquetipos. (5) Ozenezko = sonoro. (6) Alderatzailleak = comparatistas. (7) Mintzoeraren oguzpeneko = pronunciación artikulada.

EUSKEREAK, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartezko itzaren antolakuntzan, eta entzutezko abotsetan, irarrita daukazelako.

Zeruko (1) eredu nagusiaren antzezko (2) zuzentasunetan “**Izadi-iztia**” (3) dalako, gizadiaren jakintzan **gogo-iztia** (4) ta **gizadi-iztia** (5) da, bai dirdaitasunezko gogarketa (6) gizartearen eredu nagusiaren antzezko zuzentasunetan eta **teolojia** da, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

Euskereak, Sumerioen izen jakintzazko irudimenaren eredu nagusiko arlo aundietan eta gramatikan be esku artzen dau, Ugarit ta Ejjiktoren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna ipuiezko asmamena (7) da, baiña eredu nagusian berba barrien jaikunezko kokamenaren (8) trebetasuna be bai, aiek ez dabelako galtzen abotsik, antolamenduzko zentzurik, ez aintzintasunik, bieri oso osoan aurreratuazota burutakizun barrien artu emonetan.

Izkuntz edo mintzoera gintza baten lojikak, mitolojia beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta Arri Aro Barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, esan/izaneko (9) elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oiturazko arau zaletasunean. Dana, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokitzeke, oroimenaren atzerakadarik ez daiten egon. Bere galduerak, danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako.

1.2. Nuñez ta Astraintar Luisen: “El Eusquera Arcaico” (EXTENSIÓN Y PARENTESCOS) liburutik be bai, zeaztasun batzuk artzen dodazalako.

1.3. Euzkadi Online: “LA PRIMITIVA LENGUA DE LOS ANTIGUOS EUROPEOS”. Interneteko elbidea: email@EuzkadiOnline.com

1.4. “TOPONOMIA VASCA EN EUROPA”.

1.5. “Gran Diccionario Enciclopedico Ilustrado”. Selecciones Del Readers Digest.

2. Europako jakintsuen esanetan, Kromañon denborako giza jakituria eta gaurko gizajeneak zelan dagozan.

Elisabeth Hamel, berrien idazlea; Theo Wennemann, jermaniar ele jakintzaren maixua, eta Peter Foster, Kanbridgeseko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea diranak eta irurak bat eginda, auxe da baieztatuten dabena (leen Wilhelm Humboldt ele jakitun edo izkuntzalariak eta orain beste jenetista barri batzuk be bardiñ esaten

(1) Zeruko = divino. (2) Antzezko = analogias. (3) Izadi.iztia = cosmologia. (4) Gogo-iztia = alma psicológica. (5) Gizadi-iztia = antropologia. (6) Dirdaitasunezko gogarketa = meditaciòn refleja. (7) Ipuiezko asmamena = imaginaciòn mítica. (8) Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual. (9) Esan/izaneko = decir/ser.

dabena): “Europaren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan euneko zenbakitik, irurogeita amabost Homo Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunak dirala eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea zala”.

3. Orren frogagarri batzuk.

Homo Sapiens Afrikan sortu eta ugaritu zanean, WURM deritxon azkeneko izotzaldia urtutzen asi zanean, orain K.a. 14.000 9.000 urte Magdalenense eta Aziliense, gorengo Paleolitiko edo arri aroko denboran Europatik zabaldu eta erritu egin zan.

1.868an Frantziako Ego Sartaldean Dordoñako lurraldeetan Perigoreko errian dagoan Kromagnon aitzuloan, Goi Arri Aldiko asieraren giza azurrak aurkitu ebezan: Gizon zaar batenak, adiñeko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz ⁽¹⁾ eta saretxo edo xirristak itsas maskorrakin aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta. Eta giza-azurrak geiago: Frantziako beste lurralde batzuetan, Txekoslovakian, Erdi Ugarte onetan, Alemanian, Suezian, Italian eta Polonian be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru azurrak, gaur daukagun giza itxuraren bardiñ antzekoak ziran eta eroaten ebazan apainkeriak, bilbe ⁽²⁾ aundikoak zirala esan eben.

Oneik dira Kromañoen giza esan dautsoenai eta Europaren arbasoak.

3.1. Kromañoien IZKUNTZA.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu, Homo Sapiens edo Kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitzeko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturan oiturtzeko euki eben izkuntza, ulermenean ezartzeko “LEN EREDUKO EUSKERA” zala Atlant Itsasotik INDIARAiño. Iñorentzat ez leuke izan bear sinis gogorkeri bat, Homo Sapiens edo Euskal Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik, egoan ba?.

Alan dala esan leike. Jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda, EUSKERA asikoen sorkuntza askoz aurreragokoa izanda, galdu egiten ebelako.

Afrika, Europa ta Asian orregaitik, EUSKEREAK ainbeste argitu leiken toki izen aurkitzen dira: “Aran, Ur, Ibar eta abar asko. Mendi toki, lur, ura, aize, osko eta eurak biziaren ulermenean sartzeko, izendu bear ebezan gauzetan agertzen da.

Emen, EUSKEREAREN ziurtasuna zeaztuteko esan bear dogu, goian, Felix Zubiaga ta Legarretak maixutasunezko adierazkizunean esaten dauana: “Izkin bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza, jatorriz sortutako izkuntza dala”.

“Izkin bateraiño eltzea, eredu nagusien ⁽³⁾ ozenezko iturria dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

Eta EUSKERA dalako izkin bakarreriño eldu leikena, orain ezin da esan

(1) Beso ta samako estunakaz = pulseras y collares. (2) Bilbe = evolución. (3) Eredu nagusien = arquetipos.

alderatzailleak ⁽¹⁾ esaten daben antzera: “EUSKERA jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala”. Bere izatean, bera dalako berezko aitortzaille, oguzpeneko ⁽²⁾ mintzoera jaiokeran.

Gaur EUSKERA orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan “IZKUNTZ-BAKARRA” da.

(1) Alderatzailleak = comparatistas. (2) Oguzpeneko mintzoera = pronunciación articulada.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(II)

4. Homo Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, zelako jendekuntzagaz osotu ebezan, orduan ezagutzen ziran Afrika, Asia ta Europako lurraldeak.

Afrikatik mugi aldiak asi ziranean, jakintzaren arloetan: Euskerazko leen Izkuntz eta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik gabe eta milla urte asko ondoren jakintzazko azturan, leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran bakoitza beren Batzar Nagusiko babespean.

Mundu bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduran eta berezko denboraren larrialdiko egoeratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren egokitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin gordiñik aurka egin ezkerero, gu baiño askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur leiñuetan Afrika, Europa ta Asiako lurralde guzti orreik egokitzen.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leiñuak, gaur oraindiño EUSKALERRIAK daukan, euren NORTASUNEZKO IZKUNTZAK eta OITURA DEMOKRATIKOAK, gure LEGE ZAARRETAN DAUKAGUZANEN ANTZERA.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura arloan gaztelu bat bakarrik ezin eben egin, eta orko bidetik asi ziran berexkatzen antzeko izkuntz desberdiñetan.

Alan da guzti, nai ta gizarentzat, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izanda Mundu zabal orreitan, mendi, aran, euri, izotz, egugiro, lurraren otz berotasun, abeldi ta lorea antzeko ezberdintasunai, bizi ekintzaren bidez gauza guztiei bereziki izen berexiak emon, aukera barri orrek ez dau nai esan, guztiz banakatu egin zirala, leiñutasunezko auzotasunaren urbiltasunak arremman edo alkar ikusteak zaindu egiten ebazalako.

Gure arbasoak, milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten daben, eta eurentzat: Aurreko JENDEKUNTZ GALDUA dana.

Baleiteke, baiña Mundu onek daukan gizaren jarraikuntza ikertzeko ez dago ezelako mirari ez antzekorik, nai ta ainbeste antzeko izkuntz eta toki izenaren arrasto eukinda.

Gaiñera, Felix Zubiagak esaten dauan antzera: “EUSKERA bere jaijoera argitzen dauan IZKUNTZ BAKARRA izan da”.

JAINKOAREN GAUZA DAN bizitza bera, ez badogu kontuan artzen, gurentzat mugatuta DAUKALAKO.

Esan onekaz, edestiaren azalkean gaurko izkuntzalarien artean oraindiño ainbeste ganorabako irabazkoi (1) egonda ta guzurtapeneko illuntasunak iraun dagiazan ibili, ez dot esaten lengo jakintsuak errudunak ez ziranik.

Menperatzaille aundiak Munduan egin eben naas illunezko zirriborrotik eta ekanduz edo berezko oitura onean ibili ziran izkuntzalariei, egia dana argitzeko, frogapen edo siñispidearen eragozpeneko eskaeran debekatuta, euren azterkuntzak ez bakarrik utsetik asi bear izan eben, guzurrezko ta illuntasunezko zirriborro utsetik asi bear ebelako baiño, gero bigarren zatian adiraziko dodan lez.

NORKERIAREN maltzurtasunezko guzurak irabazki politiko biurtuta, ikertzazko lanak euren aurrean aurkezteko, eragozpen aundiagoagaz argitu bear izan eben.

A ta guzti, euren jakituri aundian egindako ikerkuntzazko lan guztiak ez ziran edozelakuak, goian esan dodan lez, asierako Homo Sapiens, Kromañoi edo leen Euskal egokitasunera, gura nai ez bideratuta geratzen diralako.

5. Munduko Gizatasunaren ETORKI edo GURASO ONDOKO izatea.

Emen au da galdetu bear doguna: Zergaitik, Santimamiñe, Ekain ta Altzarriko arzulo edo leize zuloetan marraztuta agertu diran irudietan “Munduko Gizatasunaren ONDORE” izendatu.

Eta gure artean izkuntz zaar eta ederrena dana, irudi ulermentzeko mintzo berbearen leenengo itz otsak Euskeratik argitu leikezenak eta orregaitik garrantzi aundienekoa izan da “EUSKEREA”, ZERGAITIK IZENDATU EZ ?.

Erri legean, edo Demokrazian sartuta gagozela esaten dabe batzuk, baiña sekula ez gara aukera orreitan ezarriko, antziñatik etorten dan NORKERIAREN ZENTZUZKO MALTZURTASUNEAN geiegi kokatuta gagozanen artean.

Laster izan bear dana, JAINKOAREN LEGE aurrean, txarto egiten doguzan gauza guztiagaitik mugatuta egonda, premiazko larritasun oneri irtenbide bat emon bearrean gagozelako.

EUSKALDUNAK, EZ DOGUZ GALDU BEAR AURKEZTEN JAKUZAN AUKERA ONEIK, GURE NORTASUNEZKO eta ORDEZKO ARDURAK BERRESKURATU GURA BADOGUZ.

ORRETARAKO BAIÑA, EUSKALERRIAREN ASKATASUNEZKO ELBURUARI DANOK BATERA BEGITU BEAR DAUTSAGU. NAI TA, POLITIKAREN EZBERDINTASUN TALDE KIDEETAN LAN EGIN.

BETI, LELOKERI BARIK ETA BURU BELARRIKO EKINTZAN ! GURE ARBASOAK EMON EUSKUEN “LEGE ZAARRAREN” ERRI LEGEZKO (2) ZENTZUAREN ARDURAN LAN EGINDA.

6. Arri Aroan, Euskeraren mintzotasuna nondik nora egiten zan eta erro bardiñetik sorturitako ezberdintasunak non ?.

Olazartar Martinek, beti esaten eustan, idazten doten guztian, erabateko (3)

(1) Irabazkoi = interesados. (2) Erri-legezko = democracia. (3) Erabateko zorroztasunean = rigor.

zorrotasunean lan egiteko.

Baiña zer esan, adibidez: Zezarek, leenengo aipamenean esaten ba eban, Euskerea Garona ibaitik bera berba egiten zala eta bigarrean Loira ibaitik ?.

Gaiñera gaur jakinda, Eskoziaren ugartearen goialdeko Kaledonian Piktoak bizi zirala eta eurak egindako arri landuetan aurkitu diran idatzitako izkiak Euskerazkoak dirala ?.

Arri baten adibidez Piktoz idatzitakoa: “doannataenakotekaetua” beren irakur agiria: “doana da Eneko t'akaitua” eta Gaztelera irakurrita: “el que se va es Eneco y la preocupaciòn”.

Eta Piktoak IXn gizaldian Eskozez Keltiarrakaz bat egin ba ziran, nortzuk bizi ziran an Keltiarrak joan arte ?.

Orregaitik, Mundu zabalean gaur agertzen diran sustrai bateko leen Euskerazko toki izen eta itzetan, gero argituko dodan lez, orduan ezagutzen zan Omo Sapiens gizarteetan: “Atlant Itsasotik Indiaraiño ? eta Britaniatik Afrikako zein lekutaraiño ?.

Eta Euskerearen jendekuntz (1) osoa, nik aurkitu dodazan zeaztasunezko zentzutik, Atlant Itsasotik, Belgika, Alemania Italiaraiño mugatuta eta goitik bera, Eskozia edo Britaniatik Kadizeraioño.

Ez da arritzekoa nik emen esaten dodana, itaun gogorrek agertzen diralako, adibidez: “Zer ziran Tarteso ta Iberoak Euskaldunak baiño eta zer Keltiar, Sumer ta Etruskotarrak ?.

Nortzuk eta non izan ziran Indoeuropeotarrak?: Nortasuna, bakotzak bere izkuntzatik artzen dauana da. Eta Europa, Asiaren Ego Mendebal ta Indiaren Ekialdeko Iparraldean egon ziranak.

Eta izkuntz oneik, ainbesteko arreman aundiak eukiteagaitik, ele jakitunai burukomin aundiak emonda, euren azpiko bardintasunak izkuntz bakar batetik sorturikoak zirala emoten eutsen.

Zelako izkuntzatik baiña ? : Omo Sapiensek euki eban izkuntzatik zalantza barik, orain beste gauza bat esanten ba dabe.

Niri, indoeuropeoaren itz adimugaren gora beran, ele jakintzaren esku antze edo trebetasunean ezer jakin gabe, zentzuzko lojikan egiten nagoen billaketazko lan onetan, nastatutako edo zuzenezko ez diran gauza asko agertzen dira, adibidez: Zergaitik Gaztelera eta Katalan izkuntzak, indoeuropeoarrak ?.

Ez ziran sortu biak, erromatarrak ekarri eben Latin eta Euskeraren bitartez ? . Edo, latiñagaitik ?.

Zorro orreitan danak naastuta sartzea baragarria da, gaiñera jakinda, latiña, Etruskoak Griegoen izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebela eta Etrusko izkuntza Euskerearen anai edo antzekoa dala.

Nortzuri esan eutsoen Indoeuropeoak zirala ?.

Nik daukidan iztegiak esaten dau: “Semita, Uralo altaika eta Malayo polinesian beste batzuen laguntzan ondo egokituta egon ziran izkuntzak baiño oso ezberdiñak zirala eta alkartasun orrean mordoakak: “Albaniar, Anatoliko, Armenio, Baltiko, Kelta, Eslabo (Errusitar ta Txekoak sartuta) Germanikoak (Ingles, Aleman eta Eskandinabiako izkuntzak sartuta), Griego, Indoirano (Sanskrito, Hindi, Persak eta

(1) Jendekuntz = civilizaciòn.

abar), Italiko (Latin eta español, frantzez, italiano, katalan, gallego, espainol judua, Zerdeñako ugartean sardo, Adriatiko itsas baztarretan dalmata eta abar latin kume bezala)".

Eta Indoeuropeoa baiño beste ariñagoko oinkada-bat emonda, Arioak nortzuk izan ziran?: Indoeuropeoak baiño ariñago "Asiaren erdian bizi ziran leiñuak esaten eutseen".

Oneik, lur langille ta abelzain edo artzaiak izan ziran. Eta ez eben euki, orduan Babilonian, Ejipto ta Sirian euki ebezan oroikarri lakorik eta irakurri ta idazten jakin gabe, euren leiñuen antolakuntza etxegabeko edo erdi alderraiezkoa (1) izan zan.

Ario itzak, indoeuropeoaren erri ta izkuntzak edestian mugatzeko, ez dauka ezerlako zentzurik.

1.823 eta 1.900 urte artean Max Müller aleman ele jakitunak izkuntzaren bilbe (2) edo aldakuntzak argitaratzeko alegiñean, "ario" itzari ospe ta zabaltasuna emon eutson, beste batzuk, Europak euki ebazan nortasunezko arazo guztiak adierazteko ibili ebena.

Egoera orreik, "NAZI" faziztak aukeratu ebazan, Ario itza, ordezeko "indogermano" edo "judua ez dana" itzan ulertu daiten, eurak endaren gora beran euki ebazan eziñ ikusiak (3) arrazoitasunean ezartzeko. Eta begitu ortik aurrera zer egin eben Munduko bigarren gudan.

Eta arrazoi au argitzeko, Keltiar, Eslabo eta Germaniar izatasunak azalduta, adibidetu egingo dot.

Nik, danak sartuko neukez keltiar arlo bakar baten, oitura antzeko baten ibili ziralako eta euren izkuntzak alan emoten daualako.

Adibidez: Oso indartsu ta mobikorrak izan ziran izatasun orreik baiña, alderraiezko ekiñaldi orreik ez eutselako izten euki ebezan sinispideak sendotzen, orregaitik, nai ta indartsuak izan eta euren azturan asko ikusikoak, ez eben gizabideko (4) jendekuntzan (5) jakintzazko indar geiegirik euki.

Indoeuropeoak jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan edo eta neurri aundi baten Omo Sapiens asieraren oiturari jarraituta askatasunean oiñarrituta egon ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen. Eta orduko denboretan, zalantza orreitan kokatuta egon ezkerro, erromatarren antzera, mendeetan azkartasunezkoak diranak bultzatuta, ia aienatu ziran Europaren berezko erritarreetan, Aleman eta Eslaboak izan ezik.

Azalpen orrek, iru irakaspén argitzen dauskuz: a) Milla urte askotako mobikortasun orreik Sinismenetan ez eutsela itzi sendotzen. b) Euren arteko izkuntzak zirriborrotu egin ebezala. Eta d) Demokrazizko askatasunean erdipurdiko aukera baten geratuta, ez ebela indarririk euki, menperatzailetasunetik urten eta euren sinismenetan sendotzeko.

Emen Alemanakaz salbuespen bat egin bear dogu, gero Erdi Aroan I Karlosen denboran eta Alemaniatik ekarri ebezan aolkulariak, Nafarroa espainolak mendetuta egonda. Oneik, Zisnerosek euki eben menperatze bidezko eritziaren aurka, Nafartar erregeak euren ezar lekuetan urte mordozka baten, ezartzeko aolkua emoten eutselako.

(1) Erdi-alderraiezko = semi-nòmada. (2) Bilbe = evoluciòn. (3) Ezin-ikusiak = antagonismos. (4) Gizabideko = cultura. (5) Jendekuntzan = civilizaciòn.

Grezia ta Euskalerrriagaz ez zan gertatu bardin, euren lurraldeetan kokatuta iñor menderatzen ibili barik, sinismenean indartuta geratu ziralako. Baiña azalbide ori, Europaren zeazkuntzan ezartzen dalako, beren edestiko lekuan adieraziko dogu.

Orain indoeuropeo onein artean dagozan asierako Omo Sapiensen itz ta toki izenak aurkezten joango gara.

7. Mundu zabalean, Euskal Toki-izenak eta Itzak.

Toki Izenaren (1) zentzua azaltzeko, gogoko garrantzi aundian euki bear dogu, asieratik gaur arte izen jeografiko batek iraun dagian, izen ori errotu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan, eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Neolitikotik asi ta gaur arte ikutubako berbak daukaz, Asia ta Afrikako leen gizarteak euren errekarari eta abar emon eutsezan izenak: Ibai/rio, Ibi/vado, Ibar/rio/valle eta abar. Eufrates ibaia bera deitzen zan Buranu = Urnammu, zeru guztia URA izan zala gogoratzen ziralako: URA = UR+ANU = Agua del cielo.

7.1. Afrika, Asia ta Europan, erreka, mendi, toki ta erri izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko Euskal itz asko dira. Jakintsuak orain dabizena argitzen, eta azkar esan leike, lendik eginda dagozan lanak sakonak dirala.

Europan, erreka askoren izenak, itz bardiñakin emoten dabez euren esangurak ezagutzera, edo euren oiñarriaren sorburuzko itz bardiñakaz bai beintzat.

Susterrezko itz bat "IS" adizkia (2) da: "Noruegatik asi ta Italiaraiño, Espainatik Errusiaraiño, eta Bretaina Aunditik Balkanes"eneraiño 200 errekatan baiño geiagotan aurkitu diranak.

Adibidez: Noruegan "Isselfjorden" edo "Isa" Italian. Errusian "Isainka" edo "Ieslà" Lituanian. Txekiako Errepublikan "Jizera" edo "Ijssel" Beko Errietan (3). Euskeran "Iz" berbea "S"lez esanda: URA edo UR LASTERRA esangura dau.

Izen itzak, era bardiñetan agertzen dira "ur (aur)", "var (ver)", "sal (salm)" edo "al (alm)". "UR" itzak ur geza (4) edo ur gazi (5) esangura dau, eta "URA" ur tira edo ur lasterra (6).

"AL" eta "SAL" itzentzako be, esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko Izkuntza aldi baten, oso zabala izan zala erakusten dabela.

Izen onein esaerak, beste ainbesteen artean, adibidez: Noruegan "URULA", Bretaina Aundian "IRWELL", Beljikan "OURTHE", Alemanian "AUERBACH" "URBACH" "AURACH", Austrian "IRRSEE", Frantzian lenago "UROFIA" izan zana eta gaur "AROFFE" eta "HURIEL", Espainan "URURA" ta "UROLA", Polonian "URWIS", Errusian "URA" eta abar.

Alemania'n "VAR" adizkia daukien izenak: "Warne, Werre, Warmeno, Warme Aue" dira.

"SAL" adizkia dauken izenak: "Saale, Sale, Selz (Salusia), Selke (Salika)".

(1) Toki-izenaren = topónimos. (2) Adizkia = elemento berbal. (3) Beko-Errietan = Paises Bajos. (4) Ur-geza = agua dulce. (5) Ur gazi = agua salada. (6) Ur-lasterra = corriente de agua.

Eta "AL" adizkiarekin: "Aller, Alm, bi Alme, bata Almanana eta bestea Almara, Ahla, Elte (Alantia) eta Elz.

Erdi Ugarte onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: "Alba, Alenza, Almar, Almanza, Almonte, Almantes eta abar.

Lenagoko izkuntzaren izenak be, oifarrizko itz orreitatik etorri leikez, orduko gizartearen leiñuak, errekek edo lurraldeak euki eben alderdi eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebezalako.

Erdi Ugarte onen Iparraldean, Erromatarrak "IBERUS" esan eutsoen Ebro ibaiari.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko Itsasoan bota arte, danak Euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran. Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun aundirik egin, Euskeraz "IBAI" errekea dala esateko eta "IBARRA" errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan "IBAR" zelaiari.

Guadalajarako erria, Segobia, Soria, Zaragoza (1), Teruel, Kuenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, euki eben antziñako izena "ARRIAKA" izan zan.

Erromatarrak etorrira, Toledotik aldatzen zan Zaragoza Meridaraiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban eta Mauritarrak etorrira "Guadilhijarah"ren (euren izkuntzan "arriaren erreka" esangura dau) izena ipini eutsoen, gaur eurengandik datorren Guadalajara izenagaz ezagutzen doguna.

Ernest Försteman Alemanak (1.822-1.906) Germaniar eta Amerikar izkuntzalariak XIXn gizaldi erdian toki izenen azterketan ibili zala: "Errekaren auntziñako izenak "Leunkatubako (2) Bitxiak" zirala esaten eban.

7.2 .- Vennemanntar Theo, germaniar ele jakintzaren maixua (catedratico), Fostertar Peter, Kanbridgesgo Ikastetxe Nagusian genetikaren irakaslea eta Hameltar Elisabeth berrien idazleak esaten dabena.

Ebersberg erria, Babieraren goi aldiaren Ebrach ibaiaren ondoan kokatuta dago, aurreratsua basalde zabal, abartsu edo eta oiantsua daukana eta Erdi Aroan Eberesperch edo Eparesperc izena esaten eutsoen.

Uri orren izena esan leike, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber = basurde, bas-auntz edo orein eta Berg = mendi) eta euren armarrarian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza ez da olan baiña, Ebrach izena eredu lez artuta, Ebersberg izena "Ibai" esan gure daualako eta apur bat estututa "Ibai Ibai", ipini eutsoen azkeneko "ach" ori euren Ego aldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten "IBAI" esan gure daualako.

Frantzian, izenak gaiñera ainbat "eber"ekin asten dira, nai ta beste izkuntz senditik etorrira doiñu ezberdiñak euki.

A ta guzti, ainbat: "Ebreon, Ibarrolle, Evrune, Ivry, Ivors, Averdon, Avricourt, Avrolle, Yvre eta ain bat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Frantzezez ez dagoz izen orreik, (nai ta Aleman izkuntzan "eber basurdea izan")

(1) Zaragoza = Bere antziñako izena ZALDUBA zan. (2) Leunkatu-bako = sin pulir.

basurdearen izenagaz elkartuko dauzanik, basurdea euren izkuntzan “sanglier” esaten dalako.

Orregaitik “eber” izen orrek berak bakarrik erakusten dau: Erri biak, bata besteagandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren erroitik artuta, erreka edo IBAIAren adimuga (3) daukala.

Lenago adizkai oneik ez ziralako ondo adierazpenduta egon, Renfrewtar Kolin Ingles arkeologuak, beren adierazpenarekin bidera urten da, esaten eban: “Indojermanoak edo erri guztien artean ezagutzen diran indoeuropeoaren izenarekin, berandu etorri zirala eta Europara etorri ziranak nekazarien bardiñ antzekoak zirala, eurokaz Europaren Neolitikoa egokituta.

Emen aipatu bear dot, Zatarain'tar Ambrosio'k egin eban “DUDEN” Euskara Aleman itzultzeko iztegia. Berak amaitu ezin ebalako, arrigarrizko lan eder ori ametsezko bidean geratu da.

Berak aurkeztu eustan itzezko zerrenda aundi bat: Aleman ta Euskeraz idatz eta esan bardiñak euki ebezanak eta damu naz aren bir idazki bat orain ez eukitea.

(3) Adi-muga = definición.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(III)

7.3. Krutwigtar Federikok esaten dauana.

Krutwigtar Federikok esaten dau, Europara indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa ta Asiaren zati batean, jendekuntz aundi baten, oiñarri bateko izkuntz ezberdiñakaz mintzatzen zirala eta nastu egingo zirala agertu ziran erri lapur edo sartzaileakaz (1).

Krutwigek, alkarganatu (2) egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertu ziran Troya (3), Sumeria edo ta Babiloniakoakaz.

7.4. Italian Euskerazko toki izen eta itzak.

Italian, Euskerazko toki izenak: Liguria (Genoba inguruan, IIIIn. Gizaldian erromatarrak menperatu eben erria), Etruria (Arno ta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria), Oscia (Erromaren Ego Ekialdeko Kanpanian) egon zan kokatuta Osko erria, (len euskerazko orde izenak Erdi Ugarte onein tokietan dagozenak eta Asturias ta Galizian batez be). Guztiak Sizilia ta Alpesetan dagozenak.

“Alpe” itza, Euskerazko “Arpe” (Arpe, aizpe = cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatik datorrena da.

Alpeseke toki izenak **AOSTAN**: “Artavoz: arta = roca (arkaitz), naba = planicie, otz=fin” / “Ayas: aia = vertiente, as = de atrás” / “Arbelei: arbel = pizarra (arbel), ei = punta (egi)” / “Arieta: Arrieta (arri tokia)” / “Arroil: garganta montañosa (euskeraz bardin)” / “Arrobi, Arpe, Aran, Arpeta: nido de aguilas (arrano abi), bajo la piedra, Valle y Valle bajo las piedras (euskeraz Valle=Aran da)” / “Gane: cima (euskeraz bardin esaten da)” / “Lesache, Lessona, Lezetta: sima (euskeraz: Lezea, Lezona eta Lezeta dira)” / “Loy: loi (euskeraz: barro, tierra húmeda)” / Orio: Gipuzkoako errekea bezala” / “Oyace: Oiane (selva)” / Oren: Orein (ciervo)” / Eta abar.

7.5. Lonbardian: Izen asko dira “ATE”an amaitzen diranak eta Euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin: “puerta” “paso” esan gura dabe. / “Albizzate, Alzate, Lazate, Velate, Lurate, Lainate, Azzate” eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.

Elexpurrentzat: Iru lurralde dagoz euskal-izen oneik argi erakusten dabezanak. Aundiena: **Piamonterren Iparraldea** (italieraz PIAMONTE = ARPE = al

(1) Sartzaileak = invasores. (2) Alkar-ganatu = relacionar. (3) Euren ariftagoko izena Iliion izan zan Euskeraz ili = iri, Uria esan gura dau.

pie de la montaña, Euskeraren antzera Auñamendilez (al pie de la montaña) eta Oñamendi Pirineosen Euskerazko izena. **Lombardia eta Aosta** (Milan eta Milaneko Iparraldean) eta **Suizan, Ticino edo Tesinoko erri aldean**.

Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: "Azasca, Andrate, Aranno, Artore, Arbedo, Arese, Arizzano, Arona, Arola, Arrobio, Arzo, Ascona, Balzola, Barasso, Bettola, Biasca, Gabiola, Gauna, Gazza, Gordola, Landarenca, Lesa, Oria, Ossola, Zubiena etabar.

Liguria lurraldean, batez be Savona inguruan eta bere Iparraldean (Genobatik urbil): "Aiona, Albissola, Ardola, Berri, Carcare, Olano, Orba, Ormea, Sabona, Varezze" etabar.

Ladinian (Tirol eta Trentotik ur): "Agordo, Andraz, Arabba, Ardo, Artá, Gardena, Gares, Lasa (tirol), Maia, Mendola (Trentino), Padola" eta abar.

Milanetik, erreka bi aldatzen dira: "Lambro" (euskeraz "niebla" esan gura dauana) eta "Olona" ("avena"ren lurraldea ?)

Frantziagaz muga egiten dauan "UBAYE" errekea / Ladinian: "EGA" ibaia / Dolomitaseko mendietan: "Bai de dones"eko aintzira edo ur geldia. "Aiarnola, Arlas, Arblatsch (Tz doñuagaz), Atalalta, Cima de Gana Bianca (euskeraz bardin), Ormea eta abar Alpe-seko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz "-ascaren" amaieragaz, euskeraz bardin esan gura dauanak: "Val di Anzasca, Val di Verzasca" eta abar.

Lurralde orre-in izkuntz ta mintzadarren artean be sortzen dira bateratasunak: "Asciola = acha (Euskeraz AIZKORA) / Astore = cernicalo (Euskeraz "aztore") / Baita = borda (casa del pastor)".

Txistuka esaten diran "TZ" eta "Z" geiago dira Euskerarenak orko izkuntz latíñoarenak baiño.

Emen, derrigorrezkoa da aitatzea: Alpeetan, Aleman, Italiano ta Frantzes izkelki edo mintzadarretan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.

Adibidez: "ROMANCE, (Suizan % 0'7 50.000 giza seme/alaba). / LADINO (aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitasean erdian 10.000 giza seme/alabak berba egiten dabena. FRIULI (Austria, Eslovenia eta Italiaren muga 500.000 giza seme/alaba). / OCCITANO (Piamonteko lurraldean 200.000 giza seme/alaba). / ESLOVENO (Piamonterean mugan, Trieste eta Gorizian 80.000 giza seme/alaba)".

Alpes eta Kaukasoren gertakizunetan ikusten da, mendi andien babesean izkuntz geiago bizi dirala eta euren nortasunak obeto zaindu.

Alpes eta Euskal mitolojian be, antzeko gauza asko daukiez artean.

Italian beste toki izen batzuk: Ligurian: "VENASCA". / Genovan: "BENASCO" / Pavian: "BEASCHI". / La Chapelle: "BENÊCHE". / Vaucluse: "VENASQUE". / Napoles eta Campanian: "AUSONA ta LIBERI". / Salermon: "ORRIA". / Potenzan: "ANZI", "ABRIOLA", "BANZI" eta abar.

Siziliari buruz, garrantzizko gauza da, 25etik 101era bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana: "Siziliako alor edo soroak ⁽⁴⁶⁾ leenengo landu ebezanak Oñamendi edo Pirineosetik bera joan zirenak zirala eta euren lurraldearen erreka aipatzea bearrezkoa izanda ezagutzen ulertu dagien "Sicanos" zirala esan eben.

(1) Alor edo soro'ak = campo de cultivo.

“Sikano” berbea, baleike Oñamendian ⁽¹⁾ dagon “ZINKA” ibaiaren izena izatea. Ez dagoz ziurtasun guztiagaz.

7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterran Euskerazko toki izenak (Kromañoien ezurrezko ondarrak asko dagozan tokiak direnak).

Zalantza aundiko berbak dira: “-barri” edo “Berri” adizkietan amaitzen diranak.

“LANDA” berbea adibidez (nai ta Keltiar berbea be ba dala gogoratu) edo Irlandan “GARA” ibaia.

Eskozia eta Irlandaren meaguneko lurretan: “CARRICK” berbea (Karr” = piedra) edo “SCOTH” (“-sk” doñuan, eusko, ausko edo basko lez) eta “GLASGOW” (“gasko” doñuan).

7.7. KAUKASO'an: Zalantzazko berbak eta sinis-gabekeria artu bear diranak dira Georjia adibidez: “GORBEYA” (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra lez). / Eta Armenian: “ARARAT” mendia (Araba, Gipuzkoa eta goi aldeko Nafarroaren bitartean dagoan Aralar mendi eta edo mendi besanga lez). / Edo “GORA” (lurralde orrean izkuntzan “Montaña” esangura dauana eta Euskeraz “Arriba”).

7.8. BEREBER inguruan: Zalantzazkoak dira: Magdalenense garai alditik datozen berbak “-barri” abotsean amaitzen diranak, adibidez: “Sugabarri”, “Zuchabarri” (Ptolomeo) edo Succbar” (Pliniok). Eta beste batzuk, euskal toki izenak osotzeko ekartzen dauan adizkiakaz ⁽²⁾, adibidez: “-Gar)a (altura): “Garb, Garian, Gardaya eta abar”.

7.9. Karl Bouda Aleman (1.901ean Anburgon jaioa eta 1.979an Erlangen il) Euskalaria eta Errusiaren izkuntzan berarizkoak (especialista) esaten eban.

Euskerea eta Siberiako izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu (descubrir) egin ebazala: “Argi” eta “Yrgi” (luz) berbaren artean bezala, Bele (cuervo), Lepo (cuello), Gurdizka (carreta), Elur lera edo Elur narraren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen (especialistas) artean esaten dabe: Euskerea ta Uraleseko izkuntzarekin: Fines, Ungaro eta Siberiako Obi ibaiaren ibarrean bizi diran errien fino edo sendi ugriara (Uraletako izkuntz ugarien artean adar nagusia dana), Suomiera (Finlandiako erriaren izkuntza), Laponiera, Ungariera eta abar Ostiaren izkuntzakaz, kidetasuna dagoela.

Mitxel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxenikiek be ikertu ebezan ditekezen orreik eta iztegiko zenbaketari bidearen emonak beti izan ziran %tik 5 baiño gitxiago.

A ta guzti euren esana: “Euskerea, Uralo Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoela” da.

(1) Oñamendian = Pirineos. (2) Adizkiakaz = elementos verbales.

7.10. Mikel Iriondo antropologo edo giza iztilariak.

“Amerikan Journal Physikal Anthropology” aldizkarian esaten dau (2.003an Urrillaren 13an Diaro Vascok batu ebana): “Euskaldunak Europeoakin, naiko berezitu egiten dirala”.

Bere eritzian, orube (asentamiento) edo lur jabetasun orrean lenaldi edo antziñatasuna adierazten dau. Eta azaldu leiken gauzea dala: “Europeoak, Euskaldunak baiño geiago nastu zirala, orain 5.000 edo 7.000 urte Ekialde Erdetik errialdan etorri ziran lur lantzaille edo nekazari ta abelzaiñarekin.

Teknika edo trebetasun orreik Euskalerrira, geiago eldu ziran “Jakintzazko trebetasunaren artu emonetik, endak nastu bidetik baiño”. Eta orren itzulpena: “Euskaldunak jendekuntzazko jakitean eta izkuntzan, Europan “Indoeuropeizatuta” ez gagozan azkeneko bakar lekukoak garala esan nai dau.

Mikelek eritzi au nabarmentzeko (matizar): “Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo besteganakoa (1), Ludi onen gizakumeari zeozer bereizgarritzen badautsoelako, artean nastutako trebetasun edo gaitasuna dalako”. Eta “EUSKALERRITIK, EUROPATIK BEZALA, DANAK ALDATU DIRALA” esaten dau.

7.11. Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.

Geiago esaten dau: “Euskalerrira, Europako erri zarrena dala”. Bere izkuntza: “Kaukasotik Atlant Itsasoraiño eta Afrikatik Europaren Iparralderaiño Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala”. Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri batzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

7.12. Bigarren zatian, Europaren gizarte auziko (cuestión social) edestian sartu orduko, aurkeztu daigun: Europa, Asia eta Afrikaren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta.

Pleistozeno aldia: 2.000.0000 1.800.0000 urtetan asi eta orain 11.000 urte amaitu zala.

Paleolitiko aroa: Iru alditan banatzen da: Be Paleolitikoa K.a. 1.000.000 urte inguruan asi ta, 150.000 urte ingururarte.

Erdi Paleolitiko aroa: K.a. 150.000 urte ingurutik 40.000 urte ingururarte.

Eta Goi Paleolitiko aldia: K.a. 40.000 urtetik 9.000 urte ingururarte.

Oso luzea izan zan aroaldi au eta bitartean ainbat giza seme bereziko mota sortu eta galdu ziran, orain 30.000 urte Omo Sapiens agertu arte.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da eta Europaren edesti aurreko aroa, orain 10.000 urte ingururarte.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Omo Sapiens giza, eizan egitez gain,

(1) Besteganakoa = relativo.

zitu, bii, ale edo fruituak batzen asi zan.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki edo Brontzezko aldiaren artekoa da.

Omo Sapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan eta orren ondorioz bizi leku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen eta len iriak sortu ebazan.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen eta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

Neolitiko aldia Ekialde Urbillean, orain 9.000 urte asi zan eta Europan 6.000 urte inguru.

Omo Sapiens: Afrikan sortu zan eta leen euki eben izkuntz ta euren jakintza oituratzeko ekanduzko oiñarri bidetik asi ziran Asia ta Europatik zabaltzen, Würm deritson izotz aldian.

Kromañon giza eta euki eben leen-izkuntza: Frantziaren Dordofñako erri inguruan (Tursac) Eyzies de Tayaken Madeleineko arpe edo aitzuloan (1) aurkitu ziran orain 30.000 urteko Kromañon gizaren azurrai esaten jako.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten eta bera agertu zanean aurreko Neandertalak euren artean ezereztu egin ziran eta sortu zan giza mota au izan zan Asia ta Europatik zabaldu zana gaur arte, bere leen Euskerazko izkuntz azturan.

8. Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokিতта edesti aurrean sartu orduko.

Ikusi dogu, zelan aize ta lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billa aurrerakuntza aundiak emon eutsoezala, zitu, bii, ale edo Fruituak ugari artzen asi ziralako.

Orregaz batera, euren denborak be nasaitzen asi jakiezan, giza legean aurreratzeko eta bear ebezan arri landuak trebetasunean egokitzeko.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, bakoitzaren batzarrarekin eta izkuntzan Atlant Itsasotik Urruneko Asiaraiño eta Europaren Iparraldetik Afrikaraiño orduan lurra lar zabalak izan ziralako, leen Euskerazko erroitik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten.

Au da aurkitu dodazan zeaztasunetatik, ulertzen dodan orduko Europa, Asia ta Afrikaren auzotasunaren NORTASUNEZKO egokitasuna.

Eta gure edesti aurretik NORCKERIETAN asi ta, menperatzailleak Asiatik xirriborrotzen asi zirana, gaur Bizkaiaren ur kolko inguruan ondo murriztuta geratzen dan gure EUSKALERRI maite au izan ezik.

Españolak ta Frantzezak ezin bestean ezereztuteko alegiñean dabizena, Paleolitiko gizarteak oraiñarte JAINKOAREN BEREZTASUN LEGEAN lortutako ASKATASUNEZKO DEMOKRAZIAK ezereztu gure dabelako, Mundu onen gizarteetan BEREZITASUNEZKO BAITAREN LEGERIK GABE, EUREN GAI NORCKERIZKO ELBURUAK, ERREZTASUN GEIAGOREKIN GARAIPENDU EGIEZAN.

(1) Ortik dator Aurifaciense edo Magdaleniense Goiko-Paleolitiko aldian, Musteriense eta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdaleniense izena Madelein mendiko aitzuloaren izena ipini eutsuelako.

Bai ? Bigarren eta Euskalerriko irugarren zatietan ikusiko dogu, ori ezin daitekena dala.

2 ZATIA.

1. Asia, Afrika eta Europako jendekuntzak.
2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Greziaren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri aldaketaren edesti laburra.
 - 2.1. Asiaren edesti laburra.
 - 2.2. Ejiptoren edesti laburra.
 - 2.3. Greziaren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta Indoeuropeotarrak.
 - 2.5. Zergaitik euren erri aldak ?.
3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak.
4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarra?.
5. Lenengo eta Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki izenak.
 - 5.2. Izkuntza ta toki izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
 - 5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etruskoen agerkeraren edesti laburra.
 - 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarrizko izen ona.

1. Asia, Afrika, eta Europako gizartearen leen jendekuntzak.

Leiñuen auzotasunarena ardurazko antolamenduan eta leen euskerazko izkuntzan egokituta egoteaz gain, egu giroaren gozotasunagaitik, goian esan dogun lez, Europa baiño irumilla urtearen aurrerakuntza artu eben, bai ta NORTASUNEZKO bidetik alde eginda K.a. 4.000 3.000 urte inguruan NORKERIETAN be asi zirala.

2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Ario eta edo Indoeuropearen edesti laburra.

Mundu onen leen jendekuntzak ⁽¹⁾ egugiro onak lagunduta, Ekialde Urbil eta Ekialde Erdi inguruan sortzen dira. Indo ibai eta Nilo ibaiaren bitartean, eta apur bat estutu ezkerro Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean. Sumeriako erria, orain K.a. 4.000 2.500 urte bitartean.

Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, ziri antzeko ⁽²⁾ arkeoloji lanaren bitartez aurkitutako ondarrak, irudian ⁽³⁾ idazkera asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre lan edo eta zillar lanean, obekuntzazko edertasun aundia

(1) Jendekuntzak = civilizaciones. (2) Ziri antzeko = cuneiforme, en forma de cufia. (3) Irudian = ideográfica.

erakusten dabe eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin ⁽⁴⁾ ureztatu egiten ebezan, gero Babilonioak aukeratu ebena eta Sargon erregeak menperatuta ezereztuten joan ziran erri lez, ortik aurrera Babilonia sendotzen joanda azturazko jakintzan.

(4) Egindako tresneriekin = artificialmente.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(IV)

2.1. Asiaren edesti laburra.

Emen azten dira edestian Norkeriaren bide maltzurak.

Sumertarrak euren auzotasunezko lurraldeetan bakez kokatuta, aztura edo egitezko ⁽¹⁾ jakintzan jendekuntz aundia artuta, baten baten aunditasunezko irudimenari egoak ipini eutsoezan.

Ala eurak izan ziran leenengotik maltzurrezko eritzi orreik bideratu ebezanak ?.

Dana dala, Semdarren erri zarretik, K.a. 4.000 urte inguru Mesopotamiaren Ego aldean sortutakoa, K.a. 2.600-2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan “Akkad”eko ⁽²⁾ kaizertzaren sortzaillea izangurean eta bereala asi zan Sumeriotarren aurka, oneik menperatzeko alegiñean.

I Sargonek, K.a. 2.025-2.010 urte artean, Asiriatik asi eta lurralde aundi baten sargonidaren kaizertza sendotu eban.

Gero, K.a. 722-705 urte bitartean II Sargonek, sargonidaren errege leiñua ezarri edo irasita, Samaria, Israel, Ejipto, Armenia, Kaldea eta Babiloniako errialdeak menperatzeko alegiñetan ibilita, K.a. 710ean Babiloniako errege egin zan, beren jauretxe edo gaztelua, Niniberen ⁽³⁾ Iparraldeko mendietan eraikita.

II Sargonen ostean, K.a. 705-681eko urte bitartean bere seme Senakerib izan zan errege edo kaizerra, eta 689an Babilonia ezereztu edo ondatu ondoren, Ejiptoren mugalara elduta, jauretxeak edo gaztelu batzuk eraiki ta Akkabeko urian Nesrok jainkoaren izenean egon zan eraikitako eleiza edo jauretxean, beren semeak il eben.

Urrengo errege, I Kanbises K.a. 600-559 urte bitartean errege izan zan.

Gero bere seme Ziro aundiak K.a. 559-529 urte bitartean, gaur Irak dan Media erria ⁽⁴⁾ 553-550 (549) urteetan menperatu eban.

547-546 urte bitartean Kresori irabazi eutson, eta Lidia mendetuta, 540-539an Babilonia ta Juduak askatu ebazan, eta oneri Palestinara joaten itxi ondoren, Kaspio Itsasoren zelaietan Mesajetaren leiñuen aurka dagoela il eben.

K.a. 529-522 urte artean bere seme II Kanbisesek igon eban erregetzara, eta 525ean Ejipto mendetu ta euren XXVIIko errege leiñua ezarri ostean, bere kaizertza Nubiaraiño zabaldua, Nilo ibaiaren ibarragaz bat egin eban.

Baiña Ammon eta Etiopian porrot egin eban eta Ejiptora urten orduko, bere anai Smerdis il eban, bera gudan ibilita, erregetza kenduko eutsolakoan bildurragaitik, eta

(1) Egitezko = método empirico. (2) Akkad'eko = Acadio. (3) Ninibe'ren = Khorsabad. (4) Media Erria = Medos.

bitartean, Gautama apaiza beren anai Smerdis izenean, erregetza lapurtu eutson.

II In Kanbises, K.a. 522an Persiara lapurketak zuzentzeko itzultzen egoala, il zan.

I Dario aundia 558-486 urte bitartean bizi zanak, 522an erregetzara igon ebanetik Indiaraiño elduta, kaizertzaren zabalkundezko asmo aundiak euki ebazan eta Europa menperatzeko be alegintzen asi zan.

Europan sartzeko, Greziaren demokrazia ezereztu egin bear lenengo, eta or agertu ziran aurka, jendekuntzaren oiturazko sinismenean, guztiz ezberdiñak ziran eritzizko ekintzak.

Persak: “morroitasunean batzangotzeko Menperatzaille gogokoak oso osoan zirenak”, eta Griegoak: “Azturazko giza bidean ekanduzko mailla aundira elduta, Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenduta egon ziranak”.

K.a. 499-494ko urte bitartean Dario persiatarrak Joniko erri batzuk bakeztuta, 490ean Maratonen, Greziari emon eutson leenengo eraso aldia, eta Milziadesen aginduan Greziaren gudalozteak oarturik, 9.000 Espartar gudariakaz babeserako prest egonda, Dariok eroan ebazan 20.000 gudariai irabazi eutsen.

Bere seme I Jerjesek (1) Ejiptoko iraultza bakeztuta, 480an, Greziari emon eutson Termopilaseko bigarren eraso aldian garaille agertu arren, 480an bertan Temistoklesek Salaminako itsasoan emoneko astiñaldi ederra artuta, I Jerjesek gudalozteak bere lengusu Mardonioaren agindutara itxi ondoren, Ekialde Txikerreko Susa errira, euren kaizar jauregira alde egin eban.

K.a. 479an Mardonio Plateako (2) borrokan, Pausaniasek Espartarren Alkertasunezko gudalozteak bideratzen eban aurka be, galtzaille urten eban, eta Mikalan egun berean, itsas ontzidi edo guda ontzidien itsas borrokan Persak ondamenduta geratu ziran.

Eta emen bitxi bat: Mardonio Jerjesen lengusua zan, eta galtzaille lez, Greziak eukiko eban urrengo satrapa edo jauralaria il da, Griegoak bere oialpe edo oial txabolara joan ziran, eta an egon ziran diru ta urrezko altxor aundiak ikusita, euren arritasunezko itaunean: “Gizon onek baiña, zertarako gura dau ainbesteko premiatasunagaz gure erriak menperatzea, ainbesteko aberastasuna eukin da ? esan eben.

I Jerjes il eben, eta bere seme II Jerjes asi zan Greziaren aurkako erasoan, baiña au be alperrik, euren artean trebetasunezko nor geiagoan asita, 424an, beren agintaritzartu ondoren aste gitxi baiño ez, il ebelako.

Greziaren Demokraziari ezker, faziztak Europa menperatzeko euki ebezan asmakuntzak, or geratu jakiezan lenengo aldiz, eta batera, Eki aldetik morroitasunezko itxuran agertu zitekezan alegin guztiak.

2.2. Ejiptoren edesti laburra.

Kamitak, Nilo ibai inguruan Suezeko lur besotik (3) sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaiño alboratu ebazan, eta K.a. 4.500-4.000 urte inguru, jaurkintza legez erregetzazko giza bide sendo baten antolamenduta, K.a. 3.300-3.200 urteetan Menesek erregetzara igon ebanean Ejiptoren goiko ta bealdeko lurak alkartu ondoren, faraoien

(1) 519-465. (2) Grezia' ren antzifako uri-bat izan zana eta Tebas'eko Ego-Mendebalean kokatuta egoana. (3) Lur besotik = istmo.

jendekuntzari bideak zabaldu eutsozan, auek ogeita amar errege leiñutan iraun egien.

Ejipto, Asiaren antzera, jendekuntzazko jakintzan azkera aundikoa izan zan.

Ikusi dogu, zelan Asiatik agertuta Kamitak sartu zirala bertakoak basamortura baztertuta. Eta K.a 4.241 urtean Menes erregetzara igon orduko, lortuta euki eben 365 eguneko Eguzkiaren egutegia eta irudizko idazkera.

IVn eta Vn Faraon leiñuekin trebetasunean goraldtu egin ziran ezin obe, eta ainbat txuntxurrezko (1) etxegintz aundiak egin ebezan.

VIn Faraaien leiñutik onantza, erregeen jabetasunak berakada aundia emon ondoren, feudotza asi zan goratzen eta kaizertzaren batasuna ezereztu eben.

Erakleopoliseko printzeak agintaritzaren jabetasuna eskuratuta IX eta Xn leiñuari emon eutsen iraunkortasuna, baiña Tebaseko printze edo buruzagiak alkartuta Erakleopolisekoak bota ebezan eta K.a. 2.160-1.570 urte bitartean, Erdiko kaizertzari emon eutsen indarra XIn leiñuetatik XVIIgarreneraiño.

XIIn leiñuak, orokorrezko agintaritza berrezkuratu eben ostera, eta Nubiaren bealdeko lurak erritu ebezan.

XIIIIn leiñu agintaritzan, Asiatik agertuta Iksoen sarraldia (2) euki eben, eta oneik Niloren ibai artean (3) ezarri eta Uri nagusia Abarisen kokatuta, euren faraoi erregetzagaz aurrera egin eben, XV eta XVIgarrengo leiñuakaz.

K.a. 1.600 urte ariñago XVIIIn leiñu aldiari, Faraoiak Iksoen aurka asi ziran, eta Almesek Faraaien XVIIIgarrengo leiñuaren sortzailleak 1.570-1.075 urte bitartean kaizertza barriari irauteko indarra emon ondoren, Iksoak bota ebezan.

Ortik aurrera eta 1.570-1.304ko urte bitartean, Ejiptoren jendekuntzari esaten dautse "urrezko aldiari" bizi zirala.

Ejipzioak, beste sarraldi baten billur, Siria ta Palestina Eufrates ibairaiño Iparraldetik mendetu eben, eta Ego aldetik Nubiako jabekuntzak Napataraiño zabaldua, Ejipziotarrak Lur Arteko itsaso (4) inguruan egon ziran errien antolatzaillak edo artekari (5) nagusienak izatera eldu ziran.

K.a. 1.375-1.358 urte bitartean, IVn Amenotepek euki ebazan indar guztiak, erlijiozko monoteista gurketak gaintzeko alegiñean ibili zanean, Ititak Siria kendu eutsen eta basamortuaren etxe gabeko edo alderraiak (6) Palestinan asi jakiezan sartzen.

K.a. 1.290-1.223 urte bitartean, XIXgarrengo leiñuen Faraoiak IIn Ramsesetik asita, Siria ta Palestina berrezkuratu ebazan, eta Libio ta Egeotarren sarraldiak geratzeko Ititakaz alkartu zan. Nai ta, Libio eta Egeotarrak 1.190-1.158 urte arteko IIIIn Ramsesen denboran, Siria ta Palestina ostera berrezkuratu.

Faraoiak kanpoko lurralde orreik galtzeak, diru arloetan naasiak ekarri eutsezan, eta euki eben aginpidea makaltzen joan jakien.

K.a. 1.075-940ko XXIIn leiñuen urte artean Faraoiak, Ejiptoren bealdeko Tanisetik jaurkintzen eben bitartean, Amonen apaizak Tebasetik asita, Ejiptoren goialdiari agintzen eben eta etsaigo edo zatiketa au, Iparraldean K.a. 940-730 XXIIn leiñu eta K.a. 725-710 urte bitartean XXIVn leiñuagaz iraun, Ego aldean K.a. 761-715 urte bitartean XXIIIIn leiñuagaz iraun eban.

Areik eta Etiopitarrak Ejiptoren jabetza artu eben arte, eta XXVn leiñuagaz K.a. 657rarte jaurkitu.

(1) Txuntxurrezko = piramides. (2) Sarraldia = inbasiòn. (3) Niloren ibai artean = delta del Nilo. (4) Lur-arteko itsasoaren = mar Mediterraneo. (5) Artekari = arbitro. (6) Alderraiak = nòmadas.

K.a. 670n urtean, Asirioak asi ziran Ejipto menperatzen eta K.a. 654 urterarte egon ziran.

K.a. 664-525 urte artean Faraoiak, denbora gitxi orren barruan jaurkintza berrezkuratu naian egonda, Persiako In Kanbises agertu jakien, eta Ejipziotarrak menderatuta, Satrapi jaurlari baten azpian ipini ebazan.

K.a. 332an Alejandro Aundiak Persak bota ebazan, eta Alejadriako Uri Nagusia eraiki ondoren, bera, K.a. 323ko urtean il zanean, Alejandroren gudal nagusi izan zan Tolomeoren aginpean geratu ziran. Eta onek Faraoi izendatuta, Tolomeotarren leiñuai asiera emon eutson.

Tolomeotar leiñuak, Elenikako jendekuntzaren eragipenean ⁽¹⁾ indartu ta Siria ta Palestinagaz jabetuta, euren agintaritza, K.a. 30an Kleopatra beren burua eraill eben arte iraun eban, eta ortik aurrera Erromatarren kaizartzapean geratu ziran.

Ejipto ortik aurrera, Bizanziotik jaurkitu eben erromatarrek, areik eta K.o. 641ean Mauritarren mendean geratu arte.

Ortik aurrera, Ejiptoren Islamizaziñoa asi zan eta arabiar izkuntza geratu zan izkuntz bakar lez.

K.o. 969-1.171 urte bitartean, mauritar Fatimitaren leiñuak Kairo Uri nagusi lez izendatu eben, eta K.o. 972an Azhar mauritar eleiza islamitarren ikastetxe naguzian biurtu ebenetik esan leike, Munduko leen goi ikastetxe edo Ikastetxe Nagusia eraiki ebala.

1.170-1.250 urte bitartean, Ayubitaren mairu errege leiñuak Siria berrezkuratu ondoren, mameluko gudariak baztertu ebezan, eta oneik gero, euren goraltasunean, etorriko ziran mairu erregearen ⁽²⁾ jagole izatera lortu eben.

1.517an Ejipziotarrak, Otomanoen ⁽³⁾ menpean jauzi ziran, eta oneik ejiptotarren jaurkintzarako Baja jaurlari bat ipini eutsen.

1.798an Napoleonek Ejiptoren menperatasuna asi eban, Ingelesak Indiagaz euki eben salerosketaren gora berak moztuteko. Baiña au be, Ingelesak Otomanoakaz bat eginda 1.801ean bota eben.

1.805ean, Mohamed Ali izendatu eben Ejiptoren Baja jaurlari lez eta mamelukoak ezereztu ondoren, onek leiñu ondore bat irasita, 1.952ko urterarte Faruk erregeagaz iraun eban.

1.820-1.822 urte bitartean, Sudanen egoan Funji erreñua menperatu eban.

1.866an Ismail Baja jaurlariak "Jedibe" Baja baiño izen aundiagoa artu eban, eta bere jaurkintzapean 1.869an Suezeko itsas xidor edo ugaska zabaldu zan.

Sudaneko menpetasunari amaiera emon eutsoen, baiña ortik aurrera Ejiptoren barneko jaurkintzan, Frantzia eta Ingelesaren eragipena asi zan garaipentzen.

1.882an Ingelesak Ejipton, guda legez eskua sartu eben sortu zan iraultza bakeztuteko, eta ortik aurrera eurak izan ziran jaun eta jabe Ejiptoren jaurkintzan.

1.898an, Ejipto ta Inglaterraren gudalozteak alkartuta, Sudanek 1.885ean lortutako askatasunak ostera menperatu eben, eta bien arteko mendekua ezarri eutsoen.

Munduko leenengo guda nagusian, Turkiak batzango zale kaizertzakaz bat egin ebenean, Inglaterrak amaitutzat emon ebazan Turkiak Ejiptogaz euki ebazan artu

(1) Eragipena = influencia. (2) Mairu-erregearen = Sultan. (3) Otomano = Turco.

emon guztiak, eta berak Ejiptoren zaindaritza irasi eban andik aurrera, 1.922ko urterarte iraun eban, nai-ta oraindiño Suezeko Ugaskaren ⁽¹⁾ kontrola eta Sudanen bien arteko mendekua eroan.

I Fuad 1.868-1.936 urte bitartean bizi zana, 1.917-1.922 urte bitartean Ejiptoko Sultan egin zan, eta errege lez 1.922an izendatuta, 1.936an il zanean, bere seme I Faruk aldikatu eutson.

I Faruk (1.920-1.965) 1.936-1.952ko urte bitartean errege egin zan ondoren, Ingelesen aurkako politika eroan eban, eta ez eutson Europako ardatzaren indarrari aurkako gudarik agertu 1.945eko urterarte.

1.958an erritik kanpora bialduta, 1.959an lekaide sartu zan.

Ejipto, Palestina zatituaren aurkakoa agertu zan, eta 1.948-1.949 urte bitartean Isrraelegaz borrokatu zan.

1.952ko Uztaillan, Mohamed Naguib gudal nagusiak bideratuta eta Gamal Abdel Nasser koronel ordezkariak antolatuta, I Faruk erregea kendu eben jaurkintzatik eta bere seme II In Fuad (1.952-1.953) izendatu, gero 1.953an au be erregetzatik kenduta, Naguidek euren agindupeko errepublika irasi eban.

Ejipzioak Isrraelekin ortik aurrera, badakigu zenbat eztabaida euki dabezan 1.979ko Epaillan bakezkoak egin arte.

Ejipto gaur, ONU, OUA eta Mauritarren Alkargoko kidea da.

(1) Suezeko ugaskaren = Canal de Suez.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(V)

2.3. Greziaren edesti laburra.

Grezia asierako baten, Lurrarteko Itsasoaren inguruko erri leiñu guztiak lez, leiñuen auzotasunezko laterrietan antolamenduta bizi ziran luzeroko denbora aundi baten, euren sariak irabazten asi ziran arte.

Mundu onen goimaillako jakintza, Tupiki edo brontzezko Aro Aldia esaten dautsoe, K.a. 3.500-1.400 urte bitartekoari.

Grezian, K.a. 2.800 urte brontzezko denbora orreitan asita, Elenikako erdiugartean Laterritutako Uriak ezarri ziranen artean, erri jakintza asko sortu ta gaienduta ⁽¹⁾ desagertu ziran.

Garrantzidunak Kreta ugartean (kretense) eta geroago K.a. 1.700 urte inguru Mizenaseko jendekuntzatik sortu ziranak.

Lortu eben goimallako jakintza, ez zan eurengandik sorturikoa, Asia ta Ejiptoko jakituriaren alkartasunezko eragipenetik, eurak artu ta edertu egin ebana baiño.

Europa edo Lur nagusi onen erditik joan ziran Akeo ta Elenotarrak, Kretaren jendekuntz jakintzaren eragipeneko ⁽²⁾ mende egon ziran aintziñako denboretatik eta Iparraldeko erri neolitikotik.

Kretak jakintzan euki eban jendekuntzazko bereketaren ⁽³⁾ ondorioz, K.a. 1.700 urte inguru: Tirinto, Korinto eta Tebaseko Uri nagusiak eraiki ziran.

K.a. 1.400 urtean Akeotarrak, Kretako ugartean egon zan Knosos gaztelu edo jauretzea ezereztu egin ondoren, Mizenaseko jakintza sartu zan bere ederrenetariko jendekuntz garaian. Gizaldi bi geroago, Peloponeso, Greziaren erdian, Asia Txikerraren itsasbazterretan eta Txipreko ugartean zabaldu zan.

K.a. XIIIn gizaldian, Iparraldeko Doriotarren eraso aldi edo sarraldia euki eben, eta jakintzan, Akeotarrak baiño atzeratuagoak egon ziralako, Greziaren jendekuntza berakada galanta emon da, jakintsuak “Greziaren erdi mendea zala”, esan eben.

Dorioak, Peloponesoan kokatu ziran batez be, eta Espartako Urira eldutako Akeo ta Dorioen jendekuntzazko elkartzearen, adierazpena da.

Joniotarrak batera eta astiro, egunaren neurria artugabe, itsas aldetik Atikako Uri nagusietan eta batez be Atenasen asi ziran bakezko goxotasunean sartzen.

(1) Erri jakintza asko sortu ta gaienduta = sobresalir resplandecer. (2) Eragipeneko = influencia, impulso. (3) Bereketaren = asimilación.

Eleno, Akeo, Dorio, Eolio eta Joniotarrak, sekula ez eben lortu Greziaren erri guztiarentzak agintza bakar bat, politikako jaurkintzan guztiz, askatasunaren Laterritasunezko Urietan oitura zar lez antolatuta egon ziralako, euren artean beste loturarik eukin gabe, enda, izkuntza, erlijioa eta euren jakintzak emoten eutsoena baiño.

Ardurak ondo zaintzeko, geiago bear eben ?

K.a. 800-600 urte bitartean, laterritutako Uri oneik: Ejeo itsasoaren ugarteetan, Asia Txikerraren itsasbazterretan, Joniko itsasoaren ugarteetan eta Lurrarteko itsasoren izparterretan: Italian, Napoles eta Tarento; Frantzia Marsella; Erdi Ugarte onetan, Ampurias, ta Jeronan Rosaseko itsas golkoan Rosas; eta Afrikan, Libiaren Iparraldean Lurrarteko itsasotik 15 kilometrora dagoena, Zirenen koloniak edo salerosteko Uriak.

K.a. 600-300 urte bitartean, Greziatarren jendekuntza (1), beren urrezko garaipenera eldu zan: "Etxagintza edo Eraikintzan (2), Irudigintza edo zizelkaritzan (3), Olerki (4), Eraman ona edo Jakin zaletasunean (5), Antzerkian (6), Matematiketan eta Natur jakintzan".

Greziak, Atenas bere jaurkintzarako, Demokrazizko legean antolatuta. Esparta alderantziz, bikaintasunezko gudaren antolamenduan, eta beste Uri batzuekatz: "Korinto, Kalzis, Korzira (7), Mileto, Sardes, Fozea, Lesbos eta abar, goimallako goraldi edo aurrerapidea lortu eban.

Asiaren lur-arloetan ikusi dogun lez, K.a. Vn gizaldian Persak, Europaren mendeko bideak zabalik eukiteko, Griegoak menperatu gura ebezan. Griegoen Uriak alkartuta baiña, eta guda-indarrak Atenas ta Espartaren aginpean bideratuz: "Maraton, Salamina eta Platean (8) astiñaldi ederrak artuta, alde egin bear izan eben.

K.a. 448an Kaliaseko bakearekin amaitu ziran Persa eta Griegoen aurkako gudak (9).

Espartarrak, euren indarrezko arrotasunean, Atenasen nagusitasunezko jakintasunagaitik bekaitz eta jeloskor edo ixterbegituz urdurik ibilita, Uri guztietatik Atenasen etsai guztiak batzen asi ondoren, K.a. 431-404 urte bitartean Peloponeson, anai arteko guda asi eben.

Espartak irabasle urten ebalako, beste alkartasun batzuk be egin ziran eta or asi ziran etenbako borrokak Greziako Urien artean.

Uriak guztiz indargabetu arte ekin eutsen eta Greziaren Iparraldeko Mazedoniatik In Filipo (10) erregea agertuta, ez eben euki indarririk espartar mendetik iges egiteko erdi ugarte ta Grezia osotzen ebazan ugarte guztitik.

Bere seme Alejandro aundiak (11), Persak K.a. 334an Granikon, eta K.a. 333an Issuseko gudatan menperatu ebazan, eta K.a. 326an bere agintaritzan Greziatik Indiaraiño zabaldu eban.

323an Alejandro Aundia il zanean, Grezia, Alejandroren guda nagusiaren eskuetan geratu zan eta ostera lengo Urien jaurkintzazko antolamendua artu barik, aurkako alkartasunetan geratu zan bananduta.

(1) Jendekuntza = civilizaciòn. (2) Eraikintza = arquitectura. (3) Zizelkaritzan = escultura. (4) Olerki = poesia. (5) Eraman ona edo jakin zaletasunean = filosofia. (6) Antzerkian = teatro. (7) Korzira = gaur Korfu dana. (8) Medikaseko gudak. (9) Periklesen denborak ziran oneik. (10) K.a. 382 336, Pausaniasek il eban. (11) K.a. 356 323ra bizi, eta 336an erregetzara igon.

Zori edo egoera orreik, Greziako ateak erromatar indartsuari zabaldu baiño besterik ez eutsen egin eta erromatarrak K.a. 148an Mazedonia menperatuta, Grezia osoa erromatarren lurralde lez geratu zan.

2.4. Nortzuk izan ziran Ario ta Indoeuropeotarrak.

Zazpigarren orrialdian eta leenengo zatiaren seigarren atalean adierazten dot, nor eta nortzuri esaten eutsen Ario edo eta Indoeuropeoak dirala.

Nik, jakitunen artean ibilita sarritan entzun neban, Munduko gizakia sei tximu mota ezberdiñakaz osotzen dala, eta gaur Theo Wennemann jermaniar ele jakintzaren maixua, Peter Foster, Kanbridgesko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea dana, eta beste jakitun askori esker danok dakigu: “Makakus Rhesus”etik gatozela, euren azterketak alan emoten daualako, eta euren artean ulermentzeko lortu eben leen Euskerazko mintzoera bidetik dala.

Ele-jakitunai burukomin aundiak emon eutsezan Indoeuropeotarren Izkuntzazko arloak.

Mende eritizko maltzurak jakin da, esaten daben guzurra esne-gain lez argi zabalean geratzen dala, ele-jakitunaren azter lanak Bereztasunezko Legera ez daitezcan urbildu, sekula ez dabelako gura izan egirik argitu. A ta guzti, jakitunen izkuntzazko azterlan bidetik, izkuntz orreik daukien azpiko edo oiñarrizko bardintasunagaitik, izkuntz bakar batetik sorturikoak dirala deritxe.

Goiko edesti laburretan ikusi dogu, menperatzailleak euren sasi eritxiak aurrera eroateko, zelako erak edo arauak ⁽¹⁾ erabilten dabezan besteak daukien NORTASUNAREN ordeko ardurak ezereztuteko.

Izkuntzalari batzuk ⁽²⁾ orregaitik, guzuraren mugara elduta eta adierazpenik gabe geratzen diranean alde batetik, eta bestetik, menperatzailleak goi aldetik Damoklesen ezpata dindilizka eukielako prest, izkuntzaren zalantzazko gauza guzti orreik “Indoeuropear” zorroan sartutako erabakiagaz garbituta geratzen zirala gogoratzen ziran. Ekintza orreik baiña, urrin dagoz egitik.

Adibides: “Zergaitik Gaztelera eta Katalan latin kumeak indoeuropeoaren zorroan sartu ?. Ez ziran sortu biak latin eta Euskeraren bitartez ?. Edo, latifñaren mendeko ekintzatik ?.

Barragarria da zorro orreitan danak nastuta sartzea. Jakinda gaiñera, Latiña, Etruskoak Griegoen izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebela, eta Etrusko ta Sumerioa izkuntzak, sustrai batekoak dirala.

Felix Zubiagak argitzen dauz ondo orren gora berak. Adibidez: “Berbea “esan/izan” oiturazko arau zaletasunean Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokituta egon daiten, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zala, eta oroimenaren atzekadarik ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez da bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean kokatuta dagozelako.

(1) Mundu onecitan beste biderik ez dagolako. (2) Geienak aldi-luze baten.

2.5. Zergaitik euren leiñuen erri aldak ?.

Jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan, edo ta siko neurri aundi baten Omo Sapiens asieraren oiturari jarraituz askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen, eta Asia, India eta Afrikako menperatzailetasunaren jarraibideak gogortzen asi zirala ikusiz, eurak etxe gabeko edo alderraiezkoak (1) izanda, errez iruditu leike zergaitik euren leiñuen erri aldak.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak ?.

Etruria, Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egoan (2) eta iñork ez daki nondik agertu ziran.

Herodotok, Tirrenokoakin antz emoten dautso eta Asia Txikerratik Italian agertu zirala diño.

Beste batzuen esanetan Europaren erditik agertu zirala eta oraingo edestilarien gora beran, Arno ta Tiber bitartean bizi ziranarekin apur apurka sortu zala. K.a. VIIIIn gizaldian amabi laterritasunezko Urietan jaurkintzazko antolamenduan kokatuta eta danak arremanduta erlijiozko alkartasun edo batasun baten.

Euren jaurkintzazko agintaritzza, Andi-Mandiak (3) bideratzen eben, sortzez, odolez edo ondorengo (4) irazpenean egokituta euki ebana.

Mariñelgintzan zentzun aundikoak izan ziralako, Lurrarteko Itsasoaren erri nagusi guztiakaz euki ebezan arreman sendoak. Eta ez euken lotsarik euren gizabidea aberastuteko, Italian, Ekialdeko Sirio Ejiptotarren eta Griegoen jakintzazko aurrerakuntzatik bear ebena artzen.

Itsas aldeko lurra ondo landuta eukinez gain, langintzan trebetasun aundiak artu ebezan eta merkataritzazko salerosketan maixutasun aundia.

VIIIn gizaldi erditik onantza, euren zabalkuntza erabagi eben eta Erroma, gizaldi bateko agintaritzan zuzendu eben.

Adriatiko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzikako ugartea menderatuta euki arren, Uri nagusien bereiztasunak ez eutsen izten batasun batera eltzen. Eta euren maldabera, VIIn gizaldeen Erromatarren aurka asi ziranetik onantza asi zan.

509an, Griegoak, Samnitak eta galoak alkartuta, Etruskoaren erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K. a. IVIn gizalditik onuntz, erromatarrak euren Uri nagusi guztiakaz geratu ziralako, euren-gandik babestutea izan bear eben, eta K.a. 295an Erromatarrengaitik guztiz menderatuta, K.a. 90n urtean erritarteen gizarteko guda ostetik, erromatar uritargo edo erritargoa (5) artu bear izan eben.

Etrusko jendekuntzaren inguruan, Unbroak, Liguritarrak eta Sabinoak egon ziran erri guztietatik bereizpendu (6) zan, eta maitasun geiago emoten eutsoen apainkeri (7) ta opor-aldeari (8), gudako zaletasunari baiño.

(1) Alderraiezkoak = nòmadas. (2) Tirreno itsas-bazterrean, gaur Toskana dana. (3) Andi-mandiak = aristocracia. (4) ondorengo = hereditariamente. (5) Erritargoa = ciudadania. (6) Bereizpendu = distinguir. (7) Apainkeria = lujo. (8) Opor-aldeari = ocio.

Etruskoak, erromatarren irakasleak izan ziran, Griegoen jendekuntz jakituriaren irakaskintzan.

4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarrak ?.

Antziñekoak dira, eta Arabian sortutako Kamita Semitikoren leiñu ondorengoak dirala esaten dabe.

Etxegabe edo alderraiezko artzain izanda, Mesopotamia (1), Lurrarteko Itsasoaren Ekialdea eta Nilo ibaiaren ibarretan zabaldu ziran.

Arabiarren osotasuna: Antziñako Babilonia, Asirio, Kananeotarrak (2), Arameo ta judu edo ebrautarrak eta Etiope geienak egiten dabe. Eta senitasun antzera taldekatu egiten dira, euren izkuntzak erro batekoak diralako.

K.a. 1.000 urte inguru, Arabian bizi ziran gizarteak, erreñuetan antolatuta egon ziran, eta orreitatik bi nagusienak: Main eta Sabakoak izan ziran, K.a. 950 urtean Idazti Deunaren ara beran, azken erri onen erregiña Salomon ikustera joan zan.

K.a. VIIn gizaldian Dariok, Arabiako Iparraldea satrapi (3) baten biurtu eban. Eta erromatarrak K.a. 106n urtean Arrizko Arabia (4) sortarazi eban.

K.o. IVn gizaldian, itzuli ziran Abisinioak (5) eta berton egon ziran Himiaritarren (6) artean eztaibada gogorrek sortu ziran, Ekialdeko erromatarren kaizertza sartu bear izanda erdian, bakeak lortzeko.

580an Mahoma, La Mekako Koreitxitastar leiñu baten jaio zan, eta 632an Medinan il.

Beren aita, Siriakin Kameluakaz salerosten ibili zana il eta gero jaio zan Mahoma, eta lenengo bere aitona ta gero bere osaba batek azi edo az erazi eban.

24 urte euki ebazala, oso aberatza zan Kadidja alargunarekin ezkondu zan eta euki ebezan zortzi seme alabetatik, Fatima bakarrik aipatzen da.

Urte asko borrokan ibilita ondoren, igarle (7) biurtuta, bere esanaren aldeko lagun asko euki arren, etsaiak be agertu jakozan eta K.o 622an Uztaillaren 16an (8) Medinara iges ebanean, bertan aurkitu ebazan bazkide gogotsuakin, beren erkidegoa antolatu, mezkita eraiki, erlijiozko gurketaren era-arauak ezarri, eta juduak erakarteko porrot eginda ondoren, ziñ ustelen (9) aurka guda santua asi eban.

K.o. 630ean La Mekara joanda, erlijio ta politikan nagusi izendatu eban. Beren irakaskintzak "Koran" liburuan batuta.

Beren ondorengoak, batasunezko teokrazi jaurkintza orregaz gudarako sukartuta, Iparraldetik: Siria, Ejipto ta Persiagaz jabetu ziran eta Afrikako Iparraldetik zabaldua, VIIIn gizaldiaren amaieran Mauritaniara (10) joan eta islandartu eban.

711n urtean Tarik ben Zeyaden gudalozteak erdi ugarte onetara aldatuta, eta Rodrigori Guadaleten irabazi ondoren, Auñamendietara igon eban, eta Frantzian Poitierserañño sartuta, Marteltar Karlosek geratu ebazan.

756an I Abderramanek Guadalkibir guda ostean, Kordoban Omeyatar leiñua bir

(1) Gaur, Irakeko errepublika dana, eta Asia Txikerrean, Tigris eta Eufrates ibai bitartean dagoena. (2) Amorririk, moabitak, amonitak, eta feniziarrek. (3) Satrapi = Persiatarren jaurlari edo agintaria. (4) Arrizko Arabia = Arabia Pètea. (5) Abisinoak, Kristauak ziran. (6) Himiaritarren = judutarrak. (7) Igarle = Profeta. (8) Au da hejira edo musulman erlijioaren asiera. (9) Ziñ-ustel = infiel. (10) Iparraldetik Mendebaleko Sahara eta Arjelia, Ekialdetik Mali, Ego aldetik Mali ta Senegal, Ipar Mendebaldetik Sahara eta Mendebaldetik Atlant Itsasoa mugatzen dabena eta len erdi ugarte onegaz muga egiten ebana.

ezarri eban.

762ko urtean La Mekaren ordez Kufa, Damasko eta Bagdadeko Uri nagusiak izendatu ebezan eta musulman laterriak ugaritu ondoren, 1.258an Bagdaden Mongoliarrak sartu ziranean moruen berakada oskatu edo marratu eban, eta maldabera ori, 1.517an Turkoak Ejipto menderatu eta Islam osotasunaren menpekotasuna lortu ebenean amaitu zan.

929ko urtean IIIIn Abderramanek, Kordoba kalif erriaren Kalifa izendatu zan, aurrerakuntza aundiak politikan, diru kontuan eta jakintzan artuta.

1.031n kalif erria ezereztu zan eta 1.086an Almorabideak menperatuta geratu ziranean, moru onein denboran, Sebilla, Toledo, Kordoba eta Granada, jakintzazko erdigune garrantzizkoak izatera aldatu ebazan.

Moruen jendekuntza, Grezia, Asia Txikerratik eta Ejiptoko jendekuntzaren jakintza batu ta edertu ondoren, Munduko jakintzaren ardatz nagusia izatera lortuaz, ordezko biurtuta geratu zan.

Eta ez eben txarto egin: “Ele eder (1), filosofia, medikutza, eder lanaren jakintzak” ondo landu eta Erdi Aroan, ibili ziran errietatik, zabalkuntza aundia emon ebelako.

Etxegintzan (2) bereizitasun ederra artu eben: Kordobako eleizan (3) eta gazteluak (4), Sebillako dorrean (5), Zaldubako (6) jauretxean (7), Granadako jauretxean (8) eta abar.

Edertasunezko mailla aundira be eldu ziran: “Metal edo txilinkietan sar lanen (9) eradonkian (10) edo ta metalak pikailatzen edo esmailatzen (11), zizel iruditan (12), idazkerazko luma ederrean (13) eta abar. Oso korapillotasunezko loraren marrazkian (14) apaindura eder edo ta jeometrikoak”. Baiña, gauza bizien irudi barik, euren erlijioak debekatuta eukielako.

Soiñu, eresi edo musikaren arlorako be, gaillu askoren sortzailleak izan ziran, adibidez: Arrabit (15), Rebab edo Rebik, gaurko biboliñaren bideak zabaldu ebanak, Zurna Zaramiola edo oboeren antzekoa dana eta abar.

Izar jakintzan eta matematiketan aurrerakuntza aundiak egin ebezan eta Hinduari artuta, Europara ekarri eben amarkako zenbakintza (numeración decimal).

Sendakintza eta kimikaren sortzailleak izan ziran.

Garrantzi aundiko ikastetxeak sortu ebazan Bagdad: “Kordoba, Basora, Bokara ta Kufan”. Eta liburutegi aundiak: “Alejandria, Bagdad eta El Kairon”.

Jakin zale aundiak euki ebazan “Abizena ta Aberroes” lakoak, eta ainbeste olerkari ta itzlaugille (16) bikain.

Mauritarren kaisal erria, erromatarrena baiño askoz zabalagoa izan zan, eta gaiendu, Mahoma 632an il zanetik 660ra aukerazko kalifak euki ebazanean. Gero 661-750 urte bitartean Omeyatar ondorengo leiñuak, Uri nagusia Damaskora eroanda, 750-1.055 urte bitartean Abasidasen ondorengo leiñuak Bagdadetik jaurkitzen eben euren kalifatoa.

XIn gizaldian asi zan euren berakada. Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

(1) Ele-eder = letras. (2) Etxe-gintzan = arquitectura. (3) Kordobako eleizan = mezquita. (4) Gaztelua = alcazar. (5) Dorrea = jiraldia. (6) Zalduba = Zaragoza. (7) Aljaferia = palacio arabe. (8) Alhambra = palacio arabe. (9) Sar-lanean = taracea, trabajos de incrustación. (10) Eradonkian = cosa incrustada. (11) Esmailatzen = ataujia, obra de taracea en metales y esmaltes. (12) Zizel-iruditan = talla. (13) Luma ederrean = caligrafía. (14) Marrazki = diseño. (15) Arrabit = laud. (16) Itzlaugille = prosista.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(VI)

5. Leenengo ta Bigarren zati onein ondorioa.

Bigarren zati onetan ikusi dogu, zelan Neolitiko eta tupiki edo brontzeko aldi bitartean, giza leiñuak gai oneitan zentzuz egokituarte, ikasbide luzeak euki ebazala, eta milla urteko ikaskuntzaren ekiñaldian ikasi gendula, gauza txarrak eta onak egiteko zeintzuk izan bear diran ekiñaldiko gogoetak, ibili bear doguzan erazko eritziak, alde batera edo bestera urten dagien.

Mundu onetako ekiñaldietan nabaritasun guztiagaz agertzen jaku: “Ekanduzko gauzak egokirotasunean ezartzeko, gure borondatearen erabakiak bakarrik dirala gai”.

Bereala jakiten dogulako, zeintzuk diran gauza on eta txarrak, JAUGOIKOAK gure ARIMARI emoneko arrazoitasunaren “BAITA” ⁽¹⁾ zain daukagunez, atsekabetuta edo pozkor agertu gaitezen.

Konturatzen ba gara, bizitza bera izan ezik mundu oneitan miraririk ez dagoela, oiñarri oneik izan bear dira, ardura aundian euki bear doguzenak.

Alan dala, BEREN LEGEAK bakarrik dira Ludi au BEREZTU edo IZATASUNDU ⁽²⁾ egiten dabezanak eta LEGE orreik dira bakarrik danok egokitu bear doguzanak.

Mundu oneitan orregaitik, ez dago gizatasunetik iñor eskubidetuta, BEREZKO LEGETIK kanpo ⁽³⁾, asmakisunezko legerik atarateko. Gauza orreik egiten diranean, BETI !, NORKERIEN ALDEKOAK IZATEN DIRALA-TA ⁽⁴⁾.

FISIKA berak erakusten dausku, zentzuz edo edozein apeta edo kasketaldi bidez, leku batetik zeozer kendu edo aldatzen dogunean, leku ura gabetasunean edo gauzak aldatuta geratzen dirala.

Bereztutako gizarte arloetan bardin sortzen da: “NORTASUNA edo errigizarte bateri EUSKERAZKO IZKUNTZAK nortasuna emon ba eutson, BATEN BATEK NORKERIEN ASMAKUNTZAZKO BURU ZALEKERIAN ezereztu nai badau, ez dago beste biderik: GIZARTE ORI “IL” edo erri orreik, menperatzailletasunezko morroitasunean urte askotan egonda, denboreagaz nortasunean aldatu edo ezereztuz, JAINKOAREN ZERBITSURAKO BIZI BARIK, SASI NORKERIZKO ASMAKUNTZ ORREN SERBITZUAN BIZITZEKO.

Ainbat erri alda, zigor, guda ⁽⁵⁾ eta eten bako espetxe erabili dira ⁽⁶⁾ edestian zear

(1) Arrazoitasunaren Baita'k = ULERMENA. (2) Izatasundu = naturalizar. (3) Berezko legetik kanpo = porque lejos de las leyes naturales. (4) Norkerien aldekoak izaten dirala-ta = entramos en el mundo de los egoismos. (5) Guda = Erdi-ugarte oneitan askenekoa, Franko'rena. (6) Erabili dira = gaur-be erabilten diranak.

errigizarteak morroitasunean eukinda nortasunean aldatzeko.

Mundu onetan Babiloniatik asita, edesti guztian argi ikusten doguna: “Demokraziaren atea zabaltzen asten diranean, beti agertzen dala guda gogor bat, menperatzailleak, mundu onen ekanduzko bide ta mozkin guztiak euren kontrolpean gura dabelako, bizitz onetan sasi-agintaritza orreik iraun dagien”.

Noiz arte ?.

Gure “BAITAK” ez ote dausku jazarraldirik (1) egiten ?.

Olan bada, Mundu onen giza, zuzen edo zentzunezko bide barik, ezin bestean galduta dago.

Gero ikusiko dogun lez, asmakuntz ori da gaur arte etorten dana, eta orregaitik gagoz gaurko XXIn gizaldi onetan burubelarri sartuta, **NORTASUNEZKO GIZARTEEN ESKUBIDEAK BEREZKO EKANDUAREN ZENTZUAN EGOKITU DAITEZEN.**

5.1. Giza leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki izenak.

Giza leiñuen azturazko bidean ikusi dogu, euren urrengo egunean bizitzeko, eizan eta zitu, bii, ale edo fruituaren arraparia bakarrik izatetik, izotzak urtzen asi ziranetik, ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zala, eta leen iri edo leiñuen leenengo orubeak (2) mugatzen asita, nekazaritza eta abel zaintzara bideratu egin ziranean, jakintzaren azturazko bide orreitatik euren etxegabetasuna edo alderraiezko bizitza gaindu egin ebala.

5.2. Izkuntza ta toki izenak.

Omo Sapiens edo Kromañoi Giza Afrikatik urten eta zabaldu zanean, bere ulermenerako len izkuntza, adierazten eban abots edo leen itz ots bakarretik asi bear eben, eta azturazko jakin bidean berbeari gorputza emonagaz irudiz oituratzen, berbea ulermeneko ezagutzaren oroipenean bakar eta ederrenetariko gaillu bat izan zan.

Ez zan egon nastetasunik gauza orreitan, milla urte askoren jakintzazko azturan, Europa, Afrika ta Asiako lurraldeak, izkuntz edo oiñarri bateko esabideakaz mugatuta izendatu ebelako.

Milla urte asko leiñuen auzotasunean egonda, antzeko izkuntz bakar baten ulermenpean, goian esan dodan lez, toki izen orreik lurraren jabetasuna artu eben, eta nai ta gero Asiaren ondorioan agertu ziran maltzurtasunezko menperatzaille bideak gaur arte, ez dira izan gai Munduko lurralde guzti orreitan, lenengo Euskal toki izenak aldatu edo ezereztuteko.

Gaur, gure izkuntz edestilari ta ele jakitunentzak urrezkoak diranak, Mundu onen giza bidea argituz, ia konturatuten ba garean, **JAUNGOIKOAK** zertarako bialtzen gaituan mundu onetara.

5.3. Jendekuntzazko garaiak.

(1) Jazarraldirik = protesta, oposición. (2) Orubeak = emplazamientos.

Munduko Giza, Jendekuntzaren jakintzan garaipentzen asi zanetik, edestian zear nasaiago edo erreztasun geiagoaz bizitzen joateko, ez dau izan bear besterik, gaiak era ezberdinetan emoten dauskuzan aukerak egokitu eta ezagutzen joan giñan tresneriekin, izakizun, al diranak edo izan ditekezenak zentzuzko azturaren azter lanean (1) egokituta (2), gaur daukagun erreztasunezko egokitasunera eltzeko.

Orregaitik leen, Mundu au BEREN OIÑARRIZKO LEGEAN erperatuta dagoela ikusiz eta onen LEGE kanpo-bidetik beste gauzarik egitea eziñezkoa biurtuz: "ASIERATIK GAUR ARTE, DENBORA GUZTIAK BARDIÑAK DIRALA" esan bearrean aurkezten gara.

Gaiak daukazan legezko arrazoiaren bidez, gure ekintzarako eskatzen dauskuna, eten bako EKANDU edo zentzuzko OREKAK zaintzea dalako.

Eta Gizaren arloan bigarren: BETIKO LEGEAK eskatzen dauan lez "Danon Eskubideak, ekanduaren ordezko ardura bardiñean zaintzea dala !!" zentzuzko oreka eder baten egokituta, belaunik belaun bakez iraun daigun.

Baiña ainbaten esan dodan lez, ezin daiteke: "Gure gizazko eskubideak zaindu bear diran ordezkartzazko zentzuan, gaur daukan itxura" "Elefante bat leiargintza (3) baten sartuta, egin leiken triskantzaren antza emon dagiela".

5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etrusko agerkeraren edesti laburrak.

Asian ikusi dogu, Sargon asi zala kaizertzaren sortzailletasunetan, eta aurrera begira lortu be, antziñeko edo aurretiko erabagi txar ori (4) garaipenduta ez zala geratu, areik eta 1.800 urte beranduago, Griegoak medikaseko gudakaz geratu arte.

Aurretiko erabaki txar ori, aundikien bidez gurtza maillara igonda, Afrikan be bardin sortu zan, eta Mundu Fisiko oneitan norbera besteak menperatu gure dabezenean sasi norkerizko izkuntz ta oitura txar orreitan ezartzeko alegiñean, , ikusi dogu zer gertatzen dan.

Orregaitik, egoera orreitan argi guztiagaz nabaritzen dana: "Sasi jainkotasunean bizi gura dabenentzat, sasi asmakizun orreik jainkotzat lez goraldtu eta gurtu bear dabezala".

Sasi ekintza orreitan nai ta nai ez, elkarkizunak (5) derrigorrezkoak biurtzen diralako: "Gauza txarrean iraun gura dabenentzat" "Gauza txarrakin elikatzen joan bear dabelako".

Ekintza orreik, izkuntz ta oiturazko siñismenetan naste aundiak sortzen dabez eta batez be, nastezko (6) izkutz barriak sortu.

Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu ziran Demokrazizko oiturak, erri edo leiñu artean ordearen ardurazko lotsak bikain zaindu ziralako izan zan, eta sasi asmo barri orreikaz Ekanduzko beko maillan geratuta, Erdi Aroaren goialdetik asita, belaunez belaun edesti guztian etorri gara, bakezko elburura eskuaren neurrian eukinda eldu ezinik, bitartean, norkerizko batzangotasunaren asmo txar ori, beartuta ekarten dogulako.

(1) Azter lanean = investigación empírica. (2) Azturaren azter lanean egokituta = enraizar en el recuerdo. (3) Leiargintza = cristalería. (4) Erabagi txar ori = precedente. (5) Elkarkizunak = compatibilidades. (6) Nastezko = romances similares cuando se trata de dos lenguas enfrentadas, como en el caso del Euskera Latin.

Ez da gauza aundirik bear, bakarrik berezko LEGEARI baietza emotea baiño ez dalako.

Baiña, Munduko jakitunak aurrekoi oinkada ori emoten ez dira ausartzen, antza, lotsa emoten dautsielako oraiñarteko irakaskintza BEREZKO LEGEAREN albotik etorri dala esaten, eta naste orreikaz jarraitzen dogu.

Noiz arte baiña ?.

Gaiñera jakinda BEREZKO LEGEA Damoklesen ezpataren antzera, buru gaiñetan daukagula keifätzaille (1), gaur sortzen dan lez.

Gaurko Sozialistak esaten dabe “Mestizaje para una ciudadanía del Mundo”. Zertarako jaio ziran be aztu jakie, PPren beste menperatzailleak biurtu diralako.

Endaren nortasunak nastutea NORTASUNAREN OITURAZKO SINISMENAK NASTUTEA DA eta ortik agertu leiken gauza bakarra “ONBEAR (2) edo TXIROTASUN GALANTAN EGOKITZEA DA” gaurko egunetan sortzen dan lez.

PP ta Sozialista menperatzailleentzat bai ondo, erreka loietan arraiñak errez arrapatzen diralako, eta orrein billa dabiz zalantzarik gabe, kloniko batzango baten bizi gaitezana, euren sasi agintaritzaren mesede.

Asiatik, Ario ta Indoeuropeo alderraiak ez eben egingo alde ba ? Nai ta nai ez !.

Baiña, Etruskoak egon ziran Arno ta Tiber ibai bitartean (3), eta Asian ta Afrikan egin zan lez, eurak ipiniko ebezan ibiltan erromatarren asmakizunezko eritziak, Europa osoan JAINKOAK Mundu oneri emoneko Bereztasunezko LEGEAREN egia zirriborrotzeko. Lan ori, irugarren zatikoa dalako, bertan ikusiko dogu.

5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen on.

Ezin dodaz aipatu barik itxi : Izkuntz, izen toki, azur, margo, giza iziti eta abarrezko billaketaren azterkuntzan ibili diranai, nai ta egiaren billa ibilita, menperatzaillearen berekoitasunarengandik oztopo aundiak eukinda, edestian zear arrigarritzko azter-lanak egin dabezelako.

Azterkari maisu andi oneik Asia ta Afrikan lenengoz, toki izen ta edestiko lan bidez Izadi onen Omo Sapiensen asierara joanda, arrigarritzko egoarriagaz eroan(4) bear izan eben, ondorengo kaizar menperatzailleak eskuetan pintzel edo ixipu aundiak artuta, euren asmakizunezko eritziakaz (5) zelan margoztu eben erri bakotzaren edestia ikusi ebenean, euren eten bako azterkuntz lan ederrakin arrazoi edo egiaren illuntasunak argitu zitezen.

Arritzekoa da, gaiñean ainbeste margo esku emon eta gero, maisu oneik ebaketariak (6) egiten daben antzera, margoaren esku aldi bakotza kontu aundiagaz zati txikerretan erauzita (7) azpikoa ez daiten ondatu, urte askoren ondorioz zelan eldu diran oiñarrizko egira. Gaur erdikusten baiño askoz geiago asi dana, eta emendik aurrera jakintzazko arlo guztietan dagozan almenakaz, gero ta errezago izango dana, eurei esker.

Goazan ba, mundu onen errigizarteak klonezko batzango baten jaurkitu gurean, non eta noren norkerizko asmakuntzarekin asten dira, txandako menperatzaille orreik

(1) Keifätzaille = amenazador. (2) Onbear = indigencia, necesidad. (3) Arno ta Tiber ibai bitartean = Asia Txikerratik etorritakoak ?. (4) Egoarri eroanda = paciencia. (5) Asmakizunezko eritziakaz = euren egiak bakarrik agertu daitezana. (6) Ebaketariak = cirujano. (7) Erauzita = hacer saltar.

ixipuak (1) eskuetan artuta Europako lurak eta errigizartearen NORTASUNAK margotzen bigarren aldiz.

3 ZATIA.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak, latiñaren jaiotza eta Erromatarrak.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.
5. Godo'ak.
6. Erdi-Mende au, Mauritarrek artean dirala.
7. Erdi Mende onetan, Eleiza Katolikoaren nausitasuna.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamenak.

Lenengo zatian ikusi dogu, zelan menperatasunaren asmokoak, nai ta Asian eta Afrikan, leiñuen errigizarteakaz, len-izkuntzak eta toki izenak naspiltzen ibili.

Maltzurrezko asmakizun orreitan garaipenduta egon arren, errigizarteak morroitzeko eta izen tokiak aienatzeko (2), ez dabela oldozmeneko ustean indar geiegirik euki, JAUNGOIKOAK BEREN BEREZTASUNEZKO LEGE bidez bizitzari emon eutson "BAITA" (3), nastu bai, baiña ezereztu ezin dabelako egin.

Leen: Mundu oneitan jaioten dan guztia, oiñarrizko "BAITA" orreitan jaiota, aurrekotasunezko (4) almen orregaz, errez oartu edo konturatzen gara, "NORTASUNEZKO BAITAREN" aurka dirala norkeriaren asmakizunezko alegin guzti orreik, Izadi onek daukazan berezko eskubide guztiak zapalduz, euren sasi asmakizunetan indartzeko.

EUSKALERRIA da, Omo Sapiens sortu zanetik, Paleolitiko Neolitikoaren bitartean lortu zan jendekuntzazko Jakin Demokratiko ederraren ikusbegi edo "AITORLARI".

Gai al izango ete dira, ezereztuteko ?. Ez dot usten: "JAINKOA LAGUN, EUSKALDUNAK GURA EZ BA DOGU".

Emen bearrezkoa da aipatzea, ARANATAR SABINOK, ARANTZADITAR INGARTZIRI (5) 1.901ean Urtarrillaren 5eko eskutitzan esaten eutsona: "JAUNGOIKOA IZANGO ETEDA BA GURA EZ DABENA, GURE EUSKALERRI MAITE AU SUNTSITU EZ DAGIAN ?.

Bigarren: Mundu fisiko oneitan, gizartearen belaun aldiko etorkizunean, ekintzak jakintzazko azturan sendo oituratzen ba dira eta sinismenean ikasitakoak berbeagaz mugatu, izendutako toki eta errigizartearen ekanduzko gauzak, nekez aienatu egiten dira, Munduan Euskal toki izenari eta Euskalerriri sortzen jakon lez.

(1) Ixipuak = brochas. (2) Izen tokiak aienatzeko = anular, revocar. (3) Baita = conciencia. (4) Aurrekotasun = precedencia. (5) Aranzaditar Ingartziri = "Kizkitza".

Zentzuzko aztarna ugari geratzen diranean ez gaitzen aitzu milla urte askotan ikusitakoakaz. Ez eta non ebatzeko elduleku ugariakaz, naaspiltzen garanean edo egiten gaitunean, argi zabalera argitu gaitzen.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(VII)

2. Erromatarren sarrera.

Bigarren zatian ikusi dogu, zelan Sumerian jendekuntzazko jakintza sendotzen joan zanetik, edozein kaizertzaren maldaberan, gora egiten eben kaizar barriak, egoan jakitzazko jendekuntz ori bereganatu egiten ebala, eta berakadarik ez edin egon Grezia ta Mauritarrek egin eben antzera, aurreko Demokraziaren bide zar oituran aleginduta, edertu egin ebela, azturazko jakin egarriak ordezkutzen joan ziralako.

Ez zan gertatu bardiñ Erromatarraz gero ikusiko dogun lez, oneik asierazko errepublika on baten jaurkintzatik (1), oso osoan, amaitu ezin dan sasi norkeriaren leize zuloan jausi ziralako.

Eta euren maldaberan indartzeko, beste batzuen erlijiozko eritziekin alkartuta, gaur lokatzazko sasi-norkeri orreitan gagoz zikinduta urten ezinik.

3. Etruskoak, Latiñaren jaiotza eta Erromatarrak.

Etruskoak bideratuta, Erromatar asmakuntzaren sorraldia K.a. 753tik 510era egin eben, Sabino ta Iszeresakaz alkartuta.

Etruskoen jakintza aundian, Latiña sortzeko len asmakizuna, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibilgaillua izateko egin ebela. Griegoaren laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, elerti arauzko izkuntz aundi bat biurtuta geratu zan, gure gaurko egunerarte.

Erromako Iria, Romulo irasi ebala K.a. 753-716 urte bitartetan esaten dabe, eta urrengo 715an Ponpiliotar Numak Erromako erregetza artu eta beste sei errege iraun ondoren, 510ean Tarkinotar Luzio “arroputz” deritxonagaz amaitu zan lenengo ekitaldi au, arrezkerotik errepublikako jaurkintzara aldatuta.

Etruskoak lenengoetan oso jarduntsu (2) ibili ziran, askatasuneko asmakizun orreri zentzunezko itxura emon naian, eta Griegoen izkitegia artuta, euren arteko izkuntz bat eraberritzen ibili ziran Latiñezko iztegia lortu arte. Gero mundu osoan zabaldu ebena.

K.a. 509an Erromatarrak, Etruskoen gurasordetik askatu ziranean eta Errepublikaren jaurkintza sortu, urtero aukeratzen eben lege gizon bien aginduan ezarri ziran. Pretorak ziran auek, gero kontzul deituko ziranak, eta euren jaurkintzazko ekintza, lengo erregeak egiten eban antzekoa zan.

Errepublikako leenengo denboretan, sendi aberatsen aundikiak edo gurasoak

(1) Nai ta neurri aundi baten jaurkintzazko asmakuntz onekin eginda be, menpekotasunezkoa izan zalako. (2) Jarduntsu = atareados.

senatore batzarretan batuta, izan ziran Uriaren jaurkintzan agindu leikenak, jabe bide ori, bizi guztirako izaten zana.

K.a. 240 urte ingurutan asi ziran erromatarren arazoak, erriaren bemaillako sendi oso aberats batzuk beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko, errigurasoen (1) sendiakaz alkartu ziranean,.

Ekintza orren ereduz jaurkintza guztia euren eskuetan egonda, andi mandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin beste, euren arbasoak goimaillan lortu ebezan oiturazko ekanduak, neurri aundi baten galduta.

Eta orren ondorio bidez, berezko baserritarrak aienatu ziran, lur zabaleko etxagunak, mendeko joputasunean (2) agertu ziralako.

K.a. 106an Erroma, Kaiotar Mario eta K.a. 27ko urtean Oktabiotar Augustorekin, gudaloztearen indarrezko antolamenduan izen aundia artuta, kaizergotzan edo aginzalekerizko (3) jaurkintzan ezarri zan.

K.o. 306an I Konstatinok Erromako kaizertzara igon ebanean eta euren asmakisunezko elburuak indarra galtzen asi zirala ikusi ondoren, orduko denboran EKANDU arloan berrikuntza andia ekarten ebana eta eten bako ekiñaldian indartuz gorantza joan ziran Kristau indarrak alkartu gura ebazan, Erromatar kaizertza indartuta iraun egien.

Eta orduko denboran eriotzeraiño eizatu ta aizatuta (4) egon ziran kristau eritziko gizarteak, Galenok 311n Sardikako legearen bidez, Kristau jai arauak askatzeko eskatuta eta Konstantinok 313an Milaneko agindua emonda, Baleriok baieztuta askatu ebazan.

324an, I Konstantino geratu zan erromatarren Mendebal eta Ekialdeko kaizergoetan agintari bakar lez.

325ean, Nizeako eleiz batzarra ospatzea agindu eben I Konstantino eta I Silbestre Aita Santuak, eta katolikotasunezko izen barriagaz antolatuta, or alkartu eben erromatar kaizertza eta Kristau ekanduzko barriaren eritziak, munduko gizasemeak kaizar eta Aita Santuaren aginpean iraun egian.

337an gertatu zan I Konstantinoren eriotza, ostean erritarren gudak sortuaz.

II Konstantino (5) guda orreitan garaipenduta, 351an kaizar aulkira igon eban eta Mendebal ta Ekialdeko kaizertzak bateratu ebazan.

363an Flabio ta Klaudiotar Juliano, zifi ukatzaille (6) deritxona ezarri zan kaizar aulkian, 364an Persak menperatuta.

Eta Mendebaleko Erromatarren kaizargotzan azken ezarri zana 384? 395-423rarte Flabiotar Onorio izan zan. Nai ta Erromatar Ekialdeko kaizargotza (7), 1.453ko urterarte iraun, areik eta Turkoagaitik menperatuta geratu arte.

Eta 423an erromatarren Mendebaleko kaizertza jausi zanetik, Erromari emoten jako asiera, Aita Santuaren bizi leku eta kristau katolikotasunezko zilborra izan edin, Europaren aolkulari nagusi lez geratuta.

Emendik aurrera eta Erroma saskildu ondoren, 410ean I Alarikogaz asita, Godoak sartzen dira kaizargotzaren jokoan.

(1) Erri gurasoen = patricios. (2) Mendeko joputasunean = esclavismo. (3) Agin zalekerizko = imperialismo. (4) Eizatu ta aizatuta = acosar, acorralar y darles caza hasta la muerte. (5) 331-363. (6) Zifi ukatzaille = apostata, renegado. (7) Bizanzioko kaizertzari deritxona.

4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

Kristautasuna katoliko alderdikidetu zantetik ona ezartzen dira okerreko erabagi aundiak, edestian zear etenbako goraldian zifieskintza arauz gogortzen joan zirenak eta oraindiño ezin doguzenak lepotik kendu, berezko errigizarte ta izkuntzaren eskubideai ainbeste kalte egiten dautsezan norkeriaren guzurrezko arrazoikeri orreik.

4.1. Konstantinok 325n urtean eta bere agindupean.

I San Silbestre Aita Santuak Kordobako Osio gotzaiña ⁽¹⁾ bere orde z joan zeiten deituta eta beragaz Bito ta Bizente apaizak joan da, 325ean Nizeako I Eleiz Batzar Nagusia batu zan.

Bertan Arrianoren irakaspidetza baztartuz eta Zesareako ⁽²⁾ Eusebiok siñesteko idatzi eban Kredoa on artuta, katolikotasunezko eritzi barri au aukeratu zan.

Ekitaldi au, ez dogu galdu bear gure ikusmenetik, gero Godoen VIIn gizaldian Toledoko Eleiz Batzar Nagusian eta XVIgarrenean errege katolikoarekin zer gertatu zana jakiteko.

Konstantinok urrengo urtean: "Izadi oneitan JAINKOA eta Mundu onen giza bitartean ordezkari legeak zuzentasunezko bidean ezartzeko, solaskide bakarrak ⁽³⁾, Kaizertza eta Eleizaren Aita Santuengan egoala jabetasuna" erabagi eben.

Eta ortik aurrera, euren batzangotasunezko agindupean Munduko gizarte guztia eritzi orreitan sartu naian, asi ziran arrokeri aundiz ziñeskintzazko agindu gogorraz ⁽⁴⁾, JAINKOAK GAIARI ipinitako BEREZKO LEGE guztiak naastuten.

Erabagi au artu zanean, erromatarrak asieratik eta ariñago Zesar Augustorekin batez be, Mundu onetan erregetza bakarra egiteko asmakuntza indartu zan, Eleizari aolkularitzazko eskubide aundiak emonda.

4.2. Erromatarrak Europara ekarri ebena.

Erromatarrak, gudalari edo borrokalaria aundiak izan ba ziran be, sekula ez ziran izan erri bat eskolatzeko gai.

Eginda egoten zana edo ta ibili ziran erri guztietatik egon zan baliozko mozkin guztia eurentzat artzen eben, erritarrak galazota.

Legedi arloetan ausartak izan ba ziran be, euren menperatzaille asmakizunezko eritzian eginda egon ziran danak. Eta ori izan zan Erromatar Bakea ?

Grezia, erromatarren bultzadagaitik menperatuta geratu zan gudalozte eta politika arloan.

Greziatarrak, Euskalerraren lurraldeko batzar nagusien antzera, sekula ez eben artu nazioaren izena, eurak gogoan euki ebalako, Ludi onen berezitasunezko LEGE indarrak zelan jokatzen daben gizaren Berezko Nortasunetan, eta mailla aundiko ulermena lortu eben jakintza orreitan.

(1) Osio Gotzaiña, 257an ? Kordoban jaio eta 357an Panoniako Sirmionen il zana. Kordobako Gotzaiña eta Konstantinoren aolkulari zana Arrianismoa bastartu dagian eta Nizeara Aita Santu I San Silbestre orde z joan zana Bito ta Bizente apaizaren laguntzan. (2) Cesarea. (3) Solaskide bakarrak = únicos interlocutores válidos entre Dios y los hombres (4) Maixukerizko Dogma arauz (dogmatikamente) batzangotu baiño, dana banandu ez dabena besterik egin.

Euki eben antolamenduzko jaurkintza itzarmenekoa edo elkargokoa izan zalako, danon Nortasunezko ardurak jaurkintz zaintzeko, Laterrizko Uritik gora sekula ez ziran joan.

Denbora aietan eta gaur, berezko antolakuntzatik kanpo, Euskalerrriaren lurraldeko batzarrak eta Griegoaren elkartasunak ez eban geiagorik bear.

Erromatarrak katolikotasunagaz indartuta, euren menperatzailletasunezko asmakisunakaz, danok banaka JAINKOARI begira eta erritartuta euki genduzan Nortasunaren ordezkartzeko ardurak antolatuta, odolkeriz ezereztuteko alegiñean, zirriborrotu baiño ez egin eben.

Orregaitik, Greziatarrak gai lez menperatuta geratu ba ziran be, erromatarrak euki eben bemaillako edo zentzungabeaundikerizko ulermena, beti egon bear izan eben Greziak bizi oneri emon eutson adierazpeneko ulermenaren mende, zentzun aundiko jakintzan kokatuta egon ziralako.

Erromatarren arrokerizko asmakuntz orreikaz, beti sortzen dira eztabaidak gauza bien artean aukeratu bear dogunean: "Gai onetan sasijainkotasunean aundiak izan, ala JAINKOAK Ludi oneri erperatuteko LEGEAN ondo adierazpendutako lotsagizunean bizi.

Leenengoa artu eben, eta asmakuntz orregaz gudalozteak indar aundiko antolamenduan eraikita, Munduko lurak eta gizarte guztiak menperatzen asi ziran, danok, euren errege ta eurak asmatutako jainkoen agindupean egon gindezan.

Andik oraiñarte katolikotasunezko alderdikieran sendotuta, bidean aurkitu eben indar guztia, nai berezko edo egindakua izan, indarrez eta amarrukerizko "VENI, VIDI, VICI" jokoagaz, euki eben asmoa betirako izango zala uste eben.

Zertarako, dan guztiaren erantzukizunezko ardurak asmatutako iraspen (1) edo eta esku bateko agindupean batuta, danon ordezkoko arduraren lanak eurak beteteko ?.

Ezinezkoa da ori. Danok, ordezkoko ardura orreik, gizartearen zentzunezko antolamendu on baten ordezkatzeko jaiotzen garalako.

Baiña antza, Ludi onentzako EGILLEAREN asmakuntzazko agindua ez dalako ori, nora bideko naaste borrhaste baten agertu gara, nai erri lez, bai izkuntz lez.

Zergaitik ? : Izkuntzak eta erriak euren Nortasunezko Berezkotasunean diralako tresneri ederrenak JAINKOARI ulertzeko eta beren agindua EKANDUZ ta OREKAN zaintzeko, zentzunezko eta danon arduraren antolamenduzko ekintza on baten.

Asmakerizko ekintza orreik asken baten izan ziran, len eta gaur erromatarren eta katolikotasunaren amets ta indar guztiak suntsitu ebazanak, gizon emakumeai olako eritzi bidetik, gaitzberako baitan (2) kokatzen gaitulako.

Gaur, European eta EUSKALERRIAN batez be, oraindiño daukaguz gure artean fazista indar orreik, zentzunezko arrazoia ez dabena izten bere lekuan kokatu daiten.

Baiña uste dot denbora gitxirako izango dala: "JAINKOAREN BEREZTASUNEZKO LEGE aurrean, euren maltzurreko guzurrak nabaritasun guztiagaz suntsitzen (3) diralako".

Ala, Munduan beste irugarren odolkerizko sarraski aundi bat egin, antolakuntzak len maltzurrezko asmakizunetara eroateko ?. Ori zan, Munduko bigarren guda

(1) Iraspen = institución. (2) Gaitzberako-baitan = presos de un ostracismo vicioso. (3) Suntsitzen = desaparecer, disiparse.

nagusian sortu zana.

Aukera ori be ezinezkoa biurtu jaku, iñorentzat ez dalako egongo urten biderik.

A ta guzti, gaur Munduko gizartea artegatzeko daukien aukera bakarra, diruan dago. Ostondu edo eta beren bideak moztuta, errigizarteari irauzi edo errotik atara (1) egiten dautselako, guztiz noraezean urduri kokatuta.

Luzaro ?. Aukera orreik be, epe laburra daukie, Mundu ta onen gizartearen BAITA, lenago beren bakezko lekuan kokatzera joango dalako.

Ori da arrazoi aundiena, gaur iñork ez dagian izkillurik erabili eta askoz gitxiago gure EUSKALERRIAN.

5. Godoak.

Godoak ez eben denborarik, erromatarren ereduazko alegiñean euki ebezan kaizertzazko asmakizunak sendo ezartzeko, eta Europa osoan denbora guztia, borrokan baiño ez emon eben.

Ardura aundiz ebena, Ekialdeko erromatar Arkadioren seme II Teodosio kaizertzak (2) argitaratu eban "Teodosioren lege bilduma" eta I Justinianok (3) beren "Corpus juri civilis" (4) batu eben antzera, II Alarikogandik asi ta 506n urtean, Romana Bisigotorun (5) legearen laburpena argitaratu eban Mendebaleko bisigodo guztientzat.

Leobijildo (6) konturatu zan, erromatarren antzera, katoliko Kristau alderdian egoala aukera bakarra euren sasi-mende asmakizunakaz aurrera irauteko eta beren seme Rekaredo limurtu eban Arrianismoa baztatu egian eta katolikotasuna besarkatuta indartuz, euki ebazan elburuak garaitu egiazan.

I Rekaredok (7), 587an Arrianismoa baztartzuta eta 589an katolikotasuna besarkatu ondoren, Toledoko IIIgarren Eleiz Batzar Nagusia batu eban bere agindupean eta ortze emon eutson indarra ostera be, erromatarrek, Mundu onentzako errege ta katolikotasunezko ekandu bakarra euki eben asmakuntzari, eta ortik aurrera gaur arte Toledo, kaizartzazko Iri lez ezartzeko.

Europaren Mendebal guztiko agintaritzak ortik aurrera, sortu edo eta egingo ziran jaurkintzazko antolamenduak, iru baldintza oneikaz beartuta geratu zan: "Greziaren jakituria, Erromatarren Legea eta Eleizaren Katolikotasuna".

Berez ezin leike iñondik iñora eskondu, Greziaren jakiturizko Demokrazia ezin leikelako bateratu beste biekaz, oldozmeneko eritzian guztiz aurkakoak izan da, Askatasunaren Demokrazia ezin dalako Menperatzailletasunaren asmakuntzazko ekintzakaz zorro edo zaku bardin baten sartu.

Godoak, len Arriaren eritzian eta gero erromatar katoliko asmakizunakaz aurrera eginda, beti borrokan ibili ziran eta Euskaldun Demokraziko zentzuagaz batez be.

Aukeratzen zan euren errege barri bakoza jauralkian ezarri orduko, beti beartuta egon ziran esaten: "ET DOMUIT VASCONES". Guzurra utsa izan zana.

Esan oneri Aita Santiago Onaindiak eta Olazartar Martinek erantsunez, batera esango eben: "LUJURIA EXUBERANTE".

(1) Errotik atara = desencajar, desquiciar. (2) 401-450. (3) 483-565. (4) Corpus juri civilis = código Justiniano. (5) Romana-visigotorun = breviario de Arriano. (6) 568-586. (7) 516-601.

711an Mauritarrak etorrita, godoak suntsitu ziran, baiña asmakizun orreik Pelayok Asturiasera eroanda (1), andik eta katolikotasun bidetik asiko zan ostera be erdi ugarte onetan beren berrezkuntza eta 800 urte geroago (2) ekiñaldi gogorrean asi, mendeko eritzi orreik lortzeko.

6. Erdi Mende au, Mauritarrak artean dirala.

Edestiaren jakintza antolamenduta egokitzeko, Erdi Mendeari deitzen jako: 476an Godoak Erromatarren Mendebaleko kaizertza ezereztu ebenetik, Turkoak 1.453an, Konstatinopla menperatu eben arteko aldiari.

Edo ta erromatarrak suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola (3), irarritzeko papera (4), bolbora edo lerrautsa (5), itsas orratza (6), itsas ontzientzako mugikor oialaren asmaketak lortuta, Amerika agerketaren ondorioz lurralde nagusi bietan asi ziran itsas billaketararte.

Bai, pizkunde (7) edo ta Eleizak Luterotar Martinekin asita euki ebazan berrikuntzazko (8) arazo aldiak deritson arte.

Goiko ta beko Mende Aldietan banatzen da Erdi Mende au, leenengo gizaldiak goikoarenak esaten jakozenak eta bealdekoak askenekoari.

Goian ikusi dogun lez, esan leike Metal aldi edo Arotik aurrerantzean, Sargonon gandik asita, jendekuntzazko jakiturian (9) garaipentzen zanak, eskubidea ta indarra eukala besteak menperatzeko eta alan sortu ziran Siria, Ejipto, Greziatik zear, Mauritarren garaieraiño.

Onen asiera K.a. 1.000 urte gitxi gora bera sortu zan.

Onek be bardiñ gura eben egin, baiña artean Erromatarrak K.a. 753 urte ariñago jαιο ziran eta K.o. 325ean Konstantino I San Silbestre Aita Santuarekin batera Nizeako batzarrean beste zeaztasunezko eritzi bat emon eutsen mugi aldi oneri Mundu guztia kaizar eta Aita Santu baten agindupean batzangotzeko.

Ortik aurrera gaur arte, ikaragarrizko lasterketa bat izan da, JAUNGOIKOAK Ludi oneri Bereztutako (10) LEGEAren aurka.

Mauritarrak 711n urtean Europara sartu ziranetik, euren asmakizuna garaitzeko, antolamenduzko guda indar aundiekin asi ziran, baiña ikusi dogun lez, Poitiersera elduta Marteltar Karlosek geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon, eta euren 781eko urtetan gure artean egonda, XIn gizaldian berakadan asita, 1.492an Granadako menperatasunezko itunerarte iraun eben.

Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

Euren izkuntza ezarri naian, toki izenak be alegindu ziran aldatzen, adibidez: Guadalajara ibaiaren leen edo Euskerazko izena ARRIAKA edo ARRIAGA izan zana, eurak GUAD ILHIJIARAH (11) esangura bardiña daukan izena ipini eutsoen eta gaur bertatik datorren Guadalajara izenagaz geratu zan.

(1) Alan diñue. (2) 1.453. (3) Irarkola = imprenta. (4) Irarritzeko papera = papel para imprimir. (5) Lerrautsa = polvora. (6) Itsas-orratza = brujula. (7) Pizkunde = renacimiento. (8) Berrizkuntzazko = reforma. (9) Jakiturian = civilizaciòn. (10) Bereztutako = naturalizado. (11) Guad Ilhijarah = arriaren erreka esangura dauana.

Atutxatar Paul, Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(VIII)

7. Erdi Mende onetan, Eleiza Katolikoaren nausitasuna.

Erromatarren menderatzeak amaitu ziranean, Europan, Aita Santuak Nizeatik euki eben gogoaren eta aldizko uts ezintasun (1) siniskai bidetik, Eleiza katolikua agertu zan errigizarteak alkarganetzako, eta jakintzan jendekuntzatzeko danon gaiñetik aolkuaren agintaritzazko indar nagusienetarikoan ezarrita, bereala bete ziran Europako lurralde guztiak baseliza, eliza edo jauretxe ta Gotzai Elizarekin (2).

Gero, erlijioa irakatsiz, Europako lurralde zabala latin jendekuntzan ezarri ebana, eta orduan egoan erlijiozko Kristau sugar edo irakiñaldi erri ta errigizarteetan susmatu edo igarritzeko, ez dago bezterik, katolikotasun jardueran (3) egin ziran gurutz gudaldiak eta Eleiz epaiketetan (4) banatzen ebazan zigorrak ikusi baiño.

Frantziako lurraldean Klodobeok (5), Merobinjio leiñua sortu ebenetik eta Kristautasuna besarkatu ondoren, euren etxezain (6) eta gero errege izango zan Marteltar Karlosek, 732an Mauritarrak Tours eta Poitiersen geratu ebazan, ekintza orregaz Europako Katolikotasuna galbidetik gorde egin ebana.

Bere seme Pipino (7), edestirako “laburra” izendatuta geratuko zana eta Karlo Magnoren aita, 751an Karolinjioaren leiñua sortu ondoren 800n urtean, IIIen Leon Aita Santuak Karlo Magnori (8) Gabon egunerako Erromako San Pedro eleizara deituta, Mendebaleko Erromatar Kaizar Sakratuaren Augusto Kaizar jauna koroatu eban. Ortik asiera emonda ostera be, zoritzarreko erromatar menpekotasunaren asmakuntza orreri.

962an XIIen Juan Aita Santuak Alemaniako I Oton aundia (9), Europaren erdiko aldea, Italiako iru zatitik bi eta Frantziaren Ekialdeko Erromatar Kaizar Sakratua izendatu ondoren, 963an euren arteko gora beragaitik ez ziralako konpontzen, Otonek XIIen Juan kendu eben beren jauralkitik eta VIII Leon ezarri eban.

Txekoslobakiaren errege I Boleslaok (10) onartu egin bear izan eban Erromatar Kaizar Sakratuaren naguzitasunezko menpetasuna eta abar.

Gero I Maximiliano (11), I Karlosen aitite eta II Maximiliano (12), I Karlosen (13) anaia Alemaniako I Fernandoren (14) semea zana be, Erromako Kaizar Sakratuak koroatuak izan ziran.

Kontuan artu bear dira, 1.516an I Karlos Espainako errege izendatu eta 1.519an Alemaniako kaizar V Karlosen izenarekin egin ebanean, Frantziako I Franzizkoren

(1) Gogoaren uts ezintasun = infalibilidad. (2) Gotzai Eleiza = catedral. (3) Jarduera = proceder, comportamiento. (4) Eleiz epaiketetan = autos de fe. (5) 481-511. (6) Etxe zain = mayordomo. (7) 715-768. (8) 742-814. (9) 912-973. (10) 935-976. (11) 1.459-1519. (12) 1.527-1.576. (13) 1.500-1.558. (14) 1.503-1.564.

aurka euki ebazan Europaren lau guda nagusiak, Aita Santuak euren buru gaitan dindilizka euki eben Erromatar kaizar Sakratuzko domiña aundi ori nork eroan egian Europaren Mendebal onetan:

1^a = 1.521-1.526. (1); 2^a = 1.526-1.529 eta urte onen bitartean I Karlosek, VII Klemente Aita Santua I Frantzizkorekin kidetuta egon zalako, Erromari erasotu ta saskildu ondoren, I Karlos Aita Santuaren atzetik arrapaka ibilita, onek Sant Angeloko gazteluan ostondu bear izan eban, eta 1.530ean VIIen Klemente Aita Santuak Espainako I Karlos ta Alemaniako Vna, Erromako kaizar sakratua izendatu ebala.

3^a = 1.535-1.538 eta 4^a = 1.542-1.544 Nizako bake une edo gudu arte, eta Krespiren bakean amaitu ziranak, eta abar.

Eta kontu aundiagoan, Errusiaren askeneko mugatik Atlant Itsasoraiño eta Noruegatik Afrikaraiño (2), nai ta batzuk beranduago egin arren Kristiñaukide izan da, 325ean katolikotasunaren indarrezko alderdikeria sortu zanetik, 622an lenengo banaketa andia Islam sortutakoan euki ebala, eta Europaren errigizarte asko beartuta, Kristau egin zirala.

Emen esan bear dogu, JAUNGOIKOAREN agindua ez dala mende zaleak egiten daben antzera, bizitz onen bidean landara lez sortzen diran Nortasunezko lora ederrak deuseztutea. Gure arbasoak, BERA ta BEREN BEREZTUTAKO LEGEARI begira adierazpen ederrena emonda, lortu eben Izkuntzazko Nortasunak suntsitzeko, ezin dabelako JAINKOAREN agindurik eroan.

JAINKOAK, batzagotasunaren elburua be ipini euskun, baiña ez mendeko ekintzaren bide. Gure ARIMAK, arrazoizko BAITAREN ulermenean eragille eginda, gai ta gizaren eskubideak ordezko arduran zaintzera beartuta dagoz, arrazoiaren ulermenetik, NORTASUNEZKO ulermenera eldu gindezan.

Sargonetik asi ta, Erromatar Kaizar Sakratu asmakizunaren atzean ibili ziranak, ondo baiño obeto jakin eben, ez zirala JAUNGOIKOAREN gauzak, sasi agintaritzarenak baizik. JESUSEK, beste gauza batzuk esan euskuzalako.

Eta ikusi dogun lez, euren artean, ondo baiño obeto jakin ebala, erabilten ebana norkeriaren gauzak zirala, sasi garaipenaren atzean ibilita Aita-Santuaren uts ezintasuna be, ez ebalako kontuan artzen.

Begitu bestela erlijiozko sinismenean euki eben ulermena, Frantziako erregetza gure Nafartar IIIen Enrikeren eskuetara aukeratu zanean esan ebenagaz.

Kontuan euki, Nafarroako erregea, 1.527an II Enrike Frantziaren Angulemako Margaritagaz (3) eskondu zan ezkeroztik, katolikotasunezko erlijioaren aurka, Kristau ukalarien (4) erlijiozkoak zirela. 1.560an Nafarroako III Juana erregiñak onartu ebenetik 1.567an legeztu ebana.

1.593an, Nafarroako III Enrike erregeari Frantziako errege izateko aukera ori, baldintza onegaz agertu jakon: “Kalbinoren ukalaritzatik (5) alde edo ukatu egiela eta katolikotasuna besarkatu”.

Bere erantzuna: “PARISEK, MEZA BAT MEREZI EBALA” esan ondoren, 1.594an Otsaillaren 27an Frantziako errege koroatu eben, IVn Enrike izenagaz (6).

(1) 1.525an Pabiako borrokan, Urbietatar Juan bizkaitar gudariak I Franzizko arrapatu eban, eta I Karlosek atxilotu. (3) Angulemako Margarita, Frantziako I Frantzizkoren arreba zanak, kontuan artuta, berak ez cutsela katolikotasunari ukorik egin, eta orreri ezker II Enrike bere zenarra iltzetik askatu eban. (4) Ukalarien = protestantes. (5) Ukalaritzatik = protestantismo. (6) Nai ta berak erantzun ori, emon ez.

Orduko Munduan eta Europako errigizarteak batez be, gogorkeri orren griñapean (7) bakarrik ez bizi bear izan eben, batzangotasunaren asmakizun ori kontrolatzeko, aitor seme andiki edo galdukerizko feudoaren legepeko (8) premiñaz (9) gain, uzurri edo elderri (10) ugari artean bizi bear izan ebalako.

Negargarrizko ikustea da, zelan katolikotasunak norkerizko batzangotasunaren asmakuntz ori aurrera erodateko, kaizar domiña aundi ori errege guztien buru gaiñean dindilizka ipinita indartsuenak artu egian, European Kristiñau erlijioa eskuetan panpa bitxi (1) edo panpa (2) bat lez ibilita, egin ziran odolkerizko sarraskiak.

Pozgarritasunezko egia da baiña, jakintza len lekaidetxetan babestu egin zana eta gero Bolonia, Padua, Paris eta abarreko Ikastetxe Nagusietan eskolastikazko eraman onaren (3) zentzua sendotzen joan zala.

Eta geien, Akinotar Tomas Santuak (4), Kristautasunezko zentzua, Aristoteles eraman-ona irizpidearen bereketagaz (5) maixutasun aundiz bat egin ebana. Nai ta berak, bere azkeneko denboratan zalantza asko euki, bere idazkietan zeruko izkutasunari ez ebalako jakin, bear eban lez, egokitasunik emon.

Orduko "eraman-onaren" (6) zirriborro orren barruari, argitasun aundiak emon eutsezelako.

4. ZATIA.

1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian, errege jaun sorkuntzaren sarrera.
 1. 1. Euskalerrian Jaun-erregearen sorkuntza.
 1. 2. Gure Nafar erregetza.
 1. 3. Bizkaiko jauntza.
2. 1.540 1.550en Erdi Mendeko urtetik Oraingo Aldira, edo ta Berrizte Alditik (7) Frantzian 1.789an egin zan iraulketatik gaur arte.
3. EUSKEREAK Euskalerrinari, zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?.
4. **EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.**

1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian, jaun eta erregetzaren, sarrera.

Sarrera.

Orañarteko edestilari geienak, etorkizunezko errigizartearen edestiak eurak gura (8) daben argitan ezarri egiezan, Europa eta Euskalerriko arbasoen ulermenak zelako zentzuagaz jokatu eben esateko: "Beti izan dira, edestian etorri dan erromatar batzangotasunezko asmakizun mende orregaz zikinduta, berezko errigiarteak ezerezko kontuan euki barik eta norkerietan dabizenai lagunduz, daukiezan sasi garaipenaren egarriak iraun dagien".

Espainolak adibidez, beti agertzen dabe, euren errege ta izkuntza (9) betikoak edo ta danok espainolak izan bagiñan balitz bezala. Egia baiña, ortik urrun dago.

(1) Panpa bitxi = marioneta, titere. (2) Panpa = muñeco. (3) Eskolastikazko eraman ona = filosofia escolastica, escolasticismo. (4) Akinotar Tomas Santua = 1.225ean Italiako Rokkasekan, Kanpaniako Akinoren aldamenen dagoena jai, eta 1.274an, Fossanobako zizter lekaidetxean il. (5) "Bereketa" = Asimilación. "Irizpide" = Critica de la filosofia del aristotelismo. (6) Eraman oneko = filosofia. (7) Berrizte alditik = desde la filosofia. (8) Edo beartuta. (9) Izkuntz ori Espainol ez dana, Gazteleraizko latin kumea baiño. Eta, ZER da ESPAINA ?.

Orregaitik, Euskalerrriaren edestia eta Euskal izkuntza berezko nortasunaren zentzu aundia geienetan utzikeriz (1) betean: "Mendekotasunean (2) bizi izan garela beti" esaten dabe.

Zelan ulertu leike ori, gure Euskerearen nortasun demokrazizko askatasunean bizi bizi gagozanean, eta eurak "nortzuk diran jakin gabe?".

1.1. Euskalerrrian, Jaun-erregearen sorkuntza:

Euskalerrriko lurraldeak, euren batzarreko nagusitasunean antolatuz jaurkintzen ziran, eta batzar nagusi orrean agintaritzak mugarik ez ebalu euki adierazteko, Jaunak Bizkaiko jaurkintzaren antolarazirako, zelako baldintzakaz aukeratzen ziran argituko dodaz.

Europa guztian, baiña Euskalerrrian batez be, errege jauntzak aukeratzen ziranean, erriak iru gauzatarako artzen ebazan: A) guda buru izateko; B) zuzenbidearen buru nagusia izateko eta D) Bizkaiko ondore aundiko lurraldeak zaintzeko.

Jauntza, ain zabaleko almen eta ondasun orrekaz jantzi ba eben, bere buruzagitasuna, lasaitasunezko jaurkintzan iraun egian izaten zan.

Eta kontu aundian artuta berea ez zala ezer, bere antolarazian (3) babesteko eukin guztia, Bizkaitarrak emonekua zalako.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko: "Erabagitasunean apur bat"; Beste apur bar "Egilletasunean" eta beste ataltxo bat "Legegilletasunean" bakarrik emoten eutsoen.

Alderantziz baiña: Batzordea beartuta geratzen zan, jaun edo erregeak bere antolarazian gure arteko bakeak lortzeko, edo ta baten bat indarka sartzen zanean kanporatzeko borrokatu bear ebenean, euki eben gudaloztea, gure guda mutillakaz bear eben neurrian indartu bear ebelako. Jaunaren antolarazi barruan bakeak lortzeko izaten zanean ordeko soldataren diru ordaintza barik, eta ariñautik ordainduta, etxetik kanpo izaten ziranerako.

Jaun edo erregearen baldintza au, nai European ta Euskalerrriaren askatasunerako, txeberazko sare aundi bat biurtu jakun, Euskaldunak ortik aurrera anai arteko borrokan ibili garalako beti.

Jaun erregeak, bategaz edo besteagaz borrokatzen ibiltzen zanean, bai beren maltzurkerizko andikeriaren billa ibilita, adibidez: II Juan (4) eta beren seme Fernando katolikuak Nafarroagaz geratzeko ibili ziranean, anai arteko guda izanez gain, Aita Santua Europako aolkulari nagusi lez, erlijioagaz naste andiak egin ziran.

Zergaitik?: Europa eta Euskalerrriaren askatasunarentzat batez be, eleiza katolikoaren alderdikeriak itxura gabatuan (5) ekarte eban txeberazko sare aundia: "Mundua latinez batzangotzeko kaizar ta Aita Santu baten agindupeko jaurkintzaren asmakuntza" (6), "GREZIAREN JAKINTZAGAZ" bat egin ebalako.

Aita Santuak "Erromatar kaizar sakratuzko katolikotasunaren kaizar domiña andi ori", errege katoliko guztien buru gaithean dangilizka ipinten eban indartsuenak artu

(1) Utzikeriz = lleno de omisiones. (2) Mendekotasunean = subordinación. (3) Antolarazian = arbitraje. (4) II Juan = Aragoiko ta Nafarroako erregea. (5) Itxura gabatuan = camuflado. (6) Kaizar ta Aita Santu baten agindupeko jaurkintzaren asmakuntza = nacional-catolicismo fascista. Rouko Barelak atzo, nortzuri esan eutsoen faziztak zirela?.

egian, errigizartearen eskubide gaiñetik, asmakuntz gaizto orreik lortzeko.

Greziatarren Jendekuntzazko Jakintz Demokratikoa, naastu leike erromatar menperatzaille kaizar sakratuzko katolikotasunaren legeakaz ?.

EZ ! guztiz aurkakoak (1) diralako.

Alderantziz, naste ori egiñaz, eurak emon euskuen aukera ederrena, euki eben menperatzailletasunezko asmakeri ori, Berezko egiagaz alkar aurkezteko (2).

Eta nai ta egibillaren azterkuntzak oso odoljariozko lazkartasunean etorri izan ba dira be (3), Greziaren jendekuntzazko jakituri demokratikoa artean sartuteagaz, mesede aundiak egin eutsozan Munduari, Berezko egiaren zentzuak argitu zitezten.

Baiña, European eta Euskalerrian batez be, errege jaunak sortu ziranetik gaur arteko edesti guztian, jakintza eta indarra, agintaritzazko nagusitasunak guzurrezko baldintzatan biurtu ebenetik eta maltzur joko orreitan Bereztasunaren egi guztia naspiltzeko alegiñean ibilita: "Berezko erri ta izkuntzak, irten bide barik geratu ziran".

Edestiaren Ekanduzko joko guztia, berezko erri ta Izkuntzaren aurka biurtu eben, berezko erriak eukezan NORTASUNAK desagertu, aienatu edo suntsituta, Mundu oneitan euren sasi jainkotasunezko jopu bildurrean(4) ezarri gindezan.

Gudaren buruzko alegiñean, nor ez da gogoratzen Zezaren "VENI, VIDI, VICI" gaz, Godoen "ET DOMUIT VASCONES" eta Katolikotasunak Nizeatik aurrera Euskerea bastartzeko esaten dauskuenakaz "HABLE USTEN EN CRISTIANO", euren beldurkerizko guzurra ostondu naian edo ain nabaritasunezkoa izan da, norkeriaren indarkeria erakusteko.

Eta bai abar asko be, menperatzaille eritzi orren "LORAK" baiño ez diranak, Berezko Erri ta Izkuntzaren aurka.

Zergaitik ez dabe esaten "HABLE USTED EN KATOLIKO ?". Bildur dira euren menperatzaille maltzur joko argitan agertu izatea ?

Argi dago, lotsabako ollo bustiak dirala "JESUS" en irakaskintza olan zikintzen dabenak, sasi jainkotasunaren asmoz.

Gaiñera, batu edo batzangotu baiño, nai NORTASUNEZKO erri ta izkuntzazko arloetan, milla zati geiagotan birrindu eben.

Munduko eta European edesti guztia, odolkerizko sarrazkintza baten ekarri dabe sasi asmakizun ori dala eta ez dala.

Nortzuk dira ikarabideen (5) izutzaille edo izu-arazleak ? (6).

Ez ete da ordua, zentzunezko aldakuntzan asteko.

Gaiñera ikusita, BEREZKO LEGEAREN indarrak buruaren goi aldian daukaguzela keiñalari, noz iruntsiko momorro aundi baten antzera.

1.2. Gure Napar erregetza.

778-824an Orreagan, Euskaldunak Karlo Magnoren aurka euki genduzan borrokak bi orrein ostean, Banu Kasi sendiaren laguntzagaz, Aritzatar Iñigorekin asi gendun Nafarroako erregetza.

(1) Aurkakoak = antagónicos. (2) Alkar-aurkezteko = cotejar. (3) Odoljariozko lazkartasunean = dureza, aspereza, bastedad. (4) Jopu bildurrean ezarri gindezan = ubicados en el miedo de la esclavitud. (5) Ikarabide = terrorismo. (6) izu arazleak = espantador, amedrentador, terrorista.

Eta 888an, IIIIn Alfonsogaz Paduran ⁽¹⁾ euki gendun borroka odoltsuaren ostetik, Jaun Zuriagaz Bizkaiko jauntza.

Eta Europa guztian, antolakuntzazko jaurkintz orreitan asi giñatetik sartzten gara gaur arte, mendeko eritziakaz BEREZKO IZATASUNAK eta EUSKAL NORTASUNA desagertu egiezan, edesti guztiko borrokan. XXIIn gizaldi oneitan, mendeko okerkuntza guzti erreik konpondu bear dira.

Euskaldunak, Bereztasunaren babeserako, Nortasunezko Izatasunean euki genduzan errege jaunak oso abertzale aundiak izan ziran, baiña txeberazko sare aundi orregaz nai ta nai ez inguratuta.

Nafarroako erregetzan, lenengoetatik asita esan bear da: “Batzangotasun orren asmakuntz bidetik eta European Eleiztarrak Latiña elburu lez gaienduta euki eben aolkularitzazko jabetasunagaz”, Nafartar Jaurkintzan Euskeraz, sekula ez zala idatzi agiri bat, eta latiñez ez ba ziran egiten, naiago latin kume ⁽²⁾ baragarrian. Napar erritarrak ezeren kontuan artu gabe.

Joko orreitan eurentzat gaur lez: “ZER ziran Euskal Nafar erritarrak ?”.

IIIIn Santso Garzez “Aundiak” ⁽³⁾ 1.035an kaizar erregetza, bere lau semeen artean banandu ebenetik, Gaztela eta Aragoitarrak edesti guztian ibili ziran zirikatzen, nork geratuko ete zan Nafartar erregetzagaz.

Eta len, Frantzia ta katolikotasuna bakarrik euki ba eben etsai, Gaztela ta Aragoitarrak asmakizunezko talde orreitan kidetuta, lau bider aundiagotu egin ziran, Nafartarrak aurre egin bear eutsoen zirikatuaren eraso aldiai, gurutzadaren gudak aztu barik, ara be joan bear zalako.

Baita kontuan euki bear da, VIIn Santso “Jakintsuaren” ⁽⁴⁾ jaurkintzan, IIIIn Zelestino Aita Santuak beren berun bulda edo idazkietan, beste erregeari “REX” izenagaz bialtzen ba eutsoezan agiriak, VIIn Santsori, 1.194an Jorraillaren 13ko berun idazkian eta gero urrengo VIIIn Santsori ⁽⁵⁾ bardiñ, dukearen izenagaz bialtzen eutsozala.

VIIIn Santso “Azkarra edo Indartsua” gurutze gudatan ibili zan denboran, ordezko jaurkintzan geratu ziranak okerkeri galantak egin ebazan eta VIIIIn Alfonso gaztelarrak Araba erasotzen ibilita, Euskalerriko lurralde naguziak: lurralde nagusiko Nafar erregetzatik, Araba ta Gipuzkoa 1.200ean eta Bizkaia 1.224an banandu ziran.

I Teobaldok, seigarren gurutz gudaldi ostean ⁽⁶⁾, 1.238an Lur Santuaaren gurutzeko gudaldia bideratu ebela eta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortuta gero, 1.240an itzuli zan.

I Teobaldok 1.246an, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzaiñarekin, Fueroak dirala eta ez dirala euki ebazan estaibada bidetik, onek zalantzan ipini eban Nafar erregetza, eta IVIn Inozensio Aita Santuak lege berezi bat argituz: “Bere baimen barik, iñork ezin leikela Teobaldo eleizatik kanporatu” agertu eban.

Kontu aundian euki bear da, orduko denboratan errege baten bat edozer gauza gaitik elizatik eskomunikatuta kanporatu egiten ba ebela, erregetzazko koroari aske

(1)Padura = borrokaren ostetik Arrigorriaga deituko zana. (2) Latin kume = romance castelano, o, navarro-aragones. (3) IIIIn Santxo Garzez “Aundia” = 965ean jaio, 999-1.035 errege. (4) VIIn Santso “Jakintzua” = 1.128an jaio, 1.150-1.194 errege. (5) VIIIn Santso “Indartsua” = 1.154an jaio, 1.194-1.234 errege. (6) Igo Teobaldo = 1.200ean jaio, 1.234-1.253 Nafarroako errege. VIIn 1.228-1.229, eta VIIIn = 1.248-1.253 Gurutz gudaldietan buru belarri sartuta egoala.

geratzen zala edozein printze katoliko artu egian, Aita Santuaren baimen guztiak eukinda erreñu ori guda indarrez artzeko.

IIn Karlos "TXAR" deritson erregetzan ⁽¹⁾, 1.348ko Iraillan, izurri baltza ⁽²⁾ agertu zan, Nafartarren gizarte artean %tik 70ean murriztu ebana eta lurgintzaren lanerako besoaren ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsoen.

IIn Karlosek, neurri gogorak artu bear izan eben ekintza orreik bakezteko eta Frantziko erreñuaren edestilariak, nai ta erriak oso maite euki arren, Nafar erreñua zirikatze "TXAR" izen ori ipini eutsoen.

Nafarroako erregetzan, erregearen legezko eta sasi semeen artean, bekaiz ⁽¹⁾ aundiaren bitartez beti borrokan ibilita, eta kanpotik euki eban zirikitasun bidetik, erritarrak estutasun geiagotan sartu egiezan: Agramontes ta Beaumontesen alderdikeriak sortu ziran. Nai European edo eta Euskalerrian bardin sortuta, baiña Nafartarrentzat batez be, oso gaiztoak izan ziran.

Emen konturatu bear gara, Europako erregetza guztia, euren artean senituta egoala eta naigabezko borrokak edo asarre guztiak ⁽²⁾, bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren eskubideetatik agertzen zirala, erritarrak morroi bezela Foruen aipamenakaz ara ta ona ibilita, kontuan artu barik.

1.423an Urtarrillaren 20an, IIn Karlos "Biotz Aundikoak" Nafar erregetza babesteko, Bianako printzerria sortu eban, bere illoba IVn Karlos izan da lenengo printze edo errege gaia.

1.441an baiña, I Blanka Nafarroako erregeña, Aragoiko IIn Juanegaz askonduta egon zana il zanean eta euren seme IVn Karlos errege izendatu ondoren, IIn Juan bere aita eta Fernando katolikuaren aita izan zanak, erregetzatik bota eben.

IVn Karlosek, gaztelatarren laguntza eskatu eban eta laguntza emon ondoren, kondestableak, Albaro de Lunari itandu eutson: "Baiña guk zer lortzen dogu laguntza oneikaz Nafarroan ?" Eta Albaro de Lunak erantzun: "Jauna ! 40 urteko anai guda izten dautsaguna". Gaztelarrak, zelako gogoagaz lagundu eutsoen IV Karloseri ?.

IIn Juanek ⁽³⁾: I Juan izenagaz 1.441-1.479 Nafarroako errege lapurra lez eta Aragoi eta Kataluniako IIn Juan errege lez 1.458-1.479 Urtarrillaren 19rañio il zan arte agindu eban.

Beren seme alaba biak, Nafarroako errege erregeñak izan bear ziran IVn Karlos ⁽⁴⁾ eta IIn Blanka ⁽⁵⁾ pozoituta il ebazan.

Nafarroako Ia eta Aragoiko II Juanek eraginda, Aragoi eta Gaztelako erreñuaren aurkako guda oneik, ez ziran amaitu: 1.522an Mayan eta 1.524an Ondarribian, Nafarroaren askatasunezko ikurriñak beratu arte.

Nafarroako I Juan ta Aragoiko IIn Juanen izenagaz ezagutuko zan Fernando katolikuaren aita izan zanak, 1.441ean bere emazte Nafarroako erregeña I Blanka il zanetik asi zan, Nafarroa, Aragoi menpean ezartzeko eragozpeneko ekintzakaz.

Vn Fernando "katoliko"aren ⁽⁶⁾ izenagaz ezagun izan zanak, 1.512an Uztaillaren

(1) Nafarroako II Karlos "Txarra" = 1.332an jai, 1.349-1.387rarte errege. (2) Izurri = peste. (3)Bekaiz = envidia. (2) Geienak beintzat. (3) Aragoi eta Nafarroako II Juan erregea = 1.397-1.479. (4) Nafarroako IV Karlos = 1.421an Peñafielen jai, eta 1.461eko Iraillaren 23an Bartzelonan, gaitzapel edo bularretako miñtagaz il zala esaten eben, baiña ez zan egia. (5) Nafarroako II Blanka = 1.424an Oliten jai, eta 1.464ko Otsaillaren 12an Euskalerriko Iparraldean Biarnoren Leskarreko bizkonderrian il. (6) V Fernando katolikoa = Aragoiko Sos errian 1.452ean jai zan, eta 1.516ko Urtarrillaren 23an, Kazerezeko Madrigalejon il.

21ean aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz (7) agertuta, Nafarroa mendetu eban.

Eta Espainako Igoa eta Vn Alemaniako Karlosek (8), 1.522an Mayan eta 1.524an Ondarribian, Nafarroa, Espainaren mendepean egon edin amaitu, IIn Julio, Xn Leon, VIIn Adriano eta VIIIn Klemente Aita Santuren bedeinkapenko laguntzagaz.

Or amaitu ote ziran Nafartarren askatasunak ? EZ. Nafartarren askatasuna oraiñarte, indarkeriaren aurka ezin dalako besterik egin, estutasunezko larrialdi bat baiño besterik ez da igarotzen dabillena.

(7) Mozorroaren estalpenagaz = ocultación, disfraz. (8) I Karlos = 1.500 1.558.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an.

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(IX)

1.3. Bizkaiko jauntza.

Gure jauntza, 888an Padurako ⁽¹⁾ borroka lazgarri ostetik Jaun Zuriagaz asi ta aurrerantzean gure aukeratutako jaunak oso abertzaleak izan ziran, areik eta gauzak naspiltzen asi arte, adibidez: 1.137an IVn Lopek Gaztelako VIIIn Alfonsogaz batera, Nafarroako VIn Garsea edo Gartziaren aurka borrokan ibili zalako, bera kendu eta Nafarroako erregeaz itzarmendu gintezen.

1.454an Gaztelako IVn Enrike Bizkaiko jauntza artu ebanak eta 1.470ean Epaillaren 4an Mungiaiko guda ostetik jauntzatik bota egin genduna, bere ugaz arreba I Isabel ⁽²⁾ ipinita.

Eta ainbategaz bardin edo al gendun eran, nai guda keñuakin batzuetan IIn Felipe Espainako erregeari bezela etabar.

Bizkaiko jauntza, Europa ta Nafarroako arazo bardiñakaz asieratik iraun bear izan eban.

Danen antzera guk be, erromatar katolikotasunezko sakratuaren txeberazko asmakuntz sare orreitan sartuta asi bear genduan.

Eta Bizkaiko gizarte ta Batzarrak euren jabetasunean, indarrezko babes ausarta aundiak eginda be, 1.407an Uztaillaren 16an gure jauntza, urte bi eukazala Espainako errege izango zan IIn Juanen ⁽³⁾ eskuetan jausi zanetik, txeberazko sare orreik zabaldu ta sendotu egin ziran.

Ortik aurrera, Espainako erregeen eskuetan egon dalako gure jauntza. 1.876an Uztaillaren 21ean guztiz ertsi ⁽⁴⁾ edo giltzatu arte.

Europa, Euskalerrria eta Bizkaiaren gaurko Menperatzaille oneik, betiko ASKATASUNA galdu egin dogula esan gura dabe ?.

EZ !! Bizitz oneitan Askatasuna galtzen dauenak, NORTASUNEAN galdu edo il da dagoela esan gura daualako. Eta EUSKAL BIZKAITARRAK bizi bizirik gagoz oraindiño.

Bereztasunezko LEGEAREN bidera aokatuta gagozelako, Demokrazizko bideak artzea, JAINKOAREN bideak artzen doguzela esangura dau. Orregaitik buru otzakin eta demokrazizko zentzu aundiz jokatuta, lortuko dogun gauza da !. Maltzurkerizko guzurak Munduko bizitz au, amiltegitik ⁽⁵⁾ ez ba dabe botaten.

(1) Padura = Arrigorriaga. (2) Isabel = katolikoa. (3) Espainako II Juan = 1.425 1.474. (4) Ertsi = clausurar, cerrar. (5) Amiltegitik = precipicio, despeñadero.

(Onen inguruko edesti osoa: “Askatasuna ta Menpea, Askatasuna Bizkaian” LIigarreanean; “Euskaldunak eta Europaren Batasuna” LIVgarrenekoan; “Euskalerrria ta Inguruko Erriak” LVIgarrenekoan; “III In Juana de Albrit eta Nafarroako Erregetza” LIXgarrenekoan; Eta “Euskalerriko Askatasunaren Edestia” LXIgarreneko Euskerazaintza aldizkarietan aurkituko dozue).

2. 1.540 1.450ean Erdi Mendeko urtetik Oraingo Aldira edo ta Berrizte Alditik (1) Frantzian 1.789an egin zan iraulketatik gaur arte.

Agertu ziran aurrerakuntzakaz (2), lengo erregetzak indarrean sendotzen joan ziran, nai ta Europar eta batez be Euskalerriko Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian gure askatasuna euki, tresneri barri orreik indarrezko aukeran emoten eutsoezan neurri orreitan, batzangotasunezko asmakuntzan gogortzen asi ziran.

Erregetza orreik baiña, XVII In Mendetik onantza makaltzen joan ziran lez, eta Berezko erriak indarra artzen, batzangotasunaren asmakuntzazkoak, erromatar kaizar sakratuaren katolikotasun tresneri orrekin ez ziralako gai izan Munduko dan guztia batzangotzeko, saio barri baten amets asi ziran.

1.789an Frantzian egin zan iraultza, izan zan saio barri ori, bereztasunezko errigizartearen nortasunak eta izkuntzak, lurralde zati aundiko jende biltzetan (3) lotzeko izan ditekeezan gai, erri ta izkuntz ezberdiñ orreik aienatzeko alegiñean.

Frantziako erregeak, lenengo franko leiñuetatik beti, goitik berako jaurkintzaren zaleak izan ziran lez, iraulketaren ondorio bidetik, Frantziako gizarte ta lurraldeak batzangotu gura ebazan, eta ararte euki ebazan itzarmenaren antolabidezko (4) ardurak baztartuta, berezko erriak daukezan nortasunezko izkuntz eta lurak, Frantzez laterritu ebazan.

Eta Europa osoa eredu ori artuta, ararte egon ziran itzarmen bidetik antolaraziko erregeakaz lotuta, lurralde aundietan guda indarrekin, guztiz Laterrituta garatu zan.

Baiña, Erromatar katoliko kaizar sakratuan batzangotzeko asmatuta dagoan zorro orren bealdea, josi barik eukielako, areik eta Mundu guzti onen nortasunezko giza barruan sartu arte, Napoleonek, menperatzailletasunezko ateak zabalik aurkitu ebazan eta borroka ori JAINKOAREN LEGE aurka dalako, betiko lez, azken gaiztotuta utsegille urten bear izan eban, ainbeste milloi gizaren eriotzagaz.

Asmakizun orrek, buru gogorra dauka eta Hitlerrek be azkeneko saioa egin eban, 60milloi giza seme il da.

Noz arteraiño, burukaldi gogor (5) orreik ?.

Gaur ez dira ausartzen beste bat egiten, Munduko bizitza berrogei bider aienatzeko atomozko lerkaiak dagozelako.

Eta errigizartearen nortasun eta nortasunezko izkuntzak gaur zer ?.

Sumeriatik, Sargon menperatzaillearen asieran lez, JAUNGOIKUAK Ludi au BEREN LEGEAKAZ Bereztuta euki ebala, eta LEGE orreik ez dabela esaten beste gauzarik: “BEREZTASUNAREKIN, LOTSA aundia euki bear dogula baiño”. Gure arduraren kontu aundienean artu bear doguzanak, or ulertzen diralako Izadi onen gai

(1) Berrizte Aldetik = desde la reforma. (2) Aurrerakuntzak = Irakola, itsas orratza, lerrautza polvora, eta abar. (3) Biltzetan = agrupaciones. (4) Antolabide = arbitraje. (5) Burukaldi gogor = cabezonadas.

gizaren eskubideak.

Asmakizun orreik, nai edesti guztian Berezko LEGEAREN aurka eten bako odoljariozko sarraski baten ekarrita. Bereztasunak, Arnasaldi baten sartu ezkerro, eta BEREN LEGEAREN ezinbesteko ardurak bete egin bear dabezelako, lotsagizun aundiz, beti bideratuko da beren berezko izatasunaren egokitasunera.

Orregaitik, zergaitik barriro artu ez, Bigarren Munduko gudan zer gertatu zan ikusita, ostean damu aundiz eta garraxika aldarrikatu zana: "GIZA eta Berezko erri ta erritar ESKUBIDEAREN bideak?"

Iñoz ! ez dogu igarriko..., JAUNGOIKUAK ipinitako LEGEAREN aurka ezin dogula egin ezer ?.

3. EUSKEREAK EUSKALERRIARI, zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?.

Euskerea, sortzezko izkuntza izan da, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz bat bezela.

Edo eta edestian ikusi dogun lez, menperatzaileak euren sasi garaipenak lortzeko, erri ezberdiñeko gizarteak menperatasunezko bearkuntzaren naastekatutik urten leiken izkuntz baragarri baten antzera.

Erromatarren norkerizko mende bidetik urten eben latin kumeen antzera. Berezko ERRI IZATASUNETAN beartasun bidetik, euki eben nortasunezko ospea kentzeko (1) alegiñean naspillatu (2) egin ebalazako.

JAINKOAK Berezko bizitz oneitara ordearen arduradunezko eragille lez bialdu ginduzanean, gai oneri arrigarritasun aundiz, adierazpen bat emoten asi bear izan gendun, goseak, gure sabel zorri onein larritasunezko doñuak, jaiotzak, eriotzak, gaxo aldi, zauri eta bizitzari erantzuna emoteko, arrazoiaren aurkako ekintzak ez ziralako egokienak, beste aukerarik ez zalako egon, itaun aundi bitartetik baietza emon geuntson maitasunean egokituta.

Maitasuna, nori baiña ? Leen JAUNGOIKOARI, laster konturatu giñelako bizitz au ez zala edozeiñek egindakoa.

Bigarren SENDIARI, lagun bearrean babeserako guregandik ugaritzen giñelako. Eta irugarren, GAI BIZITZARI, berak, gu izateko emoten dauskulako aukerea.

Maitasunezko egarri (3) orren bidez, laster konturatu giñan, gauza guztien ekintzazko alegiñean, txar eta onezko aldiak eukazela eta egiten genduzan gauza guztietan lotsasko neurriakaz arduratu bear giñela oker edo utsaldian jausi ez gindezan.

Bai ta, antolakuntzazko beste uler leku barri bat zabaldu bear gendula, ikasitakoak gure ezagueran erabidez (4) oituratzeko, eta ortik asi bear izan gendun abots edo itz otsai itxurazko eran amore emoten (5).

Omo Sapiens, Afrikatik mugi aldian asi eta Europa, Asia ta Indiatik zabaldu ziranean, leen Euskerazko itz eta ekanduaren oiturazko oiñarriekin, zentzuzko oreka baten egokitu ziran. Leñuen bizitzazko antolakuntza, auzotasunezko lurraldeetan laterrituta.

(1) Ospea kendu = desconectar. (2) Naspillatu = desconcertar. (3) Maitasunezko egarri = amar, querer, aspirar en definitiva. (4) Esagueran erabidez = metódica u ordenadamente. (5) Amore-emoten = amoldar.

Atlant Itsasotik Indiaraiño dauan bitartearen eragozpenagaitik, ez eutsen itzi izkuntz bateko azturan egokitzea, eta or, leiñu baktzak nai oiñarri batekoak izan, sortarazi (1) eben bardiñantzeko izkuntzetan egokitu ziran.

EUSKEREAK EUSKALERRIARI, ZELAKO IRUDIAGAZ ITXURATZEN DAUTSON.

Euskaldunak, JAINKOARI begira milla urte askoren ikerpeneko atun bidean (2) edo ta aztura bidetik (3), ondo erindu eta biribildutako lanean, itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu zitezten, gure ARBASOAK, EUSKERAZKO gaztelu ederrena eraiki eben. Eta bizitz oneri, beragaz emon eutsoen adierazpen ederrena.

Ez ziran txantxetan ibili, laztasun (4) eta zorroztasun (5) aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko esaerak, sorburuzko itzekin osotutako almenean (6) eginda dagozelako, esangura dan irudizko toki berberan kokatzen gaitu, ia izkuntz gitxi baiño ez daukienak.

Gaztelera PLAYA itzak adibidez: Zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?. Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz (7) edo eta areatutako maskor ondarrarekin ?.

Zelan ?: “Euskalerraren lur onetan agertzen diran aize, ur, itsaso ta mendiak daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta gai bizi irudiak, zentzu aundienean izendu ebazalako” **alde batetik**.

Bestetik, sendi gizartean: “Begirunez eta Lots aundiko (8) itzekin oituratu ziralako senditasunaren bizitzazko arremanak, leiñu edo erri maillan”.

Erri edo Leiñu arteko maillan: Lotsa aundian artuta euki bear ziran arremanakaz, “Sekula ez giñelako joan bestea menperatzera edo ta daukana kentzera, paregabeko DEMOKRAZIA baten bizi izanaz, gure arteraiño etorri jakuzan LEGE ZARRAK esaten dauan lez”.

Eta baktzaren eginkizunetan ?: “JAINKOARI begira, EGIA gure bizitzako ARDATZ NAGUSI izanaz, Euskalerrria beste ainbeste milla urte geiago iraun dagian”.

Gure ARBASOAK, zentzunezko demokrazi egian bizi, eta gaur arte ezer galdu gabe ekarri euskulako daukaguzan ASKATASUNEZKO DEMOKRAZIAREN egarriak. Ekintza orreik izan ziran eta orreik izan bear dira gaur eta beti ! “EUSKALERRIA bizi bizi agertu daiten MIRARIA”.

EUSKEREAK:

Daukan NORTASUNEZKO irudiagaz itxuratzen gaitu Euskaldunak.

Maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri eder au, ez dalako gatz gabeko mezu gaillu uts bat, gure artu emonetan ibilteko tresneria bakarrik.

(1) sort-arazi = crear. (2) Atun bidean = procedimiento empriko. (3) Aztura bidetik = crecimiento del conocimiento. (4) Laztasun = severidad. (5) Zorroztasun = austeridad. (6) Osotutako almenean = potencia, potestad. (7) Leguntasunagaz = lisura, tersura. (8) Begirunez lots aundiko = con gran respeto y mucha delicadeza.

Bere barnean ikusten direnak:

a).- JAINKOARI begira “BEREN LEGEAREKIN euki gendun oarmeneko samurtasuna”⁽¹⁾.

b).- “Senitarte eta erri maillan MAITASUNEZKO ulermena”.

d).- “Gure BAITAREN bake edo orekagaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeaztasunaren lotsazko arduran egin genduzelako”.

Euskal bizitzarako edo eta erriaren babeserako EUSKEREAK daukan indarragaz, berez agertzen jaku “MAITETASUNEZKO GAITASUNA” ⁽²⁾, bere barneak daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako argitasuna emoten dauskuelako.

Gure arbasoak, arremanezko gauzak zentzun aundiz eroanda egin ebalako, eta DEMOKRAZIAREN ulermen aundi batera elduta bizi ziralako, sendimendu ber berori sartu eutsoen Euskerari, orregaitik Euskerea ez da edozelako tresneri uts bat.

Bera da AMA !!, Euskal izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Etorkizunean, bere MAITASUNEZKO ZENTZUTIK artzen doguz NORTASUNEZKO izatasunak, Mundu guztiko gizarteari erakutsiz, EUSKALDUNEN NORTASUNEZKO EGI BIDEA.

Menperatzaillak, euren nagusitasuna erakusteko, bizitza, xautzailletasunezko ⁽³⁾ argi bideakaz ganoragabetu gura ba dabe, gu ez gara jausi bear txebera orreitan, bestela gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabelako.

Geiago bear ete dogu ?. Ba..., kontuan euki !! gure ARBASOAK egin eben lez, guk elikatu bear doguzela zentzu aundiz NORTASUNEZKO DEMOKRAZIA ON BATEK bear dauazan eginkizunekaz, GURE ORDEZKARITZAZKO ARDURA DALAKO, EUSKAL IZATASUNEAN IRAUN GURA BA DOGU.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Orejatar Martzelifioek: ETATARREN esanak edo eta mezuak sinismenean edo kontuan aundian artzeko, “orreik ez diralako gai, GUZUR BAT esateko eta”.

Eta Munduko gizarte ezagunak, irudi orregaz ikusten ote gaitue Euskaldunak ?.

Lur eta gizarteko aunditasunean, Erri txiker baten neurrian geratu gara, menperatzaillletasunezko alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten bakoak izan diralako, baiña, gure NORTASUNEZKO DEMOKRAZIAK zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, Munduko edozein lekutik ikusi leikena da.

(1) Oarmeneko samurtasuna = atención, sentido de la observación. (2) Maitasunezko gaitasuna = buenas dotes, talento. (3) Xautzailletasunezko = despilfarrador, aniquilador, expendedor, malgastador.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an.

“IZADIA ZAINDU”

“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”

eta

“EUSKAL EDESTIA”

(X)

4. EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA:

Edesti guztiko autueta edo kondaira onetan ikusi dogu, Munduko gizartea gure on ikuskizunerako aldakuntza aundi baten bearrean dagoela, bestela gagozan lokatz artetik urtetea, gatz egingo jaku.

Alde batetik: “Ikusten dogulako, norkeriaren asmakizunezkoak euren xautzailletasunezko aberastasunean bizitzeko, Mundu onek JAINKOAREN LEGEAKAZ bere izatasun fisikoan, guk, gauzak txarto egiten noraiño eldu geinken mugatuta dagoena, ainbeste lapurketa ta zikintasunezko naaskeriaren ekintzakin, LEGEAREN MUGAKO deiadar guztiak biztu dabez, bizi onen amiltegiko ertzera ekarri gaituelako.

Bestetik: “Alderdikeri orreik sortu ziranetik eta nortasunean ta jakintzan, zentzunezkoak ez diran naastukerizko gauzatan sartzen gaituelako, bizitz onetan, egirik ikus eziñik igarotzen dira gure nortasunak eta beren ondorioz, zentzun gabekeriaren ulermen bateko irautasunean aurrera egiten dogu.

Zer egin ?. Gure gogoaren baitan zikinduta daukaguzan zentzunezko irten bideak garbitu eta danok geiago arduratu, giza, erri ta errigizartearen NORTASUNEZKO eskubideen ekintzan aleginduta.

Ekintza orreik bakarrik ekarri leukiezelako askatasunaren pakezko orekak, Mundu onetan egiten diran norkeriaren bear-kuntzatik.

Norkerietan dabizenak, oraingoan lar urrun joan dira batzangotasunezko alegiñean, danoen ardurak euren eskuetan artuta.

Norkeri orren bidez oraiñarte, beti aurreratu dira, berez, Munduko gizarteak alkartasunerako emon bear dabez anurrerako oinkadak emoterakoan, eurak, bizitzeko daukaguzan mozkin guztiaren kontrola bear dabelako.

Orregaitik oraingoan, urrun joan dira, gai onen oreka guztiak zalantzan ipini dabezalako.

Nora joango ete da errigizarte bat, bere antolakuntzan ez bada gai, semealabak etxe bizi bat ezin bada be lortu, nai ta neska mutil gazte guztiak lanean ipinita, iñora ez zitezen elduko premiñan ? (1).

Gaiñera, ez da edozein gauza, gizaren iraunkortasuna ipintea zalantzan.

(1) Premiñan = sueños y necesidades que están ahí, pero en ningún caso alcanzable para ellos.

Ori bai, gaia ta errigizartearen nortasunezko eskubidetik alde eginda, dan guztia esku bakarretan batzangotu gura dabe, goiko agintaritzatik asi eta danoen ardurak ezereztuta, diruak batu ondoren.

Al izango ete dabe..., Giza, euren oparotasunaren zerbitzura ipinteko alegiñean, klonetan astea ?.

Astakerizko ergelkeri oneik noiz arte ?.

EUSKALERRIKO SEMEAK:

Esan leike, edestitik zear aurkeztu dodan egoera ondagarritik (1), ez dagoela urten biderik, eta ez da egia.

Danok garalako arduradunak ondameneko estutasun onetik urteteko antzezlarriak, aukera guztiak gure eskuetan egon da.

Askotan esan leike, ibil arazian ipinten diran asmakizun txarrak (2), euren alegiñean indar geiegi daukiela ta, ezin dirala geratu edo eta txarrak dirala adierazpendu, areik eta beren zentzun okerrak ormaren aurka burua apurtu arte.

Orain gagoz gure giza barne edo baitan aukera orretan, edesti guztitik etorri dan giza ta errigizartearen berezko eskubide guztiak zapalduta, bizi onek daukazan Bereztasunezko Legeakaz mugatuta topo egin dabelako.

Eldu garan mugazko egoera ontara, Mundu onetako goiko agintaritzazko ulermenekoari be, euren giza baitak txarto goazela esaten dausie.

JAINKOAREN LEGEAK egiten dauskun oarpidera (3) eldu gara, eta beragaz, gogarketaren aldira (4).

Ze gogapenagaz baiña ? : “Edesti guztian meatxuzko indarrarekin etorri dan erromatar asmakizun ori, eskubide guztiak zapaldu eta daukagun Nortasunaren ardurazko giza legetik kanpo itzita, Munduko gizarte guztia garrasika ekarri ondoren, abarrakitu (5) edo azken gaizto baten amaitu dalako.

Beren aurka, beste ainbesteko indarrarekin jantzi ziran komunismuaren burutapenak, norkeri bidez euren beste kaizar zaleak biurtu ziran, eta uts egin eben.

Eta gaur, leen sasi asmakizunezko datorzan diruaren batzangotasunezko burutapenai, ura, leku guztietatik sartzan jakola, beste ainbesteko uts egin daualako.

EUSKALDUNAK ZER EGIN ?:

Gure giza barrenak edo “BAITAK” (6) itzartu eta oartu, Euskalerrriak edesti guztian dakarren eten bako borroka onetatik, gure izatasunezko nortasunean apurtu edo murriztu jakuzan gauza guztiak, berrezkuratu egin bear doguz.

Eta ezinbesteko gogo alegiñean, GURE ERRI MIÑAN, AINBESTE ZOR DAUTSAGUN MAITASUNEZKO EUSKERA “NORTASUNDU”! len berak, gugaz egin eben antzera.

EUSKALDUNAK OR daukagulako NORTASUNAREN IZATASUNEZKO ALTXOR AUNDIENA.

(1) Ondagarritik = catastrofico/a. (2) Asmakizun txarrak = eta onek, bimilla urte baiño geiago daukaz, nai ta gogortzen asi zaretik 1.683 urte euki. (3) Oarpidera = advertencia. (4) Gogarketaren aldira = al momento de reflexión. (5) Abarrakitu = estrellar, hacer trizas. (6) Baitak = conciencias.

Baiña...., lerkai eta izkilluaren ILKETA BARIK !!.

Zorionez, denbora orreik joan diralako eta orreik gauzakaz irauten ba dogu, gure buruetara lerkai orreik botatea bezala dalako.

Munduaren gizarte aurrean, DAUKAGUN PAKEZKO eta ASKATASUNAREN DEMOKRAZIZKO IZAERA, IZUTZAILLENAGAITIK (1) ALDATU edo ITZULI EGITEN DABELAKO.

GURE ETSIAIAK ORI GURE DABE BA !! EURAK GUDAREN INDARRAGAZ AL EZIN IZAN DABENA, GUK, GURE IÑOZOKERIAKAZ (2) EGIN DAIGULA.

JAINKOAK IPINI EUSKUN LEGEARI BEGIRA, NAI TA NAI EZ JOKATU BEAR DOGU. MUNDU ONETAN, GURE EUSKAL ASKATASUNEZKO ELBURUA LORTZEKO «BERA TA BEREN LEGEAK DIRALAKO ARDATZ NAGUSIENAK ».

EUSKALERRIA MUNDU eta EUROPAREN "IZAR" AUNDIENA DA, EZ DAU MEREZI BEREN SEME BATZUK ARROTASUNEZKO BEROTASUNEAN, BERAGAITIK EGITEN DABENA.

DANOK ARDURAZ LAN EGITEKO, ALDERDIKERIEN GAIÑETIK EDO ALDERDIETAN BATUTA EGON ARREN, ELBURU BAT BEAR DOGU, ETA ORREN ITZULPENA:

EUSKALERRIA EDO EUSKADI TA EUSKAREA DIRA !!

(1) Izutzaille = terrorista. (2) Iñozokeriakaz = ingenuidad, necedad, simpleza.

“IZADIAK DAUKAN LEGEA”, **ZAINDU BEAR DOGU**

ATUTXA tar PAUL

Zornotzan 2.008an Urrillaren 22an

1. KARLISTADAKO

GUDA

EUSKALERRIAN

1.833-1.839

-AURKI – BIDEA-

IDAZ-LANAREN ZERRENDA

ORRI-ALDEA

Atarikoa.....
Lortuak eta Lortzekoak.....

1. Zatian:

Aurkezpena.....
a) Zertarako edo Zeren billa.....
b) Berezko Baita.....
d) Euskalerrian.....
e) Munduan.....
Sarrera.....

2. Zatian:

1. Edesti arloan euki dodan idazlarien laguntza.....
 - 1.1. Euskal Jabetza edo Señoríoetan eta Espainako erregetzaren iraspen artean, zelangoak izan ziran euki ebezan arremonak.....
 - 1.2. FORUAREN itzak zer esangura eban Espainol eta Euskaldun eritzietan.....
2. Borboi leiñuaren sorkuntza.....
 - 2.1. Borboi leiñua, Erregetzaren eragipeneko maillara igotea.....
 - 2.2. Errege mailla artu.....
 - 2.3. Errege maillan sendotu.....
 - 2.4. Errege maillan zabaldu.....
3. Vn. Felipe.....
4. VIIIn. Fernando.....
5. Karlistadako guda onen ondoriozko aurkeztaldi laburra.....

3. Zatian:

1. Euskalerrian, karlistadako gudaren asiera.....
2. Karlistaren gogoetak edo asmoak.....
3. Espainako jaurkintzan Foruak zaintzeko bear ziran baldintzak

- Aragoi, Balentzian edo ta Kataluñan.....
- 3.1. Euskalerrian.....
- 3.2. 1.833ko urtean, Espainako leen karlistadako gudari asiera
emon.....
- 3.3. 1.833-1.876eko urte bitartean, Karlistadako Gudak.....

4. Zatian:

- 1. Aurkezpena.....
- 2. 1.789an Frantziako iraultzaren bidetik erriak batuteko euki ebezan
asmoak, eta bere ondore, Europan ta batez be Espainako guda nagusiak,
guda indarragaz euki ebezan larderizko eragipenekin, Euskalerrian
Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskubidearen gaiñetik, gaur
daukaguzan Laterrietako jaurkintzan menderatzeko, egin dabezan alegiñak.
- 3. 1.833-1,840ko urte bitartean, Karlistadako gudak.....
- 3.1. Europak.....
- 3.2. Karlistadako gudaren asiera.....
- 3.3. Oarpena.....
- 4. Karlistaren Aldetik aukeratu ziran guda-nagusiak.....
- 4.1. Zumalakarregi ta Imaztar Tomas.....
- 4.2. Merinotar Jeronimo apaiza.....
- 4.3. Maroto ta Iserntar Rafael.....
- 4.4. Orbe ta Eliotar Jose Maria, Baldespinako IIIIn
markesa.....
- 4.5. Egiatar Nazario.....
- 4.6. Gerge ta Yaniztar Juan Antonio.....
- 4.7. Kabrera ta Grifiotar Ramon. Morellako lenengo kondea.....
- 4.8. Gomez ta Damastar Migel Santxo.....
- 4.9. Gartzia ta Montoyatar Jose Maria.....
- 4.10. Muñagorri ta Otaegitar Jose Antonio.....
- 4.11. Urangatar Jose Inazio, tenient guda nagusia.....
- 4.12. Gonzalez ta Morenotar Bizente.....
- 4.13. Alzaa.....
- 4.14. O'Dnnelltar koronela.....
- 4.15. O'Donnelltar Karlos, Juanen anaia.....
- 4.16. Barres ta Molard prantzeza.....
- 4.17. Sabatiertar Alexis prantzeza.....
- 4.18. Henningsen ta Ferdinandtar Karl eskoziakoa.....

- 4.19. Lichnowsky Felix Maria Bizente Andres alemana.....
- 4.20. Von Goebentar Augusto alemana.....
- 4.21. Loningtar Adolfo alemana.....
- 4.22. Eta karlista gudal nagusi guztien aurkezpena aurkeztu azinda, nai ta oraindiño askoren gabetasunean geratu, onek guztiok zerrenda lez argituko dodaz:
- *-Borbon ta Braganzatar Sebastian Gabriel, Vn Karlosen bigarren semea.
 - *-Billarreal eta Ruiz de Alegriatar Bruno, karlistaren oneneitariko gudal nagusia.
 - *-August de Saint Sylbaintar Louis Xabier prantzesa, Karlosen idazkaria.
 - *-Karnizer frantzez gudal nagusia 1.835eko Jorraillan tirok il eben liberalak.
 - *-Ladron de Zegamatar Santos.
 - *-Uriz gudal nagusia
 - *-Gartzia gudal nagusia.
 - *-Sanz gudal nagusia.
 - *-Karmona gudal nagusia.
 - *-Iturraldetar Franzizko koronela.
 - *-Berastegitar Balentin.
 - *-Lardizanatar Inazio koronela.
 - *-Iturriagatar Karlos Bernardo.
 - *-Urtizberea (Irun).
 - *-Erasotar Benito Franzizko gudal nagusia.
 - *-Zabala.
 - *-Gurreatar Manuel.
 - *-Zaratiegitar Juan Antonio, Zumalakarregiren idazkaria.
 - *-Gomez ta Damastar Migel andaluztarra.
 - *-Wilhelm Von Rahdertar Gillermo koronel alemana, Prusiako guda guda taldeko injeneru zana.
 - *-Schwarzenberg aleman printzea.
 - *-Boos-Waldezk aleman kondea.
 - *-Stolberg aleman printzea.
 - *-Von Vaerst aleman diplomatikua.
 - *-Von Rappard alemana, Ulano taldearen kapitaña.
 - *-Plesseneko Bernardo baroia.
 - *-Das Antaseko baroia, Portugaleko gudari taldearen gudal agintaria eta abar.
5. Kadizeko konstituzio edo jaurgu barriaren Liberal edo kristino aldetik aukeratu ziran gudal nagusiak.
- 5.1. Kastañontar Federiko.
- 5.2. Oraa ta Lekunberritar Martzeliño.
- 5.3. Baldez eta Noriegatar Jeronimo.

- 5.4. Kesadatar Bizente, Monkaioko markesa.
- 5.5. O'Donnelltar Leopoldo.
- 5.6. Fernandez ta Esparterotar Baldomero, Lutzana eta Bitoriako dukea.
- 5.7. Rodil eta Gallosotar Jose Ramon, Rodilleko markesa.
- 5.8. Manzanedo eta Gonzalez de la Tejatar Juan Manuel.
- 5.9. Espoz eta Illundai ta Minatar Franzizko.
- 5.10. Jauregi ta Jauregitar Gaspar, "Gipuzkoako Biriato" ta "Artzaia" ez izenakaz esagutu zana.
- 5.11. Fernandez ta Kordobatar Luis.
- 5.12. Narbaeztar Ramon Maria.
- 5.13. Eta zerrenda lez aipatuko doazenak:
 - *-Lorenzotar Manuel.
 - *-Sole Figeras ta de Benet ta de Fiballertar Antonio (Sola). Nafarroako errege ordea izan zana.
 - *-Sarsfieltar Pedro gudal nagusia.
 - *-Karondolet, kristino edo liberal gudal nagusia,
 - *-O'Doyletar Manuel,
 - *-Osmatar Joakin.
 - *-Goienetxe.
 - *-Iriarte.
 - *-Gurrea.
 - *-Karratala.
 - *-Lord Edwar ta Granbilletar Elliot.
 - *-Latre.
 - *-Klemente eta abar.
- 5.14. Alde bietatik ibili ziran gudal nagusi onein jaiotezko erri edo aberriaren "Baitazko Eritzian" euki eben ulermena.

5. Zatian.

1. 1.835ean Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik aria osterara artuta.
2. Lenengo karlistadako lan guzti onen ondorioa.
 - 2.1. Len: Lur, Aize, Ur, Zuaitez, Landare, Abere eta Gizaren Eskubideak.
 - 2.2. XVIII-XIX ta XXko gizaldietan, Europako gizartearen konponbideak.
 - 2.3. Euskalerriko errigizarteak, 1'go karlistadako gudan igaro bear izan ebazan larrialdiak.
 - 2.4. Euskaldun Gazteai.
 - 2.5. Zer egin ?.

KARLISTADAKO GUDAK

EUSKALERRIAN

1. Zatian.

AURKEZPENA.

Karlistadaren edestiko guda oneik zati bitan bananduta agertuko doguz, argitaratu egiten doguzan Euskerazaintzaren aldizkariak 100 orri baiño geiago eukiten ba-dabe, garestiak diralako guretzat.

Aurreneko aldizkarian 1.833-1.839 urte bitarteko lenengo guda.

Eta bigarrenean, 1.840-1.872 urte arteko edestiari ikust-arin bat emonda, 1.872-1.876ko bigarren gudan sortu ziranak al dodan zeaztasun guztiagaz azaltzeko.

Enaz edestilaria, eta orregaitik parkamena eskatzen dot aurretik oker batzuk agertzen ba dira idazlan onetan, baiña kontuan euki, emen agertzen diran lengo zeaztasun guztiak, aurkeztu dodan bibliografia entzingarri edo fiagarritzko bibliografia dala, nire Baitaren aginduan egizko bidetik argituko dodazanak.

Zergaitik oraingoan "Karlistadako Gudak Euskalerrian" ?.

a)- "Bizkaiko Jauntza Euskalerrian" idatzi neban arrazoi bardiñagaitik.

b)-XVIIIgarren gizalditik ona, Europa guztian, baiña guri egokitu jakuzan Frantzia ta Espainako zapalkuntz alde jokutzen dabizen edestilari irabazkoiak, etenbako joko maltzur baten dabizelako Berezko Errien eta Euskalerraren edestia batez be, zirriborrotzen.

Eta gaur, iñoz baiño indar aundiagoakaz gaiñera, euren egipideak gero ta nabariago, jokoze kanpo geratzen diralako.

Mundu fisiko onetan, ezin da Zentzunezko Demokrasi baten jokutzen gabizela esan.

Danon berezko ardurak gudaindar bidez, gaur daukoguzan mendeko Laterri onen eskuetan artu, eta erri ezbaridiñak garela kontuan artu barik, euren erritarrakaz nastuan, ardura orreik zigor eta espetxeko meatxu bidez bete dagiguzala beartzen gaituenean.

Bizitz onen antolakuntzan egipide orreikaz bakez egokitzeke, gaia eta gizak bereztuta daukazan zentzuzko eskubideak ez diralako kontuan artu.

a) ZERTARAKO edo ZEREN BILLA ?.

Edestitik begira, gaur iñoz baiño argiago ikusten dogu, lenengo jendekuntzak lortu ziranetik asi zirala menpekotasunak.

325ean, Nizeako Eleiz Batzar Nagusian baieztuak, eta batzangotasunezko (1) mende asmo aiek, guda indarrakin beartuta, gaur daukaguzan Sasi Laterri arpel oneikaz gure dabelako lortu.

Nabari da, gizon batzuk Jainkoaren izatasuna artu gure dabela.

Or daukaguz baiña Beren Legeak, eta gabiltzan guzurrezko jokoagaz aurrera egiten ba dogu, aurrean daukagun amiltegiari alderagin egitea, ezinezkoa biurtuko jaku.

b) BEREZKO "BAITA".

Jainkoaren Legeari begira, bizi onen milla urte askotako egilletasunaren edestiko etorkizunean artu genduan gure Arimetan daukagun Baita (2).

Menderatzailleak euren elburuak lortzeko, guzurragaz, zirriborrotu egin gura dauana.

Ezinezkoa da baiña.

Gure bizi ekintzan noz konturatuko gara, azpiegituraren (3) egilletasunerako (4), gai bizi onek aukera azkoko ditekeen (5) lege edo oiñarri (6) bidez, aurkezten dauskuzan gai gauzakaz bakarrik balio bear garela.

Ba aldaukagu beste aukerarik ?.

Gaur asko dakigu egilletasunaren gora beran, gure jakintzazko arloan zeaztasunezko zertzelada asko daukaguzelako.

Eta gure ekintzaren aukerarako jakintza orregaz, amaibakoa izanez gain, aukera bakoitzaren ditekeenak be, beste amaibako zabaltasun aurrean aurkezten gaituelako.

Baiña, Irazale edo Sortzailleak al gara ?.

EZ. Asmalariaen aukera baiño besterik ez daukagulako.

Gure antolakuntzazko eginkizuna orregaitik, gaiak zeaztasunezko bereizkuntzan aukeratu egiten dauskuenak oituratzeko edo, gure jakintzazko agerbidean zeaztasunezko gauza orreik ezartzeko, ezaugarrizko izenakaz, euren izatasunezko nortasunean antolatuta gorde egin bear doguz, bestela, olan ez balitz, gure egilletasunezko lana korapillotu edo ezinezkoa biurtuko litzake.

Mundu onetan, gaituta gagozan gizon emakumeen artean bardin sortzen da.

Gizaren bakardadezko zabaltasunean **JAINKOAREN LEGEARI** begira, eta euren leiñuzko sorkuntzan azturazko jakin bidean, gure artuemoneko zentzuak alan eskatzen daualako, bear dan antolakuntzan, bakotxaren izenezko

(1) Batzangotasuna = globalizaciòn. (2) BAITA = conciencia. (3) Azpiegitura = infraestructura, subestructura. "Infra" = debajo, "Estructura" = base de un edificio, o, cosa que queremos hacer. (4) Egilletasuna = gestiòn. (5) Ditekeen = posibilidad. (6) Oiñarri = premisa, base de lo que se puede inferir, o, hacer otra cosa.

izatasunekaz, legezko edo jatorrizko adierazpena emon geuntson bizitz oneri.

Besterik al geinke ?

Eta Munduko gizaren zentzua, nai ezberdintasunezko itxuran edo ta, ezberdintasunaren izenezko Nortasunekin agertuta bardiñantzekoa bada, ori al da arrazoaia, batzuen sasi norkerizko naikeriagaitik, sinismen guzti orreik eta izatasunezko Nortasunak, batzangotasunaren sasi asmo orren bidez indarkeriz ezereztuteko ?

Nora joan edo zer egiteko daukagu ainbeste estura edo larritasunagaz ?

Mundu onetako gizasemeak beartuta gagoz, guztien adimendu edo ulermen bateko elburura eltzea, Munduko lur au bakarra izanez gain, danon ardurazkoa dalako.

Baiña ez, mendeko sasi asmalari oiek esaten dabelako.

Gaituta gagozan gizaseme guztiak, sinismeneko ulermen orreitora eldu bear garalako baizik.

Noz ?

Danon Ulermeneko Elburu orreitora eltzeko aokatuta gagozan lez, gure biziko ekintzak Beren Legeari begira, eta eskubidearen ordaiñak lots aundiko ekanduan ordezkatzeko, bere denbora bearke dabe. Gauza orreitan ariñeketeak ez daulako balio.

Eta gizaseme alabaren zor eskubideko jokoa izanda, Ekanduzko ekin bidean, Elburuzko Ulermen orreitora eldu bear garalako.

JAINKOAREN Legea bada, zergaitik edo zer billa sartzen gara Bere gauzatan ?

d) EUSKALERRIAN.

Mundu oneri, Euskalerrria da Paleolitiko-Neolitiko bitartean lortu zan jendekuntzazko Demokratikoagaz, adierazpen ederrenetariko bat emon dautsona.

Eta Askatasunezko Demokrasi orren sinismenekoa izanda, ez dau bear iñoren beartasunik Danon Ulermeneko Elburura eldu daiten.

Iñoren Izatasunezko Nortasuna galdu barik.

Euskalerrriak, Sinismenaren Nortasunezko Euskereagaz daukazan legezko arrazoiak, berak azaldu bear dauzalako, Erri Ezberdiñen Ulermeneko Antolabidera eltzen garanean.

e) MUNDUAN.

Orregaitik, Mundu onetan norkerizko asmakuntzan dabizen menperatzailleak eta guda indarragaz dabiltzan batzangotasunezko alegiñak, alperrezkoak biurtzen dira.

1) *Maltzurrezko asmo orreik, gaur erabilten diran lez, zentzuzko bidetik kanpo Guzurrezkoak izanda, sekula ezin dira Egizkoak biurtu.*

2) *Jainkoaren Legeakaz gure bizitza, nai amaibako aukerazkoa izan arren, arduraren zentzuzko bide estu baten sartuta, egitik guzurrera oinkada txiki bat baiño ez dago.*

3) *Eta or baieztatu ziran benetan, gure izatasunezko Arimaren Baitak, Bereztasun oneri begira, guzurra eta egia zer dan ondo jakitera elduta.*

JAINKOAREN gauza izan da, oldoztu al geinke, Lege orren aurka egin geinkela ?.

Bide ortatik alegindu ezkerro, amaibako buru apurtuko geunkez Bere aurka.

Mundu onetan, Iñor ez dalako Nor bere asmakisunezko legerik egiteko, Izadi oneri Jainkoa Berak ipini eutsozan Legetik ez ba dira artzen.

Eta orregaitik, Iñor ez da Nor, iñoren ardurazko zor eskubideakaz, maltzurtasunez jokatzeko.

SARRERA.

Karlistadaren edesti au azaltzeko, Borboiaren errege sorkuntza eta Vn Feliperen izatasun eta asmoak, ixaxtada (1) arifiegaz argituta, 1.808ko urtetik asiko naz.

Ortik aurrera guda agintariak, gaur oraindiño irauten dauan mendeko batzangotasunaren aolkularitzagaz indarra artzen asi ziran. Eta VIIIn Fernando erregea, nai ta gure Foruak baieztuta euki, 1.823ko urtean beartu eben Espainaren jaurgo barriari (2) zifñez itzemon egiola.

Ego Euskalerria euren gogamenetan (3) ortik aurrera, espainolezko zorroan sartu eben, eta euren Laterrizko arrazoiaren bidez gaurko egunean or dabiz oraindiño, mendetasun ori lortu gurean guda indarraren alegifnekin.

Ez jakie izango erreza. Eurak egiaren aurrean ipini bear dabezan arrazoiak mendekoak izanda, Berezko Eskubidearen Aurkakoak diran lez, nai ta nai ez, guzurrezkoak diralako.

Eta daukien guda indarrakaz arrotuta egon arren, euren norkerizko agindunaierako, zapaltzaillezko sasi asmo ori baiño besterik ez daukie.

Euskaldunak orretaz konturatu bear gara, iñozokerietan (4) ez gaitezen ibili.

Orregaitik, Karlistadaren gudako arrazoi ustelak azalduta, Euskalerria eta Euskerearen Nortasuna ezereztuteko daukiezan mendeko arrazoiak argituko doguz, erabili dabezan maltzurrezko legeak guzurrezkoak dirala agirian itzi ta.

(1) Ixaxtada = pincelada. (2) Jaurgo barriari = nuevo modo de gobierno, esta vez imperativo para todos los pueblos comprendidos en la península. (3) Euren gogamenetan = en sus pensamientos. En esta piel, aunque Portugal y el peñon de Gibraltar queden fuera, para ellos de toro. (4) Iñozokeria = ingenuidad, necedad, simpleza.

2. ZATIA.

1. Edesti arloan, euki dodan idazlarien laguntza.

Labayru ta Goikoetxeatar Estanislao Jaime “Historia General del Señorío de Bizkaia”.

Readers Digesten “Gran Diccionario Enciclopédico Ilustrado.

1.863an D. Victor Gebhardt argitutako “Historia General de España y de sus Indias” VIn ataletik artutakoa.

1.893an D. Antonio Pirala argitutako “Historia Contemporanea”ren lenengo liburutik asita.

Aranburuk argitutako “Historia General del Pais Vasco”.

Julio Eyarak argitutako “Euskalerriko Edestia”.

Sabindiar Batza argitarazleen “Obras Completas de Arana Goiritar Sabin”.

Agustin Blazquez Fraile argitaratu eben Espainako Edestian “Gran Historia General de los Pueblos Hispanos”.

Manuel Angel Alvarez argitaratu eban Historia de España.

Antonio Ballesteros eta Berettak argitaratu eban “Historia de España y su Influencia en la Historia Universal”.

Gure “Auñamendi”, Munduaren goi maillako jakintzatik argitaratuta daukan bildumazko argibide aunditik.

Eta Barroeta ta Amorrortutar Klaudioren, ezin dodan eskertu laguntzarekin.

1.1. Euskal Jabetza edo Señoríoetan eta Espainako erregetzaren iraspen artean, zelangoak izan ziran euki ebezan arremonak.

1.506an Espainako gortearen jabetzazko eritzian, garrantzi aundiko gauza bat sortu zan, emen kontu aundiagaz argitu bear doguna.

Gaztelako gorteetan Euskaldunai, ez eutsielako sartzen itzi, berba auek esanda: *“Porque (eran o) son gentes de estado separado”*.

Esan orreik eurak bakarrik adierazten dabe, Euskaldunak egiten ebezan itzarmenak, aukeratu egiten ebazan Jaunakin egiten ebala. Eta gure jauntza aldi orretan Espainako erregearen eskuetan egon arren, erregearen pertsunagaz egiten zala itzarmena, Espainaren eragipenetik kanpo.

1.2. FORUAREN itzak zer esangura eban Espainol eta Euskaldun eritzietan.

Emen argitu bear dan itandu bat egin bear dogu: *“Foruak, Euskal Legeak izan ziran edo Espainatarrenak ?”*.

Foruaren itza Espainolaren itza da, eta bere esangura, espainol agindutik lurralde baktzari *“Cartas Puebla o Foros de Población”* ⁽¹⁾ emoten jakiezan

(1)Cartas puebla o Fueros españoles = Eurentzat privilegios ziralako, baiña ez Euskaldunentzat, gure legeak izan ziralao.

eskubide, lege berezi edo mesedeko baimenak ziran.

Orrek al ziran baiña, Euskal Foruak ?. –Ez !.

Benapar, Napar, Bizkai, Giputz eta Arabako Euskal Foruak ⁽¹⁾, Euskaldunen Batzarreko Lege Zaarrak ziran da.

Nai ta, Euskalerriko Egoaldean espainol erregearen eragipenera jausi gintzazanean, Euskal Foruaren itzagaz erabili.

Kontu aundian eukin da, Euskal Foruetaz berba egiten dogunean, Euskal Jabetasunegaz berba egiten dogula.

2. Borboi leiñuaren sorkuntza.

Bourbonnais edo Borbonesadoko lurraldea Frantziako erdian kokatuta dago.

Gitxi gora bera, gaurko Allier eskualdean dana, eta len Moulins izenarekin euki eben uri nagusiagaz esagutzen zanakin, IXn gizaldira joan bear gara, Aimarrek Borboi lurralde orren jabetza “*Baroi*” lez euki ebanean, eta Borboi izena ortik artu ebala jakiteko.

2.1. Borbon leiñua, Erregetzaren eragipeneko maillara igotea.

1.272an igon eben, euren leiñuzko ondorengo bidez, Borboi izen orrekin erregetzazko mailla ingurura.

Beatriz, Borboneko Ines eta Borgoñako Juanen alaba, Frantziako IXn Luis erregeen seigarren seme Roberto kondeagaz ezkondu zanean, eta onen ondorengo seme Luisek Borboneko Dukearen izena artu ebanean.

2.2. Errege mailla artu.

Eta erregemailla artu eban, 1.589an Nafarroako IIIgarrena eta Frantziako IVn Enrikek ⁽²⁾ Frantziko errege aulkian ezarri zanean.

2.3. Errege maillan sendotu.

Frantziako aulkian Borbon leiñua: XIII, XIV eta XVn Luis erregeakaz sendotu zan. Eta 1.814-1.830eko berregintzaren aldiko ⁽³⁾ urte bitartean, XVIIIIn Luis, Xn Karlos eta 1.830-1.848 urte bitartean Orleanseko Luis Felipegaz.

2.4. Errege maillan Zabaldu.

Borboiaren leiñuzko zabalkuntza, 1.700ean Espainako erregetzara Vn Felipe etorri zanean asten da, gero I Luis, VIIn Fernando, IIIIn Karlos, IVn Karlos, VIIIn Fernando, IIIn Isabel, XIIIn Alfonso, XIIIIn Alfonso eta I Juan Karlosekin sendotu zana.

(1) Benapar, Napar, Bizkai, Giputz eta Arabatar Foruak = Euskal Lege Zar edo Euskal Legeak. (2) Nafarroako IIIIn Enrike, Frantziako erregetzara IVn izenagaz igon ebenak, Nafarroako IIIIn Juana de Albrit erregiña eta Borbongo Antonio Bendomeko dukearen semea izan zan. (3) Berregintzaren aldiko = periodo de la restauración.

Bigarren zabalkuntzan, 1.735ean Sizilia bien Borboiari asiera emon jakonean: Vn Feliperen irugarren semea VIIn Karlosen izenarekin, 1.711ko urtean Parmako errege eta 1.735ean Napoles ta Siziliako errege zana-gaz.

1.759an VIIn Fernando il zanean, VIIn Karlosek Espainako erregetzara IIIIn Karlosen izenarekin igoteko, Italiako erregetzak alboratu ebazan, eta Italian beragandik asita, IVIn Fernando, 1.805ean Napoleonek erregetzatik kendu ebena, eta Napoleonen berakadan, I Fernandoren izenagaz berrezkuratuta, I Franzisko, IIIn Fernando eta 1.860ko urtean IIIn Franzisko, Italia bere erregetzan, batuberri batera aldatu zana-gaz.

3. Vn Felipe.

IIIn Karlos "*lilluratu*"⁽¹⁾ ondorengo barik il zanean, or amaitu zan Austriatar Hasburgoko leñua, eta Espainako jaurkintza, bere arre-baren Maria Teresa Frantziko errege XIVIn Luisegaz⁽²⁾ ezkonduta egon zanaren birseme, Borboi leñiuko Anjoutar Vn Feliperen eskuetan itzi eban.

Vn Felipe Frantziko jaurkintzaren gortekoa izanda, goitik berako batzangomende eritzikoa zan, eta 1.700-1.714 urte arteko ondorengo guda sortuta, Aragoi ta Katalunya Austriako Karlosen alde egon ziralako, "*Nueva Planta*"ren legea atarata, eukezan Foruak ezereztu ebazan. Kataluñak, 1.977ko Iraillan askatasunezko eskukotasun⁽³⁾ antzeko bat lortu eban Espainaren jaurpidean.

Euskaldunak eta Bizkaitarrak batez be, jakin eben laster agertuko zala onantza, eta alan sortu zan, mugak Gaztelako lurraldetik Bizkaiko itsasorañño aldatu gura ebazanean, portuaren merkataritzazko zerga ordaiñak, gure erriarentzat bearrezkoak eta gureak izanda, ordaiñ orreik eurak artzeko.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, Vn Felipek ezereztu ebezan agindu orreik, eta mugak ostera joan ziran beren lekuetara, Foruak beti lez geratuta.

Arik eta 1.839ko Urrillaren 29an Karlistadako gudaindar bidez Esparterok Gazteizetik, Foru Legeak ezereztu arte.

4. VIIn Fernando.

1.808an Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda lortu eban, erregetza, IVIn Karlosek bere seme VIIn Fernandoren eskuetan iztea.

1.808an Jorraillaren 15ean VIIn Fernando, Napoleonegaz Baionan alkartzeko Gazteizen egoala, Bizkaitarrek gure Lege Foruak ziñez izenpetzeko, Gernikara joateko eskatu eutsoen.

Eta 1.808an Jorraillaren 15eko egun berean, Bizkaitar beste talde bat be aurreratu jakon, indarrez ipinita eukezan portuko kapitañak edo gudal buruzagiak kendu egiezala, Bizkaitarrak bere jaunagaz euki ebazan arreman onak, ostera bere onera ekarteko.

(1) Lilluratu = el hechizado. (2) XIVIn Luis = rey "SOL". (3) Askatasunezko eskukotasuna Espainaren jaurpidean = autonomia bajo el imperio de la constitución Española.

1.808an Jorraillaren 17an VIIIn Fernandok, euki genduzan Foru Lege guztiak baieztuz, gauza biak onartu ebazan, eta agindu ebazan bear ziran aldaketak egiezala, Bizkaitarrak euren egokitasunezko askatasunean jarraitu egien.

1.808ko Lorailaren 6an Napoleonek, IVn Karlos eta VIIIn Fernando Balenzaiko gazteluan atxilotuta eukazala, gortearen ekintzazko antzeko bat egin eban, bere anai Napoleon eta Bonapartetar Jose Espainako errege aulkian ezartzeko.

Napoleon eta Bonapartetar Josek, Bizkaiko Urkijotar Mariano Luis, bere ordezkoko ministrua, eta Mazarredotar Jose Domingo gudaontziren ministrua izendatu ebazan, eta Mazarredotar Jose Domingo Bizkaiko Batzar Nagusietan buru zala, Bonapartetar Josek, itz eman eban Bizkaiko jaun lez.

Napoleonentzat baiña, gauzak ortik aurrera okertzen asi jakozan, eta a ta guzti, Napoleonek Euskal Nortasuna onartu ta be, berak Europako Laterri guztiak lez, Euskal izaera Frantzez biurtu gura eban, Frantzezak IVn gizalditik asi ta, beti ekarri dabelako azpitik marratuta, batzangotasunaren meneko eritzi ori, eta asmo oiekaz, Munduko Kaizar baten agindupean elburutu gindezan.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, VIIIn Fernandok ezereztu ebezan Euskalerrarentzat, eta Bizkaiarentzat batez be mendeko lege orreik, baiña leen Espainako gudataldeakaz eta gero Frantzesarenakaz ia bost urtetan, iru bider orren aldizkan ainbeste nekaldi ekarri ondoren, beste garrantzizko gauza bat sortuko zan: ***“Batzuk Frantzez zale eta beste batzuk espain zale egin zirala,*** Euskal gizartearen Baita naspillatuta, gero Espainol jaurpideekin eta karlistadaren guda bidetik, geiago naastuko zana.

1.810ean Iraillaren 24an, guda nagusiak, Kadizeko gorteetan erregearen ordezkoa egiten egon zirala sortu eben ***“Espainaren jaurgo barria”*** (1), eurak aitu edo gura eben Espainol guztientzako ezarri bear zala ta, Euskal Lege, Nortasun eta Berezko erri lez euki genduzan askatasunak kontuan artu barik.

Gudalburu nagusiek, emen euki eben guda indarragaz arrotuta eta erregearen gaiñetik kokatuta, jaurgo barri ori, danez gain ezarri gura eben.

Baiña begitu zer ikusten dogu emen: ***“Espainako guda nagusiak erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren legepean beartuta ezarri ebela”.***

Gudal nagusi arek, zelan egin ebazan gauza areik, erregearen gaiñetik eurak ez ba ziran iñor lege orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik, European nortzuk euki eben indar nagusi ori, azpiko aolku orrekaz laterritasunen kaizartzazko batzangotasun orreik ezarri zitezen ?.

Danok dakigu, diru zalekeri aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta Mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gaiñetik European aolkulari nagusi ta bakarra 1.285 urtetan.

Mendizabalek(2) orregaitik, Kadizen egoan espainaren guda-gorte edo guda

(1) Espainako jaurgo-barria = creación de la nueva constitución Española. (2) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa.

yaurleri (1) agindupean sortu zan konstituzioaren legezko jaurgo barri ori Bizkaian ipini gura eban, Euskalerrarentzako Zeruaren oneitariko atsegin sari bat lez, espainaren beste lurralde bat geiago izan edin, eta orretaz alegindu zan.

Espainako gizarte guztia emendik aurrera alderditu egingo zan, Espainako konstituzioaren alde edo jaurgo barriagaz aurrera egin gura ebenak, eta lengo antzera, erregearen al osokerizko agintaritzza gura eben artean.

1.812an Urrillaren 17an indar eta maltzurkerizko auteskundera aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariak, Kadizen egoan guda yaurleriaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, Espainako jaurpidearen agiri orreik izenpetzeko.

Eta 1.812an Azaroaren 1erako antolatu zan, Espainaren jaurgo agiri barri orreik, Bizkaiaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero ziñ zitezen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812an Abenduaren 13an jaurgo orreri ziñ egin ondoren, Euskalerraren iru lurraldeko Udal guztiari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako Espainar eritziko ordezkariak aukeratu egiezala, Euskalerra ta Bizkaiko gizartea, oiñaze ta nekaldi aundi baten sartuta.

1.812an Abenduaren 31n, ostera sartzen dira prantzez gudalozteak.

Eta 1.813an Bagillaren illa erdian, ostera urtetan dabe Prantzez gudalozteak Bilbotik.

1.813an Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen, Napoleonen gudaloztea menperatzen dau, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, Espainaren lurralde guztiko gotzaiñiak asi ziran keiñatzaille esaten, *Espainako ordezkari gaitik iñork ez egiela txarto barbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak sartu ez zitezen.*

Eta orretarako, Espainako eleiz guztietan, urte guztietako Epaillaren 19an "Te Deum" abestu egiela agindu zan, Espainako jaurgo zaleak ekarten eben askatasun omenez.

1.813an Azaroaren 11n, Napoleonen gudalozteak porrokaldi gogorra artuta, Napoleonek Balanzaien elkargo bidez ziñiatu bear izan eban VIIIn Fernandoren askatasuna, bere erregetzazko aulkian ezarri egian.

1.814an Epaillaren 13an VIIIn Fernando, Frantziaren lurraldeko Balenzay erritik urten eben Espainarantza.

1.814an Lorailaren 4an VIIIn Fernandok Balentziatik, Espainaren jaurgo zale gudu ordezkariak Kadizetik keiñuz agindu ebezan lege guztiak, ezereztu ebazan, eta gure Foru Legeak ostera ezarri ziran betiko eredutasunean.

1.814an Urrillaren 15ean VIIIn Fernandok, ostera baieztatzen dauz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Lege guztiak, Bagillaren 27ko eskutitzan egin ebanez.

(1) Guda yaurlaria = gobierno militar.

Eta, 1.814an Abenduaren 14an Nafarroari beste agindu batekin, bere erregetzako eskubideak berrezkuratu eutsozan.

1.819ko urtean IVn Karlos, VIIIn Fernandoren aita, Napoleonen atxilotasunetik aske geratuta, Espainara itzuli barik, Erroman bizi zan, bertan il zan arte.

1.820ko urtean, osteraz azten dira gure Foruen aurkako eraso aldi gogorrak.

Guzur, maltzur eta indarrezko bidetik Euskal gizartearen *Arrazoizko Baita* lokaztu egingo dauana, eta urtearen aldaketako bidean Euskal Nortasuna ezereztasunezko amiltegira bideratuko dauana.

1.823ko urtean VIIIn. Fernandok, gudalburu jaurgozaleak beartuta Espainako jaurgo barriari ziñezko itza emon bear eutson.

1.823an Jorraillaren 2an, Prantziako errege XVIIIn Luisen gudalozteak, Angulemakoko dukearen agintean Baionatik agindu eban: "*Espainara aldatuko zala VIIIn Fernandoren laguntzan, bere erregetzaren absolutismo edo alosokerizko jaurkintza lortu dagian*".

1.830ean VIIIn Fernandok, **Salikako** legea ezereztu eban, bere alaba Isabel errege aulkian ezarri zedin. Eta Espainaren ondorengo guda sortuta, gure Euskalerrarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazan, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

1.833an Iraillaren 29ko arratsaldean VIIIn Fernando il zan, eta bere emazte Maria Kristinak artu eben ordezkari Espainako jaurkintza, arik eta euren alaba IIn Isabel erregetzako adiñetara eldu arte.

1.833an Azaroaren 30ean, erregetzaren jaurgo barriaren agindua.

1.833ko Urrillan sortu zan Espainan erregetzaren ondoriozko guda, karlisten aldetik, VIIIn Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro bideratuta.

5. Karlistadako guda onen Ondoriozko aurkeztaldi laburra.

Emen argi ikusten da goian aipatu dodana, mendeko batzangotasun asmo orren aurka, ez ebela balio ezerk.

Kristautasuna, eskubitar fazistek katoliko biurtu ta alderdikidetu ebenean, munduko gizarteari, izan dan lapurketarik aundiena egin eutsoelako.

Europar ortik aurrera, amaibako irudietan izan leikezan ordezkari agintarien aukera arloan, Munduko gizartearen antolaketarako irasi ziran Jaun erregezkari erakundeak eta bereztasunaren arrazoizko legeak, katolikotasunaren norkerizko zentzura aldatu ebenetik, mendetasunezko batzango asmo orren aurka, ez ebalako balio ezerk ! (1).

Mendeko asmo orreik, Munduko gizartearen eskubideen gaiñetik ezarri, ta Izadiak bizitzeko aukeratzen dauskun mozkin guztien kontrola euren eskuetan artuta, gudal agintariak asmo orren serbitzura indartuz, norkerizko batzango mende elburu orreik garaipenduta geratu ziran.

(1)Ni las leyes de arbitraje que se crearon para la función de los reyes, señores, o, cualquier otra figura de dirección que las posibilidades nos facilitasen valen nada, ante la imposición de esas ideas amorales e imperialistas amparadas con la fuerza de las armas. Pues se hicieron con la dirección moral y el poder del mundo.

Edesti guztiko gudal buru nagusi orreik, katolikotasunezko erlijioa ikur lez artuta eta merkataritzazko ondasundun serbitzura agindu ba dabe, VIIIn Fernandoren agintaritzan gaiñeratu ziran, eta ostean daukaguzan laterrietan naiz erregeak edo lendakariak euki, ostonduta dabillen aolkularien alegiñagaz eurak agindu dabe gaur arte.

Konturatu gaituz, Europa, Espaina eta Euskalerrian ortik aurrera borroka asko euki doguzela, eta danak, mende zikiñezko asmo orreri buruz.

Eta nabarmenekoa, Frankok odoljariozko gurutzada santuaren izenean Erdi Ugarte onetan egin ebana, menperatasunezko *Nacional Katolicismo* ori indarrez ezartzeko.

Sozialistak zer dira gaur egunean. Ez ziran jaio zapaltasunezko eritziaren aurka?.

Dana dala, Munduko gizartearen *Baitan* ortze gagoz lokaztuta, Berezko Gaita Gizaren eskubideen gaiñetik, merkataritzaren ondasunezko eritziak ezarri gure dabezelako, bizitzarako bear dan guztia, asmo orren kontrolpean eukinda.

Zer esan nai dau orrek, *Morroitasunduta diruaren serbitzura bizi bear garela ?*.

Gure bizitzan ekintza orrek, *Ankaz gora bizi bear garela esan nai dau.*

Egi ote da ?.

Gaur, European daukaguzan Laterriak dira geratzen diran menpekotasun orren erakusle edo agertzaille nabarienetakoak, euren barnean oraindiño, Ludi onen Kaisergotzazko asmo elburuakaz irasita dagozelako.

Eta Munduko gizarteak gaur, daukan jakintzaren aurrean barre egitekoa izanez gain, mingarria izaten bada, ez gara konturatuko antzerki arrunt edo trakets joko bat aurkezten gabiltzala ?.

Ez ziñeztekoa da, gaurko belaun aldiaren arazoizko gizak, ikuskizun aumon leikenik.

-Nobel saria merezi dabe ?.

-Ni enintzan arrituko.

3. ZATIA.

1. Euskalerrian, karlistadako gudaren asiera.

Euskalerrian eta Bizkaian batez be, ezin da esan gure Euskal Legearen aldeko borrokak 1.833an asi ziralara.

1.820an Urtarrillaren 1go egunean VIIIn Fernandok, 1.812an Espainako gudal nagusiak Kadizetik agindu ebazan konstituzio barri orren legeak ezereztu ebazalako, eta lenagoko erregearen nagusitza ostera aldarrikatu ebalako.

Riegotar Rafael koronel ordezkko gudal nagusiak Cabezas de San Juanetik, 1.812an Epailaren 19an Kadizen gudal nagusiko jaurkintzak sortu eben konstituzioa edo liberal jaurgo barri orren legeak aldarrikatuta, erregezko alosokeriaren aurka matxinatu zan, eta gudal nagusiak ortik aurrera euki eben

liberalaren laguntzagaz indar asko artzen joanda, euren adierazpeneko Foru Itza (1) bidez, eraso aldi gogorak egin ebazan, gure Lege Zarraren aurka.

Edestilari batzuk esaten dabe, Euskalerrian sortu zan karlistadako guda, ez zala izan Foruen goraberakoa.

Eurentzat ez, euren arteko borroka, Erdi Ugarte onen lurralde osoak mendean ezartzeko gaur lez, politikaren jaurkintzazko liberal eta erregearen al osokerizko eritzi bien artean izan zalako.

Gurea bai baiña, Vn Karlos Maria Isidrori, gure Lege Zarrak babestu egiazan laguntza eskatu geuntzalako.

Borrokaldi andi ta geienak Euskalerrian egin ziran, euren batzango mende asmotan, emen egon zalako Espainol kaizertza ezartzeko arazoaren ardatza.

IVn Karlos eta VIIIn Fernando Napoleonen gandik atxilotuta egon ziranean, guda agintariak asi ziran indarra artzen, eta gure Euskalerrian gudu antzez (2), euren gizon jaurgo zaleak ezartzen.

1.820an Epaillaren 7an Espainako guda nagusiak beartuta lortu eben, 1.812an Epaillaren 19an Kadizen sortu eben konstituziozko lege barri orreik VIIIn Fernandok izenpetu egiezan.

Eta 1.820an Epaillaren 18an, Gernikako Batzarkidei Epaillaren 24an batzartzeko agindu eutsen, gure Foru edo Euskal Legeak, 1.812an Urrillaren 18an euskal ordezkari gezur zaleak, Kadizen ziñatu ebezan Espainaren lege barriekaz egokitzeko.

Espainolak, Euskaldunai ainbeste amurru eukinda, mende joku orrein bitartez, bere lurretan ereiten ez ziran obariagaitik be zergapetu gura ebezan, adibidez: Garagar, zikirio edo zekale (3), olo (4), ilar nabar edo txitxirioagaitik (5), eta ez edozer gauza 14.000.838 erleko diru kopurua izan zalako.

Maltzurrezko joku orretan baiña, espainolak zerga orreik ezin ebezan aurrera eroan, Bizkaiak, lenago bere Jaun erregeari antolabidezko lanagaitik ordaintzen ebazanak, ezereztu barik euki ebezalako.

1.820an Epaillaren 25eko denbora onetan, Espainolak mogimendu larregi egin ebezan gure Euskal Legeak, euren jaurgo Santu barriaren barruan urtu egiezan, Espainako lurralde guztietan desberdintasunak aienatzeko, eta Euskaldunak euren izatasunezko Nortasuna galduta Espainol biurtu zitezen.

1.820an Jorraillaren 1etik aurrera, Bilboko Udalak lankidetasun aundia erakutsi eban espainol jaurgo zale guda agintariekin, *Udalak ziñatuta euki eban Espainol jaurgo politikua* Jorraillaren 2a aldarrikatzeko eguna zala agindu eutsoenean, Bilbaotarrak Espainol biurtu zitezen.

Bilbok urte onetan, 587 gogozko edo oldezko gudari euki ebazan.

1.820an Bagillaren 17an Mendiolar Bizente Antonio lege gizonak, au esaten eban askatasunaren gora beran: *Jaugo barri ori* (6), *politikaren askatasuna, gizartearen askatasuna, eta askatasunezko gogoetagitik* (7) *berba egiten zanean, erri gizonen kasketaldi edo naikeriaren* (8) *eskuetan*

(1) Foru itza = Gurentzat Euskal Legea da. para los españoles privilegios. (2) Gudu antzez = estrategia militar, estrategikamente. (3) zikirio edo zekale = centeno. (4) Olo = avena. (5) Ilar nabar edo txitxirioak = garbanzos. (6) Jaugo-Barri = nueva constitución. (7) askatasunezko gogoetagitik = ideas liberales. (8) Erri-gizon'en kasketaldi edo naikeriari = arbitrariedad de los hombres públicos.

itxi ezker, atsegiñezko ipuin bat izango zala geien.

1.821ean Urtarrillaren 1ean, Bilbon egon ziran naitazko edo oldezko guda mutillak (1), Espainako gudalozte biurtu ziran, eta orduan Bizkaiko zenbatzaille zanak Bentadestar Pablo koronela, gudalozte ori bideratzeko aurreratuta, Urtarrillaren 2an urten eben Gezalaren aginduan Bizkaiko errietatik, ainbat matxinatuta egon ziranak atxilotzeko.

1.821ean Urtarrillaren 16an, Bediatar Lorenzo Antonio ordezeko koronelak, iñor ezin zala bere lurraldean mugatxartel edo igarotxartel (2) barik ibili, eta bera barik arrapatzen ziranak, 10 erleko nekepean zigortuta geratuko zirala agindu eban.

1.821ean Urtarrillaren 26an, agindu baten bidez, sendagille ta irakasleen kontrol aundia egin eben, eta gogorkerizko zigorraren keiñaduragaz zemaitu, euren agindutik kanpo ez zitezen ibili.

1.821eko Epaillaren 19 eta Jorraillaren 10eko jaiak ospatzeko, Bizkaiko agintari Bediatar Lorentzo Antonio ordezeko koronelak, etxeak, bakoitzak bere neurrian argitu egiazala agindu eban, eta beste ainbeste Espainaren askatasunezko Loraillaren 2garren eguna ospatzeko

1.821eko Iraillaren 24an guda nagusi liberalak, gudari agerketa aundi bat egin eben, Espainol jaurgo barriaren berregintzak lortu ebezalako (3).

Nundik nora eta zer lortu, gaur ia 200 urte beranduago arazo bardiñen aurrean aurkezten garanean ?.

Gaur argi ikusten dogu, zapaltzaillezko asmo orreik, kaizertzaren asierako gogo bardiñean daukiezala. Ez dakit zertarako baiña, sekula euren etxeko jaurkintza ezin dabenean burutu edo ta zuzendu.

A ta guzti: Naita Burgos, Leon eta Sebillatik guda indar geiago ekarri, legeak indarka euren aldera aldatu, Euskal gizartea igaro bideko txartelakaz kontrolatuta euki, eta gure artean euren guda zerrendak erakusten dauan lez, beartasunezko premiñak bultzatuta edo zaltzaille asko egon ziralako, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan ezin eben gauza aundirik euren mende asmakuntzara burutu, erri geienak matxinatuta egon ziralako.

1.822an Epaillaren 1ean Bizkaiko guda agintari Bediatar Lorentzo Antoniok, agindu au bialdu eutsen Bizkaiko Udal guztiari: 1.820ko Epaillaren 19an Espainako jaurogoa ziñatu zan eguna eta 1.808an Loraillaren 2an Espainaren askatasunezko egun biak ospatu egiezala.

1.822ko urte guztia, matxinatuakaz zeregin bardiña eukin da, Bilbao babestuteko arresiz inguratzen asi ziran, diruaren ezagaitik amaitu barik geratu zana.

1.822ko Urte onen Abenduko illean, Seoanetar Antonio guda agintariak, arrapetan ziran matxinatuak (4) ez egiezala tiroz il agindu eban, eta ille orren barruan urkamendi edo garrotebillean il ebazan mutil bi.

1.823an Otsaillaren 24an, Seoanetar Antonio guda agintariak Bilbotik, agiri

(1) Naitazko guda-mutillak = milicianos voluntarios. (2) Muga-txartel edo igaro-txartel = pasaporte. (3) Espainol jaurgo-barria'ren berregintza lortu ebezalako = el logro en la reconquista de los nuevos derechos constitucionales españoles. (4) Orduan Matxinatuari be, eura diran izenagaz Fazistak zirala esaten eutsen.

gogor bat zabaldu eban, erregetzaren legezko iraspena berrezkuratzeko aurka. Artean, Frantzezaren aurka egitekoen aitzakiagaz, Euskal gizartea keiñadura bidez kikildu gura ebana, eta bere aldarriketa ori ; *Viva la constitucìòn ! ; Viva la uniòn !* berbakaz amaitu eban.

1.823an Epaillaren 8an Saldubako (1) gudaltegitik Ballesterosek, bere aginduan egoan bostgarren guda lurraldeari, Frantzez eta erregezko lege zarren aurkako beste ainbeste agertu eban. Bilbaoko Euskaldunentzat Seoanetar Antoniok, meatxuzko keiñu bardiñakaz egin eban antzera.

1.823an Jorraillaren 2an Prantziako XVIIIen Luisen gudalozteak, Borbontar Luis Angulemako dukearen agintean Baionan egon zirala: "Erregearen legezko iraspena berrezkuratzeko, 100.000 gudariekin Auiñamendiak igarota Espainara aldatuko zala agindu eban". Foru Aldundiak Jorraillaren 22an, Bizkaiko erri guztietatik zabaldu ebana.

1.823ko Jorraillan, Borbontar Luis Angulemako dukearen aginduan sartu ziran Erdi Ugarte onetan, Frantziko San Luisen 100.000 gudari semeak.

1.823an Jorraillaren 9an Zumarragan egoan orokorrezko gudaltegitik, agindu bat bialdu eutsoen Bilbaon egoan Euskalerriko gudal nagusi Kesadatar Bizenteri: Fernando erregeagaz batera, Angulemako dukea beren 100.000 gudariakaz Espainan sartu zala, eta ez egiala Bilbo arrizkuan ipini, alperrezko alegiña izango zala ta.

1.823an Urrillaren 1ean VIIen Fernandok, erregetzaren al osokerizko agintza aldarrikatu eban, eta ararte Kadizetik gudal nagusiak agindu ebazan jaurgo barriaren edo konstituzioko lege barri guztiak, ezereztu eban.

Eta Espainan emen asiko zan, edestilariak 1.823-1.833ren urte arteko zori gaiztoko amarkada deritxonai, gudal agintariak, erregearen gaiñetik agindu naian.

1.823an Urrillaren 30ean urten eben Prantzezak Bilbotik eta euren orde z oiñezko iru txanberga (2) eta zaldun talde bat (3) etorri ziran.

1.823garren urte onen askenetan, VIIen Fernando, Espainako gudalburu jaurgozaleak beartuta, Espainako konstituzio barriari ziñez itz eman bear eutson, *Sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquia* esaten ebana, eta gero, *Sin detrimento de la unidad constitucional Española biurtuko zana*.

VIIen Fernando ortik aurrera ez eban inkiziziorik barriz ezarri, erregetzaren betiko antolabideak berrezkuratzeko bertan itzi ta.

Eta gudal agintariak beartuta, erregeak Espainako jaurgoa ziñatu ebenetik, atara ebazan legeak, danak izan ziran batzangotasunezko jaurgo aldera urbiltzeko. Noren aolkularitzazko esku baltza ibili zan asmo orren azpitik ?.

Kontuan eukin bear da orregaitik, onein asmakuntza, erri ezbardiñeko Foru Legeen gaiñetik, Erdi Ugarte onen lurralde guztiko bardintasuna gure ebala, eta alegiñezko ekintza orrein bidetik aukeratuko ebezan barriro, Fueroaren edo Euskal Legeak ezereztuteko bideak.

(1) Saldubako = desde Zaragoza, porque ese era su verdadero nombre en Euskera. (2) Txanberga = batallòn. (3) Zaldun-talde bat = un escuadròn de caballeria.

1.824an Urtarrillaren 6an, 5garren gudu taldearen ordeztu, 8 euneko gudari taldetan bananduta 600 gudari euki eban beste batalloi bat etorri zan Bilbora.

1.824an Epaillaren 3an, guda amaitutzat emon ebelako, liberal gudu agintari nagusiak Bizkaiko batalloiaren guda mutilak azkatu egiezala agindu eban.

Euskalerrian eta Bizkaian batez be, eskeko asko egon ziran urte auetan.

1.824an Lorailaren 7an, Alondo Baldenebrotar Eladio izendatu eban Bizkaiko zuzentzaille (1).

1.829an Urrillaren 21 22ko egun bitarteko gauan, azpi joko bat agertu zan Gazteizen, egon ziran gudutalde armatuak matxinatzeko, eta Santander inguruan matxinatuta ibili zan Lastratar koronelari botaten eutsoezan erruak.

Antza, Euskalerriko legearen aurka, Auñamendietara aldatutako mugak, ostera Ebro ibaira aldatzeko mogimendua izan zan.

1.829an Abenduaren 9an VIIIn Fernando, Napolesen jaioa eta bere loba zan Borbontar Maria Kristinagaz laugarrenez ezkondu zan.

1.830ean Epaillaren 5ean VIIIn Fernandok baiña, 1.823an guda nagusiak beartuta Espainako jaurgoari ziñ egin eutson bidetik, ez zala beren borondatea muga orreik ostera aldatzea erantzun eban.

Euskal Legeak guzurraren bidez ezereztuteko alegiñak, eta guda buruen indarra ta maltzurkeriak emendik aurrera, gero ta nabariago ikusiko doguz.

1.830ean Jorraillaren 3an Madrileko **la Gaceta** aldizkarian agertu zan, Fernandok **Ley Sàlica** zelan ezereztu eban.

1.830ean Urrillaren 10ean jaio zan Isabel VIIIn Fernandoren alaba.

1.833an Iraillaren 29ko arratsaldean il zan VIIIn Fernando eta egun berean bere alaba, IIIn Isabelen izenarekin egin eban Espainako erregeña, ama Bi Siziliako Maria Kristinaren errege ordegotzan.

Eta VIIIn Fernandorekin joan ziran betirako, ararte Espainako erregeak euki eban epaiketaren antolamendua, maltzur eta zapaltzaillezko asmakuntzari ate guztiak zabalduta.

1.833an Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama guda nagusiak, Karlos Maria Isidro VIIIn Fernandoren anaia, Vn Karlos izenarekin izendatu eban Espainako errege eta oldezko gudariakaz Logroño artu ta gero, eurakaz Nafarroara aldatu zan euren aldekoakin bat egiteko (2). Eta emen asten dira karlistadako ondorengo borrokak, nai Espainan nai Euskalerrian.

Karlistaren guda asieratik Bizkaian, lurraldeko baltzu edo batzar bi egon ziran: **Bilboko lurraldearen Aldundi ta espainol jaurgozaleakaz egon ziran erriak. Eta Durangon egoan gudu Aldundian, Karlosekin egon ziran erriak.**

Eta Erdi Ugarte onen lurralde guztiak zorro baten sartzeko, urte onetan jaio zan, Espainaren lurraldeko probintziaren antolamendua.

2. Karlistaren gogoetak edo asmoak (3).

(1) Zuzentzaille = corregidor. (2) Gero, oldezko-gudari auek Nafartar kideakaz batera izango zan Zumalakarregiren asierako gudaletzea. (3) Karlistaren gogoak edo asmoak = ideario carlista.

- * Karlos Maria Isidroren ondorengo legebidearen eskakizuna (1).
 - * Vn Karlosen erregezko al osokeri politikua.
 - * Katolikotasunezko osotasuna (2).
 - * Atziñako Foruen babesa (3).
- Foruen babesa bidetik, Aragoian Teruel, Balenzia edo Kataluniako laguntza artu eben, eta Euskalerrian Euskal Legearen jabetasunezko bidetik.

3. Espainako jaurkintzan Foruak zaintzeko bear ziran baldintzak, Aragoi, Balentzia edo Katalunian.

- a) Politikako jaurkintzaren maillan, banatuta egotea edo zati baten bai beintzat.
- b) Epaiketasunerako, erriko ebazleak.
- d) Erraltxor zergaren zati bateko eskubidea.
- e) Gazteak, soldauzka serbitzutik aske egotea, nor beren lurraldean izan ezik.

3.1. Euskalerrian.

Euskalerriko lurraldeak, euren batzarreko nagusitasunean antolatuz jaurkintzen ziran, eta Batzar Nagusi orrekin agintaritzak, mugarik ez eukela adierazteko, Bizkaian jaurkintzaren antolaketa-erako zelako baldintzakaz aukeratzen ziran itun edo itzarmeneko jaunak argituko dodaz.

- a) Gudal buru izateko.
- b) Zuzen bidearen buru nagusia izateko.
- d) Bizkaiko ondore aundiko lurraldeak zaintzeko.

Jauntza, ain zabaleko almen eta ondasun orrekaz jantzi ba eben, bere buruzagitasuna lasaitasunezko jaurkintzan iraun egian izaten zan.

Eta kontu aundian artuta, berea ez zala ezer, daukon guztia, bere antolarazian babesteko, Bizkaitarrak emonekua zalako.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko: *Erabagitasunean* apur bat, beste apur bat *Egilletasunean*, eta beste ataltxo bat *Legegilletasunean* emoten eutsoen.

Alderantziz baiña, batzordea beartuta geratzen zan, jaun edo erregek bere antolarazian bakeak lortzeko, edo baten bat gure lurraldeetan indarka sartzen zanean kanporatzeko borrokatu bear ebanean.

Euki eben gudaloztea borrokaren neurrian guda mutillakaz indartu bearrean geratu giñan da.

Eztaibadak, Euskaldunenak izaten ba ziran, Jaunak ez eban zertan gure guda mutillen soldatarik ordaindu bear.

Eta etxetik kanpo, Jaunaren gauzatarako izaten ziranean, gure mutillen soldata arifñautik ordaiduta.

(1) Karlos Maria Isidroren ondorengo legebidearen eskakizuna = reivindicación de la legitimidad dinástica del infante Carlos. (2) Katolikotasunaren osotasuna = integrismo católico. (3) Antziñako Foruen babesa = defensa de los Fueros tradicionales.

Jaun edo errege aldeko baldintza au, gure jauntza Gaztelako erregearen eskuetan jausi zanean, nai European eta bai Euskalerrriaren askatasunerako, txeberazko sare aundi bat biurtu jakun, errege orreik euren norberkeri bidez, xake joku (1) baten itxuran beti borrokan ibilita, Euskaldunak ortik aurrera anaiarteko borrokan ibili garalako beti.

Edestilari batzuk maltzurkeri bidez esaten dabe, Euskaldun baktzak 15 erleko zergak ordaintzen ebazala, gaztelar baktzak 65 ordaintzen ebazanean.

Euskaldunak baiña, Espainolak ez Garelako, ordainzen gendun guztia, itzarmeneko jaun aukeratuari ordaintzen geuntzena izaten zan.

Bizkaiko Jauna, nai jauna bakarrik edo ta Espainako erregearen eskuetan jausi zanetik, Bizkaitarren langille soil bat (2) bakarrik izan zalako.

Guzti au, *Euskalerrria, Nortasunezko Erri-bat Dalako da*.

Emen, iflorentzat ez leike zalantzarik egon bear, maltzurtasunezko zalantzak egi lez, fazizta menperatzaille asmokoak aurkeztuten dabelako bakarrik, eta danok dakigu nortzuk diran eta zelango bakeak gure dabezan.

3.2. 1.833ko urtean, Espainako leen karlistadaren gudari asiera emon.

1.713an Lorailaren 10ean Vn Felipek, emakumezkoak erregetzaren ondorego jarraipenetik kanpo izten eban Salikako legea agertu eban.

1.789an IVn Karlosek ezereztu eban Salikako lege ori, nai ta aldarrikatu barik geratu.

VIn Fernando lengo iru ezkontzatic ondorengo barik egonda, Napoleseko Maria Kristinagaz laugarrenez ezkondu zanean, aurdun geratu zan au.

Eta 1.830an Epaillaren 31n VIn Fernandok bere alaba IIn Isabel izango zana sei illabete jaio orduko, bere aita IVn Karlosek 1.789an agertu eban legeagaz, 1.713an Vn Felipek ezarri eban Salikako legea ezereztuteko onartuta, emakumezkoai ortik aurrera baimena emon eutsen, erregetzazko aulkian ezarri zitezen.

VIn Fernandoren ondorengo ia bere erregetzazko denbora guztian, bere anai Karlos Maria Isidro izan zan, arik eta VIn Fernandok lege ori aldarrikatuarte.

1.830ean Urrillaren 10ean jaio zan IIn Isabel.

1.832ko Iraillan VIn Fernando San Ildefonsoko eguras etxean oso gaisorik egon zanean, bizkor ibili ziran Karlos Maria Isidroren aldekoak Espainako agintaritzaz artzeco, eta nai ta uts egin arren, Kalomardetar Frantzizko Espainako ministruak Fernandoren eskutik lortu eban, Karlos bere anaiari izendatzen eban erregetzazko agiria, izenpetzea.

1.832an Urrillaren 1ean baiña, Fernando osteraz bizkortu zanean, Kalomardetar Frantzizko ministrua eta euren alde egon ziran agintariak jaurkintzatic kenduta, ezereztu eban sinatu ebana, eta gauzak osteraz joan ziran Isabelen alde.

(1) Xake jokoa = juego de ajedrez. (2) Langille soil-bat = asalariado.

1.833ko Epailan Karlos Maria Isidro, bere anaia VIIen Fernando ez ebalatu euki nagusitasunik, 1.713ko Lorailaren 10ean Vn Felipek ezarri eben *Ley Sàlica* ori ezereztuteko esaten eban, 1.789an euren aita IVn Karlosek ezereztu ebanean, aldarrikatu barik geratu zalako, eta bere loba IIen Isabelen Asturiaseko printzea izatea ez ebalako on artzen, iges egin bear izan eban Portugalera.

1.833an Iraillaren 29an il zan VIIen Fernando, eta Karlos Maria Isidro bere anaiak, IIen Isabel bere lobaren Asturiaseko erregin gai izatea ez ebalako on artzen, ez eta urte ta egun orreitan IIen Isabel erregina izendatuta, bere ama Borbon Bi Siziliako Maria Kristinak erregezko jaurkintza orreik ordezkatu egiezan gutxiago. Karlosek, Abarkatar Joakin guztientzako ministrua izendatuta, gudalozte eta guda nagusiaren laguntza eskatu eban.

Guda nagusien artean ez eban euki aipameneko laguntasunik, nai ta Portugaleko errege I Migelen onespena euki.

1.833an Urrillako illean, Espainia ta Euskalerrriaren Egoaldeko leku askotan agertu ziran Vn Karlos erregezaren aldeko garrantzi gitxi euki eben matxintasunak, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Logroñon izan ezik. Balio ez ebena baiña, Uri orreik luzaro karlistaren kontrolpean eukiteko.

Eta, 1.833an Urrillaren 6rarte ezin da esan borrokak edo karlistadako guda asi zirenik, arik eta Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama guda nagusiak Karlos Maria Isidro, Vn Karlosen izenarekin errege izendatuarte.

1.833an Azaroaren 2ko denbora onetan, Ladron de Zegama guda nagusia Balladolizetik eta Zumalakarregitar Tomas Koronelak Iruñatik, atzean guda gertatzerik eroan gabe alde egin eben egon ziran guda gertatzerik, euren matxintasuna aldarrikatzeko.

3.3. 1.833-1.876eko urte bitartean, karlistadaren guda.

Iru izan ziran karlistadako borrokak, 1goa: 1.833-1.840ko urte bitartean. 2garrena: 1.849-1.860ko urte bitartekoa, guda ez zana edestilariak esaten dautsoenai. Eta 3garrena: 1.872-1.876ko urte bitartekoagaz amaiera emon jakona.

Eta, nai ta Frankogaz 1.936-1.939ko urte bitartean milloi bat gizaseme ildako beste borroka latz bat euki arren, laurak menperatzailezko guda izan da, ez dira izan gai, arrazoiaren erabagitasunean gaurko egunerarte ezer argitzeko, leenengoko aukera bardiñean aurkezten garalako.

Iruetatik, leengo au izan zan gogor eta odoltsuena, zazpi urteko borroka onetan 200.000 giza seme gaitetik il ziralako.

Karlos Maria Isidro, VIIen Fernando erregearen anaien alde izan zan leenengo matxinada au, Vn Karlosen izenagaz gorraldu ebena.

Espainako guda gertatzeak euren lurraldeetan, laster geratu eben matxintasun ori, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Aragon, Katalunya eta Balentziako erkidetasunetan izan ezik.

Eta gertakizun ori alan izanda, arrazoi ori izan zan errudun, borroka gorri orreik, erdi ugarteko Iparralde onetan izan zitezen geien eta gogorrenak.

4. ZATIA.

1. Aurkezpena.

Espainako IIn Isabel eta Karlosen anai arteko ondoriozko guda orreik, euki ba eben be, ez eben euki erregetzaren aulkiagaz zer ikusirik, ondorio ori aitzaki bat baiño besterik ez zalako izan.

Arazoaren erpeak, oso sakonagoak izan ziran.

Europaren etorkizunari begira, aurrerakuntzazko oinkada barri bat emon bear jakon: *Diru kontuan, nekazaritzan, merkataritzan, burnigintzan eta eurentzako bear ziran lantegi gintzak*, beste egokitasun barri batzuk eskatzen ebezalako.

Orduan egokitu bear ziran, Giza eta Berezko Errigizarteak daukazan eskubideak, Mundu eta Europaren Jendekuntzan alango aurrerazko oinkada bat emon ezkerro, bera osotzen dauan ordezko egille guztiekin, neurri bardiflean, aurrera egin bear ebelako.

Ez ziran neurri orreik kontuan artu, liberalismoaren jaurkintz asmoak ekarten eban guda indarrezko bizkortasunagaz, eskubide guztien gaiñetik ezarri zalako.

Nun egon zan Europaren Ekanduzko aolkulari nagusia ?.

Erregeari, gudal nagusiak gaiñean ipini jakozan antzera, berari diruaren zaletasunezkoak gaiñean ipini ote jakozan ?.

Emen, esango dodazanetik salbuespen aundi bat egin bear dogu, berezko errietan Euskalerrian lez, eskertu ezin doguzan Gotzai, Apaiz, Lekaide, Lekaime Abertzale demokratiko asko izan zirenak ta gaur diranak daukaguz, euren jakiturizko laguntzarik gabe, Euskalerrriaren izatasuna gaur, ezereztuta egongo zalako.

Kaizar batzangotasun asmo orrek, errikoi izatasunean naste asko sortzen dabelako, eritzi bien arteko ezberdintasunagaitik berba egiten gagoz emen:

Bata, bereiz edo izatasunezko errietan, euren *Baitan Jesusen* itxarokor ekanduzko mezu demokratikoak zabaltzen dabezan Gotzai, Apaiz, Lekaide, Lekaime errikoiak.

Eta bestea, danon gaiñetik Erromako katolikotasun agindu gurean, munduaren edestiko berezkotasunean lortu ziran oiturazko izatasun ta ekandu demokratikoak, Norkerizko batzangotasunaren egarrian ezereztu naian dabizenagaitik.

Son como ovejas, esaten dabela sarritan entzuten dogu.

Bai ?.

Eritzi orregaz, *nungo kontuetan* artzen dira *Jainko Egilleak* ipini euskuzan *Legeak* ?.

2.000 urte daroaguz batzangotasunezko borroka latz orrekin, dan guztia batu baiño, milla zati geiagotan apurtzen dauazan erri, izkuntz ta ekanduzko oiturak.

Ez ete da naikoa ?.

Antza ez, begitu bestela gaur zer egiten daben Euskal gotzaiarekin, naita Euskaldunak izanda gure Euskerazko Nortasunean aienatu ez zitezen, edo ta Euskaldunak izan da be, norkerizko kaizar batzangotasun eritzian gizon egiñak bialduta, ia Euskaldunai Espainol biurtzen ba gaituen.

Idaz lan onen aria ostera artuta gero ikusiko dogun lez, Aita santu, gotzai ta apaiz katoliko aolkulari asko lenengo karlistadaren alde ibilita, liberalak garaipentzen asi ziranean, gauza orreik eurakaz ez ba ziran etorten ostondutako itxuran, liberalaren aldera guztiz aldatu ziran. Eta ondore, Europako edestitik etorten ziran mendeko asmo ta fazizta eritziekin alkartu ziran.

Nik emen, naita eurak izkutuan ekarri arren, katolikotasunezko eten bako azpi joko maltzur aundi bat ikusten dot, ainbeste urtetan berezkotasunaren aurka egin ta egiten dabezan gauzak, ezin diralako ostondu.

Erromako katolikotasuna baiña, ez ete da konturatuko, laugarren gizaldean erabagi zan kaizarrezko batzango asmo faziztaren eragille nagusiena izan da, gatz egiten jakula siñistea maltzurrezko jokabide orreikaz ?.

Bizi onetan gaiñera, milla urte askoren eginkizunezko jokabidetik eta *azter bideko antolakuntzan ulermenduta, argitasun guztiagaz agertzen ba dira Baitaren emaitzak.*

Aztu ete jakie, *Jainkoari* begira bizi onen *zor eskubideak* ordezkatzeko, ardatzezko eragille arduradunak, *Lots aundiko Ekanduta ta Maitasunak dirala?*

Dana dala, orren arrazoiaren esan naia, *Europan egon diran borroka latz guztiak, kaizar mendeko batzangotasunaren asmo zaar orren elburugaitik izan dira*, batzuk norkerizko lilluragarritasunean bizi daitezcan.

Eta orregaitik, bizitzako panpiñaren ariak euren naiera erabilia, ez Karlistadarenak, ez Europako edestian egin diran amaibako borrokak daukie beste adierazpenik.

Oso susmagarrizkoa da, gaur errigizarteetan diruagaz sortzen dana. Nork antolatzen dauz sare arteko txebera orreik ?.

Ala, Norkerizko arauak, daukagun erabillitasunaren biziko zabaldegian, *Jainkoaren Legeak* aurkezten dauskuzan ditekeen eskualdi guztiekaz topo egin dabela ta, guzur geiagorik ez dalako sartzen ote da ?.

Nik uste dot, azkeneko arrazoi au dala errukari, bizitz onek beren legeak daukazalako.

Orregaitik, *Giza ta Berezko errigizartearen eskubideari begituta* nik egiten dodan itauna, *Gai bizi onetan, Jainkoari begira lortutako Baitaren Ekanduzko ulermenak* Kamaleoien margo edo kolore beste, ainbat arpegi eukiko ote dabe ?.

Danok dakigu, gaiaren atal edo zatitxo guztiak aurkezten dauskuezan almenak, eta Bere Legearen bidez eurakaz ardurazko ekintzan egin geinkezan itaunak, amaibakoak direla.

Baiña ez lapurkerizko bidetik, gaitasun onen *Baitak* eskatzen dauskun zentzunezko elburuekin baiño.

Bestela, edestiak erakusten dauskun lez, *Dan guztia, borroka, eztanda, oiñaze, negarra, samiña eta ezbearretan biurtzen jaku.*

Orregaitik, gure bizitzako ekintza guztiak elburu bardin bategaz, Jainkoaren ezin besteko Lege bidetik, bealdetik gora jasotzen dira.

Baiña, Legeak bere azpia marratuta daukanagaz, *Ekanduzko Lotsagizunean, Zor Eskubidearen Ordezko Ekintzak, Danoren Ardurazko Baitagaz Bardinduta*, bizitzaren orekazko bakeak argitu gindezan.

Egiztapen ederra bizitzak emoten dauskuna da, eta adierazpen aundiena, Jainkoak bizitz oneitara eragille lez bialtzen gaituena.

Baiña, zelango eragilletasunetan gabiltz ?.

Norkeriaren asmakuntzazko alegiñaren bidez, *Amarruti (1), Maltzur, Okerrak eta Biurrizko* eragilleak izanda ?.

Berezko arrazoiakin begitu ezkerro, ezin lei sinistu antzoki onetan egiten gagozenarekin, eta geiago, gaur daukagun jakintzarekin, ezin leikelako ulertu, *Gaia, Giza ta Errigizartearen eskubideakaz egiten dana.*

Euskaldunak, orregaitik begitu bear dogu edestiko atal au, begitu bear diran berezko begiakaz.

Ikusi daigun zelan: "*Orain 2.763 urtetik gaur arte, Euskalerrriaren arazoak bardiñak dirala. Ez Frantzia eta Espainagaz, berea bakarrik dalako, Europarena dalako baizik*".

Gaurko egun oneitan, Kataluniako Sitgesen batu dira mundu onen jakintsu aundi ei diranak, eta artu dabezan erabagietatik bat, gizaren eskubideak, daukagun Laterrintasunezko Arauan zaindu bear dirala.

Gizaren eskubideak nondik nora zaindu, *errigizartearenak* ez ba dira zaintzen ?.

Zelako jakintsuak dira, ezer argitzeko *gai* ez diranak?.

Europarentzat, diru, agintaritzza eta lege bardiñak gure dabez ezarri. *Ordezkaritza* menperatasunezko jaurkintzan, Ekanduz ezin dabezan zaindu *Laterrietan*.

Eta garrantzizko gauzeetatik, aundienak aztu ?.

Edo ta Giza ta Errigizartearen Nortasunakin ezer ez egiteko, lan edo idaz maian gorde lekuan sartuta ?.

Euskaldunak arlo onetan, *ziur ta zuurtasun aundiz* jokatu bear dogu, iñozokerietan ez gaitezcan ibili, bizitzan Euskalerrriaren Nortasunezko Demokrazi lez iraun gura ba dogu.

Gure Euskal Arbasoak milla urte askotako edesti luzean, ainbeste eramankizunagaz eutsi dautso daukagun Demokrazizko Nortasunari.

(1) Amarruti = marrullero, socarròn, astuto, solapado, taimado.

Gu izango ete gara, *Jainkoari eskaiñi bear dautzagun altxor aundi orren ondatzailleak ?*.

Bete daiguzan patxadaz eta lelokeri barik gure *bizitzaren Euskal Ordezko Eginkizunak, Mundu onen gizarte on guztiekin osagarritzakoak izanda.*

Eta, Jainkoaren aginduko Bereztasunaren Legeak ondo ordezkatuta, Munduko errigizarteak aurrerantzean be: "Jakín degien, Euskal Aberritasuezko Jendekuntzagaz, adierazpen ederrenetariko bat emon dautsoela, Gaitutako Bizitz oneri".

2. 1.789an Frantziko iraultzaren bidetik, liberal mendetzaileak erriak batuteko euki ebezan asmoak eta bere ondore, Europan ta batez be Espainako guda nagusiak, guda indarragaz euki ebezan larderizko eragapenekin, Euskalerrian Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskubidearen gaiñetik, gaur daukaguzan Laterrietako jaurkintzan menperatzeko, egin dabezan alegiñak.

Europan, 325eko urtean, Nizeako batzarrean artu ziran mendeko erabagi orreik. Eta asmo orreik gaur arte lortzeko euki dogun edesti guztia, eten bako guda baten ondorioz, odoljariozko biotzgegorkeri ta basakeri bat baiño besterik ez da izan.

Zergaitik ?.

Asmatu zan mendekotasunaren aolkularizko arduradunak, eritzi ori maltzurkeriz erdi ostonduan ekarrita, indarkeri ta siniskai bidez, Berezko Legeak Noz euren asmoetan biurtu direzan itxaroten ibili diralako.

Eta astunago biurtu zan, aolkularitzazko indarkeri ta siniskai orreik, Greziak lortu eben Jendekuntz Demokratikoagaz batera ekarri gure ebalako.

A zelako burugogorkeria !.

Egia ta guzurre zorro baten sartu ezkeru, zorro orreitan bolbora edo lerrautsa suagaz batera sartzea, bardin antzekoa dalako.

Europaren Berezko Erriak menperatzeko, siniskai ta indarkeriaren gudako zirriborro orreitan irakitsu egonda, 1.789an Frantziako iraultza agertu zan.

Nork eraginda ?.

Ni ziur nago, indarra euki ebenak eragin ebela.

Eta edestilari batzuk esaten daben lez, egia bada Frantziko errigizartearen erdi maillatik sortu zirala demokrazizko matxintasun orreik, faziztak laster egin ziran bere kontrol edo agintaritzarekin, erri ezberdiñak batzangotasunezko zorro baten sartzeko.

Bere ostean be, kaizarrezko batzangotasunaren elburu orreik lortu gurean, borroka oso latzak egon dira.

Dana dala, XIX ta XXgarrenko gizaldi erdia borroka utsezkoak izan dira asmo mende nagusi orreik lortzeko, eta Europa osoaren agintaritzta lortu ezinik, daukaguzan batzangotasunezko Laterrietan antolatuta geratzeko.

Azken baten, 1.789an Frantziako Iraultzaren eragipenetik zabaldu ziran bideak, adibidez: *“Frantziko eta Espainako erregeak euki eben antolatzailezko jaurkintzatik, al osokerizko jaurkintzara (1) aldatzeko”*.

Gaur, ezinda lengo lez odolkerizko gudarekin aurrera egin, daukaguzan atomozko lerkaiekin Munduko giza semealabak amiltegira jausita lez, aienatu geonkezelako

Orregaitik, gaurko lana ez da lerkai ta izkilluakaz ibiltzea, BAITaren arrazoi bidez, oker edo ta maltzurrezko korapilloetan dagozan asmo eritzi orreik, JAINKOAK ipinita daukaguzan LEGERA alderatutea baiño.

Eta gaur, Demokrazia on baten egokitzeko urrin egon arren, errez ikusten dogu, guzurrezko mende eritzi aundi oiek zelan agirian geratzen diran, bear diran aldaketak egiteko.

3. 1.833-1.840 urte bitartean, Karlistadako 1go guda.

1.833an Iraillaren 29an bere alaba Isabelek iru urte eukezala VIIIn Fernando il zan, eta bertan izendatu eben erregiña lez IIn Isabelen izenarekin, 1.833 1.840 urte bitartean, bere ama Maria Kristinaren errege ordezkotzaren jaurkintzan.

1.833an Urrillaren 1ean VIIIn Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro Molinako kondea, Portugalen I Migel printzea bere adiskidea zanagaz egoala, Abrantesetik, bera izendatu zan Espainako errege.

1.833an Urrillaren 2an Arabako ordezkari Uhagontar Pedro Paskualek Madrilletik oarpena bialduta, gabeko ordubi ta laurenak ziranean eldu zan Bilbora VIIIn Fernando il zanaren berria, eta zer egiteko premiñ aundian aurkitu ziran Bizkaitar Aldundi ta erritar guztiak.

1.833an Urrillaren 4an Bizkaitarrak, Karlos Maria isidro izendatu eben Bizkaiko Jauna, eta Foruak berrezkuratzeko errege barriaren aldeko ordezkarien orokorrezko batzarra antolatu zan, Orbe ta Eliotar Jose mari Baldespina Markesa zuzendari zala.

1.833an Urrillaren 4an, Ingalterra ta Frantziko kontsuladuetatik, Bilboko Udaletxera bialdu ebezan agiri bi, euren menpekoak eta eukezan etxeak babestu egiezan.

1.833an Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama guda nagusiak, Karlos Maria Isidro izendatu eban errege Vn Karlosen izenarekin.

Errege bi batera ezin eta gaiñera, eritzizko sinismenean aurkakoak izanda gitxiago, anai arteko guda piztu zan.

Eta Euskalerrriaren batzarrak bere biltzarkide eta Foru Aldundiakaz Vn Karlosen alde borroka oneitara sartu ba ziran, Karlosek beste erribatekoak garela jakinda, gure Askatasunezko Lege Zarrak babestuko ebazala ziñ egin ebalako, beragaz joan ziran karlistadako borroka orretara.

(1) Antolatzailezko errege-jaurkintzatik, al osokerizko jaurkintzara = de un gobierno arbitral en territorio que no hera ni Frances ni Español, a rey de los franceses y españoles, sin tener en cuenta las diversas nacionalidades en que está comprendida Europa y esta península.

1.833an Urrillaren 7an Bilbaon baiña, Frantzizkotar Aita Negretek beltz izkribu (1) bat argitaratu eban gure Foruakaz ez ebena zer ikusirik, erlijioa eta leialtasunaren izenean, gudarako Jainkoaren babesa gura ezkerero, Karlos Maria Isidroren atzean joan zitezten.

Jakin gura neuke Aita Negrete Prantzizko orrek, noren aolkua eukan edo zer gura eban, gure jauntza alboratuta, errege ta erlijiozko katolikotasun naste borrhaste orreikaz, gure Euskal gizartearen sinismena ainbat nastezko lokatzetara bideratzeko.

1.833an Azaroaren 2an Zumalakarregi ta Imaztar Tomasek, Espainako liberal guda nagusiak beragaz zalantza asko eukinda ez ebelako jakin ze alderditan egoan, iges egiten dau Iruñako guda tegetik.

1.833an Azaroaren 14an Zumakarregi, Nafarroako karlistaren guda nagusi izendatu eban, eta bertan Vn Karloseri Nafarroako Fuero ta erregetzazko legeak zifiatuazo eutson.

1.833an Abenduaren 5ean, guda konstituzionalak atxilotu gura ebazalako, Aldundiko jaurkintzaren ordezkioak, Iturralde koronelaren Agilarreko etxean batu ziran, eta Nafarroako 1go Karlistaren batzar lez izendatuta geratu zan batzar au.

1.833an Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eban Zumalakarregiren guda nagusitasuna.

1.833an Abenduaren 7an Araba eta Bizkaia, Zumalakarregi ipini eban euren lurraldeetako guda nagusi. Eta erabagi onegaz Zumalakarregi, Ego Euskalerriko lau lurraldearen guda buru nagusi geratuta, Nafarroa egokitu eban orokorrezko guda agintaritzaz lez.

3.1. Europak:

Urduritasun aundiz begitzen eban borroka au, Napoleonek porrot egin ondoren, euki ebezan batzangotasunezko asmoak, urrun geratzen ziralako, Europaren Berezko Errigizartearen alde.

Eta borroka auek nai ta Europa Laterrietan batzangotzeko alde ibili ziranak irabazita, gero Laterri zatizka orreik geiegi ziralaz usten ebalako, Hitlerregaz, Europa osoa menderatzen joan ziran beren lurralde guztia agintaritzaz baten batzeko.

Baiña, Berezko Legearen aurka diralako eritzi orreik, European gaur ainbeste gizaseme ilda gero, asieran euki genduzan bardifnezko arazoan aurrean kokatuta gagoz.

Sitgesen 2.010eko Ekaiñan batzartu diran jakintsu orreien eritzian, Berezko Erriaren gaiñetik Europaren jaurkintza, daukaguzan laterrietan iraun egian alde dagoz.

Jakintsu orreik ez dabe gura ba, danok arduradunak izan gindezan ?.

Noren ardurak baiña, Nortasunezkoarenak ala Norkerizkoarenak.

(1) Beltz izkribu = panfleto.

Noiz argitu edo noiz arte, betiko zentzugabekeri orregaz ?.

Europaren batzango eritzikoentzat borroka oneitan asko jokatzen zalako, asi zan erri ezberdin arteko borroka au, espainolarena bakarrik izanda.

Eta idaz lan onen zentzuan ezartzeko, Zumalakarregi il zan arte eraso aldiko borrokatan sartuta, alde bietatik aukeratu ziran gudal nagusiaren bizitza aurkeztuko dautsuet. Bai ta, alde biak, zelako laguntza euki ebezan Europaren Laterrizko errien aldetik.

Konturatu gindezan, Europaren laterrizko jaurkintza antolatzeko, zelako nasteak egon edo sortu ziran errigizarte ezberdin eritzizko zentzuetan, eta ogi bidez edo bildur, Erdi Ugarte onen gizaseme alabak alde baten edo bestean jokatu egien, norkerizko gudal nagusi ta sal-erosle liberalak indar bidez sortutako zalantzarekin.

***-Europar, IIn Isabelen alde:** Mende batzangotasunaren aldeko Espaina, Prantzia, Britania Aundia eta Portugal izan ziran.

Frantzia ta Britania Aundia, orduko lantegi zalekerian (1) ta diru gosean (2) aurreratuen egon ziranak, Portugaleri be laguntza emon eutsoen, denbora orreitan Espaninaren antzera ibili zalako.

Frantzia, Portugal eta Britaia aundiak bialdu eben laguntza: Espainako Erri Dirutzaren Iraspenari dirua emonda prestamen edo baikuntzaren eran (3), eta guda mutillakaz.

Britania Aundiak: Jorje Lazi Ebans Gudal nagusien agindutara, oldezko gudariekaz osotutako Britaniako laguntzaille taldea (4), eta Royal Nabik beren itsas ontziekaz, itsas bazterretatik inguratzeko laguntzarekin.

Prantzezak: Atzerritar Talde edo Legioa. Eta orrez gain, Añamendiko muga eta Espainako itsas bazterrak zainduz.

Portugalek: Das Antaseko Baroi gudal nagusiaren agindupean, laguntzalle talde bat.

***-Vn Karlos Maria Isidroren alde:** Errusia, Austria, Prusia, Napoles eta Aita Santua Eleizaren Laterriakaz (5).

Eta gero ikusiko dan lez, Karloseri laguntza aundia emon arren, geien itxurazkoa zala edestilariak esaten dabe, goitik ostonduta agintzen eben batzango zaleen erpeak luzeak izan ziralako, gudal nagusi batzuk saldukeri asko egiezan.

3.2. Karlistadako gudaren asiera:

1.833an Urrillaren 1ean eldu zan Euskalerrira, VIIIn Fernando il zala berria, eta Donosti ta Iruñako Uri nagusiak geratu ziran II Isabelen alde, gudalozte indartzuak euki ebezalako.

1.833an Urrillaren 3an, Gazteiz eta Bilbaoko Uriak gudu indar gitzi euki ebezalako Karlosen alde geratu ziran, eta Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako markesak, Bilboko matxinatuak eta Aldundiko batzar kideak

(1) Lantegi zalekerian = industrialismo. (2) Diru gose edo zalekeria = merkantilismo. (3) Prestamen edo baikuraren eran = en forma de créditos para el tesoro. (4) Britaniako Laguntzaille Taldea = la legión auxiliar Británica. (5) Aita Santua ta Eleizaren laterriak = y el Papa con los estados pontificios.

bideratu ebazanakaz, Mota zuzendaria ⁽¹⁾ eta Aldundiko Uhagon ordezkaiak baitu edo atxilotu ebazan. Eta Bilbo izan zan Vn Karlosen ikurra leen goraldtu ebana.

1.833an Urrillaren 4an, Zea ta Bermudeztar Franzizkok aldarrikatu eban IIn Isabelen aldeko agerkaia, Vn Karlos Maria Isidrorentzat eragozpen andienetarikoa izango zana errege aulkian ezartzeko.

1.833an Urrillaren 4an, Orduña ta Balmaseda matxinatu ziran eta Portugaletetik iges egin eben euki ebazan agintariak.

1.833an Urrillaren 5an Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako markesak, Karlos aldeko Aldundia sortzen dau Bilbon.

1.833an Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian Ladron de Zegamatar Santos guda nagusiak, Karlos Maria Isidro izendatu eban errege, Vn Karlosen izenarekin.

Eta ori sortu zanean esan leike, gudari asiera emon eutsoela.

1.833an Urrillaren 6an, Lorentzotar Manuel IIn Isabeltar guda nagusiak Nafarroaren Arkoseko lenengo borrokaldian, karlistaren guda nagusi Ladron de Zegamatar Santos eta beste 30 lagun atxilotu ebazan.

1.833an Urrillaren 7an, Berastegitar Balentinen aginduan, Bernedo, Badayoz, Laguardia eta Baldegobiako guda mutillakaz Gazteizeko ateetara joanda, an egon ziran Isabelen guda indarrak donostira iges egin bear izan eben, eta bera sartu zan Urian Vn Karlosen ikurra goralduta.

1.833ko Urrilla onetan Gipuzkoako Aldundia, Azpeitian egon zan zer gertatuko zanaren zai.

1.833an Urrillaren 8an, Oñatin lenengo txinpartak biztuten dira, matxinatuak Alzaa guda nagusiak bideratuta.

1.833an Urrillaren 10ean, Lardizabaltar Inazio saiatzen da Seguran.

1.833an Urrillaren 10ean, Iruñako Aldundia Vn Karlosen alde egoan, baiña Uriaren ormatik kanpo liberalaren indarrak asko ziralako, Uriaren gizarteari bakea eta agindupea bakarrik agindu al eutsen, nai ta Aldundiak eukezan 8 arduradunetik 3 bakarrik Isabelen aldekoak izan.

IIn Isabelarren liberalak Donostia, Euskalerriko gudaitegi kapitain nagusi lez izenduta euki eban, eta bera izan zan liberalaren zaindoki indartsuena.

Gertakizun oneik sortu ziranean, laster asi ziran Donostiko dendari, aberats eta merkatariak Sagastitar Joakinen agindupean Uriaren babesa antolatzen. Ez geienak IIn Isabelen aldekoak ziralako, Nafartarrak Karlosen aldekoak ziralako bildurrean baizik.

Beste Uri nagusiak be laster asi ziran antolatzen, urte onen Azaroan Iruñak erritar talde bat antolatuta. Bizkaiko Aldundiak 200 edo 300 erritar, Aranatar Antonio, Orbegozotar Gabriel eta Lizarratar Migelen agindupean. Gazteizen Baldes guda buru liberalak aginduta, beste erri talde izkillatua, Uranga karlistaren erasotatik babesteko. Eta Eibarko Udaletxeak 1.834an Urtarrillaren 8an karlistak egin eben eraso ostetik, 14-70 urte bitarteko erri gizonak ta 100 emakume izkillatuta eta Jauregi ta Jauregitar Gaspar naparra liberalakin guda

(1) Zuzendaria = corregidor.

nagusi izan zanarentzat, 180 gazte gudari izkillatuak antolatu ebazan.

1.833an Urrillaren 10ean, Kastañontar Federiko guda nagusi kapitaiñiak, gudaitegi nagusia Donostitik Tolosara aldatzen dau, eta Azpeitia, Iturriagatar Karlos Bernardoren aginduan, Vn Karlosen alde kokatzen da.

1.833an Urrillaren 10ean, Nafarroako Solatar Antonio errege ordeak, Ladron de Zegamatar Santos, tiros il egiela agindu eban.

Kontuan euki bear dogu, In Isabelen aldekoak denbora oneitan, uritarrak zirela eta Karlosen aldekoak nekazariak geien. Eta karlistak nai ta saio aundiak egin, iñoz ez ebezala Uri nagusiak menperatu.

1.833an Urrillaren 11n, matxintasuna Bilbotik asi, ta Santander, Araba eta Gipuzkoara zabaltzen doala, Oñatin, Alzaaren agindupean "*Jainkoa, Lege Zaar edo Foruak eta Aberri ta Erregea*"ren izenean matxinatu ziran.

1.833an Urrillaren 12an Irunen, Urtizberek karlistaren beste saio bat egiten dau.

1.833an Urrillaren 14an, Nafarroako Solatar Antonio liberal errege ordeak, guda legea aldarrikatzen dau eta Karlosen aldeko guda nagusi Ladron eta Zegamatar Santos Iruñan tiros il eban, guda onen leenengo odol aitorle izan da.

1.833an Urrillaren 17an, Madrilleko jaurkintzatik Vn Karlos Maria Isidrok euki ebazan jabetasunezko lurak eta diruak legez kendu eutsoezanean, bere erantzuna: "*Jakiñean geratzen naz; Ikusiko dogu nork daukazan eskubide geiago; Nik, neureak erabiliko dodaz*".

1.833an Urrillaren 18an, karlisten leenengo batzarra eratu egiten da Azpeitian, eta Gipuzkoako agintari lez, Lardizabaltar Inazio Koronela izendatzen dabe.

1.833an Urrillaren 20an, Erasotar Benito Frantzisko karlista guda nagusiak, Iruña mendetu gurean porrot eginda, Frantzira iges egiten dau.

1.833an Urrillaren 22an, lenengo gudaletzearen mogimenduak azten dira eta Vn Karlos aldeko 3.600 gudarien talde batek, liberalaren aurkako lenengo borroka eukiten dau Tolosan.

1.833an Urrillaren 22an, Nafarroako Aldundiak, Iturralde guda nagusiaren gudaletzeari adierazi eutson, Nafarroan sekula ez zala egon Salikako legerik.

1.833an Urrillaren 25ean, Altamirako kondeak erregetzaren ikurra eroala izendatu eben In Isabel Espainako erregiña lez.

Jai-arauko ekitaldi au ospatu zanean, nai ta batzuk onartu arren, Europaren Iparraldeko errien ordezkari guztiak urten eben Espainatik, eta Zea ministruak, Austriaren Metternitzeko printzea alegindu ebanean In Isabel baieztu egiala, onen erantzuna: "*gogoratuko zala, Urrillaren 4an berak aldarrikatuko agerkaiak emoten ebazan emaitzak ikusi ondoren*" esan eutson.

1.833an Urrillaren 30ean Donostiko liberalak, In Isabel erregiña lez izendatzen dabe, Aldundiko ordezkariak oiualdi orretan agertu barik. Ordezkarien ustean beti lez, leen, erregearen il otoizketak ospatu bear ziralako.

A ta guzti, Donosti izan zan lenengoa, In Isabeleri leialtasuna eskaiñi eutsona.

1.833ko Urrillan borrokak asi zirenetik, Isabelen liberalek karlistak, fazizta lez euki ebezan, eta arrapatzen ebezan gudari guztiak tirozka iltzen ebezan, karlistak mendeku edo ordain lez bardin eginda. Barrundiko Eredia errian izan ziran, fusilamendu odolkoienak.

1.833an Azaroaren 1ean, Erreterin sartzen dira 40 karlista eta aurkitu ebazan janari ta zaldiak eroan ebezan.

1.833an Azaroaren 2an Zumalakarregitar Tomas guda nagusiak, liberal guda nagusiak beragaitik susmo aundiak euki ebazalako, gabaz alde egiten dau Iruñatik.

1.833an Azaroaren 5ean karlistak, Iruñako Aldundiari ordezkotza kenduta, Iturraldetar Franzizko koronelaren Agilarreko etxean egiten dabe lenengo batzarra, liberal guda lozteak baituta egoala uste ebalako.

1.833an Azaroaren 14an Zumalakarregi, Nafarroako karlistaren guda nagusi izendatu eben, baldintza onen eskaera bidez: *“Nafarroako erregetzaren Foru ta Legeak zaindu egiazan”*.

1.833an Azaroaren 15ean Lizarran, Nafarroako erreñuaren jaurlaritzan irasita geratu zan.

1.833an Azaroaren 21ean, Lorentzotar Manuel liberalaren guda nagusiaren agindupean egoan Sarsfieltar Pedro guda nagusiak, Urizarreko be aldean Karlosen aldeko Merinotar Jeronimo apaizaren guda indarrak aurkitu ta ezereztuta Gazteizen sartzen da, eta nai ta agintariak tiroz il, garaipeneko parkazioaren ondorioz, Gazteizeko guda taldea (1), Burgos, Ribabellosa, Aiala eta Billanuebakako batalloi talde karlistak, liberalaren guda loztean geratu ziran.

1.833an Azaroaren 25ean, liberalaren aldeko Sarsfieltar Pedro guda nagusiak, Bilbo menperatzen dau. Eta Sarsfieldek, bere Erdi Ugarte onen Iparraldeko nagusitasunetik egindu eban parkamena Madrillen txarto artuta, ta gainera Bizkaia menperatzeko 80.000 gudari geiago eskatu ebalako, agintaritzatik kendu eta Baldestar Jeronimori emon eutsoen agintaritzan ori, Sarsfiel Nafarroako erregearen ordezkoa izendatuta.

Eta Gazteiz ta Bilbo liberalaren agindupean jausita, Kastañon guda nagusia oillartuta, Gipuzkoaren Foruak izan ezik, Nafarroa, Araba ta Bizkaiko Foru edo Lege Zarrak ezereztu egiten dauz.

Onen ostean, Espainia 49 lurraldeetan banandu eben, Nafarroa, Espainako beste lurralde lez geratuz. Eta emen asten dira Euskaldunentzat, Foru edo Lege Zaarraren leentasunak guda onetan.

1.833an Azaroaren 30ean Federiko Kastañon guda nagusi kapitaniak Tolosatik, Urrillaren 14ko guda legearen bidez, Bizkaia ta Araba guda legepean ezarri ebazan.

1.833an Abenduaren 7an Etxarri Aranatzan, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eben Zumalakarregitar Tomasen guda nagusitasuna.

1.833an Abenduaren 14an Donostiko batzar batek In Isabel izendatu eban erregeña lez, Erreteriko batzarra Olañeta zinegotziakin ordezkatuta egonda.

(1) Guda taldea = regimiento, equivalente al “tercio”.

1.833ko Abenduan Zumalakarregik bere gudalozteakaz zabaltasunera urten barik, bere guda indarraren trebetasunezko egokitasuna emoten dau, eta eraso txiki aldiak ugaritu ondoren, liberalaren Kastañon gudal nagusiak bere asarre bizian idazten dau: *“Euskal lurralde onetan ez dagoela euren aldeko zintzotasunik, Donostia eta Eibarrek erakusten dauana baiño”*.

1.833an Abenduaren 21ean gudal agintaritzan, Sarsfielderi ordezkatu eutson Baldes eta Noriegatar Jeronimok, Gazteizeko gazteen arteko batalloi bat izkillatzeko agindu eban.

1.833an Abenduaren 24an Bizkaiaren Foru Aldundiko liberalak euren atsekabea agertu eben, erriko Udalak ez eutsielako emoten laguntzarik.

1.833an Abenduaren 29an Lizarrako Merindadearen Berruezako ibarrean Nazar eta Asartako erritxoetan Zumalakarregik, liberalaren Lorentzo, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño gudal nagusiaren aurka, borrokazko leenengo saioa egin eban, eta bala edo tiroin gitxi euki ebazalako aldendu bear izan eban.

Baiña pozik, bere guda mutillai nai ta borroka baiño ariño agiñoak erakutsi ba eutsezan, etsaiari lepoa emoten eutsonai berak ilgo ebala esan ondoren, ondo baiño obeto borrokatu ziralako, liberalaren 350 guda mutil ilda eta iges aldian ipini ebazalako Lorentzo eta Oraaren gudu indarrak.

Tomasek, garaipen onen ostean, Lizarrako merindadean Ameskoazeko ibarrean txokoratzen da, eta ortik sasi gudan ainbat irteera eginda, 1.835erako Euskalerra osoagaz egin zan.

1.834an Urtarrillaren 15ean, Maria kristina erregiñoak Zea ta Bermudeztar Franzizko kentzen dau jaurkintzatik eta bere ordezt Martinez de la Rosatar Franzizko ipini eban.

1.834an Urtarrillaren 17an, Zumalakarregik, Aezkoa ta Orreagako lurraldeakaz egin zan, eta gero Zalazar eta Erronkarin sartzen da.

1.834an Urtarrillaren 22an: Karlistaren garaipen auek, guda gogortu egiten dau, eta liberalaren erregezko agindu bategaz erritarrak bildurtu gurean, au esaten eban: Arrapetan ziran fazizta guztiak, Afrika, Filipinas eta Kubako kolonietara bialduko dabezala.

1.834an Urtarrillaren 24an, Nafarroako Solatar Antonio erregearen ordeztokoak: Etsaiaren aldaketa edo mogimenduak, ez ebazan zalatzen Alkate, zuzendari edo ta apaizak, atxilotu egingo ebazala agindu eban.

1.834an Urtarrillaren 27an karlistak, Orbaizetako izkillugintzagaz egiten dira eta Donostia inguratzen dabe, postaren mezuak ebagita.

1.834an Urtarrillaren 27an, Kastañon gudal nagusiak euskaldunak: “Gizatxarrak”lez ⁽¹⁾ zelakotu ebazan.

1.834an Otsaillaren 11n Zumalakarregi keiñatsu, Nafar Aldundikoak eriopetu ebazan.

1.834an Epaillaren 2an, Kesadatar Bizente Jenaro kristinoa, ordain edo mendekuaren politikan azten da.

1.834an Epaillaren 2an Oñatin, Esparteroren indarrak zirikitzen dabez.

(1) Gizatxar = canalla.

1.834an Epaillaren 16an, karlistak Gazteiz erasotzen dabe, eta Zumalakarregik Urian sartuta, Jauregitar Gasparren 118 txapelgorri tiroka il ebazan ordain. Baiña Esparteroren gudaloztea Gazteiz askatzeko urbiltzen egoala jakin ondoren, alde egiten dau Gazteizetik.

1.834an Epaillaren 22an karlistak, Portugalete inguratzen dabe.

1.834an Epaillaren 29an Zumalakarregik oartuta Espartero urbiltzen egoala, Gazteizetik urten da Muro ta Abarzuzaren bitartean menderatzen dauz Kristino liberalaren indarrak, eta auek Lizarrara alboratu bear izan eben.

Zumalakarregik emendik aurrera, zaldun guda edo sasi gudako guduxkak (1) amaibakoak ugaritzen asi zan, Liberalaren gudalozteentzat oso galbidetsu edo arriskukoak biurtuz ibilbideak, eta ortik aurrera emon jakon asiera benetako borrokari.

1.834an Jorraillaren 10ean, Espainaren jaurpideak agindu edo Euskalerrira bialdu ebazan, Martinez de la Rosatar Franzizko antzerkilleak 1.834an egin ebazan erregetzazko araudi barriak, eta Euskaldunak Frantziko iraultzaren batzangotasun eritzi edo mendeko araudien eragipenak, espainolaren oikuntzagaz alkartzen ebazala ikusita, Euskalerriko lurraldeetan ez ziran onartu lege orreik, gure legeak alboratzen ebezalako.

Eta Donostiakoak izan ezik, iñungo Aldundi ta Udaletxerik ez ebelako on artzen, diruaren zigor gogorraz beartu ebezan araudia sinatu ta zifiezpena emoten, bai ta ordezkariak, euren lege batzarretara bialdu egiezan.

1.834an Loraillaren 20an Bizkaia eta Nafarroako Aldundiak ez dabe onartzen, erregetzazko aginduak ordezkarien auteskunde gora bera agintzen ebana, eta Uztaillaren lenengo egunetan ostera diru zigor gogorrekin eta Kadizeko araudi barri ori sinatuazota, beartuta geratu ziran euren lege batzarretara ordezkooak bialtzen, nai ta Euskal batzarrak, joan bear ziran ordezkariak eurak aukeratzea lortu.

Eta beartutako ekintza oneik izan ziran Euskaldunak gogortu ebazanak Karlosen aldeko indarpean lau lurraldeak geratu zitezen, lau Uri nagusi, Getariko San Anton eta Beobiko gaztelu erriak izan ezik.

1.834an Loraillaren 20-26 egun bitartean Zumalakarregik, Kesada liberal guda buru nagusiaren indarrak menperatzen dauz, Agurain erri inguruko Opakuan, O'Donnell guda nagusia atxilotuta eta Alasuan ta Urbasapean, ainbat guda tresneri lortuta. Eta urrengo egunetan, Araba ta Nafarroako Udalak, karlosen aldera aldatu ziran.

1.834an Uztaillaren 9ko arratsaldean Vn Karlos Inghaterratik iges eginda, Frantzitik sartzen da Euskalerriko Egoaldean Zugarramurdiko bidetik.

Eta egun berean, Kesadatar Bizente Jenaro Kubatarra kenduten dabe Espainako guda agintari nagusitik, Jorraillaren 21 eta 22an Altsasun, Loraillaren 26an Muez, eta Bagillaren 19an Dallon, Zumalakarregik astindu ederrak emon eutsozelako, Rodil ta Gallosotar Jose Ramonengaitik aldatuta.

Nor geiagoko guda au, ordainketa, lukurreri ta gogorkeri baten biurtu zan,

(1) Zaldun guda edo sasi-gudako guduxkak = escaramuzas en guerra de guerrillas.

Dagonilla ta Iraillan Arantzazu ta Berako lekaidetxeak erre ebazanean, Zumalakarregik Etxarri Aranatzen bildur ziran sartzeko gudariai tiroz iltzeko agindu ebanean, Urrillaren 14an Lorenzo gudal nagusi liberalak, karlistaren alde egon ziran alkateai tiroz iltzeko keñuak eta karlista gudarien gurasoai erbesteratzea ta abar.

1.834ko 9tik Azaroaren 4rarte Vn Karlos, guda gogorrean asten da Espainaren lurraldetatik, Rusia, Prusia eta Austroungaro kaizartzaren laguntzan.

1.834an Espainolak, Zumalakarregiren aurka ezin ebelako ezer egin, ta ainbeste astiñaldi artuta bildur, Ingalterra, Frantzia eta Portugalegaz egin eban laukoteko baltzu bidez laguntza eskatuz, Europako errege liberalaren aldetik laguntza aundiak artuko ebazan Euskalerra ta Katalunia galtzeko bidean eukezalako.

Orregaitik ikusten da argi emen, Europaren arazo gogorra izan zala. Europako liberalak, Berezko Errigizartearen gaiñetik mende eritzi orren buruz gaur lez, zelako batasun lortu gura eben.

1.834an Uztaillaren 12an Vn Karlos, Añamendiak Dantxarineako mugatik aldatuta Elizondora etorri zan.

1.834an Uztaillaren 12an Zumalakarregitar Tomasek Baztaneko Elizondon Vn Karlosegaz batzartuta, Euskal Lege edo Foruak ziñeztuazo eutson, eta onek onartu ebazan Zumalakarregik eskatzen eutsona, Vn Karlosek Zumalakarregiri, bere gudalozteen aintzindari ⁽¹⁾ nagusi izendatuta.

1.834an Uztaillaren 26an, Zabala karlosen gudal nagusiak, Eibarrerri, Donosti lez liberalaren eritzikua zalako erasotzen dautso, eta gizon izkilludunez gain, oldezko edo gogozko emakumearen batalloi bategaz borrokatu egin bear izan eban.

1.834an Uztaillaren 30ean Zumalakarregik Artazako mendatean, Rodil, Karrera, Espartero, Manzanedo eta Lorentzo Espainako Kristinatarren gudal buruzagiai, astindu ederra emon eutsen.

1.834ko Dagonillan, karlistak Bermeo erasotzen dabe.

1.834an Agorri edo Dagonillaren 19an Zumalakarregik, San Faustoko arkaitz mendateetan, Karondolet baroi gudal nagusiaren indarrak menderatuz gain, 6.000 ogorleko, 3.000 izkillu inguru eta Espainako jaurlaritzatik edo gudal agintaritzatik mezuak emoteko ibiltan eben itz berezia lortu eban.

1.834an Iraillaren 5ean karlistak, Bergara erasotzen dabe.

1.834an Iraillaren 14an Bianan, Vn Karlos Euskalerriko Ego aldera aldatu zanetik, Rodil eta Gallosotar Jose Ramon Isabelen gudal nagusia bere atzetik ibili zan noz arrapauko eban, eta Zumalakarregiri parebako aukera agertu jakon euki ebazan 240 zaldun gudariak aztertzeko, eta Karondolet baroi gudal nagusi liberala jakinda Bianan egoala 300 zaldun eta 600 gudariekin, bertara joan zan eta karlistaren zaldunak liberal kristinoen zaldunakaz lenengoz borrokatu ziran.

Karlistak 200 zaldun liberal il ondoren garaipen aundia lortu eben.

Tomasek emen egiztu eban, bera gai zala egizko gudalozte bat antolatzeko.

(1) Bere gudalozteen aintzindari nagusi = jefe supremo de los ejércitos karlistas.

1.834an Iraillaren 18an, Andetxaga, Sopelana eta Marrasa karlosen guda nagusiak Burgosen sartuta, Billarkaiaoraiño eldu ziran.

1.834an Iraillaren 28an Liberalak, Kesada guda nagusiari ordeztu eutson Rodil eta Gallosotar Jose Ramon guda nagusia kentzen dabe agintaritzatik Lorenzotar Manueleri kristinoen agintaritza emonda, Rodilek Zumalakarregiren aurka utsegite asko euki ebazalako.

1.834ko Dagonilla eta Iraillako ille oneitan, gudako borroka oneik lukurreri ta mendekuak izatera gogortu ziran, eta kristino liberalak, Arantzazu ta Berako lekaretxeak erre ebezan.

1.834an Urrillaren 14an, Lorentzotar Manuel liberalaren guda nagusiak, karlistaren alde egiten eben alkateai eriotzera zigortu ebazan, eta Karlosen taldetan borrokatzen ziran mutillen gurasoai erbeztatzeko zigorra agindu eutsen.

Eta zigor orreik gitxi ba ziran, beazun edo gibelesko ur beltzak (1) zabaldu ziran Euskalerritik.

1.834an Urrillaren 21ean Zumalakarregik, Burgosetik Logroñora guda tresneriekin beteta joan zan sugurdiai eraso eutson, eta eroan eban guztiagaz geratu zan.

1.834an Urrillaren 27an Arabako Alegria erritxoan Txintxetruko zelaikadan Zumalakarregik, Rodil eta Gallosotar Jose ramonen agindupean egoan O'Doyletar Manuel liberalen guda nagusiari, astindu ederra emon eutson. Alde bietatik 600 gudari inguru il da eta O'Doyle guda nagusia atxilotuta.

1.834an Urrillaren 28an Zumalakarregik Osmatar Joakin guda nagusiari Elizondoko Etxebarriaren bide ostatu inguruko lekuan astindu ederra emonda, onek ez eban euki denborarik, zaldiari bira eginazo eta iges egiteko baiño.

Kesada berak ezarri ebazan guda lege bidetik, arrapetan ebazan gudariak nai oiñezkoak edo agintariak izan, danak tiros ilten ebazan, eta lege orreri erantzuna edo ordeztukoak emoteko Zumalakarregik Uztaillaren 29an O'Doyletar Manuel tiros il eban.

1.834an Azaroaren 4an, Espainolaren jaurlaritzak, Espoz eta Illundain ta Minatar Franzisko naparrari agindu eutson, Zumalakarregiren aurka joan edin, ia geratzen ebazan Tomasen gudako trebetasunak.

Eta Espoz eta Illundai ta Minatar Franzisko naparra, bere gudaloztea antolatzen asi zan, aginpean beste napar agintari batzuk artuta: Jauregi "Artzaia" ta Oraa "*Otso buru zuria*" esaten eutsoena, Goienetxe, Iriarte, Gurrea eta abar.

1.834an Azaroaren 16an, Frantziaren Orleanseko Luis Felipe erregearen itsas ministrua Hyde de Neubilleri, Lataillade moxorrotuak bialdu eutson mezua aipatu bear dogu: "*Auñamendiren mugako mendikateak babestu egiazala, lotsean artuta Euskaldunen betiko askatasuna*".

1.834an Abenduaren 12an Fernandez eta Kordobatar Luis guda nagusiak, baiña geiago bere agindupean egoan Beriaingo Oraa ta Lekumberritar Martzelinori esker, au Espoz eta illundain ta Minatar Franzizkorekin Napoleonen

(1) Beazun edo gibelesko ur beltzak = còlera.

aurka ibilita, sasi gudako guduxkan jakintsua zalako eta euki eben gudalozte sendoarekin, Zumalakarregiri irabazi eutson Berruezako ibarrean, Mendaza ta Asarta erritxoan bitartean kalte aundi barik, Tomasek iges egin ebalako.

1834an Abenduaren 15ean Arkijaseko leenengo borrokan, guda indar asko egon ziran alde bietatik.

Zumalakarregik baiña, Fernandez ta Kordobatar Luis eta Oraa ta Lekunberritar Martzeliñoren guda indar aundiak, Ega ibaiaren bazterrean Arkijaseko basartera jakin ebalako erooten, berak urten eban garaipen aundiagorekin. Ekintza orregaz Espoz ta Minari erakutsita nogaz borrokatu bear zan.

1.835an Urtarrillaren 1ean Zumalakarregik, Lekaroz, Irurita ta Elbetean sartuta, Elizondo babesteko liberalak euki ebezan indar ingurura urbildu zan.

1.835ean Urtarrillaren 2-3ko egunetan Zumalakarregik, Jauregitar Gaspar guda nagusia "*Artzaia*" (pastor) esaten eutsoenaren aurka, ta Karratala espainol guda nagusiaren laguntza euki ebela jakinda, lortu eban Ormaiztegiko Zelandietan geratzea, eta ekintza orregaz Jauregi ta beren txapel gorriaren ibillaldiak ebagiz gain, Espoz ta Minaren joan etorriko amarrukeriak moztu ebazan, ostean Baztaneko lurraldeagaz geratzeko.

1.835ean Otsaillaren 4an Zumalakarregi azten da Elizondo inguratzen.

1.835ean Otsaillaren 5ean Zumalakarregik, Lorenzotar Manuelen liberal gudu indarrak, oarkabetuta euki ebazan Arkijaseko zubian.

1.835ean Otsaillaren 6an Minak, Okaña guda nagusia bialdu eban Elizondo babestera eta karlistak egin eutsen zelatakin, Ziga errian babestu bear izan zan.

1.835ean Otsaillaren 12an Zumalakarregi elur aundiak egon arren, Ziga artzera joan zan, baiña jakin ebalako Mina urbiltzen egoala, bertan itxi eban.

1.835ean Epaillaren 12an Zumalakarregi, Espoz eta Minatar Frantzisko bere naparrakin Baztaneko ibarra artuta eukezanaren aurka joan zan, eta Gipuzkoatik asita Espoz eta Minaren guda nagusiak banan banan menperatzen joan da, Espozegaz, Etxarri Aranazeko Larremiar mendian aurkezten da askenean, Tomasek bere garaipen aundienetariko bat lortuta.

1.835ean Epaillaren 14an Espozek, bere iges aldian, Elizondoko karlistaren ingurutasuna apurtzea lortzen dau, eta bere asarre bizian erritarrat bosgarrenka berezitu ta tiros il da, Lekarozeko erria erre eban.

1.835ean Epaillaren 19an Zumalakarregik bere gudu indarrak babesteko Etxarri Aranazera elduta, astindu ebazan gudalozteak ostera aurkezten dauz Etxarrigaz geratu naian eta menderatu ondoren bere gudaltegira joan zan.

1.835ean Epaillaren 21ean Frantzez Latailladeren zati biko bigarren mezuak: 1^a- "*Euskalerriko lurraldeak Espainaren erregetzatik kanpo, beti izan dirala Nortasunezko askatasunekoak*". Eta 2^a- "*Euskal erritarrengandik Aldundiko orokorrezko diputaduen aginduak beti izaten dirala onartuak, Foru Legean lan egiten daben bitartean*" esaten eban.

1.835ean Epaillaren 28an Esparterok Miraballes Bizkaiko erria menderatu ondoren, Luyando erre eban.

1.835ean Jorraillaren 6an Karnizer frantzez karlista guda nagusia Mirandako zubian liberalagaitik arrapatuta, bereala tirok il eben.

1.835ean Jorraillaren 7an, Txaotar Joseph Agustinek, Vn Karloseri bere ingurukoak zirikituta, erregetzazko agindu bategaz beartuta amaitzen dauz, Nafarroatik zear bi illabetetan karlistaren lurraldeetatik aolkulari ta ikerlari egin ebazan ibilbideak.

1.835ean Jorraillaren 8an, Espoz ta Minatar Franziskok, bere guda agintaritza uztea aurkeztu eutsen Espainako guda nagusiai.

1.835ean Jorraillaren 20-22 eguneko bitartean **“Artazako borrokan”** Zumalakarregiren guda nagusiak, Baldestar Jeronimori irabasten dautsoe.

Eta Zumalakarregi, Arkijas eta Auñamenditik Espoz ta Minaren aurka neguko guda gogorretan ibilita, berak Ameskoaseko Ega, Berrueza ta Lanaren ibarretan euki eban gudaitegira txokoratu zan.

Zumalakarregik ez eban ibar onen auzuneak kaltetu gura, eta guda liberalak bere billa agertzen ziranean, Ultzama ta Burundako mendarteak joko baten antzera ibiltzen ebazan gudaitegi lez, eurengeandik iges egiteko.

Atzerritar asko izan ziran lerrokatu ziranak karlistaren taldeetan, gero guda onen gertakizunak idatzita argitaratu egin ebezanak, eta aipatuena: K. F. Henningsen Inglesa, Alfonso Barres de Molard, Alexis Sabatier frantziarrak ziran, eta Augusto von Goeben, Adolfo Loning, Felix Lichnowsky eta Gillermo von Rahden alemanak.

Karl Ferdinand Henningsen liberalaren aldeko Inglesak denbora onetan esaten eban, In Isabelen gudaizteak Nafarroaren errietatik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren zarraskiko asperkeriak.

Eta 1.835eko Jorrail onetan, Espainaren guda ministro Baldestar Jeronimok ikusita, Kesada, Rodil eta Espoz ta Minatar Jeronimok ez zirala izan gai Zumalakarregi geratzeko, berak artu eban Iparraldeko guduaren agintaritza.

Baldestar Jeronimo ministroak, Jorraillaren 14an Logroñotik Gazteizera elduta, 18an, Euskalerrriaren Egoaldeko lau lurraldeai agindu bat aldarrikatu eutsen: **“Zuen onerako, eta zuek osatuten dozuen Espainaren Laterri osoaren lasaitasunerako, bearrezko eta barka ezinezkoa da, anai iltzaille ta biotz gogorkerizko borroka au amaitu daitela....”**, esaten ebana.

Eta limurtzaille lez, parkamena agindu eban amabost egun barruan Zumalakarregiren gudaiztetik alde egiten ebanai.

Baiña keiñalari amaitu eban bere itzaldia: **“Suaren eskuetara botako dodaz matxin zaleak babesten dabezan ibar batzuen erriak zalantza barik, eta babestu gure aldera etorten diran sendien etxe ta lurak. Neurri au mingarria da, baiña gizartearen sentipen guztiak ixildu bear dira, nazioaren onak berba egiten dauanean”** (1). (Noren nazioa ?).

Jorraillaren 19an Gazteizetik urten eban Baldestar Jeronimo 22.000 gudariekin 34 batalloietan bananduta.

Zumalakarregik Jorraillaren 20an batzartu ebazan bere aginpean egon ziran

(1) Nazioaren onak berba egiten dauanean = cuando habla el bien de la nación Española.

gudal agintariak, eta 10 batalloi 5.000 gudariekaz naikoa izan zala Jeronimoren indar aundiari aurre egiteko basati lur aietan esanda, borroka orren antolaketak prestatzen asi zan.

Zumalakarregik, 1.835an Jorraillaren 19tik-24ra Ameskoaseko Artaza erri inguruan ezereztu eban Baldesen gudalozte andia, eta onek bere guda indarren babeserako Maeztu, Alsasua, Elizondo, Santesteban, Urdax eta abarreko gudaltegiak utsik itzita, lau Uri nagusienak eta itsas bazterreko toki batzuk izan ezik, Ebro ibaiko Ego aldearen bazterreko mugara aldatu bear izan ebezan bere gudalozteak.

1.835ean Jorraillaren 25eko inguruan, Lord Edward Granbille Elliotek jakinda, Zumalakarregi Ameskoasetik Berroezako ibarrera aldatu zala, bertara joan zan eta Tomasegaz Jorraillaren 27an egiune edo elkargo bat sinatu eban. Bere betebearrezko bidetik *“Arrapatutako gudarien bizitza, nai kristino edo ta karlistak izan, lotsean artuta gero eurokaz trukeak egiteko, aginduten ebana”*. Iru egun beranduago Baldes gudal nagusiak Logroñon sinatu ebena.

Karlistek ekintza orregaz beste garaipen bat lortu eben: “Orraño liberalaren ustez, karlista gudariak Fazizta itxuratuta euki ba ebazan, ortik aurrera araupedun gudariak izatera” aldatu ziralako.

1.834 eta 1.835eko Udabarrien bitartean, Tomasen garaipen asko ta sendo bidetik, beren taldeko gudal nagusi artean, eziñ ikusi edo bekaizkeri ⁽¹⁾ aundiak sortu ziralako, Zumalakarregik, birriten uztea erabagi eban bere gudal nagusitasuna, Vn Karlosek baiña, ez eutson onartu, eta sendotu egin eban bere agintaritzan.

1.835ean Loraillaren 1ean Sarasatar Juan Manuel karlista gudal nagusiak Gernikan, Iriarte napar liberal gudal nagusia menperatzen dau.

1.835ean Loraillaren 15ean Zumalakarregik, Lizarran ezarri eban bere gudaltegi nagusia.

1.835ean Loraillaren 25ean Zumalakarregik, Ordizia inguratzen dau, bertoko liberalak gogortasun aundia erakutzita.

1.835an Bagillaren 2an, Zumalakarregiren Bizkaiko aztari edo lantzadun zaldunak Eraso gudal buru nagusiaren agindupean egon ziranak, Deskargako mendatearen bidean zer egoan ikustera joanda, Esparteroren guda indarrak ikusi ebazan eta astindu ederra emonda gero 2.000 liberal gudari ta amaibako guda tresneri arrapatuta, karlistak bereala jabetu ziran, Ordizia, Tolosa, Bergara, Eibar, Otxandio eta Durangoko erriekaz.

1.835ean Bagillaren 8an Espainako gobernuak, Frantzia ta Inglaterrari eskatu eutsen, egin eben egiunegaz arduratu zitezela, Euskalerrian eurak karlisten aurka, bakarrik, ezin ebalako ezer egin.

1.835ean Bagillaren 10ean, Vn Karlos ainbeste guda garaipen bidetik biztuta, Europaren erri artekoetan onartu egiezan eta bere bidetik dirua lortzeko, Zumalakarregiri, Bilbo inguratu ta artzea agindu eutson.

(1)Eziñ ikusi edo bikaizkeriak = envidias.

Zumalakarregi ez zan orren eritzikoa, garaipen eta erreztasun aundiagoak ikusten ebazalako Gazteiz artuta, Madrillerantza bideratu bere indarrak. Baiña on artu bear izan eban Vn Karlosen eritzia.

Bilbora joateko artu eben erabagia obeto ezin asi, Zumalakarregik deskargako mendatean Esparteroren indarrak ezereztu ebazalako.

1.835ean Bagillaren 10ean, Zumalakarregik, Lutxana, Banderas, Abando, Deusto, Mirabilla ta Mustur mendateak artu ondoren Durangora joan da, euki eban gudalozte indartsuari azkeneko ikustaldia emon eutson eta Bilbo inguratzera joan zan.

1.835ean Bagillaren 12an karlistaren lau batalloien artean Bilboko ate guztiak inguratuta euki eben eta Zumalakarregik Bilboko Uriari etsaimendu edo errenditzeko aukerea emonda, Bilbaoko gudal nagusi Mirasol kondeak ezetzeko erantzuna bialdu eutson.

1.835ean Bagillaren 14an asi ziran karlistak Bilbo bonbakin erasotzen, baiña liberalaren kañoiak sendoagoak izanda, kalte geiago egin ebezan karlisteren artean Bilbotarren artean baiño.

1.835ean Bagillaren 15ean karlistek, Baztaneko gudaltegiak Bergarara aldatzen dabez.

1.835ean Bagillaren 15ean Zumalakarregi Bilbo inguruan egonda, ikusi gura ebazan Mirasol kondeak Uriari egin eutsozan arresizko sendokuntzak ⁽¹⁾ eta Begoñako Eleiz Nagusiaren atzealdeko eskuiflean dauan lenengo etxean bigarren solairura igonda, balkoitik begira egoala, Iturriagako orma baten ingurutik, berreun metruko bitarte egoan lekutik, belaun azpian tiro bategaz zauritu eben.

Bilbaoko gudari liberalak 800 edo 1.000 metru inguruko bitartea eukiko ebazan Zumalakarregi egoan lekuraiño, eta nai ta iñork jakin ez arren, baleiteke bere taldeko batek saldukeri bidez izatea tiro ori jaurtin eutsona.

1.835ean Bagillaren 16an Zumalakarregiren aginduz, Karlistaren indarrak Erasoren gudal nagusi agindupean geratu ziran eta onek Bilbo bonbakatzen iraun eban.

1.835ean Bagillaren 17an, Zumalakarregi Zegamara joanda, Gerediaga, Gelos, Beloki, Hurgess inglesa sendagilleakaz eta Telleriatar Franzizko "*Petrikillo*" esaten eutsoen sasi sendagilleagaitik sendatzeko ardurapean egon zan bitartean, Bagillaren 18 eta 24an, Bilborako gudariak eroaten ebazan liberalaren itsasontzi batzuk, ibaiaren aotik sartu gurean ibili ziran, baiña karlistak ibaiaren agoa arriz betetako kabarrakaz zarratuta euki eban lez, atzera egin bear izan eben.

1.835ean Bagillaren 19an Inglaterrako jaurkintzak Espainako gorteari erantzuteko, Lanzy Ewanseri agindu eutson britaniako lejiño bat antolatu egian.

1.835ean Bagillaren 25ean il zan Zumalakarregitar Tomas, liberal gudal nagusien poztasun aundienagaz.

(1) Arrezizko sendokuntzak = fortificación de la ciudad.

3.3. OARPENA.

Orain, alde bietatik borrokatzen ibili ziran ospe aundiko gudal nagusiak euren bizi kondairagaz eta besteak bakarrik aipatuta aurkeztuko dodaz, 1.835eko Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik aurrera ikusi daiguzan, orduko gudal nagusi oneik euren sari-guda izaeraren bizi bidetik (1), zelako saldukerietan sartu ziran, Berezko Euskalerrria ta Kataluniako errigizarteak, Europako eta Espainolaren arauzko mende zaleen morroiketara edo zerbitzura aldatu egiezan.

4. Karlistaren Aldetik aukeratu ziran gudal-nagusiak.

Tomasen bizitza, Merinotar Jeronimo Apaiza, Marototar Rafael, Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako IIIIn markesa, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Kabrera ta Griñotar Ramon eta Garzia ta Montoyaren bizi kondairak bakarrik aipatuko dodaz, besteen izenak nai ta garrantzizkoak izan aitatu txiker bategaz zerrenda baten idatzita ezarri, bestela lar luzeegi geratuko da idaz lan au.

4.1. ZUMALAKARREGI ta IMAZtar TOMAS.

Emen, Zumalakarregiren bizi kondaira labur bat egingo dogu, jakin degun zelako aztura (2) ta sinismenak euki ebazan, ain gudal nagusiaren trebetasunera eltzeko.

1.788ko Abenduaren 29an Ormaiztegin jaio zan Zumalakarregi ta Imaztar Tomas.

Bere aita, Zumalakarregitar Frantzisko Antoniok, ondo baiño obeto ezagutzen ebazan Foru edo Euskal Legeaak, lotsagizun eta maitasunezko ustego edo sentipen aundian euki ebazanak Euskal aberkoi aundia zalako.

Zumalakarregitar Frantzisko Antonio, Imaz ta Altolagirretar Maria Anagaz bigarrenez ezkondata, amaika seme alaba euki ebazan, Zumalakarregi ta Imaztar Tomas zazpigarren jaiota.

Sendi jakituna zan, eta anaien artetik lau, apaiz eta legezko ikasketak egin ba ebazan, Tomasek legezko ikasketak eginda, berak gudaren ikasketak egiteko borondaterik euki ez arren, aitaren alegiñetik sartuko zan gudu arlo orrein ikasketak egitera.

1.804an Iruñara joan zan eta Ollotar Frantzisko Jabierren bulegoan asi zan lanean.

1.808an Napoleonen aurkako borrokak asi ziran, eta Tomasek ogei urte eukazanean Saldubako (3) gudaltegira joan zan Portilloren batalloian Napoleonen aurka borrokatzeko.

1.808ko Bagillaren 8an Lefevre Napoleonen gudal nagusiren bidez Tuteran zigor aundia artu ta gero, ainbat borrokalditan kide izanda mendira joan zan Jauregitar Gaspar "Artzaia" deritsonaren agindutara borrokatzeko, eta or egin

(1) Sari-guda izaeraren bizi bidetik = en su condición de soldados mercenarios. (2) Aztura = crecimiento del conocimiento, conocimiento empirico. (3) Salduba = Zaragoza.

zan basa gerlari edo gudari (1).

Eta basa gerlariaren idazkari lez, gudaldiko agiri guztiak zeaztasun aundiagaz idazten, bere bizkarrean danak eroan barik, erri ezberdiñeko apaiz kide artean banatzen ebazan.

Eta basa gerlari taldea egokitasunean indartzeko, ezkutuan eroan bear eban antolakuntzazko trebetasunagaitik, maisutasun aundia lortu eban.

Ainbat ekiñaldietan borrokatu zan, Azpiroz, Oiartzun, Kanpezuko Done Kurutzean eta Abariz mendiketan (2), teniente ordearen guda mailla artuta.

1.812ko urtean, guda-basa talde ori, gudari menpean ezarri eben Gipuzkoa ointalde izenagaz, Jauregitar Gaspar koronel barria izendatu eben agindutara, eta bera teniente mailla artuta, ainbat borrokalditan ibili zan: Zumarraga, Urretxun, Belaskoingo Subian, Unzue, Ataun, Urrestilla, Irurzun, Aretxabaleta, Bergara ta Loiolan.

1.813an Zumalakarregi, kapitan guda agintari egin eben eta Deskarga, Sasiola, Mendaro eta Salinaseko borrokaldietan ibili ta gero, Freire guda nagusiaren agindutara aldatu zan, San Martzialeko borrokan artukizun aundia eukin da.

Guda amaituta, kapitainezko agintaritzagaz agirien zain ardurakin guda-loztean geratu zan, gudarako ikasketak osotzen.

Zumalakarregitar Tomasek, Euskal Lege edo Furuen aldeko sinisle sutua izan zan.

Eta orduko guda agintari geienak 1.812ko jaurgo barri baltzuaren (3) aldekoak izan da, Riegotar Rafael guda nagusia 1.820an VII In Fernandoren aurka matxinatu zanean eta "*Cabezas de San Juan*"etik 1.812ko konstituzio edo jaurgo barria aldarrikatu ebanean, Tomas euren aurkako susmopean eukielako, guda zerbitzutik alboratu eban eta 34 urte euki ebazala bakearen billa, Ormaiztegi beren etxera joan zan.

1.822an Dagonillaren 22an Tomas Almandozen, Monkaioko markezagaz batzartzen da, eta onek Nafarroako taldearen bigarren batalloiko agintari lez izendatuta, Tabuenka liberal guda nagusiaren eskuetan egoan Benafarroako Karbas askatzera joanda, 600 gudari atxilotu ebazan.

Ortik, Ladron de Zegamatar Santosen agindupean ipini eben eta ainbat garaipen lortu ebazan.

1.829an Otsaillaren 10ean VII In Fernando erregeak, Koronel maillara igoten dautxo, eta guda nagusien artean beragandik sortu ziran zurrumurrutako susmoagaitik, Balentzia eta Extremadurako guda-loztea antolatzen bialdu eben, eta ortik Ferrolera aberkoi gudarien jaurlari lez (4), Galiziako mendi bideak lapurretatik askatzeko.

Guda nagusi liberalakin ez zalako ondo konpontzen, Espainol jaurlaritzagaz asarratu zan eta Iruñako guda-tegira aldatu egien eskatuta, 45 urte eukezala, Karmengo kalean gaur 33ko zenbakia daukanak, 21garren zenbakiko

(1)Basa-gudari edo gerlari = guerrillero. (2) Abariz-mendiketan = cordillera del Carrascal. (3) Jaurgo barri baltzuaren = sociedad, alianza constitucionalista. (4) Aberkoi gudarien jaurlari lez = como gobernador civico militar.

etxean bizi zan bere sendi zai, eta ain gogoko euki ebazan eizak egiten.

Gudal buruak, bera erregetzaren aldeko ez zan izena ipini eutsoen, eta VIIIn Fernandoren eriotza gertatu zanean, jakinda Nafartarrak Vn Karlos erregetzat artuko ebela, beldur, Iruñatik alde egin eban baserritar jantzita, eta Sarasako errira joan da, gobernuaren aurkako matxinatuta egoan izkilludun talde bategaz aurkeztu zan, eta beren ezagutza eurei emonda, agintari lez artu eben.

Uarte Arakilera joan da, Iturralde koronelagaz aurkitzen da, eta Ladron de Zegamatar Santos gudal nagusiaren ondamenak jakin ebazanean, Iturraldek bera baiño zarragoa izan arren, beren gaiñetik ipini eban gudaloztearen agintari.

1.833an Iraillaren 29an VIIIn Fernando erregea il zan.

1.833an Azaroaren 2an Zumalakarregitar Tomasek, gudal nagusi liberalak beragaitk susmo aundiak euki ebazalako, gabaz alde egiten dau Iruñatik.

1.833an Azaroaren 14an Nafarroako karlisten gudal nagusi izendatu eben.

1.833an Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eben bere gudal nagusitasuna.

1.834an Uztaillaren 12an Tomasek Baztanen Vn Karlosegaz batzartuta euskal Lege edo Foruak zifietuazo eutson, eta onek onartu ebazan Zumalakarregik eskatzen eutsona, bere gudaloztearen gudal nagusi izendatuta.

1.834 eta 1.835eko Udabarrien bitartean, Tomasen garaipen asko ta sendo bidetik, beren taldeko gudal nagusi artean, eziñ ikusi edo bikaizkeri (1) aundiak sortu ziralako, Zumalakarregik, birriten uztea erabagi eban beren gudal nagusitasuna, Vn Karlosek baiña, ez eutson onartu eta sendotu egin eban bere agintaritzan.

1.835ean Bagillaren 12an karlisten lau batalloien artean Bilboko ate guztiak inguratuta euki eban eta urrengoko egunean Zumalakarregi Bilbora joan da, ikusi gura ebazan Mirasol kondeak Bilbon egin ebazan arresizko (2) sendokuntzak eta Begoñako Eleiz Nagusiaren atzealdeko eskuiñean dauan lenengo etxearen bigarren solairura igon eban, eta balkoitik begira egoala, Iturriaga orma baten ingurutik berreun metruko bitarte egoan lekutik belaun azpian tiro bategaz zauritu eben.

Bilbaoko gudari liberalak 800 edo 1.000 metru inguruko bitartea eukiko ebazan Zumalakarregi egoan lekuraiño, eta nai ta iñork jakin ez arren, baleiteke bere taldeko batek izatea tiro egin eutsona.

Berak ez eben gura ankarik ebagitea, eta lenengo sendabideak eginda berak lendik ezagutzen eban Zegamako Telleriatar Franzizko "Petrikillo"rena joan ziran tiroiña atara egian, baiña tiroiña baleike kota, zaborraldi edo tetanoserako prestuta egoalako, gorputzatik zabaldu jakon kota edo zaborraldi ori.

Zumalakarregitar Tomasen ikurra, "*Jaungoikoa ta Foru edo Lege Zarrak izan ziran*".

Eta 1.835an Bagillaren 25ean Zegaman il zan Zumalakarregi ta Imaztar Tomas Abertzale sutua, liberalaren poztasun aundiagaz.

Karlistadako gudan, bere anai Zumalakarregitar Migelek bera baiño 15 urte

(1)Ezifñ ikusi edo bikaizkeriak = envidias. (2) Arresizko sendokuntzak = amurallamiento, fortificación de Bilbao.

zarragoa, itxuraz bere aurka jokatu eban gudal nagusi lez, jaurgo edo konstituzionalaren alderdiekin, baiña beti liberal lerrotan egon ziran ainbat euskal gudariak batera 1.841ean Esparterori aleginduten eutsen lez, Euskal Foru legearen alde egin egian. Tomaseri ainbat laguntza emon eutsen.

1.846an il zan Zumalakarregitar Migel, eta Gipuzkoako Aldundia Elgoibarren batzartuta, bien irudiakaz oroikarri bat eraikiteko erabagitu eban, baiña orduko denboran dirurik ez egolako, gaur oraindiño erabagi ori bete barik daukagu.

4.2. Merinotar Jeronimo Apaiza.

1.769an Burgoseko Billobiado erritxoan jaio zan Merinotar Jeronimo gaztelar Apaiza, eta 1.844an Frantziako Lanon errian il.

Beren aita-amak nekazariak izan ziran, eta anai arrebaren artean bigarrena izan zan.

Lermara bialdu eben latifña ikastera, baiña anai zarrena il jakon lez, ostera etxera itzuli bear izan eban, nakazaritzaren lanetan laguntzeko.

1.790ean berak 21 urte eukezala, Billobiadoko apaiza bere lagun aundiena il zan, eta Kobarrubiaseko erretorearen laguntzarekin lortu eban abadetzaren ikasketak amaitu, lenengo Meza Santua Billobiaden emon ondoren, bertan apaiz lez geratuta.

1.808an Urtarrillaren 16an Billobiaden, Napoleonen gudari bereziak agertuta eta bera artean dala erritar guztiei zelako galarazoekin beartu eutsen gudal tresneriak Lermara eroan egiezan ikusita, bere bizitza guztiz aldatu zan.

Merinotar Jeronimok, bere esaneko atzalburuen artean: *“Jainkoak Gizona, zutik sortu ebala eta iñoren aurrean ez ebala zetan bururik makurtu”* esaten eban.

Jeronimok, ziñez itz emon eban geikeri orren aurka borrokatuko ebala, eta lenengoetan bere serbitzailleagaz erregearen ibilbidetatik Frantzezari erasotzen, gero bere loba ta apurka apurka inguruko erriakaz alderdikedetuta, bere gudaloztea bear eban agintariekaz antolatu ondoren, sasi gudaren trebetasunean, aipatuenetariko bat biurtu zan.

Berrogei urte egiteko zala eta *“Burugogor”* esaten eutsoen laguntzagaz, Roan egon ziran Frantzezak bota ebazan, inguruko lurretan sua trebetasun aundiz erabilia.

Geroago, Kobarrubiasen batu ebazan sasi gudan ibili ziran gidari guztiak, gaztelanian zelango jokoa eroan bear eben jakin arazian ipinteko.

Roa, Aranda eta Lermako udal batzarrak ainbat gazte bialdu eutsoezan borrokan laguntzeko, eta eurokaz ustekabeen eraso eutsen Kintanako Zubi parean Rodrigo Urira joan zan suburdi bateri, lerrauts edo bolbora, kañoi eta bonba askogaz geratuta, arrapau ebazan zaldi ta euren tresneriak, nekazariaren artean bananduta.

Demandako mendikateetan babestuta egon zan lekutik ainbat eraso eutsoezan frantzezai, eta len “Gurutze Gorria”ren xingola emon ba eutsoen, orain koronel gudu maillara igon eben.

1.809an Bagillaren 9an Jeronimo bere taldeagaz Tordomarreko erritxoan dagoela, Burgosetik urteneko Frantzez guda talde bat Lermara joan zala jakin eban, eta bertara joan da Dukearen etxeari erasota frantzezak azpiratu ebazan.

Ostean, inguruko errietatik beren guda taldean ainbat ikasle lerrokatu ziran, aiek gazteen artean gero Espainako diruaren arduraduna eta Banketxearen lenengo jaurleri izango zan Santillantar Ramon egoala.

1.809ko Uztaillatik aurrera, Burgos eta Balladolizeko bitarteko ibilbideakaz arduratu zan.

1.810ean Urtarrillaren 22an Dueñaseko erri inguruan, 1.500eko Frantzez guda talde bateri eraso eutson eta 200 frantzez gudari baiño ez eben lortu iges egiterik.

1.811n urtean, Burgoseko “Usaresen Zaldiko” taldea irasi eban eta 1.812rarte Duero ta Lerma bitartean ibili zan Padilla eta Printze laguntzarekin muga babes lerro bat eraikita. Ortik, Kataluñara bialdu eben brigadierren guda nagusi maillagaz.

1.814an Burgoseko gudategira guda buru yaurleri lez itzuli zan, eta VIIIn Fernando Espainara itzuli zanean Balentziako kalonjetza ⁽¹⁾ emon eutson, bertan Guda Kapitan nagusiak “San Fernandoren Laureada eta IIIIn Karlosen Gurutz Andiagaz” xingolaztu eban, eta bere eritzizko zuzentasunagaitik ango apaizakaz ez zalako ondo konpontzen, bere Billabodioko erriaren apaiz ardurak ostera artu ebazan.

1.820an Riegon matxintasunaren aurka agertuta, VIIIn Fernandok bere guda taldea ezereztutea erabagi eban eta Jeronimo, Fernandoren anai Vn Karlosen taldekoa egin zan.

1.833-1.839ko urte bitartean, Vn Karlosen aldeko borrokan ibili zan guda nagusi lez.

Eta 1.839an Dagonillaren 31n Bergaran, Espartero ta Marotok lotsagabeko besarkada egin eben ostetik Frantziara iges eginda, Alenzonen biziko zan bost urtean 1.844an 75 urte eukezala il zan arte.

1.962an ekarri ebazan beren gorputzaren ondarrak Erdi Ugarte onetara, eta Burgoseko Arlanza ta Solarana ibar erdian dauan Lerma errian, Santa Klara lekaretxe aurrean illobiratu ebezan bere ezur ondarrak.

4.3. Maroto ta Iserntar Rafael.

1.783an Murtziaren Lorkako erritxoan jaio zan gizon saltzaille ta maltzur Maroto ta Iserntar Rafael au.

Napoleonon borrokan asi eban bere guda ikaskuntza eta Zalduban borrokan egoala zauritu ta atxilotu ondoren, iges egitea lortu eban.

(1) Balentziako kalonjetza = canonigo de Valencia.

1.813an Talaberako guda taldearen buru zala, Perura joan zan, 1.810etik askatuta egon zan Txile, ostera menperatzeko.

1.814an Rankaguako borrokan irabazle urten eban eta Txileko Santiago uri nagusian garaille sartuta, Abaskal errege ordearen eskutik guda agintari maillan, koronelaren maillatik gora izendatu ⁽¹⁾ eben.

Eta bertan, Kortes eta Garziatar Antonia oso aberatza izan zan emakumeagaz ezkondu zan.

1.817an Otsaillaren 10ean, Txileko guda kapitan nagusiak, Marotoren eskuetan ipini ebazan Txileko guda indarrak, eta otsaillaren 17an San Martin askatzaille guda nagusiak menderatu ebazan Txakabukoko aldapan Marotoren guda ozte orreik, Maroto zauritu, Markel ta Elorreaga il eta bere lagun San Bruno guda nagusia atxilotuta. Txilek ortik aurrera, bere betiko askatasuna lortuko eban.

1.817an Marotok Uetxurabatik laguntza eskatzen eban, baiña Santiagora joateko agindua artu eban.

1.817an Otsaillaren 13an arratsaldeko ordu biak zirala, Santiagoko diru-etxe aurrean, 190.000 urrezko ta zillarrezko ogerlekoakaz zorroak beteta mando gaitan ipini ebazan, eta 6.000 ogerleko (pesos) zillarrezko trozkoetan ⁽²⁾ egon ziranak ezin ebalako geiago eroan bertan itzita, urten eban Santiagotik.

Diru guzti au, eraso baten bidez, bidean galdu zala esan eben.

1.817an Otsaillaren 13an gaba erdian Santiago, guda nagusien batzarra egin zan, eta berton Marotoren eritzia on artuta, Balparaisoko itsas portura joatea erabagi eben, itsas ontzietan igonda Perura joateko.

Maroto, Punoko ⁽³⁾ jaurlari arduradun nagusi lez izendatu eben eta De la Serna errege ordeagaz lagun eginda, onek ez eutson jaramonik egiten Puno babesteko egiten eutsoezan eskaerari, eta bertan itxi bear ebazan alkarrizketa orreik.

1.824an Dagonillaren 6an Marotok, De la Serna errege ordearen aginduan egon ziran liberal guda ozteak bere agindutara artuz, Peruko Juninen zelai zabaletan, Bolibartar Simonen aginduan egon ziran Amerikar errepublikako indarraren aurka egin eban borroka galdu eban, eta bereala asi ziran biok antolatzen, andik bost illabetera euren artean izango zan azkeneko borroka.

Maroto, Fernandez ta Esparterotar Baldomerogaz euren saripeko guda mailla aundiagotzeko, Amerikaren kolonizaziozko gudatan ainbeste Espainako guda nagusi askogaz ibilita, lagun aundiak izan ziran, Euskaldunak konturatu gindezan nondik etorten jakien adiskidetasuna 1.839ko urtean Bergaran egin zan saldukerizko besarkadari adierazpena emoteko.

Orduko eta gaurko batzango ta diru-zalekeri denboratan, guda-buruak saripekoak izanez gain, goian aipatu dogun aolkularitzazko bidetik, gure errietan indarrez, eurak ezartzen ebazan norkezikko lege orreik, daukaguzan morroitasunaren Laterrizko aberri barri oneitan egokitu gindezan, eta European

(1)Koronel baiña geiago = brigadier. (2)Trozko = lingote en bruto. (3) Puno = Peruko Uria Bolibiako mugan, Titikaka ur geldiko aintziraren ertzean erri bien bitartean kokatuta dagoena.

eurak izan ziralako indartsuenak, Nortasunaren eskubidekoak, gaurko morroilpe⁽¹⁾ onetan aurkitzen gara.

1.824an Abenduaren 9an egin zan Ayakutxoko azken borroka nagusia, Espainol mende-zaleen gudalozteak De la Serna errege ordeak bideratuta, eta Amerikarren Errepublikako indarrak Bolibarren aginduz Sukretar Antonio Joseren eskuetan itxita, espainolak menderatu ebazan, Laserna gudal nagusia, 15 gudal buru, 16 koronel eta 3.000 guda mutil atxilotu ondoren, Sukre gudal nagusiak Bolibarrerri esan eutson guda amaituta: *“Peruren askatasun osoa zala”*.

1.825eko Urtarrillan, espainol gudalozteak itsas ontzietan igonda Espainara itzuli ziran.

Marotok, “Ernestina” frantzez itsas ontzi aundian itzuli zan eta VIIIn Fernando erregearen Asturias ta Toledoko guda mutillak antolatzen egon ostean, Iruñako gudaltegira etorri zan.

Vn Karlosekin berba egin ebalako, Sebilla eta geroago Granadako espetxetan egonda Portugalera iges eban, eta Karlosengana joanda, ez zan karlistaren gudalozteetan 1.835erarte lerrokatu.

1.836an Dagonillaren 30ean Maroto Kataluniako gudal nagusia izanda, Auñamendiko Nuriatik aldatu zan eta ainbeste bider galtzaille urten ondoren, gudalozteak Royo gudal nagusiaren eskuetan itzita, Frantzira aldatu zan Vn Karloseri Kataluñaren egoera txarra adierazteko aitzakiagaz.

1.836an Urrillaren 5ean Maroto Frantzira aldatu zan, baiña Eynako erritxoan 21 oiñezko gudari talde azkarrak arrapau eben, eta Tourseko espetxean atxilotu ta iges egin ondoren Burdeosera eldu zan.

1.836an Urrillaren 28an Marotok, Vn Karlosen ministru Errori idazten dautso eskutitz bat esaten, zelan, bereala jarriko zala bidean karlistaren gudaltegi nagusira joateko.

1.836an Azaroaren 14an Erro ministruak Durangotik, Marotori erantzun eutson: *“Karlosen agindua zala, egon zan leku bertan iraun egiala arek eta Katalunian sortu ziran gauzak eta bera Frantziaren lurraldera zergaitik aldatu zan argitu arte”*.

1.838ko urtean Marotok, oraindiño euki eban debekatuta itzultzea, baiña Gerge gudal nagusiaren utsegite ta gudaloztearen agintaritzan sortu ziran banaketaren bidetik, Vn Karlosek Marotori deitzea erabagi eban.

Eta 1.838an Lorailaren 15ean Karlosek deitzen dautso Marotori etorteko.

1.838an Bagillaren 20an Gerge gudal nagusiak, Urizarreko⁽²⁾ mendi katearen ezarpenak galtzen dauz eta Karlosek Maroto izendatzen dau Iparraldeko gudaloztearen nagusi.

1.839an Maroto asten da berba egiten IIIn Isabelen gudal nagusiakaz.

1.839ko Urtarrillatik erregearen gudaltegian, Tejeioren aldekoak ziranak, Marotoren aldekoarekin asten dira gero ta biziago izango ziran eztaibadak, marotistak Isabelen gudal nagusiakaz alkar izketan azteko zaleak ziralako.

(1) Morroilpe = carcel, prision, reclusión. (2) Urizaarra = pefacerrada.

1.839an Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok antolatzen asi ziran 1.839ko egiunearen alkarrizketak.

1.839an Otsaillaren 14an Marotok, gudal nagusi Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Gartzia, Sanztar Pablo, Karmona jeneral ordezeko edo brigadierra eta Uriztar intendenziako arduradunari, Lizarrara joateko deitu eutsen, eta izketaldi orrean aurkakoak izan ziralako, Marotok bostak tiroz iltzeko agindua emon eban.

1.839an Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren osteko orman: Gerge, Garzia, Sanz, Karmona eta Uriz Karlosen gudal nagusiak tiroz il ebazan".

Bertan dago burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

1.839an Otsaillaren 21ean Vn Karlos azarre, Maroto kendu eban bere agintaritzatik, azpi-suge edo saltzaille bat zala salatuta. Baiña Maroto egoeraren nausi zan, eta Karlosek ez zan gauza izan Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839an Otsaillaren 24an Karlosek, agindu baten bidez ostera izendatzen dau Maroto gudal nagusi lez, eta onek beren aurka egon ziranak Frantzira erbesteratu ebazan. Ortik aurrera zalantzak gogortzen asita.

1.839an Uztaillaren 20an Marotok, Diego de Leon karlista gudal nagusiak Ellioten ituna apurtu ebala aitzakiarekin, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay itsas untziren Kapitañagaz berba egiten dau, Marotok gualozte bien artean, Inglesaren artekaritzazko billa ibili zalako.

1.839an Uztaillaren 29an sortu zan Espartero ta Lord Hayen arteko elkarrizketa, eta Lord Hayenek Esparterori aurkeztuta Marotoren adierazpenak, Esparterok on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña berak Espainako jaurkintzan aurkeztu ta gero, karlosen gualozteak Isabelen ama Kristinaren agindupean geratzen ba ziran erantzun eban.

1.839an Dagonillaren 24an Maroto ta liberalaren gudal nagusi Zabala alkartzen dira, Marotok aurkeztuta Esparterorekin berba egin gura ebala.

1.839an Dagonillaren 26an Abadiñoko izketaldian euki eben lenengo alkar ikuste Maroto ta Esparterok. Eta urrengo egunetan elkargoaren baldintzen idatzia, Bergaran 1.839an egin zan saldukerizko egiunearen aurrerapena izango zana.

1.839an Dagonillaren 31n Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta judaskeriko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezan gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebala itzagaz.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben kristino gualozteetan gudal buru nagusi lez, eta Marotoren etxeko kondea izendatu eben.

1.847an Maroto ta Iserntar Rafaelek Txilera aldatzeko baimena lortuta, bertokoak goian aipatu doguzan 190.000 ogerleko ostu ebazanagaitik berbetan asi ziran. Salaketa orreik ez ziran iñoz argitu, eta bera bere emazteak Santiagoko Umezurtz Kalean euki eban jabetzazko etxea eta Konkoneko etxe

bazterrak eskatu ta lortuta, txandaka bizi zan Konkon eta Santiagoko etxean areik eta 1.853an Dagonillaren 4an il eta Sean illobiratu zan arte.

4.4. Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako IIIIn Markesa.

1.766an Iraillaren 6an Irunen jaio zan Orbe ta Eliotar Jose Maria "*Ermuko Mantxuelo*" ez izenarekin esagutzen zana.

Zaldubako ikastetxe nagusian egin ebazan Gizartezko ikasketak eta gero beren guda bizibideari asiera emoteko, Santiago gudu taldearen Kadete Gizatsuen ikastetxean⁽¹⁾ lerrokatu zan matematikas ikasten.

1.793an Frantzeraren aurkako guda asi orduko, Bergarako andikien errege ikastetxera joan zan, gero Gipuzkoako gudu taldean lerrokatuta kapitaiñaren maillarekin.

1.794an San Martzialeko borrokan, eskumako eskuan zauritu eben eta txarto osatuta, beso osoa kendu bear eutsoen.

Basileako bakea sinatu zanean, gudaitegietatik kapitaiñaren maillarekin urten eban, eta naita beso bategaz geratuta kikildu barik, esku ezkerragaz idazten ikasteko, Bizkaiko Jauntzaren edestiko ikasketetan asi zan, bere gurasoen ondorengo diru-zain arduragaz batera

1.797an guztien baimenakin autatua izan zalako, 1.802an joan zan lenengoz Ermuko ordezkari lez Gernikako orokorrezko batzarretara, bertan ordezkari nagusi lez izendatuta. Eta urte orreitan, Zamakolatar Simon Bernardorekin joan zan Espainako gortetara, Bilbaoko "*Askatasunezko Portu*" barriaren gora beran.

Zamakolada biztu zanean, iges egin bear izan eban eta Nafarroako Zamakolaren elkartean ostondu.

Zamakolada amaituta, bere Ermuko etxera joan zan eta bertatik matxinatuari laguntzen, ainbatetik lortzen ebazan izkilluak banatzen ibiliteagaitik, frantzezak eta prantzez zaleen aldetik oso zelatuta ibili zan, zarritan diru ta espetxeagaz zigortuta.

Eta Bizkaiko 7garren guda lozte antolatu zanean, bigarren taldean lerrokatu zan koronel agintari maillagaz.

1.820-1.823 jaurgo barri edo konstituzioaren denboretan espetxeratu eban, Espainol zalearen ustean, Egiatar Nazario guda nagusiarekin azpikari ibiltzen zalako, eta epaiketean fiskalak ilteko zigorra eskatuta, askenean urte biko zigorragaz Burgoseko espetxean atxilotu eban, auzipeko ordaiñak berak ordaindu bear izan ebala.

Burgoseko espetxetik Bilbaoko espetxera eroanda gero, Kadizera atzerriratu eben, eta iges eginda VIIIn Fernandorengana joan zan, onek 1.823an jaurgo barri ori ezereztu ebanean osterera Ermura itzulita.

Gernikako batzarraren orokorrezko ordezkari edo diputadu nagusi autatu

(1) Kadete Gizatsuen Ikastetxea = academia militar de caballeros cadetes.

eban oster, eta bere senide Nobia de Salzedogaz batera, erregearen alde gogoko guda mutillaren taldeak antolatzen ibili ziran, bera laugarren guda taldeko koronel nagusia izendatuta.

1.825-1.827ko urte bitartean, Nobia de Salzedogaz batera Bizkaiko trenbidearen aurrerapideko antolakuntzan ibili ziran bera buru zala. Eta Espoz Illundai ta Minatar Franzizko Espainan sartu zanean konstituzioa aldarrikatzen, gure Orbe, guda talde bategaz ibilteagaitik atzerrira joan bear izan eban.

1.833an irugarrenez autatu eben Gernikako orokorrezko Batzarraren ordezkari nagusi, eta politikatik aldentuta bizi zan, arik eta karlistada asi zan arte.

Karlistadako guda asi zanean bera izan zan Bilbon Karlosen ikurra goratu ebana eta ez bakarrik Bizkaian, Araba, Gipuzkoa, Santander eta Gaztela Zarraren jazargoko batzarretara be bialtzen ibili zalako, gudarako bear ziran izkillu, diru ta guda mutillak.

Sarsfield liberalaren guda nagusia agertu zanean eta Gaztela ta Arabako Vn Karlosen indarrak sakabanatuta (1), berez banandu ziran Bizkaia eta Gipuzkoakoak, bera Nafarroara izkututzen joanda karlista Foru Aldundiarekin.

1.833an Abenduaren 7an, Etxarri Aranazen Zumalakarregitar Tomas izendatu eban Euskalerriko guda buru nagusi, eta egon ziran borroka guztietan eskuartze aundia eukinda, Bizkaia etorri zan Bizkaitarrak matxinatzeko alegiñean.

Vn Karlosek lan guzti ori ikusita, bere ondora deitu autson, eta bere erregezko itun batzarrera aolkulari lez izendatuta, beste guda nagusien bekaizkerien bidetik 1.834ko urte askenetan, agintz-ausle (2) izatearen salaketagaz auzipetu eben.

Nafarroako guda te gira bialdu eben euki ebazan aginte guztiak kenduta eta Zumalakarregigaz batera ibili zan onen borroka guztietan.

1.836an bere errugabetasuna argituta, Vn Karlosek oster deitu eutson bere ondora eta bere itaunezko errege batzarrera ministru lez izendatuta, Bizkaiko errigizartearen zaintzako ordezkari nagusia (3) be izendatu eben, bere on zentzuzko Nortasuna argitasun aundiagaz erakutsita eta Kastrejana ta Bilboko bi ta irugarren inguratzeko gudaldietan egonda.

1.838ko Dagonillan guda ministrua bere borondatearen aurka izendatzen dabe.

Eta Lizarran egin ziran tiro ilketaren bidetik Marotogaz asarratuta, alde egin eban ministruaren agintaritzatik.

Zelaiko Mariskala izanda eta ain omentsu ta ainbeste bider xingolatuta egon arren, Bergaran Marotok Esparterogaz egin eban saldukerizko besarkada bidetik Frantzira atzerriratu bear izan eban txakur-txiki barik, euki ebazan diru guztiak guda lozteentzat emonda eukazalako.

Eta berak, Bergarako besarkada ori ez ebalako onartzen, atzerritasunean be

(1) Sakabanatuta = deshacer al enemigo, vencer, dispersar. (2) Agintz-ausle = inobediente, desobediente. (3) Bizkaiko errigizartearen zaintzako ordezkari nagusia = comisario regio de la vigilancia pública de Vizkaia.

beti zainduta egon zan, eta ata guzti beste karlista gudal nagusiakaz, danak ostondutako izenakaz ibilita, beste matxintasun bat antolatzen ibili zan.

1.847an bere emaztea oso gaixorik egoalako, bere seme Nepomuzenotar Juan etorri zan Erdi Ugarte onetara, bide batez galdu ziran etxeko jabetzak berrezkuratzeko.

1.850ean Uztaillaren 21ean Burdeoson il zan Orbe ta Eliotar Jose Maria "*Ermuko Mantxuelo*" Euskaldun abertzale goragarria.

4.5. Egiatar Nazario.

1.777an Uztaillaren 28an Durangon jaio zan.

Egiatar Franzisko gudal nagusiaren loba izan zan.

Nazario bere osaba lez, erregearen al osokerizko zalea izan zan.

1.794-1.795 garrenengo urtetan berak 16 urte eukezala, Frantzezaren aurka ibili zan Franzisko bere osabaren agindupean egiuneko (1) borrokatan.

1.797an Zamorako injineru gudu ikastexera sartu zan, urte bi geroago tenientearen gudu maillakin urteteko.

Askatasunezko gudan ibilita ainbat bider goratu eben gudari maillan eta gudal nagusiagaitik deituta, Kadizeko Uria ta Leoneko ugartearen sendokuntzak bideratu ebazan.

Erregetzazko al osotasunaren aldekoa izan da, VIIIn Fernandoren uste osoa euki eban, eta onek 37 urte bete barik eukezanean zelaiko mariskala izendatu eban, ta geroago Galiziaren orokorrezko kapitaiña.

1.829an izakera gogorrekua izan zalako, bere ondoan ibili ziranetatik ainbatek alde egin bear izan ebelako, ilteko gaiztakeria egin eutsoen, zorionez ezker ta eskubiko eskuetatik atzamar batzuk bakarrik kenduta.

1.830ean VIIIn Fernandok Egia-Etxearen kondea izendatu eban.

1.833an Iraillaren 29an VIIIn Fernando il zanean, bera Karlosen alde kokatu zalako, Frantzira atzerriratu bear izan eban, eta Euskalerrian ordurarte Morenoren agindupean egon ziran karlistaren gudalozteko 25.000 gudarien buru ipini eben.

1.835ean Gebaran, eta 1.836an Arlabanen Fernandez Kordobatar Luisen aurka borrokatu zan.

Balmaseda ta Merkadilloko liberal indarrak menperatu ebazan eta errien babespideko arresiak ezereztu ondoren, Durangora aldatu zan bere gudaloztearekin.

Nazariok, aurrerakuntza aundia emon eutsen erasoko ekiñaldiai, baiña ez eben asko balio, gudal nagusien artean bekaizkeri ta adi-ezin asko egon ziralako.

1.835ean Urrillaren 8an Nafarroako errege ordezkoa izendatu eben, eta gudal nagusien artean jazarraldi asko egon zalako, Vn Karlosek desegin eban erabagi ori.

1.836ko Lorailan Karlosek, IIIIn Karlosen Gurutzea diru ordainketa barik

(1) Egiune = pacto, convenio, convención, contrato. Egiuneko borrokatan = guerras de la convención.

xingolatu eban, eta beren erregeari eskertu ondoren, bere agintaritzatik alde eban, bere kide gudal nagusi artean mii-gaizto edo murmurikari asko egon zalako.

1.836an Uztaillaren 10ean bere borondate ona erakustearren, aldarrikapen bat agertu eban, bere emaitzakin ainbat liberal gudari karlistaren gudalozteetara aldatuta. Bere agintaritzan, gudaloztearen indarrak 10.000 gudariakaz geiagotu zan.

1.839an Bergarako egiunean, Marotoren alde kokatu zan.

1.840-1.849ko urte bitartean Frantzian atzerrituta bizi zan. eta ostean Egiaren Etxeko kondea izena ta jeneral ordezeko guda mailla onartuazo eutsoenetik Tolosara joan zan bizitzen.

1.849-1.853 urte bitartean senatore egin eben.

1.865ean Tolosan il zan Egiatar Nazario.

4.6. Gerge ta Yaniztar Juan Antonio.

1.789an Bagillaren 26an Agilar de Kodesen jaioa.

1.809an Otsaillaren 18an Napoleonen eraso bidetik eta bere osabaren eredia artuta sartu zan soldautzara oiñezko gudari lez.

1.810ean, Sansol, Tarazona eta Arnedilloko borroketa ibili zan.

1.811n, Kornago, Yerga, Urduñan ta Bilbon. Eta aurreratxoago, Salinas de Añana, Nanklares eta abar, Napoleonen aurkako gudak teniente maillagaz amaitu arte.

Napoleonen borrokak amaituta eta pakezko zortzi urtearen ostean Riegoren ereserki ta Alfonsinotarren artean sortu ziran eztaibada bidetik, 1.822an liberalaren aurkako agertu zan eta urte orreitan 33 urte eukezanean erregearen gudalozteetan kapitain lez lerrokatzea erabagi eban.

1.824an Napar Euskalerritik ainbat borrokatan ibilita, koronel ordezeko maillara igon eben.

1.827an Dagonillaren 12an Brioneseko Legariaren Jauregiko alaba Ita ta Murillestar Franzizka Paulagaz ezkontzen da eta bere emaztea ain laster ilda, 1.831n berak 42 urte eukezala bere koiñata Ramonagaz ezkondu zan.

1.833an VIIIn Fernando il zanean, bera Fuegoen alde jokatutearren Vn Karlosekin lerrokatu zan eta Zumalakarregitar Tomas euki eban lenengo agintari nagusi lez.

1.835ean, Kataluñarako gudaldi bat antolatu eban, uts galanta egin ebana.

1.837an, Zelaiko Mariskala eta Bizkaiaren orokorrezko gudal nagusi jenerala izendatu eben.

1.838an, Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudaloztearen buru izendatu eben.

1.838an Bagillaren 20-22ko egun bitartean, Esparterok Urizar mendietako (1) borrokan irabazi eutson eta agintaritzatik kendu eben, bere ordezkari Marototar Rafael izendatuta.

(1) Urizar mendietako = cordillera de Peñacerrada.

1.839an Otsaillaren 14an, Marotok jakinda Esparterogaz antolatzen asi zan egiunearen aurkakoak izan zirala eta bere aurka Gerge beste lagun batzuek elkarganutzen ibili zala, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Gartzia ta Sanztar Pablo gudal karlista nagusia, Karmona koronel ordezeko edo brigadierra eta Uriz intendentzi edo buruzpidearen arduradunagaz batera Lizarrara joan egiezan agindu eutsen, eta eurokaz berba eginda gero Marotok, bostak tiros il egiezala agindua emon eban.

1.839an Otsaillaren 18an Gerge ta Yaniz Juan Antonio beste lau karlista nagusiekin tiros il ebazan Puy Santutegiaren orma ostean. Bertan dago euren oroimenezko burni xafla.

Euren gorpuak, lizarrako illerriaren gudal nagusien erri illobian obiratuta dagoz, bere ereñoztutako gurutzen azpian: *“Dios, Patria, Rey. A los generales Carlistas Garzia, Sanz, Guergue, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839, dedican este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I.P.”*.

4.7. Kabrera ta Griñotar Ramon, Morellako lenengo kondea.

Kabrera ta Griñotar Ramoneri *“Zaldun-erri edo Nausi-erriaren (1) odol zaleko Katamotza”* esaten eutsen, bere eskuetan jausten ziranak, Espainol mende zaleak egiten eben antzera, liberal agintari eta gudariak tiros il egiten ebazalako.

1.806an Kataluñako Tortosa errian jaio zan eta 1.877an Inglaterrako Wentworth'enen il.

1.833an Espainako ondorengo guda asi zanean, apaiz gaitegia itxi eban eta Karlistarekin lerrokatu zan.

1.835ean, gudal nagusia izatera eldu zan.

Aldi oneitan, Nogeras liberaltarren gudal nagusia asarre bizian egoan, Kabreratar Ramonek, euren aldeko gudari liberalak arrapetan ebazananean, eurak karlistarekin egiten eben antzera, tiroz il egiten ebazalako.

Nogeras berak, Espainako kaizargo-mende agintariaren kide izanda, nai ta, gauza orreik baiño geiago egiten ba ebazan be, ez eben garrantzizko ardurean artzen, eurak euren ustean kaizar sakratuaren jaun aundiak ziralako.

Orregaitik, kaizar-mende agintarien ustean ez eben on artzen, matxinatu fazizta batek, nagusien eskubideko gauza orreik egin leikezala, eta Nogerasek eritzi orren bidez Espoz ta Minatar Franzisko zirikitu eban, Kabreraren ama ordezeko il degian eta atxilotu egiezala bere iru arrebak, inguru guztiko errietan aldarrikatuta erritarrak eredu lez artu egien.

Nogerasen aolku ori ez zan geratu or, Aragoian sasi-gudan ibiltzen ziran agintarien emazte ta semeak ilteko aolku bardifña emon ebalako (Espainaren orokorrezko edestiaren egille *“D.VICTOR GEBHARDT”* seigarren atalean 895 896 orrialdean esaten dauan lez).

(1) Zaldun-erri edo Nausi-erri = maestrazgo.

Minak baietza emonda, bere gudariai agindu eutsen nazkagarritzko ilketa ori egien.

1.834an atxilotu eben Kabrerasen ama Griñotar Maria, eta liberal agintariak euki eben gorrotoa erakusteko, ezeren salaketa eukinez gain: *“Ez eutsen bere alabari besarkatzen itxi, ez azkenairik egiten, ez buru-estalkirik ipini, eta bera ain ereduzko Kristaua izanda, eleizakorik artzen be”*.

1.836an Otsaillaen 16an liberalak, Kabreraren ama tiroz il ebenean, berak artu ebazan mendeku edo ordain bidetik: *“Zaldun erriko odol zale katamotza”* esaten eutsoen, arrapau egiten ebazan gudari ta agintari guztiak ilten ebazalako.

1.838an Vn Karlosek, Morellako kondea izendatu eban.

1.840an berak, 1.839an egin zan saldukerizko egiune ez ebalako on artzen, Frantzira atzerritu zan.

1.848an Kataluñara itzuli ondoren, matxinatuakaz alkartzen da eta karlistaren bigarren gudako buru egin eben.

1.849an ostera atzerriratzenda Frantzia ta Inglaterrara, eta emen Katherine Ritxard Marianne inglesagaz ezkontzen da.

1.875ean, XIIIn Alfonso ontzat artu eban.

4.8. Gomez ta Damastar Migel Santxo.

1.785ean Bagilaren 5ean Jaeneko Torredonjimeno jaio zan.

1.808an Bagillaren 9an sartu zan tenient ordezkoko lez Espainako gudaloztean eta Baileneko borrokan egon zan.

1.812an Uztaillaren 21ean ainbat borrokan ibilita frantzezak Kastallaneko errian arrapau eban eta Frantziko Autuneko espetxera bialduta, lortu eben iges egitea eta ostera joan zan bere guda taldera.

1.812ko Iraillan kapitan egin eben eta 1.815ean Madrillen ezkondu zan Paradatar Bizentarekin.

1.816an Loraillaren 8an gudaritzari izten dautso.

1.820an Migelek, Riegotar Rafaelen konstituzio edo jaurgoaren guztiz aurkakoa izanda, Jaeneko gudaltegiaren agintariak eskuratu gura dauz eta porrot eginda Jaenetik alde egin bear izan eban.

1.823an VIIIn Fernando erregeak bere alosokeriaren jabetza ostera berrezkuratu ondoren, Andaluzira joan zan eta Algeziraseko agintaritza lortuta, Maria Kristinaren errege ordezkotzan kendu eben, erregearen alosokerizko aldekoa zalako.

1.833an Madrillen egoala karlistadako guda sortu zan eta bereala joan zan Nafarroara Zumalakarregiren agindupean lerrokatzeko.

Zumalakarregik, bere gudaloztearen aintzindari (1) nagusi izendatu eban eta ainbat borroka nagusietan egon zan.

1.834an Vn Karloseri laguntzen ibili zan eta Bizkaiko gudal buru nagusi izendatu eben.

(1) Aintzindari = jefe, cabecilla, administrador.

Eta Gernika ta Tolosako borrokatan ibilita Zelaiko Mariskala.

1.834ko urte orreitan Orbaizetako markesaren aundiki izena emon eutsoen.

1.836ko Bagillan, Euskalerra onetan karlistaren gudalozteak liberalaren aldetik euki ebezan larritasunezko eraso bidetik lasaitzeko, Vn Karlosek, Asturias eta Galiziatik zirikituzko ibillaldia ⁽¹⁾ egin egian agindu eutson, bide batez orko lurraldeak karlistaren aldera urbildu egiezan.

Amurriotik 2.700 oinezko ta 180 zaldunezko gudariekin urten da, Riaño, Obiedo, Lugo, Akoruña eta Konpostelako Santiago artu ebazan.

Eta emendik berak erabagita Andaluziko bidea artuta, Leon, Palentzia, Balladoliz, Rekena, Albazete, Billarrobledo, Baeza, Kordoba, Pozoblanko, Almaden, Kazeres, Alkantara, Ezija, Osuna, Ronda, Arkos de la Frontera eta Euskalerrira itzulkeran Ciudad Realeko Pedro Muñoz ta Segobian Burgo de Osma artu ebazan.

Uri ta erri guztietatik alde bear izan eban baiña, Rodil eta Narbaezen 25.000ko gudarien gudalozteak atzetik eukezalako eta naita porrot batzuk euki arren ta borroka asko irabazi, zirikitasunezko ibilaldi orrek ez eban garaipenik lortu, iñon ez ebalako lortu karlistaren aldeko sendotasunik.

3.000 gudarigaz sartu zan Euskalerrian, baiña artu eban ardura ez ebalako bete agindu eutsoen baldintzakin, epaitu ta espetxeratu eban.

1.839an Dagonillaren 31n Bergaran Marotok egin eban saldukeria ikusita, bere emazteagaz Frantzira atzerriratu zan.

1.846-1.849ko karlistaren bigarren go gudan itzuli zan eta Andaluziko guda buru nagusia izan da karlistaren utsegitea agertu ondoren, ostera Frantzira atzerriratu zan.

Baiña, Gomez ta Damastar Migel Santxo Orbaizetako markesa edestian sartzen bada, ez da goi aldian oraiñarte esan doguzan gauza gaitik, 1.836ko urtean Amurriotik urtenda Asturias, Galizia eta Andaluzitik bere kabuz egin eban zirikituzko ibilbideagaitik baiño.

1.864an Bagillaren 11n Burdeoson il zan.

4.9. Gartzia ta Montoyatar Jose Maria.

1.811n Dagonillaren 15ean Lantziegon jaio zan.

1.833an karlista gudari lez lerrokatu zan.

1.834ko Otsaillan gudarien sarjentu maillara eldu zan eta illabete batzuk geroago alferezeko maillara igon eban. Ostean, Karlosegaz ainbat lekutik borrokan ibilita agintari komandante egin eben.

1.839an Dagonillaren 31n Bergarako egiune ostetik, Frantzira atzerritzenda Karlosegaz.

1.841an barkamendua egindu ebanean itzultzen da bere errira eta Dagonillaren 23an Gil eta Urartetar Petragaz ezkontzen da.

(1) Zirikituzko ibillaldiak = expediciones guereras que se hacian por el exterior, para deskongestionar las provincias vaskongadas y crear adeptos para la causa carlista.

1.870ean Dagonillaren 27an egin zan matxinadan be egon zan eta 30ean 8 urterako atxilotu eben, bat bakarrik beteta.

1.871n karlistarekin azpi jokoan asten da Lopeztar Eusebio (1.846-1.939) lagun eukela.

1.872an irugarren guda asten danean Karlistaren gudaloztean lerrokatzen da koronel ordezeko agintaritzarekin, gero koronel, Lapoblazioneko jaurleri eta guda amaitzen joan zanean koronel maillatik goragokoa.

1.874an Uztaillaren 26an bera ilteko txarkeria euki eban bizirik urten da.

1.875ean Jorraillaren 30ean karlista porrokatuakaz alkartuta ibili zan.

1.876an Otsaillaren 2an guda amaitu zanean Frantzira atzerritu zan, eta erriratu ondoren beti ibili zan bere karlistaren gudari jantziagaz.

1.900an Epailaren 10ean 90 urte euki ebanean il zan bere Gazteizeko *“los Arkilloseko”* etxean.

4.10. Muñagorri ta Otaegitar Jose Antonio.

1.794an Jorrailaren 2an goizeko 6retan jaio zan Muñagorri ta Otaegitar Jose Antonio, Berastegiko Elutseneko etxean.

Muñagorri ta Larburutar Jose Mateo bere aita, Muñagorri ta Tapiatar Juan Bautista bere aitonaren antzera, baratari edo agiri-idazleak izan ziran bera izango zan lez, areik eta 1.838an gudaren gora bera bere adierazpena aldarrikatu arte.

Jakituna izan zan Foruko Legetan eta orrez gain, Ameraun, Ollokiegi, Plazaola, Urto eta Zumarristako burni-olaren maizter edo etxatiar ⁽¹⁾ be izan zan Berastegin, Areso eta Eratsunen. Eta batzuetan lan-artzaille lez, Irurtzun ta Gazteizko erregearen bidea egin eban antzera.

Muñagorri, egin ebazan ikasketak eta euki ebazan lagun bidetik liberalaren aldekoa zan, Gipuzkoako liberalaren zuzendari Zabalatar Jose Manuel Billafuerteseko kondearen semeakaz euki ebazan arremanak erakusten dauan lez.

Guda sortuta erritar inguru ori baiña, karlistaren alde edo eragipenekoa izan zan lez, bere burni-olakaz ez eban beste aukerarik karlistaren serbitzura ipini baiño, Zumalakarregi bera be ainbat bider ikustera joanda.

Guda luzatu egin zan eta karlista buruzpidearen zaingoak gero ta atzerago ibiltzen ziralako ordainketetan, bera gero ta estuago agertu zan bere ola-gizon, aizkolari, mandazain, abelzain eta euki ebazan langilleak ordaintzeko.

Eta egoera au izan zan beartu ebena *“Bakea ta Foruen”* izenean egin eban matxintasun antzeko ori aldarrikatzeko.

Muñagorri, Nafarroako Iturmendi Udalerrian karlistarekin batzartuta, guda amaitu bear zala euren buruak limurtzen ibili zan, baiña ez eban balio ezertarako.

(1) Maizter edo etxatiar = arrendatario.

1.837ko Azaroan, Madrillera joanda bardin egin gura eban liberalarekin, eta Bardaji Azara lendakaria izan zanak on artu eban Muñagorriren “Bakea ta Foruen” babesa, guda amaituten bazan eta 1.000.000 lauerlekokin saritu eban aurrera egiteko.

1.838an Jorraillaren 18an Berastegitik guda amaitzeko alegiñean aldarrikatu eban bere “Bake ta Foruen” asmakuntza Giputz ta Nafartarrai. Bere adierazpeneko asken ekintzan Euskaldun guztiai alegintzen euskuna gorputz bat lez *“izkillatu egindezan, Bakea, Askatasuna ta Jabetasunak lortzeko agintari barrien agindupean”*.

Batera, Vn Karloseri be bialdu eutson eskutitz bat esaten: *“Euskalerritik alde egiela eta beren erregezko asmakuntzak borrokatu dagiezala, errege onartu leukien lurraldeetan, jabetasunezko lurraldeak bakean itxita (?)*.

Karlistak bereala bialdu eban Iturbe koronela, Muñagorrik bere alde euki ebazan langillearen aurka eta laster bakeztu edo banandu ebazan.

Euskalerriko Nortasunean, agerkuntzari abestutea berezkoa zan eta bereala agertu ziran bertsoetako kankak, bertso au txapel-gorrien artean begiko zana artuta:

“Muñagorriren jendiak
ez dira gerran trebiak
billatu leizke obiak
beñere ez du gauza onik egin
gizon bururik gabiak
diru billa ateriak
aitu bear dizkit beriak”.

Muñagorrik bere bakezko aldarrikapena Euskalerra guztitik zabaldu naian, bertso paperetan agertu ebazan 37 zortziko txikiak baiño geiago egin ziran. Artean, erritarren begiko onek esaten dauana:

“Muñagorrik diona
bere proklamian
gerra ondatzen gaitu
bostgarren urtian
igaz jarri zan Karlos
Madrilko bidian
bultza zuten atzera
gerra bere oñian”.

Saran babestu ziran muñagorritarrak, Bidasoa ibaiaren ezkerreko aldean Bera eta Irunen arteko Lastaolan, guda kanpaldian euren oial-txabolak ezartzeko, eta bertatik Jauregitar Gaspar *“Artzaia”* eta Lord Hay liberalaren gudal nagusiai deituta, bertora joan ziran, euki ebazan langille indarrak gudan

trebetzeko. *Ekintza orrekaz Muñagorriren zaletasunak argi agertuta, noren edo zelako bakearen alde ibili zan.*

Madrilleko jaurlearitza baiña, nai Muñagorrigaz itzarmenduta egon arren, liberal agintariak ez eben ontzat artzen Muñagorriren aldarrizketa ori, euren lerroetako gudarien artean eukiko ebazan aldaketagaitik beldur ziralako, eta Muñagorriri O'Donnelek debekatu eutson Balkarloseko Luzaiden sartzea.

1.838an Azaroaren 5ean egin eben Muñagorriren taldekoak lenengo irteera, Endara, Biandiz eta Artikutzatik Goizuetaraño ezeren eragozpide barik.

Muñagorrik bigarren irteeran, Dantxarineatik sartuta Urdazubira eldu zan, Olaburun egon ziran Nafarroako IIn taldetik batzuk atxilotuta.

Muñagorrik orduan agiri bat sinatu eban, bere barruan au esaten ebana: *“Atxilotuta geratzen ziran muñagorritarrak, askatu egiezala ezeren baldintzazko eragozpenik gabe, berak egiten eban antzera”.*

Muñagorrik, arrapatuta eukezan karlista guztiai, Foruen alde eta gudaren aurkako mintzaldia emon ostean, danak aske itxi ebazan.

Muñagorri, Vn Karlos Azkoitin atrapatuko be egoan bere Beteluko gazte lagun Elorrio ta Soroetatar Ramon sarjentoarekin, baiña txarto urtenda, onek Berastegiko agiri idazleari bota eutsozan erruak, eta baleike salaketa ori izatea errudun, agiri idazleak bere burua il egien.

1.839an Dagonillaren 31n Bergaran egin zan saldukerizko besarkada ostean Muñagorrik, bere taldekoak askatu ebazan eta bera Berastegiko zeregiñetara joan zan.

1.841ean Urrillaren 7an Espartero Gazteizen sartu zanean O'Donnellen asmoak ezereztuteko, Muñagorriren gazte laguna Elorrio ta Soroetatar Ramon teniente karlista, beren billa joan zan Zumarriztako burdin olategira, eta aurkitu ondoren 1.841ean Urrillaren 14an Muñagorri tiros il eban Pillota-Soroko bizkar gaiñean bere emazte Labaientar Joakina aurrean dagoela.

Bere gorputza, Eratsungo eleizan illobiratu zan eta bertan dagoz oraindiño bere ezur ondarrak.

4.11. Urangatar Jose Inazio tenient gudar nagusia.

1.837an Iraillaren 29an Peraltako erriari eraso eutson eta iru agintari nagusi ta 90 gudari arrapatu ebazan.

4.12. Gonzalez ta Morenotar Bizente.

Fernandez de Kordobatar Luis liberala urbiltzen egon zanean, Bilboko ingurutasunetik alde egin ebana eta Mendigorriko borrokan Kordobak ostera menderatu ebana.

4.13. Alzaa.

Gizon ospagarria, 1.833an Urrillaren 11n Oñatin matxinatu zana *“Jaikua, Fueroak, Aberri ta Erregearen”* izenean.

4.14. O'Donnelltar Juan koronela.

Bartzelonan tiros il ebena, eta egun orreitan Atarazana eta Kanaletaseko espetxetan, bai gaisotegietan zaurituta egon ziran beste 140 karlista gudariak baitegiko oetik atara ta tiros ildakoak.

4.15. O'Donnelltar Karlos, Juanen anaia.

Onen esanatik dator bere lagun guda alper nagusi batzuei eta Vn Karloseko gortekoai ipini eutsen *“Ojalateros”* izena, borroka baten batetik agertzen zanean aolku lez danok banan banan esaten eutsoelako: *“Ojala si hubieses atacado por este u otro lugar”*, berak ainbeste *“Ojalà”* entzun ondoren: *“Son Vds. ojalateros ?”* erantzunda.

Gero izen au borroketako zelaietan ibilten ez ziran Vn Karlos gortekoen artean zabaldua, ainbat kalte egin ebelako gure Foruzko Legearen aurka.

4.16. Barres ta Molardtar Alfonso prantzeza.

1.830ean Portugaleko I Migel erregearen guda loztean lerrokatu zan.

1.833an Espainan egon zan eta guda asi zan orduan frantzira joan zan.

1.834ko Uztaillan frantzitik Sabatiertar Alexisegaz itzulita Zumalakaregiren guda loztean lerrokatu zan oiñezko tenient maillarekin bere anai Karlos eta Amadeogaz.

Koronela izatera eldu zan eta San Fernandoren xingolagaz ⁽¹⁾ saritu eben.

1.842an *“Memoires sur la guerre de la Navarre et des Prvinces Basques”* liburua argitaratu eben.

4.17. Sabatiertar Alexis prantzeza.

Zumalakarregiren gogoko izan zan mutil au, eta gudari maillan kapitain eginda, Mendazako borrokan zaurituta Frantzira lortu eban iges egitea eta zauriak osatzen egoala *“Tio Tomàs”*en liburua idatzi eban.

1.835eko Loraillan asi zan borrokan ostera.

4.18. Ferdinand Henningsentar Karl eskoziakoa, Nafarroako zaldunen kapitana.

1.815ean jaio eta 1.877an il zan.

(1)Xingola = condecoración.

Urdaxetik sartu zan gure ingurura eta Ormaiztegiko borrokan, San Fernandoren Gurutzea artu ondoren, tenient orde izendatu eben San Fernandoren gurutzagaz xingolatuta.

1.835ean Jorraillaren 24an Zumalakarregiren gudategian, liberalaren laguntzaille Granbille ta Elliot'tar Edward Lordekin berba egiten egoala, au arrituta geratu zan, ainbeste izkuntzetan berba egiten eban Aleman sorterriz eta eskoziatar gazte ura karlistaren gudal nagusien artean ikustea.

1.835ean Jorraillaren 25ean Zumalakarregi il zanean, Ferdinand Henningsenek bere ereduako gudaria il zanean amaitutzat emon eban emengo zeregiña.

1.835ean Uztaillaren 14an, Mendigorriko borrokaren baiño egun bi arifiago aldatu zan mugatik.

1.836an Ferdinand Henningsentar Karlek, Granbille ta Elliot'tar Edwar Lord'ari eskainita, aleman, italiano, frantzez eta gaztelerara itzulitako liburu bat argitaratu eban: *"Zumalakarregi gudal nagusiekin amabi illabete Euskalerriko lau lurraldetan"*. Eta Zumalakarregiri egin eutson marraztutako argazkia, danak esaten dabe, antza geien emoten dautsona dala.

1.837ko Dagonillan, bere izena Zurita eta Miranbelen arteko gudaldian agertzen da, eta emen orokorreko gudalategian agertuta, *"Torys"*en alderdiko agintarien eskutitz batzuk aurkeztu ebazan, bertan Durangoko agindua ezeztatzea eskatzen ebana, Ellioten egiunetik atzerritar lejonarioak alderatzen ebazalako.

1.839an Dagonillaren 31n lenengo guda amaitu zanean, Kaukasora aldatu zan, Stxamyl igarlearen ikurrapean leiñu guztiak batuta Errusiaren aurka borrokatzeko.

1.849an Kossuthen alde, Ungriako jaurkintzaren aurka borrokatu zan, eta guda ura amaituta Ameriketaren Alkartutako Laterrietara joan zan, bertan Gudal Nagusi lez, Walker itsas lapurragaz espainolaren aurka borrokatzeko. Eta Ameriketaren bereizketako guda agertu zanean, Elkartsunekoakaz (1) borrokatu zan.

4.19. Lichnowskytar Felix Maria Bizente Andres alemana.

1.814an Jorraillaren 5ean jaio zan *"Litxnowsky printzea"*, Eduardo printzearen seme nagusiena eta Werdenbergeko kondea ta Wostxutzeko Jauna.

Kutxelna, Grabowka, Krzyzanowtz eta Bolatizeko erro ondare edo erro yarauntsien (2) jabeduna.

Gudu bizitzan egin zan gizon eta orrez gain, erti oitura ta ele ederretan osotu ebazan bere ikasketak. Beethobenek, bere bigarren sinfonia eta iruko eres taldentzak idatzi ebazan ereski batzuk eskaifi eutsozan.

1.837an, berak 23 urte euki ebazala Vn Karlosen gudalategi nagusira aurreratuta, *"Prusseko La Gazette de l'Etat"*eko berri idazle lez aurkeztu zan

(1)Elkartasunekoakaz = con los confederados. (2) Erro-yarauntsiaren jabeduna = sefior de mayorazgos heredados por primogenitura.

eta bere jakintzaren joeragaitik laster egin eben gudal buru.

1.839an Bergarako saldukeria ikusi ondoren eta bere errira joanda, Vn Karlosen alde iraun eban lanean.

1.842ko Dagonillan Bartzelonara joan zan, eta Espainol gudal nagusiak Karlosen gudal matxin-zaleak ezereztuteko etorri ziralda errigizartetan zabaldua, euki ebazan lagunari esker, iges egitea lortu eban.

1.848an Iraillaren 17an 34 urte euki ebazala, Alemaniako matxinada baten il zan.

Lau liburu idatzi ebazan karlista borrokaren gora bera, eta Azkonatar Jose Marik itzuli eban *“Karlistaren 1.837-1.839ren urte arteko Borrokaren Oroipenak”* lenengo liburua gaztelerara.

4.20. Von Goebentar Augusto alemana:

1.816an Hannoverren Elbako Staden jaio zan Aleman gudal nagusi au.

1.833an Prusiako gudaloztetan lerrokatzen da, 1.836ko urterarte.

1.836ko Udabarrian eta baserritar jantzita, Frantzitik Añaamendiko muga aldatzen dau Zugarramurdira elduta.

1.836an Lorailaren azkenerantza, Ordiziara joaten da Vn Karlosen gudaloztetan lerrokatzeko.

1.836ko Bagillan, liberalak Ondarribin arrapatu eben, eta Esparteroren mendean egonda, Ebro ibaitik uger eginda lortzen dau Lizarrara iges egitea.

Kadizen osterata atxilotu eben, eta ortik be osterata aske geratuta, Kabrera gudal nagusiaren gudalozteagaz asi zan, gero Espainako kondeagaz Kataluñatik ibilita, koronel ordezeko gudari maillan amaitu eban.

1.840an Alemaniara oiñez itzuli zan, eta Espainatik karlistaren gudalozteetan lau urtetan lerrokatuta egin eban guztia idatzi eban: “Karlistaren sorkuntza, borrokak eta maldabera”ren izenagaz, 1.841ean Hannoverren argitaratu egin zana.

1.842an Prusiako gudalozteetan osterata lerrokatzen da, eta gudal aintzindaritzarako ⁽¹⁾ aukeratuta, 1.849an Badeneko gudaldia egiten dau Prusiako printzeagaz.

1.860an VIIIIn gudu aintzindaritzaren gudal nagusi lez, O'Donellen orokorreko gudaltegian egokituta Espainolakaz egin eban Marrueko gudaldia.

1.864an Düppel eta Alseneko gudaldian ibili zan eta 1.866an Austriaren aurkako gudaldian.

1.870-1.871urte bitartean Frantziaren aurkako gudaldian.

Eta 1.880an Koblenzan il zanean, ospe aundiko goragarriekaz inguratu ondoren, Aleman guda itsas ontzi aundi bateri ipini eutsoen bere izena.

(1) Aintzindaritza = jefatura, estado mayor.

4.21. Loningtar Adolfo alemana.

1.843an Nafarroa eta Euskal lurraldearen lege edo Foruaren liburu bat argitaratu eban, eta 1.844an karlistaren lenengo borrokan bere artu emonak.

4.22. Karlistaren gudal nagusien zerrenda lez aurkeztuta:

Danen aurkezpena aurkeztu azinda, nai ta oraindiño askoren gabetasunean geratu, onek guztiok zerrenda lez argituko dodaz.

- *-Borbon ta Braganzatar Sebastian Gabriel, Vn Karlosen bigarren semea.**
- *-Billarreal eta Ruiz de Alegriatar Bruno, karlistaren oneneitariko gudal Nagusia.**
- *-August de Saint Sylbaintar Louis Xabier prantzesa, Karlosen idazkaria.**
- *-Karnizer frantzez gudal nagusia 1.835eko Jorraillan tiros il eben liberalak.**
- *-Ladron de Zegamatar Santos.**
- *-Uriz gudal nagusia**
- *-Gartzia gudal nagusia.**
- *-Sanz gudal nagusia.**
- *-Karmona gudal nagusia.**
- *-Iturraldetar Franzizko koronela.**
- *-Berastegitar Balentin.**
- *-Lardizanatar Inazio koronela.**
- *-Iturriagatar Karlos Bernardo.**
- *-Urtizberea (Irun).**
- *-Erasotar Benito Franzizko gudal nagusia.**
- *-Zabala.**
- *-Gurreatar Manuel.**
- *-Zaratiegitar Juan Antonio, Zumalakarregiren idazkaria.**
- *-Gomez ta Damastar Migel andaluztarra.**
- *-Wilhelm Von Rahdertar Gillermo koronel alemana, Prusiako guda taldeko injeneru zana.**
- *-Schwarzenberg aleman printzea.**
- *-Boos-Waldezk aleman kondea.**
- *-Stolberg aleman printzea.**
- *-Von Vaerst aleman diplomatikua.**
- *-Von Rappard alemana, Ulano taldearen kapitana.**
- *-Plesseneko Bernardo baroia.**
- *-Das Antaseko baroia, Portugaleko gudari taldearen gudal agintaria eta abar.**

5. Kadizeko konstituzio edo jaurgo barriaren liberal kristino aldetik aukeratu ziran guda nagusiak.

5.1. Kastañontar Federiko.

Ez daukat bere bizitzaren kondairatik ezer, bakarrik Euskalerriko lau lurraldearen guda agintari nagusia izan zala, baiña beren aginduak aipatuko dodaz, gitxi gora bera zelako gizona izan zan jakiteko.

1.833an Urrillaren 8an Tolosatik, Iruneko guda ta gizarteko agintari guztieri eskutitz bat zabaldu eutsen, oartuta egon zitezen Bilbon gertatu zanagaitik eta euren aldeko sinismendunak izkillutu egiezala Tolosara bialtzeko.

Agindu ori bete ez ebanentzat, eriotzazko zigorrak aginduta.

Eta egun berean beste antzeko eskutitz bat gipuztar guztiei, Gaztelatik etorriko ziran guda indar aundiaren keiñaduragaz.

1.833an Urrillaren 14an Kastañonek Tolosan, gudu legea ezarri eban, euren eritziaren aurkakoai tiroz iltzeko edo guda itsas-ontzietara bialtzeko meatxuarekin. Eta euren alde, gizartearen edozein maillako seme alaba zalatarientzat, sari onak.

Naikoa dala uste dot, maltzur eta odol zale gizon au ezetzeko.

5.2. Oraa ta Lekunberritar Martzeliño.

1.788an Jorraillaren 28an Nafarroako Beriainen jaio zan.

Lege gizonen ikasketak egiten egon zanean, osasun aldetik ez ebalako laguntza aundirik euki, ikasteari iztea erabagi eban.

1.808an Lorailaren 2an Madrillen gertatu zanagaz biotzean ikututa, Kataluñara joan zan gudari lerrokatzeko eta ezinean 1.810ean bere gurasoen laguntzagaz Kuenkako tiralari batalloiaren taldean lerrokatu zan kadete lez, eta borroka askotan ibili ondoren, Erdi Ugarte onen Iparraldeko 3garren gogozko batalloian sarjentu maillara igon eban.

1.829an koronel eginda, 1.831n erregearen oroiz aurreko (1) taldearen guda buru izendatu eben.

1.833an Azaroaren 29an Lizarrako Merindadearen Berruezako ibarrean Nazar eta Asartako errietan Zumalakarregiren aurka egin ebanagaitik, koronel baiño mailla bat geiago, brigadier izatera igon eben, aurrerantzean San Fernando Gurutzea eta I Isabel katolikaren Gurutz andiaren xingolak emon eutsoezan. Eta berak guda lozteagaz aruntz onutz ibilteko euki eban azkartasun bidetik "*Ule Zurizko Otsoa*" esaten eutsoen.

1.836an Dagonillaren 24tik 1.836ko Iraillaren 24ra, Kordobak bere guda buru agintzari uztea erabagi ebalako eta Espartero oraindiño eldu barik egon zalako, bera izan zan liberal guda loztearen buru, arik eta Lutxanako borroka bideratzen egon zanean Espartero agertu arte.

(1) Oroiz aurreko = inmemorial.

Bere irabazpidearen bidetik jeneral ordezkoa izendatu eben, eta Morellan, Kabrera ta Griñotar Ramon Morellako kondearen aurka artu eban astiñaldi bidez, eukezan gudal buruaren agindu guztietatik baztatu eutsoen, geroago bere gudal buru agintzan ostera kokatuta.

1.840an Nafarroako senatore aukeratua izan zanean, Filipinaseko gobernari ta gudal nagusi kapitaina izendatu eben, eta 1.841ean Otsaillaren 14an elduzan bertara, ordezko agindu orreik aurrera eroateko.

Filipinaseko gizarteari laster erakutsi eutsen bere goi mallako jakintza ta zuzentasunezko ardura, Manilako jendeartean ekanduzko gizabideakaz aleginduta, itsas portuaren araudiak antolatu, gaizkillearen ekin txarrak geratu eta ikas bideak bizkortu ebazanean, erritarrai al eben on guztia egiten.

A ta guzti, bere izena apur bat loituta geratu zan, agindupean euki ebazan gudal nagusiak egin ebazan ertsaldi (1) biekaz, askok atsekabetuta, asarre agertu ziralako.

1.843an Urtarrillaren 12an Espainako jaurlaritzakoak, bere Filipinaseko agintaritzatik aldatuta, 1.844ko Bagillan Kadizen lurreratu zan eta bereala izendatu eben itsas andiko zeregiñetan ordezko arduraduna.

1.846ko Urtarrillan Madrillen Pradoko gela nagusian eta aunditasunezko ospean, Txibako borroka irabazteagaitik San Fernandoren ereñotz koroatutako gurutz andia emon eutsoen, eta 1.847ko Otsaillan beste ereñotzezko xingola bat, Morellan egin eban atzerakadagaitik.

1.847ko Otsail berean, gudaren orokorreko lan gelagaz arduratu zan, bere osasun txarragaitik denbora gitxi barruan itxi bear izan ebena.

Nafarroako bere Beriaingo errira itzulita, bertan il zan 1.851n Azaroaren 24an 63 urte eukazala.

5.3. Baldes eta Noriegatar Jeronimo.

1.784an Lorailaren 6an Asturiaseko Billarin errian jaio zan.

Obiedoko ikastetxe nagusian ikasten egoala, gogoko gudari lerrokatu zan frantzezaren aurka eta koronel ordesko gudal mailla lortu eban.

1.816an Perura joan zan eta mariskalgo gudal mailla emon eutsen.

1.823an Peruko gudatean ez eban on artu emon eutsen jeneral ordezko agintaritzza.

Eta 1.824an Ayakutxon kendu eben bere agintaritzatik.

1.825-1.827 urte bitartean Gazteizeko gudaltegiaren buru izendatu eban.

Kartajenako jaurlari gudu ta politikako agintaria izan zanean, IIn Isabel aldarrikatu eban erregiña lez.

1.833an Jeneral ordezko gudal nagusi izendatu eban eta Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudal buru nagusitasunean ipini eben.

1.834an Nafarroako ordezko erregearen agintaritzza emon eutsen.

1.835ean peninsula (2) onen Iparraldeko gudal buru izanez gain, gudako

(1)Ertzaldi = presión, forzamiento. (2) Peninsula = Erdi Ugartea.

ministra izendatu eban.

Eta urte berean Britania Aundiko erregiñak, Lord Elliot agindu eban mezulari lez Zumalakarregitar Tomasegana, arrapatu egiten ziran alde bietako gudarien bizitzak gero trukatzeko, lotsean artu egiezan, eta aurkeztu eutsen agiria bien artean sinatuta, Baldestar Jeronimok, Logroñon siñatu eban.

1.841-1.843 urte bitartean Peruko jaurlari ta gudal buru izan zan.

Bere bizitzan, xingola asko ta andigarrizko Jaun Izenak emon eutsezan.

1.855ean Obiedon il zan Baldes ta Noriegatar Kesada au.

5.4. Kesadatar Bizente Jenaro, Monkaioko markesa.

Jaeneko Kesadatar Juan Nepomuzeno Nikaraguako agintaria izan zana denbora orreitan, eta La Abanako Arango ta kastillotar Maria Josefaren semea izan zan.

1.782an Iraillaren 19an Kubako Abanan jaio zan, eta bateatu Urrillaren 3an La Habanako Aingeru Zaindariaren eleizan.

1.794an bere aitak aginduta, Kubako gudalategiaren IIIIn oinezko gudari taldean sartu zan kadete lez, bertan 1.796rarte egonda. Eta urte orretan erregeak, Espainako erregearen gudari-zain taldeko kadete izendatu eban

1.808an Lorailaren 2an Madrillen egon zan, eta Badajozera iges eginda beste espainol gudari batzuekin alkartuta ordezeko koronela izendatu eben.

1.808an Azaroaren 10ean Burgoseko borrokan zauritu ta atxilotu eben Frantziako Dijonera eroanda, eta andik iges egitea lortu ebanean Kataluñara joan zan, ortik itsasoz Kadizera joan da, azkenean Santanderreko gudu ta gizarteko jaurlari izendatu eban.

VIIIn Fernando Napoleonengandik aske geratu zanean, koronel baiño mailla bat goragokoa (brigadier) izendatu eben.

1.812an Kadizeko jaurgo barriaren aurkakoa izateagaitik Frantzira iges egin bear izan eban. Bertan erregearen aldeko mogimenduetan ibilita, Frantziako gudalozteekin Espainara aldatu zanean, Nafarroako gudaloztearen gudal buru nagusi izendatu eben.

Eta VIIIn Fernando bere errege aulkian ostera ezarri zanean, Granada, Balentzia, Murtzia ta Gipuzkoan gudal agintaritzak euki ebazanetik, 1.825ean Andaluziko Gudal buru nagusien kapitaiña izendatu eben.

1.814an, Santanderreko lau Uri nagusien agintaritzan ipini eben.

1.820an Kesada, konstituzio barriaren iru urte gaizto orretan, bera erregetzako absolutismoaren aldekoa zalako, agintaritzatik kenduta atxilotu eben, eta Frantzira atzerriratu zan.

1.821ean Erdi Ugarte onetara itzuli zan eta konstituzio barriaren aurka borrokatu zan Nafarroako taldearen gudal nagusi lez.

1.822an Kesadak, gudal nagusi batzuen bekaizkeriko eragipen bidetik, Egiatar Ramon Franzizko gudal buru nagusia agintaritzatik baztatu eban, nai ta

Gergetar Juan Bautista eta Ladron de Zegamatar Santos gudal nagusiak bere alde euki.

Bere agintaritza, Ladron de Zegamatar Santosen eskuetan itzi bear izan eban.

1.823an Egiatar Ramon Franzizko gudal nagusiak deituta, Parisetik Baionara aldatu zan eta emendik, Angulemako dukearen agindupean egon ziran 100.000 San Luisen semeakaz aldatu zan Erdi Ugarte onetara Espainako gudaloztearen agintari izateko, erregearen al-osokerizko jaurkintza oster berrezkuratuta.

Kesadak, VIIIn Fernando askatu eban Kadizen konstituzio edo jaurgo barri ori ezarri gure eban gudal nagusien eskuetatik, erregeak gudal nagusiaren ordezkio izendatuta eta 1.833rarte leku ezberdiñaren agintaritzetan ibili zan gudal nagusi lez.

1.831n erregearen oiñezko gudarien gudal buru ta Espainaren oinezko azkar gudaloztearen arduraduna izendatu eban.

1.833an VIIIn Fernando il zanean, kristinaren aldeko politikuak, Vn Karlosen aldekoa zala susmoa euki ebalako Andaluziko gudal nagusi kapitaina izendatu eban, eta berak atzerriratzea lez artu ebalako, Zea Bermudezeko jaurkintzari sinistuz eutzen bera konstituzio barriaren aldekoa zala eta Gaztela Zarraren gudal buru izendatu eban Balladolizen egokituta.

Merinotar Jeronimo apaizaren gudalozteak geratu ebazan eta sari lez Monkaioke markesaren izena emon eutsen.

1.834ko Otsaillan Baldestar Jeronimok Zumalakarregiren aurka ainbat bider galtzaille urten ebalako, Kesada, Euskalerra edo Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudal buru izendatu eban.

1.835ean Iraillaren 1´terarte Kesada erregiñaren al osokerizko jaurkintzaren aldekoa zan eta Madrilleko eguras-etxean konstituzionalisten matxintasun bidetik 1.812ko jaurgo barriaren legeak oster ezarrita, Kesada atzerriratzeko iges egiten egoala Madrilleko lurraldearen Hortalezako erritxoan aurkitu eban eta matxinatuak bertan il eban.

1.836an Dagonillaren 15ean konstituzio barriaren aldeko matxinatuak il eban Kesadatar Bizente Jenaro Monkaioke markesa, Hortalezako erritxoan.

5.5. O'Donneltar Leopoldo.

1.809an Tenerifeko Kurutz Santuan jaio zan eta 1.867an Biarritzen il.

Narbaezekin bera izan zan IIIn Isabelen erregetza babestu ebana.

1.833-1.839ko urteetan karlistaren aurka borrokatu zan liberalarekin eta bera izan zan Kabrera karlista gudal nagusiaren aurka Luzenako ingurutasuna ezereztu ebana, orren ekintzagaitik Luzenako kondea izendatuta.

1.840an Maria Kristinagaz Frantzira atzerriratu zan.

1.843an Esparteroren aurka borrokatu eban.

1.844-1.848ko urte bitartean Kubako gudal buru kapitain nagusia izan zan.

1.856-1.858ko urte bitartean, Esparterogaz gudako ministrua izan ondoren, Esparteroren ordezkari ipini eben lendaritzan, liberalaren batuzko agintari lez.

1.859an Afrikako gudak bideratu ebazan, Tetuaneko Duke izena artuta.

1.863an lenengo ministrua. Eta 1.865-1.866 urte bitartean be bai, Bagillaren matxintasun ostetik.

1.866an Narbaezeri emon bear eutson agintaritzan eta Frantzira atzerriratuta bertan il zan 1.867an.

5.6. Fernandez ta Esparterotar Baldomero Bitoriako dukea.

1.793an Mantxako Erregearen Urian Granatulako erritxoan, nekazari ta bere aitak orrez gain zalgurdiak egiten ebazan sendi baten jaio zan, eta beren gurasoak eleizkizunezko ikasketak egitera bialdu eben, Almagron filosofia edo eraman onaren ikasketat beteta.

1.808an frantzezaren gudatean, 1.809an apaiz ikasketak baztartuta gudari lerrokatu zan, gero Leoneko Isla gudu ikastetxean sartuta, gudu ikasketak osotzeko.

1.815ean kapitaniaren mailla lortuta Amerikara aldatu zan Morilloren gudaloztean lerrokatuta.

1.823an gudar nagusi egin eben.

1.824an Abenduaren 9an Ayakutxoko borrokan atxilotu eben.

1.831n itzuli zan eta Iruñan, Bartzelonan eta Balearseko Ugartetan emon eutsoen gudaren antolamenduzko zeregiñak.

1.834an Bizkaiko gudar buru ta jaurlari nagusia izendatu eban.

1.836an Zumalakarregi bizirik egon zan bitartean ainbat uts eginda eta bera ilda gero garaipentzen asi zanean, Euskalerrriaren Iparraldeko gudar buru izendatu eben Nafarroako erregearen ordezkotzaz batera.

1.836an, Abenduaren 16an Egia karlista gudar nagusiaren aurka euki eban beren lenengo borroka gudar buru nagusi lez, uts galanta eginda.

1.836an Abenduaren 24an garaipen andia lortu eban, Bilbo, karlistaren inguratasunetik askatu eban.

1.836an Abenduaren 25ean goizeko 9retan sartzen da Bilbora Asuako erreka aldatu ondoren eta Lutxanako zubia menderatu ebanagaitik Lutxanako kondea izendatu eben.

1.837an Jorraillaren asken egunetan Bilbo ondo babestuta itxi ondoren, Donostira bideratu ebazan bere gudalozteok eta Lorailleko lenengo egunetan Muñagorrigaz egonda, Donostitik agindu ebazan bere gudalozteak Ernani askatu egin karlistaren mendetasunetik.

1.837an Lorailaren 19an Espartero Ernainin egoala, Bizkaiko Aldundian irrarita zabaldu ebazan, karlista gudarien parkamena eukezan gudu agintari maillakaz eta Euskal Foruen legeak lotsagizunez onartuko ebazan agiriak.

1.837an Lorailaren 30ean baiña, Madrilleko "*El Eco del Comercio*" aldizkaritik, parkamen eta Foruen babes aginte orreik ezerezean itxita,

Lemonauriatar Pedro, Zarrabeitiatar Juan Jose, Egañatar Julian eta ainbat Foruen alde ta aurka egon ziranen artean eztaibada gogorrak sortu ziran.

1.837an Dagonillaren 26an Esparterok, Iriartetar Leon eta Barrikat' tar Pablo Iruñan tiroz il egiezala agindu eban, Nafarroaren askatasuna aldarrikatzen ausartu ziralako.

1.837an Dagonillaren 26an Abadiñoko izketaldian euki eben lenengo alkar ikuste Espartero ta Marotok. Eta urrengo egunetan elkargoaren baldintzak idatzita, Bergaran 1.839ko Dagonillaren 31n egin zan saldukerizko egiunearen aurrerapena izango zan.

Espartero alkargo orren bidez, beartuta geratu zan Madrilleko jaurlaritzakoak onartu egiezan berak siñatzen ebazanak, artean Euskal Foru Legeak Euskaldunak euki ebazan lez itxi edo ta aldatzeko oarkuntzagaz.

Ekintza oneik Esparterori, Gazteizko dukea, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari nagusia ta Arabatarren aita izendatuz gain, erregetzaren politika eta orokorrezko politikaren ateak zabaldu eutsezan alde batetik bestera, aurrerakoi taldearen alderdia bere aginpean artuta.

1.840an Urrillaren 12an Maria Kristina beartu eban, bere alaba IIn Isabelen izenean euki eban erregetzazko ordego aldia bere eskuetara aldatzeko eta bere eskuetan orokorrezko agintaritzaz ori artuta asi zan Espaina jaurpentzen.

1.841ean Urrillaren 2an Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak lagunduta, O'Donnell Iruñan eta Pikerok Gazteizen matxinatu ziran, Espartero berak bakeztuta indar gitxiko eztaibada orreik.

Eta 1.841ean Urrillaren 29an Esparterok bere ezpatea atarata, len Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako lurraldearen Euskal Foruak babesteko agindua emon ba eben be, Foru Legeen buruak ebagi ebazan Euskal eskubideak ezereztuta, Espainako lurraldearen bardintasunezko legean geratu gindezan.

1.843an Bagillaren 23an Narbaezek kendu eban Espartero agintaritzatik eta erbesteratu egin bear izan eban.

1.844an Euskaldunak lortu gendun Foruen Lege batzuk berrezkuratzea, baiña ortik aurrera sekula ez, Euskalerriari erri lez zor jakozan Nortasunezko lege guztiak.

1.854-1.855 urte biko O'Donnellen aurrekuntzazko jaurkintzaren aldian deitu eutsoen eta Espartero atzerritasunetik agertu zan ostera, Espainako politikan kidezeko.

1.854-1.855 urtetan Espartero, IIn Isabelen erregetzazko jaurkintzan lenengo ministrua izan zan.

1.870ean Espainako matxintasunean IIn Isabel errege ezar aulkitik kendu eben eta Saboyatar I Amadeo ezarri. I Amadeo au bereala gogoratu zan Esparterorekin, eta deitu ondoren, Bergarako Printzea izendatu eban erregearen zuketzarekin (1), Bilbaoko Udaletxeak zorionduta.

Espartero, Martinez eta Siziliatar Maria Jazintagaz ezkondata, politikatik baztatu zan, andik aurrera Logroñon bere ezkon bizitza egiteko.

(1) Zuketz = tratamiento de cortesía.

1.871n Iraillaren 11n Logroñoko Udalak, gaur Espoloneko Ibil lekuan dagon oroitzarri aundia eraiki eutsoen, Bilbaoko Udalak 1.500 pstaren laguntza emonda. Alan Bilbaoko alkate ta zinegotzi faziztak, 1.841ean Urrillaren 29an lenengoz Euskal Foruak ezereztu ebazanai zorionduz, esker onak emon eutsoezan.

1.876an Uztaillaren 21ean Espainako Gorteak baieztu ta osotu ebazan Esparterok agindu ebazan menperatzail lege orreik.

Espartero 1.879an Il zan, Bergarako Printzea, Lutxanako kondea eta Garaipeneko dukearen aundiki izen orreikaz Logroñon illobiratuta.

5.7. Rodil eta Gallosotar Jose Ramon, Rodileko markesa.

1.789an Lugoko lurraldean, Santa Maria de Trobo errian jaioa.

Konpostelako Santiagon bete ebazan bere ikasketak.

Napolenen aurka borrokatu eban.

1.825ean Perura aldatuta El Kallaoko borroka gogorrean ibili zan ospe aundia artuta.

1.834an matxinatutako Portugesaren alde borrokatu zan Portugaleko I Migel erregearen aurka.

1.834an Zumalakarregiren aurka Kesadak euki ebazan utsegiteagaitik aldatu eben eta Nafarroako errege ordezkoa izendatuta, Iparraldeko gudal buru nagusiko agintaritzan ipini eben.

1.834ko urte berean, berak be Karrera, Espartero, Manzanedo ta Lorentzoren laguntza euki arren, San Faustuko atxartetan, Biana eta Gazteizen Zumalakarregiren aurka utsegite asko euki ebalako, Espoz ta Ilundaitar Minagaitik aldatu eben.

Mendizabal eta Kalatrabarekin, Gudal ministrua izan zan, eta bigarreneko aldi onetan, Gomez karlista gudal nagusiaren atzetik ibili bear izan eban, onek zirikituzko ibillaldearen guda egin ebenean Espainako lurraldeetatik.

1.836an Esparterorekin euki ebazan eztabaida bidez eta azken gaizto asko euki ebalako kendu eban agintaritzatik, nai ta beranduago bere gudal agintari mailla eta izen ona berrezkuratu.

1.842ko Bagillatik 1.843ko Lorailerarte Esparteroren errege ordetzan, Espainako aolkularitzaren lendakaria izan zan eta Esparteroren "*Los Ayakutxos*" esaten eutsen gudal agintarien alkatetakoakin egon zan.

Espainaren gorteko ordezkoa izanez gain, Extremadura, Balentzia, Aragon eta Gaztela Barriaren gudal buru nagusia izan zan.

1.853an Madrillen Il zan.

5.8. Manzanedo eta Gonzalez de la Tejatar Juan Manuel.

1.803an Epaillaren 8an Santoñako Darsena Kanean jaio zan.

Gitxiagora joan zan Sendi andiki baten semea zan, VII In Fernandoren erregetzazko asken denboratan bera ume zala, gurasoak Kubara eroan eben.

1.842an Maria Kristina oraindiño erregezko ordeak egiten egoala itzuli zan Erdi Ugarte onetara, bere ondasunlari (1) eta jopuen sal-erosketako (2) lan bidetik diruz beterik etorri zana.

1.845ean Madrillen kokatuta, betiko geratu zan bertan bizitzen.

Diru-etxetan guztiz sartuta, bere eragipenaren bidez Madrilleko Urigintzaren egitamu askotan sartu ebazan eskuak eta O'Donelltar Leopoldoren diru-etxeen Liberal Batasunezko egitamuaren kide izan zan.

1.864an II In Isabel erregiñak, Manzanedoko markesaren jaun izena emon eutson.

1.875ean Epaillaren 20an eta erregetzazko lege-aginduaren bidetik bere izena goralduz, XII In Alfonsok Santoñako dukearen jaun izenagaz aundiagotu eban.

Bere aberastasuna muga barik geiagotu eban sal erozketa eta etxe-gintza bidez. Bai ta Paris eta Londreseko diru-etxetan egin ebazan txaubidezko sal erosle arreman (3) bidetik.

Berak txantxa lez esaten eban, Madrilleko "*Puerta del Sol*" bere etxearen baila gibela (4) zala.

"*Txori Galanta*" benetan. Baiña zeozarren edo alango "*Baita*" antzeko bat be euki eban, bere Santoñako jaioterrian, ikasketak ordaindu ezin eben gazteentzat San Juan Bautista Ikastetxea eraiki ebalako.

1.882an Dagonillaren 19an Madrillen il zan.

Gizon au ez zan izan goian aipatzen dogun Manzanedo gudal nagusia, baiña ustegabeen urten dauan lez eta aldi onentan bereztasunaren aurkako diru ta jopukerizko batzangotasunaren jokua adierazpentzeko berak emoten dabezalako argi zabalak, ori da arrazoi bakarra nik argitaratu dagian.

5.9. Espoz eta Ilundai ta Minatar Franzizko.

1.781ean Bagillaren 17an, Nafarroaren Ibargoitiko ibarrean, Iruña ta Sangesaren bitartean dagoan Idozin erritxoan jaio zan Espoz ta Minatar Franzizko.

Bere gurasoak, Espoz eta Minatar Juan Esteban eta Ilundai ta Ardaiztar Maria Teresa nekazariak ziran, eta ezin ebalako bere semeari ikasketa nagusirik emon, Franzizkok oiñarrizko ikasketak bakarrik bete ebazan.

1.795ean berak 14 urte eukezala il jakon aita, eta bera arduratu bear izan eban baserriaren zeregiñekaz.

Bera baserritar abarkakin eta zapelagaz jantzita ibilten zalako, frantzezak gero iseka edo txantxa lez "*Idazineko Laiari*" deituko eutsoen.

(1) Ondasunlari = financiero. (2) Jopuen sal-erosketako = trata de esclavos. (3) Txaubidezko sal-erosle arreman bidetik = transacciones comercialistas de inversión. (4) Baila-gibela = patio interior de la casa.

1.808an Otsaillaren 9an bera 27 urte bete barik eukazala, Napoleonen gudalozteak D'Armagnaken aginduan ikusi ebazan Iruñara sartzen.

Iruñan zer gertatu zanagaz ta egoan eritzizko nasketatik matxinatuen taldeak nun nai sortzen zirala ikusiz, bera Rostolang gudal nagusi frantzezaren guda taldean lerrokatu zan, eta talde orreitan bete ebazan lenengo iru illabete gudari lez.

1.809ko Otsaillan bere loba, Mina ta Larreatar Jabier *"El Mozo"* esaten eutsoenai, Areizagatar Juan Karlos koronelaren agindupean lerrokatzeko gazteak aurkezten egon zala, Zalduba Napoleonen gudaloztetik bigarrenez babesteko, Espoz ta Minatar Franzizko O'Doyle gudal nagusiaren taldean lerrokatu zan, beragaz izkilluaren erabilketak ikasten asita.

1.809an Otsaillaren 2an Napoleonen indarrak Fabre gudal nagusiaen agindupean, Aragoiko Iparraldea menderatzen asi ziran.

1.809an Epaillaren 21ean Prantzezak Jaka menderatu eben eta Espoz ta bere taldeko beste lagun batzuk Uriaren ormatik beratuta Nafarroara iges egin eben.

1.809an Uztaillaren 20an Espoz bere loba Mozorekin Ekisoaineko borrokan batera ibili zan.

1.810ean Otsaillaren 20an, Mozo Espozen loba atxilotu ebenean, Espoz bere lobaren taldeagaz Berruete eta Lunbierreko borroketan ibili zan.

Espozek, trebetasun aundia lortu eban Nafarroa, Gipuzkoa, Aragoi, Araba eta Errioxa aldetik sasi-gudan ibili zanean, eta garrantzi andiko gauza bat ondo ikasi be: *"Borrokan ibili bear ebazan lekuak, ariñautik ondo azterkatzen"*.

Ortik aurrera beti egingo ebena. Eta emendik aurrera *"Nafarroako errege txikerra"* esan eutsoen.

Eta Mozo bere loba, Baionako gaztelu zarrean frantzezagaitik atxilotuta egon zanean jakinda, osaba Espoz ibili zala bere taldeagaz buru, eskutitz bat bialdu eutsen bere *"Korso Terrestre"*ko lagun guztiei, bere agindupean ipini zitezen.

1.810ean baiña, Korsu Terrestre talde ori ezereztu egin zan.

1.810ko Jorraillan, ostera batu ziran bananduta egon ziran Korsu orren gudari guztiak eta Espoz ta Minatar Franzizko ipini eben talde orren buru. Bere bigarren Mina abizena Illundairen ordeztuta, danak jakin egien Mozoren osaba zala.

Aragon eta Gaztelako gudal batzarrak on artu eben Espoz ta Minatar Fransizko *"Nafarroaren Lurretiko Korsu"* talde orren gudal nagusitasuna izan edin, eta berak eurei aginte orren onespina egiztatzeko eskatuz batera, Gurrutxagatar Gregorio bere ordeztua izan egian eskatu eban.

1.810ean Loraillaren 13an eldu jakon onspen ori eta Loraillaren azkenetarako 900 gudari euki ebazan bere agindupean.

1.810ean Uztaillaren 13an Espozek, *"Lizarrako Azpikeria"* esaten jakon bidez, Nafarroako sasi gudu talde andienetariko agintaria Etxebarriatar Paskual *"Korellako Aragizale"* esaten eutsoenai eta bere gudal nagusi guztiak tiroz il ebazan, Nafarroako erri ta auzunetatik ondatzaille ibiltzen ziralako.

1.811n Loraillaren 25ean, frantzezen zai-talde bat Espainako 1.000 eta beste ainbat Ingles gudari atxilotuak eroaten ebanari eraso eutsen, eta 800 frantzez gudari il ondoren, atxilotuta eroan ebezan gudariak askatu ebazan.

1.811ko Dagonillan Napoleon artegatuta, 20.000 gudari zazpi guda nagusien agindupean ipini ebazan, Erdi Ugarte onen Iparraldeko lurraldea sasi gudarietik garbitzeko.

Eta Espozek, frantzezaren gudu indar nagusi orreik isekatzeko, bere gudariak Aragoi eta gaztelatik banandu ebazan, bera 1.500 gudarigaz geratuta sasi gudan frantzezak artegatzeko.

Frantzezak guztiz etsituta, gogoko guda mutillaren sendikoei, jabetasunezko eskubide, lur ta eukezan abere ta ondasunak asi ziran kentzen, eurakaz Iruña, Olite, Tafala, Aibar, Sagotza, Lizarra ta beste erri batzuen espetze guztiak beteta eta ondoren asko tiroz il ta ainbat Frantzira atzerrirutzen.

1.811n Dagonillaren 2an Reille guda nagusi frantzez kondeak Lerinen garaipena lortu eban, eta atxilotu ebazan 200 gudaritik asko, guda zelai orretan espatakin il ebazan.

Nafartar errikoiak zigorraldi orren aurrean bildurtu barik suztatu edo arrotu egin ziran, eta Espozen taldea gero ta aundiagotu egin zan.

Espoz bera be kikildu barik arrotuz, Reilleri eskutitz bat idatzi eutson, bertan, 1.811n Dagonillaren 5ean aldarrikatu eban agindua ez ba eben kentzen, bera be, bere antzera asiko zala guda nagusi eta euren sendiak ilten. Eta Reillek ikusi ondoren, Minak arrapetan ebazan gudariak urkatu egiten ebazala, beren mendekuak gitxiagotu ebazan.

1.811kako urrengo illabetetan Espozen taldeak *“Zomorro Gudaloztea”*ren izena ipiniko eutsen, zomorroen antzera agertu ta aldendu edo suntsitu egiten zalako, len Arlabanen Loraillaren 25ean egin eban antzera.

1.812ko Jorraillan Espozek, beste garaipen andi bat lortu eban, 2.000 frantzez gudariagaz zainduta joan zan ainbat leko eukezan guda-jarraigoari (1) bidera urtenda, 600 il, 900 zauritu, 150 atxilotu eta 300 iges aldian ipini ondoren, balio andiko guda tresneriekin geratu zan.

Bai Bonapartetar Josek bere anai Napoleoni bialdu eutson eskutitz batez be, Jose erreguz, Espainako erregetzatik alde egiten itxi eutsola, eskatzen. *“Kadizeko Gazeta”* aldizkarian agertu zana.

1.812an Bagillaren 5etik aurrera, amaitu ziran Nafarroako sasi guda, Kadizeko erregearen ordezkoko guda jaurkintzak aginduta, *“Nafarroaren Lurretiko Korso”* taldea Espainolaren gudalozte lez arautu ebanean, Espoz Nafarroa guda taldearen oiñezko ta zaldun buru izendatuta, eta denbora gitxi barru, Bartzelonako Rokaforten garaipena lortu ebanean, gudu zelaiaren Mariskala.

1.813an Napoleonen gudalozteak, Errusian astiñaldi ederrak artu ondoren asko makaldu ziran, eta Espozek inglesak emon eutsoezan kañoi bien laguntzagaz, frantzezak Tafallan euki eben gudu buruzpide (2) aundienagaz

(1) Ainbat leko guda-jarraigoa = covoy militar de varias leguas de longitud. (2) Gudu buruzpide = intendencia militar.

geratu zan.

Napoleonek ez eban bakerik euki Mina ezereztuarte eta Portugaleko Klausel guda nagusiaren laguntza eskatu eban.

Eta Gazteizko garaipena Espoz ta Minatar Franzizkori eskertu bear jako, Klausel guda nagusia denboraz Gazteizera ez daiten eldu, bere sasi gudako trebetasunagaz atzera ta aurrera ibili ondoren, denbora asko galduazo eutsolako, Wellington ta Wellesleytar Arthur Ingles dukea garaipenduta urten egian.

1.814an VIIIn Fernando Espainara itzuli zanean, Erdi Ugarte onetan Napoleonen aurkako gudak amaitu ziran, eta Minak erregeari 12.000 gudarien laguntza eskeiñita, bera absolutismoaren aldekoa zala aldarrikatzeko, Kadizeko Kontituzioa fusilatu eban.

Minak, Nafarroako erregearen ordezkotza gura eban berentzat, baita bere guda taldeak legeztutea, baiña ez eutsoen jaramonik egin.

1.814ko Iraillan erregeak, ezereztu ebazan gudalozte orreik eta Mina bere guda arduratik kenduta, gudalozte orren gudariak Aragoiko guda taldetan banandu ebazan.

Minak, agintaritzatik baztatu ebalako asarre, bere guda talde bategaz Garesetik urtenda Iruña artu gure eban, eta Iruñara urbiltzen egon zirala gudariak oartuta zeren atzean ibili zan, lenengo agintariak eta gero gudariak ez eben ontzat artu eta ostera joan ziran euren lekuetara.

Mina Frantzira atzerritu zan eta XVIIIIn Luisek illeroko 500 frankoakaz saritu eban.

Napoleonek Elbako ugartetik iges ebenean, Minaren laguntza gura eban lortu, eta Mina Suizara aldatu zan.

Mina emendik aurrera il arte, liberalkeriaren alde jokatu eban.

1.816an Napoleon Waterlooko borrokan menderatu ebenean, Mina Frantzira itzuli zan eta Parisen egoala frantzezak atxilotu eben, Espainako erregearen aurka Riegotar Rafael, Diaz eta Porliertar Juan, Lazi ta Gautiertar Luis eta Bidalek len egin eben antzera ibiltarren.

Baleiteke goian aipatu dodazenak Espozegaz batera eta Ritxardtar Bizente masoi talde frantzeza bideratzen ebanagaz, Fernando erregea baitzeko ibili zirala, beartuta, Kadizeko konstituzioa sinatu egian.

1.820an Urtarrillaren 1ean Espainan, Riego guda komandantea matxinatu zan, Kadizen 1.812an aldarrikatu ziran jaurgu barri edo konstituzioaren legeak ostera ezarri egiezan, Minak aukerea eukinda frantziko atzerritik itzultzeko.

Eta Minak, lege orreik len aurkakoak lez euki ba ebazan be, oraingoan Santestebanen berak aldarrikatu ebazan Kadizetik agindu ziran konstituziozko lege orreik, bertan Nafarroako guda nagusien kapitaiña ostera izendatuta.

Naparrak baiña, konstituzioaren aurkakoak ziran, eta Minak jakinda karlistaren matxintasuna antolatzen egoala, beren erritarren aurka ez egitearren Galiziako agintaritza eskatu eban.

1.821ean emon eutsoen Galiziako agintaritzza eta urte ortan, 16 urte eukezan liberal aberats baten alabarekin, de la Begatar Juana Mariagaz ezkondu zan.

1.821ean Espainako jaurkintzaren aurka iraingarrizko agerkai bat zabaldu eban eta onen erantzun bidez agintaritzatik kendu ta Leonera atzerriratu eban.

1.822an VIIIn Fernandok deitu eutson eta Kataluñara bialdu eban karlistaren aurka borrokatzen.

Kataluñan garaipen andiak lortu ebazan, Kastellfullit'en egin ebana baiña, ez eukan arrazoizko izenik.

Erria inguratzen egoala, karlistak iges egin eben erritarren laguntzarekin.

Minak jakinda zer egin eben erritarrak, etxe guztiak erretzeko agindua emon eban, eta zutik geratu zan orma zati baten iragarki au ipini eban: "*Erriok, eredu lez artu. Aberrien etsairik ez estapeldu*". **NOREN ABERRIA ?**

Berak, Jakingo eban noren aberri edo ta Espainan sortu ziran eritzi bietik, zeinengandik borrokatzen ibili zan ?

Eta goian aipatu dogunagaitik, bera Nafarroako errege ordezkotzaren billa ibili ta Espainako gudar nagusiak Leonera atzerritu ebenean ?

1.823ko Jorraillan San Luisen 100.000 gudari semeak Angulemako aginduan Erdi Ugarte onetara aldatu ziranean, Mina euren aurka ez zalako ezer, Auñamendietan sasi eraso aldi bat egin eban, eta sasi gudarako bere jakituri andia erakutsiz borrokatzen egoala, erasoko alegin baten Frantzira sartzen egoala, zalditik jausi ta oso larri zauritu zan.

Bartzelonara aldatu eben, eta karlistaren aurka Uriaren babesu antolatu eban.

VIIIn Fernando baiña al osokerizko legean osteru erregetzazko aulkian ezarri zan lez, ez eban euki zentzurik aurrera egiteak eta Monkay Mariskalari sinatu bear izan eutson menperatuen agiria, Inglaterrara atzerriratu.

Inglesak, Espainako liberalaren askatasunezko gizandi lez artuta, Inglaterran egon ziran VIIIn Fernandoren aurkako matxinatu guztien agintari biurtu zan, eta Frantziko errege aulkian, Orleanseko Luis Felipe ezarri zanean, Espaina indarka artu gure eban, Nafarroa, Aragon eta Kataluñatik sartuta.

1.830ean Minak Ingalterra itzita, lenengo Parisera eta gero Baionara joan zan.

1.830ean Azaroaren 18an, Baionan egoala alde bietatik zirikatuta, Berako Nafar errian sartu zan, eta errealistaren eraso gogorraz osteru Auñamendiak aldatu bear izan eban, Kanbo, Burdeos ta askenean Frantziko agintarien begirapean Parisen bizitzen geratuta.

1.832an iges egin eban osteru Inglaterrara, bertatik itsas ontzi baten Kadizera joanda.

1.833an Iraillaren 29an VIIIn Fernando il zan eta Maria Kristinak sarritan liberalarentzat agindu ebazan parkamenetik alboratuta geratzen zan lez, Inglaterrara atzerriratu zan.

1.834ko udegoian osterera deitu eutsoen Nafarroako errege ordezkoa izendatu ta Iparraldeko gudar nagusi lez Zumalakarregiren aurka borrokatzeko, eta goian ikusi dogu zelako astiñaldiak artu ebazan.

1.835ean Jorraillaren 13an Mina gaixorik eta oso nekatuta, bere agintaritzaren uztea eskatu eban.

1.835eko Urrillan Minak, Zumalakarregiren aurka artu ebazan astiñaldiak, zakelean euker minbiziagaz makal, ta bera gudar agintaritzatik baztertuta egonda askatasunean egon arren, Mendizabalen jaurkintzan, osterera deitzen dautso Maria Kristinak karlistaren aurka egin dagien, eta gudar nagusi kapitain lez, Kataluñako gualozteak arduratu eban.

1.835eko Abenduan, Kataluñan arresiz ondo babestuta egoan Santa Maria del Hort santutegia inguratu eban eta kañoiakin lortu eban menperatzea. Guda ekitaldi onetan Nogeras gudar nagusiak zirikituta, il eban goian aipatu dogun Kabrera karlista gudar nagusiaren ama.

1.836an Jorraillaren 1ean Minak, bere agintaritzaren guztiaren uzte edo yaregitea eskatu eban.

1.836an Abenduaren 14an, bere borondatez Frantzira atzerriratzeko bidea antolatzen egoan bitartean, 24ko Gabon egunaren gabaz il zan Espoz eta Illundai ta Minatar Franzizko.

Esparteroren errege ordegotzan, Minaren emazte Begatar Juana Maria, bera baiño askoz gazteago izan zanai, Espoz ta Minako kondesa izendatu eban eta In Isabelen ume zaintzarako laguntzaille egin eban.

Begatar Juana Maria arduratu zan, bere senar Minaren izena bizirik aurrera eroaten 1.872an il zan arte.

Minaren izena, diputaduen lege etxean dago idatzita beste izen batzuen artean "*Askatasunezko Gizandi lez*".

Bearrezkoa da emen itandu bat egitea:

Espez edesti au ikusita, berak Nortasunaren gora bera, jakingo eban zelako edo nungo *ABERRIKOA* izango zan ?.

5.10. Jauregi ta Jauregitar Gaspar "*Gipuzkoako Biriato*" ta "*Artzaia*" ez izenakaz esagutu zana.

1.791an Iraillaren 15ean Gipuzkoaren Urretxuko Billarrealen jaio zan.

1.807an Urrillaren 27an Fontainebleau egin zan egiune bidetik, Espainak Napoleoneri baimena emon eutson bere gualozteak peninsula (1) ontatik aldatu daitezkan Portugalen aurka borrokatzeko, eta Portugal mendetu ondoren iru zatitan banaduta bat Godoy "*bakezko Printzeentzat*" izan dadin.

Espainia ta Frantzezaren gualozteak bereala mendetu eban Portugal, baiña prantzezak egiune orren aitzakiarekin Bartzelona, Iruña ta Donostirekin geratu

(1) Peninsula = Erdi Ugarte.

ziran.

1.808an Epaillaren 17an Aranjuezeko erritarrak Godoyren aurka matxinatu ziran.

1.808an Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda, lortu eban erregetza, IVn Karlosek bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan iztea.

Eta Murat prantzez gudal nagusia, bere gudalozteagaz Madrillen sartzen egoala, VIIIn Fernando madrillen sartu zan.

1.808an Lorailaren 2an gudal agintari batzuk guzti au ikusita, erritarrak alegindu ebazan matxinatu zitezen, eta or emon jakon asiera Espainaren askatasunezko gudari.

1.808an Lorailaren 5eko bitartean Muratek, VIIIn Fernando alegindu eban Baionara joan edin Napoleonegaz alkartzeko, eta Napoleonek VIIIn Fernando beartu eban, Espainako erregetza bere aita IVn Karlosen eskuetan osterita itzi egian. IVn Karlos bardin beartuta, bere anai Bonapartetar Jose Espainako errege aulkian ezartzeko.

1.810ean Jauregitar Gasparrek maltzurkerizko gauza guzti oneik ikusita, beste sei lagunekin etxeari agur eginda, eiz-izkillu zar bi, zizpa edo zizpolet bat ⁽¹⁾, aitzamakil bi eta artzai makil baten muturrean labana lotuta euki ebanagaz asi ziran prantzezak zirikitzen sasi-gudari lez.

Gero ta aundiagotzen asi zan Gasparren taldea, eta Kantabro taldearen Azedo agintaria, Zumalakarregitar Tomas eta Etxaluzetar Bernardorekin alkartu ziran. Zumalakarregik sasi gudaren idazkaritza eroanda.

Jauregik ezagutu gure ebazan Euskalerriko lurraldeetan basa-gerlari ibili ziran taldeak eta bere lagunarekin Espoz ta Ilundaitar Minarengana joan zan.

Jauregik, prantzez kapitan bateri kendutako ezpata oker eder bat emon eutson Espozeri, eta onek Jauregiren ekintzakaz lilluratuta, bere gizonai agindu eutsen lerrokatu zitezen, Jauregiri esanda gudari talde orreik ikuskatzeko.

1.812an Bizkaiko lurraldeetatik ibili zan, frantzezak itsas ertzean euki ebazan kañoiak ezereztuten.

1.812ko Bagillan, itsas ertzea zaintzen ibili zan Douglas Ingles gudal nagusiak, Jauregiri laguntza eskatu eutson prantzezak Lekeitiotik botateko, Minarentzat guda tresnakin beteta kairan sartzeko itxaroten egon ziran Ingles itsas ontziak, kai barruan ustu egiezan.

Jauregi Uriaren inguruagaz egin zan eta korbet ontzi batetik kañoi bat atara ta gaztelua ondo zigortu ondoren, bere kiputzekaz eraso eginda lekuagaz geratuz gain, sei kañoi eta gaztelua zaintzen egon ziran 400 frantzez gudariekaz geratu zan.

Jauregi egun batzuk geroago oartuta, prantzezak Billafrankara berreun gudari atxilotuta eroaten ebazala, eta atxilotuta eroaten ebazanak euren tiroakaz zauritu ez egiteko, labanakaz erasotuta askatu ebazan amalau izan ezik, aiek prantzezak il ebazalako borroka bitartean.

Jauregi, ogeitabat urtegaz eta iru urtean sasi gudan ibili ondoren, koronel

(1)Zizpa edo zizpolet = pistola.

izendatuta euki eben Gaztelako gortekoak.

Iru bider zauritu zan, lenengoa esku muturrean eta beste zauri biak bularrean, bietatik bat, gero Zumalakarregitar Tomaseri anka osatzen ibili zan Telleriatar Franzizko *"Petrikillok"* osatuko eutsona.

1.813an Jauregik, Prantzez gudari mezuaren eroan-ekarle bat arrapau eban, eta eroan ebazan mezuaren artean, Kaparelli guda nagusiak Bonapartetar Joseri 25.000 gudari eskatzen eutson eskutitzagaz geratu zan, Kaparellik gudari orreik bear ebazala Espoz ta Mina Nafarroatik aldendu gura izan ezkerro esaten ebana.

1.813ko Dagonillan Jauregik, bigarrenez zaurituta egon zalako, ez zan egon San Marzialeko borrokan, nai ta bere mutillak goresleko merezimenduak irabazi.

1.813an Azaroaren 5ean, Jauregi oraindiño guztiz osatu barik egoala Bergarako Uria mendetu eban.

1.814an amaitu zan Napoleonen aurkako borroka, eta danak gogoratu arren VIIIn Fernando erregeak Jauregiri guda nagusi egingo eutsola, onek sasi gudan ibili ziran guztiak saritu ondoren, ez eutson jaramonik egin Jauregiren merezimenduari, VIIIn Fernandok Kadizeko konstituzioaren aldekoa zala jakin ebalako.

1.815an liberalak eraginda, guda nagusien ixil-joko ta matxintasun ugari sortu ziran VIIIn Fernandoren al-osokerizko jaurkintzaren aurka, 1.812an Epaillaren 19an guda nagusiak Kadizeko gortetan atara ebezan konstituziozko legeak ezarri gura ebazalako.

Lenengoa Minaren aldarriketa, Jauregi beragaz bat eginda egoala, 1.815ean Iraillaren 19an Koruñako Erteyo erritik Diaz ta Parliertar Juanek egin ebena, eta ostean Bidal ta Lazy guda nagusiak egindakoa.

Ortik aurrera, erregearen al osokerizko aldekoak Jauregiren atzean jarraikille ibilita, onek atzerrira joan bear izan eban.

1.820ko matxintasunean, Jauregi ostera itzuli zan Angulemako dukearen agindupean egon ziran San Luisen 100.0000 gudarien aurka sasi gudan borrokatzeko, bere betiko basa-gerlariaren trebetasuna erakutsita.

1.823an Giputz talde mobilkor bat ipini eutsoen bere aginpean eta Gipuzkoa ta Koruñatik borrokan ibili ondoren menperatuta, guda agintariai Frantzira atzerriratzeko aukerea emon eutsen guda-atxillo lez.

Jauregi, Mina eta beste guda nagusiak Frantzian atzerriratuta egon ziranean, ainbat matxintasunezko azpi-joko asmatu ebezan VIIIn Fernando bere errege aulkitik kentzeko.

1.830eko Urrillan, Mina ta Jauregi peninsula onetan sartu ziran, Irun, Oiartzun eta Ernaniko erriaren mendiakaz geratuta, baiña aurkako eraso gogorra izan zan lez, ostera atzerriratu bear izan eben Frantzira.

1.833an Iraillaren 29an VIIIn Fernando il zanean, Espaina alderdi bitan bananduta geratu zan, liberalak Maria Kristinaren ordegoan *"Askatasuna eta*

Isabel erregeina”ren ikurragaz, eta karlistak “*Jaungoikua, Aberria eta Foruarenagaz*”.

Liberalak, Jauregi deitu eutsoen Gipuzkoaren gogoko taldea agindupean artu egien eta sarritan ikusi dogu Minagaz batera Zumalakarregiren aurka.

1.834an Maria Kristinak bere garaipenaren merezimenduak ikusita, koronel baiño beste goragoko mailla bat (*brigadier*) izendatu eban.

1.840ko Uztaillan, 1.839an Dagonillaren 31n Bergarako saldukeritik ostean, liberalak garaipenduta, Jauregi Zelaiko Mariskala izendatuta euki eban.

1.844an Abenduaren 19an Gazteizen il zan, « *Artzaia* » ta Gipuzkoako « *Biriato* » ez izenakaz esagutzen zan Jauregi ta Jauregitar Gaspar 53 urte eukezala.

Gipuzkoako Aldundiak urte batzuk geroago, Billarrealeko eliz nagusian illobiratu ebazan bere azurrak, Espainaren aberritasunari egin eutsozan serbitzuagaitik. *Noren Aberri, Gudal-Nagusiak ta Europako diru zale aldekoak Laterritasunean ezarri gura eben Aberri barriari ?*.

Eta 1.893an Donostiko Udalak, kale bat ipini eban bere izenean.

5.11. Fernandez ta Kordobatar Luis.

1.798an Argentinako Buenos Airesen jaio zan.

1.820an Riegoren matxintasun aurka borrokatu eban.

Guda ikasketak egin ebazan eta 1.822an konstituzionalaren aurka borrokatu ondoren Frantzira atzerriratu bear izan eban.

Bertan egoala Angulemaren gudaloztean lerrokatu zan.

1.823an Angulemako dukearen agindupean egon ziran San Luisen 100.000 gudariekaz etorri zan.

Espainaren zori gaiztoko amarkadan diplomazizko arduratan, Paris, Kopenage, Berlin ta Lisboatik ibili zan. Eta denbora inguru onetan diruaren lapurketak edo eurakaz txarto ibiltarren, salakuntzak euki ebazan.

1.834an Espainaren ondorengo gudan liberalaren alde lerrokatuta, Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudaloztean zelaiko mariskalaren gudal nagusi arduratan ipini eben.

Gero, Euskalerriko gudal nagusi jaurleri kapitaiña Nafarroako erregearen ordezkogaz izendatuta, 1.835 eta 1.836ko urtetan Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudaloztearen aginduan ipini eben eta Mendigorrian egin zan borroka latza irabazi ebalako, Mendigorriko markesaren izena emon eutsoen.

1.836an Madrilleko eguras-etxean sortu ziran eztabaidagaitik agintaritzita, Frantzira aldatu zan eta bertan egoala, konstituzionalista ta karlistaren arteko irugarren alderdi bat antolatzen ibili zan.

1.840ko urtean, Lisboan il zan.

5.12. Narbaeztar Ramon Maria.

1.800eko urtean Granadako Loja erritxoan jaio zan.

VIIIn Fernando il zan arte ez eban gura artu ezeren agintaritzarik.

1.834ko urtean liberalaren gudalozteetan lerrokatu zan eta karlistaren aurkako borroka askotan ibili zan.

1.836an Majazeite erriko borrokan Gomez ta Damastar Migel Santxori irabazi eutsen, Mendigorria ta Arlabaneko borroketan be ospe aundia artuta.

1.838rarte, politikan sortu ziran burudun edo zentzunezko jaurkintz alde ibili zalako Esparteroren aurka, onek euken agintaritza uzteazo eutson eta erbestera joan bear izan eban.

1.843an neurriz-gaiñeko matxinatuen iraultzak bakeztuta, burutsu edo zentzudunezko jaurkintzaren itzulker a eta guardia zibillaren antolaketak egin ebazan.

1.844an gobernuko aolkularitzaren lendakaria egin eben.

Eta 1.845ean konstituzio barria aldarrikatu ebanean, Espainako Andia ta Balenziako Dukearen izen aundiakaz saritu eben.

1.844-1.851 urte bitartean Narbaezek jaurkitu eban Erdi Ugarte au eta *“El Espadon de la Loja”* esaten eutsoen berari.

Narbaezek, 1.848ko urtean, 1.857koan eta 1.866koan artu eban Espainako jaurkintzaren lendakaritza.

1.854-1.856 urte biko aurrerakuntzaren jaurkintza ostetik, beste politikazko aldi barri bat zabaldu zan 1.868rarte: *“zentzudunkeriaren itzulera, gudari agintearen goraldia, jauntxukeriaren agerpena eta jaurkintzan Narbaezek O’Donnelekin aldizkatuta egin ebazan txandak”*.

1.865ean Jorraillaren 10ean, Narbaezek jaurkintza gogortu eban eta berak bultzatu eban San Danielen gabeko ertsalditasuna, aldizkarien gaitzespena (1) eta diputaduaren atxilotasuna.

1.868an bera izan zan zentzudunen alderdiko lendakaria eta bere politikazko gogortasunak izan ziran errudun, sortu zan iraultzagaz IIn Isabel erregetzatik kendu egien.

1.868an Madrillen il zan Narbaeztar Ramon Maria.

5.13. Eta zerrenda lez aipatuko dodazenak.

*-Lorenzotar Manuel.

*-Sole Figeras ta de Benet ta de Fiballertar Antonio (Sola). Nafarroako errege ordea izan zana.

*-Sarsfieltar Pedro gudal nagusia.

*-Karondolet, kristino edo liberal gudal nagusia,

*-O’Doyletar Manuel,

*-Osmatar Joakin.

(1) Gaitzespena = censura.

- *-Goienetxe.
- *-Iriarte.
- *-Gurrea.
- *-Karratala.
- *-Lord Edwar ta Granbilletar Elliot.
- *-Latre.
- *-Klemente eta abar.

5.14. ALDE BIETATIK IBILI ZIRAN GUDAL NAGUSI ONEIN, JAIOTZEZKO ERRI edo ABERRIAREN « BAITAZKO ERITZIAN » EUKI EBEN ULERMENAREN ONDORIOA.

Karlista guda onen edestiko zeaztasunak ikusita eta berezko errigizartearen ulermenak sikologiko arloaren azterbidetik ikertu ezker, nastetasunezko arrazoi edo eritzi bidetik, oldozmen asko dira Nortasunaren ulermeneko « *Baitan* » eretxitu ta gero, okerrezko asmakuntzan agertzen diranak.

Edo ta arrazoi orren sorburua ikertuz, norkeriaren sasi jainko aldekoak guzurraren eragitez berezko erritarren « *Baitak* » nastuta, munduko giza seme alaba guztiak *Nortasunik gabe*, yopu batzango eritzian egindako aberri barrietan ardi talde lez ezarri gindezana, edesti guztiko alegin gogorretan dabizela.

Kontuan artu bear dogu, menderatzailletasunezko ulermen ori eritzi lez artzen badogu, sasi jainko mende zale indartzuen eskuetan geratzen garela, eta beti ibiliko giñake *Aberriak* aldatzen, sasi jainko mende zale bakotzak, sasi jainkotasunezko norkerian daukien ikurraren ametsa bete egin gura daualako.

Mundu onen bizitza on bideratzeko, baleiteke asmakuntz orreina artean, batzuk borondate onagaz egiten dabezala. *Baiña, Jaungoikuak Izadi oneri Berezuta ipini Eutsoezan Legearen aurka ?*

Norkerizko okerkuntza orreik ain indartzu agertu orduko, munduko giza seme alabaren *Baitak* ulermenduta egon ziran ainbeste milla urte ariñago, daukagun gaiezko bizitza ez dala lur onetan irauteko, eta nai ta naiez, zor eskubidearen neurrizko epe labur bat daukiela.

Orduan, zergaitik osterartu ez Bereztasunezko Legeak agintzen dauskuna, jakinda aberetasunezko Gizan, Lur, Aize ta Uraren ordezkoko eskubideetan erperatuta daukaguzala ?

Europar, norkeriaren sasi jainkotasunezko guzur au, erromatarren kaizar ametsarengandik datorrena da, eta berak maldaberan ekarten eban guzurra, K.o. laugarren gizaldian, Kristau sinismen erlijio ederra katoliko alderdikidetuz ta erromatarren kaizartzagaz biak norkerizko legean baieztu ebenetik gagoz gaur arte, guzurrezko lokartzartetan sartuta.

Napoleon eta Karlistadako gudak sortuta, zeintzuk izan ziran gaztearen ulermeneko baldintzak, Euskal ta Gaztelar edo Espainol gazteak guda

nagusitasunera elduta, ainbat ezberdintasunaren ustezko eritzietan agertu zitezen ?:

a).-*Norkeriaren maltzurtasuna garaipentzeko alegiñez, karlista guda orreitara eldu orduko, amaitu ezin dan odoljariozko gudan ekarri dogu edesti guztia, gizaren ulermeneko ikuspegia ongaizkatuz, gorriz margoztu egin ebana.*

Orren esanaia, eskubidearen egia ta mendetasunezko guzurraren artean, borroka ugari ta latzak ekarri doguzela da, eritzi bi orreik zorro baten sartuta egon ezkerro, amaibako eztanda utsa baiño besterik ez daualako sortzen.

b).-*Yopuzko kolonigille denborak izanda ta Frantziko iraultzaren bidetik, berezko errien nortasunezko eskubideak ezereztuteko erabagi gogorak artu ondoren, Europako guda bi orreik ez ziran izan besterik, opil gozo baten amaieran, gaiñean ipiniten jakon ginda antzera, European indarrez, joputasunezko mendetasuna ezarri, danok norkerizko erabagiaren agindupean bizi gindezan.*

Egia da, Munduan egin diran borroka nagusiaren ostean, damu aundiak egon direla eritzi bien aldetik, egin diran sarraskiak ain gogorak izanda, danak billurtuta, nor guztien *baitak* garbaitasuna eskatzen dauskuelako, eta atsekabetasunean errudun sendituta, Giza ta Gaiaren eskubideak eskatu doguz beti.

Antza baiña, borroka guzti orreik ez dabe erabakitzen eta gitxiago argitzen ezer, atsekabetasun oiek aienatu edo suntsitu egiten diranean, *diru ta on biziaren lilluratasunezko eragipen bidetik*, ostera joaten garalako norkerizko ekintzatarra, eta danak jakin bear geunke, LAPURRAREN bizitza dala ori.

d).-*Inguru begi zabal ori begien aurrean eukinda, baten batek esango daust, zer egingo leuke orduko nekazari gazte batek bere onbeartasunean naita naiez Napoleonen aurkako borrokan lerrokatuta eta au amaituta bere ogibidea lortzeko dagoenean edo lortu ondoren ?.*

Erabagi oneri zentzun apurbat emotearren, kontuan artu bear dogu, gure orduko gizarte osoa, indarrez kontrolatuta egonez gain, euren egizko lillurabidez aurkezten dauskuzan guzurrezko maltzurkeriaren eragipenetik, gure gizartearen jaurkintzazko antolamenduetan gaur lez, naste askotan bananduta egon giñela, nai jaurkintzazko gizon emakumeetan, erlijioaren gotzai, apaiz lekaide lekaime artetan eta gizarte mail lez.

Geiago izan giñan eta gara, bealdekoak garela esten dauskuenai JAINKO ZALE mailla guztietan, baiña goikoak norkeriaren maltzurkeri bidez, guda tresneritik asita, bear dogun on guztia kontrolatzen dabe eta bizitz oneitan oraiñarte, gaiak aurkeztu egiten dauskuzan ditekeen aldakuntzaren kontrola daukenak, norkeriz jokatzeko sasi-irabazte osoa eukiten dau.

Guzti au ikusita, Euskaldun gudal nagusi bi aurkeztuko dotzuedaz, ikusteko, eurak zelan erantzun eutsoen JAINKO seme lez euken BAITARI.

a).-Zumalakarregi ta Imaztar Tomas izan zan bat : Onek ez eban euki bildurrik, JAINKOA ta Euskal Aberriko egiaren alde jokatuta, jakin ebalako zer jokutzen zan an, eta borrokara eldu orduko irabazle urtetan eban, bere guda talde osoa *Nortasunduta* joaten zalako borrokara, naita etsai gudalozteak aundiagoak izan.

b).-Bestea, Espoz ta Illundai ta Minatar Franzizko, lenengo Napoleonen aurkako aldian, garaipenduta urten eban ia borroka guztietatik, Euskaldunakaz Eusko Nortasunaren sinismenean borrokatzen ebalako.

Beste gauza bat agertu jakon, bere Aberriko Nortasunaren aurka, atzerritar maltzurerekin borrokatzen ebanean.

Len, agintzen ebazan gudalozte aundi orrein gudariak, borrokan ibili ziran atzerritar lurraldea ezagutu ez gain, ez ziralako euren Nortasunaren egizko lurraldeak babesten ibili, eta egizko ikur lez gudaloztearen agintariak esaten eutsezanak, euren geinetariko *baitan* ez ziralako on artzen, ikusten ebena ez zalako egokitzen agintarien esanekoakaz.

Bigarren, Espozek bere ogibidea aurrera eroatearren, jakinda atzerritarrakaz bere anaiaren aurkako borrokan ibili zala, bere *baitaren* lotsak minduta, Espainol gorteari Nafarroan borrokatu barik, Akoruñara borrokatzen bialdu egiela eskatu ebenean.

A ta guzti, Espainako agintaritzak, Espoz ostera ekarri eban Euskalerrira, eurak ez ziralako gai izan Euskaldunak menperatzeko, eta atzerritarrakaz bere anaiaren aurka borrokatu zanean, nai ta Jauregi Artzaia esaten eutsoena ta beste Euskaldun batzuk lagun euki, emen zikindu ebazan ararte irabaziko ospe guztiak, bere ulermeneko *baitan* aitu ezinik asarratuta, Lekarozeko erritarrak bosgarrenka berezitu ta tiros ilda erria erre, ta Karrera karlista gudal nagusiaren *ama* tiros ildako astokeriak egin ebazalako.

Egia da JAINKOAREN LEGEAK etsai asko daukazala, eta borroka orretan norkerizko zaleak euren egizko arrazoiakaz sortzen dabezan naste borrasteko lege bidetik, bizirik irauteko edo ta ogibidearen billa, ez gara arritu bear gazte batzuen atzerri zaletasunarekin, beartuta egiten ebalako.

Borrokan ibiltan ziranean, alde batek edo besteak gazte gudariak arrapau egiten ebazanean, bakotzaren taldetan ipinten ebazan borrokalari, eta euren egoera ori saltzailleak izan ziralako zan ?.

Gure Batzarraren jabetasunezko denboratan askatasunean bizi bagiñan be, norkerizko maltzurtasunari alboratu ezinean eta Euskalerriko Ego aldean gure jabetzak Espainako erregearen eskuetan ustegabez geratu ziranetik, berarekin egiune bidetik egiten genduzan itzarmen orreikaz, Euskaldunak Jaun-errege bikoteko naste orregaz, beti ibili gara anai arteko borrokan.

ORREGAITIK EZ GARA ARRITU BEAR, GIZONAK NORKERIZ EDO OGI BIDEZ BEARTUTA BIZIRIK IRAUTEKO, ALANGO ALDAKETAK EGITEN DABEZENEAN, APENTZA EDO ASPERKUNDEKO KONTUETAN EZ DIRANAK ARTU BEAR, BASAKERIZKO IÑOZOKERIETAN EZ GINDEZAN IBILI.

BIZITZ ONETAN GAUR IKUSTEN DOGUN LEZ, EUSKALDUN GUZTIEN NORTASUNEZKO EGOKITASUNAK EZ DIRA BARDIÑAK, GURE AZKENEKO 2.000 URTE EDESTIKO IBILKERAN, ERRI-LEZ DAUKAGUZAN ESKUBIDEAREN ETSIAK, GUDA-INDAR ETA GUZURREZKO MALTZURKERIEKIN, EUREN ZAURIAK EGIN DABEZELAKO GURE EUSKAL-NORTASUNEZKO GORPUAN.

ORTXE DAGO GURE SINIS-BIDEAREN ARRAZOIZKO LANA, GURE EUSKAL GORPUTZAN NORTASUNEZKO ZAURIAK SENDATZEKO. ETA ETSIAIAREN GUZURREZKO LEGE BIDETIK GAUR ALDERDIKERIETAN BANATUTA AURKITZEN BA GARA BE, EUSKAL NORTASUNAREN EGIA IPINI BEAR DOGU « ELBURU » DANON ULERMENETAN, NASTE EDO OKERREZKO ZAURI ORREIK OSASUNDU DAITEZAN.

NI BAIÑO EUSKAL NORTASUN AUNDIAGOKO ZARRAGOARI, ASKOTAN ENTZUN DAUTSIET ESATEN : « EGI AK ASKATUKO ZAITUE » ETA BERBA ORREIK, EUREN BEREZKO ESANEAN ARTU BEAR DOGUZENAK DIRA.

ZUMALAKARREGIGAZ IKUSI DOGUN LEZ, EUSKALDUNAK, SINESMENEKO ELBURU BIDEZ ALKARTZEN BA GARELA, LASTER LORTUKO GEUNKELA EUSKADIREN ASKATASUNA, EUSKALDUN BAKOTZAK BERE NEURRIZKO ULERMENEAN MAITE DOGULAKO GURE IZATASUNEZKO EUSKALERRIA.

GAI AK, AURKEZTEN DAUSKUZAN BERE DITEKEEN AUKEREA K, NORKERIZKO INDAR AUNDIENEAN IBILITA BE, EZ DAUKALAKO INDAR ETA ZER EGIÑIK, ARRAZOI TA MAITASUNAREN SINISMENEKO INDARRAREN AURKA.

MUNDU ONETAN, JAUNGOIKUAK NORTASUNDUTAKO LEGEAREN AURKA, EZ DAUALAKO AURKAKORIK, ETA DANOK ERAGILLE ON-LEZ, EUSKAL ARDURAK MAITASUNEZKO ZENTZUNEAN ERABILTEN BADAROAGUZ, GITXIAGO.

GEIAGO : BIZI GARAN GIZALDI AU, ZOR-ESKUBIDEKO ARDUREAN SARTUTA GAGOZAN GUZURREZKO LOKATZ ONETATIK URTETEKO,

ETA AMILTEGIAREN AURREAN KOKATUTA GAGOZELAKO AURRERA EZIN EGINEAN, NAI-TA NAI-EZ, GAIA, GIZA ETA ERRIEN ESKUBIDEAK BERREZKURATZEKO DENBORAK ELDU DIRALAKO DA..

GIZAREN ERAGILLETASUNEZKO ARDURAN BEARTUTA, NORKERIAREN ZENTZUN GABEKO LAPURKERITIK URTEAN BEARREAN AURKITZEN GARA, ETA ORREN ITZULPENA: «NORTASUNAREN ZENTZUN AUNDIKO ALDIAN KOKATUTA GAGOZELA» ESAN NAI DAU.

ATZEAN GERATUKO OTE GARA ?.

5. Zatian.

1. 1.835ean Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik, edestiaren aria osterartuta.

1.835ean Bagillaren 26an Vn Karlos, Bilbora urbildu zan gertatzen zana ikusteko, eta urrengo lau egunetan be iraun eben Bilbo bonbakaz erasotzen.

Vn Karlosek Zumalakarregi il zanetik, Gonzalez ta Morenotar Bizente izendatu eban Euskalerriko gudal buru nagusi lez.

1.835ean Bagillaren 28an Frantziko errege Orleanseko Luis Felipek, Espainako egiuneari erantzuteko, Argelian egon zan atzerritar lejiñoari peninsula onetara aldatu edin agindu eutson.

Talde bietatik, Inglesarena izan zan andiena.

1.835ean Bagillaren 30ean, Portugaleten egon ziran liberal kristino gudal nagusiak, Latre, Espartero, Klemente, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño, La Hera eta beste batzuk batzartuta, Espainako goiko aginduari jaramon egin barik, eurak erabagi eben legorreko bidetik, Bilbon inguratuta egon ziranai laguntzen joatea.

1.835ean Uztaillaren 1ean Erasotar Bizente Franzizko gudal nagusi karlistak, bilboko ingurutasunari izten dautso, Esparteroren agindupean agertu ziran Latre ta La Heraren liberal guda indarrak, aundiak ziralako.

1.835ean Uztaillaren 4an Fernandez de Kordobatar Luis, oraingoan peninsula onen Iparraldeko liberalaren gudal buru nagusi lez sartzen da Bilbon.

1.835ean Uztaillaren 16an, Erriberriko merindadean Arga ibaiaren ezker aldean dauan Mendigorriko erriaren Egoaldean, ararte ezagutu zan audienetariko borroka egin zan, Fernandez de Kordobatar Luis liberalaren agindupean egon ziran 36.000 gudariak, astindu gogorra emonda Gonzalez ta Morenotar Bizenteren 18.000 gudari karlistai, Vn Karlos bera be estukuntza audiekin iges eginda.

Zumalakarregiren eriotzetik asi eta borroka onen ostetik geiago, Karlistak maldaberan asi ziran Vn karlosen gudaloztea banatzen asi zalako.

Karlosen gortekoak Gonzalez ta Morenotar Bizente gure eban agintari lez, eta gudariak Eraso edo Maroto guda nagusiak.

Eta Aurrerantzean, sortutako naste onen bidetik amaituko zan Euskal Foru Legearen borroka.

Bai ta edozein gauza guztiaren gainetik, Euskal luraren babesa eta Euskal gudariak euren lurretatik ez urtetea.

Ortik aurrera karlisten ekintzak beste Euskal naste barik, euren Espainol erara laburtu ziran "*Antziñatar Alderdia*"ren izen barria artuta (**Comuniòn Tradicionalista**), eta Euskal gudarien biotzak nai ta guda gogorrak emendik aurrera euki, galduta ibili ziran, areik eta 1.839an Dagonillaren 31ko ondamenara eldu arte.

Peninsula onen Iparraldeko Liberalaren gudaletzea une onetan, 120.000 gudarien kopurukoa izan zan, euren gudaletze ordeakin gainditu ebalako.

1.835ean Dagonillaren 11n Marotok Arrigorriagan, Esparteroren taldeari irabazten dautso.

1.835ean Iraillaren 2an, karlistak La Puebla inguratu eta ortizik Gazteizen sartzeko Los Arkosen egin zan borroka, Fernandez de Kordobatar Luis liberalak irabazi eban, il asko egonda alde bietatik.

1.835ko Urrillan karlistak, Egiatar Nazario egin eben Euskalerriko gudaletze buru nagusia, Gonzalez ta Morenotar Bizenteren ordeaz. Maroto ta Egiatar Nazarioren artean eztaibadak gogortzen asita.

1.835ean Urrillaren 27an Urizarreko mendi katearen azpian Gebaratar gudaletzearen iguruan egin zan borrokan il asko egonda ez eban irabazi iñok.

Karlistaren indarrak Egiatar Nazariok bideratzen ebazan. Eta liberalaren indarrak Fernandez de Kordobatar Luis.

1.835ean Azaroaren 15ean Kordobak osteraz sartzen da Zirauki ta Mañerun.

1.835ean Abenduaren 10ean Kordobak, Arabako Arriñez errian asita, 250 kilometruetan 60 babes arresiakin bata besteagaz lotuta egongo ziran esparru baten barruan anbartu gura ebazan karlistak, Gazteizek euki ebazan 20.000 gudariak apurka apurka Auñamendi ta itsasorantza baztartzeko.

Baiña, guda bidez agertu ziran ekintzakaz, ezerezean geratu zan arresizko ingurutasun ori.

1.835ean Abenduaren 17an Egiatar Nazario karlista gudaletze nagusiak Getaria inguratzen dau.

1.836an Urtarrillaren 3an Kordobak, lortu eban txapelgorriak Elorriaga, Arkaute ta Ilarraza erriakaz geratzea eta pozez beterik Arlabanerantza joan zan.

1.836an Urtarrillaren 16-17an Arlabaneko borroka.

Araba ta Gipuzkoaren bitartean dagoan Arlabango mendia, Egiatar Nazarioren agindupean ta Billarrealtar Brunoren laguntzagaz karlistaren mende egoan eta nabarmeneko leku ortatik kentzeko, Fernandez de Kordobatar Luis liberalaren gudaletze buru nagusia asi zan prestuten Britaniaren ordeazko lejioa Lazy Ewansen agindupean, Frantziko lejioa Bernell agindupean eta Esparteroren aginpean egon ziran batalloi batzukin.

Liberalak iru lekutik bananduta eraso egin eben eta mendiaren bizkarrekin egin ziran, baiña 18an alde egin bear izan eben euren lerroetan Espartero zaurituz gain 600 il euki ebazalako eta karlistak 300.

Loraillaren 22an, Fernandez de Kordobatar Luis Esparteroren laguntzagaz, ostera saiatu ziran Egiatar Nazariok eta Billarrealtar Brunok artuta euki eben Arlabaneko mendi ori, baiña 26an ostera itxi bear izan eben alegiñ ori, euren lerroetan ikaragarritzko zarraskia euki ondoren, Narbaeztar Ramon Maria koronela, politikan gero Esparteroren aurkakoa izango zan gudal nagusia bertan zauritu zalako.

Iñok ez eban irabazi borroka au, alde bietan il asko eukinda.

Egiatar Nazariok borroka orren ostean, Balmaseda ta Merkadilloko errien babesak ezereztuta askatu ebazan liberalaren menpetasunetik eta Durangora joan zan bere gudalozteagaz.

1.836an Loraillaren 5ean Donostiko borroka.

Sagaztibeltzaren karlistak, 1.835eko askenetan asi ziran Donostia inguratzen.

Donostiarrak, Fernandez de Kordobatar Luiseri eskatu eutsoen guda indarrak, Donosti karlistatik babesteko eta onek inglesaren lejioa bialdu eutsen.

Sagaztibeltzak Egiatar Nazariok eskatu eutsozan guda indarrak, baiña goian ikusi dogun lez Arlabaneko ingurutan 26rarte Fernandez de Kordobagaz borrokan ibilita ezin eutson laguntzarik bialdu.

Inglesak arrotuta itsas ontzitik kañoiakaz eraso eutsen karlistari eta auek zabaldu bear izan eben ingurutasuna.

Iñok ez eban irabazi borroka au, karlistak baiña borroka onetan asko galduta, Sagaztibeltza Euskaldun gudal nagusia il zalako.

Emen saiatu ziran Tutortar Franztezak asmatu ebazan "*Karkazak*"⁽¹⁾ esaten eutsenai, muturrean bonbak eroaten ebazan lenengo misil edo bolanderak⁽²⁾.

1.836an Uztaillaren 2an Kordobak azkenean, Ondarribia berrezkuratzen saiatu zan, uts galanta eginda.

1.836an Uztaillaren 19an, fernandez de Kordobatar Luisek, ainbeste alegin ustel eginda gero, beren agintaritzaren uztea eskatu eban.

1.836an Dagonillaren 13an Madrilleko eguras etxean⁽³⁾ sarjento gudariak matxinatuta egin ebazan alegiñagaitik, Maria Kristina bildur, ostera aldarrikatzen dau 1.812an Kadizen ezarri zan konstituzioa. Foru Aldudiko Euskal agintaritzak ezereztuta eta euren konstituziozko legeak ezarrita.

Matxintasun ostean, Maria kristinak bere koiñatu Vn Karlosegaz berba egiten dau, eta gudari urten bide bat emoteko bere alaba Isabel Karlosen ondorengo semeagaz ezkontzea aurkeztu eutson. Eta izen zerrenda bat, bere alabari laguntzen ibili ziranai parkamena emoteko.

1.836an Dagonillaren 30erako Vn Karlosek, Maroto izendatuta euki eban Kataluñako gudal nagusi, eta agintaritza artzeko, Nuriatik aldatu ebazan Auñamendiak.

(1) Karkazak = su-lerkai baten antzekoa. (2) Gaur, misil ugari jaurtitzeko dagozan tresnaren antzekoa. (3) Eguras-etxean = La Granja.

Marotok, ainbeste bider galtzaille urten ondoren, gudalozteak Royo gudal nagusiaren eskuetan itzi ebazan, bera Frantzira aldatuta, Vn Karloseri Kataluñaren egoera txarra adierazteko aitzakiagaz.

1.836an Urrillaren 5ean Frantzira aldatu zan Maroto, eta Eynako erritxoan 21n oiñezko gudari talde azkarrak arrapatu ta Toursen atxilotuta, iges egitea lortu eban Burdeosera elduta.

1.836an Urrillaren 15ean, beste errege agindu bategaz 1.823ko konstituziozko legeak ezartzen dabez lurralde guztietan.

1.836an Urrillaren 28an Marotok, Vn Karlosten ministru Errori idazten dautso eskutitz bat esaten, zelan, bereala ipiniko zala bidean karlistaren gudalategi nagusira joateko.

1.836an Azaroaren 14an Erro ministruak Durangotik, Marotori erantzun eutson: Vn Karlosten agindua zala, egon zan leku bertan iraun egiala, arek eta Kataluñan sortu ziran gauzak ta bera Frantziko lurraldera zergaitik aldatu zan argitu arte.

1.836ko urte onetan, karlistaren gudak, Kataluña, Aragon eta batez be Vn Karlosten jaurkintza Euskalerrian kokatuta egoalako, emen egin ziran ia geieneko borrokaldiak, eta estukuntza au apur bat lazaitzeko, Vn Karlosek peninsula onen lurralde guztietatik zabaldu zitezen borrokak, gud-aldi edo zirikituzko ibilaldiak egiezan agindu eutsezan bere gudal nagusiai, eta guztietatik luzeena ta aipatuena Gomez ta Damastar Migel Santxok egin ebena izan zan.

Bederatzi zirikituzko ibilladi egin ziran lenengo karlista borroka onetan:

1.834an lenengoa, Garziatar Basiliok egin ebena.

1.835ean bigarrena, Garziatar basiliok egin eban bigarrena.

1.835ean, Gerge ta Yaniztar Juan Antoniok egin ebana.

1.836ko Bagillan, Garziatar Basiliok egin eban irugarrena.

1.836an Iraillaren 20an Gomez ta Damastar Migel Santxok egin ebana.

1.837an Lorailaren 24an Vn Karlos erregeak egin eban zirikituzko ibilaldia.

1.837an Uztaillaren 24an Zaratiegik egin ebena.

1.837-1.838 urte bitartean Garziatar Basiliok egin eben laugarrena.

1.839ko Epaillan Negrik egin ebena.

Zirikituzko ibillaldi guzti oneik, azpiko berdintasuna euki eben, ibili ziran Uri guztietatik liberalaren gudalozteak atzetik eukezala, ezerezean gelditu ziralako.

1.836an Iraillaren 20an, Gomez ta Damastar Migel Santxo karlista gudal nagusia Bagillako illean Amurriotik 2.700 gudari ta 180 zaldunekin urtenda, Asturias, Galizia, Andaluziatik (1) agindu eutsoen zirikituzko ibilaldia (2) egien eta itzulkeran mantxako-gaztelaren San Kristobaleko ibarrean Billarrobledera eldu zanean liberalakaz aurkitu ondoren, beren bizitzako astindu aundiena artuta Euskalerrira itzuli zan.

(1) Aginduz kanpo egin ebana. (2) Zirikituzko Ibilaldia = expediciones militares que se hicieron para desahogar las incasantes luchas en Euskalerría y incrementar la afinidad con el karlismo allí por donde desarrollaban esta acciones.

Gomez ta Damastar Migelek borroka orretan 2.000 su izkillu, tiroiñ asko eta ia zaldunezko guztiak galdu ebazan. Eta Andaluziatik aginduz kanpo egin eben ibilbideagaitik epaituta, epaiketa ori luzatu egin zalako lenengo karlistaren guda amaituarte, ez eben artu iñungo zigorrik.

1.836an Urrillaren 15ean, erregearen agindu baten bidez 1.823ko gobernuaren erabagia ezartzen da, gure Foru Legearen askatasunak barriro ezereztuta.

1.836an Urrillaren 23an karlistak bigarrenenez inguratzen dabe Bilbo.

1.836an Azaroaren 2an liberalak, Portugaletetik urtenda Bilbora sartzen alegintzen dira.

1.836an Azaroaren 7an, Egiatar Nazariok, Desierto, Lutxana, Arriaga, Kaputxinos, Banderas, San Mames eta Burtzeña artzen dauz.

1.836an Azaroaren 7-16 eguneko bitartean Egiatar Nazarioren indarrak, Esparteroena atzeratuazo egiten dautse, areik eta 25ean Esparterok Lutxanakoa irabazi arte.

1.836an Azaroaren 14an Vn Karlosten Erro ministruak, Marotori Durangotik erantzun eutson: Karlosten agindua zala, egon zan leku bertan iraun egiala arek eta Katalunian sortu ziran gauzak eta bere Frantziaren lurraldera zergaitik aldatu zan argitu arte.

1.836an Abenduaren 1-25eguneko bitartean, liberalak Esparteroren agindupean Potugaletoko gudaltegietatik asita, karlistak Bilbo bigarreneko inguratuaren alditik askatu ebanean esaten jako "*Lutxanako*" borroka.

Denboraldi txarragaitik, borroka luze ta latzak izan ziran oneik, liberalak 3.700 gudari eta karlistaren aldetik 2.300 illak eukinda. Askenean, Esparteroren agindupean egon ziran liberal gudalozteak goizeko 9retan Bilbon sartuta.

Esparterori borroka au irabazteagaitik, "*Lutxanako kondea*" izendatu eben.

1.836an Abenduaren 29an karlistak, Borbon ta Braganzatar Sebastian Gabriel errege semea izendatu eben gudal buru nagusi lez, Billarrealtar Brunoren orde.

1.837an Epaillaren 10-16 egun bitartean, Sebastiantar Gabriel errege semeak, bere aginduan egon ziran karlistaren indarrakin, Lazy Ewans ingles liberalaren indarrak, ainbat borroka latz bitartean menperatzen dauz Oriamendiko borrokan.

Emen il ziran gudari ta agintari inglesak, Urgulleko mendian "*Inglesaren Ortu Santuan*" illobiratuta dagoz.

1.837ko Jorrail onetan karlistak, Zumalakarregik 1.835eko urterarte lortu ebazan lurraldeetan baiño ez eben agintzen.

1.837ko Jorraillatik, egoera larrituten joan jakon Karloseri, Europako diru etxetatik ebagi eutsezalako diru-iturriak eta liberalak Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako trenbidei marra baten antzera moztu egiten eutsezalako bideak, beren gudarien janari eta gudarako bear ebazan tresneriekin elikatze.

Eta aurkeztu jakon estutasunezko egoera larri onen arrazoia, Vn Karlosek antolatuz eta Lorailaren 15ean asita, Espainatik egingo eban erregearen gud-

aldi edo zirikituzko ibillaldia izan zan, Iparraldeko lurak gudu indarrez murriztuta itzi ebazalako.

1.837an Loraillaren 15ean asi zan antolakuntza onegaz, eta 16-17ko egunetan Vn Karlosek 12.000 gudariekin Arga ibaia aldatuta, Aragoiko bidea artu eban, eta bidean Kabreraren gudalozteakaz indarrak aundiagotuz, 24an goizeko 10etan Ueskan egon ziran, bere itxaropenean gero Kataluña, Balenzia eta askenean Madrillen sartuta In Isabel erregetzatik kenduta, bera errege aulki orretan ezarrita, zirikitasunezko errege ibiltasun ori amaitutzat emoteko.

Vn Karlos Ueskan egonda, guda indarrak bere seme-ordearen Sebastianar Gabrielen agindupean euki ebazala, agertu ziran liberalaren indarrak, eta karlistak borrokan asita liberalaren Frantziko atzerritar lejiua ezereztu eben, 1.000 liberal gudari il ta zaurituen artean amaituta borroka au karlistaren alde. Karlistak guztiz, 400 inguruko zauritu ta il eukiko ebezan borroka onetan.

Arrigarritzkoa emen ikustea da, alde bat edo besteko gudariei oiuka limurkerizko berbak esanda, zelan aldatzen ziran gudalozte batetik bestera, eta bai atxilotuta geratzen ziran gudariak, etsai gudalozteagaz zelan borrokatzen ziran.

Euskalerrian izan ezik, zalantzazko gauza oneik sortu zitezene, aldaketako ekintza oneik ez dabe esango, Espainolaren gudari artean inork ez ebala jakin nun egoan arrazoia?

Vn Karlos Ueskako borroka onen ostetik, eliz-trozel edo zerupean sartu eben eleizara, eta "*Te Deuna*" abestuta Barbastrorantza urten eban.

1.837an Loraillaren 16an Vn Karlosek zirikitasunezko ibillaldi orregaz, bertoko indarrak murriztuta itxi ebazalako, Espartero Oiartzunen sartzen da.

1.837an Loraillaren 17an Esparterok Irun artzen dau.

1.837an Loraillaren 18an Esparterok Ondarribi artzen dau.

1.837an Loraillaren 24an Esparterok, Ernanin sartu zan.

1.837an Lorailaren 24an Ueskan, Borbon eta Parmatar Sebastian Gabriel errege seme karlista gudal nagusiak Iribarreneri irabazten dautso, Iribarren liberal gudal nagusia bertan ilda.

1.837an Loraillaren 29an Esparterok Andoain artzen dau.

Baiña alde biak emen geraldin bat egin bear izan eben, ainbeste borrokari eusteko diru ta janarien ezean agertuta, gudarien matxintasunak agertu ziralako

1.837an Bagillaren 2an, Sebastianar Gabriel karlistak bere gudalozteagaz, Oraatar Martzelinoren liberal indarrak Barbastron menperatzen dauz.

1.837an Bagillaren 4an eskozezak matxinatzen dira eta Ernanin sartuta, matxintasun ori Ingles ta Espainolaren gudalozteetan zabaltzen da. Euskal Aldundietan bardin antzera sortuta, gudarien artean ezin ebazalako janari, jantzi ta tresneriak banandu bear ebezan neurrian.

1.837an Bagillaren 4an liberalaren jaurkintzazko ministruak antolatuta, beste azpikarizko antzezleri bat sartzen da karlistaren antzokian, Abinaretatar Eujenio, eta bera arduratuko zan Baionatik azpiko mezuetan, karlistaren erabakiak liberalaren aldera bialtzen.

1.837an Bagillaren 28an, aurrerakuntzazko konstituzioa aldarrikatzen da, bere mamian ez ebana ekarten beste gauzarik, 1.812an egin eben Kadizeko menpetasunezko konstituzioa Fuegoakaz eraberritu edo mozorrotuta agertu baiño.

1.837an Uztaillaren 15ean Txibako borrokan, Oraatar Martzelino liberalaren indarrak, Sebastianar Gabriel errege seme-ordearen agindupeko karlista guda indarrak menperatu ebazan, karlistak urten ebenetik, antolamenduzko prestakuntzan ardura gitxigaz asita, Zinka ibaia aldatzen egon ziranean, kañoiak estukuntzaren premiñagaz ibaiaren beste aldean itxi eta aurrera egin bear izan ebalako.

1.837an Dagonillaren 17an, Almansako guda taldea ta Zurbanoren basa gerlari liberalak matxinatu ziran, eta Gazteizko Urian sartuta, Gonzaleztar Liborio orokorrezko agintari komandantea, Royotar Blan kapitaiña, Lopezzar Ramon guda agintari nagusia beste agintariekaz, Kanotar Diego Aldundiaren orokorrezko diputadua, Arandiatar Manuel diputadua eta Aldamatar Jose lege gizona, gobernuko aldizkariaren zuzendaria izan zana, il ebazan.

Emen amaitu bear eben guda au, baiña iñork ez zan ausartu alangorik egiten.

1.837an Dagonillaren 24an Uranga karlista guda nagusia Urizarreko mendi kateagaz egiten da, bere bideak Errioxako erri ibilbidearen ardatzak izan da, garrantzi andikoak ziralako.

1.837an Dagonillaren 24an "*Villar de los Navarros*" erritxoan, Borbon eta Braganzatar Sebastian Gabrielen indarrak, Buerensen liberal indarrak menperatzen dauz.

1.837an Dagonillaren 26an Iruñan, Uriaren babeslari liberal gudariak matxinatzen dira, Sarsfieldtar Pedro ta Mendibil guda nagusiak ilda.

1.837an Urrillaren 28an Esparterok Bribieskatik, Espainako gortekoai jakin arazian ipini eutsen, gudarien egoera txarra izan zala, diru, janari eta jantzirik ez ebalako euki, Ebroko Miranda errian geratuta, eta gudarien artean zuzentasunezko araupea ezartzeko, 30eko egunean Zeballos eta Eskalera guda nagusien ilketan kide izan ziren artean, 10 gudari artuta tiros il ebazan.

Eta egun batzuk geroago Iruñan, Sarsfield guda nagusia il ebalako ordain edo mendekaldi lez, Iriartetar Leon koronela, Barrikat tar Pablo komandantea eta beste 8 sarjentu tiros il ebazan, Nafarroako askatasuna aldarrikatzen alegindu ziralako aitzakiarekin.

1.837an Iraillaren 14an Andoaingo borroka.

Iraillaren 12an Vn Karlos Madrilleko ateetan zirikituzko ibilladian egoala, O'Donnellek Donostitik urten da, Ernani ta Urnieta erasotu ebazan, karlistak Orio ibaia aldatuta Andoaian ingurura joanda.

Liberal indarren aurrerakuntzan, ingelesaren ordezkoko lejiñoak 120 baserri baiño geiago erre ebezan.

9 eta 13garren egun bitartean talde biak ibili ziran bata besteari zaintzen, eta karlistaren Uranga gudal nagusia oartuta, Nafarroatik urten eban bere gudaloztea babesteko.

14an Noainen borrokatu ziran eta sarraski aundia egon bazan be, andiagotu egin zan, baserritarrak karlista gudariekin nastean, inglesak ilten asi ziran orduan. O'Donnell bera be, ozta ozta iges egin eban.

1.837an Iraillaren 12an erregearen zirikituzko ibillaldia Madrillera eldu zan, baiña baleiteke Espartero urbil egoalako, edo ta Maria Kristinak len Vn Karlosekin egiune baten ibili bazan, orain ez ebalako bear, Iraillaren 14an Vn Karlosek Madrilleko erria ganora barik itzi eban bertan eta 1.837ko Urrillan Euskalerrira itzuli zan zirikituzko ibilbide ori amaituta.

Karlista gudariak ondamen lez artu eban ekintza au, eta erritar nai gudari artean eztaibadak sortu ba ziran be, danak itxitasunera bideratuta geratu ziran guda amaitu arte.

1.837an Urrillaren 25ean Vn Karlosek, Artzeniegako aldarrikapenagaz amaitu eban zirikituzko ibillaldi ori, eta bere alde egon ziran jakintsuen artean artegatasun edo giro-txarrean itxi ebazan.

Geiago artegatu ziran, Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak Artzeniegako espetxean atxilotu ebazanean, Kabañas Karlosen guda-ministrua agintaritzatik kendu, Billar gudal nagusia erbesteratu, Morenotar Gonzalez orokorrezko gudaloztearen buruzko agintaritzatik kendu eta Borbon ta Parmatar Sebastian Gabriel erregearen seme ordea baztartuta, euren orde z Negri'tar kondea, Granadako dukea eta Etxebarriatar Juan apaiza ipini ebazanean agintari.

Erregearen zirikituzko ibilbide onek, gudal agintari nagusien artean ez eban sortu edo zabaldu, banaketak, iskanbillak eta bekaizkeriak baiño besterik ez, gero 1.839an Marotoren saldukeri bidez, gudal nagusien tiros ilketetan amaituko zana.

1.837ko Azaroan Muñagorri, Espainaren gobernuko lendakari Bardajì Azararengana bere "*Bake ta Foruen*" asmoak aurkezten joan zan Madrillera, eta onartu ondoren, Bardajìk milloi baten lauerleko saria emon eutson, asmo ori aurrera eroan egian.

1.838an Urtarrillaren 26an Cabrera ta Griñotar Ramon karlista gudal Nagusiak, ostera berrezkuratzen dabe Morella, Portillotar Bruno liberal jaurlarien eskuetatik.

1.838ko urte asi onetan Menkos liberal gudu nagusiak, bideak zabaldu eutsozan Muñagorriri, Toreno kondeak ezagutu egian bere "*Foru ta Bakezko*" asmo ori.

1.838an Otsaillaren 3an errege agindu batek, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak lengoratu egiten dauz. Amarrukeria edo azpiko joko bat baiño besterik ez zana izan, Euskalerrian egoan gizarteko naste borratea bertakoak konpondu egiezan. Eurak munduko indar eta denbora gustia euki ebalako fazizta mendeku orreik ezartzeko gure Euskalerrian

1.838an Jorraillaren 18an Muñagorrik Berastegitik, Giputz eta Nafartarrentzat bere "*Bake ta Foruen*" aldarrikapena egiten dau, Euskaldun Foruak Vn Karlosen ondorengo inguruetatik banandu dagiezan, eta agintari barri mendean, Euskal Foruak zaindu gengezan.

Muñagorriren aldirrikapen onek, urduritu ebazan karlistak eta liberalak, bere nastezko mezu orrek, karlistarengandik aldentzea eskatzen ebalako eta liberalai, eurak ezereztu gure ebazan Euskal Foruak, eukezan Lege Zarreko izatasunean iztea eskatzen ebalako.

Muñagorri liberala izan zan, eta Euskaldunai eskeiñi euskun "*Bake ta Foru*" ori, nastezko sare-arteko txebera bat baiño ez zan izan, guda amaituta, bera bere aberastasuneko aukeran aurrera egiteko eta Euskaldunak ezeren aukera barik, Espainol menperatzailleekin konpondu gindezan.

Dana dala, Euskaldunentzat biak izan ziran sare-arteko txebera aundiak, Europako liberalagaitik erabakituta egon zalako gizartearen eskubide guztiak ezereztutea, eurak ezeren eragozpenik gabe, Norkerizko sasi-jainkotasunean irauteko.

Ala gaur, besterik ikusten al da ?

1.838an Loraillaren 7an, karlistaren gudalozteetan matxinatzen asita, Uranga karlistaren gudal nagusiak idatzi eban: "*Lizarrako 5º taldean, aurrerantza doaz matxintasunezko surmurruiak eta gudu alkarteari, eurei ordaindu dagiotzezala zor jakiezan lan sariak eskatzen dautse, gudal elkartea ilteko keiñuan*".

"Talde guztiak egoera bardiñean dagoz eta Lizarrara etorri gura izan dabe, gauza berberaren alegiñean. Naspildutasunezko ausardi oneik seian asita datoz".

1.838an Loraillaren 10ean, Zaratiegi ta Elioren epaiketakaz batera Lizarran, gudal elkartea batzen zan etxea arrapaka saskildu eben matxinatuak.

1.838ko urte onetan, liberalaren gudalozte eta egon ziran errietan urduritasun aundiak sortuta egon ziran, Espainako gobernuaren ordaindu eziña betikoa zalako, eta beste aldetik liberalaren gudal nagusiak indarkeriz, erriko Udalai sekula ez ebazan ordainduko diruak kentzen eutsezelako, gudarien janari ta sariak ordaintzeko.

O'Donnellek, Donostiko liberal agintari gogor edo sutsuai, tiros ilko ebazala keiñatu ebazan

1.838ko urtean Marotok, oraindiño euki eban debekatuta itzultzea, baiña Gerge gudal nagusiaren utsegite ta gudaloztearen agintaritzan sortu ziran banaketaren bidetik, Vn Karlosek Marotori deitzea erabagi eban.

Eta 1.838an Loraillaren 15ean Karlosek, Marotori deitzen dautso etorri edin.

1.838an Loraillaren 19an Esparterok, Muñagorrigaz egon naian adoz geratzeko eta berari esateko, oraindiño ez zala aukerarik egon, bere "*Foru ta Bakezko*" asmoa ezartzeko. Ernanin aldarrikapen bat zabaltzen dau: "*Liberalaren aldera joaten ziran karlista gudal nagusi ta edozein lerroko*

gudarien maillakoak, begirunez artuko zirala” esaten ebana. Eta emen bere guzur aundiena: *“Euskalerriko Foruak lotsa aundiekin zainduko ebazala”*.

Zelan zaindu edo babestu gure Foru Legeak, 1.836an Dagonillaren 13an Madrilleko eguras etxean sarjentoren matxinadakin, euren legez ezereztuta egon ba ziran.

1.838an Lorailaren 21ean karlisten matxintasunak Oñate ta Andoainera zabaltzen dira, guda alkarte ta gobernuko *“ojalateruen”* aurka.

Emen gauza bat argitu bear dogu, Vn Karlosen gobernuko gotzain eta ministruak, *“ojalateruek”* zirala esaten eutsenai, ez eutsen emoten garrantzi aundirik, gudariak egiten eban lanari, euren eritzian JAINKOAK emongo eutsezelako guda orren garaipenak. Bai ?

1.838ko Lorail onetan Baionan, Euskalerriko lurralde bakotzatik ordezkari bat eukiko eban batzar bat antolatu zan, Gonzalez ta Arnaotar Bizenteen lendakaritzapean: Araba aldetik Alamedako markesa, Bizkaitik Uhagontar Paskual, Gipuzkoatik Billafuerteseko kondea, eta Nafarroatik Bidarte.

Eta batzar onen ariak izango ziran Muñagorrik erabili ebazanak, karlistaren aldean nastualdi edo matxintasunak sortu zitezen. Liberalak, 1.839ko Urtarrillan Muñagorri alboratuta ezereztu ebena, *“Forubako Bake Gizona”* eta azpikari trebea aurkitu ebelako Abinaretagaz.

1.838an Bagillaren 20tik 22ra, Urizarreko mendikateetan ⁽¹⁾ Espartero liberalak, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio karlista guda buru nagusiaren indarrak menperatzen dauz, eta Bagillaren 25ean Vn Karlosek Gerge karlista guda nagusia agintaritzatik kenduta Maroto izendatu eban.

Karlistak emen banandu ziran, sortu ziran alde bi onein erdian gorroto edo ezin ikus aundiak sortuta.

Marotoren alde, Elio, Zaratiegi, Gomez, Urbiztondo, Billarreal, Ramirez ta Igeritegitar ⁽²⁾ Aita Zirillo, Erro eta Borbon ta Parmatar Sebastian errege semea egon ziran.

Marotoren aurka, Fray Domingo Leongo gotzaiña, Aita Larraga, Etxebarria, Arias Teijeiro, Labandero eta Montero, Garzia, Gerge, Moreno, Sanz eta Cabrera guda nagusien laguntzagaz.

Maroto ta Esparterok, artu emon onak euki ebezan Amerikaren kolonizaziozko gudatan alkar ibili ziralako, eta alde bietan sal-erosle ibiltzen zan Borgotako mandazai Etzaidetar Martin alde batetik, eta Bilboko ingles guda itsasontziren abia-lekuan egon ziran Hay eta Wilson guda nagusien bitartez bestetik, asi ziran Maroto ta Esparterok guda amaitzeko alkar izketak.

Iñok ez eban igarri Marotok erabilten eban azpiko joko ori, Karlosek guda loztearen agintaritzaz emon eutson orduan, karlista guda lozteak ezin obeto era berri ebalako, gudariak len euki eben indar ta kementasunera aldatuta.

Muñagorrik bere bizi kondairan esan dogun lez, bigarren alegiñetan asiko zan emen, alperrik baiña, Espainolak bera baiña obiagoa aurkeztu ebelako.

(1)Urizarreko mendi-kateetan = cordillera de Peñacerrada. (2) Igeritegitar = de la Piscina.

Espainolentzat, Abinareta izan zan benetako gizon saltzaillea, "*Fuero-bako Bakea*" eskeintzen eutsezalako eurei, eta len bere azpi jokoa aipatu barik geratu dan lez, salatari onek Baionatik ibilten ebazan: *Donostiko Udaletxearen idazkari Alzatetar Lorentzo, Gipuzkoako lurraldean politikako buru Amilibiatar Eustasio, Ernaniko Alkate Goikoetxeatar Inazio, karlistaren lurraldean bizi zan Arizmenditar Mariano eta olako agintea euki eben judas edo salduko Euskal gizonak erabilten ebazan*, espainolari bere ixil jokoan saltzaillezko mezu orreik emoteko.

1.838an Uztaillaren 15ean Espartero, Biana ta Lodosaren errien arteko Labraza erritxoan sartzen da.

1.838an Uztaillaren 24tik Dagonillaren 24ra Morellan, Kabrera ta Griñotar Ramon karlistak, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño liberalari irabazten dautsie.

1.838an Urrillaren 1ean Zaldubako ⁽¹⁾ Maella erritxoan Kabrera ta Griñotar Ramonek, Pardiñas liberalaren guda nagusia menperatzen dau, liberalaren talde aundiena ezereztuta, Pardiñas bera be il eta geratu ziran 1.300 gudariak ozta ozta Kaspera elduta, eurei laguntzera etorri ziran Albareztar Paskual koronela eta Blaser ta San Martintar Anselmo Zigako markesari esker.

Kabreraren esanetan 3.115 gudari euren agintariekaz atxilotu ebazan.

1.839ko urte onetan Maroto arriñago ez bazan asi, Isabelen guda nagusiakaz asten da berba egiten.

1.839ko Urtarrilatik, Vn Karlos erregearen guda tegian Tejeiro guda nagusiaren aldekoak ziranak, eta Marototarren artean asten dira, gero ta biziago izango ziran eztabaidak; marotistak bake billa, Isabelen guda nagusiakaz alkar berba egitekoaren aldekoak ziralako.

1.839an Urtarrillaren 15ean Marotok, Vn Karlosen ondoan azpikari lez ipini eban Garzia ta Orejontar Jose bidez, Esparteroren bigarrenagaz berba egiten dau, alkar izketa orreitan urrengo mezuaren antolakuntzak ezarrita. Marotok ortik aurrera, Garzia ta Orejontar Jose bitartekoekin Esparterogaz, artu emon aundia euki eban.

1.839ko Otsailan Maroto beren guda lozteagaz Tolosara joan da, Gartzia ta Sanzta Pablo guda nagusia eta Ibañez idazkaria atxilotzeko agindua emon eban, gudariak matxinatu zitezen alegiñetan ibili ziralako. Uriz ta Karmona Lizarrara bialdu ebazan, Garzia ta beste guda nagusiekaz alkartu zitezen eta matxintasunezko alegiñ orreik ez ba ziran geratzen, danak tiroz ilko ebazan keiñada egin eutsen.

1.839an Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok antolatzen asi ziran 1.839ko egiunearen alkarrizketak.

1.839an Otsaillaren 17an Maroto Lizarran sartu zan bere guda lozteakaz eta gaba orretan, Garzia guda karlista nagusia arrapau eban Lizarrako ate baten, apaiz jantzita iges egiten egoala.

1.839an Otsaillaren 18an Marotok, Garzia, Sanz, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Karmona brigadierra eta Uriz intendentziako arduradun karlista guda

(1) Zalduba = antiguo nombre Euskeriko de Zaragoza.

nagusiak, Esparterogaz bere izketaldi orrean aurkakoak ziralako eta gudalozteak beren aurka matxinatzen ibili ziralakoen aitzakiagaz, bostak tiroz ilteko agindua emon eban.

Marotok, Vn Karloseri bere maltzurrezko jokoa ostonduteko, ez eutson esan ezer ilketa orreik egiten joan zala, bestela epaiketaren bidez bere azpikerizko joko ori jakin ebalako agirian geratuko zala, eta guda nagusiak aske itxiz gain, bere lagun aundia zan Esparterogaz Espainaren alde saldukeriz ibili ziran egiten bakezko alegiñak utsean geratuta, bere bizia be dangilizka geratzen zalako.

Orregaitik eta Vn Karlosen bigunkeriaren aurrean jauntxu agertzen zalako, guda nagusi orreik judazkeriz, ezeren epaiketa barik bialdu ebazan eriotzera.

1.839an Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren orma ostera eroanda: Gerge, Garzia, Sanz, Uriz eta Karmona Karlosen guda nagusiak tiroz il ebazan bostak.

Bertan dago burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

Eta Lizarrako illerrian, guda nagusien arrillobian dagoz euren gorpuak obiratuta.

Arrillobi orreitan ereñoztatuko gurutz azpian ta liseko lora artean burni xafla bat dago Nafarroako antziñatar edo tradizio zaleak idatzita:

"Dios, Patria, Rey. A los Generales Carlistas Garcia, Sanz, Guergè, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839. Dedicán este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I. P."

1.839an Otsaillaren 20an Marotok eskutitz bat bialdu eutson Vn Karloseri, sortu ziran gertakizunak beren erara oarturik egiezan.

1.839an Otsaillaren 21ean, Vn Karlosek, azpi-suge edo saltzaille bat zala asarre salatuta, Maroto kendu eban bere agintaritzatik. Maroto Baiña, egoeraren nausia zan eta Vn Karlos ez zan gauza izan Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839an Otsaillaren 24an Karlosek, agindu baten bidez ostera izendatzen dau Maroto guda nagusi lez, eta Zaratiegi ta Elio guda nagusiak askatu ondoren, Marotoren aurka egon ziran guda nagusiak Frantzira erbesteratu ebazan. Ortik aurrera, zalantzak gogortzen asi ziran.

1.839an Otsaillaren 25ean Maroto, Vn Karlosen aurrean aurkeztu zan, ilketaren gora bera ezer aitatu barik.

1.839an Epaillaren 3an Marotok, ostera zalatzen dauz erbesteratuta egon ziran guda nagusiak, eta berak jakin ez arren, bertan be eukezan bere aurka asita egon ziran guda nagusiak. Gertatu zan dan guztia, Marotoren maltzur eta saldukerizko jokoagaitik sortu zan.

1.839an Jorraillaren 17tik Lorailaren 13ko egun bitartean Kantabrian, Ramaleseko borroka.

Maroto izan zan karlista gudaloztearen agintari eta Liberal gudaloztearena Espartero.

Liberalaren indarrak bikoiztu egiten ebazan gaiñetik karlistarena, eta laukotu egin ebazan Marotok, 17 batalloitik 8 bakarrik ibili ebazalako.

Geiago, Guardaminoko gaztelua babesten egon zan Karreras gudal nagusi karlistari, Marotok borrokan asi orduko etsaimentzeko agindu eutsonean.

1.839an Jorraillaren 27an karlistentzat ain garrantzi andikoak izan ziran Moro ta Mazo mendi bizkarrak, Marotok aurkako alegin aundi barik itzi eutsezan liberalai.

Gero borrokatu ziran gogor euren gazteluak zaintzeko, baiña atzeratu bear izan eben kalte aundiekin, Guardaminoko kañoien babesera.

1.839an Loraillaren 8an Esparterok goizetik, Guardamino ta Ramaleseko gazteluak erasotzen dauz, arratsaldeko lenengo orduetan barrura sartuta, berton egon ziranak baiña sua emon eta iges eginda, utzirik egon ziranak.

1.839an Loraillaren 11n Karlistek, Bizkaian Karrantzako ibarrean euken aurkako mugatik alde egin eben.

Gudari karlistak bitartean, saldukeria egon zala asi ziran gogoratzen eta gaur badakigu egia zala gudari karlistak susmatzen ebana.

A ta guzti borroka gogorra egin eben, alde bietatik 2.000 illak egon ziralako, baiña karlistentzat borroka au asko esan gura eban, Guriezon kañoitegiko labak galdu ziralako eta Kantabriako bideak moztu.

1.839an Loraillaren 13an Guardaminoko gaztelua inguratuta geratu zan eta Marotok bertan egon zan Karreras zuzendariari aginduta, liberalari etsaimendu eutsen gaztelua eukezan guda tresneri guztiagaz eta liberalak arrapau ebezan gudariak karlisten aldera bialdu ebazan baldintza onegaz: Ezin ebela izkillurik artu, arik eta eurak, beste ainbeste gudariekin truke egin arte.

Karlistek Gordejuelan, galdu ebezan Molinarreko gaztelu eta Guriezoko kañoigintzak.

Espainako gortekoak Esparterori, garaipenezko ekintza onen guztiagaitik "*Garaipeneko Dukea*"⁽¹⁾ izendatu eban.

1.839an Loraillaren 19an Muñagorrik Auñamendiak aldatuta, Urdaxeko gazteluagaz jabetzen da denboraldi baten.

1.839an Loraillaren 22an Maroto antolaketak egiten asi zan, Frantziko gobernuak, artekaritzazko ardurak artu egiezan gudalozte bien artean, eta onen erantzuna ez ebalako on artu, inglesarena billa asita, Uztaillaren 20an Lord Hay'ekin lortu eban artekaritza.

1.839an Loraillaren 29an Esparterok Balmasedan sartzen da.

Argi dago emendik aurrera eta bai ariñago be, ez zerala geiago borrokatu bear, Vn Karlosek baiña bere gudalozteetan indar aundia eukela ikusita eta ainbeste urte borrokazko alegiñean ibili ondoren, zalantza aundiak euki ebazan bere barnean.

1.839an Bagillaren 28an Soult Frantzez mariskala, Luis Felipe erregearen izenean artekari lez ipini eban, Karlos eta bere emazte Beirako Dukea Espainako erregetzari ukatuta, eurak gura eben erbesteko etxe baten bizi

(1) "Garaipeneko Dukea" = Duque de la Vitoria".

zitezen, eta uzte au ez ba eben onartzen, Espainako kondea ta Kabrera guda nagusiak sinatu egiezala erabagi oneik.

Beste txatal bat be euki eban agiri onek, Maria Kristina erbesteratu, eta bere alaba In Isabel Karlosen seme nagusiagaz ezkondata Espainako errege zitezen, Euskalerriko Foru Legeak 1.830n urte arte orduko euki ebazan jabetasunean beti lez itxi eta gudari karlistai euren maillakin Espainako gudalozteetan lerrokatzeko almena emoten ebana.

Elkar izketa oneik eta gero aipatzen diranak, ez eben euki aurrerakuntzarik, Espartero lenengo eta Espainako gortekoak Euskalerraren menpetasun atzean ibili ziralako.

Eta egizko arrazoiaren aurka, saldukeri ta indar bidetik alan gertatu zan, indarkeriaren keifnuagaz eta guzur ta amarrukeri utsekin Euskalerrria menperatu ebalako.

Gaurko Euskaldunak, indarrezko guzur aundi ori da gaiñean daukaguna, Europaren aurpegian egia aurkeztuta argitu ta garbitu bear doguna, Euskaldun lez bizi gura ba dogu.

1.839an Uztaillaren 20an Marotok, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay itsas untziren kapitaiñagaz berba egiten dau, karlista Diego de Leonek guda nagusiak Ellioten ituna apurtu ebala aitzakiarekin, gudalozte bien artean Inglesaren bitartekoa billa ibili zalako.

1.839an Uztaillaren 20an Esparterok, Urkiolako San Antonio artzen dau, karlistai atzeratuazota.

1.839an Uztaillaren 29an sortu zan Espartero ta Lord Hayen arteko elkarrizketa, onek Esparterori aurkeztuta Marotoren adierazpenak.

Esparterok on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña berak Espainako jaurkintzan aurkeztu ta gero esan eutson. Eta Espainako gortekoak, Karlosen gudalozteak Isabelen ama Kristinaren aginpean geratzen ba ziran, erantzun da.

Alkarrizketa oiek, karlista gudarien belarrietara eldu ziran eta Bera, Lezaka ta Urdaxen Marotoren aurka matxinatu ziran.

1.839an Dagonillaren 19an Vn Karlos bera be salduta, Maroto bere agintaritzan legeztu egiten dau.

1.839an Dagonillaren 22an Espartero Durangon sartzen da eta alkarrizketak azten dira alde bietako guda nagusien artean.

1.839an Dagonillaren 24an Maroto, liberalaren guda nagusi Zabalagaz alkartzen da, Marotok aurkeztuta, Esparterorekin berba egin gura ebala. Eta Marotok bere guda nagusiekaz berba eginda Vn Karloseri esan eutson zelako asmoak euki ebazan.

1.839an Dagonillaren 25ean, Elgetan erri agintari eta guda nagusiekaz egin zan batzarrean egon zan Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariak lenengo gazteleraz eta gero beste bateri aginduta euskerara itzultzeko berba egin ebanean, Marotok gudariak keifnu eginda, gudariak Maroto ta pakea asi ziran aldarrikatzen, eta Karlos laguntza barik ikusi zan ezkerro Lekunberrirantza iges egin eban.

1.839an Dagonillaren 26an Abadiñoako San Antolin basilizaren izketaldian euki eben lenengo ikuste Maroto ta Esparterok. Nik ez dotena sinisten.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez eban siñatu gura Marotok baiño.

Agiri onen zentzuak, Foruen baieztatzea, ta Espainaren aberriko legeakaz adoztasunean etorten ba ziran: *“Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia”* esan gura eban.

1.839an Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta Marotok, parkamena eskatu eutson Vn Karloseri, eta gudaloztearen prestakuntza agindu eban kristino gudaloztearen aurka.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari-taldearen guda nagusiak ez eban onartu agindu ori, eta or erabagi zan gudaren amaiera.

1.839an Dagonillaren 28an Marotok, iñoren laguntza edo baimenikgabe de la Torretar Simon guda nagusiarena izan ezik, ontzat artu eban Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839an Dagonillaren 30ean Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu eban.

1.839an Dagonillaren 31n Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezan gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko eba eskeintzagaz.

Baitzezko berba orrekaz, gure *“Foru Lege”* edo *“Lege Zarrak”* Espainako gortekoaren naikerizko borondatean geratu ziran eta Espartero bera izan zan lenengoa, bere espateagaz Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839an Iraillaren 3an Bizkaiko Aldundia, Elorrion oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora aldatu zan, Aretxabala guda nagusiaz Foruaren gora beran berba egiteko,

1.839an Iraillaren 4an, Dalloko apaiza bere gudariakaz Poblaziñoako errian errendatu edo etsaimendu zan, Bergarako egiune onartuta.

1.839an Iraillaren 10ean, Nafarroako Aldundiak aldarrikapen bat egiten dau, sasi gudan ibili ziran taldeak aienatu edo ezereztu zitezen, garaitzaille guda nagusi (1) *“Garaipearen Dukea”* (2), Espainako jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen artean, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak euren legean babestu edo eraberritzeko.

1.839an Iraillaren 14an Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka uztea erabagitzen dau, eta Dantxarineatik oraindiño leial eukezan Arabatar eta Napar gudariekin Añamendiko mugatik Frantzira aldatu zan.

1.839an Iraillaren 25ean Araban, Bergarako egiuneagaz babestuta, Gebaratarren gaztelua errendatu edo etsaimendu zanean, amaitu zan Euskalerra ta karlistaren alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxeetara joanda.

Eta Katalanak izan ziran Karlosen ikurra aurrera eroan ebena 1.839ko Dagonillatik 1.840ko Bagillararte.

(1)Garaitzaille guda nagusi = invicto general. (2) Espartero.

1.839ko Urrillan Euskalerrria gudariz beteta itzi ondoren, Espartero 44.000 gudarigaz Zaldubara joan zan, bere gualtegia Mas de las Matasen ezarrita.

1.839an Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako "Foru Legeak" bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: "*Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia*".

Eta beren bigarren idazkunean, gure "*Foruak, Espainako erreinuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta*" esaten ebana.

1.840an Urrillaren 12an Esparterok, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, Espainako jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera gure Euskal Legearen zauriak zabaltzen asiko dira.

1.840an Abenduaren 15ean Espainaren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak, Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz.

1.841ean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure "*Foru Pasaia*" (1), ezereztuten dau, Espainaren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841ean Dagonillaren 16an Espainako jaurkintzak Nafarroako Aldundiaren baimenagaz, 1.839an Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezeren jaramonik egin barik, lotsagarritzko "*Ley Paccionada*" ezarri eban.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Esparteroren aurka, O'Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen, Muñagorri be ilda, bere goiko kondairan esan doten lez, eta Espartero garaipenduta, ez eban galdu aurkeztu jakon aukera ori *1.841ean Urrillaren 29an gure "Foru Legeak"* ezereztuteko.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, kristino gualozteetan gual buru nagusi lez, eta Marotoren etxeko kondea izendatu eben.

Marotoren saldukeria eta Esparteroren maltzurkeriak, lenengoetatik argi ikusten diranak dira.

2. 1'go karlistadako lan guzti onen Ondorioa.

Orduko denboretan kokatzeko, eta txoriak euren goiko zerutik ikusten daben antzera, nik uste dot alango begiraldi bat emon bear dautsagula Europako antzerki zabal oneri, giza ta errigizarte artean zer gertatzen zan ta zelan jokutzen eben berezko ekandu edo oituraren arauzko antolamenduakaz ikusi ondoren, jakin degun zer gertatzen zan denbora aietan.

2.1. Len: Lur, Aize, Ur, Zuaitz, Landara, Abere ta Gizaren Eskubideak.

Gure arbasoen amaibako eragipidetik ikasi genduan zer egin, Gaiak, bere izaerazko ezberdintasunaren ataltxo-alkartasunean ta zabaltasunean aurkezten dauzkuzan diteken (2) almen guztiakaz.

Jainkoari begira, bizitzaren egipidezko arlo zabal guztirako ordearen arduradunak danok eginda gagozela, eta Beren Legeak bizi garan guztiei bakez

(1) Foru Pasaia = pase foral. (2) Diteken = posibilidades.

irauteko, oituraren edo ekanduzko orekak baiño besterik ez dabela eskatzen jakinda, bizitzaren edestiko denbora guztiak bardifiak dirala erakutsi euskuen.

Gai-Legezko Baitaren beartasunezko eskaera bidez, asieratik asi gintzazan gure Baitan nortasunduten antolakuntzazko eran ditekizan gauza guztien almenak, eta gizarteko egipidearen ekanduzko arloan konturatu, zor eskubideak dirala ikurrezko elburuak.

Jainkoaren Bizitz oneri, adierazpen ederragoagaz egiztatu edo erantzun al geinke ?.

Nik ez dot uste, Jainkoa Berak daukalako Lege orren baldintzakaz oiñarrirituz edo erperatuta Gaiaren zentzua, gure Baitan konturatu gindezan.

IVn gizalditik ona baiña, batzuegandik norberia legeztu zan, eta danok gure Baitaren arrazoizko argibidez dakigu "*norkeria*" lapurtza baiño besterik ez dala.

Europaren edestitik, ainbat menperatzailetasunezko arau-berrizte eta orren lege barriztearen aurkako aldi gogorragaz sartzen gara XVIIIIn gizaldi onetako gizarte eta erlijioaren aldetik.

Trebetasunezko erti-lan ederretan, apain-jariozko ordezenetik (1), zillar edo argi ta garbitasunen erinketako (2) aldira aldatu gintzazan, aurrerakuntza aundiak eginda.

Baita, XVn gizaldian Europaren gizartea ekanduzko bakera bideratzeko izan bear ziran, *sutauts edo lerrauts, itsas-orratz, irarkolana eta ontzi oialetarako aurrerakuntza aundiak*, danak, etortezan norberizko asmo orren serbitzuan ezarrita, ez eben balio sasi jainkotasuna indartu ta borrokak gogortzeko baiño besterik, berezko arrazoia naste aundiagoetan sartuta.

Eta *Nortasun ta Norkeriaren* gudazko eztaibada odoltsu orrekin eltzen gara XVIII-XIX ta XXgarren gizaldi oneitara.

2.2. XVIII-XIX ta XXko gizaldetan, Europako Gizartearen konponbideak.

Gizaldi oneitan aurrerakuntz guzti orreikaz norberia garaipenduta arautatu zan bidetik, guzurra ta lapurtzak goratu ziran euren adierazpen aundienetara, eta ez gara arritu bear: *Erriak, norberien arauetara menperatzeko egiten ebazan kolonizazioakaz; Yopu gizon emakumeen sal-erosketagaz; Itsas lapurtzagaz; Beltz merkatuakin; Erligiñoan agintzen ebazanak dogma arauzko keiñuan indarrez egiten ebazan inkiziziozko erio-zigorrekin, gizarteko gizon emakumearen bizitza euren norberizko serbitzura egon ezik, ez ebalako balio ezer; Gudal nagusien artean euki eben zigor-gabekeri ta agintarako larderia; Danok sasi jainkotasun orren serbitzura egotea; Ta erritarren txirotasunezko eramankizunagaz".* Europak, garaitutako norberia orren bidez, itxura ori emoten eban.

Euskalduna, Ego Amerika ta Europako jakintsuak gaur esaten daben lez,

(1)Erti lan ederretan, apain-jariozko ordezenetik = dela representación cargadamente oscura "Rococo" de las bellas artes. (2) Zillarraren erinketako aldira = tiempos de la luz y el refinamiento en las bellas artes "Plateresco".

sekula ez da izan menperatzailea, bere nortasunaren izatasunezko oituran, giza semealabak legez daukan zor eskubidearen aldekoa dalako, eta sinismen orregaz, askatasunezko demokrazi on baten eritzikoa izan dalako beti.

Euskalerrria, Europako denbora orreitan danon antzera baiña, erri ta giza lez bizirik irauteko, ez eban euki norkerizko arautegiaren txeberazko sare orretatik urten biderik, eta European ainbat borrokaldi nagusiak euki doguz gaur arte, norkerizko asmatzaillearen gero ta gogorrezko guda legeak, Jainkoak ipinita daukazan Legeakaz topo egin arte.

Guzurra esan leike dala, baiña alan da, norkeriaren asmatzailleak ez dabelako gaur lez burua makurtzen, amiltegiko nabaritasunaren aurrean agertu arte.

Eldu gara amiltegiaren nabaritasunera, eta besterik ezin egiñean, eldu gara arrazoizko izketaldira.

Or, alegindu bear gara gaurko Euskaldunak, gure edestiko gertakizunak ondo jakin eta gure *euskal gorpuaren zauriak Euskereagaz ondo osatuta*, European aurrean aurkeztu degun Euskalerrriaren egi aundia.

2.3. Euskalerrriko errigizarteak, 1'go karlistadako gudan igaro bear izan ebazan larrialdiak.

Karlista ta Frankoren guda ostetik, maltzur, guzur ta larderizko denborak izan dira, gazteak, euren norkerizko ulermenean ezarri zitezen, eta euren asarre bidez, sarritan entzun dodaz esaten, *zer ! egin dabe gure aurrekoak ?*.

Nik, badakit gure gazteen berba orreik, daukien ezinkorrezko larritasun aldetik urtetan dautsezela, arrazoizko egiagaz egiten dan ainbeste maltzur nastezko bidetik, gagozan jakintasunezko denboratan ezin dabelako ulertu, bizitzazko arlo guztietan euri gertatzen jakiezanakaz.

Orregaitik eta goian esan dodan lez, txori begiraldi bategaz aurkeztuko dautsuet, Euskalerrriaren edozein erriko antzerkian zer gertatzen zan, karlistaren guda bidetik.

Eta karlista guda ostean liberal faziztarekin, ta geroago Frankoren faziztak garaipendu ziranean, Euskalerrriko gizartea zelan geratu zan euren oinpean iñorako urten bide barik morroilpe.

Begitu daiguzan ba, goian azalkatu dodazan borrokarekin, mendi baten albo bietatik zelan doiezan millaka liberalaren lantzadun zaldunak eta oiñezko gudariak euren izkillu ta kañoiezko tresneriekin, mendi orren aurrean egon zan erritxoan karlistak arrapatzeko.

Eta karlistek iges egin ebelako edo an ez ziralako aurkitzen, erriko agintari, apaiza ta maisua erritarrakaz plazaratu, eta iltzeko keiñada edo meatxuen galdeketakaz ez ba ebezan eurak jakin gura ebenetik ezer lortzen, erritarren arteko amar edo bostetik, gizon edo emakume bat artuta tiroz ilten ebazan danon aurrean.

Eta zelan gizon edo emakume baten batetik bildur bidez, zeozer jakiten ebenean eta eurentzat garrantzizko gauza izaten zanean, erritar geienari abere ta diru guztiak kenduta, erriak erre egiten ebazan, erritarrak txirotasun aundienean itxita.

Bai mendiak erre be, liberalak basarteetatik aldatzen doiezala, karlisten susmor aurkitzen ziranean.

Goian aipatu dogu, zelan Karl Ferdinand Henningsenek liberalaren aldeko Inglesak, denbora onetan esaten ebala, *IIn Isabelen gudalozteak Nafarroaren errietatik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren zarraskiko asperkeriak.*

Gure Euskalerriko errietan, orduko gizaseme emakumearen artean: *bildur, ogibide, jende mea, edo ta nortasunaren eritzizko izaeran ainbat naste egon zalako*, sinismeneko eritziaren arloetan naste aundiak egon ziran liberal edo karlisten alde bietan, eta geienak abertzaleak izaten ba ziran be, salaketaren bildur aundiak egon ziran, liberalaren zigorrez gain, Zumalakarregik berak be ainbat eriopeko zigorrak aginduten ebazalako, euren aurkako zelatan ibilten ziranai.

Eta oraiñarteko guda guztien ostetan ?.

Gaur bizi garan geienak dakigu 1.936-1.939ko urte artean, Frankok, berezko lege guztien gaiñetik egin eban basakerizko guda ostean, zelan geratu giñan morroilpe ezer ezin eginik. Eta zeozer egiterakoan, zelan apurtzen genduzan buruak, gogorkerizko guda indar orren aurka.

Guda orreitan alde bietako gazteen ilketaz gain eta negargarrizko inguru-begi ori ikusita, *norkerisko asmakuntzalareien biotzetan ez dabe sendituko damu edo Jainkoaren bildurrik ?.*

Nik uste dok, politika ta erlijioaren jakintzazko goiko maillatik asita *norkeri edo sasi-jainkotasunaren lapurrezko eritzian bizi gure dabela* eta orregaitik ez gara arritu bear, gugaitik esaten dabenean: *“Son como ovejas”*.

Pozik baiña beste alde batetik, *norkerian arautatuko legeak, Jainkoaren legeakaz topo egin dabelako*, eta aurkako borroka nagusi orrekaz aurrera egin ezinik, *arrazoizko alkar-izketaren aldira agertu gara, gure bizitzak Jainkoak gai oneri ezarri Eutsozan Berezko Legeetan kokatzeko.*

Lan aztuna aurrera begira daukaguna.

Itxarokorra baiña, Jainkoak bizitz oneitara eragille lez danori bialduta, eta zor eskubidearen ardurak ordezkatzeko aukera garbiak eukinda, gure bizitzaren amaieran, Jainkoaren aurrean benetako gizon-emakume lez aurkeztu gindezan, munduko gizaren *baitak* poztasun aundienetan kokatuz gain, gai mundu onen jaurkintza, beste zentzu oneko argitasun baten sartuko geunkelako, bearrezkoa dan, arrazoiazen ordezkari ardura bidetik.

2.4. Euskaldun gazteai.

Ikusi dogun edesti onegaz, *Lenengo gazteari esan:*

a) *Gure ariñauko aita-ama, apaiz lekaide lekaiameak, ta agintaritzazko ordezkariak, naikoa egin ebela, guri Euskalerrri eder au, berak gaur daukan demokraziaren askatasunezko sinismen aundian aurkeztuteagaz.*

b) *Ekanduaren gora bera Jainkoaren Lege lez, denbora edo aldi guztiak bardiñak izan da, eta Lege orren ordezkariak bakarrik eskatzen dauskuelako danon Baitari. Beren betiko legea, zuen bizitzazko belaur aldian jatorriz agertuta, zuen ardurazko txanda dala, berezko lege berezi orreik, oraingo eragille lez ordezkatzea.*

d) *Izkillu ta lerkain barik, norkerizko gizon maltzuraren atomozko guda tresnak, Jainkoaren Legeakaz topo egin da beartuta, gaurko edo betiko norkeriaren asmo bidetik urten egin bear dogulako, eta lots-aundiz Berezko Legeak berrezkuratuta, Gai-mundu onek oiñarrituta daukazan Legeakaz, eragille on-lez, gizaren eskubideak zuzendu.*

2.5. Zer egin ?.

a) *Gure Euskalerrri osoan leen, Euskereak emoten dauskun nortasunaren sinismena osatu ta indartu*

Eta Arana ta Goiri'tar Sabinok eskatzen eban antzera, jakintzaren arloak sakon ikasita, bizitzarako bear doguzan arlo guztietako lantegi ta antolatutako elkarteetan sartuta, gizarteko toki bat bera esanda be, ez daitela euskeratu barik geratu, erriaren osasuna sendatzeko.

b) *Gure arbasoen eragipenetik, bizitz oneri ainbeste milla urtetan Jainkoak oiñarritutako Legeari begira, al eben adierazpen ederrenariko bat emonda: **Gure Lege Zaar eta gizazko eskubidearen alde, gaur gure Baitan daukagun askatasunaren demokrazizko egarrrian, jakintzazko egi-bideak artu, Jainkoa eta gure Aiton-Amonakaz daukaguzan zor aundiak ordezkatzeko, bide bakar eta egitsuena dalako.***

d) *Iñoz baiño sinismen aundiagorekin, mundu zabalean eta European batez be argitu ta erakutsi, gure ardurazko eragilletasuna zuzen ta garbienetarikoa dala, konturatu daitezen, alango izar bat ezin dala alboratu, Europa ta Mundua gaur, alango erri-kudeatzaille-on egarri dalako.*

e) *Eta gaur alderdikedetuta aurkezten bagara be, eta garai onen arrazoizko nasteagaitik, sasi edo ez-jakintzak bideratzen gaituen gorroto, bekaizkeri, burukoikeri eta norkerizko arrokeriak baztartuta, Nortasunezko zentzun aundiz beti, gure Euskal Iparrezko Elburua artu bear dogu, goian esan doguzan guztiak ordezkatu gura badoguz.*

Euskaldunak Ipar-lez kontuan euki bear dogu, Espainol kolonigille eritzizko menperatzaileak, Toledoko kaizar irudian daukien lapurkerizko guda indarragaz eta munduko gizaren eskubide guztien gainetik, euren norkeria ezarri gure dabela gure Euskalerrian, eta len bait-len, orko estualditik urten bearra daukagu, Jaungoikoa ta Munduko gizari eskeintzea gura ba doguz, Euskerea bidez, Askatasunezko-Demokrazian lortu genduzan zentzunezko jakintz aundiak.

Euskalerria oso zaarra da, bai gaztea be, eta nik badakit, Euskalerraren oraingo seme-alabak gai dirala, euren ordezeko ardura orreik alai ta sinismen aundiagaz beteko dabezala, eta benetan diñotsuet, zuen belaun aldiaren unetxoa dala Euskalerraren Askatasunezko agert-unea.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.010ean Azaroa'ren 4'an